

Marcel PROUST

ARO GALDUAREN BILA

I

ZUANEN ETXE ALDEAN



Jean-Baptiste ORPUSTAN-ek euskarara itzulirik



Marcel PROUST

Jean-Baptiste ORPUSTAN-ek euskarara itzulirik

(I)

ZUANEN ETXE ALDEAN
(Du côté de chez Swann)

Zati lehena

« COMBRAY »

I

Luzaz goizik oheratu niz. Batzuetan, ezkargia doi-doia iraungirik, begiak hain laster zizaztan hesten nun « lokhartzen ari niz » neure buruari erraiteko astirik ezpainuen. Eta, oren erdi bat berantago, loaren bilatzeko ordu zela gogoratzeak atzartzen ninduen ; oraino eskuetan nuela uste nuen liburuak ibeni nahi nuen eta argia ufatu ; lotarik irakurri berria nuenaz gogoeta egitetik enintzan gelditua, baina gogoeta horiek molde apur bat berezia hartua zuten ; baziduritan liburuak aipatzen zuena nihaur nintzala : eliza bat, musikari laurkunen bat, François Lehenaren eta Karlos Borzkarrenaren arteko etsaitasuna. Uste hori ni atzartu eta zenbait zekunda bizirik bazagon ; etzautan arrazoina gaizki jaitzen, baina ene begietan ezkata batzuek bezala phizatzen zuen eta etzituen ezkoa etzela gehiago phiztua ohartzera uzten. Gero adigarri bilakatzen hasten zen, arima soinez aldatu ondoan aitzineko bizi baten gogamenak bezala ; liburuaren gaia nitarik berexen zen, hartan egon ala ez libro nintzan ; berehala ikuspena berriz ukaiten nuen eta ontsa ustegabetua nintzan inguruan ilunbe bat aurkituz begiendako ezti eta atsedengarri zizatana, baina behar bada gehiago oraino izpirituarendako, gauza arrazoingabeko bat bezala agertzen baitzizakon, ezin adigarri, gauza zinez ilun bat bezala. Banindagon hea zer ordu izan zaitekeen, treinen xixtua entzuten nuen, guti edo aski urrun, oihanean xori baten kantuak bezala, urruntasunari oharr-araziz, erakusten baitzautan bidaiaria gara hurbilenera buruz lehiatzen den baserri hutsaren eremua ; eta hartan doan bidexka orhoitzapenean sartuko zako, leku berri batzuer, ohigabeko egintza batzuer, azken solasaldiari eta oraino

gauko ixilean jarraitzen zazkon gauargi arrotzaren azpian egin goraintzier, etxera itzultzeko eztitasun hurbilduari esker.

Matelak xamurki zapan ezartzen nituen buhurdikoaren matela ederren gainean, beteak eta hotx, gure haurtasuneko matelak bezala baitira. Supizteko bat thorratzen nuen sakel-orenari behatzeko. Sarri gauerdi. Ordu hartan da nahitez bidaian abiatua den eta hotel ezezagun batean etzan behar ukana duen eria, gaitzaldi batek atzarririk, athe azpian argi marra bat ikusiz bozkariatzen. Zer zoriona, jadanik goiza ! Ephe baten buruko sheiak jeikiak izanen dira, joiten ahalko du, sokorri emaitera jinen zazko. Arindua izaiteko itxaropenak bademako oinazearen jasaiteko kuraia. Ustez urrats batzu entzun ditu hain zuzen ; urratsak hurrantzen dira, gero urruntzen. Athe azpian zen argi marra ezeztatu da ere. Gauerdi da ; gaza iraungi berria ; azken sheia joana eta gau osoa beharko da hobetzerik gabe oinazetan iragan.

Berriz lokhartzen nintzan, eta batzuetan enuen ephe bateko atzartzerik baizik, zurerien barneko kraxkatzen entzuteko artea, ilunbeko margodurari begien jartzekoa, konzienziaren leinuru aldi labur bati esker,0 hartan mubleak, gambara, nihaur zati xipi bat baizik enintzan eta haren sendigaiztasunarekin laster berriz batzera nindoan oroa hartan murgildurik zauden loaz gozatzekoa. Edo loan ene bizi leheneko adin betikotz iragana indarririk gabe batua nuen, haurzaroko beldur zenbait berraurkitua, hala nola osababixiak ile kuxkulatuetarik thira nindezan, hek moztuak ukan zautzaten egunak, enetako aro berri baten hastapena, ezeztatua baitzuen. Gertakari hori lo egoitean ahatzia nuen, orhoitzapena berriz jiten zizatan osababixiaren eskuetarik ihes egiteko atzartzera heldua nintzan orduko, baina zer gerta ere burua buhurdikoaz osoki inguratzen nuen ametsetako mundura berriz itzuli baino lehen.

Zenbait aldiz, Eba Adamen sahets hezur batetik sortu zen bezala, lo nindagonean emazte bat sortzen zen ene izterraren egonara makur batetik. Gozatzera nindoan atseginak moldatua, atsegin hori hark eskaintzen zautala asmatzen nuen. Ene soinak harenean bere berotasuna sendi baitzuen nahi zuen harekin batu, atzartzen nintzan. Bertze gizon guziak ontsa urrun iduritzen zizaztan, doia-doia orduan utzia nuen emazte horren ondoan ; matela haren musuaz oraino berotua nuen, soina harenaren phizuaz oraino minbera. Baldin, zenbait aldiz gertatzen zen bezala, bizian ezagutua nuen emazte ba-

ten begitartea bazuen, oso-oso helburu huntara ariko nintzan : berriz haren edireitera, hala nola gutziziatu duten hiri baten ikusteko bere begiez bidaian abiatzen direnak, eta gauza batzuetan ametsetako lilluraz goza daitekeela asmatzen. Apurka apurka haren orhoitzapena ezeztatzen zen, ahazia nuen ene ametsetako nexkatoa.

Lo dagon gizon batek badaduzka bere inguruan bildurik orenen harria, urte ‘ta munduen jarraipena. Atzartzean asmuz ikertzen ditu eta zekunda batez hetan irakurtzen hartan dagon lureko gunea, atzartze arteo iragana den dembora. Goizaldera, logabe zenbaiten ondotik, loak har dezala irakurtzen ari, ohian lo egiten duen egon moldetik ezperdinegi batean, besoaren goititzea aski du iguzkiaren gelditzeko eta gibel-arazteko, eta atzartzen den lehenbiziko minutan, ezta jakinen zer ordu den, doi-doia etzana baizik ez-tela usteko du. Egón molde oraino makur eta bihurtuago batean lokar dardila, behazunez auhal-ondoan jargia batean, orduan nahasmena osoa izanen da ohiko lekutik baztertu diren munduetan, jargia mirazkoak lehia osoan bidaia-araziko du aro-lekuetan zehar, eta betespalen idekitzeko orduan, zenbait ilabete lehenago bertze herrialde batean lo dagola usteko du. Baina aski zen, neure ohean berean, ene loa aski barnatua izan zadin eta izpiritua osoki libra zezatan ; orduan hunek lokartua nintzan leku haren egitura uzten zuen eta, gauaren erdian atzartzen nintzalarik, nun nintzan ezpainakien, lehenbizian enakien nor nintzan ere ; banintzalako sendimendua nuen bakarrik bere hastapeneko xoiltasunean, ihizi baten baitan ikhara daitekeen bezala ; harpetako gizona baino murriztago nintzan ; baina orduan orhoitzapena – ez oraino nintzan lekuarena, baina hetan bizi izana nintzan eta han izaiten ahal nintzanena – jiten zizatan gainaldeko laguntza bat bezala nihaur hartarik jalgi ahalko enintzan ezteusetik atheratzera ; zekunda batez banindoan ix-torioko mende ‘ta menden gaineratik, eta nahasian ikusi petrola argi batzuen iduriek, gero lephoko behehituekilako athorra batzuenek, apurka bermoldatzen zauztaten nihauren itxura jaiok.

Badateke inguruan ditugun gauzen geldia hartu behar dutela ez bertze batzu baina hek direla dugun segurtasunetik, haien aitzinean gure gogoaren gelditik. Dena den, horrela atzartzen nintzanean, ene izpiritua khexu nun nintzan jakin nahiz hartara heldu gabe, ilunbean oro itzul-inguruka ari zizatan, gauzak, herriak, urteak. Soina, higitzeko gogorregi, bazabilatan,

bere akidurako moldearen arau, soinarren egonararen bila hartarik jakiteko harresia zein aldetara zen, mubleak nun, han zen egoitzaren berreraikitze eta izendatzeko. Orhoitak, sahets-hezurren, belhaunen, soingainen orhoitak eskaintzen zauzkon zerrendan hetan lo egina zuen gambaretarik batzu, inguruan harresi ezin ikusiak, asmatu barnearen araura lekuz aldatuz, ilun beltzean zirimolatuz zabiltzala. Eta neure gogoak, aro eta molden alhaizean zalantzan, gertaldiak elgarretara hurbilduz egoitza ezagutua zuen ere baino lehen, hura, - ene soina, - orhoitzen zen bakoitzaren ohe motaz, athen lekuaz, leiho azpiko argi sartzeaz, barnebide baten izaiteaz, lokartzean nuen eta atartzean berraurkitzen nuen gogamenarekin. Ene alderdi gogortuak, zein aldetara itzulia zen asmatu nahian, uste zuen, behazenez, murruren aitzinean ohe handi zerudun batean etzana zela, eta berehala banion neure buruari : « Ori, azkenean lokartu niz, nahiz ama gauonaren erraitera etzatan izan », baserrian nintzan aitabitxiren etxean, hura urteak eta urteak lehenago hila izanik ere ; eta soinak, etzana nintzan alderdiak, ene izpirituak ehoiz ere ahatzia ukan behar etzuen iragan baten begirale leial, orhoit-arazten zauzta-ten Bohemiako berinazko beila-argiaren garra, unti moldean, tronaduratik gatinaño batzuetarik dilindan, Sienako harbizko khebidea, aitatxi-amaxien etxean, ordu hartan oraikoak asmatzen nituen egun urrundu batzuez zuzenki itxuratu gabe, hobeki berrikusiko baintuen sarri osoki atartua izanen nintzanean.

Gero bertze egon-molde baten orhoitzapena sortzen zen berriz ; harresia bertze alde batera zoan : ene gambaran nintzan Saint-Loup-ko Anderearen etxean, baserrian ; Jainkoa ! hamarrak dira bederen, auharia bururatu dateke ! Arratsalde oroz Saint-Loup-ko Anderearekin ibilalditik sartu eta badagitan etzanaldia luzatuegi duket, jantzia soinean ezarri baino lehen. Ezen urteak eta urteak joan dira Combray utziz geroz, hara itzultzen ginen azken aldietan iguzki sartaldeko leinuru gorriak baintuen leihoko berinetan han ikusten. Bertze bizi mota bat deramate Tansonville-en, Saint-Loup-ko Anderearen etxean, bertze atsegin mota bat dut gauaz baizik ez atheratzean edireiten, lehenago iguzkitara jostatzen nintzan bidexka haietan ilargitara joaitan ; eta hartan auhariko jantziak ezarri orde lokartua izanen nizan gambara, badakusat urrundik, sartzen girenean, girisailuaren garrez zeharkaturik, gauan argi bakar.

Gogoratze itzulikari eta nahasi horiek etzuten zekunda batzu baizik irauten ; ainitzetan hartan nindagon lekuaren jakingabe laburrak etztuen hetaz egina zen baldintza ezperdinak elgarretarik berexten, zaldi bat lasterka ikusiz kinetoskopak jarraikian erakusten dauzkun egonarak banakatzen ditugun baino hobeki. Baina berriz ikusia nuen bizian egona nintzan gamba-retarik noiz bat, noiz bertzea, eta azkenean orotaz orhoitzen nintzan atzartzeari jarraikitzen zizazkon ametseria luzetan : neguko gambarak, hetan etzan eta, burua biribilkatzen baita mota orotako gauza batzuekin moldatzen den ohantze batean, buhurdiko izkina bat, estalgien gainaldea, xala hegal bat, ohe bazterra eta *Débats roses* agerkari bat, elgarrekin lotzen baitira azkenean xorien eginararekin ethengabe hetan zapatuz ; hetan, aro hotz-hormakor batez hartzen den atsegina kampotik berexia senditzea baita (hala nola ohantze lurreko beroan lupe zilo batean duen itsas-inhara) eta, sua khebidean gau osoan bizirik atxikia izanez, aire bero khedun baten soineko handian lo egiten baita, berriz phizten diren itxindien leinuruak zeharkatzen duela, ohetegi mota hunki ezina, gambarako barnean berean zilatu den harpe beroa, gune sutsu eta higikor bere hotz-beroko mugetan, izkinetarik, leiho bazterretarik edo sutik urrunduetarik, hoztu baitira, begitartea goxatzen daukuten ufez airezatua ; - udako gambarak, hetan aire ephelarekin batua izaitea maite baita, ilargi xuriak leiho artekan utzietara emanik ohe zangorano igortzen baitu bere mirazko zurubia, hetan abantzu aire betean lo egiten baita, hala nola sagar-xoria arrai baten punttan haize eztiak leriatur ; - batzuetan Luis XVI-garren moldeko gambara, hain alai nun lehenbiziko gauan ezpainintzan hain dohakabe izan, eta tronadura arinki zadukaten zutabeñoak hainbat garaziarekin baztertzen baitziren ohe lekuaren erakusteko eta zaintzeko ; - batzuetan aldiz ttipia eta tronaduraz hain gora zena, bi estaien izarian piramida bat bezala goiti zilatur eta zatika zur gorritz estalia, han, lehenbiziko zekundatik, Indiako usain on ezezagun batez gogoa pozoindatua ukan bainuen, erridau ubelen etsaitasunaz segurrean eta han izan ezpaninz bezala gora-gora kalakan ari zen orenarenaz ; han laur zango eta laur kantoineko mirail bitxi eta urriki gabe batek, barnearen izkinetarik bat zeharka marratuz, uste etzen gune bat bizirik zilutzen baitzuen ene ohiko ikuspen eremuan ; han ene gogoa, orenez eta orenez indarka ezin berexiz, goiti luzatzeko gambararen moldea zuzen hartu nahiz eta gainerano haren adar gaitzaren betetzera heltzeko, ainitz

gau gaixtoez oinazetan egona baitzen, ohean etzanik nindagolarik, begiak goiti, beharria goaitan, sudurra tinki, bihotza pilpiran, ohitzeak erridauen margoa aldatua zueno, orena ixil-arazia, mirail zeharkatu gaixtoari urrikoa ikasia, Indiako usain ona, osoki haizatua ezpazuen, gordea, eta tronaduraren goratasuna aski ttipitua. Ohitzea ! moldatzale trebe baina ontsa urria, gogoa hastapenean oinazetan uzten baitaiku astez eta astez iraupengabeko jarraldi batean, baina hau hatzemanik oro har ontsa zorionean baita, ezen ohitzea gabe 'ta bere ahal xoilekin, egoitza ezpailezaukuke bizigarri bilaka.

Eiki, ontsa atzartua nintzan orai, ene soinak azken itzulia egina zuen eta segurtasunaren aingeru onak inguruan oro gelditua zautan, estalgiez azpian etzana ninduen, neure gambaran, eta ilunbean nunbait han bere lekuan ezarriak zituen komoda, bulegoa, khebidea, karrikarako leihoa eta bi atheak. Baina oharturik ere enintzala atzartzeko ez jakiteak, ephe batez haien itxura garbia emana ezpazautan, bederen izan zaitezkeela sinets-arazia zautan egoitzetan, ene orhoita bultzatua zen ; ohian enuen berriz lokartzea bilatzen ; gau gehiena iragaiten nuen ene izababitxiaren etxean, Combray-n, eremaiten ginuen biziaz orhoitzen, edo Balbec-en, Parisen, Doncières-en, Venezian, bertze nunbait oraino, lekuez orhoitzen, han ezagunak nituen jendez, hetaz ikusia nuenaz, errana zautatenaz.

Combray-n, egun oroz arrastiri buruko, oheratu behar ukanen nuen ordua baino ainitz lehenago, eta egon, lorik gabe, ama et' amatxiren ganik urrun, etzateko gambara berriz bilakatzen zizatan grifien une geldi eta minbera. Asmatua zuten bada, ene jostatzeko itxura zorigaitzekoegia edireiten zizatan arratsetan, mirazko lanterna bat, harekin, auhal-ordu artean, ene gauargia estaltzen baitzen ; eta, ertaroko lehen etxegile 'ta berinagile nagusiek bezala, harresien ilunaren orde bazematzen hortzadar arako leinuru batzu, margo orotako agerpen zerutar batzu, hetan leiendak ikusten baitziren hala nola berineria daldaratu eta iragankor batean. Baina etzen ene goibeldura azkartua baizik, argi aldatzeak berak suntsitzen baitzuen ene gambaraz nuen ohidura, huni esker, etzateko oinazea ezpada, jasangarria bilakatua baitzizatan. Orai enuen gehiago ezagutzen eta khexu nintzan, burdinbidetik landa

lehen aldikotz jautsia izanen nintzan hotel edo « xalet » bateko gambaran bezala.

Bere zaldiaren urrats inharroskatuan, Golo, xede lazkarri bat go-goan, mendixka baten malda nabardura ilunez balusatzen zuen oihan ttipi hirur kantoineko batetik atheratzen zen, eta jauzkatuz aitzinatzen Brabanteko Jenofebaren jauregi aldera. Jauregia marra makurtu batez moztua zen, hau ezpaitzen lanternaren lerragunetan sartzen zen uztaian ezarri berina ar-raultzarakoetarik baten hegia baizik. Jauregi hegal bat zen bakarrik, eta bazuen aitzinean han Jenofeba, gerriko urdin batekin, ametsetan zagon larre bat. Jauregia eta larrea horiak ziren, enintzan alta hek ezagutu arteo egona haien margoaren ezagutzeko, ezen, uztaiko berinak baino lehen, « Brabant » izenaren soinu urre-beltxaranez agerian erakutsia zautaten. Golo ephe bat gelditzen zen amatxik goratik irakurri ixtorioaren trixteki entzuteko, iduri baitzuen osoki hartzen zuela, bere egonara moldatuz, zerbait maiestate gabe etzen lañotasun batean, ixtorioa erraiten zuenera ; gero urruntzen zen urrats inharroskatu berean. Eta jeusek etzezakeen haren trosta ezta geldiaraz. Lanterna higitzen bazen, Goloren zaldia banakusan beti aitzina joanki leihoko erridauean, hauen izurduetan hantuz, arteketan jautsiz. Goloren soina bera, zamariarena bezain izaitez bertze nunbaitekoa, bideko edozein trabaz akomeatzen zen, aurkitzen zuen edozein gauza eragozkarriz, bere hezurdura bezala hartuz eta barneratuz, atheko botoina baizik ezpaliz ere hunekin berehala haren zaia gorria batzen baitzen eta agerian egoiten, edo zuen aurpegi hits beti berdin noble 'ta gogo ilundua, baina horrela zeharkatua izaitez nahasmenik batere agertzera utzi gabe.

Bai gozagarri zizaztan iragan aro merobetar batzuetarik jalgitzen zirela baziduriten ikusgarri argidun horiek eta ixtorioko leinuru hain zaharrak inguruan ibiltzen zituztenak. Enezake erran alta zein ez-ontsa bazematan mixerio eta edertasun sartze horrek, nihaurez betetzera heldua nintzan gambara huni nihauri baino axola gehiago ez emaiterano. Ohiduraren eragin lokargarria gelditu eta, hasten nintzan gogoetatzen, senditzen, hain trixte diren gauzak. Gambara atheko botoin hori, munduko athe botoin guzietarik enetako hain ezperdina bera bakarrik idekitzen zela iduri zuelakotz, nik itzuli behar ukan gabe, hain ohargabeen bainuen egiten, horra nun egiten zuen

orai Goloren soin izarretakoa. Eta auharia joa zen orduko, banuen jateko salara laster egiteko lehia, han dilindako lampa gotorrak, Golo eta Bizar-Urdinaz jakin gabea, ene aitamak baitzituen ezagutzen eta behikia kaxolan, bazemala bere arrats orotako argia, eta Brabanteko Jenofebaren zorigaitzek maitagarriago egiten zautaten amaren besoetara erortzekoa, Goloren gaizki eginek neure konzienzia axola gehiagorekin ikerr-arazten zautatelarik.

Auhaldu eta, ondikotz, ama berehala utzi behar nuen bertzeekin soleasean gelditzen baitzen, eguraldi bazen baratzean, aro gaitza bazen jende guzia hara biltzen zen saloin ttipian. Jende guzia, amatxi salbu « baserrian hetsirik egoitea urrikalgarri zela » iduri baitzizakon eta eztabada ethengabeak baitzituen aitarekin, euri azkarregiko egunetan, gambaran irakurtzera igortzen ninduelakotz kampoan egoiteko orde. « Eztuzu azkar eta gementsu horrela bilakatuko, zion trixteki, bereziki indar eta nahikaria hartzeko hain beharretan den ttipi hau. » Aitak soingainak goititzen zituen eta giro-neurkinari behatzen, aro-jakintza maite baitzuen; amak, bere burua harrabots egitetik zainduz haren ez nahasteko, errespetu xamur batekin behatzen zaukon, baina ez geldiegiki haren nagusitasunen mixterioa ez zilatu nahiz. Baina amatxi, hura, aro guzietan, euria errabian ari eta Françoise-ek bustiak izan zaiten beldurrez zumezko jargia baliosak tarrapatan sartuak zituenean, ikusten zen baratze hustu eta uharrak azotatuan, ile xirgil nahasi hautsaranen goititzen bekokiak hobeki har zezon haize-urriaren sanotasuna. Bazion : « Azkenean, hats-hartzen da ! » eta bazoan bidexka bustietan hara – sobera berdinki lerrokatuak haren gostura naturako sendimendurik etzuen baratze gile berriak, aitak goizetik galdegina baitzaukon aroa hobetuko zenez – bere urrats ttipi suhar daldaratuan, ariman ekaitzaldiko xoramenak, osasunbiderako ahalak, ene erakaskuntzako zoroak eta baratzen egitura berdinduak sustatzen zauzkoten harat-hunatetan arautua, zaia aran kolorekoari iztil orbainik ez emaiteko gutziak baino lehen, haien azpian gordetzen baitzizakon gelariarendako beti etsipen eta nardagarri zen goratasun baterano.

Amatxiren baratze itzuli horiek auhal-ondokoak zirenean, gauza batek bazuen haren sarr-arazteko ahala : gertatzen zen izababitxiak – ibilaldiko inguruak aldika berriz ekhartzen zuenean, mamutxa bat bezala, joko mahi gainean edariak ezarriak ziren saloin ttipiko argien aitzinera – oihu egiten zaukonean : « Bathilda ! haugi bada hire senarrarri koñakatik edatera de-

bekatzera ! » Haren khitzikatzeko, alabaina (aitaren familia izpiritu hain ezperdina ekharria zuen nun guziak irri solasez eta xixtax ari baitzizazkon), aitaxiri edariak debekatuak izanez, izababitxiak xorta zenbait edan-arazten zauzkon. Amatxi gaixoa sartzen zen, senarra koñakarik edan etzezan suharki othoizten zuen ; hau khexatzen zen, hala ere bere hurrupa edanez, eta amatxi bazoan berriz, trixte, etsitua, baina irriño batekin, hain baitzen bihotzez xumea eta ezta nun bertzen alderako xamurtasuna eta bere buruaz eta oinazez zuen axola gutia haren soan irriño batera elgarretaritzen baitziren, huntan, gizaki ainitzen begitartean ikusten denaren kontra, irkaitzik ezpaitzuen bere bururuarendako baizik, eta gu guziendako halako musu bat maite-maite zituena soaz minki pherekatu gabe ikus etzezazketen begiez. Izababitxiak jasan-arazten zaukon pairamen hori, amatxiren debaldeko othoitzen eta haren ahultasunaren ikustea, aitzinetik garhaitua, aitatxiri edari basoaren ekhentzera auherretan entseatuz, haien ikustera berantago jartzen den gauza batzu ziren, irriz hartzerano eta jazarlearen alderdikoa izaiterano aski alaiki eta deliberatuki jazartzerik eztela nor bere bururari sinets-arazteko ; hainbat zizaztan orduan hastiagarri nun izababitxia jo nahiko bainuen. Baina entzuten nue-neko « Bathilda, haugi bada hire senarrari koñakatik edatera debekatzera! », jadanik beldurkeriaz gizon, banagien orok badagiguna, handituz geroz, gure aitzinean bidegabeak eta oinazeak badirenean : enituen ikusi nahi ; banindoan hipaka artzera etxearen gain-gainera ikasteko salako ondoan, hegaztegi-pean, atso-lili usaina zuen barne ttipi batera, kampan harresiko harrien artean jinik leiho erdi idekitik lore adar bat sartzen zuen basa-kazizak usaintzen zuena. Gauza bereziago eta arruntago bateko erabilia, barne hori, egunaz handik Roussainville-le-Pin-go dorrerano ikusten baitzen, luzaz gerizagunetzat baliatu nuen gako hets nezakeen bakarra zelakotz, bakartasun ezin hautsia galdatzen zuten ene egiteko guzietako : irakurtzea, ametseria, nigarrak eta atsegina. Ondikotz ! enakien, jan-edanetan senarraren behar-gabe ttipiek baino ontsa trixtekiago, ene nahikaria eskasak, osagarri beratzak, hauek ene gerorako bazematen dudek, zutela amatxi arrastirietako harat-hunat ethengabe horietan griñatzen, ikusten zenean haren begitarte eder matela beltxaran ximurtuekilakoa, adinez aitzinatzean abantxu malba-kolore bilakatuak larrazkeneko iraulaldietan bezala, marratuak, etxetik jalgitzen bazen,

boaleta erdi goititu batez, hetan, hotzak ala gogoeta trixte zenbaitek ekharria, ari baitzizakon beti nahigabeko nigar bat idortzen.

Ene konsolamendu bakarra, etzatera igaiten nintzanean, oheratu eta ama besarkatzera jinen zizatala zen. Baina gauon horrek hain guti zuen irauten, hain laster zen berriz jausten, nun igaiten entzuten nuen ephea, gero musulina xurizko eta dilindan zaduzkan lasto trezatzuko kordoin ttipiekilako haren baratze zaiaren hots arina athe bikunarekilako barnebidean iragaiten, nun ephe mingarria baitzizatan. Ondotik jinen zena iragartzen zuen, utzia ukanen ninduena, berriz jautsia izanen zena. Hortakotz hain maite nuen gauon hori, ahal bezain berant gerta zadin agiantzatzerano banindoan, ama oraino ethorria etzen edenarte luza zadin egiterano. Zenbait aldiz, ni besarkatu eta, athea joaiteko idekitzen zuenean, berriz deitu nahi nuen, « berriz ere besarka nezazu » erran, banakien alta berehala begitarte gaitzitua hartuko zuela, ezen ene trixteziari eta ezin egonari amor emaitte horrek besarkatzera goiti jinez, bakezko musu hori ekharriz, aita khexatzen zuen eginara horiek arrazoingabeak baitzizazkon, eta nahiko zuen eni behar horren, ohidura horren gal-araztera indar egin, musu bat gehiago, jadanik athe alhazean zelarik, eskatzekoaren hartzera ene uztetik ontsa urrun. Gaitzitua zela ikusteak, ephe bat lehenago ekharria zautan bake guzia hausten zuen bada, ene ohera bere aurpegi maitakorra gurtua zuenean, eta eskainia ostia bat bezala hartan haren egiazko izaitea eta lokarr-arazteko ahala ene ezpainek bilduko zituzten komunionea. Baina arrats horiek, ama oro har ene gambaran hain dembora guti egoiten zenak, ezti zizaztan auhaltzeko jendea bazenen ondoan, horren-gatik ezpaitzen orduan eni gauon erraitera jiten. Jendea ohiki Zuan Jaunean mugatzen zen, hau baitzen, iragaiten ziren arrotzetarik zenbait salbu, Combray-n gure etxera jiten zen abantzu bakarra, batzuetan auzo gisa auhaltzera (bekanago ezkontza gaxto hori egina zuenez geroztik, ene aitamek etzute-lakotz haren emazteari ongi ethorria egin nahi), zenbait aldiz auhal-ondoan, ustegabetarik. Arrats batzuez, itsas-gaztenondoaren azpian etxe aitzinean jarriarik, burdinazko mahiaren inguruan, entzuten ginuenean baratze hegian, ez etxeko edonor « jo gabe » sartuz iragaitean bere harrabots burdinazko, ezin ixildu eta hotzaz burxoratzen zuen turrinta nasai samina, baina arrotzendako zen xilintxaren jotaldi bikun herabe, arraultzarako eta urreztatua, oro orduan

galdez zauden : « Ikustaldi bat, nor izan daiteke ? » baina bazakiten ontsa etzaitkeela Zuan jauna baizik izan ; izababitiak gora mintzatuz, nola egin erakustekotan, doinu natural baten ukaitera indar eginez, bazion etzela horrela ahapeka ari izan behar ; ikustategabekoagorik jeus eztela badatorren eta horrek entzun behar eztituen gauzen erraiten ari direla sinets-arazten daukon norbaitendako ; eta amatxi igortzen zen aitzinera, baratze itzuli bat gehiagoren egiteko estakuru baten ukaitez beti bozkariotan, hortaz baliatzen baitzen arrosozko zurkaitz batzuen gordeka ekhentzeko arrosor itxura natural apur baten berremaitekotan, hala nola ama batek eskuaz hunkitzen baititu, harro-arazteko, ile-mozleak sobera zapatu dituen semearen ileak.

Baginauden guziak etsiaz ekharriko zauzkun berrietara beharria luzatuz, asaldari andana baten artean dudan egon izan ahal baliz bezala, eta gero berehala aitaxik bazion : « Zuanen mintzoa ezagutzen dut. » Etzen alabaina mintzotik baizik ezagutzen, gaizki ikusten zizakon begitarte sudur makotuarekilakoa, begi ñabarduna, « Bressant » aran moztu ile hori abantzu gorrailekilako bekoki gora baten azpian, baratzean ahal bezain argi guti atxikitzen ginuelakotz sistulien ez ekharr-araztea gatik, eta banindoan, iduri ukan gabe, ziropak ekhar zitzaten erraitera ; amatxi behar-beharrezkoa zadukan, gixakoago baitzizakon, ohigabeki hor zirela etzezaten iduri ukan, eta ikustaldietako bakarrik. Zuan Jauna, nahiz ainitzez gazteago, aitaxiri biziki atxikia zen, haren aitaren adixkide hoberenetarik izana baitzen, hura gizon ezin hobea baina bitxia, haren baitan, omen, aski baitzen ezteusko bat bihotzeko olden hausteko, gogoeten hariaren aldatzeko. Urtean aldi bat baino gehiago aitaxi entzuten nuen mahian gertakari batzuen erraiten, beti berak, Zuan Jaun aitak ukan zuen egonaraz, gau eta egun beilatua zuen emaztearen heriotzean. Aspaldidanik ikusia etzuen aitaxi lasterrez ondora ethorria zizakon Zuan-darrek Combray-ko ingurunetan zuten etxaldera, eta khutxan sartzean etzadin han izan, heldua zen, ephe batendako, hari, nigar eta nigar, hil-gambararen utz-araztera. Oraino iguzki apur bat bazen parkean zenbait urrats egin zuten. Bapatez, Zuan Jaunak, aitaxi besotik hartuz, erran ukana zuen : « Ha ! adixkide ona, aro eder hunekin iguzkitara ibiltzea zer zoriona ! Etzaizkitzu pollitak horiek guziak, zuhatz horiek oro, elhorriondo horiek eta ene aintzira, ezpainauzu behin ere horietaz goretsi ? Ha ! erraiten

ahal dute, biziak badu hala ere onik, Amede maitea ! » Bepetan emaztearen orhoitzapena jin zizakon berriz, eta halako orduan zorionezko olde batera bere burua nola utzia ahal zuen bilatzea ez aski argi aurkituz behar bada, zerbait zail gogoratzen zizakon aldi oroz ohikoa zuen jestu batekin, begiak eta betaurreko bakuna xukatuz gelditu zen. Etzen alta emaztearen heriotzeaz konsolatu ahal izan, baina ondotik bizi izan zen bi urtetan, bazion aitatziri : « Bitxi da, biziki usu gogoan dut ene emazte gaixoa, baina aldian ainitz ezin dut ukan. » « Usu baina aldian guti, Zuan aita gaizoak bezala », aitatziren erranaldi hautuzkoenatarik bat bilakatua zen gauza ezperdinenetan erraiten zuela. Zuanen aita hori mustro bat zela idurituko zizatan, juje hobea zela nadukan aitatzik, haren errana lege ordean izanez enetako, eta gero ere ainitzetan kondentzera ekharria izanen nintzan huts batzuen xuritzeko baliatu baitut, ezpala oihuz egin : « Baina nola ? urrezko bihotza zen ! »

Urtez eta urtez, orduan alta, ezkont-aitzinean gehienik, Zuan Jauna, semea, haien ikusteko Combray-ra usu jin baitzen, izababitxi eta aitatziamatxiak etziren jelistu etzela gehiago haren familia ibilia zen jenden artean bizi, eta Zuan izen horrek gure etxean egiten zaukon halako ezaguna izan gabearen azpian, ostatsaten zuten - gaixtagin handi bat, jakin gabean, etxean duten ostalari batzuen ogengabetasun osoarekin - Jockey-Glubeko ide aphaizenatarik bat, Parisko kondearen eta Galesko printzearen adixkide hautetsia, Saint-Germain bazter-hiriko jende gorenaren arteko gizon arthatuenatarik bat.

Orduan Zuanek zeraman bizi mundutar distiratu hortaz ginuen jakingabea bazagokon zatiz, argi da, jitez zituen jendetasunari eta ixilarari, baina ere ordu hartako burjesek gizarteaz gogoan zuten ideia apur bat in-diarrari, jende mota berexi batzuez egina zela baitzadukaten, hetan bakoitza, sortzetik, aitamek zuten lerro berean ezarria aurkitzen baitzen, eta jeusek ezpaitzindezakeen handik athera, bizipide ohigabe bateko halabeharrek edo ustegabeko ezkontza batek ezpada, goragoko lerro batera sarr-arazteko. Zuan aita diru tratularia zen ; « Zuan semea » gertatzen zen bizi guziko hartan fortunak, zerga emaile mota batean bezala, halako eta holako irabazietara aldatzen ziren lerro batekoa. Haren aitaren ezagunak nor izanak ziren jakina zen, beraz harenak nor ziren ere, zein jendekin zen elgar ikusteko « heinean ».

Bertze batzu ezagutzen baldin bazituen, mutiko gaztea zenekoak ziren hetaz bere familiako adixkide zahar batzuek, ene aitamak ziren bezala, hainbatez ongi-nahikiago baitzituzten begiak hesten nun, umezurtz izana zenaz geroztik, jarraitzen baitzuen biziki leialki gure ikustera jiten ; baina jokatzeko zen ikusten zituen jende guk ez ezagun horiek, gurekin izanez aurkitu balitu, agurtzera menturatuko etzen hetarik zirela. Zuani baitezpada nahi izan balizako berari zoakon gizarteko neurri-arau bat eman, haren aitamen izanara berdineko bertze diru tratulari semen artean, neurri-arau hori apur bat apha-lago izanen zen harendako, araz biziki lañoa eta betidanik gauza zahar eta margoeriako «burukaldi » batera emana izanez, orai han bere bilketak metatzen zituen eta amatxik haien ikustea amesten zuen hotel zahar batean bizi baitzen, baina amatxiri han egoitea desohoragarri zizakon Orléans-ko kaian jarria. « Ezagule zirea bakarrik ? Hori zure abantailetan galdatzen dautzut, saltzalek azalergia batzu sakatzen baitauzkitzuketekete », zion izababitiak ; etzuen alabaina uste hortako ezagutzarik batere bazuela, eta etzadukan biziki gora, adimenduari doakonaz ere, solastatzean gai serioesak baztertzen zituen gizon bat eta zuzentasun biziki arrunta erakusten, ez bakarrik, xehetasun ttipienetan sartuz, kozinako janari eredu batzu emaiten zauzkunean, baina ere amatxiren ahizpak edergintzako gaiez ari zirenean. Haiak bere ikuspegiaren emaitera sustaturik, margolan batez miresmenaren erraitera, ixil abantzu jendetasun gabeko batean zagon, eta aldiz, hartan zen erakustokiaz, eginik izana zen urteaz, bazeman xehetasun zorrotz bat. Baina ohian gure jostatzearen bilatzea aski zizakon, aldi oroz erranez berriki gertatua zizakon ixtorio bat ezagutzen ginituenean artean hautatu jende batzuekin, Combray-ko botikariarekin, gure kozinersarekin, gure karrosazainarekin. Bai ixtorio horiek izababitiari irri egin-arazten zaukoten, baina Zuanek bere buruari beti bazemon aldi irriegingarriaren gatik ala erraiten ezartzen zuen izpirituaren gatik egiten zuen ontsa berexi gabe : « Zu zinezko gizon bat zirela erran daiteke, Zuan jauna ! » Elhean gure familiako jende doi bat arrunt bakarra baitzen, artha hartzen zuen arrotzer oharr-arazteko, Zuan aipu zenean, nahi ukan balu, Haussmann karrika handian ala Operako ibilbidean bizi ahalko zela, laurzpabortz miliun utziak zauzkokeen Zuan Jaunaren semea zela, baina burukaldia hori zuela. Burukaldi hori bertzendako hain jostagarri izan beharra

uste zuen ere nun Parisen, urthatsez Zuan Jauna gaztena hormatu xakuaren ekhartzera jiten zizakolarik, huts egin gabe, jendea baldin bazen, erraiten baitzaukon: «He bada ! Zuan Jauna, beti Arnotegietako ondoan egoiten zira, Lyon-go burdin-bidea hartzen duzunean treinen ez huts egiteko ? » Eta, betaurreko bakunaren gainetik, begi bazterrez bertze ikuslarier so egiten zuen.

Baina amatxiri erran balizako Zuan Jaun horrek, Zuanen seme bezala osoki « heinekoa » zena « burjesia ederrean » onhartua izaiteko, Parisko notari ala abokaten artean (apur bat erortera uzten zuela iduri zuen abantaila), bazeramala, gordeka, bizi bat osoki ezperdina ; gure etxetik atheratzean, Parisen, karrika izkinan bihurtu orduko gibelera itzultzen zela eta nehoiz diru tratulari ez tratulari lagun baten begiak ikusi etzuen halako saloin batera joaiten, bitxi baino bitxiago idurituko zizakon, literaturan ezagunagoa den andere bati Ariztearekin adixkidantzan zelako gogamena bezainbat, gogoan hartua ukanen zuenean joanen zela, harekin solastatu eta, Thetizen erresumetako barnean murgiltzera, hilkorren begietarik gordea den herrialde batean, han Virgiliok erakusten baitauku besoak zabalik onhartua ; edo, gogora jinen zizakola itxura gehiago zuen iduri batean egoiteko, Combray-n gure bixkotxerietako azietetan ikusia baitzuen, Ali-Baba auhaltzen ukana, hau, bakarrik izanen denean, ustegabeko thesoz dirdiran dagon harpean sartuko baita.

Parisen gure ikustera jina zen egun batez, auhal-ondoan, jantzi handitan zela desenkusatzuz, Françoise-ek erranik, hura joan eta, karrosazainaren ganik bazakiela « prinzesa baten etxean » auhaldua zela, - « Ba, erdiko munduko prinzesa baten etxean ! » ihardetsia zaukon izababitxiak soin-gainak goitituz eta bere trikotatik begiak baztertu gabe, irkaitz gozo batekin.

Hortakotz izababitxia ausartasun doi batekin ari zizakon. Gure gometez ohoratua zaitekeela uste baitzuen, osoki zuzen aurkitzen zuen udan etzadin gure ikustera ethor eskuan bere baratzeko mertxika edo mahaxuxa gorri zare bat ukan gabe, eta Italiako bidaia bakoitzetik ederlan nagusien argazki bat ekharri gabe.

Aretxe salsa mota edo ananas enselada baten eginaren bilatzera haren igortzeko guti ziren etxean jenatzen gomitatzen etzen auhari handietako,

aipamenik aski ezpaitzizakon aurkitzen lehen aldikotz heldu ziren arrotzen aitzinera ekharria ahal izaiteko. Solasaldia Frantziako Etxeko printze batzuetara erortzen baldin bazen : « zuk eta guk behin ere ezagutuko eztitugun jende batzu, eta gabe egon gaitezke, eztea hala ? », zion izababitiak Twickenham-eko eskutitz bat behar bada sakelan zuen Zuani ; pianoa higi-arazten zaukon eta orriak itzul-arazten amatxiren ahizpak kantatzen zuen arratsetan, baitzuen, bertze nunbait jende hoin arrakastakoa zen gizon haren erabiltzeko, gauza arraro batekin edozein gauza merkerekin jostatzen denean baino artha gehiago ez tuen haur baten molde bizia. Badateke glubetako hainbertze gizonek ordu berean ezagutu zuten Zuan hura izabitiak asmatzen zuenetik ontsa bertzelakoa zela, arratsean, Combray-ko baratze ttipian, xilintxaren bi ukaldi herabetuek joa ukan eta, Zuan familiaz bazakien guziaz betetzen eta bizi-arazten zuenean agertzen ari zen jende guti ezagun eta dudazkoa, amatxi gibeletik, ilunbezko zola batean, eta mintzotik ezagutzen zena. Baina biziko gauza ezteusen aldetik ere, ezkira materialki egina den oro bat, guziendako berdina eta bakoitzak ezagutzera joaitea aski duen bat, gastuetako liburu bat edo testamentu bat bezala. « Ezagutzen dugun norbaiten ikustea » diogun egintza hoin xoila bera adimenduzko egintza da. Badakusagun jendearen itxura ageria betetzen dugu hartaz dazkigun ideia guziez, eta gogoan hartzen dugun osotasunean, gehiena ideia horiek badagite segurki. Azkenean materialak hain beteginki dauzkote betetzen, hain zuzen zazko sudurraren hariari lotuz jarraikitzen, hain ontsa ditu mintzoaren soinu aldakuntzak emaiten hau axal argal bat baizik ezpaliz bezala, nun begitarte hori badakusagun eta mintzo hori badantzugun aldi oroz, ideia horiek baititugu berredireiten, eta entzuten. Dudarik gabe, bere baitan moldatua zuten Zuan hartan, aitametik ez jakinean bizi mundutarreko xeheetasun andana bazterrera utzia zuten, horien gatik bertze jende batzuek, haren aitzinean zirenean, aphaintasuna bazakusatelarik haren begitartean manatzen eta haren sudur makotuan muga natural batean bezala gelditzen ; baina ere aipamenak utzia zuen begitarte hortan, hustua eta zabal, begi gutietsi horien zolan, metatuak ahal zuten, erdi orhoitzapen erdi ahazte, astiz elgarrekin iraganak ginituen orenen ondakin ahul ezitia, gure asteko auhariaren ondokit, joko mahiaren inguruan edo baratzean, auzotasun baserritar oneko bizi hartan. Gure adixkidearen

soin axala hain ontsa zen hetaz gainerano beterik izana, bai eta haren aitamen orhoitzapen batzuez, nun Zuan hori izaite oso eta bizi bat bilakatua baitzen, eta iduri baitzata norbait uzten nuela hartarik berexia zen bertze baten gana joaiteko, noiz ere, orhoitzapenean, berantago zen bezala ezagutu dutan Zuanetik lehenbiziko Zuan hartara iragaiten bainiz – neure gaztaroko huts gozagarriak hartan berredireiten ditutan lehenbiziko Zuanera, bertzearekin egite gutiago baitu aro berean ezagutu ditutan bertze jendekin baino, gure biziaz aro bateko potretak familia bereko itxura, doinu ber bat duten erakustoki batez baliz bezala– , astiz betea zen Zuan hartara, itsas-gaztena handiaren usainaz, mahaxuxa gorri zareaz eta suge-belar aldaxka batez usainondua.

Bizkitartean amatxi Bihotz-Sakratuan ezagutua zuen andere bati zerbitzu eskatzera joan zen egun batez (harekin, lerroez ginuen ideia-erakundeak, ezpaitzen harremanetan egon nahi izana, elgarren arterako atxikimendu bat ukanik ere), Villeparisis-ko markestsia, Bouillon-darren familia aiphatukoa, hunek erran zaukon : « Uste dut Zuan Jauna ezagutzen duzula, ene iloba Laumes-tarren adixkide handia da. » Amatxi bere ikustalditik baratzetara bazeman eta han Villeparisis-ko Andereak aloka zezan konseilatzen zaukon etxeaz xoratua itzulua zen, eta ere barneko-motx egile batez eta haren alabaz, saldegia korroilan baitzuten eta haien baitara sartua baitzen mailetan urratua zuen zaiari phondu bat egin zezaten eskatzeko. Amatrixi jende horiek ezin hobekak idurituak zizazkon, bazion nexkañoa « perla » bat zela eta barneko-motx egilea behin ere ikusi zen gizonik ikustatekoena, hoberena. Ezen harendako, ikustate ukaitea gizarte mailetik osoki berex zen. Xoratzen zen barneko-motx egileak emana zuen ihardespene batez, baziola amari : « Sévigné-k etzuen hobeki erranen ! » eta, aldiz, Villeparisis-ko Anderearen etxean ikusia zuen hunen iloba batez : « Ha ! ene alaba, zein arrunta den ! »

Zuanez erran solasak, bada, ondoriotzat ukana zuen ez amatrixen izpirituan hunen goititzea, baina Villeparisis-ko Anderearen aphaltzea. Bazidurien, amatrixik erranari jarraikiz, Villeparisis-ko Anderearen aldera ginuen estimuak merezimendu gutiago eman zezokeen jeusen ez egiteko eginbide bat emaiten zaukola, eta hortan huts egina zuela Zuan bazela jakitean, bere jendakia batzu harekin ibiltzera utziz. « Nola ! Zuan ezagutzen du ? MacMahon marexalaren ahaide zela zinion batendako ! » Zuanek ezagutzen zi-

tuen jendez ene aitamek zuten aburu hori, berantago lerro arrunteneko emazte batekin, abantzu emagaldu batekin haren ezkontzeaz baieztatua iduritu zizaien, ehoiz, bertzela ere, haien aitzinera ekharri nahi ukan etzuen, etxera bakarrik jitean jarraikiz, nahiz gero eta gutiago, baina hartarik egin baitzuten - hor hartua zukeela uste ukanez – zein zen hura ohiki zabilan eta ezagutzen etzuten jende mota.

Baina egun batez, aitatzik berrikari batean irakurri zuen Zuan Jauna igandetako bazkarietan ohitu jarrikenetarik bat zela X.-ko dukearen etxean, hunen aita eta osaba Luis-Filiperen erreinuko Estatu gizon agerientaririk izanak baitziren. Aitaxi bada jakin-nahian zen Molé, Pasquier dukea, Broglie-ko dukea bezalako gizonen bakarrezko bizian gogoaz sartzera lagun zezaketen egintza ttipi guziez. Zuan hek ezagutuak zituzten jende batzuekin zabilala ikasteaz loriatua izan zen. Izababitiak aldiz berri hori Zuanen kontra zoan molde batean hartu zuen : ezagutzak sortua zen mailetik, bere gizarte « lerrotik » atheraz hautatzen zituen norbaitek aphaltze nardagarri bat jasaiten zuen haren begietan. Iduri zizakon jende ontsa jarri batzuekilako adixkidantza eder guziak uzten zirela, familia zuhurrek haurrentako ohoragarriki bilduak eta atxikiak zituztelarik (izababitiak gelditua zen ere gure adixkide notari baten semearen ikustetik, « goientasun » batekin ezkondua zelakotz eta horrela notari seme baten lerro errespetatutik haren ustez jautsia menturazko gizon batzuenera, gambarazain ala itegizain, erregina batzuek zenbait aldiz oneritzi zituztela baitiote). Aitatzik Zuanen galdekatzeko zuen xedea gaitzetsi zuen, auhaltzera jin behar zuen lehenbiziko arratsean, aurkitzen ginauzkon adixkide horietaz. Bertzalde amatxiren bi ahizpek, haren jite noblea zuten mutxurdinak, baina ez haren izpiritua, erran zuten goraki haien koinatak horrelako ezteuskeriez mintzatzean aurki zezakeen atsegina etzutela hartzen. Nahikundeak gora zituzten jende batzu ziren eta hortako bereko erran-merrana zeritzon bati gogoia ezin eman zezaketenak, ixtorioko balio zenbait balu ere, eta orotako moldez ederlaneko ala bertutezko gauza bati zuzen lotzen etzenari. Haien gogoaren ongi-nahia hain zen hutsa, urrundik ala hurbildik bizi mundutarrari lotua zela iduri zuen ororendako, nun haien beharriak – azkenean oharturik debaldekoa zutela auhaltzean solasak itzuli arinegi edo bakarrik aphal bat hartua zueneko bi andereño

xahar horiek maite zituzten gaietara berriz itzultzera heldu ahal izan gabe -, entzuteko ahala geldi-arazten baitzuen eta egiazko galtze baten hastapenaren jasaiterano uzten. Aitaxik behar baldin bazuen orduan bi ahizpen oharpena bereganatu, eroekilako medikuek xoriburu izaiteko xoxokeria duten batzuen aldera derabiltzaten gaztiapen batzuez behar zuen baliatu: ganibet baten burdinaz aldi bat baino gehiago baso baten joitea, aldi berean mintzoaz eta soaz bapateko hel egitea, jende osasuneko batzuekilako harremanetara ere usu mediku horiek deramatzen bide bortitzak, ala ofizioko ohiduraz, ala nor nahi apur bat eroa uste dutelakotz.

Oharpen gehiago ukan zuten Zuanek auhaltzera ethorri behar zuen eguneko bezperan, Asti-ko arno botoila multxo bat bere izenean igorria baitzauen, izabak, *Figaro* bat eskuan, hartan Corot-*ez* Erakustaldi batean zen margazki baten izenaren ondoan, baitziren hitz hauk : « Xarles Zuan Jaunaren bildumatik », erran zaukunean : « Zuanek *Figaro*-ko « ohoreak » badiuela ikusi duzue ? - Baina gustu ainitz bazuela errana dautzuet beti, egin zuen amatxik. – Ba hik, *gutarik* bertze aburu batekoa izaitea den orduko », ihardetsi zuen izababitxiak, amatxi etzela nehoiz haren aburu bereko baitzakien, eta beti hari berari arrazoin emaiten ginakola ez ontsa segur izanez, nahi baitzaukun amatxiren aburuen kondenamendu osoa eman-arazi haien kontra berak zituenen alde bortxaz gure jarr-araztera indar eginez. Baina ixil gelditu ginen. Amatxiren ahizpek erakustera emanik *Figaro*-ko hitz hortaz Zuani mintzatzeko xedea, izababitxiak ez egiteko aholkua eman zauen. Berak etzuen abantail bat, zen ttipiena izanik ere, bertzer ikusten zauen aldi oroz, gogoan hartzen zuen etzela ez abantail bat, baina gaitz bat, eta hek ez gutiziatu behar ukaiteko, urrikalgarri zizazkon. « Uste dut etzinezakoketela atsegin eman ; nik ontsa badakit egunkari batean ene izenaren ikustea horrela bizirik imprimatua osoki gozagaitz izanen zizatala, eta hori aiphatzen balizata enintzatekeela batere ohoratua. » Bertzela ere hori amatxiren ahizper sinets-arazi nahian etzen hisitu; ezen hauek arruntasunaren hastioz hain urrun bazeramaten norbaitez aieru egitearen gordetzea erranaldi itzulikatu batzuen azpian, nun hari zoakona ohartu gabe baitzoan ainitzetan. Amak aldiz, etzuen gogoan aitak Zuani mintzatzeari onhar zezan baizik, ez haren emazteaz, baina ezin gehiago maite zuen alabaz, hunen gatik baitzuen, zio-

naz, ezkontza hori azkenean egina. « Hitz bakar bat erran ahal zinezoke, hura nola den galdegin. Hain penagarri dateke harendako. » Aita gaitzitzen zen : « Baina ez ! ideia arrazoingabeak dituzu. Irrigarri lizateke. »

Baina gutartean Zuanen jitea grifa mingarri baten gaia zena, ni nintzan. Ezen arrotzak hor zirenean, edo bakarrik Zuan, ama etzizatan gambarara igaiten. Guziak baino lehen auhaltzen nintzan eta gero mahian jartzera jiten, zortziak arteo, orduan igan behar nuela hitzartua baitzen ; amak ohean lokhartzerakoan beti emaiten zautan musu prezios eta beratz hura, behar nuen jateko salatik gambararano ereman eta jantziak uzten nituen arte guzian atxiki, haren ezitasuna hautsi gabe, haren bertute airagarria ezezta zadin gabe, eta, artha gehiagorekin ukaiteko beharrean izanen nintzan arrats horietan hain zuzen, behar nuen hartu, bapatez ooren aitzinean ebatsi, zer ari nintzan xoro batzuek bezala ohartzeko astirik ez gogoko libertaterik ukan gabe, athe baten hestean bertze zerbaitez ez gogoetatzera indar baitagite, nahiz eta, eritasunezko dudara berrizultzen direlarik, duda hori athea hetsia duten orduaren orhoitaz garhaitu.

Guziak baratzean ginauden xilintxaren bi ukaldi herabek jo zutelarik. Zuan zela jakina zen ; hala ere orok elgarri behatu zuten galdezko itxura batekin eta amatxi ikustera igorri zen. « Arnoarendako eskerrak emazkozue adimendurekin, badakizue hauta dela eta andana gaitza », gomendatu zauen aitatzik bere bi andere koinater. « Etzaitzela ahapeka has, erran zuen amatxik. Ontsa goxo da jende guzia ahapetik ari den etxe batean sartzea ! – Ha ! horra Zuan Jauna. Bihar eguraldi eginen duenez galdeginen daukogu », erran zuen aitak. Amak uste zuen haren hitz batek ezeztatuko zuela ezkonduz geroz Zuani gure familiak egina zaukokeen bihotzmin guzia. Apur bat bazterrera haren eremaiteko bidea ediren zuen. Baina jarraiki nindakon ; urrats batez enezakeen utz sarri jateko salan utzi beharko nuela gogoratu eta gambarara igan bertze arratsetan bezala besarkatzera ethorriko zizatalako konsolamendurik ukan gabe. « Hea bada, Zuan Jauna, erran zaukon, mintza zaizkit apur bat zure alabaz ; segur niz jadanik baduela lan ederretako gostua aitak bezala. – Baina zaugi bada gu guziekin berinapean jartzera », erran zuen hurbilduz aitatzik. Amak ixildu behar ukan zuen, baina hertsatze hortarik beretik gogamen pollit bat gehiago jalgi zuen, errimaren bortxuak

bere neurtitz ederrenak eman-arazten dezteen poeta onek bezala. « Berriz hartaz mintzatuko gira bi-biak gertatuko girenean, erran zaukon Zuani erdi ahapetik. Zure entzuteko gai denik ezta ama bat baizik. Harena ere aburu bereko lizatekeela segur niz. » Guziak burdinazko mahiaren inguruan jarri ginen. Arrats hartan gambaran bakarrik lokhartu ahal gabe iraganen nituen hersturazko orenak nahiko nituen ez gogoan ukan; baliorik batere etzutela sinesteko indar egiten nuen, biharamun goizeko ahazia ukanen nituenaz geroz, laztatzen ninduen leze hurbildik zubi baten gainean bezala eremanen ninduketen ethorkizunerako gogoeta batzuer lotzeko. Baina ene izpiritua bere griñaz tinkan, amari zuzen banemakon soa bezain gubiatua, etzuen bere baitan sartzer a hunki zezakeen bertze jeusik uzten. Gogamenak hartzen zituen bai, baina hunki edo bazter nindezakeen edertasuneko edo xoilki jostagarrizko gauza oro kampoan uztekotan. Eri batek oinaze lokhargailu bati esker egiten ari daukoten operatzea gogo argi osoan badakusan bezala, baina jeusik senditu gabe, erran nezazkeen nihauren baitan maite nituen neurtitzak edo ikus aitatxik Audiffret-Pasquier-ko dukeaz Zuanen mintza-arazteko egiten zituen indarrak, lehenbizikoez ene baitan batere hunkimenik sortu gabe, bigarrenek alaitasunik. Indar horiek ondorio gabeak izan ziren.

Aitaxik Zuani hitzlari hortaz galde bat egina ukan zuen orduko amatxiren ahizpa batek, haren beharrietan galde horrek jo baitzuen ixil oso baina behargabeko eta moztea ikustatezkoa zen batek bezala, hel egin zaukon bertzeari : « Asma ezan, Zelina, erriensa zuediar gazte baten ezagutza egin dinatala hark emanik baitazkinat iphar herrietako kooperatibez xehetasun ezin ohargarriago batzu. Beharko din arrats batez auhariz hunara jin. – Uste dinat! ihardetsi zuen Flora ahizpak, baina ez tinat ere dembora galdu. Vinteuil Jaunaren etxean aurkitu dinat, Maubant biziki ontsa ezagutzen duen jakintsun zahar bat, Maubant-ek argitu baitauko xehetasun handienekin antzokiko jokaldi bat nola duen ontzen. Ezin ohargarriago dun. Vinteuil jaunaren auzoa, batere enakinan ; eta biziki gixakoa. – Auzo gixakoak dituen ezta bakarrik Vinteuil Jauna», egin zuen Zelina izabak, herabeak azkartzen zuen mintzo batekin, eta aitzinetik gogoetatzeak falsutzen, Zuani behako erran-nahizkoa uste zuen bat igortzen zaukon batean. Aldi berean Flora izabak ihardespren hori Asti-ko arnoaz Zelinarene eskerra zela hartua baitzuen, so

egiten zaukon ere Zuani esker onez eta irkaitzez nahasia zen itxura batekin, ala ahizparen izpirituko jokoaren xoilki azpimarratzeko, ala hori eman-arazirik Zuanez jelos baitzen, ala huntaz trufatu gabe egon ezpaizatekeen salatua zela uste zuelakotz. « Jaun hura auhaltzera ukan daitekeela uste dut, jarraiki zuen Florak; Maubant-era edo Materna Anderera emaiten denean, orenak artzen da gelditu gabe. – Ezin goxagarriago dateke », egin zuen hasperenez aitatzik, haren baitan naturak zorigaitzez hutsegina baitzuen kooperatiba zuediarrer gartsuki behatzeko ahalaren ezartzea, amatxiren ahizpen baitan bakoitzak, gozo zerbait edireitekotz, Molé-ko edo Parisko kondearen barnebiziko ixtorioari gaineratu behar daukon gatz pikorñoaren emaita ahatzia zuen bezain osoki. « Oizu, erran zaukon Zuanek aitatzixi, erranen dautzutanak badu galdegiten duzunarekin iduri duen baino ikusteko gehiago, ezen gauzak eztira gai batzuetan handizki aldatu. Goizean berrirakurtzen nuen Saint-Simon-etan jostatuko zinduen zerbait. Espainiako embaxadaz den zatian da ; ezta hoberenatarik, egunkari bat baizik ez, baina bederen miragarriki izkiriatu egunkari bat, horrek baitagi jadanik goiz et' arrats irakurtzera bortxatuak girela uste dugun egunkari nardagarriekin lehenbiziko ezperditasun bat. – Eniz zure aburuko, egunkarien irakurtzea ontsa gozagarri iduritzen zatan egunak badira... » hautsi zuen Flora izabak, *Figaro*-an Zuanen Corot-az erranaldia irakurria zuela erakusteko. « Ohargarri zazkigun gauza edo jendez ari direnean ! » gaineratu zuen izaba Zelinak. « Eztut hori ezesten, zuen ihardetsi Zuanek ustegabetua. Egunkarier badagietan erasia, egun oroz gauza ezteus batzuer oharr-araztea da, bizian bizpahirur aldiz ditugularik gauza baitezpadakoak dituzten liburuak irakurtzen. Egunkariaren estekagailua goiz guzietz suharki urratzen dugunaz geroz, gauzak behar litzateke orduan aldatu eta egunkarietan ezarri, nik dakita ... Pascal-en Gogamenak! (hitz hori irkaitzezko ospe batekin berexi zuen jakinduruegi itxuraren ez ukaitea gatik). Eta urtean behin baizik idekitzen eztugun liburu bazter urreztatuekilakoan, gaineratu zuen gizon mundutar batzuek gauza mundutarrendako agertu nahi duten erdeinu hura erakutsiz, da irakurriko Greziako erregina Cannes-era joana dela edo Leon-go prinzesak dantzaldi bat eman duela. Horrela arau zuzena berriz ezarria lizateke. » Baina arinki izanik ere bere burua gauza serioz batzuez mintzatzera utzia zuela ohartuz : « Solasal-

dia ontsa ederra dugu, erran zuen irkaitz batekin, « mendi gain » horietara zergatik goazen eztaikit», eta aitatziren gana itzuliz : « Saint-Simon-ek erraiten du beraz Maulévrier-ek ukana zuela haren semer eskuaren aitzineratzeko ausartzia. Badakizu, hartaz « ehoiz enuen botoila lodi hartan omore gaixto, arruntasun eta zozokieriarik baizik ikusi » dion Maulévrier hura. » - « Lodi ala ez, osoki bertze zerbait duten botoila batzu ezagutzen ditut », erran zuen bizi-bizia Florak, nahi baitzuen baitezpada hark ere Zuan eskertu, Asti-ko arnoa biendako baitzen. Zelina hasi zen irriz. Zuanek ustegabetua berriz egin zuen : « Eztatik jakingabea zenez ala sarea, izkiriartzen du Saint-Simon-ek, eskua ene haurrer eman nahi ukan zuen. Hartara ez uzteko aski goiz ohartu nintzan. » Aitatxi jadanik gogo-erautzian zen « jaikingabea ala sarea » hitzez, baina Zelina Andereñoa, haren baitan Saint-Simon-en izenak – « literatura-gile » bat – ezpaitzuen entzuteko ahala osoki lokhartzera utzia, sumintzera zoan jadanik : « Nola ? Hori miresten duzu ? Ha bada ! pollit da ! Baina zer erran nahi ahal du horrek ; gizon bat eztea bertze bat bezainbat ? Zer egiten ahal du izan dadin duke ala karrosazain, adimendua eta bihotza baldin baditu ? Haurren hazteko molde ederra zuen, zure Saint-Simon-ek, ezpaldin bazauen jende zuzen guzietariko eskua eman zezaten erraiten. Baina hastiagarri da, xoil-xoilki. Eta horren aiphatzera ausartzen zira ? » Eta aitatzik dolutua, sendi baitzuen, eragozpen horren aitzinean, Zuani jostatuko zuten ixtorio batzuen erran-arazteko ezina, bazion ahapetik amari : « Orhoit-araz ezatazu bada ikasi dautazun neurtitza ordu horietan arintzen bainau. Ha ! ba : « Jauna, zenbat bertute daukuzun hastia-arazten ! » Ha ! zein ontsa den ! »

Ama enuen begietarik uzten, banakien mahiraturik, enintzala auhari dembora guzian egoitera utzia izanen eta, aitari ez kontra egiteko, amak eninduela jende guziaren aitzinean aldi bat baino gehiago haren besarkatzera utziko, gambaran izan baliz bezala. Hitz-emaiten nuen beraz neure baitan, jateko salan, auhaltzen hasiko zenean eta ordua sendituko nuenean hurbiltzen, aitzinetik musu hoin labur eta ebaskako hortaz eginen nuela bakarrik banagikeen gauza bakarra, soaz apatuko nuen matelako lekuaren hautatzea, izpirituaren prestatzea, musu horren hastapen gogoko horri esker, amak utziko zautan minuta guziaren eman ahal ukaitera haren matela enean senditzeari, hala nola margolari batek ezin duelarik gelditaldi laburrik baizik ukan,

margo-taula prestatzen baitu eta gogoz, hartu oharpenen araura, aitzinetik egina baitu moldearen hor ukaiteko beharrik gabe azkenean egin dezakeen guzia. Baina huna nun auharia jo izana zen baino lehen, aitatzik ohartugabeen abreki erran zuen : «Tipia akitua da, etzatera igan behar luke. Auharia gaur berant da. » Eta aitak, antolamenduetan ezpaitzuen amatxik eta amak zuten sineste berdin arranguratsua, erran zuen : « Ba, goazen, habil etzatera.» Ama besarkatu nahi ukan nuen, ordu berean auhariko ezkilak jo zuen. «Baina ez, bada, ama utzak, gauon elgarri horrela aski emana duzue, erakustaldi horiek irrigarri dira. Igan hadi, bada ! » Eta mailaldeko mail bakoitza bidekorik gabe igan behar ukan nuen, jendearen erran moldeak dion bezala, « nahitez », ene bihotzari kontra eginez igaiten nintzala hunek nahi baitzuen amaren ondora itzuli etzaukolakotz, ni besarkatuz, enekin joaiteko baimenik eman. Beti hain trixteki hartzen nuen mailalde hastiatu horrek berniza usain bat uzten zuen arrats oroz sendi nuen atsekabe mota berezi hura nolazpait iretsia zuena, hartua, eta behar bada ene sendimenarendako oraino bortitzagoa bilakatzen ene adimenduak ezpaitzezakeen, usainezko molde hortan, berari zoakona har. Lo gaudelarik eta hortz errabia bat eztelarik oraino sendi berrehun aldiz jarraikian uretik atheratzeko indar egiten dugun nexkato gazte bat bezala edo gelditu gabe errepikatzen dugun Molière-ren neurtitz bat bezala baizik, atzartzean gure adimenduak hortz errabiaren ideia maskatzen duen egintza handizko edo neurkadazko itxura oroz garbitu ahal ukaitea goxamendu handi bat da. Goxamendu horren kontrakoa nuen senditzen gambarara igaiteko atsekabea nitan sartzen zenean molde ezin gehiago lasterrean, abantzu berehala, aldi berean maltzurki eta bapatez, mailalde horren berniza usainean hats hartzetik, izpiritura sartzea baino ainitzez pozoindua-goa. Gambarara heldu eta, jalbide guziak tapatu behar izan ziren, leihoak hetsi, nihauren hil-hobia zilatu, estalgiak baztertuz, gau athorrako hil-mihisea jantzi. Baina gambarara ekharria zen burdin-ohean ehortzi baino lehen, udan beroegi bainintzan ohe handiaren oihal ozkatuzko erridau-pean, jazartzera egin nuen, kondenuatu baten amarruaz baliatu nahi izan nintzan.

Amari izkiriatu naukon igan zadin othoitzu eskutitzean erran enindezokeen gauza serio baten gatik. Ene lazta zen Françoise-ek, izabaren kozinersak, Combray-n nintzanean nitaz artha hartzeaz kargatua baitzen,

ene hitza ereman nahi etzezan. Enuen dudarik hari, jendea bazenean amari komisione baten egitea ezina idurituko zizakola antzoki bateko athezainari tauladan ari den jokari bati eskutiz baten emaita bezainbat. Egin zaitezkeen edo etzaitezkeen gauzen aldera bazuen lege berezi bat bortitza, nasaia, xorrotxa eta ezin amor emana berexkuntza ezin hartu eta hutsal batzuez (horrek lege zahar haien itxura baitzemon, ditiko haurren sarraskitzea bezalako manu abre batzuen ondoan, beraztasun behargabeko batekin debekatzen dutenean ahuña baten eraki-araztea bere amaren esnean, edo ihizi batean izterreko zainaren jatea). Lege berezi horrek, emaiten ginauzkon komisione batzuen ez egin nahi ukaiteko ezartzen zuen burugogorkeriatik jujatzen bazen, iduri zuen aitzinetik bazazkiela gizarteko zailtasun batzu eta zorrozkeria mundutar batzu jeusek Françoise-ren ingurumenean eta ukana zuen sehi baserritar baten bizian gogora emanak ahal etzauzkokeenak ; eta gogatzera bortxatua zinen haren baitan bazela iragan frantzes bat biziki zaharra, noblea eta gaizki hartua, hala nola landegiekilako hiri batzuetan hotel zahar batzuek baitemate gorteko bizi iragan baten lekukotasuna, eta han ximiako landegi bateko langileak ari baitira san Theofilen mirakulua edo Aymon laur anaiak erakusten dituzten zizelkadura arin batzuen erdian. Aldi berezi hortan, ni bezain jende ttipi batendako Françoise, sutea ezpazen, amaren bila joanen zela Zuan Jauna han izanez itxura gutiko gauza bazegien legeko artikulua erran nahi zuen xoilik hark zuen errespetua ez bakarrik gurasoendako – hilentzat, aphezentzat eta erregentzat bezala – baina ere ostatu emaiten zaukon arrotzarendako, liburu batean behar bada hunkia ukanen ninduen errespetua baina haren ahoan sumintzen ninduena, hartaz mintzatzeko hartzen zuen doinu larri eta hunkiaren gatik, eta gaur oraino gehiago auhariari bazemon izantza sakratuak egiten baitzuen etzuela zeremoniaren uhertzea onhartuko. Baina zori bat neure aldera ezartzekotan, enintzan gezur baten aitzinean dudan egon hari erranez amari izkiriatu nahi ukan zuena enintzala batere ni, baina amak zautala, utzi ninduenean, bilatzera igorria ninduen gauza bati zoakonaz hari ihardesprenaren igortzea enezan ahatz gomendatua ; eta biziki gaitzitua izanen zen segurki hitz hori emaiten ezpalizako. Uste dut eninduela Françoise-ek sinetsi, ezen, sentsuak gureak baino azkarrago zituzten hastapeneko gizonek bezala, bazakusan berehala, guretako ezin hautemanak

ziren ikur batzuetarik, gorde nahi ginaukon edozein egia ; borts minuta egon zen eskutitz estalgiari beha paperraren eta izkirio itxuraren ikhertzeak barnekoaz argituko balu bezala edo bere legeko zein artikuluri hel egin behar zuen ikasiko. Gero athera zen itxura etsitu batekin iduri baitzuen erran nahi zuela : « Horrelako haur baten ukaitea eztenez gurasoendako zorigaitza ! » Ephe baten buruan itzuli zen oraino bakarrik hormakian zirela eni erraitera, mahi-nagusiak ordu hartan etzezakeela eskutitza eman, baina, aho xahutze-koen aldi izanen zenean, amari hel-arazteko bidea edirenen zela. Ene antsia berehala erori zen ; orai etzen arestian bezala bihar arteo ama utzia nuela, ene hitz ttipiak, hura gaitzituz behar bada (eta bietan joko horrek Zuanen begietan irrieginarri bilakatuko ninduelakotz), hura zen barne berean sarr-ara-ziko baininduen bederen ezin ikusia eta xoratua, beharrira nitaz mintzatuko baitzizakon ; jateko sala debekatu, etsai hori, zuela ephe labur bat bakarrik, hormak berak - « pikor-harri iduria » - eta aho xahutze-koek hor iduri baitzizatan atsegin gaizkor eta hiltzeraino trixte batzu gordetzen zituztela, amak nitarik urrun jastatzen zituelakotz, enetako idekitzen zen eta, udare ondu batek azala hausten duen bezala jalgi-araziko zuen, ene bihotz xoraturano igorriko, ene lerroen irakurtzen ariko zelarik, amaren oharra. Orai enintzan harenganik berexia ; mugak eroriak ziren, ezin goxoagoko hari batek batzen gintuen. Eta gero, etzen hori guzia : ama ethorriko zatekeen!

Senditu berria nuen antsiaz, uste nuen Zuan ontsa trufatuko zela ene eskutitza irakurri balu eta zuen helburua asmatu ; aldiz alta, berantago ikasi dutan bezala, antsia berdin bat biziko urte luzetan haren oinazea izan zen, eta nehork enindukeen behar bada hark baino hobeki entzunen ; hari, maite den bat norbera han ezten atseginezko leku batean dela, han ezin batu datekeela senditzean ukaiten den antsia hori, maitasunak dauko ezagun-ara-zia, maitasunak, hortarako baita zerbait moldez aitzinetik egina, hark baitu hartua ukanen, den bezalakatua ; baina, enetako bezala, gure baitan sartua denean bizian oraino agertua den baino lehen, hura igurikatuz airean dago, ez garbi, ez estekan, zerbaitetara zuzen emana izan gabe, egun batez sendimendu baten meneko, biharamunean bertze baten, noiz aitamen alderako samurtasunaren, noiz lagun batenerako adixkidantzaren. Eta Françoise ene eskutitza emana izanen zela erraitera jin zizatanean, lehenbiziko ikasgoa hor-

tarik ukan nuen bozkarioa, Zuanek ezaguna zuen ere, maite dugun emaztearen adixkide zenbaitek, ahaide zenbaitek emaiten daukun bozkario enganakorra, noiz ere, hura den hotelera edo antzokira, han berraurkituko duen dantzaldi, besta edo lehen aldian emaiten den antzerti bateko, adixkide horrek ikusten baikitu kampoan ibilki, harekin solastatzeko aldi zenbait etsituki igurikatuz. Ohartzen zaiku, etxeko etxeko bezala mintzatzera jiten, hor zer ari giren galdez. Eta nola asmatzen baitugu zerbait badugula haren andere ahaide edo adixkide bati lehiatuki erraiteko, segurtatzen dauku jeus ezteza errexago, sarr-arazten gitu eta bortz minuta baino lehen igorriko daukula hitzemaiten. Zenbat dugun maite – ordu hartan Françoise maite nuen bezala –, arartekari xede oneko on hura hitz batez jasagarri, goxo, abantzu aldeko egin daukunean besta ezin asmagarria, ifernutarra, uste baiginuen hartan zirimola etsai, bihurri eta goxagarri batzuek bazeramatela gutarik urrun, hari gutaz irri egin-araziz, maite duguna ! Hartarik jujatzen badugu, gure gana jin den eta hura ere mixterio gaixto horietan argitua denetarik bat den ahaideak, bestako bertze gomitek ere ontsa gaixtorik deus eztukete. Hura atsegin ez ezagun batzuen jastatzera zoan ordu ezin hatzeman eta oinazegarri horietara, huna nun ustegabeko haustura batetik sartzen giren ; huna nun heien lerro jarraikiak egin ukanen zuen orduetarik bat, bertzeak bezain ordu egiazkoa, handiagoa ere behar bada guretako, gure maitea hartan gehiago barne delakotz, gogoan itxuratzen dugun, gurea dugun, hartan sartzen giren, abantzu guhaurek egin dugun : hor girela, behean, erranen zakon ordu hura. Eta bestako bertze orduak etzaitzkeen behar bada izaitez hortarik biziki ezperdinak, jeus etzuketean goxagarriagorik eta hainbertze oinaze eman-araziko zaukunik, adixkide borondate onekoak erran daukunaz geroz : « Baina jausteko loriatua izanen da ! Zurekin mintzatzeak gain hartan asperteak baino atsegin ainitz gehiago egingen dauko. » Ondikotz ! Zuanek hori phorogatua zuen, ararteko baten xede onek indarrrik eztute besta baten barnerano maite eztuen batez jarraikia izaiteaz sumintzen den emazte baten baitan. Ainitzetan, adixkidea bakarrik jausten da.

Ama etzen ethorri, eta neure alderako amodioarendako (behar baitzuen haren ondorioa erran nezon alegia othoiztua ninduelako bilaketaren ixtorioa gezurtatua izan etzadin) gupidesterik gabe, Françoise-ren ga-

nik hitz hauk erran-arazi zauztan : « Ezta ihardespenik » geroztik hain usu entzun baititut « palazio » batzuetako athezain edo joko-etxe batzuetako mutil batzuek ustegabetzen den neska gaixo zenbaiti erraiten : « Nola, jeus eztu erran, baina ezin da ! Alta ene ezkutitza emana daukozu bada. Ontsa da, igurikatuko dut oraino. » Eta – harendako argi-moko bat gehiago phiztu nahi duen athezainari beharrik ezuela errepikatzen daukon bezala, hor be-rean dago, ari den aroz athezainaren eta bapatez, orenari ohartuz, barnean den norbaitendako edariaren hormakian ezartzera igortzen duen mutil baten arteko elhe bakarrak baizik entzuten eztituela – enetako tisanaren egitea edo ene ondoan egoitea eskaintzen zautan Françoise-ri eza emanik, uzten nuen berriz sukaldera jausten, etzaten nintzan eta begiak hesten nituen baratzean kafearen hartzen ari ziren aitamen mintzoaren ez entzuteko indar eginez. Baina zekunda zenbaiten buruan, hitz hori amari izkiriatuz, haren gana, gaitzitzeko irriskutan, hainbertzetarano hurbilduz nun uste ukan bainuen haren berrikusteko orduaren hunkitzera nindoala, hura ikusi gabe lokhartzeko ahala hautsia nuen, eta ene bihotzaren bampak minutatik minutara mingarriagotzen ari ziren nihauren nahasmendua handitzen nuelakotz neure zorigaitzaren onhartzea zen jabaldura neure buruari pheredikatuz. Bapatez ene antsia urtu zen, zorion batek hartu ninduen erremedio azkar bat ondorio egiten hasten den eta oinaze bat ekhentzen daukun bezala : ama berrikusi gabe ez lokhartzeko deliberoa hartua nuen, zer gusta ere haren besarkatzekoa, etzatera iganen zenean, gero luzaz harekin samurtua izanen nintzala segur izanik ere. Antsien bururatzeak bazematan jabaldurak alaitasun ohigabeko batean ezartzen ninduen, ez igurikatzearenak, egarriarenak eta lanjerraren beldurrarenak baino gutiago. Leioha harrobotsik gabe ideki eta ohe zangoan jarri nintzan ; beheretik entzun enezaten mugimendurik abantzu batere enuen egiten. Kampoan, gauzek iduri zuten, hek ere, oharpen ixil batean geldituak ilargi xuriaren ez nahasteko, haien aitzinean bere leinuruaren hedatzeaz gauza bakoitza bikunduz edo gibeleratuz, bera baino tinki eta gogorragoaz, eskualdea aldi berean mehatua baitzuen eta handitua, karta ordu arteo ple-gatu bat zabaltzen den bezala. Higitzeko beharra zuena, itsas-gaztena ostail zenbait, higitzen zen. Baina haren ikhara xeheak, osoak, berexkuntza den gutienekoekin eta beraztasun guziekin eginak, etzarion gaineratekora, ha-

rekin etzen nahasten, bere mugetan zagon. Ezer iresten etzauen ixil horren gainera emanak, hots urrunduenak, hiriaren bertze buruko baratze batzuetarik heldu zatezkeenak, xeheki entzuten ziren halako xorroxtasunean nun iduri baitzuten urruntasunezko ondorio hori etzadukatela ezin ahulagoak izaitetik baizik, hala nola Konserbatorioko orkeztrak aphaal-aphalean hain ontsa dematzan aireak nun uste baita, nahiz ezten nota bat galtzen, musikaldiko salatik urrun entzuten direla eta abonatu zahar guziek – amatxiren ahizpek ere Zuanek lekuak emanak zezteenean – beharria luzatzen baitzuten oraino Treviso-ko karrika izkina itzulia ukana etzuen armada baten aitzinatze urruna entzuna ukan balute bezala.

Banakien hartan jartzen nintzan aldia enetako, aitamen aldetik, ondorio larrienak ukan zezazkeena zela, egiaz arrotz batek usteko zukeen baino ontsa larriagoak, huts zinez ahalgegarri batzuek baizik haren ustez eman etzazketeenetarik. Baina emaiten zizatan erakaskuntzan, hutsen araua etzen bertze haurren erakaskuntzan bezalakoa, eta jarria ninduten bertze orenen aitzinean batzuen ezartzera (artha gehiagorekin haien kontra zaindua izan beharra nuenik etzaitzatekeelakotz), orai baitakusat haiek guziek duten berdintasuna zainen olde bati amor emanez hetarat erortzean dela. Baina etzen orduan hortaz hitzik erraiten, etzen hastapen hori argitara emaiten sinetsarazten ahalko baitzautan huts hetara erortzea desenkusagarri zela edo ere haier ihardesteko ahalik enuela. Ontsa ezagutzen nituen alta aitzinean zuten antsiatik, jarraitzen zizaien zigorraren garratzetik bezala ; eta banakien egina nuen huts hori haiendako lardeki gaztigatua ninduten bertze batzuen mota berekoa zela, nahiz ainitzez larriago. Etzatera iganen zenean amaren bidean jartzera joanen nintzanean, eta artebidean hari gauon erraiteko jeikirik egona nintzala ikusiko zuenean, biharamunean kolegioan ezarriko ninduten, segurra zen. He bada ! bortz minuta berantago neure burua leihotik egoztekotan ere, oraino hori nahiago nuen. Orai behar nuena, ama zen, hari gauon erran, nahikaria horren betetzera zeraman bidean urrunegi joana nintzan gibelera egin ahal ukaiteko.

Zuanen despeditzen ari ziren aitamen urratsak entzun nituen ; eta atheko kuxkulak joana zela jakin-arazia ukan zautanean, leihora joan nintzan. Amak aitari galdegiten zaukon otharraina ona aurkitua zuenez eta Zuanek kafe 'ta piztaxarekilako hormakitik berriz hartua. « Ontsa hala-hulakoa

iduritu zata ; uste dut beharko dela heldu den aldian bertze usain batekotik entseatu. – Zuan aldatzen ari dela zenbat iduritzen zatan ezin dirot erran, badu zahar bat ! » Izababixia hainbat zen beti Zuanen baitan mutiko gazte-gazte baten ikusten ohitua nun ustegabetzen baitzen bapatez emaiten jarraititzen zizakon adina baino gutiago gazte aurkitzez. Eta aitamak ere hasiak zizazkon ezkongabekoen zahartasun ohi ez bezalako, soberazko, ahalgegarri eta mereziaren aurkitzen, biharamunik gabeko egun argia bertzerendako baino luzeagoa dela iduri duen guzienarena, hutsa delakotz haiendako eta orduak hartan goizetik hasiz metatzen baitira gero haur batzuen artean zatikatu gabe. « Uste dut griña ainitz baduela bere emazte frikunarekin Combray guziaren jakinean Charlus-ko Jaun delako batekin bizi baita. Hiriko ixtorio-mixterioa da. » Amak oharr-arazi zuen zenbait dembora hartan ontsa gutiago trixte iduri zuela alta. « Bekanago badagi ere osoki aitak bezala duen jestu hori, begiak xukatuz eta eskua bekokira emanaz. Nik uste dut azkenean emazte hori eztuela gehiago maite. – Baina segurki eztu gehiago maite, ihardetsi zuen aitatzik. Haren ganik eskutitz bat ukana dut gai hortaz duela aspaldi, nahi zuenaren egitetik lehian zaindu bainiz, eta ezpaitu bere emaztearendako zituen sendimenduez dudarik batere uzten, maitasunezko ez bederen. He bada ! ikusten duzue, Astiko arnoaz eztuzue eskertu », gaineratu zuen aitatzik bere bi goinatetara itzuliz. « Nola, ez eskertu ? uste dut, artetik erraiteko, hori aski polliki itzuli daukotala ere », ihardetsi zuen Flora izabak. « Ba, biziki ontsa antolatu dun : miretsi haut, erran zuen Zelina izabak. – Baina hi, biziki ontsa izan hiz ere. – Bai, aski burgoi nindunan auzo maitagarriezko erranaldiaz. – Nola, eskertzea hori duzue! egin zuen aitatzik. Entzun dut bada, baina debruaz Zuanendako zela uste ukan badut. Jeus eztuela hartu segur izan zitezket. – Baina bada, Zuan ezta zozoa, estimatu duela segur niz. Enezakokeen alta erran zenbat botoila zen eta arnoaren saria zer ! » Aita eta ama bakarrik gelditu ziren, eta ephe batez jarri ; gero aitak erran zuen : « He bada ! nahi baduzu, etzatera iganen gira. – Nahi duzun bezala, ezpadut ere logale izpirik ; ezta alta kafearekilako hormaki hoin arina atzarririk atxiki ahal nuena ; baina argia ikusten dut sukaldean eta Françoise gaizoak igurikatu nuenaz geroz, gerruntzetakoa laxa dezatan galdatuko daukot zu jantzien uztera joanen ziren artean. » Eta amak ideki zuen mailaldera bazeman sargiako athe sareduna. Berehala, entzun nuen

lechioaren hesten. Harrabotsik gabe artebidera joan nintzan ; bihotzak hain azkar joiten zautan nun ibiltzea neke baitzizatan, baina etzuen bederen antisiaz joiten, baina laztaz eta bozkarioz. Mailalde-etxean ikusi nuen amaren ezkoak bazigorraren argia ; gero ama bera, jauzian abiatu nintzan. Lehenbiziko zekundan, ustegabeturik so egin zautan, zer gertatzen zen ezin hartuz. Gero haren aurpegia haserre itxura batera iztuli zen, hitz bat ere etzautan erraiten, eta alabaina hori baino biziki gutiagoko etzautaten egun andana batez hitzik erraiten. Amak hitz bat erran balaut, horrek berriz mintzatzen ahal zizatala erran nahiko zuen eta behar bada oraino izigarriago iduriko zizatan, mol-datzen ariko zen zigorraren larritasunaren ondoan, ixila, gaitzitzea haurkeria batzu izanen zirelako seinale bat bezala. Elhe bat, haizatuko dela deliberatu den sehi bati ihardesten zaukon gogo berdintasuna izanen zen ; armadan sartzera igortzen den seme bati emaiten den musua, bi egunez baizik harekin samurtua izanez ezetsiko zizakolarik. Baina aita entzun zuen han jantziak utzi berriak zituen ikuztegitik igaiten, eta, eginen zautan erasialdiaren baztertzeko, haserreak hausten zuen mintzo batekin erran zautan : « Hoa ihes, hoa ihes, aitak ikus ehaizan bederen ero bat iduri horrela igurikan ! » Baina errepikatzen naukon : « Gauon erraitera zaugi », laztan aitaren ezkoargiaren leinurua ikusiz jadanik harresian goiti ari, baina ere haren hurbiltzeaz baliatuz eta ustez amak, ez erraiten jarraitzen baldin bazuen aitak oraino hor ediren nindezan ez nahiz, erranen zautala : « Sar hadi gambaran, ethorriko niz. » Berantegi zen, aita aitzinean ginuen. Nahigabea, nehork entzun etzitu- en hitz hauk murmurikatu nituen : « Galdua niz ! »

Etzen horrela izan. Aitak beti ezesten zauztan amak eta amatxik antolamendu zabalagoetan haizu utziak zauztatenak, ezpaitzen « prinzipioez » axolatzen eta harekin « jenden Zuzenbiderik » ezpaitzen. Osoki gertakizuneko arrazoin baten gatik, edo berdin arrazoinik gabe, azken orduan ekhertzen zautan horrelako ibilaldi bat hain ohikoa, hain sakratua nun ezpaininduten hartaz zina hautziz baizik gabetzen ahal, edo ere, oraino gaur egina zuen bezala, ohiko ordua baino biziki lehenago, erraiten zautan : « Goazen, igan hadi etzatera, bertzerik ez ! » Baina ere, « prinzipiorik » (amatxiren erran-nahian) etzuelakoz, etzen egiazki ezin amor emana. So ustegabetu eta gaitzitu batekin behatu zautan ephe batez, gero amak zenbait hitz trabatuez argitua ukana zaukoneko zer gertatua zen, erran zaukon : « Baina

zoaz bada hunekin, logale etzirela zinionaz geroz hain zuzen, zaude ephe bat hunen gambaran, nik jeusen beharrik eztut. – Baina, gaixoa, ihardetsi zuen herabeki amak, logale nizan ala ez, jeus eztu horrek aldatzen, haur hau ezta ohitu behar ... - Ezkira ohitzeaz ari, erran zuen aitak soingainak goitituz, badakusazu ontsa ttipi hunek atsekabea baduela, lastiman iduri du haur hunek ; bada, ezkira burregoak ! Eritua ukanen duzunean, hobeki izanen zira! Gambaran bi ohe badituenaz geroz, errozu bada Françoise-ri ohe handia antola dezazun eta hunen ondoan lo egizu gau huntan. Bada, gauon, ni ezpainiz zuek bezain zaintsu, banoa etzatera. »

Aita etzen eskertzen ahal ; berazkeriak zeritzeenez nardatuko zen. Higitzera ausartu gabe egon nintzan ; gure aitzinean zen oraino, handi, bere gauazko arropa xurian Indiako kaxamira briolet eta gorrxatan buru inguruan estekatzen zuena zainetako min batzu ukanak zituenaz geroztik, Zuan Jaunak emana zautan Benozzo Gozzolitik egin grabaduran Abrahamek duen jestuarekin, Zarah-ri dionean Izaak-en aldetik behar duela baztertu. Horrek baditu urteak eta urteak. Ezkargiaren leinurua han igaiten ikusi nuen mailaldeko harresirik ezta aspaldidanik. Neure baitan ere ainitz gauza barreatu dira beti iraun behar zutela uste nituenak eta berri batzu egin orduan aitzinetik ikusiak ukan enezazkeen bihotzmin eta bozkario berri batzu sortuz, lehengoak argitzeko nekeak bilakatuak zautan bezala. Aspaldi badu ere aita gelditua dela amari erran ahal ukaitetik : « Zoaz ttipiarekin. » Horrelako orduen izan ahala nehoiz etzata berriz sortuko. Baina duela guti danik, berriz hasten ari niz, beharria baldin bademat, aitaren aitzinean haien atxikitzeo indarra ukan nuen eta amarekin bakarrik izan nintzanean baizik agertu etziren hipen biziki ontsa hautemaiten. Egiki nehoiz eztira gelditu ; eta orai bizia ene inguruan gehiago ixiltzen delakotz ditut berriz entzuten, hala nola egunaz hiriko harrabotsek hain ontsa estaltzen dituzten komentuateko ezki-lak nun geldituak direla uste bailizateke baina arratseko ixilean berriz joiten hasten baitira.

Amak gau hura ene gambaran iragan zuen ; etxearen uztera bortxatua izanen nintzala uste ukaiteranoko hutsa egina nuen orduan, aitamek emaiten zautaten ehoiz egintza eder baten saritako ukanen nuen baino gehiago. Garazia horren bidez agertzen zen orduan ere, aitak ene aldera zuen eginarak bazadukan bere nahitarako eta merezitu gabeko zerbait berezi hura, aitz-

netik hartu xede bati baino gehiago ustegabeko egokitasun batzuen ondorioari eratzikia baitzen. Badateke ere haren larderia deitzen nuenak, etzatera igortzen ninduenan, izen hori amarenak edo amatxirenak baino gutiago zuela merexi, ezen haren jiteak, gauza batzuetan haiena baino nihaurenetik ezperdinagoa, ezpaitzukeen orai arteo asmatua zein zorigaitzekoa nintzan ar-rats oroz, amak eta amatxik ontsa bazakitena ; baina eninduten aski maite oinazetik begiratzera ez uzteko, nahi zautaten haren menperatzen ikasi ene sendikortasun zaintsuaren ttipitzeko eta borondatearen azkartzeko. Aitari doakonaz, enetako zuen sendimendua bertze mota batekoa baitzen, eztakit kuraia hori ukanen zuenez : atsekabeen nintzala hartua zuen aldi bakarreko, amari errana zaukon : « Zoaz bada haren konsolatzera. » Ama gau hartan ene gambaran egon zen eta, ukan behar nituela uste ukana nuenetik oren hain bertzelako horien urriki batez ere ez andeatzeko bezala, Françoise-ek, ama ene ondoan jarria ikusiz, eskutik atxikitzen ninduela eta erasiatu gabe nigarrez uzten, ohigabeko zerbait bazela sendi baitzuen, galdegin zaukonean : « Baina Anderea, Jaunak zer du horrela nigarrez ? » amak ihardetsi zuen: « Baina berak eztaki, Françoise, zainetan da ; antola ezatazu laster ohe handia eta igan zaite etzatera. » Horrela, lehen aldikotz, ene bihotzmina etzen gehiago huts zigorgarri bat bezala hartua baina agerian nahigabezko gaitz bat bezala onetsia, hartaz ogengabe nintzan zainetako izan molde bat bezala; arindua nintzan ene nigarretan arrangurarik ez gehiago nahasi behar ukaiteaz, nigar egin nezakeen bekatu-rik gabe. Enintzan ere Françoise-ri buruz biziko gauzen itzultze hortaz guti burgoi, horrek, amak ene gambarara igaitea ezetsia zue- netik oren bat berantago eta lo egin beharko nuela erdainuz ihardets-arazia zautanetik, jende handi baten gaitasunera goititzen baininduen eta bapatez griñan halako nerabetasun batera, nigarretako liberatze batera hel-arazten. Zori ondun izean beharko nuen : enintzan hala. Baziduritan amak mingarri zizakokeen lehenbiziko amor emaite bat egina zuela, enetako asmatua zuen hoberenari buruz lehenbiziko gibelatze bat, eta lehen aldikotz, hura, hain kuraiaduna, garhaitua aihortzen zela. Baziduritan garhai- pen bat irabazi berria baldin banuen haren kontra zela, heldua nintzala, eritasunak, griñek, edo adinak egina ukan ahalko zuten bezala, haren borondatearen guritzera, arrazoinaren ahul-araztera, eta arrats horrek aro berri bat hasten zuela, egun trixte bat bezala geldituko zela. Ausartu banintz orai, amari erranen naukon:

« Ez, eztut nahi ; etzaitela hemen etzan. » Baina haren baitan amatxiren jite sutsua ematen zuen zuhurtasun orotakoa ezagutzen nuen, egun dioten bezala « gauzazkoa », eta banakien, gaizkia orai egina zenaz geroz, nahia-goko zautala bederen atsegin ezti hori jastatzera utzi aitaren nahastera joan gabe. Egiaz, amaren begitarte ederrak gaztetasunez argitzen zuen oraino eskuak hain eztiki atxikitzen zauzta eta ene nigarren gelditzera entseatzen zen arrats hartan : baina baziduritan hain zuzen horrek etzuela izan behar, haren haserrea haurzaroaz geroz ezaguna enuen eztitasun berri hori baino gutiago bihotzmingarri izanen zizatala ; baziduritan esku fedegabe ‘ta segetuzko batez haren ariman lehenbiziko zimurdura bat marratu berria nuela eta lehenbiziko ile xuri bat agerr-arazia. Gogoeta horrek ene hipak bigundu zituen, eta ama ikusi nuen orduan, etzelarik enekin ehoiz ere edozein berzatasunetara joaitera uzten, bapatez enez hartua izaiten eta nigar egiteko gura baten gordetzen. Hortaz ohartua nintzala senditu baitzuen, erran zautan irriz : « Horra ene ttipi maiteak, ene xoriñoak, ama bera bezain xoxo bilakatuko duela, horrela jarraikitzen badu. Goazen, logale ehizanaz geroz ez eta ama ere, ezkaiten zainetan egon, dagigun zerbait, hire liburuetarik bat har dezagun. » Baina libururik enuen hor. « Atsegin gutiago hukea jadanik atheratzen baldin banitu amatxik hire bestako eman behar dauzkikan liburuak ? Ontsa goga ezak : etzi jeus ez ukaitez ehiz gaitzituko ? » Loriatua nintzan aldiz eta ama joan zen liburu sorta baten bila ezpainuen asmatu ahal, inguratzen zituen paperraren azpian, haien neurri zabal eta laburra baizik, baina, lehenbiziko itxura hortan, alta azalekoa eta estalia, itzaltzen baitzituen jadanik Urthateko margo untzia eta aitzineko urteko zetharrak. Horiek ziren *La Mare au Diable*, *François le Champi*, *La Petite Fadette* eta *Les Maîtres Sonneurs*. Amatxik, dut geroztik jakin, hautatuak zituen Musset-en poesiak, Rousseau-ren liburu bat eta *Indiana* ; ezen irakurgai arinegiak ononak eta bixkotxerriak bezain kaltegarri baldin bazizazkon, etzuen uste jeinuzko haize handiek ukan zezaketela haur baten izpirituan, aire beteak eta itsas-haizeak haren soinean baino eragin lanjerosagoa eta gutiago phizkarria. Baina aitak abantzu erranik eroa zela eman nahi zauzta liburuen ikastean, berriz itzulia zen bera Jouy-le-Vicomte-ko liburu saltzalearen baitara emaitzarik ukan enezan beldurrez (erretzeko eguna zen eta hain eri sartua zen nun medikuak jakin-arazia baitzaukon amari etzela horrela akhitaraztera utzi behar) eta

George Sand-en laur elaberrietara joa zuen. « Alaba, zion amari, haur huni zerbait gaizki izkiriaturen emaitera enindaiteken delibera. »

Egiki, behin ere etzuen adimenduko abantail zenbait bil etzaitkeen jeusen erostea onhartzen, eta oroz gainetik gauza ederrek emaiten daukuten hura, gure atseginarenean bilatzen ikasiz ongi-izanezko eta hutsaleriazko gozalditik bertze nunbait. Zerbait emaitza baliagarri norbaiti egin behar zuenean ere, eman behar zituenean jargia bat, mahiko batzu, eskumakila bat, « zahar batzu » bilatzen zituen, haien bazterrean uzte luzeak baliagarri izanak zirela ezabatua ukanik, guri lehengo gizonen biziaren erraitera guhaurenaren beharretako baliatzera baino gehiago emanak balidurite bezala. Nahiko zuen eraikuntza eta eskualde ederrenen argazkiak ukan nitzan ene gambaran. Baina haien erosterako orduan, eta nahiz erakutsia zen gauzak edergintzako balioa bazuen, iduri zizakon arruntasunak, baliagarritasunak bere lekua lasterregi hartzen zutela mekanikazko erakus-moldean, argazkian. Enganio zenbaiten egitera entseatzen zen eta, salerospeneko arruntasunaren osoki ezabatzeraz ezpazen, bederen ttipitzera, haren orde, gehienean, oraino edergintzatik ezartzera, edergintzako « mail » batzuen metatzera : Chartresko katedralaren, Saint-Cloud-eko ur handien, Vesuvio-aren argazkien orde, Zuanen ganik jakin nahi zuen margolari handi zenbaitek etzituenez itxuratu, eta nahiago zazkitan eman Chartresko katedralaz Corot-ek egin margazkiaren, Hubert Robert-ek Saint-Cloud-eko ur handiez eginaren, Vesuvioaz Turner-ek eginaren argazkiak, edergintzako mail bat gehiago baitzegiten. Baina argazkilaria ederlan nagusiaren edo eskualde baten itxuratzetik baztertua izana baldin bazen eta edergile handi batez ordaindurik izana, berritxuratzeko hortako bereko bere dretxoak berriz hartzen zituen. Arruntasunaren mugara heldu eta, amatxik haren gibelatzera indar egiten zuen oraino. Zuani galdegiten zaukon lana etzenez grabaturik izana, hautetsiz, ahal bazen, grabadura zahar batzu beretik haratago baliagarri zerbait bazutena oraino, behazunez ederlan zenbait itxuratzen dutenak, gaurregun ikus eztezakegun molde batean (hala nola Leonard-en *Azken auharia*, Morghen-ek andeatua izan baino lehen). Erran behar da emaitza baten egiteko moldearen hartzeko ara horren ondorioak etzirela beti hoberenetarik izan. Veneziaz hartu nuen ideia zola omen itsas-bazterra ukan behar duen Titien-en marrazki baten

arabera, argazki xoil batzuek emana ukanen zautatena baino biziki gutiago zuzena zen segurki. Etxean ezin karkula zaitzkeen gehiago, izababitxiak amatxiren kontra salakuntza bat moldatu nahi zuenean, hunek ezkongai gazte batzuer edo senarr-emazte zahar batzuer eskaini jargiak, hauk, baliatzeko egin zen lehenbiziko aldian, berehala lehertu baitziren ukanak zituenerarik baten phizu azpian. Baina amatxik usteko zuen ttipi izanen zela hartan loreño bat, irriño bat, batzuetan iraganeko asmakuntza eder bat oraino ageri zen zureria baten azkartasunaz sobera axolatzea. Muble horietan behar bati ihardesten zuenak ere, gehiago ohituak ezkiren molde batean baitzen, xoratzen zuen, hetan hitzordain bat, gure hizkuntza berrian ohitzearen higaduraz ezabatu bat ikusten den erran-molde zaharrek bezala. Bada, hain zuzen, ene bestako emaiten zautan George Sand-en elhaberri baserritarrak, beteak ziren, mubleria zahar bat bezala, ez erabiliaren ondorioz berriz itxuragarri bilakatuak ziren itzuli batzuez, baserrian baizik aurkitzen ez zirenen bezalakoez. Eta amatxik bertze batzuer hautetsiz erosiak zituen, urzotegi gothiko bat balukeen etxalde bat, edo aroan zehar ezinezko bidaien urriki bat emanez izpirituan eragin zorionezko bat baduten gauza zahar horietarik zenbaiteki-lako bat gogotikago alokatuko zuen bezala.

Ama ene ohe bazterrean jarri zen ; *François le champi* hartua zuen haren estalgi gorriak eta izenburu ezin entzunak emaiten zaukotela enetako nortasun berezi bat eta bereganatzen zuen mixterio bat. Behin ere enuen oraino egiazko elhaberririk irakurria. George Sand elhaberrigilearen eredu zela erraiten entzuna nuen. Horrek ezartzen ninduen jadanik *François le champi*-tan zerbait ezin erranezko eta ezin goxagarriagoren asmatzeko aran. Ikus-nahia eta bihotz hunkitzea sustatu nahi dituzten ixtorio khondatzeko egitatek, khexua eta gogo ilundura phizten dituzten erran-molde zenbaitek, irakurle apur bat argitu batek elhaberrietan ohikoak bezala ezagutzen dituelarik, iduri zitzaztan bakarrik eni – liburu berri bat ezpainuen bertze ainitz gauzen berdina bezala ikusten, baina norbait berezi bezala, izaiteko arrazoi-nik bere baitan baizik etzuen – *François le champi*-ren izaitze bereziaren emaitza hunkigarria. Gertakari hoin egunorotakoen, gauza hoin arrunten, hitz hoin ohikoen azpian, sendi nuen halako doinu, mintzara bitxi bat. Ixtorioa hasi zen ; hanbatez ilunago iduritu zizatan nun orduan, irakurtzen ari nint-

zanean, usu orrialde osoetan bertze zerbaitez ameskerietan bainindagon. Eta gogo bazterte horrek ixtorioan uzten zituen hutsunen gainera, amak goratik irakurtzen zautanean, maitasunezko zati guziak ixiltzen zituen. Hortako eiherezaintsak eta haurrak nork bere egonaran dituzten aldakuntza bitxi guziak, ezpaitira argitzen hasten ari den maitasunaren aitzinatzetik baizik, mixterio handi batez beteak iduritzen zituztan, gogo onez uste bainuen haien ithurburua « Champi » izen ezezagun eta hoin ez-tian zatekeela, ekhartzen zuen haurraren gainean ezartzen zuela, nik jakin gabea, bere margo bizi, gorrindolatu eta xoragarria. Ama irakurle zuzena ezpaldin bazen, miragarria zen ere, sendimendu zintzo baten doinua aurkitzen zauen liburuetan, erraiteko moldearen errespetuaz eta lañotasunaz, mintzoaren ederraz eta ez-tiaz. Bizian ere berdin, jende batzuek zaukotenean eta ez liburu batzuek horrela bihozperatasuna eta miresmena sustatzen, hunkigarri zen ikustea nolako adeiarekin zituen baztertzen mintzoaz, jestuaz eta hitzez, lehenago haur bat galdua zuen ama hari min egin zezakokeen alaitasunezko elhe bat, agure horri bere adin handia gogora-araziko zaukokeen besta edo urtaburu batez orhoitzea, jakintsun gazte horri aspergarri iduriko zizakokeen etxeko solas bat. Hala hala, Gorge Sand-en hitz-laxoa irakurtzen zuenean, beti baitario amak amatxiren ganik bizian orenen gainean ezartzen ikasia zuen onezia hura, moraleko gaitasun hura, nik biziki berantago baizik liburuetan orenen gainean ezartzen ikasi behar enaukona, mintzatzetik hartan uhain indartsua hartua izan zadin debeka zezakeen ttipitasun oro, fazoineria orenen baztertzera behatuz, behar zuten xamurtasun natural guzia, ez-titasun zabal guzia emaiten zauen, haren mintzoko eginak iduri zuten eta oso osoan haren sendikortasunaren barnean hartuak bezala zirela baziduriten erranaldier. Haietan behar den doinuan hasteko, berredireiten zuen aitzinetik baduten eta egileak eman zauen bihotzeko ara gozoa, baina hitzek erakusten ez-tutena ; horri esker, artetik gordintasun guzia goxatzen zuen aditzaren aroetan, iragan mugagabeari eta mugatuari emaiten onezian den ez-tia, xamurtasunean den gogo ilundura, bururatzen ari zen erranaldia hastera zoanera bidatzen, silaben urratsa noiz lehiatuz, noiz urrituz haien sarr-arazteko, nahiz neurritz ezperdinak, neurkada berdin batean, hitz-laxo hoin ohikoari bazemon halako bizi sendimenduzko eta jarraiki bat.

Ene urrikiak jabalduak ziren, neure burua uzten nuen ama ondoan nuen gau hortako eztitasunera joaiten. Horrelako gau bat ezin berri zaitekeela banakien ; munduan ukan nezakeen gutizia handiena, oren ilun trixte horietan amaren atxikitzea gambaran, gehiegi zoala biziko beharren eta orok nahi zutenaren kontra, gaur onhartua zizakon egintza gauza falsu eta ohi ez bezalakotik bertze zerbaite izan zadin. Bihar ene antsiak berriz hasiko ziren eta ama etzen hor egonen. Baina antsia horiek geldituak zirenean, enituen gehiago hartzen ; eta bihar arratsa urrun zen oraino ; banion neure baitan deliberatzeko astia ukanen nuela, nahiz ordu hark etzezaketan gehiagoko ahalik batere ekhar, borondatearen meneko enituen gauzak zirenaz geroz eta bakarrik oraino nitarik berexeten zituen arteak huts egin-arazkarriago iduri-arazten zauztanak.

Horrela izan zen luzaz, gauaz iratzarririk, berriz Combray-z orhoitzen nintzanean, ehoiz enuela halako zati argitu hori baizik berrikusi, ilun nahasi batzuen artean hautsia, Bengale-ko su baten hartzeak edo eletrikazko ikusgarri zenbaitek argitzen dituztenak bezala eta berexeten bertze zatiak ilunbean murgilduak dauden eraikuntza batean : behere aski zabalean, saloin ttipia, jateko sala, Zuan Jauna, ene trixtezien egilea bere nahigabetan, handik ethorriko zen bidexka ilunaren hastapena, igaiteko hain mingarri zen mailaldeko lehen mailera buruz nindoan sargia, berak bakarrik baitzegien piramida ezberdin hortako zutoi biziki hertsia ; eta, gain-gainean, ene etzateko gambara amaren sartzeko artebide ttipi berinadunarekin ; hitz batez, beti oren berean ikusia, haren inguruan zatekeen orotarik berexia, ilunean bera bakarrik agerian, aphaindura hertsiki beharrezkoa (herrialdetan antzerti zaharren idurietako gainaldean ezarria ikusten den bezalako) ene buluztearen trajeriako ; Combray bi estaia mailalde mehe batek elgarri lotuez egina izan ezpaliz eta nehoiz arratseko zazpi orenak baizik izan ezpalire bezala. Egia erran, galdekatuko ninduen bati ihardetsi ahalko naukon Combray-k bertzerik ere bazuela eta bertze oren batzu ere bazirela. Baina gogoratuko zizatana

nahizko ohoitzapenak baizik emana ukanen ezpaitzautan, adimenduaren orhoitzapenak, eta iraganaz badematzan xehetasunek harenetik ezer ezpaitadukate, ehoiz enuen Combray hartaz gogoetatzeko gutiziarik ukanen. Hori guzia egiazki hila zen enetako.

Betikotz hila ? Badateke.

Halabeharretik ainitz bada huntan guzian, eta bigarren halabehar batek, gure heriotzeak, ezkaitu ainitzetan lehenbizikoaren fagoren luzaz igurikatzeraz uzten.

Biziki arrazoinetia badidurrit sineste zeltikarra diolarik galdu ditugun guzien arimak beheragoko izaite batean preso daudela, ihizi batean, landare batean, bizi gabeko zerbaitetan, guretako galduak alabaina, zuhatz baten ondotik iragaiten gertatzen giren egun bat arteo – ainitzendako nehoiz ethorriko eztena -, haien presondegia den gauzaz jabetzen gireno. Orduan jauzikharatzen dira, deitzen gituzte, eta ezagutuak dituguneko, xoramendua hautsia da. Guk liberatu eta, herioa garhaitua dute eta heldu dira berriz gurekin bizitzera.

Gure iragan aroz horrela da. Auherretan dugu hartaz orhoitzea biltzen, gure adimenduaren indar guziak debaldekoak dira. Haren eremutik eta menetik kampo gordea da, uste ezitugun gauza zenbaitetan, gauza horrek eman lezakegun sendimenean. Gauza hori, hilak izan gabe aurki dezakegun ala ez, halabeharrentan menean dago.

Urte ainitz bazen ordukotz, Combray-tik, ene etzatearen antzertia eta trajeria etzen orok etzuela enetako izaiterik, noiz ere neguko egun batez, etxera itzultzen ari nintzala, amak, hotzez nindagola ikusiz, eskaini baitzautan, ohi enuen bezala, the xorta baten hartzea. Ezetsi nuen lehenik eta, nik dakita zertako, aburuz aldatu nintzan. Igorri zuen « Madalena ttipiak » deritzeen bixkotx labur eta pottolo hetarik baten bila, Jondoni-Jakobe maskor baten kuxku ozkatuan moldatuak iduri baitute. Eta berehala, ohargabeen, egun haren hitsaz eta biharamun trixtearen aitzinetik ikusteaz lehertua, the kullera bat eman nuen han madalena zati bat guritzen utzia nuen ezpaine-tara. Baina hurrupa bixkotx porroxekin nahasiak aho sabaia hunki zautan ordu berean, jauzikharatu nintzan, nitan gertatzen zen ohigabeko gauzari oharrean. Atsegin ezin goxoago batek hartua ninduen, berezia, zerk egina zuen jakin gabe. Biziko gora-beherak orobat bilakatuak zizaztan, hartako

hondamenak lanjerrik gabeak, laburtasuna lillurazkoa, maitasunak badagien molde berean, izaite balios batez betetzen ninduela : edo hobeki izaite hori etzen nitan, ni zen. Arteko, iragankor, hilkor izaiten senditzetik gelditua nintzan. Zorion boteredun hori nundik ethorria ahal zizatan ? Thearen eta bixkotxaren gostuari lotua zela sendi nuen, baina hura baino ezin urrunago zoala, jite berekoa etzatekeela. Nundik zethorren ? Zer erran nahi zuen ? Nun hatzeman zaitekeen ? Bigarren hurrupa bat edaten dut hartan ezpaitut lehenbizikoan baino jeus gehiago aurkitzen, heren bat bigarrenak baino apur bat gutiago ekhartzen baitauta. Geldi nadin ordu da, edariaren indarrak ttipitzen iduri du. Argi da bilatzen dutan egia eztela hartan, baina nitan. Phiztua du, baina eztu ezagutzen, eztezake ethengabe errepika baizik, gero eta gutiago indarrekin, adi-arazten eztakitan eta berriz galdatu ahal nahi daukotan eta den bezala, ene manuko, sarri, berriz ediren nahi dutan lekukotasun hori, baitezpadako argitasun baterako. Kikera uzten dut eta neure gogora itzultzen niz. Egiaren edireitea hari dago. Baina nola ? Ezpai larria, gogoak berak gauditua sendi den aldi oroz ; hura, bilatzalea, bilatu behar duen herri iluna denean eta aldi berean dakien guzia jeus izanen etzaikonean. Bilatu ? ez bakarrik : berregin. Oraino ezten zerbaiten aitzinean da eta berak bakarrik egin dezakeenaren, eta gero bere argian sarr-araz.

Eta berriz hasten niz izanara ezezagun hori zer izaiten ahal zen galdeka, arrazoinetako phorogurik batere ekhartzen etzuen, baina bere dohatsutasunaren, bertzeak haren aitzinean ezeztatzen ziren egiatasunaren izaite ageria. Berriz agerr-arazi nahi dut. Gogoaz gibelera badagit lehenbiziko the kullera hartu nuen ordura. Izanara bera berredireiten dut, argi berririk gabe. Gogoari indar bat gehiago eskatzen daukot, aldi batez oraino ekhardezatan ihes doan sendimena. Eta, berriz hatzemaiteko entseatu den oldea jeusek hauts eztezan, traba guziak, kampoko gogamen guziak baztertzen ditut, beharriak eta oharpena auzoko gambarako harrabotsen kontra gerizatzen. Baina izpiritua debaldetan akhitzen sendituz, bortxatzen dut aldiz ezesten naukon libertimendu horren hartzera, bertze zerbaitez gogoetatzera, azken entsegu bateko berriz bizkortzera. Gero bigarren aldian, aitzinean duen guziaz husten dut, han ezartzen daukot berriz lehenbiziko hurrupa haren gustu oraino berri-berria eta neure baitan senditzen dut higitzen ari den, jeiki nahi

lukeen zerbait, ankoratik liberatua zatekeen zerbait, barnatasun handi bategan ; ihardokitzea sendi dut eta iragan eremueta hotsa entzuten.

Egiki, neure baitan pilpiratzen dena, iduria dateke, begietako orhoitzapena, hau, gustu hari estekan, nitarano jarraikitzen entseatzen baitzak. Baina urrunegi ihardokitzen du, nahasikiegi ; doi-doia hartan margo higituen zirimola ezin hatzemana nahasten den leinuru geza hautemaiten baldin badut ; baina duen moldea eztezaket berex, eztezoket galda adi-araz dezatan, izan daitekeen adi-arazle bakar bezala, haren lagun adin bereko, ezin bereziaren, gustuaren lekukotasuna, zein gertaldi berezikoa den ikas dezatan, iraganeko zein arokoa.

Ene konzienzia argiaren azalerano ethorriko dea, orhoitzapen hori, ordu berdin baten indarrak hain urrundik ene golkoaren zola-zolan galdekatzen, higitzen, jeik-araztera ekharri duen ordu iragana ? Eztakit. Orai ez tut ezer senditzen, gelditua da, berriz jautsia behar bada ; bere gautik berriz iganen denez nork daki ? Hamar aldiz behar dut berriz hasi, haren gana gurtu. Eta aldi oroz egiteko zail orotarik, lan gotor orotarik baztertzen gituden lazakeriak, entzun-arazi data utz dezatan, thea edan, egun huntako nazkak gogoan ukanez bakarrik, nekerik gabe ausnartzen uzten diren biharko nahikundeak.

Eta bapatez orhoitzapena berriz agertu da. Gustu hori, madalena zatiñoarena zen igande goizetan Combray-n (egun hartan ezpainintzan mezako orena baino lehen atheratzen), gambaran egun onaren erraitera joaiten nindakonean, Leonie izabak eskaintzen zautana thean edo ezki tisanan bustirik. Madalena ttipiaren ikusteak jeus etzautan orhoit-arazia jastatua ukan nuen baino lehen ; behar bada, geroztik ainitzetan ikusirik, jan gabe, bixkotxerietako ttauladetan, haien iduriak Combray-ko egun horiek utziak zituelakotz berriagoko batzuer eratxikitzen ; behar bada ere, gogotik hoin luzaz utzi orhoitzapen horietarik jeus etzelakotz bizirik gelditu, oro barreatu zelakotz ; moldeak – eta bixkotxazko maskor ttipi harena ere, hain gixenki atseginezkoa bere ixurdura larde ‘ta debotean – ezabatuak ziren, edo, lokharturik, konzienziara hel-araziko zituen hedatzeko indarra galdua zuten. Baina, iragan urrundu batetik jeus etzelarik gelditzen, izaiteak hil direnean, gauzak suntsitu, bakarrik, arinago baina bizkorrago, argalago, iraunkorrago, leialago, usaina eta gustua badaude oraino luzaz, arima batzu bezala, orhoituz, igurikatuz,

itxaroan, gainerateko guziaren hondamenean, etsitu gabe badakhartela, bere sortaña abantzu ezin hunkian, orhoitzapenaren eraikuntza neurrigabea.

Eta izabak bazematan madalena zati ezki tisanan bustiaren gustua ezagutua ukan nuen orduko (nahiz enakien oraino zergatik zautan orhoitzapen horrek hainbertze zorion emaiten eta horren edireiteko ontsa berantago igurikatu beharko bainuen), berehala karrikara zeman etxe zahar hautsarana, haren gamba hartan baitzen, ethorri zen antzokiko aphaindura bat iduri baratzerazagon etxola ttipiari lotzera, gibelean ene aitamendako eraikia zutenari (ordu arteo bakarrik ikusia nuen zati motz hari) ; eta etxearekin, hiri, goizetik arratserano eta aro guziez, bazkal-aitzin hara igortzen ninduten Plaza, komisione egitera joaiten nintzan karrikak, eguraldi zenean hartzen ziren bideak. Eta Xaponexak porzelanazko gatilu urez bete batean paper puxka ordu arteo iduriz berdin batzuen bustitzen jostatzen diren joko hartan bezala, horiek, murgilduak izan orduko, luzatzen baitira, margoztatzen, ezperdintzen, lore, etxe, jende gogortu eta ezagungarri bilakatzen, hala orai gure baratzeko lore guziak eta Zuan Jaunaren parkekoak, eta Vivonne-ko igebelhar xuriak, eta herrixkako jende onak eta haien egoitza ttipiak eta eliza eta Combray osoa eta inguruneak, hori guzia moldatzen da eta gogatzten, jalgi da, hiri eta baratze, ene the kikeratik.

II

Combray, urrundik, hamar lekuatarik inguruan, Bazko aitzineko azken astean hara jiten ginenean burdinbidetik ikusi eta, eliza bat zen hiriaren biltzen, itxuratzen, urrunera hartaz eta harendako mintzatzen, eta, hurbiltzen zenean, bazatxikala bere bizkarreko gora ilunaren azpian tinkan, alhorren erdian, haizolbean, artzaintsa batek ardiak bezala, etxe bilduen bizkar ileduna, ertaroko harresi ondar batek inguratzen zituela han-hemenka uda leheneko margolari baten taula batean hiri ttipi bat bezain marra beteginki biribil batez. Bizitzeko, Combray apur bat trixte zen, karrikak ere, hentan herrialdeko harri belzkaraz egin etxeak, kampo mailalde bat aitzinean,

itzala aitzinera emaiten zauen hegazpunta gainetik, aski ilunak baitziren eguna erortzen hasten zeneko « saletan » erridauek goititu behar ukaiteko; karrika saindu izen serioz batzuekilakoak (hetan Combray-ko jaunen ixtorioari zatxikazkon batzu) : San-Hilario karrika, Jondoni Jakobe karrika izabaren etxea hartan baitzen, Santa Hildegarda karrika, eta Sant-Izpirituko karrika hartara idekitzen baitzen haren baratze bazterreko athe ttipia ; eta Combray-ko karrika horiek ene orhoitzapeneko zati hain urrunean bizi dira, orai munduak enetako hartzen dituen margo hain ezperdinetan margoztatua denean, nun egiaz guziak iduritzen baitzaizkit, eta Plazan gorago zoan eliza, lillurazko lanternaren itxurak baino izaite gabekoagoak, eta ordu batzuez, iduri baitzata San-Hilario karrikaren iragan ahal ukaitea, Xoriaren karrikan gambara baten alokatzea – « Xori geziztatua » ostatu zaharrean, azpi-zirri-toetarik igaiten baitzen oraino noizten nitan jeikitzen den kozina usain bat, berdin artekatua eta berdin beroa – harremanetan sartze bat lizatekeela Haraindiarekin, Golo-ren ezagutzea eta Barbant-eko Jenofebarekin elhekatzea baino miragarrikiago naturaz gainekoarekin.

Aitatxiren gusia – ene izababixia – haren etxean egoiten baiginen, Leonie izaba haren ama zen, hunek senarra, ene osaba « Octave », galduz geroz ezpaitzuen utzi nahi ukana, lehenik Combray, gero Combray-n bere etxea, gero gambara, gero ohea eta ezpaitzen gehiago « jausten », beti etzanik grinazko, soinarene ahultasunezko, eritasunezko, gogamen geldia eta debozio-nezko izanara nahasi batean. Haren bizitegi bereziak emaiten zuen Jondoni-Jakobe karrikara hau bazoalarik Soro-Handirano (Soro-Ttipitik berexteko, hiriaren erdian musker, hirur karriken artean), eta, oro berdina, hautsaran, harrizko hirur mailekin abantzu etxe bakoitzaren aitzinean, halako mehaka baten itxura baitzuen iduri gothikoen pikatzale batek hartan othalako bat edo galbario bat berdin zizelkatuko zuen harrian berean hautsia. Izababixia etzen gehiago bi gambara elgarri lotuetan baizik bizi, arratsaldea batean iraganez bertzea aireztatzen zaukoten artean. Probinziako gambara hetarik bat zen, xoratzen baikituzte - herri batzuetan airearen edo itsasoaren zati osoak mila eta mila mamutxeriez argituak diren bezala edo usain-onduek – han aireak badatxikatzen bertutek, zuhurtziak, ohidurek, segetutzko bizi ezin ikusi, gaindizkako eta moralezko batek guziak emaiten dituzten mila usainez; naturako usainak hek ere, egia da, eta inguruko baserriaren bezala

aroaren kolorekoak, baina jadanik etxekoiak, gizatarrak eta hetsi-hetsiak, sagardoia harmairuarendako utzia duten urteko udare guziez egin jelada hauta, landua eta argi-argia ; urtarokoak, baina ontasunetakoak eta etxe-koak, izotzaren garratza hausten baitute ogi beroaren eztitasunaz, herriko erloi bat bezain astidun eta zuzen, ibilkari eta pherestu, axolagabe 'ta zuhur, oihalzain, goiztiar, debozinezko, antsia gehiago baizik ekhartzen ez-tuen bakeaz zorionean, eta han bizi izana gabe iragaiten denari poesia bildegi handi bateko baliatzen zakon arruntasunaz. Han airea ixil hain hazle, hain aho-gozagarri baten hoberenaz gauditua zen, nun ezpainindabilan halako gormandiza batekin baizik, oroz gainetik Combray-ra heldu berria baizik ez izanez orduan hobeki jastatzen nituen Bazko asteko lehen goiz oraino hotz hetan : izababixiari egunon erraitera sartu baino lehen, ephe batez igurikarazten ninduten lehenbiziko barnean, hara iguzkia, negukoa oraino, suaren aitzinean beroan jartzera ethorria baitzen, hau jadanik bi adarailuen artean phiztua gambara guzia khedar usain batez margoztatzen zuela, baserriko « labe-aitzin » handi hetarik bat bezala eginez, edo jauregietao khebide-gain bat bezala, haien azpian agiantzatzen baita kampoan euria has dadin, elhurra, berdin erauntsi izigarri bat hetsia izaiteko gozoari negu aldiko poesiaren gehitzeko ; urrats zenbait banagien othoitz-kaderatik balusa tinkizko jargietara, beti korxetean egin burugibeleko batez estaliak ; eta suak orhe bat bezala errez gambarako airea hetaz bihiztatua zen usain gosegarriak, eta goizeko hoxtura heze 'ta iguzkituak jadanik iraki eta harro-araziak zituenak, urreztatzen zituen, ixurkatzen, hantzen, bixkotx probinziar ezin ikusi baina eskuztagarri bat moldatuz, « xapin » gaitzeko bat, hartan, murrualasako, komodako, paper orstaileztatuko usain on arinagoak, aiphamenekoagoak, baina ere idorragoak jastatu orduko, itzultzen bainintzan beti gutizia ez aithortu batekin ohestalgi lilidunaren usain arteko, bikhetsu, geza, ehogaitz eta udaregostukoari lotzera.

Ondoko gambaran, izaba entzuten nuen erdi-ahapeka bakar-bakarririk solasean. Ehoiz etzen aski apha baizik mintzo uste baitzuen buruan bazuela zerbait hautsia eta airean egonki, goregi mintzatuz higi-araziko zue-na, baina etzen ehoiz luzaz egoiten, bakarrik ere, zerbait erran gabe, uste baitzuen bere zintzurrarendako on zela eta odola han gelditzera ez utziz, bekanago ukanen zituela jasaiten zituen ithodura eta antsiak ; eta gero, bizi

zen gelditasun osoan, den gutieneko sendiminetara bazeman munta bat ohigabekoa ; beretako atxikitzea neke egiten zaukon higikortasun batez dohatzen zituen, eta segetuan nori erran ez ukanez, bere buruari iragartzen, egiteko molde bakarra hura zuen betiereko bakarrikzeta batean. Zorigaitzez, goratik gogoetatzeko ohidura harturik, etzuen beti ondoko gambaran ehor izan etzadin behatzen, eta usu entzuten nuen bere buruari ziola : « Lorik egin eztutala orhoitu behar dut » (ezen ehoiz ez lo egitea haren nahikaria handia zen gure erran-moldeak atxikitzen baitzuen horren errespectua eta hatza : goizetan Françoise etzen haren « iratzartzera » jiten, baina « sartzen » zen ; egunaz izabak etzanaldi bat egin nahi zuenean, « gogoetatu » nahi zuela edo « atsedan hartu » erraiten zen ; eta mintzatzean ahaztea gertatzen zizakonean « iratzarri nauena » edo « amets egin dut » erraiterano, gorritzen zen eta lehen bai lehen errana zuzentzen zuen.)

Ephe baten buruan, haren besarkatzera sartzen nintzan ; Françoise ari zizakon thearen berotzen, horren orde tisana bat eskatzen zuen, eta nik nuen botikeriako zakutik azieta batera eror-arazi behar gero ur irekituan ezarri behar zen tilula izaria. Xangarren zimeltzeak sare itzulikari batean makurtuak zituen lore histuak haren arteketan idekitzen baitziren, margolari batek antolatuak balitu, molde aphaingarrienean egon-araziak ukan balitu bezala. Orstoek, bere itxura galdurik edo aldaturik, bazuten gauza ezperdinenean iduria, uli hegal argi batena, etiketa baten binper xuriarena, arrosa loreki batena, baina metaturik izanak, xehaturik edo trenzaturik ohantze baten egiteko bezala. Mila gauza ttipi baliogabekoek – botikariaren oharpen pollita – adalamendu arrunt bateko baztertuko zirenek, emaiten zautaten, ezagun den norbaiten izena hartan aurkituz miresten den bezala, egiazko ezki bateko xiriak zirela gogoan hartzeko atsegina, Garako ethorbidean ikusten nituen bezalakoenak, bermoldatuak, hain zuzen etzirelakotz haien idurian eginak, baina hek berak zirelakotz eta xahartuak. Eta haien itxura berri bakoitza ez izanez itxura zahar baten aldatzea baizik, biribil hautsaran ttipietan ezagutzen nituen ontzerano heldu eztiren botoin muskerrak ; baina oroz gainetik dirdira gorra, ilargikarako eta eztiak loreak berex-arazten baitzuten hartan arrosa urrezko ttipi batzu bezala dilindan zauden xirien oihan hauskorrean – harresi margazki ezabatu baten lekua oraino erakusten duen leinuru bat bezala, zuhatzaren zati « kolorezkoak » izanak zirenen eta

izanak etzirenen ezperdintasunaren seinale – erakusten zautan loreki horiek botikariaren zakua loreztatu baino lehen primaderako arratsak usainonduak zituzten hek berak zirela zinez. Ezkargi gar gorrxata hori, haien margoa zen oraino, baina erdi iraungi eta lokhartua, orai haiena zen bizi ttipituan eta loren ilunabarra bezala denean. Izabak orsto eihartu edo lore zimeldu gostuaz gozatzen zen tisana erretzeko beroan busti zezakeen orai madalena ttipi bat, aski guritua zenean haren zati bat ezkaintzen baitzautan.

Ohearen alde batetik baziren komoda hori handi bat zitroin zuzerkoa eta mahi bat aldi berean botikari taulatik eda aldare nagusitik bazuena, han, Birjinaren gizaiduri baten eta Vichy-Célestins botoila baten azpian, aurkitzen baitziren mezako liburuak eta erremedio errekeituak, ohetik ofizioer eta osabider jarraikitze behar zen guzia, lixeritzekoaren ez hutsegiteko, ez eta bezperen. Bertze aldetik, ohea leihoaren luzaran zuen, karrika begien azpian eta han ari zen goizetik arrats, ez aspertzeko, printze persiarren moldean, Combray-ko goronika egunorotako baina orhoitaz goragokoaren irakurtzen, gero Françoise-rekin argitzen baitzuen.

Bortz minuta etzen izabarekin nintzala, akhi nezan beldurrez igortzen ninduenean. Ene ezpainenara aitzinatzen zuen bere bekoki trixte geza, hartan, oraino goiz zelakotz, ile falsuak ezpaizituen oraino orraztatuak, eta hezurak ageri baitziren elhorrizko korona baten punttak edo arrosario baten bihiak bezala, eta erraiten zautan : « Hoa bada, gaixo haurra, hoa mezako prestatzera ; eta beherean Françoise aurkitzen baduk, errok zuekin eztadila sobera josta, igan dadila laster hea jeusen beharrik eztutanez ikustera. »

Françoise-ek, alabaina, urteak eta urteak baitziren haren zerbitzuan zela eta orduan ezpaiztuen buruari emaiten gure zerbitzuko sartuko zela egun batez, izaba apur bat uzten zuen gu hor ginen ilabetetan. Ene haurzaroko ordu bat izana zen, gu Combray-ra joan baino lehen, Leonie izabak oraino negua bere amarekin Parisen iragaiten zuenean, Françoise hain guti ezagutzen nuen ordu bat nun, urthatsez, izababixiaren gambarara sartu baino lehen, amak eskuan ezartzen baitzautan bortz liberako bat eta erraiten : « Oroz gainetik etzakala jendea hutsik egin. Emaiteko igurika ezak ni erraiten entzun arteo : « Egunon Françoise » ; aldi berean besoa arinki hunkiko deat. » Izabaren aitzin-gambara ilunera doi-doia heltzen ari ginen ikusten ginituelarik itzalean, buruko lilluragarri, azukar luzatuz eginik bezala

gogortu eta hauskor baten ixurduren azpian, aitzinetik eskertzen zuen irriño baten uhain biribilduak. Françoise zen, geldi eta zut barnebidetako athe ttipiaren aitzinean saindu iduri bat bere saindutegian bezala. Kaperetako ilunbe horietara apur bat jarriak gineneko, ohartzen zen haren begitartean gizatasunaren amodio abantailnahi gabekoari, urthaskarien ezperanzak haren bihotzeko gune hoberenetan gizarteko mail goren aldera sustatzen zuen errespetu beraztuari. Amak besoa bortizki zimikatzen zautan eta mintzo azkar batekin bazion : « Egunon Françoise. » Seinale hortan ene erhiak idekitzen ziren eta dirua uzten nuen hatzemaiteko aurkitzen baitzuen esku guritu bat, baina aitzinatua. Combray-ra joaiten ginenez geroztik alta Françoise nehork baino hobeki ezagutzen nuen ; haren hautetsiak ginen, bazuen guretako, lehenbiziko urtetan bederen, izabarendako bezainbat adeiekin, gustu biziago bat, ekhartzen ginuelakotz, familiakoak izaiteko ospearen gainera (odol beraren ibiltzeak familia bateko jenden artean egiten dituen lokarriendako bazuen Greziako tragediagile batek bezainbat errespetu), ez haren ohiko nagusi izaitarean gozotasuna. Nolako bozkarioarekin ezkituen ere hartzen, oraino aro hobeia ez ukaiteaz gutaz urrikituz, hara heltzeko egunean, Bazko bezperan, usu haize hormatu bat ari baitzen, amak haren alaba eta iloben berriak galdegiten zauzkonean, semabixia pherestua zuenez, zer egin gogo zuten harekin, amatxiren egite bazuenez.

Eta han jenderik gehiago etzenean, amak, urteak lehenago hilak ziren aitamez Françoise-ek oraino nigar egiten zuela baitzakien, hetaz ezteki mintzatzen zizakon, haien bizia izana zenaz mila xehetasun galdeginez.

Françoise-ek suhia etzuela maite asmatua zuen eta alabarekin egoiteko atsegina hausten zaukola, ezpaitzen harekin hura han zenean hain libroki mintzatzen. Hortako, Françoise ikustera joaiten zizaienean, Combray-tik zenbait lekoatan, amak erraiten zaukon irriño batekin : « Eztea hala Françoise, Julian hor ez izaitera bortxatua izana baldin bada, Margarita zuretako bakar-bakarrik ukanen duzula egun osoan, lastimatua izanen zirela, baina arrazoin hartuko duzula ? » Eta Françoise-ek bazion irriz : « Andereak guzia badaki ; andere Octave-rendako ekharr-arazi diren eta bihotzean zer duzun ikusten duten X arraiak baino gehiago da Anderea (« x » neke bortxatu batekin erraiten zuen eta bere buruaz trufatzeko irriño batekin, hitz jakitatezko horren erabiltzeko ez jakinean), eta bazoan hartaz axolatzeaz herabetua, ni-

gar egiten ikusia izan etzadin behar bada ; haren bizia, zorionak, laborarisa baten griñak, bere buruaz bertze norbaitendako axolagarri, bozkariozko edo trixteziatzko gai izan zaitezkeelako sendimenduaz hunki zezakeen jende bakarra ama zen. Izabak apur bat hartaz gabetzeko etsia hartzen zuen gure egonaldian, jakinez amak zenbat estimatzen zuen sehi hoin adimenduko eta ernearen zerbitzua, berdin ederra baitzen goizeko bortzetan kozinan, ixurdu-ra argi xuri geldiak bizkotxazkoa iduri zuen bonetaren azpian, nola mezara joaiteko ; orotan ontsa ari zena, zaldi bat bezala lanean, ontsa izan zadin ala ez ontsa, baina harrabotsik gabe, jeus etzela ari iduri zuelarik, izabaren sehi bakarra, amak ur beroa edo kafe beltza galdegiten zuenean, zinez irekitan ekhartzen zituen ; etxe batean arrotz bati lehen behakoan gutienik laketzakon zerbitzari hetarik zen, eztutelakotz behar bada haren biltzera indarririk egiten eta harendako ikustaterik erakusten, biziki ontsa baitakite eztutela haren beharrik batere, hek igorri baino lehen hura lizatekeela onhartzetik utziko ; eta aldiz haien egiazko gaitasunak borogatuak dituzten nagusiak haier atxikienak baitira, azaleko gozo hortaz axolatu gabe, ikuslari bati gustagarri zakon aphaltasunezko elhasturia hortaz, baina ezteus erakats-ezin bat estaltzen duenez ainitzetan.

Françoise, aitemak behar zuten guzia ukan zezaten begia eman ondoan, lehen aldi batez izabaren gana igaiten zenean hari lixeritzeko erremedioaren emaitera eta barazkariko zer hartuko zuen galdegitera, ontsa bekan gertatzen zen etzaukola jadanik bere aburua erran behar edo gertakari larri zenbaitez argibideak eman :

- Françoise, gogoari emazu Goupil Anderea oren laurden bat baino berantago iragan dela bere ahizparen bila joaiteko ; bidean berantzen badu enintzateke harritua izanen konsekrazioe ondoan helden baldin bada.

- Françoise, bortz minuta lehenago jinen zinen, Imbert Anderea ikusiko zinuen bazeramatzala azparrago batzu Callot amarenak baino bietan lodiagoak ; entsea zaite bada haren neskatoaren ganik nun ukan dituen jakitera. Zuk, aurten, azparragoak molde orotan ezartzen baitauzkiguzu, berdin hartzen ahalko zinituen gure bidariendako.

- Ustegabetzekorik batere elizateke Jaun Erretoraren baitarik heldu balire, zion Françoise-ek.

- Ha ! ba sinesten zitut, gaixo Françoise, zihardetsan izabak soingainak goitituz, Jaun Erretoraren baitarik. Badakizu ontsa ezparrago ttipi txar ezteusekorik baizik eztuela jin-arazten. Hek besoa bezain lodi zirela diotzut. Ez zurea bezala, segurki, baina aurten oraino mehatu den ene gaixo besoa hau bezala... Françoise, burua hautsi dautan ezkilerrepika hori entzun duzu ?

- Ez, andere Octave.

- Ha ! nexka gaixoa, azkarra ukan behar duzu burua, Jainko Ona eskertzen ahal duzu. Magelonasa zen Piperaud medikuaren bila ethorria. Berehala harekin athera da berriz eta Xoriaren karrikatik itzulian joan dira. Badateke haur zenbait eri.

- He ! gure Jainkoa, bazegien hasperenez Françoise-ek, ezezagun bati gertatu zorigaitz baten aiphatzen ezpaitzezakeen entzun, munduko alderdi urrun batean ere, auhenka hasi gabe.

- Françoise, norendako bada jo dute hil-zeinua ? Ha ! Jainkoa Rousseau Anderearendako izanen da. Enuena bada aitzineko gauan zendu dela ahatzia ! Ha ! Jainko Onak dei egin dezatan ordu da, ene Octave gaixoa hilez geroztik neure buruaz zer egin dutan gehiago eztakit. Baina astia gal-arazten dautzut, nexkatoa.

- Baina ez, andere Octave, ene astia ezta hoin khario; egina daukunak eztauku saldu. Banoazu bakarrik ene sua hila eztenez ikustera.

Horrela Françoise-ek eta izabak elgarrekin, bilkura goiztiar hortan, eguneko lehen gertakariak estimatzen zituzten. Baina zenbait aldiz gertakari horiek hartzen zuten itxura bat hain mixteriozkoa eta larria nun izabak senditzen baitzuen Françoise iganen zen ordua etzezakeela igurika, eta xilintxaren laur ukaldi izigarriek etxean joiten zuten.

- Baina andere Octave, ezta oraino lixeritzekoaren ordua, zion Françoise-ek. Ahuldura bat senditu duzua ?

- Baina ez, Françoise, zion izabak, edo ba, ontsa badakizu orai ahuldurarik ez tutan orduak biziki bekan direla ; egun batez Rousseau Anderea bezala joanen niz nihaurk ohartzeko astirik ukan gabe. Eztuzu sinetsiko ikusten zitutan bezala Goupil Anderea ikusi baizik ez tutala ezagutzen ez tutan nexkatxa batekin ? Zoaz bada Camus-en baitara bi sos gatzen bila. Ontsa bitxi da Theodore-ek ezpadautzu nor den erraiten.

- Baina Pupin Jaunaren alaba izanen da, zion Françoise-ek nahiago baitzuen berehalako argipen batean gelditu, goizean ja bi aldiz Camus-en baitan izanik.

- Pupin Jaunaren alaba ! Oi ! sinesten zitut ba, Françoise gaixoa ! Ezpainuen bada ezagutuko !

- Baina eztut handia erran nahi, Octave anderea, ttipiena erran nahi dut, Jouy-n pensioean dena.

- Ha ! hori ezpada, zion izabak. Bestetako ethorria behar luke. Hori bera ! Ezta bilatze beharrik, bestetako ethorria izanen da. Baina orduan ikus ginezake bada sarri Sazerat Anderea ahizparen etxera joiten ethortzen barazkariko. Hori dateke ! Galopin baitako muttikoa ikusi dut tarta batekin iragaiten ! Ikusiko duzu tarta Goupil Anderearen etxera zoala.

- Goupil Andereak ikusliar baduenez geroz, andere Octave, eztuzu berantuko jende guziaren ikusteko barazkariko sartzen, zion Françoise-ek, barazkariaren antolatzeraz jausteko lehian, ezpaitzen samur izabaren uzteaz libertimendu horren aiduru.

- Ho ! ez eguerdi baino lehen, zihardetsan izabak, doinu etsitu batekin, erloiari begi ukaldi khexu bat emaiten zuen batean, baina gordeka, hark, guziari uko egina ukanik, Goupil Andereak bazkaltiarrek bazituela jakitez, hoin atsegin bizia edireiten zuela hala ere ikustera ez uzteko, eta zorigaitzez oraino oren bat baino gehixago igurika-araziko zena. « Eta zorigaitzez bazkaltzen ariko nintzalarik zuzen gertatuko da ! » gaineratu zuen bere buruari erdi ahapeka. Barazkaria aski libertigarri zizakon ordu berean bertzerik ez nahi ukaiteko. « Eztautazu bederen ahatziko kremarekilako arraultzen emaita azieta zabal batean ? » Marrazkiz aphainduak ziren azieta bakarrak ziren, eta izaba aphairu oroz jostatzen zen egun hartan ekhartzen zizakoneko leiendaren irakurtzen. Begitakoak ezartzen zituen, irakurtzen : Ali Baba eta berrogei ohoinak, Aladin edo mirazko Girisailua, eta bazion irriño batekin : Ongi, Ongi.

- Camus baitara joanen nintzan..., zion Françoise-ek izabak igorriko etzuela ikustean.

- Baina ez, eztu gehiago balio, Pupin Andereñoa dateke. Gaixo Françoise, zu jeusetako igan-arazirik urriki dut.

Baina izabak ontsa bazakien etzuela Françoise jeusetako deitua, ezen, Combray-n, « ezagutzen etzen » norbait mithologiako jainko bat bezain izaite guti sineskarria zen, eta egiaz orhoitzapenik etzen, Sant-Izpirituko karrikan edo plazan agerraldi baldigarri horietarik bat gertatua zenean, ontsa ereman ikerketa batzuek etzutela azkenean ametsetako izaite hori « ezagutzen zen norbaiten » neurrira ekharria, ezagutzen ala nor bera, ala gogoz, ala estatuz, Combray-ko jende batzuekin holako jendakia lerroan zelakotz. Sauton Anderearen semea zen zerbitzutik sartzen, Perdreau aphezaren iloba komentutik jalgitzen, erretoraren anaia, Châteaudun-en zergabiltzalea erretretara ethortzen edo besten iragaitera jina. Haien ikustean ukana zen ezagutzen etziren jendeak Combray-n bazirela sinesteko sendimendua, etzirelakotz bakarrik nor ziren berehala ezagutuak. Eta bizkitartean, luzaz aitzinetik, Sauton Andereak eta erretorak jakin-arazia zuten bere « bidarien » aiduru zaudela. Arratsean, sartzean, izabari ene ibilaldiaren khondatzera sartzen nintzanean, Zubi-Zaharraren ondoan aitatzik ezagutzen etzuen gizon bat aurkitua ginuela hari erraiteko arinkeria ukaiten baldin banuen : « Aitatzik ezagutzen etzuen gizon bat ! egiten zuen. Ha ! sinesten haut bada ! » Hala ere berri hortaz apur bat hunkia baitzen, gauza garbitu nahi zuen, aitatziki deitua zen. « Nor duzue bada Zubi-Zaharraren ondoan aurkitu, osaba ? ezagutzen etzinuten gizon bat ? – Baina bai, zihardetsan aitatzik, Prosper zen, Bouilleboeuf Anderearen baratzeainaren anaia. – Ha ! ontsa », zion izabak, sosegatua eta apur bat gorritua ; soingainak goitituz irriño erkatx batekin, gaineratzen zuen : « Erraiten baitzautan ere ezagutzen etzinuen gizon bat aurkitua zinutela ! » Eta bertze aldi batez hobeki beha nezan gomendatzen zizatan eta ez horrela elhe arin batzu erabil izabaren atzinean. Combray-n oro hain ontsa ezagutzen zen, jende ‘ta ihizi, nun izabak « ezagutzen etzuen » zakur bat ikusten bazuen halabeharrez iragaiten, etzen gogoan horren ukaitetik gelditzen eta gauza ezin hartu horri zituen arrazoinkatzeko antze ‘ta libertatezko orduen emaitetik.

- Sazerat Anderearen zakurra izanen da, zion Françoise-ek, biziki sinetsi gabe, baina soseguaeren ekhartzekotan eta izabak etzezan « burua hauts».

- Sazerat Anderearen zakurra ezagutzen ezpanu bezala ! zihardetsan

izabak haren izpiritu kritikalaria ezpaitzuen gauza bat hoin errexki onhartzen.

- Ha ! Galopin Jaunak Lisieux-tik ekharria duen zakur berria dateke.

- Ha ! hori ezpada. Theodore-ren ganik ukanik, jende batek bezainbat izpirituekin, beti omore onean, beti amultsu, beti zerbait pollitekin. Adin hori baizik eztuen ihizi bat hoin jentila izan dadin bekan gertatzen da. Andere Octave, utzi beharko zitut, jostatzeko astirik eztut, horra laster hamarrak, ene furnegoa ezta phiztua ere, eta azparragoak behar ditut oraino xuritu.

- Nola, Françoise, oraino azparragoak ! egiazko azparrago eritasun bat duzu aurren, gure Paristarrak akhitsu dituzu.

- Baina ez, andere Octave, ontsa maite dute. Elizatik gosearekin ethorriko dira eta ikusiko duzu eztituztela kulleraren gibelaz janen.

- Baina elizan, jadanik han datezke ; demborarik ezpaduzu galtzen ontsa eginen duzu. Barazkariari behatzera zoaz.

Izaba Françoise-rekin horrela solasean zagon bitartean, aitamak mezara laguntzen nituen. Zein maite nuen, zein ontsa dutan berriz ikusten, gure eliza ! Hartarik sartzen ginen kalostrape zaharra, beltza, hagin biltzeko zali bat bezala titakatua, zeharkatua zen eta izkinetan barnatuki hustua (hara bagininderaman bataio-harria bezala) elizara sartzean laborarisen mantaleten eta ur benedikatua hartzen zuten haien esku heraben hunkitze arin eziaz, mendetan eta mendetan errepikaturik, indar suntsigarri bat hartzen ahal balu bezala, harria bihur-arazten eta egun oroz hartan joiten duen zedarrira orgaxken errotak marratzen duen bezala eta ildoek ozkatzen. Hil-harriak, haien azpian, hor ehortziak ziren Combray-ko abaden erhauts nobleak baitzegion koroari izpirituko lauzada bezalako bat, etziren gehiago berak gauza geldo gogor batez eginak, ezen aroak leunduak zituen eta ezta bezala ixur-araziak hemen uhain horail batez gaintua zuten bere laurkantoineko mugatik, berekin bazeramatela hizki handi gothiko loreztatu bat, harbiziko brioleta xuriak ithotzen zituztela ; eta hetarik hunaratago, bertze nunbait, ttipituak ziren, latinezko idazki laburdurazkoa oraino hertsituz, ikur labur horien moldean bitxikeria bat gehiago sartuz, hitz bateko bi hizki hurbilduz bertzeak neurrigabeki urrunduak zirenean. Berinazkoek choiz etzuten

iguzkia guti agertzen zenean bezainbat argiztatzten, hala nola nun, kampoan uher izanik ere, elizan eguraldi izanen zela zegur zen : bat bere handitasun guzian gizon bakar batek hartua zen karta joko bateko Erregea iduri, gain hartan bizi, eraikuntzazko pabellun baten azpian, zeru-lurren artean ; (eta haren leinuru zehar urdinean, batzuetan astelegunetan ere, ofiziorik etzenean – elizak, aireztatua, hutsa, goxoagoa, aphainagoa, mubleria ederrean iguzkiarekin, abantzu bizigarri baitzidurien ertaro moldeko hotel batean harri zizelkatu eta berina margolatuzko sartze bat bezala – ephe batez belhaurikatzen ikusten zen Sazerat Anderea, ondoko othoitz alkian ezartzen zuela bixkotxeria xehez bete paketa sokaz estekatu bat aitzineko pastizerian hartu berria zuena eta barazkariko ekharri behar) ; bertze batean elhur gorraxtazko mendi batek, haren oinean gudu bat ari baitzen, bazidurien berinakian berean izotzak harturik izana bere horma nahasiaz hantzen zuela elhur pipitak atxikiak ukanen zituen berina bat bezala, baina argi-haste zenbaitek argituak (aldareko erretaula gorritzatzen zukeen hark berak, margo hain frexkoez nun baitziduriten ezeztatzera zoan kampoko leinuru batek hor ephe batendako ezarriak, harriari berari betiereko lotuak ziren margo batzu baino gehiago) ; eta guziak hain ziren zaharrak nun ikusten baitzen han-hemenka haien zahartasun zilharreztatua mendetako erhautsen azpian dirdiratzten, eta bere berinazko tapizeria eztiako bilbearen erakusten dirdiran eta sokarano higatua. Batek eremu gora bat hartzen zuen ehun bat berina ttipi laurkantoinekoetan zatitua hetan urdina baitzen nagusi, karta joko handi bat iduri Charles VI errege libertitzen zuketzen hek bezalakoa ; baina edo arrai batek argiturik, edo ene soak higitzean berinerian zehar, aldizka iraungian eta berriz phiztuan, sute higikor balios bat ibilirik, berehala hartua zuen hegazterren baten luma luzatuen dirdira aldakorra, gero ikharatzen zen eta uztai ilun harritsutik xortakatzen zen euri garreztatu ametsetako batean ixurkatzen, pareta hezen luzean, elizako liburua eskuan zadukaten aitameri harrinigar bihurdikatu batzuek ortzadarkatu harpe bateko elizuntzian jarraikitzen banindee bezala ; ephe baten buruko berina ttipi zeharkituek zeargi barna bat hartua zuten, bulharraitzineko neurrigabe zenbaitetan tinki ezarriak lizatekeen urdinharrien gogor ezin hautsia, haien giblean sendi zelarik, aberatseria horiek oro baino maiteago, iguzkiaren irriño labur bat ; berdin ezagungarri zen harrieria mainatzen zuen uhain urdin eztiaren nola plazako lauzadan ala merkatuko

lastoan ; eta, Bazko baino lehen ethorriak ginen gure lehenbiziko igandetan, lurra oraino buluzia eta beltza izan zadin konsolagarri zizatan, zabal-arazten zuelakotz, San Luisen ondokoen aroko primadera ixtorioko batean, berinazko orhoit-belarrez egin tapiza xoragarri eta urreztatu hori.

Irazki gorazko bi tapizeriak bazerakutsaten Esther-en koronamendua (erran zaharra zen Assuerus-i Franziako errege zenbaiten begitartea emana zizakola eta Esther-i hautesten zuen Guermanes-ko andere batena), haien margoek, histuz, gora-beheratasun bat, argi bat gaineratua baitzauden : Esther-en ezpainetan haien ingurutik haratago bazagon airean gorra eta apur bat ; haren zaiaren horia hain zen guriki, gixenki hedatzen, nun halako loditasun bat hartzen baitzuen eta gibelatzen zen airean bizitasunekin goititzen baitzen ; eta zuhatzen muskerrak, zeta eta ilezko tapizaren beheko zatietan bizi gelditua, baina gainaldean «histua», zurutuagorik agerr-arazten zituen, enbor ilunen gainaldean, abar gora horitzera zoazenak, urreztatuak eta iguzki ezin ikusi baten argitze zehartu bapatekoak erdi ezabatuak bezala. Horrek guziak, eta gehiago oraino enetako abantzu leiendetakoak ziren jende batzuen ganik elizara ethorri gauza baliosak (urrezko gurutze, ziotenaz, san Eloi-ek landua eta Dagobert-ek emana, Luis Germanikoaren semen hiltobia, har-gorritzkoa eta burdin-gorri esmailatuzkoa), hortako bainintzan elizan aitzinatzen, gure kaderetara ginindoanean, hadak ibiltzen ziren ibar batean bezala, han laboraria miresten baita harroka batean, zuhatz batean, phutzu batean, haien iragaite naturaz gainekoaren hatz ageriaren ikustean ; horrek guziak bazegien enetako elizaz gainerateko hiritik osoki ezperdina zen gauza bat : eraikuntza bat bazadukana, abantzu, laur neurritako gune bat – laugarrena izanez Aroarena - , mendetan zehar hedatzen zuela bere elizuntzia, hunek, artez arte, kaperaz kaperara, baitzidurien goitzen zituela eta iragaiten, ez bakarrik zenbait metra, baina hetarik irabazle atheratzen zen aro jarraikien lerroa ; bere harresien loditasunean gordetzen zuela XI-garren mende garratz eta ohila, ezpaitzen handik agertzen har-kosko moldegaitzez hetsi eta itsutu bere uztai phizuekin, ezkiladorreko mailaldeak kalostrape ondoan zilatzen zuen ozka barnatik baizik ; eta, hor ere, aitzinera aphainki heldu zizazkon arku gothiko lerdenen giblean, arreba handiago batzu bezala, arrotzer gordetzeko, irriñoiz jartzen baitira anaia gazte, murmurikari eta gaizki jantzi baten aitzinean ; Plazaren gainetik zeruan goititzen zuela san

Luisi beha egona zen eta oraino ikusten zuela iduri zuen dorrea ; sartzen zela bere elizapearen gau merobetar batera han, gure bidatzez itsuka uztai ilun eta harrizko gau-inhara handi-handi baten hegala bezala azkarki zainkatuaren azpian, Theodore eta haren arrebak ezko batez argitzen baitzaukuten Sigebert-en alababitiaren hil-hobia, hartan maskor barnatu bat – noizpaiteko izaite baten hatza iduri – zilaturik izana baitzen, ziotenaz, «krixtalezko girisailu batek, bera eroririk printzesa frankaren erahiltzeko arratsean, oraiko elizaburua den lekuan dilindan zagon urrezko gatinatik, eta, krixtaila hautsi gabe, argia hil gabe, harrian barna sartua baitzen eta azpian horri guriki amorreman-arazia baitzaukon».

Combray-ko elizaren elizaburua, aipha daitekea ? Hain zen arrunta, ederrik eta erlisionekeo olderik ere hain gabea. Kampotik, hetara bazeman karririk behereko aldean gurutzatzen baitziren, haren harresi arrunta harri kosko batere leundu gabeko zimendu batetik goititzen zen, harri mokorrez latz, bereziki eliza itxuratik ezer etzuen, berinaldek goratasun handiegi batean zilatuak iduri zuten, eta guziak eliza bateko baino presondegi bateko harresiaren itxura zuen. Eta segurki, berantago, ikusi ditutan elizaburu ospedun guzietz orhoitzen nintzanean, ehoiz etzizatan haiekin Combray-ko elizaburuaren erkidatzea gogoratuko. Bakarrik, egun batez, karrika probinziar bateko bihurtunean, ikusi nuen, hirur karrika ttipien gurutzadaren aitzinean, harresi latz eta goiti bat, berinalde batzuekin gora zilatuak eta Combray-ko elizaburuak bezalako itxura neurritz ezperdina erakutsiz. Orduan eniz Chartres-en edo Reims-en bezala erlisionekeo sendimendua nolako indarrarekin emana zen galdez egon, baina nahi gabean egin dut : « Eliza ! »

Eliza ! Etxekoa bezala ; San-Hilario karrikan, ipharreko athea han baitzuen, bere bi auzoen artekoa, Rapin Jaunaren botikeria eta Loiseau Anderearen etxearen, hau berexkuntzarik batere gabe hunkitzen baitzuen ; bere zenbakia karrikan ukanen ahal zuen Combray-ko herritar xola, Combray-ko karriketean zenbakiak izan balire, eta piatunak han gelditu beharko zuela iduri baita goizetan bere itzulia bazegienean, Loiseau Anderearen etxera sar baino lehen eta Rapin Jaunarenetik jalgitzean ; bazen alta haren eta hura etzen guziaren artean ene izpirituak ehoiz ere iragan ahal ukana etzuen muga bat. Loiseau Andereak ukan zezazkeen leiho gainean fuxia ondo batzu, bere abarren burua beheiti beti orotara lasterrez joaiteko ohidura hartzen baitzu-

ten, eta liliek jeus lehiatuagorik ezpaitzuten, aski handituak zirenean, bere matela ubel odolduen hoxtera elizaren belhar ilunera igortzea baino, etziren hortakotz enetako fuxiak sakratuak bilakatzen ; loren eta hartan bermatzen ziren harri beltzaren artean, ene begiek arterik ezpazuten ikusten, ene gogoak leze bat ezartzen zuen.

San-Hilarioko ezkiladorrea ontsa urrundik ezagutzen zen, Combray han oraino agertzen etzen hedoiertzean marrazkitzen zuela bere itxura ezin ahatzia ; Paristik, Bazko astean, ekhartzen ginituen treinatik, aita ohartzen zizakonean zeruko ildo guzietan aldizka joaiten, bere burdinazko oilarttoa alde orotara lasterretan ibil-araziz, erraiten zaukun : « Goazen, estalgiak har ditzagun, helduak gira. » Eta Combray-tik egiten ginuen ibilaldi handienerarik batean, gune bat bazen han bide hertsitua bapatez atheratzen baitzen gaitzeko ordoki batera hedoiertzean oihan xirtxikatu batzuez hetsia San-Hilarioko ezkiladorrearen puntta lerdanak gainditzen baitzituen bakarrik, baina hain mehea, gorraxta, nun iduri baitzuen eskualde horri, margazki bakarrik naturazko horri, edergintzako hatz ttipi hori, ezagugarri gizatar bakar hori eman nahi ukana zaukon azkazal batek zeruan marratua. Hurbiltzen zenean eta laur kantoineko dorre erdi barreatuaren ondarra ikus zaitekeenean, hau gutiago gora, haren ondoan utzia, oroz gainetik begia joiten zuen harrien margo gorraile ilunak ; eta, larrazkeneko gau lanotsu batez, hondamendu gorri bat erranen zen, mahastietako ubel ortzikarokoan gainean goiti joanki, abantzu basa-mahatsaren kolorekoa.

Ainitzetan plazan, etxera sartzean, amatxik geldi-arazten ninduen hari behatzeko. Haren dorreko leihoetarik, birazka ezarriak batzu bertzen gainean, ederretik eta gaitasunetik giza-begitarter bakarrik emaiten eztauen neurri arau zuzen eta berezi horrekin, joaitera uzten zituen, arte berdinetan erortzera uzten bele multzo batzu, bazabiltzanak, ephe batez, itzulika karrankan, ikusten zituztela iduri ukan gabe jostatzeraz uzten zituzten harri zaharrek, bapatez ezin egonezkoak bilakatu balire bezala eta nahasmendu mugagabeko bat sortuz, jo eta haizatu balituzte bezala. Gero, arratseko airearen balusa ubela alde orotara marratu ondoan, bepetan jabalduak dorre galgarri izanik berriz lagungarri bilakatu iretsiak izaitera itzultzen ziren, batzu han-hemenka pausatua, ez higitzen iduri, baina behar bada mamutxa zenbait hatzemanetz, dorrexka baten punttan, hala nola itsas-xori bat uhain

baten hegian egonki arraintzari bat bezain geldi. Zergatik zen sobera jakin gabe, amatxik aurkitzen zaukon San-Hilarioko dorreari arruntasun, handinahi, ttipikeria gabe bat, maita-arazten eta eragin onegingarri batez aberats zirela sinets-arazten baitzauzkon natura, gizonaren eskuak etzuenan ttipitua, izababitxiaren baratzezainak bazegien bezala, eta jeinuzko lanak. Eta dudarik gabe, ikusten zen elizako zati oro bertze edozein eraikuntzetarik berex-ten zuen bere baitan zuen halako gogamen batek, baina zer zen bazakiela, bere izaite bakar eta bere gain hartua aithortzen zuela, ezkiladorrean zuen iduri. Hura zen harendako mintzo. Uste dut oroz gainetik amatxik, nahasaki, Combray-ko ezkiladorreari aurkitzen zaukola harendako munduan bali-lio gehiago zuena, itxura naturala eta ikustateduna. Eraikuntzan ezer jakin gabe, bazion : « Haurrak, nitaz irri egizue nahi baduzue, erregelen arau ezta behar bada ederra, baina duen itxura zahar bitxia laket zata. Pianoa joiten balu, segur elukeela jo *idorra*. » Eta hari so egiten zuenean, begiez haren indarkatze eztiari, esku bildu batzu bezala goitituz elgarretara hurbiltzen diren harrizko malden gurtze suharrari jarraikitzean, hain ontsa zen dorrepuntta-ren oldearekin batzen, nun haren soak iduri baitzuen harekin airatzen ; eta aldi berean adixkidetasunezko irriño bat egiten zauen iguzki sartzeak hegia baizik argitzen etzauen harri zahar higatuer, hauek, gune iguzkitu batean sartzen ziren ordutik, argiak eztiturik, iduri baitzuten bepetan gorago igan-ak, urrunduak, « buruko mintzoan » otaba bat gorago errepikatzen den kantu bat bezala.

San-Hilarioko ezkiladorreak zituen egiteko guziak, oren guziak, hi-riko ikuspegi guziak itxuratzen, koronatzen, konsekratzen. Neure gambara-tik, enezakokeen ikus arbelez estalirik izana zen azpiko aldea baizik ; baina, igandetan, ikusten nituenean, udako goiz bero batez, iguzki beltz baten az-pian garretan, banion neure baitan : « Jainkoa ! bederatzia ! meza nagusira joaiteko prestatu behar da aitzinean izaba Leonie-ren besarkatzera joaiteko astia ukan nahi badut », eta banazkien zuzen-zuzena plazan iguzkiak zer ko-lore zuen, merkatuko beroa eta erhautsa, saldegiko itzalkariak egiten zuen itzala ama han sartuko baitzen behar bada meza aitzin, oihal gordin usain batean, buruko baten eroatera, nagusiak erakuts-araziko baitzaukon, soina zuzenduz, hau, hestera abian zozan batean, izana baitzen saldegi giblean igandetako maripulisaren janzten eta esku ikuzten, ohiduraz elgarri thor-

ratzen zituela, bortz minuta oroz, gertaldi trixtenetan ere, egin beharrezko, jokaldi berezi eta ongi heltzeko itxura batekin.

Mezatic landa, Theodoren etxean sartzen zenean brioxa bat ohian baino gotorragoa ekhar zezan erraitera gure gusiak eguraldiaz baliatuak zirelaketz Thiberzy-tik barazkaltzera gure etxera jiteko, ezkiladorrea aitzinean ukaiten zen, bera brioxa handiago benedikatu bat bezala urre-kolore 'ta errea, ezkataztua, iguzkiaren nigar xorta zariola, bere puntta xorrotxa zeru urdinean sartzen zuela. Eta arratsean, ibilalditik etxeratzen nintzanean eta amari gauon erran behar ukaiteko ordua izanen zela eta gehiago etzela ikusiko gogoratzen zizatanean, hain ezti zen aldiz, bururatzen zean egunean, nun iduri baitzuen balusa beltzaranezko buhurdiko bat bezala jarria zela eta sartua, haren azpian amor emana zuen, arinki hari leku egiteko zilotua zen eta bazterretara zean zeru histuan ; eta inguruan itzulika zabilzkion xorien garrasiek baziduriten haren ixila handitzen zutela, dorrepuntta gehiago lerdentzen eta hari ezin erranezko zerbaite emaiten.

Elizaren gibelean egin behar ziren itzulietan ere, hura ikusten etzen lekuan, orok iduri zuen han edo hemen etxen artean ageri zen ezkiladorretik arautua, hunkigarriago baitzen oraino horrela eliza gabe agertzen zenean. Eta segurki, bertze ainitz bada molde hortan ikusirik ederrago direnak, eta orhoitzapenean badut hegaztegiak gaintzen dituzten ezkiladorrekilako iduri marrazkitu ainitz, lehenago Combray-ko karrika trixtek bazegitenetik bertze ederlanezko itxura bat dutenak. Ehoiz eztut Balbec-eko auzoan Normandiako hiri berezi bat ahatziko, XVIII-garren mendeko bi hotel xoragarri, ainitz aldetarik maitagarri eta errespetagarri baitzazta eta haien artean, aitzin-harrimailetarik ibaira jausten den baratze ederretik behatuz, gordetzen duten dorre-puntta gothikoa jalgitzen baita, haien aitzinaldeak bururaten eta gaintzen dituelako itxuran, baina molde hain ezperdin, erhaztunkatu, gorraxta, bernizatuan, nun ontsa ageri baita eztela hetan barne, maskor zenbaiten puntta dorreño moldean ardaztua eta esmailez hormatua ondartzean haien artean hartua den bi ur-harri eder leunetan den baino gehiago. Parisen ere, hiriko auzo itsusienetarik batean, badakit leiho bat hartan karrika batzuetako hegaztegi metatu batzuek badagiten deseinu lehen, bigarren eta hirugarren ere baten ondotik, handik ikusten baita ezkila ubel, batzuetan gorraile bat, batzuetan ere, aireak moldatzen dituen itxura nobleziadunenen

artean, ikatzez irezi beltza, ezpaita hura San-Agustingo gopoila baizik, Paris-ko ikuspen horri bademola Piranesi-ren Erromako ikuspen zenbaiten egitea. Baina grabadura ttipi horietarik batean ere, zenbat artharekin ene orhoitak moldaturik ukanak ditzan, eztezake ezar aspaldidanik galdua nuena, gauza bat ez ikuskarri bat bezala harr-arazten daukun sendimendua, baina berdinik gabeko izaite batean bezala hartan sinets-arazten daukuna; hetarik batek eztaduka bere menean ene biziko zati barna oso bat, elizaren gibleko karrketan Combray-ko ezkiladorrearen itxura horien orhoitzapenak badagien bezala. Ikus zadin bortz orenetan, postara eskutitzen bila joaiten zenean, nor bereganik zenbait etxetan hara, ezkerretik, hegaztegiako lerroa bapatez hegi bakoitz batez goititzen zuela ; ala aldiz, Sazerat Andereari berri eskatzera joan nahi zenean, begiez jarraik zakidion bertze aldapa jautsi eta berriz aphaudia zen marra hari, ezkiladorrearen ondotik bigarren karrikan itzuli beharko zela jakinez ; ala ere, urrunago aitzinatuz, garara joaiten bazen, zeharka ikus zadin, orrazez hegi eta alde berri batzuen erakusten hala nola borobil bat bere itzuliko ordu ezezagun batean hatzemaña ; ala, Vivonne-aren bazterretarik, elizaburua, gogor aran bildurik eta ikuspegiak goititurik, iduri ukan zezan ezkiladorreak zeruaren erdira punttaren igortzeko egiten zuen indarretik jalgitzen : beti hartara zen itzuli behar, hura zen beti orenen gainean, etxeak us-tegabeko galdor batez luzatzen zituela, ene aitzinean zutik gorputza gizakien elementian gordea lukeen Jainkoaren erhia bezala baina hortako nik harekin nahasi gabe. Eta gaurregun ere, probinziako hiri handi zenbaitetan edo guti ezagutzen dutan Parisko auzoalde batean, « neure bidean ezarria » nauen ibiltzale batek urrunean erakusten baldin badauta, seinale bat bezala, ospitale zenbaiteko dorrea, komentu zenbaiteko ezkiladorrea bere aphezarako bonetaren goititzen, hartu behar dutan karrikako izkinan, itxura maite italiarekin ene orhoitak egitetik zerbait nahasiki ediren dezokeen ber, ibiltzaleak huts egiten eztutala segurtatzeko burua itzul badeza, ikusten ahal nau, hasi ibilaldia edo eginbeharra ahatzirik, hor egonki, ezkiladorrearen aitzinean, orenak eta orenak, geldi-geldia, orhoitzera entseatzan, neure baitan idortzen eta berreraikitzen ari diren lur ahazteari berriz irabazi batzuen senditzen ; eta dudarik gabe orduan, arestian xehetasun galdez nindagokonean baino antsia gehiagorekin, neure bidea bilatzen dut oraino, karrika izkin bat itzultzen dut ... baina ... neure bihotzean da...

Mezatic sartzean, usu Legrandin Jauna batzen ginuen, Parisen egon beharrez bere injeniurgoako ofizioaren gatik, ezpaitzaitekeen, lanarte handietan salbu, Combray-ko bere etxaldera ethor ebiakoitz arratsetik astelehen goizerano baizik. Hartan bertzela handizki heldu diren jakitatezko bizimoldetik hara, kultura osoki ezperdin bat dutenak dira, literaturan, edergintzan, ofizioko lan bereziak erabiltzen eztauen eta solastatzeak baliatzen. Literaturagile ainitz baino literaturan biziki jakinago (aro hartan ezkinakien Legrandin Jaunak idazle bezala aiphamen zerbait bazukeela eta biziki ustegabetuak izan ginen musikari omendun batek melodia bat egina zuela hark egin neurtitz batzuetan ikustez), margolari ainitz baino « errextasun » gehiagoz dohatuak, uste dute baderamaten bizia eztela egokia izanen zizaiena eta bere beharrezko lanetan badakharte edo axolagabe burukaldiez nahasi bat edo artha jarraiki eta gora, gutiesle, samin eta oharkor bat. Handia, itxura eder batekin, begitarte gogoetatu eta xorrotx sudurpeko luze hori batzuekiko bat, soa urdin eta lilluragabetua, ikustatez arraroa, nehoiz entzuna ezkinuen moldean solastari, ene familiarendako, beti behazunetako aiphatzen zuela, hautuko gizonaren eredu bera zen, bizia molde noble 'ta urgurienean hartzen zuena. Amatzik gaizki nahi zaukon bakarrik sobera ontsa mintzo zelakotz, sobera liburu bat bezala, haren mintzaeran ezpaitzen lephoko « la-vallière » beti airera utzietan, soineko motz zuzen abantzu ikasle arakoan zen jite naturala. Beti ustegabetzen zen ere aitoren- semeriaren kontra hasten zituen athermaldi sutsuez, bizi mundutarraren, handi-ustearen kontra, « segurki Jondoni Paulok gogoan duena barkamendurik eztuen bekatuaz mintzo denean ».

Handinahi mundutarra hain zen amatzik sendi eta abantzu gogoan har etzezakeen sendimendu bat nun iduri baitzizakon horren gaitzesteko hoinbertze garren ezartzea ontsa debalde zela. Gainera, etzizakon Legrandin Jauna hain gostu onekoa iduritzen, arreba Balbec-eko ondoan aitoren- seme normandiar batekin ezkondua ukanik, hoin bortizki jauki zadin noblen kontra, ez oro gillotinatua ukanik Iraultzari gaizki egiterano.

- Agur, adixkideak ! erraiten zaukun gure gana jinez. Hemen ainitz bizitzeaz zorion duzue ; bihar Parisera sartu beharko dut, neure bizitegira. Ho ! zion aitzina, irriño eztiki trufari eta ilundu, apur bat urrundu harekin, berezia zuena, segur behargabeko gauza guziak baditut etxean. Eztu bahar-

renak baizik huts egiten, hemen bezalako zero zati handi batek. Indar egizu, muttikoa, beti zure biziaren gainean zero zati baten atxikitzeko, gaineratzen zuen ene gana itzuliz. Baduzu arima bat pollita, gaitasun arrarokoa, edergile baten jitea, behar duenaren eskas ukaitera utz etzazula.

Ettxera itzuli eta, izabak Goupil Anderea mezara berant ethorria zenez galdegin-arazten zaukunean, ezkinezakon erran. Aldiz haren nahasmen-dua handitzen ginuen elizan « Gilbert le Mauvais »-ren berinaren kopiatzen margolari bat ari zela erraiten ginaukonean. Françoise, berehala epizieraren baitara igorrorrik, ezer jakin gabe itzulia zen Theodore ez han izanez, zuen ofizio bikunak, xantre bezala elizaren antolatzeke ofizio zati bat eta epizeriako mutilgoa, emaiten baitzaukon, jende mota guziekin harremanetan, orotako jakitate bat.

- Ha ! zion hasperenez izabak, Eulaliaren ordua baliz nahi nuke. Hori erranen ahal dautanik ezta zinez hura baizik.

Eulalia neskato maingu bat zen, langilea eta elkorra, haurzarotik haren zerbitzuko ezarririk izana zen Bretonnerie-ko Anderea hil eta « erretiratu » zena eta elizaren ondoan hartua zuena gambara bat handik noiz nahi jausten baitzen ala ofizioetara, ala, ofizioetarik kampo, othoitz ttipi baten egitera edo Theodore-ri eskukaldi baten emaitera ; gaineratekoan jende eri batzuen ikustera zoan erraiten zauela mezan edo bezperetan zer gertatua zen. Lehenagoko nagusiek uzten zaukoten arranda ttipitik bertzalde etzuen gertakizuneko emaitza zenbait gutiesten noiztenka erretoraren edo Combray-ko aphezeriako norbait aiphatuen oihaleriaren ikustatzera joanez. Oihal beltzeko soineko baten gainetik minginota xuri bat janzen zuen, abantzu serora baten arakoa, eta larruko eritasun batek emaiten zezteen haren mazela eta sudur makurtuari komentu-liliaren kolore gorraxta biziak. Haren ikustaldiak izaba Leonie-ren jostagailu handiak ziren bertze nehor guti onhartzen baitzuen, Jaun Erretora salbu. Izabak apurka bertze ikuslari guziak baztertuak zituen hastiatzen zituen bi jende motetarik batean sartzeko ogena zutelakotz. Batzu, gaitzenak eta lehenbizikorik baztertuak zituenak, « berari beha etzezan » aholku emaiten zaukotenak ziren eta erakasten, erran gabe bazen ere gaitzespeneko ixil batzuez edo dudazko irriño batzuez, iguzkitara ibilaldiño batek edo bizteka gorri on batek (Vichy-ko ur bi hurrupa txar ur-

dailean hamalaur orenez atxikitzen zituelarik !) oheak eta erremedioek baino on gehiago eginen zaukotelako dotrina gaixtoa. Bertze mota, berak uste zuen baino eriago, berak zion bezain eri zela erakustera emaiteko itxura zutenez egina zen. Hortakotz, zalantza batzuen ondotik eta Françoise-ren arartekotasuneko othoitzekin igaitera utziak zituenak, eta gero, ikustaldian, egina zizaien fagorearendako zenbat etziren gai erakutsia zutenak hitz hau herabeki irriskatuz : « Etzinukea uste eguraldi batez apur bat higitzen bazine », edo al-diz, berak errana zauenean : « Ontsa apha! niz, ontsa apha!, denak egina du, adixkide gaixoak », ihardetsi zaukotenak : « Ha ! osagarririk eztenean ! Baina horrela irauñ dirozu », horiek, batzu bertzeak bezala, gehiago nehoiz etzirela onhartuak izanen segur ziren. Eta Françoise jostatzen baldin bazen izabaren itxura harrituaz ohetik Sant-Izpirituko karrikan jende horietarik bat etxera heldu ikusia zuenean edo xilintxa ukaldi bat entzuna, gehiago irri bazegien oraino, jokaldi on batez bezala, haien igortzera heltzeko izabaren amarru beti irabazlez eta hura ikusia ukan gabe itzultzean zuten itxura baldituez, eta, bere baitan, etxekanderea miresten zuen onhartu nahi etzituen jende horiek guziak baino goragokoa zela baitzadukan. Hots, izabak nahi zuen bere osabidean onetsia izan zadin eta aldi berean oinazetan urrikaldua eta geroaz segurtatua.

Hortan zen Eulalia lehen-lehena. Izabak minutan hogeï aldiz erran zezokeen : « Nitaz egina da, gaixo Eulalia », hogeï aldiz Eulaliak ihardesten zaukon : « Zure eritasuna ezagutzen duzun bezala ezagunez, andere Octave, ehun urtetaratuko zira, atzo berean Sazerin Andereak erraiten zautan bezala. » (Eulaliaren sineste azkerrenetarik bat, eta entzunak zituen ezesten andana gotorrak ttipitzen hasia ahal etzuen, Sazerat Anderea Sazerin Anderea izendatzen zela zen.)

- Eztut ehun urtetaratzea joaitea eskatzen, zihardetsan izabak, nahiago baitzuen bere eguner muga zuzenik ez emaiten ikusi.

Eta Eulaliak nehork ez bezala baitzakien ere izabaren libertitzen akhi-arazi gabe, igande oroz zuzen egiten zituen ikustaldiek, ustegabeko trabarik ezpazuen, izabarendako atsegin bat ziren, aitzinetik ikusteak aitzikitzen baitzuen egun horietan lehenik izanara gozagarri batean, baina lasterrez gose handiegi batek bezala mingarrian, Eulaliak berantzen zuen ber. Luzegi

bazen, Eulaliaren aiduru egoiteko gozo hori pairamenera itzultzen zen, izaba etzen orenari behazetik gelditzen, aharrausika, hixtura batzu sendituz. Eulaliaren xilintxa ukaldiak, egunaren azken-azkenean gertatzen baldin bazen, abantzu aldixartzera bazeraman. Egiki, igandetan, etzuen ikustaldi hori baizik gogoan eta barazkaria doi-doi bururaturik, Françoise jateko sala utz ginezan lehiatzen zen izabaren « okupatzera » igaiteko. Baina (oroz gainetik Combray-n eguraldiak jartzen zirenetik) bazen aspaldi eguerdiko oren goienak, bere korona ozenaren hamabi loreñoenez harmeriatzen zuen San-Hilarioko dorretik jautsiak, joa zuela mahi inguruan, ogi benedikatuaren ondoan, hura ere etxekoki elizatik jalgitzean ethorria, Mila eta bat Gauekilako azieten inguruan jarririk ginaudenean oraino, beroak eta oroz gainetik aphairuak phizutuak. Ezen, arraultze, kosteleta, lursagar, errexinata, bixkotxezko zola betierekoari, iragartzen etzauzkunak ere gehiago, gaineratzen zituen – laborantzako eta sagardietako lanen araura, itsasoko emaitzen, salerosketako gertaldien, auzoen egitatearen eta bere baitako jeinuarenera, hala nola nun gure jangaiak apur bat itxuratzen baitzuen, XIII-garren mendean kathedraletako athegainean zizelkatzen ziren laur-orsto hek bezala, urtaroen eta biziko aldien neurkada - : arrain saltzalesak frexkoa zelako segurtamena emana zaukon errondo bat, pulinda bat Roussainville-le-Pin-go merkatuan eder bat ikusia zuelakotz, khardoinak munan oraino molde hortan eginak etzauzkulakotz, azpiki erre bat aire handiak gosetzen baitu eta jausteko astia baitzuen oraino hemendik zazpiak arterano, ziazerbak ez beti bezala egiteko, abrikotak oraino arrarotasun bat zirelakotz, lahar-mahatsak hamabortz egunen buruko ezpaitzen gehiago izanen, mahaxuxa gorriak Zuan Jaunak espesuki ekharrik baitzituen, gereziak, baratzeke gereziondotik heldu ziren lehenbizikoak bi urte baitzen emaiten etzuela, gasna kremarekin lehenago ontsa maite nuena, amandekilako bixkotxa bezperan manatua zuelakotz, brixoa bat eskaintzeko gure aldia baitzen. Hori guzia bururatu eta, espesuki guretako egina, baina bereziki aitarendako maite baitzuen, xokolet krema, Françoise-ren asmamena, adei berezia, eskainia zizakun, hartan bere antze guzia ezarria zuen egintza gertaldizko bat bezain iragankor eta arin. Hartarik jastatu nahiko etzuena erranez : « Aski dut, asea niz », berehala jautsiko zen gaizki ikasi batzuen lerrora, hauek, edergile batek bere lanetarik bat eskaintzen dauetenean ere,

phizuari eta gaiari behatzen baitute xedeak eta egilearen izenpetzeak baizik ez tutenean baliorik. Platean xorta bakar baten uzteak erakutsiko zuen musikagilearen sudurrera zati bat bururatu gabe jeikitzeak bezain ikustate gabea.

Amak erraiten zautan azkenean : « Hea, ehaizela beti hemen egon, kampana beroegi bazaik igan hadi gambarara, baina hoa lehenik ephe batez aire hartzera mahitik jalgitzean ez irakurtzen hasteko. » Banindoa pomparen eta haren aspilaren ondoan jartzera, usu, hala nola ithurri gothiko bat, arrobio batez aphaindua baitzen, harri latzean goiti zizelkatzen zuela bere gorputz alegoriako eta ardatzarakoren ixura higikorra, lila batek itzalpetzen zuen alki bizkarreko gabea, zerbitzuko athe batetik Sant-Izpirituko karrikara idekitzen zen baratzeko xokoño hartan, hango lur guti arthatutik goitzen baitzen, bi mailetan, etxetik hegal eginez, eraikuntza berex bat bezala, sukalde gibelaldea. Haren lauzada gorria ikusten zen hargorria bezala dirdiran. Bazuen Françoise-ren harpearekin baino egite gehiago Benutzen templo batekin. Esneki, fruitu, baratzekari saltzalen emaitzez gaindikatu zen, batzuetan herrixka aski urrun batzuetarik ethorriak hari bere alhorretako pikainen eskaintzeko. Eta etxe-bizkarra beti koronatu zen urzo xuri baten urrun gaz.

Lehen, inguratzen zuen lukuan enintzan biziki berantzen, ezen, irakurtzera igan baino lehen, osaba Adolfek, aitaxiren anaia bat, armadako izanik komandant bezala erretreta hartua zuena, beherean hartzen zuen atsedeneko gabinet ttipian sartzen nintzan, hunek, leiho idekiek beroa sartzera uzten zutenean, ezpazen horrarano bekan heltzen ziren iguzkiaren arraiek, ezin agortuki emaiten baitzuen usain ilun eta hotx hura, aldi berean oihanekoa eta erretate arokoa, sudurrari luzeki amets egin-arazten duena utziak diren ihiziko etxola batzuetan sartzen denean. Baina urteak baziren enintzala gehiago Adolf osabaren gabinetean sartzen, ezpaitzen hau gehiago Combray-ra jiten haren eta ene familaren artean, ene hutsez, gertatu zen samurgo baten gatik, huna zer ariaz :

Ilabetean behin edo bietan, Parisen, hari ikustaldi baten egitera igortzen ninduten, barazkaria bururatzen ari zuenean, xamar xoil bat soi-nean, oihal zuri eta beltzez marratu laneko maripulis batez jantzia zen mutilaz zerbitzatu. Murmurikan ari zen ikustera aspaldidanik enindakola jina deitoratuz, uzten ari zutela ; mazapen bat edo mandarina bat eskaintzen

zautan, saloina iragaiten ginuen ehoiz ezpaitzen hartan gelditzen, ehoiz surik ez egiten, harresiak zizeldura urreztatuez aphainduak zituen, gaina zeruaren itxura ukan nahi zuen urdin batez margoztatua eta mubleak aitaxi-amatxien etxean bezala satinez gosnatuak, baina horiz ; gero iragaiten ginen « laneko gabineta » zeritzonera haren murruetan grabadura batzu ezarriak baitziren, erakusten zutela zola beltz batekin jainkosa gixen gorra bat karro baten eremaiten, lur-borobil baten gainera iganik, edo izar bat bekokian, Bigarren Imperio aroan maite zena itxura pompeiar bat edireiten baitzizaien, eta gero hastiatu zena, eta berriz maitatzen hasten dena arrazoin bakar-bakar baten gatik, bertze batzu emanik ere, Bigarren Imperiokoak iduri dutela baita. Eta banindagon orduan osabarekin gamera mutilak galdegitera jin arteo, karrosazainaren izenean, hunek zein orenetako behar zuen atelatu. Osaba orduan gogoetatze batean murgiltzen zen, gamera mutila miresmenean mugimendu bakar batez haren uhertzeko beldurrez, jakin nahian eta haren ondorio beti berdinen igurikan. Azkenean, zalantza ezin handiago baten ondotik, osabak huts egin gabe hitz hauk erraiten zituen : « Biak eta laurdenetan », gamera mutilak errepikatzen zituenak ustegabetua, baina eztabadatu gabe : « Biak eta laurdenetan ? ontsa... erraitera banoa... »

Aro hartan banuen antzokiaren maitasuna, maitasun platonika, ezen aitamek oraino etzautaten ehoiz hara joiteko baimenik emana, eta hain guti zuzen nituen neure baitan han hartzen ziren atseginak itxuratzen nun ezpainintzan urrun uste ukaitetik ikusle bakoitzak beha zagola « eztereozkopa » batean bezala harendako baizik egina etzen tauladako aphaindura bati, nahiz, gainerateko ikuslek, nork beretako, ikusten zituztenaren bertze milak bezalakoa zen.

Goiz oroz laster banegien Morris zutaberano iragartzen zituen ikuskarrien irakurtzera. Iragarria zen antzerki bakoitzak ene asmamenari eskaitzen zauzkon ametsak baino lañoagorik eta zorionekoagorik jeus etzen, aldi berean izenburua bazegiten hitzetarik ezin berexiak ziren iduriek emanarazten zituztenak eta ere hetan agertzen zen iragarki oraino heze 'ta kolaz hantuen koloreak. *Le Testament de César Girodot* eta *Œdipe-Roi* bezalako antzerki bitxi hetarik bat ezpada, hek izkiriatuak baitzauden, ez « Opera-Comique »-ko iragarki muskerrean, baina Komedia-Frantzeseko iragarki arno-

liga kolorean, jeus etzizatan *Diamants de la Couronne* delakoetako kukurusta dirdiratu xuritik *Domino Noir*-eko satin leun mixteriozkoa baino ezperdinago iduritzen, eta, aitamek erranik antzokira joanen nintzan lehen aldian bi izenburu horietarik bat hautatu beharko nuela, baten eta bertzearen izenburua aldizka zilatu nahiz, hetan ezagutzen nuen gauza bakarra zenaz geroz, bakoitzean hitzemaiten zautan atseginaren hatzemaitera indar eginez eta bertzeak zadukanarekin erkidatzera, alde batetik antzerki lilluragarri eta urgoi baten, bertzetik ezti eta balusatu baten itxuratzerara hain azkarki nintzan heltzen, nun zein hautetsiko nuen deliberatzeko ezinean bainintzan, deserteko, Imperatrizaren moldeko irrisaren eta xokoleteko kremaren artean hautatzea emana izan balizata bezainbat.

Lagunekilako ene solasaldiak oro jokari batzuez ziren, haien antzea, nahiz enuen oraino ezaguna, Edergintzaren lehenbiziko moldea baitzen, hartzen dituen guzien artean, nik aitzinetik hartan senditzera uzten zena. Batek edo bertzeak erraiteko, hitzaldi baten emaiteko zuen aran, ezperditasun ttipien-ttipienek ezin karkulatuzko phizua bazutela baziduritan. Eta, hetaz errana zizatanarenaz, antzearen araura lerrokatzen nituen, egunean neure baitan errepikatzen nituen zerrendetan, ene burumunetan gogortuak baitziren azkenean bere higiezinaz trabatzerano.

Berantago, kolegioan izan nintzanean, ikastorduetan, erakasleak burua itzulia zuen orduko, adixkide berri batekin elgarri berri emaiten, ene lehenbiziko galdea beti hari antzokian izana zenez galdatzeko zen eta jokari hoberena Got zenez, bigarrena Delaunay, eta bertze. Eta, haren ustez, Febvre Thiron-en ondotik baizik heldu ezpaldin bazen, ala Delaunay Coquelin-enetik, Coquelin-ek, harriaren geldia galduz, ene gogoan hartzen zuen higikortasun bapatekoak han bigarren lerroa joaiteko, eta Delaunay laurdenera gibelatzeko dohatua ikusten zen mirazko zalutasunak, bizkortasun emankorak, bazemoten ene burumun malgotu eta jorituer loratze baten eta biziaren sendimena.

Baina jokariak horrela arranguratzan baninduten, Maubant-ek Antzoki-Frantzesetik jalgitzean arratsalde batez maitasunaren zentzordatzea eta oinazeak emanak baldin bazautzan, zenbat antzoki bateko athean argitan izar batek, zenbat zuen karrikan bere zaldi bekokian arrosaz loreztatuekilako

karrosa motz bateko mirailan beharbada jokari bat zela uste nuen emazte baten begitarteak, nitan, nahasmen luzatuago bat uzten, biziaren itxuratzeko indar ahalgabe 'ta mingarri bat ! Omen handienekoak antzearen arau lerrokatzen nituen : Sarah Bernhardt, Berma, Bertet, Madeleine Brohan, Jeanne Samary, baina guziek banindaukaten. Osabak bada hetarik ainitz ezagutzen zuen, eta ere jokarietarik argiki berexten enituen julisak. Etxera ukaiten zituen. Eta ezpazinazkon ikustera egun berezi batzuek baizik joaiten, hori zen, bertze egunetan emazte batzu jiten zirelakotz, haren familia, hunek uste zuenaz bederen, ezpaitzatekeen haiekin aurki, ezen osabak, aldiz, behin ere behar bada ezkondurik izanak etziren alharguntsa pollit batzuen, gerlako izena baizik etzatekeen izen ozenarekilako kondesa batzuen amatxiri aitzineratzeko edo berdín haier familiako joia batzuen emaiteko zuen ikuskatezko erretxasun handiegiak, jadanik aldi bat baino gehiagotan aitatxirekin samurtua zuen. Ainitzetan, solasaldian heldu zen jokarisa baten izenean, aita entzuten nuen amari erraiten, irriño batekin : « Zure osabaren adixkide bat » ; eta gogoan nuen nola gizon aiphameneko batzuek behar bada urtez eta urtez debaldetan haien eskutitzez ihardesten etzuten eta bere hoteleko etxezainaz haiza-arazten zituen horrelako emaztetarik baten athean bazegiten egonaldiaz, osabak ni bezalako mutiko bat libratzen ahalko zuela bere etxean jokari hari, hainbertze jenderendako ezin hurbilduari, haren adixkide mina zenari aitzineratuz.

Beraz – egunez aldaturik izana zen ikastordu bat orai hain gaizki heldu zelako estakuruan nun osabaren ikustea debekatua baitzautan, eta oraino ere debekatuko zautalakoan – egun batez, egiten ginauzkon ikustaldiendako atxikia zenetik bertze batez, aitamak goizik barazkalduak izaitiaz baliatuz, athera nintzan eta iragarkien zutabeari behatzera joaiteko orde, hortako bakarrik joaitera uzten baininduten, haren gana laster egin nuen. Athe aitzinean ohartu nintzan bi zaldiekilako karrosa bati baitzuten begitakoetan julufre gorri bat karrosazainak botoin-xiloan zuen bezalakoa. Mailaldetik emazte irri eta mintzo bat entzun nuen, eta joa ukan nueneko, ixila, gero hesten ziren athe batzuen harrabotsa. Gambara mutila idekitzera ethorri zen, eta ni eragozpenean ikusiz, erran zautan osaba biziki hartua zela, enindukeela ikusten ahalko, eta, haren abisatzera zolarik alta, entzuna nuen

mintzo berak bazion : « Ho ! ba ! sartzera utzak ; minuta bat bakarrik, horrek hainbat josta nindezakek. Hire bulego-mahian den argazkian, hainbat dik amaren egite, hire ilobaren, argazkia harenaren ondoan denaren, eztea hala ? Ephe batez bakarrik ikusi nahi nitek, haur hori. »

Osaba entzun nuen murmurikan, gaitzitzen ; azkenean gambara mutilak sarr-arazi ninduen.

Mahi gainean, bazen ohikoa bezalako mazapen azieta ; osabak egunorotako xamarra zuen, baina haren aitzinean, zaia gorrxatan perlazko lephoko handi batekin, emazte gazte bat jarria zen mandarina baten jatea bururatzen ari zuena. Anderea ala andereñoa erran behar ez jakiteak gorri-arazi ninduen, eta haren aldera begien sobera itzultzera ez menturatuz hari mintzatu behar ukan beldurrez, osabaren besarkatzera joan nintzan. Hura eni beha zagon irriño batekin, osabak erran zaukon : « Ene iloba », ene izena erran gabe ez eta eni harena, aitaxirekin ukanak zituen eragozpenez geroztik, bere familiaren eta horrelako ezagutza horien arteko edozein lokarriren baztertzer ahal bezainbat indar egiten zukeelakotz.

- Zenbat amaren egite duen, erran zuen.

- Baina eztuzu ene iloba anderea ehoiz argazkian baizik ikusi, erran zuen bizi-bizia osabak doinu mokor batekin.

- Barkamendua eskatzen dautzut, adixkide ona, mailaldean gurutzatu dut joan den urtean, hain eri izan zirelarik. Egia da eztutala ximixta baten ephean baizik ikusi eta zure mailaldea ontsa iluna dela, baina miresteko aski izan zata. Muttiko gazte hunek baditu haren begi ederrak eta ere *hori*, erran zuen, erhiaz bekoki beherekaldean marra bat eginez. Zure iloba andereak zure izen bera dua, adixkidea ? galdegin zaukon osabari.

- Aitaren egitea du gehienik, murmurikatu zuen ezpaitzen amaren izena erranez urrundik hari aitzineratezeaz hurbildik egiteaz baino gehiago axolatzen.

- Aita eztut ezagutzen, erran zuen andere gorrxataz jantziak buru beheititze arin batekin, eta zure aita gaixoa nehoiz eztut ezagutu, adixkidea. Orhoitzen zira, zure bihotzmin handiaren ondotik laster dugu elgar ezagutu.

Nahigabe ttipi bat senditu nuen, ezen andere gazte hori etzen etxean zenbait aldiz ikusiak nituen bertze andere pollitetarik bertzelakoa, bereziki

haren etxera urthats oroz joaiten nintzan gure gusi baten alabatik. Hobeki jantzia bakarrik, osabaren adixkideak bazuen so bizi eta on bera, itxura berdin zintzoa zuen eta amultsua. Enaukon ere jokarisen argazkietan miresten nuen itxura antzokitar hartarik ezer edireiten, ez eta eremaiten zukeen bizia-
ren araukoa izana laitekeen errankortasun debrutarretik. Nekez sinets ne-
zakeen julis bat zela eta oroz gainetik mundu handiko julis bat zatekeela en-
uen sinetsiko, ikusi ezpanitu bi zaldiekilako karrosa, zaia gorraxta, perlazko
lephokoa, jakin ezpanu osabak etzuela lerro goienekorik baizik ezagutzen.
Baina neure buruari galdez nindagon nola, karrosa eta hotela eta joiak em-
aiten zauzkon aberats okituak, atsegin ukan zezakeen itxura hoin lañoa eta
behar bezalakoa zuen jende batendako bere ontasunaren jaten. Alta, haren
bizia zer zatekeen gogatzuz, hartako moralagabeak uhertzen ninduen behar
bada ene aitzinean itxura berezi batean agertua izana balizata baino gehiago,
- horrela elhaberri bateko segetua bezala, bere aitama burjesen etxetik jal-
gi-arazia eta jende orotara eman-arazia zuen eskandala zenbait bezala ezin
ikusia izaitiaz, edertasunean idek-arazia baitzuen, eta erdiko mundurano eta
aiphamenerano igan-arazia, zituen begitarteko jokoek, mintzoko doinuek,
jadanik ezagutzen nituen bertze batzuen iduriek familia oneko neska gazte
batendako nahigabeen harr-arazten zautaten hura, gehiago familia batekoa
ere etzen hura.

« Laneko gabinetera » iraganak ginen, eta osabak, itxura apur bat
jenatu batekin, zigarretak eskaini zauzkon.

- Ez, maitea, erran zuen, badakizu Duke-Handiak igortzen dauzta-
ner ohitua nizala. Bekaizti zirela erran daukot. » Eta idazki arrotz eta urrez-
tatuakilako untxi batetik zigarreta bat athera zuen. « Baina ba, egin zuen ba-
patez, mutiko gazte hunen aita zure etxean aurkitua duket. Eztea hura zure
iloba? Nola ahazia ahal dut ? Hain ona izana da, hain ezin gixakoagoa enekin
», erran zuen itxura laño eta sendikor batekin. Baina aitaren ongi-ethorri lat-
za zer izana zatekeen gogatzean, « hain ezin gixakoagoa » aurkitua zuela ziona,
ni haren hotz neurtua ezagutzen nuena jenatua nintzan, egina ukana zuen
jendetasun gabeko zerbaitez bezala, emana zizakon eskertze handiegi horren
eta haren maitagarritasun gutiegiaren arteko ezberdintasun hortaz. Geroago
iduritu zata emazte astidun eta langile horien alderdi hunkigarri bat zela,
bere bihotzontasuna, antzea, sendimenduzko edertasun bateko amets eman

errexak – ezen, edergilek bezala, ezpaitute egintzaratzen, ez bizitze ohikoaren mugetan sarr-arazten – eta guti gostatzen zauen urrea eman zituzten, jostura balios eta arin batez gizonen bizi arrunt eta gaizki leunduaren aberasteari. Haren hartzeko osaba xamarrean zagon pipatzeko salan, andereak bere soin hain ezitia, zeta gorraxtazko zaia, perlak, duke-handi baten adixkidantzatik sortzen den aphaintasuna ixurtzen zituen bezala, berdin ere aitaren solas ezteus zenbait berazki landua zuen, itzuli bat, erranmolde baliadun bat emanak zauzkon, hartan lotuz bere so bat hain gar ederrekoa, xumetasunez eta eskertzez ezitua, nun joia hautuko batera aldatu emaiten baitzuen, « hain ezin gixakoagoa » zen zerbaitetara.

- Goazen, bada, joiteko ordua duk, erran zautan osabak.

Zutitu nintzan, banuen zaia gorraxtarekilako anderearen eskuan musu emaiteko gutizia bat ezin atxikia, baina baziduritan ebaste bat bezalako zerbait gauza ausart zela. Bihotzak joiten zautan neure baitan banielarik : « Egin behar dea, ez egin ? », gero zer egin behar zen galdatetik gelditu nintzan, zerbaiten egiteko. Eta, jestu itsu eta ero batez, arestian hartako edireiten nituen arrazoin guziez gabeturik, aitzinatzen zautan eskua ezpainetara eman nuen.

- Zein gixakoa den ! zein galanta, emaztendako badu begiño bat : badu osabarenetik. « Gentleman » betegina izanen da, gaineratu zuen erranaldiari doinu arinki britaniar baten emaiteko hortzak tinkatuz. Ez ote laiteke aldi batez ethor *cup of tea* baten hartzera, gure auzoek, Angelesek dioten bezala ? Aski luke eni goizean « paper urdin » baten igortzea.

« Paper urdin » bat zer zen enakien. Andereak erraiten zituen hitzen erdia enuen hartzen, baina ez erantzuteak gaizki ikasi eginen zuen galde zenbait hetan gordea izan zadin beldurrak eninduen oharpenekin haien entzuetik gelditzera uzten, eta akhidura handi bat sendi nuen.

- Baina ez, ezin da, erran zuen osabak, soingainak goitituz, biziki zaindua da, badu lan ainitz. Ikastetxean sari guziak ukaiten ditu, gaineratu zuen, ahapetik, gezur hori entzun eta ezeza enezan. Nork daki ? Victor Hugo ttipi bat izanen da behar bada, Vaulabelle bezalako bat, badakizu.

- Edergileak biziki maite ditut, ihardetsi zuen andere gorraxtaz jantziak, emazteak entzuten dituztenik ezta hek baizik... Hek eta zu bezalako izaite hautekoak. Ene jakingabea desenkusa ezazu, adixkidea. Vaulabelle nor

da ? Zure saloin bereziko liburutegi ttipi berinatuan diren liburu urrezatuak direa ? Prestatuko dauztazula hitzeman duzula badakizu, hetaz artha handia hartuko dut.

Osabak liburuen prestatzea hastio baitzuen jeus etzuen ihardetsi eta aitzin-gambararano ereman ninduen. Andere gorraxtaz jantziarendako maitasunez xoratua, musu ero batzuez estali nituen ene osaba zaharraren matela tabakoz beteak, eta nahiago zuela aitamer ikustaldi hortaz enindadin mintza entzun-arazten zautan batean aski eragozpenekin garbiki erraitera menturatu gabe, nik erraiten naukon, nigarra begian, haren oneziaren orhoitzapena nitan hain azkar zela nun egun batez eskertzera heltzeko bidea edirenen bainuen bada. Hain azkarra zen alabaina nun bi oren berantago, erranaldi mixteriozko batzuen ondotik, iduritu baitzizatan etzauetela aitamer dohatua nintzan handitasun berriaz ideia aski garbia emaiten, eta argigarriago aurkitu bainuen xehetasun ttipienetan sartuz egin berria nuen ikustaldiaren erraita. Horrela osabari nardamendurik eginen naukola enuen uste. Nola nuen uste ukanen, nahi enuenaz geroz ? Ezin asma nezakeen ere aitamek ikustaldi hortan gaizkirik aurkituko zutela nik aurkitzen enuenaz geroz. Eztea egun guzietz gertatzen adixkide batek eskatzen daukula hari izkiriartzea ezin egina duen emazte bati desenkusa emaita huts egin eztezagun, eta horren egiteaz ezkirola axolatzen, ustez eta jende horrek eztezokeela baliorik eman guretako egiazki eztuen ixil egoite horri ? Asmatzen nuen, orok bezala, bertzen burumuna untzi geldu eta malgu bat zela, han sartzen zenari ihardokitze berezirik ukaiteko ahalik gabe ; eta aitamenarenean osabak egin-arazia zautan ezagutzaren berria ezarriz dudarik enuen, bertan emaiten nauela, nahi nuen moldean, ezagutza egite horri banemon aburu onginahia. Aitamek zorigaitzez har zezaten entzutera emaiten nauen prinzipioetarik osoki ezperdinetara jo zuten. Aitak eta aitaxik ukan zituzten osabarekin argitaldi bortitzak ; hori zeharki jakin nuen. Egun zenbait berantago, osaba karrosa idekian zoala gurutzatu nuenean, senditu nuen erran nahiko naukon oinazea, esker ona, urrikia. Hauen neurrigabearen ondoan, xapel ukaldi bat ttipikeria izanen zela iduritu zizatan eta osabari asma-araz zezokeela uste nuela enintzala hari ikustate ohiko bat baino gehiagoren eman beharretan. Jestu eskas hortaz elikatzea deliberatu nuen eta burua baztertu. Osabak uste ukan zuen hortan ai-

tamen manuer jarraikitzen nindauela, etzauen barkatu, eta urteak eta urteak berantago hil da gutarik batek berriz ehoiz ikusia ukan gabe.

Horren gatik enintzan gehiago sartzen Adolf osabaren atsedeneko gabinetean, orai hetsia zenean, eta sukalde-gibelalde ondoetan apur bat egonik, Françoise-ek, alharzean agertuz, erran zautanean : « Sukalde neskatoa kafearen zerbitzatzera utziko dut eta ur beroaren igaitera, Andere Octavere-
ren gana laster egin behar dut », sartzera deliberatzen nintzan eta irakutzera zuzen gambarara igaiten. Sukalde neskatoa norbait zen, egiteko ezin aldatu batzuek halako jarraipen eta berdintasun bat bazemoten betiereko erakunde bat, hetan haragitzen zen molde iragankorretan gaindi, nehoiz ezpaignuen bi urtez berdina ukan. Hainbertze azparrago jan ginuen urtean, ohian haien « biphiltzeko » lana zuena, jende eritu gaixo bat zen ordukotz, haur beharretan jadanik aski aitzinatua Bazkoz ethorri ginelarik; Françoise-ek hainbertze itzuli eta lanen egitera utz zezan ustegabetzekoa zen ere, aitzinean mixeriozko zarearen nekez ekhartzen hasten ari baitzen, egun oroz beteagoa, haren itxura ezin ederragoa asmatzen zelarik zaia zabalen azpian. Hauek orhoit-arazten zituzten Zuan Jaunak haien argazkiak emanak zauztan Giotto-ren iduri sinbolikoez janzten dituzten zaia luze larruztatuak. Berak zaukun oharr-arazia eta sukalde neskatoaren berriak galdatzen zauzkunean, baziogun : « Nola da Giotto-ren Garitatea ? » Bertzela ere berak, neska gaizoak, bere izorraz begitarterano gizendua, zuzen eta laurkantoin erortzen ziren mateletarano, bazuen alabaina Arena-n bertuteak jende moldean erakutsiak diren neskaso azkar eta gizonarako, etxandre izaitekotz, haiekin egite aski. Eta orai ohartzen niz Paduako Bertute eta Bizio hek bertze moldez ere haren iduriak zirela. Neska haren itxura handitua zen bezala sabelean zekharren sinbolo gainera-tuaz, zer erran nahi zuen gogoan zuela iduri ukan gabe, haren begitartean horren ederra eta izpiritua jeusek eman ukan gabe, zama xoil eta phizu bat baliz bezala, berdin ere bera ohartzen dela iduri ukan gabe Arena-n « Caritas » hitzaren azpian itxuratua den sukaldekandere azkarrak, haren errepika ene ikasteko salaren harresian lotua baitzen, Combray-n, bertute hori erakusten du, garitatezko edozein gogamen haren begitarte gementsu arruntak ehoiz erran ahal ukan duela iduri eztuelarik. Margolariaren asmamen eder batean ohondikatzen ditu lurreko thesorak, baina zinez mahats batzu lehertzen ba-

litu bezala haien jusaren jalgi-arazteko edo izaitekotz zorro batzuen gainera igaiten baliz bezala bere buruaren goratzeko ; eta Jainkoari ezkaintzen du bere bihotza sutan, derragun hobeki, « igortzen » dauko, kozinersa batek buxun atheratzekoa etxazpiko zirrito batetik igortzen daukon bezala behereko leihotik eskatzen daukon norbaiti. Aldiz Gutiziak, hark, gutiziazko itxuratik zerbait gehiago ukanen zuen. Baina harresiko margazki hartan, oraino, sinboloak badaduka hainbertze leku eta hain egiazkoa bezala erakutsia da, Gutziaren ezpainetan sugea xixtuz hain lodia, hain osoki dauko aho zabalzabaldia betetzen, nun haren begitarteko ginarririk luzatuak baitira sugarean eduki ahal ukaiteko, bere hatsaz balon bat hantzen duen haur batenak bezala, eta nun Gutziaren oharpenak – eta aldi berean gureak – osoki ezpainen egintzara bildua izanez, astirik guti baitu gutiziazko gogoetara emaiteko.

Baina Zuan Jaunak Giotto-ren iduri horiendako aithortzen zuen miresmen guziaren gatik, enuen luzaz atseginik batere ukan gure ikaslanetako salan, ekharriak zauztanen kopiak han loturik ezarriak baitziren, garitate gabeko Garitate hari beha egoiten, medikuntzako liburu batean mihiko hantura batek edo operatzailearen tresnaren sartzeak zintzur-zolaren edo gangailaren zapatzea baizik itxuratzen etzuen marrazkiaren iduria zuen Gutizia hari, Justizia bati, haren aurpegi hits eta ttipiki arautua Combrayn mezan ikusten nituen burjesa pollit debot eta idor batzuek bazadukaten hura bera baitzen, hetarik batzu aitzinetik hartuak zaudelarik Injustiziaren armadako erresalbietan. Baina berantago gogoan hartu dut harresi margazki horien bitxitasun baldigarria, eder berezia, sinboloak hartzen zuen leku handiari zagokola, eta itxuratua izaiteak, ez sinbolo bezala gogo sinbolikoa erakusten etzutenaz geroz, baina egiazkoa bezala, zinez jasana eta gauzetan eskuztatua, bazemola ederlanaren erran-nahiari zerbait zuzenago eta argiago, erakaspinari zerbait tinkiago eta ohargarriago. Sukalde neskato gaizoaren baitan ere, beti bazeraman phizua oharpena haren sabelera ekhartzen zuen ; eta berdin ere, azken hatsetan direnen gogamena ainitzetan herioaren alderdi zinezko, mingarri, ilun, sabelekora itzulia da, herioak hain zuzen eskaintzen dauena den binper hortara, gogorki sendi-arazten dauenera, lehertzen duen zama baten, hats-hartzeko neke baten, edateko behar baten iduria baitu, herio deritzogunarena baino biziki gehiago.

Paduako Bertute eta Bizio horiek ontsa egiazkoak izan behar zuten neskato izorra bezain bizi iduritzen zizaztanaz geroz, eta hau bera etzizatanaz geroz biziki gutiago alegiazkoa iduritzen. Eta badateke izaite baten arima eztela (iduriz bederen) hartan ari den bertutean barne, baduela ederlaneko balioaz bertzalde egia bat ezpada ere gogo-bihotzetakoa, bederen, dioten bezala, « fisiognomonikoa ». Bizian aldia ukan dutanean, berantago, behazunez komentu batzuetan, egintzazko garitatea erakusten zuten jende zinez saindu batzuen aurkitzeko, bazuten gehienetan mediku-barber lehiatu zenbaiten itxura alegera, baiezkoa, axolagabea eta idorra, gizakiaren oinaze aitzinean urrikalmendurik batere, bihotz beraztasunik batere, haren gaizki hunkitzeko beldurrik batere ageri ezten begitarte hura, egiazko oneziaren begitarte oies eta ezin handiagoa dena.

Sukalde neskatoak – nahigabeen Françoise-ren lehentasuna dirdira-arazten zuela, Hutsak, alderantziaz, Egiaeren garhaipena argiagotzen duen bezala – kafea zerbitzatzen zuen batean, ur beroa baizik etzena amak zionaz, eta gero gure gambaretara igaiten doi-doa ephela zen ur beroa, ohean luzatua nintzan, liburu bat eskuan, bere hotx arina eta beratza arrastiriko iguzkiaren kontra daldaratuz gerizatzen zuen ene gambaran, hetan iguzki arrai batek bere hegala horien sarr-arazteko bidea aurkitua zuen leiho abantzu hetsien gibelean, zuraren eta berinaren artean higitu gabe zagola, xoko batean, hala nola pinpirina bat gelditua. Irakurtzeko doi-doa aski argi zen, eta argi bete ederraren sendipena etzizatan emana Apheztegiko karrikan Camus-ek (Françoise-ek erranik izaba « atsedenean zela » eta harrabotsa egin zaitekeela) taula erhaustu batzuetan eman ukaldietarik baizik, baina, aro beroetako aire ozen berezian joitean, iduri baitzuten borobil gorribizi batzu urrunera airatzen zizutuztela ; eta ere ene aitzinean, bere musikaldi ttipian, udako gambara musika bezalakoa bazagiten ulietarik : uda eztu gizonen musika baten aran gogoratzen, hunek, sasoin ederrean ustegabetarik entzun eta, gero orhoit-arazten baitautzu ; udari lotura baitezpadakoago batez estekan da : egun ederretarik sortua, haiekin baizik berriz ez sortzen, haien izaitetik beretik zerbait edukiz, udaren itzultzea segurtatzen du, egiazko han izaitea, ingurumenean, berehala aurkigarri.

Ene gambarako hotx iluna karrikako iguzki betearendako itzala arriarendako dena zen, erran nahi da hura bezain argiduna eta ene asmame-

nari emaiten zaukon udaren ikusgarri osoa huntaz ezpainuen ene sentsuekin, ibilki izan banintz, zatika baizik gozaten ahalko ; eta horrela ongi arautua zen ene atsedenarekin (ene liburuak emaiten zituzten eta bihotza hunkitzen zautaten gertakierari esker) hunek jasaiten baitzituen, ur bizi baten erdian higitzen ezten esku baten geldiak bezala, egintzazko uhaitz baten ukaldia eta bizia.

Baina amatxi, aro beroegia gaiztatua bazen ere, ekaitz bat edo bakarrik uhar bat gertatua ere, heldu zizatan jalgi nindadin othoiztera. Eta irakurgaia ez utzi nahiz, banindoan baratzean bederen hartan jarraikitza, isas-gaztenondoaren azpian, zamuka eta oihalezko etxola baten barnean haren zolan jarririk eta ustez aitamen ikustera ethor zaitzekeen jenden begietarik gordea.

Eta etzena ene gogamena ere bertze haurzaindegi bat bezalako, haren zolan sartua nindagola sendi bainuen, kampoan zer gertatzen zen so egiteko ere ? Kampoko gauza bat banakusalarik, ikusten nuelako gogoaren eta ene artean zagon, haren gaiaren hunkitzea beti debekatzen zautan izpirituko iphuru batek bazterkatzen zuen; ni haren hartzera heldu izan gabe zerbait moldez airean ezeztatzen zen, sutan den gauza batek bustia den bati hurbiltzen denean hunen hezea hunkitzen ezten bezala, beti airatua den une batez aitzindua delakotz. Ene konzienziak, irakurtzen ari nintzalarik, aldi berean hedatzen zuen izanara ezperdinetakoa oihal mota nabarduratuan, eta ene baitan barnatukienik gordeak zauden nahikarietarik begien aitzinean, baratze buruan, nuen hedoiertze osoki kampakoaren ikuspenerano zoazenetakoan, nitan minkienik neure baitakoa zena lehen-lehenik, gaineratekoari manatzen zuen eskupeko ezin gelditua, irakurtzen nuen liburuaren filosofiazko aberastasunean, edertasunean nuen sinestea zen, eta, zein nahi liburu izan zadin, hetaz jaketzeko ene gutizia. Zeren, Combray-n erosia banuen ere, Borange epizeriaren aitzinaldean hari oharturik, etxetik urrunegi Françoise Camus-en baitara bezala erostez hara joan ahal izaiteko, baina paperreriak eta liburuz hobeki hornitua, kathedraleko athe bat baino gogamenez beteagoa eta mixteriozkoagoa zen atheko bi alderdiak estaltzen zituzten irakurgai eta eroskaiei mozaikan fizela batez estekan, lan ohargarri bat bezala ezagutua nuen, erakasleak aipatua ukanik, edo aro hartan egia eta edertasun erdi-asmatu eta erdi ezin entzunen segeretua bazadulaka iduritzen zizatan lagunak,

haien ezagutzea baitzen ene gogoaren helburu nahasia baina iraunkorra.

Sinesmen nagusi horren ondotik, irakurtzean, barnetik kamporako mugimendu ethengabetan ari zena, egiaren aurkitzera buruz, heldu ziren hartan barne nintzan egintzak bazematzatan sendimenduak, arratsalde horiek ainitzetan bizi oso bat badagiten baino gehiago gertakari larriek betetzen baitzituzten. Irakurtzen nuen liburuan gertatzen ziren ; egia da etzirela, Françoise-ek zion bezala, « egiazkoak ». Baina norbaiten bozkarioak edo zorigaitzak ukan-arazten dauzkigun sendimenduak eztira gutan bozkario edo zorigaitz horren iduri baten bitartez baizik gertatzen ; gure sendimenduetako tresnerian beharrezko gai bakarra iduria izanez, egiazko jenden osoki eta xoilki ekhentzea izanen zen garbitzeak baitezpadako hobetze bat emanen zuela gogoan hartzean izan zen lehenbiziko elhaberrigilearen antzea. Egiazko izaite bat, harekin zenbat barnatuki gogo bereko izan gaiten ere, zati handi batean gure sentsuez da hautemana izaiten, erran nahi baita okil gelditzen zaukula, gure sendikortasunak ezin goiti dezakeen phizu hil bat eskaintzen daukula. Zorigaitz batek jo badeza, ezkaitezke hartaz dugun gogamen osoko zati ttipi batean baizik hunkiak izan; gehiago dena, bera ezta hunkia izanen ahal beraz duen gogamen osoko zati batean baizik. Elhaberrigilearen aurkintza arimarendako ezin zilatuak diren zati horien ordaintzea izan da materiagabeko - erran nahi da gure arimak beretzen ahal dituen - zati andana berdinarekin. Zer egiten du ordutik molde berriko izaite horien egintzak, hunkimenak egiazkoak bezala iduri zaizkigun, gureak eginak ditugunaz geroz, gutan gertatzen direnaz geroz, bere menea daduzkatenaz geroz, liburu-ko orstoak sukar batekin itzultzen ditugun batean, gure hatsaren lehia eta soaren indarra ? Eta elhaberrigileak izanara hortan ezarriak gituelarik, osoki barnekoak diren izanara guzietan bezala hortan hunkimen oro hamarretan handitua baita, haren liburuak uhertuko baikitu amets batek bezala baina lo egitean ditugunak baino argiagoak eta haren orhoitzapenak gehiago iraunen duenak, orduan, huna nun oren batez gutan bortizki jeik-arazten dituen izan daitezkeen zorion eta zorigaitz guziak, biziko urteak eta urteak beharko ginituelarik hetarik zenbaiten ezagutzeko, azkarrenak ehoiz ezpaitzizaizkun agertuak izanen, harekin egiten diren urritasunak ezkituelakotz hetaz ohartzera uzten ; (horrela bizian, gure bihotza aldatzen da, oinaze gaitzena hori baita ; baina eztugu irakurtzean baizik ezagutzen, asmamenez : bizian egia-

zki aldatzen, naturako gertaldi batzu egiten diren bezala, aski emeki, hetan jarraitzen diren moldetarik bakoitzari ohartzen ahal baldin bagira, aldir, aldatzen direlako sendimena bera gordea izan zaikuntzat.)

Elhaberriko jenden bizi hori baino gutiago jadanik ene soinaren barnekoa, heldu zen gero, ene aitzinera erdi igorria, egintza hartan zabaltzen zen eskualdea eta ene gogoan bertzeak, liburutik begiak goititzen nituenean ikusten nuenak baino eragin ontsa handiagoa zuena. Hala dut ukan bi udez, Combray-n, orduan irakurtzen nuen liburuaren gatik, herri menditsu eta ibaitu baten mina, han ainitz segategi ikusiko bainuen eta, ur garbiaren zolan, zur zati batzu ithurbelar aldaxka batzuen azpian usteltzen ari : ez urrun harresi aphaletan igaiten ziren lore ubel eta gorrail mulko batzu. Eta maite ukanen ninduen emazte baten ametsa beti gogoan bainuen, uda hetan amets hori ur bizien hoxturaz hartua izan zen ; eta zein ere izan zadin gogoratzen nuen emaztea, lore ubel eta gorrail batzuen mulkoak goiti zoazen berehala haren bi aldetarik margo osagailu batzu bezala.

Etzen hori bakarrik amesten dugun iduri bat beti markatua gelditzen delakotz, gure ametsarian halabarrez inguratzen duten margo arrotzen leinuruaz edertzen eta baliatzen delakotz ; ezen irakurtzen nituen liburuetakoko eskualde horiek etziren bakarrik enetako Combray-k begietara bazematzatana baino bizi gehiagorekin ene idurimenari emanak, baina berdintsuak izanak lizatezkeenak. Egileak hetaz egina zuen hautuaren bidez, ene gogamena haren hitzen aitzinera agerraldi batenera bezala zoan sinestearenez, iduritzen zizatan – han nintzan herriak batere emaiten etzautan iduripena, eta oroz gainetik gure baratzeak, amatxik gutiesten zuen baratzezainaren asmamen zuzenaran ondorio lillura gabeak – Naturaren beraren egiazko zati bat zirela, barnatuki ikertzeko gai.

Aitamek onhartu baldin balizatate, liburu bat irakurtzen nuenean, erakusten zuen herriraren ikustera joan nindadin, egiaz jabetzean urrats ezin estimatu bat eginen nuela usteko nuen. Ezen batek bere arimaz beti inguratua delako sendimena baldin badu, eztu presondegi geldi batekoa bezala : izaitekotz harekin hura baino urrunago joaiteko betiereko olde batean eremana bezala izaiten da, kampa heltzeko, halako etsipen batekin, inguruan entzuten duela beti kampak oihartzuna ezten soinu berdinean bat, baina barneko dardara baten hots ozena. Gure arimak hetara igorria duen leinurua

nahi da gauzetan bilatu, hortik baitira balios bilakatzen; atsekabetzen da ohartzean, ideia batzuen auzo izaitetik gure gogoan zuten lilluragarri hartarik gabe direla naturan ; batzuetan arima hortako indar guziak abileziara itzul-arazten dira, distiradurara, gutarik kampo direla eta behin ere hetara helduko ezki-rela ontsa sendi dugun izaite batzuen gainean eragin ukaiteko. Hortakotz, maite nuen emaztearen inguruan beti asmatzen baldin banituen orduan gehienik gutiziatzen nituen lekuak, hark ikus-araz zitzaiztan nahiko banuen, mundu ezezagun batera sartzea idek zezatan, etzen gogoeta batzuen bateratze xoil zenbaiten halabeharretik ; ez, bidaiako eta maitasuneko ene ametsak ephe batzu baizik etzirelakotz da – gaurregun alegiazki elgarretarik berexten ditutanak ur-xirrixta ortzadarkatu eta iduriz geldi batean hauste batzu goratasun ezperdinetan egiten banitu bezala – ene biziko indar guzien jalgitze bakar ezin makurr-arazi batean.

Azkenean, ene konzienziako izanara bat bertzeari lotuen ondotik jarraikiz, eta inguratzen zituen egiazko eremura heldu baino lehen, bertze moldeko atsegin batzu edireiten ditut, ongi jarria izaitekoa, aireko usain onaren senditzea, ikusliar batez jenatua ez izaitea, eta, San-Hilarioko ezki-ladorrean oren batek joiten zuenan, arratsaldetik jadanik suntsitua zenaren ikustea zatika zatika erortzen, orenen oroa jakin-arazten zautan azken ukaldia entzun nezano, eta hari jarraikitzen zizakon ixil luzeak iduri baitzuen has-arazten zuela, zero urdinean, irakurtzeko oraino utzia zizatan zati guzia Françoise-ek antolatzen ari zuen auhari onerano, bizkortuko baininduen, liburuaren irakurtzean haren gizandiari jarraikiz hartuak nituen akhiduretarik. Eta oren bakoitzean iduri zizatan aitzinekoak ephe labur zenbait lehenago baizik etzuela joa ; azkena bertzearen ondo-ondoan heldu zen zeruan jartzera eta ezin sinets nezakeen hiruretan hogeit hamar egonak zatezkeela haien bi urrezko marren artean hartua zen arku ttipi urdinean. Zenbait aldiz ere uste baino lehenagoko oren horrek lehenbizikoak baino bi ukaldi gehiago joiten zituen ; bat bazen beraz entzuna enuena, gertatu zen zerbait etzen enetako gertatua ; irakurtzean hartua izaiteak, lozorro baten xoramenean, ene beharri lilluratuak enganatuak zituen eta urrezko ezki-la ezabatua ixilaren azal urdinarakoan. Igandetako arratsalde ederrak Combray-n baratzeko itzas-gaztenondoaren azpian, ene biziko gertakari balio gutikoez arthoski hustu eta, ordainduak baitzituztet ur biziz zeharkatu herri baten erdian ereman

bizi menturazko batez eta nahikunde bitxi batzuez, bizi hori orhoit-arazten dautauzue oraino gogoratzen zizatzatenean, baitadukazue alabaina apurka ingurukatua eta – ene irakurraldian aitzinatzen ari nintzan eta eguneko be-roa erortzen ari zen batean - hetsirik ezarria zuen oren ixil, ozen, usainondu eta argien krixtail jarraikian, emeki aldatuan eta orstailez zeharkatuan.

Zenbait aldiz ene irakurtzetik atheratua ninduen, arratsalde erdira orduko, baratzezainaren alabak, ero bat bezala lasterka, iragaitean iranjondu bat aurdikitzen zuela, erhi bat zauritzen, hortz bat hausten eta oihuz : « Hor dira ! Hor dira ! » Françoise eta ni ethor ginindadin eta ikuskarririk jeus ezkinezan huts egin. Hori zen tropak, kasernako manubretako, Combray iragaiten zuenean, Santa-Hildegarda karrika hartuz gehienetan. Gure sehiak burdinsarearen kampanoan kadera batzuetan lerroan jarriarik Combray-ko igande ibiltarier beha zaudelarik eta haien ganik bere buruaren ikus-arazten, baratzezainaren alaba, Garako ibilguneko bi etxek uzten zuten artekatik, kasken dirdirari ohartua zen. Sehiak kaderak tarrapatan sartuak zituzten, ezen harmatuak Santa-Hildegarda karrikatik lerroan zoazenean, haren zabaltsun osoa hartzen zuten, zaldien lauhazkak etxeak hunkitzera zituela, oinbide gáindituak estaliz, uhaitz erotu bati ohatze hertsiegia uzten dauen urbazter batzu bezala.

- Gaixo haurrak, zion Françoise-ek burdin-sarera orduko jadanik nigarretan ; gaixo gazteria soro bat bezala ephaitua izanen dena ; gogoratzean berean joa niz, gaineratzen zuen eskua bihotzean ezarriz, *joa* izana zen lekuan.

- Eder da, eztea hala, andere Françoise, biziari atxikiak eztiren gazte horien guzien ikustea ? zion baratzezainak haren khexa-arazteko.

Etzen debaldetan mintzatua :

- Baina zeri behar da beraz atxikia izan, biziari ezpada, Jainko onak ehoiz ere bi aldiz egiten eztuen emaitza. Ondikotz ! ene Jainkoa ! Egia da alta, eztirela biziari atxikiak ! 70-ean ikusiak ditut ; eztira gehiago hiltzeko beldur, gerla zorigaitzeko horietan ; eztira erotu batzu baizik; eta gero urkatzeko soka eztute balio, eztira gizonak, lehoinak dira. (Françoise-rendako gizon baten erkidatzeak lehoin batekin – « leho-in » ahozkatzen zuena – jeus eztuen ohoragarririk.)

- Badakizu, Françoise, zion baratzezainak, iraultzak hobe luke, gerla deklaritzen denean ezpaitira joan nahi dutenak baizik joaiten.

- Ha ! ba, hori bederen entzuten dut, frankoago da.

Baratzezainak uste zuen gerla deklaratu eta burdinbide guziak gel-ditzen zirela.

- Alajinkoa, ihes joan eztaiten, zion Françoise-ek.

Eta baratzezainak : « Ha ! maltzurak dira », ezpaitzuen onhartzen gerla etzela Estatuak jendeari egin nahi zaukon halako jukutria bat eta, egiteko ahala izan baliz, eztela ihes eginen etzuen bakar bat.

Baina Françoise izabaren ondora lehiatzen zen, ni ene liburura, sehiak berriz athe aitzinean jartzen ziren soldadoek jeik-araziak zituzten erhautsaren eta bihotz hunkiduraren erortzeari beha. Jabaldura itzuli eta biziki berantago, ibiltzale uhain ohigabeko batek belzten zituen oraino Combray-ko karrikak. Eta etxe bakoitzaren aitzinean, ohituak etzirenenean ere, sehiak edo berdin nagusiek, beha jarriarik, alharzea lits batez aphaintzen zuten, gorbel eta maskorrena bezalakoa itsasaldi azkar batek haien oihal-izurra eta broderia ur bazterrean uzten baitu urrundua denean.

Egun horietan ezpada, ohian, aldiz, gostura irakur nezakeen. Baina aldi batez Zuan Jaunaren ikustaldi batek ekharriak ukan zituen haustek eta argitaldiak idazle enetako berri-berri baten, Bergotte-ren liburu baten irakurtzen ari nintzalarik, ondorio hau ukan zuen, etzela gehiago, luzaz, amesten nituen emaztetarik baten iduria lore ubel dilindakatuaz aphaindu harresi batean agerian emana izan, baina handik goiti zola osoki ezperdin batean, kathedrale gothiko baten athe-nagusi aitzinean.

Bergotte-ez mintzatzen entzuna nuen, lehen aldikotz, ni baino adinekoago eta harendako miresmen handi bat banuen lagun bat, Bloch. Hari *Urriko gaua*-rentzat nuen miresmenaren aithortzen entzutean, trompeta bezain irri ozen bat karkailatua zuen eta errana zautan : « Mesfida hadi Musset jaunttoarendako dukan maitazarre aski aphilaz. Gizontto gaizki egilenenatarik bat duk eta abre bat aski iluna. Aithortu behar diat, hala ere, hark eta Racine delakoak ere, egina diela bakoitzak bere bizian neurtitz bat aski ongi neurkatua, bere alde baitik, enetako mereximendu goiena, errannahirik batere ez ukaitea : « Oloozona ‘ta Kamyra xuriak » eta « Minoz eta

Pasifaeren alaba ». Bi gaixtagin horien abantailetan oharr-araziak dauztak ene erekasle jaun maitearen, Aita Leconte-en, Betiereko Jainkoer gozagarri denaren artikulu batek. Gauza beraz, huna oraian irakurtzeko astirik eztiatan liburu bat, eta omen, gizon handi-handi horrek gomendatua dikana. Egilea, Bergotte jauna, gizontto xotilenetarik batendako edukitzen dik, errana izan zatanaz ; eta, batzuetan, onezia aski guti argigarri batzu erakusten baditik ere, haren errana manamendu delfatarra duk enetako. Hitz laxo liriko horiek irakurzki bada, eta *Baghavat* eta *Magnus-en erbi-ihiztora* izkiriatu ditikan neurkada biltzale gaitzekoak egia erran badik, Apolonen izenean, jastatuko dituk, nagusi maitea, Olympos-ko bozkario eztigaiezkoak. » Irkaitzezko doinu batekin zautan galdatua « nagusi maitea » erran nezon eta berak ere hala eginen zautala. Baina egiaz atsegin zerbait hartzen ginuen joko hortan, izendatzen dena egiten dela uste den adin hartarik oraino hurbil ginelakotz.

Zorigaitzez, Bloch-ekin solastatuz eta hari argitasunak galdeginez enuen jabaldu ahal ukan hartara egotzia ninduen nahasmena, errana ukan zautanean neurtitz ederrak (enindagolarik ni haietarik egiazen ikas beha baino gutiago) hanbatenaz zirela ederrago nun ezpaitzuten ezer erran nahi. Bloch alabaina etzen berriz etxera gomitatua izan. Lehenbizian ontsa hartua izana zen. Aitatzik, egia da, bazion ene lagunetarik batekin bertzekin baino gehiago atxikimendutan sartzen nintzalarik, beti judu bat zela, zuzenez gaitzetsiko etzuen gauza – Zuan haren adixkidea ere ethorkiz judua zen – iduritu ezpalinbalako enuela ohiki hoberenen artean hautatzen. Hortako adixkide berri bat ekhartzen nuenean, ontsa bekan zen ezpazuen ahapeka kantatzen : « *Oi gure Aiten Jainkoa* » edo « *Izrael, hauts hire gatina* », airea baizik ez emanez alabaina (Tralala lala tralala), baina ene lagunak ezagun zezan eta berriz hitzak ezar zitza beldurrez nindagon.

Ikusi ere baino lehen, haien izenaren entzutean bakarrik, ainitzetan, jeus etzuelarik ere bereziki izraeldarrik, asmatzen zuen ez bakarrik egiazki hala ziren ene adixkiden ethorki judua, baina ere zer gaizkigarri zen batzuetan haien familian.

- Eta izena nola dik gaur heldu den hire adixkideak ?
- Dumont, aitatxi.
- Dumont ! Ho ! mesfida nuk.

Eta kantatzen zuen :

Arxerak, egin guardia !

Beila beti, egon ixil.

Eta guri galde zorrotzago batzu abilki egin ondoan, hasten zen : «Guardiari hel ! Guardiari hel ! » edo, jadanik ethorri pairatzalea bera baldin bazuen hunen jakin gabea bortxatua, galdekatze maltzur baten bidez, bere ethorkien aithortzera, orduan, dudarik batere gehiago etzuela guri erakusteko, bazagon guri beha ezin entzuteko moldez ahapeka kantatuz :

Izraeldar herabe hunen

Urratsak, hunara zuek bidatzen !

edo :

Aiten alhorrak, Hebron, ibar ezitia.

edo ere :

Bai, arraza hautetsitik niz.

Aitatxiren egitate ttipi horiek etzuten ene lagunen alderako sendimendu nahigaitzekorik batere entzun-arazten. Baina Bloch etzizeen etxekoer laket izana bertze arrazoin batzuen gatik. Aitaren nardatzetik hasia zen hunek, bustia zela ikusiz, bihotz onez errana baitzaukon :

- Baina, Bloch jauna, zer aro da bada ? euri egin dua ? Ezer eztut komprenitzen, aroneurkina hoberenean zen.

Ihardeste hau ukana zuen :

- Jauna, euri egin duenez eztautzuket batere erran. Hain deliberratu gertaldi fisikoetarik kampo bizi niz nun ene sentsuek ezpaitute hetaz khondu emaiteko nekerik hartzen.

- Baina, seme gaixoa, zozoa duk hire adixkidea, errana zautan aitak Bloch joana izan zenean. Nola ! zer aro den ere ezin erran ahal datak ! Baina ohargarriago denik jeus eztuk ! Ergel bat duk.

Gero Bloch etzizakon gustatua ere amatxiri, bazkal-ondoan, apur bat ez ontsan zela erraiten zuenean, hipa bat gordea zuelakotz eta nigar bat xukatua.

- Nola nahi duk egiatia izan dadin, erran zautan, ezagutzen enikanaz geroz ; edo eroa duk.

Eta azkenean jende guzia gaitzitua zuen, auhaltzera oren bat eta erdi

berandua ethorririk eta iztilez estalia, desenkusatzeko orde, errana baitzuen :

- Ehoiz eztut neure burua airearen nahasmenez bulkatua izaitera uzten ez eta aroaren haustura ohikoez. Gogotik berriz modan ezar nezazke lobelar pipa eta nabal malesiarra, baina tresna ainitzez gaizkorrago eta bertzela ere aphaltiki burjes horiek, sakel-orena eta euritakoa, eztitut ezagutzen.

Combray-ra berriz itzuliko zen hala ere. Etzen alta aitamek enetako nahiko zuten adixkidea ; gogoan hartua zuten azkenean amatxiren ez ontsak ixur-araziak zauzkon nigarrak etzirela alegiazkoak ; baina bazakiten asmuz edo jakitez gure sendikortasunaren oldek eragin guti dutela gure egintzetako jarraikidan eta biziaren eremaitean, eta moraleko eginbiden errespetuak, adixkiden alderako leialtasunak, ederlan baten emaitzak, osabide bati jarraitzeak, olde iragankor, suhar eta agorretan baino zimendu azkarragoa dutela ohidura itsuetan. Bloch baino nahiagoko zituzten enetako adixkider emaitzeko ohi dena baino gehiago eginen etzuten lagun batzu, morala burjeseko legen araura ; ustegabetarik udare zare bat igorriko etzautatenak egun hartan ni samurki gogoan ukana nindutelakotz, baina, bere asmamenaren eta sendikortasunaren mugimendu xoil batez eginbide 'ta adixkidantzako beharren phizu zuzenaren ene abantailera itzul-arazteko ez gai izanez, etzutenak ere ene kaltetan gehiago makurtuko. Gure ogenek ere nekez bazter-arazten dituzte zor daukutenetik ene izababixia haien eredia zen jende mota horiek, hark, urtez geroz samurtua ehoiz ere mintzatzen etzizakon iloba batekin, ez-paitzuen horren gatik hartan bere fortuna guzia uzten zaukon testamendua aldatu, zuen jendakia hurbilena zelakotz eta hori « beharrezkoa baitzen ».

Baina Bloch maite nuen, aitamek atsegin egin nahi zautaten, Minoz eta Pasifaeren alabaren edertasun jeus erran nahi etzuenaz egiten nituen galde ezin trenkatuek akhitzten ninduten eta eritzen harekin bertze solasaldi batzuek eginen ninduten baino gehiago, nahiz amak kaltegarritzat zaduzkan. Eta oraino Combray-n onhartua izanen zen, auhari horren ondotik, ikasi berria zautalarik – berantago ene bizian eragin handia ukan zuen berria, eta zoriondunago bilakatu zuena, baina gero zorigaitzekoago – emazte guziek etzutela amodioa baizik gogoan eta bat etzela ihardokitzea garhaitzen ahal etzizakonik, ezpalauta erran amatxik gaztaro nahasi bat ukana zuela eta publikoki dirutan arthaturik izana zela molde segurrenean erraiten entzuna zuela. Enintzan egon ahal izan elhe horiek aitamer errepikatu gabe, eta itzuli

zenean haizatua izan zen, eta gero karrikan berriz aurkitu nuenean, ezin gehiago hotza izan zen enekin.

Baina Bergotte-ez egia errana zuen.

Lehenbiziko egunetan, itsutuki gustatuko den musika aire bat bezala, baina ontsa hautemaiten eztena oraino, haren estiloan hainbertze maitatu behar nuena etzizatan agertu. Irakurtzen nuen haren elhaberria enezakeen utz, baina uste nuen gaiak natxikala bakarrik, maitasuneko lehenbiziko orduetan emazte baten berredireitera egun oroz hetan den gozagarriaz erakhar-garria uste den bilzarre zenbaitetara, libertimendu zenbaitera joaiten den bezala. Ohartu nintzan gero Bloch-ek haien erabiltzea ordu batzuek maite zuten itzuli arraro, abantzu zahartuer, harmoniazko uhain gorde batek, barneko aitzin-musika batek haren erran-moldea jauzten zuenean ; eta ordu hetan zen ere « biziko amets hutsalaz » mintzatzen hasten, « itxura ederren uhain ezin agortuaz », « entzuteko eta maitatzeko oinazkatze antzu bezain atsegingarriaz », « katedraletako aitzin errespetagarri xoragarria betiereko nobletzen zuten gizaiduri hunkigarriez », berria zizatan filosofia oso bat zuen erraiten iduri mirazko batzuen bidez, erranen baitzen hek zutela atzartua orduan sortzen zen harpa moldeko kantu hura, haren laguntzeari bazemotela ezin ederragoko zerbaite. Bergotte-ren liburu-etako zati horietarik batek, gaineratekotik berexia nuen herena edo laurdena, bozkario bat eman zautan lehenbizikoan aurkitua nuenarekin ezin erkidagarria, neure baitako gune barnatuago, berdinduago, zabalago batean, handik trabak eta berexkuntzak ekhendurik izanak iduri zuten batean hunkitzen ninduela senditu nuen bozkario bat. Orduan jadanik nihaur ohartu gabe atsegin emana zautaten erran-molde arraro-etako gustu haren beraren, musikazko ixuri haren beraren, filosofia idealixta haren beraren ezagutzean, etzizatan gehiago Bergotte-ren liburu-bateko zati berezi baten aitzinean nintzala iduritu, ene gogamenaren azalean marra hutsezko itxura bat egiten zuela, baina izaitekotz Bergotte-ren « zati beteginaren » aitzinean, liburu guzietakoaren, harekin batzera eta nahastera heldu ziren zati berdinean guziek halako loditasun bat, izari bat emana ukanen zautotenaren, ene izpirituak hetaz handitua iduri baitzuen.

Enintzan osoki Bergotte-ren miresle bakarra ; amaren adixkide andere biziki leteraduna zen baten idazle hautetsia zen ere ; eta haren azken liburuaren irakurtzeko Du Boulbon medikuak eriak igurikan atxikitzen

zituen; haren konsultako gabinetetik, eta Combray-tik hurbil zen baratze batetik ziren airatu Bergotte-ren alderako hautespene horren lehenbiziko hazietarik batzu, mota hain arraroa orduan, gaurregun alde guzietara hedatua, haren lore ideala eta orotakoa European nun nahi aurkitzen baita, Ameriketan, eta herrixka ttipienerano. Amaren adixkideak eta, omen, Du Boulbon medikuak gehienik maite zituztenak Bergotte-ren liburuetan, nik bezala, melodiazko uhain hura bera, erran-molde zahar hek ziren, bertze batzu laño-lañoak eta ezagunak, baina hek argira ezartzen zituen lekuak iduri zuen haiendako zuen gustu berezi bat agertzen zuela; azkenik, zati trixtetan, bazeen halako idor labur bat, doinu bat abantzu erlatsa. Eta badateke sendi zuela berak ere xoragarriena hortan zela. Ezen jarraiki ziren liburuetan, egia handi zenbait aurkitua baldin bazuen, edo aiphameneko kathedrale zenbaiten izena, bere ixtorioa hausten zuen eta dei egite batean, hel egite batean, othoitz luze batean, lehenbiziko liburuetan hitzaren barnean zauden olde horiek librokiko joaitera uzten zituen, bakarrik azaleko izurduetarik hautemana baitziren orduan, eztiago oraino behar bada, harmoniadunago horrela erdi-estaliak zirenean eta etzenean zorrozki erakutsi ahalko haien zurrumurrua nun sortzen zen, nun iraungitzen.

Haietan gustatzen zen zati horiek ziren ene hautetsiak. Nik, banazkien gogoz. Atsekabetua nintzan bere ixtorioaren haria berriz hartzen zue-nean. Ordurano haren edertasuna gorderik egona zizatan zerbaitez ari zen aldi bakoitz, leher oihanez, mahazuzaz, Parisko Andredona-Mariaz, *Athalie*-z edo *Phèdre*-z, erran-molde batez edertasun hori nitarano jauz-arazten zuen. Hortakotz, hark enegana hurbiltzen ezpazituen ene oharmen hebai-nak bereziko etzituen zenbat munduko zati bazen senditzean, haren aburu baten jabe izan nahiko nuen, hitz-ordain baten, gauza guzietz, oroz gainetik nihaurek haien ikusteko aldia ukanen nuenez, eta hauen artean, bereziki Frantziako eraikuntza zahar batzuez eta itsas-eskualde batzuez, bere liburuetan haien aiphatze errepikatuak erran-nahiz eta edertasunez aberats zaduzkala erakusten zuelakotz. Zorigaitzez abantzu gauza guzietan haren aburua enakien. Nihaurenatarik osoki ezperdina zela enuen dudatzen, hartara igan nahi nuen mundu ezezagun batetik jausten zenaz geroz : ene gogamenak izpiritu betegin hari zorokeria hutsa iduriko zizazkola segur bainintzan, hain osoki nituen guziak garbiki utziak, nun ustegabeen nihaurek jadanik ukana

nuen baten aurkitzea gertatu zizatanean, haren liburu zenbaitetan, bihotza hantzen baitzizatan jainko batek bere onezian itzulia izan balauta bezala, legezkoa eta ederra zela aithortua. Batzuetan gertatzen zen haren orrialde batek ainitzetan gauaz lo egin enezakeelarik amatxiri eta amari izkiriartzen nezteen gauza berak erraiten zituela, hala nola nun Bergotte-ren orrialde horrek iduri baitzuen ene eskutitzen gainaldean ezartzeko ziren aitzin-hitz bilduma bat. Berantago ere, liburu bat egiten hasten ari nuenean, hartan jarraikitzeo gaitasunez aski etzizaztan erranaldi batzuen berdina aurkitzen nituen Bergotte-ren baitan. Baina hetaz enezakeen orduan baizik goza, haren liburuan irakurtzen nituenean ; nihaurek nituelarik egiten, ene gogamenean banakusanaren zuzen-zuzena emaitiaz hartua, « iduriko ez egitez » beldurrean, banuen bada izkiriartzen nuena gozagarri zenez nihauri galdegiteko astial!

Baina egiazki etzen mota hortako erranaldirik, gogamenik baizik zinez maite nuenik. Ene indar khexu eta gaitzituak berak maitezko lekukotasun batzuek ziren, maitasun atsegin gabeko baina barnatu batenak. Hortakotz bapatez horrelako erranaldi batzuek liburuan berean edireiten nituenean, erran nahi da gehiago arrangurarik, lardetasunik, oinazkatzeo beharrik gabe, neure burua uzten nuen azkenean atseginekin haiendako nuen gostura joaiten, kozinari batek kozina egiterik eztuen aldi batez gormant izaiteko astia edireiten duen bezala. Egun batez, Bergotte-ren liburu batean, sehi zahar batez ari zenean, idazlearen mintzaera eder ospetsuak oraino trufariago egiten zuen irri-solas bat aurkiturik, baina amatxiri ainitzetan entzuna nuena Françoise-ri mintzo zenean, bertze aldi batez egiaren mirailak ziren haren liburuetarik batean gure adixkide Legrandin Jaunari egiteko aldia ukana nuen molde bereko ohar baten ezartzea etzuela gaizki aurkitzen ikusirik (Françoise eta Legrandin Jaunaz egin ohar horiek baitziren zinez Bergotte-ren gatik deliberatukienik utziko nitueneak baliogabekoak aurkituko zituela segur izanez), iduritu zizatan bapatez ene bizi xumea eta egiaren erresumak etzirela uste ukana nuen bezain bereziak, elgarrekin zoazela ere gauza batzuetan, eta idazlearen orrialden gainera nigarrez hasi nintzan aita berraurkitu baten besoetan bezala.

Haren liburuen araura Bergotte asmatzen nuen haurrak galduak zituene eta nehoiz konsolatua etzen agure ahul eta atsekabetu baten itxuran.

Haren hitz laxoa irakurtzen nuen beraz, nihauren baitan kantatzen, izkiri-riatua zen baino *dolce*-kiago, *lento*-kiago behar bada, eta erranaldi lañoena doinu mardo bilakatu batean mintzo zizatan. Orogen gainetik maite nuen haren filosofia, hari emana nindakon behin betikotz. Ikastetxean, « Filosofia » dioten urtean sartuko nintzan adinera heltzeko ezin egonean ezartzen ninduen. Baina enuen nahi han Bergotte-ren gogamenetik bakarrik bizitzeaz bertze jeus egin zadin, eta errana ukan balizata orduan hetara eratzikia izanen nintzan metafisikalariet etzutela haren egiterik batere ukanen, bizi guziko maitatu nahi duen eta geroago ukanen dituen bertze maiteak aiphatzen zazkon maitale baten etsipena sendituko nuen.

Igande batez, baratzean irakurtzean, aitamen ikustera heldu zen Zuanek desarriñatua izan nintzan.

- Zer irakurtzen duzu, ikus daiteke ? Ori, Bergotte-tik ? Nork aiphatu dauzkitzu bada haren liburuak ?

Bloch zela erran naukon.

- Ha ! bai, aldi batez hemen ikusi dutan mutiko hura, Bellini-k Mahomet II-garrenaz egin duen potretarekin hainbat egite baitu. Oi ! harrigarri da, bekain bihurtu berak ditu, sudur makurtu bera, matelhezur jalgi berak. Bixarño bat ukanen duenean jende bera izanen da. Gostua badu hasteko, ezen Bergotte izipiritu goxagarria da. » Eta Bergotte zenbat miresten nuen iduri nuela ikusiz, Zuanek, ehoiz etzelarik ezagutzen zituen jendez mintzo, egin zuen, oneziaz, berexkuntza bat eta erran zautan :

- Biziki ontsa ezagutzen dut, eta zure liburu buruan hitz bat zure-tako izkiria dezan atsegin bazinu, galdegin nezoke .

Onhartzera enintzan ausartu, baina Bezgotte-*ez* egin nauzkon Zuanek galde batzu. « Erranen ahal dautazua zein antzoki jokari duen hautesten ? »

- Jokari gizona, eztakit. Baina badakit edozein jokari gizon eztuela Berma-sari berdintzen hau ororen gainean ezartzen baitu. Entzuna duzua ?

- Ez jauna, aitamek enaute antzokira joaitera uzten.

- Zorigaitzeko da. Galdegin behar zinauen. Berma *Phèdre*-tan, *Le Cid*-etan, ezta nahi baduzu jokari bat baizik, baina badakizu, eztut edergintzetako « *hierarkian* » sineste handirik ! (eta ohartu nintzan, amatxiren ahizpekilako haren solasaldietan usu egina nindakon bezala, gauza seriosez

mintzo zelarrik, gai handi zenbaitez aburu bat entzun-arazten zuela iduri zuen hitzaldi bat zerabilanean, doinu berezi beti berdin eta irkaitzezko batez haren berexteko artha hartua zuela, gakotxen artean ezarria ukan balu bezala, bere gain hartzen etzuela iduri, eta erraiten : « *hierarkia*, badakizu, jende irrigarri batzuek hala baitiote ». Baina orduan, irrigarri bazen, zergatik zion « hierarkia » ?) Ephe baten buruan gaineratu zuen : « Horrek emanen dautzu edozein ederland nagusiek bezain ikuspen noblea, eztakit nik... - eta irriz hasi zen – « Chartres-ko Erreginek » bezain ! » Horrarano bere aburuaren seriocki emaiteko zuen hastioa arin eta paristar izan behar zuen zerbait iduritua zizatan, amaxiren ahizpen zintzotasun probinziarraren kontra zoana ; sinestera aihar nintzan ere Zuan bizi zen lagunkidegoko izpiritu moldetarik bat zela, han, aitzineko gizaldetako lirismoari ihardokitzez, gehiegi ospatzen zirela gertakari ttipi bereziak, lehenago arruntetako atxikiak, eta « erranaldi ederrak » baztertzen. Baina orai zerbait gaitzigarri aurkitzen nuen Zuanek gauzen aitzinean zuen egonara hortan. Bazidurien etzela aburu baten emaitera ausartzen eta etzela gostura izaiten xehetasun zuzen batzu arthoski emaiten ahal zituenean baizik. Baina etzen bada ohartzen xehetasun horien zuzentasunak balioa bazuelako aburuaren ukaitea eta emaita zela hori. Orduan berriz gogoratu zizatan amak ene gambarara igan behar etzuelakotz hain trixte nintzan auhari hura eta Léon-go printzesaren dantzaldiak jeus etzirela erran zuena. Mota hortako atseginetan zeraman alta bizia. Hori guzia kontra-erranezkoa iduritzen zizatan. Zein bertze bizi batendako begiratzen zuen bada gauzez zer gogatzen zuen seriocki azkenean erraita, gakotxen artean ezar etzezazkeen aburu emaita, eta ez artzea ikustate minbera batekin baizik aldi berean irrigarri direla aithortzen zuen egiteko batzuetan ? Zuan Bergotte-ez mintzatu zizatan aran aldiz bereziki harena etzen zerbaitez ohartu nintzan ere, baina aro hartan idazlearen miresle guziena zenaz, amaren adixkidearena, Du Boulbon medikuarena. Zuanek bezala, bazioten Bergotte-ez : « Izpiritu bat gustagarria da, hain berezia, badu gauzen erraiteko ara apur bat arraroa, baina hain goxagarria. Izenpetzearen ikuste beharrik ezta, hura dela berehala ezagutzen da. » Baina bat etzen joanen erraiterano : « Idazle handi bat da, antze handia badu. » Antzerik bazuela ere etzioten. Etzioten ezpaitzakiten. Biziki luze gira idazle berri baten itxura berezian gure

orotako gogamenen biltokian « antze handi » izena dakharren ereduaren ezagutzeko. Itxura hori berria delakotz hain zuzen, eztugu antzea deritzogunaren osoki idurikoa aurkitzen. Badiogu izaitekotz berezgo, goxagarritasun, berzatasun, indar ; eta ohartzen gira egun batez hain zuzen hori guzia dela antzea.

- Badirea hetan Berma aiphatua duen Bergotte-ren liburu batzu? galdegin naukon Zuani.

- Racine-ez egin duen liburuxkan uste dut, baina agortua dateke. Bermoldizkitze bat izan dateke alta. Berriz eskatuko dut. Bertzela ere nahi duzun guzia galdegin dezoket Bergotte-ri, urtean ezta etxean auhaltzen ezten asterik. Ene alabaren adixkide handia da. Elgarrekin badoaz hiri zahar, kathedrale, jauregi ikustera.

Gizarteko hierarkiaz ezagutzarik batere ezpainuen, aspaldidanik aiatak Zuan Andere 'ta Andereñoarekin gurutza ginadin aurkitua zuen ezinak, haien eta gure artean urruntasun handia bazela eni asma-araziz, ondoriotzat ukana zuen izaitekotz ospe handia emana zauela ene begietan. Urriki nuen amak ileak thinda etzitzan eta ezpainetan gorririk ezar etzezan Zuan Andereak egiten zuela entzuna nuen bezala Sazerat Andereari, gustatzeko, ez senarrari, baina Charlus-ko Jaunari, eta uste nuen harendako gauza gaitzeskarri bat izan behar ginuela, horrek griñatzen baininduen oroz gainetik Zuan Andereñoaren gatik hain nexkato pollita zela errana baitzautaten eta hartaz ainitzetan amets bainagiari aldi oroz hari ene nahitarako begitarte xoragarri bat emanez. Baina jakina ukan nuenean egun hartan Zuan Andereñoa izanara hain arraroko izaite bat zela, hainbertze abantailen erdian bere gai jatorrizkoan bezala igerikan, aitamer auhaltiar norbait bazenez eskatzen zauenean, silaba argiz bete horiekin ihardesten zizakola, etxekoen adixkide zahar bat baizik etzen urrezko gomit horren izenarekin : Bergotte, harentzat mahian solas mina, enetako amatxirekilako solasa zenaren hein berekoa, Bergotte-ren hitzak zirela, hark bere liburuetan hunki ahal etzituen gauza hetaz guziez, eta hetaz bere erran goienen emaiten entzun nahiko nuenez, eta azkenean, andereñoa hiri batzuen ikustera zoanean hura haren ondoan zabilala, ezezaguna eta lorios, hilkorren artera jausten ziren jainkoak bezala, orduan senditu nuen, Zuan Anderenóa bezalako izaite baten balioarekin batean, zenbat arrunta eta jakingabea idurituko nindakon, eta hain bizkorki nituen

haren adixkide izaitea enetako izanen zen eztitasuna eta ezina jasan nun be-
tea izan bainintzan aldi berean etsipenez eta gutiziaz. Orai hura gogoan nuen
gehienetan, kathedrale baten athe aitzinean ikusten nuen, eni gizaidurien
erran-nahi argitzen, eta, nitaz ongia zion irriño batekin, bere adixkideari,
Bergotte-ri ene aitzineratzen. Eta beti nitan kathedralek sortzen zituzten go-
goeta guzien xoragarritasunak, Franziako Irlako aldapen eta Normandiako
ibarrenak bere leinuruak iragan-arazten zituen Zuan Andereñoaz neure bai-
tan moldatzen nuen idurira : haren maitatzeko prest-presta izaitea zen. Ha-
ren maitasunak sarr-araz ginindezakeen bizi ezezagun batean izaite bat barne
dela sinets baldin badezagu, hori da, maitasunak sortzeko nahi duen gauza
orotan, hari gehienik atxikia dena, eta gaineratekoa jeus gutirendako harr-
arazten daukona. Gizon batez haren soinaratik baizik jujatzen eztuten ema-
ztek ere, soinara hortan badakusate bizi berezi baten hatsa. Hortako dituzte
maite soldadoak, su-hiltzaleak ; jantzi berdinak begitartearendako gutiago
behakor bilakatzen ditu ; uste dute burdin-soinaren azpian bertzelako bi-
hotz bat, menturatzale 'ta ezti bat besarkatzen dutela ; eta errege gazte batek,
printze ondoredun batek, ikusten dituen atzerrietan irabazte ohoragarrienen
egiteko, eztu diruketari baten orraze zuzen arautuaren beharrik.

Baratzean irakurtzen ari nintzan bitartean, amatxik egin nezan on-
hartuko etzuen a igandekari ezpazen, jeus seriosez hartua izaitea debekatua
den eguna eta hura josten artzen etzena (astelegun batez, erranen zautan «
nola irakurtzen *jostatzean* ari hiz oraino, eztuk alta igandea » jostatze hitzari
emanez haurkeria eta aro galtzearen erran-nahia), izaba Léonie Françoise-re-
kin solasean ari zen Eulalia-ren orduaren aiduru. Huni ikasten zaukon Gou-
pil Anderea iragaiten ikusi berria zuela « iguzkitakorik gabe, Châteaudun-
en egin-arazia zuen zetazko zaiarekin. Bezperen aitzinean urrun joan behar
badu, trempa-araz lezake bada. »

- Behar bada, behar bada (horrek erran nahi baitzuen «ez »), zion
Françoise-ek, behin betikotz aldi abantailgarri baten ez baztertzekotan.

- Ori, zion izabak bekokia joz, horrek gogoratzen dauta konsekra-
zione aitzineko heldua zenez eztutala jakin. Eulaliari galdegin behar dauko-
tala gogoan ukan beharko dut... Françoise, behazu hedoi beltz hari ezkila-
dorre gibelean eta iguzki gaixto horri arbeletan, segurki eguna eztela euririk

gabe iraganen. Etzaithekeen horrela egon, beroegi zen. Eta lehen bai lehen hobe, ezen ortziak zapart egina ukanen ez tueno, ene Vichy-ko ura ezta jautsiko, gaineratzen zuen izabak haren gogoan Vichy-ko uraren jauts-arazteko nahiak biziki urrundik garhaitzen baitzuen Goupil Anderearen ikustea bere zaiaren andeatzen.

- Behar bada, behar bada.

- Eta, plazan euria denean, atherbe handirik ezpaita. Nola, hirur orenak ? egiten zuen bapatez izabak xuritutuz, baina bezperak hasiak dira eta lixeritzekoaren hartzea ahazia dut ! Badakusat orai Vichy-ko ura zergatik zatan estomakaren gainean gelditzen.

Eta mezako liburu baten gainera jauziz, balusa ubelez estalia eta urrez aphaindua, hartarik, bere lehian, erortzera uzten zituela paper dentela horituzko xerrenda batez inguratuak diren iduri hetarik, bestetako orrialdeak markatzen baitituzte, izaba, bere xortak edaten zituen batean, hasten zen debozinezko idazkien lehen bai lehen irakurtzen, haien adimena doi bat nahasia baitzizakon hea lixeritzekoak, Vichy-ko uraren ondotik hoin berant harturik, oraino hatzeman zezakeenez eta jauts-araz dudan egoitez. « Hirurak, aroa nola doan ezin sinetsia da ! »

Berinan ukaldi ttipi bat, zerbaitek joa ukan balu bezala, gero erauste zabaldu bat leiho batetik erortzera utziak izanen ziren ondartz phorroxka batzuen bezain arina, eraustea hedatzen zela, arautzen, neurkadatzen, leuntzen, ozentzen, musika bilakatzen, ezin berexia, orotakoa : euria zen.

- Ha bada ! Françoise, zer erraiten nuen ? Ari duela ! Baina ustez entzun dut baratzeiko atheko xilintxa, zoaz bada horrelako aroan kampan nor izan daitekeen ikustera.

Françoise itzultzen zen :

- Amédée Andereak du (amatxik) itzuli baten egitera bazoala errana. Euria azkarki ari da alta.

- Horrek enau batere ustegabetzen, zion izabak begiak zerura goitituz. Beti errana dut ezduela izpiritua mundu guziak bezalakoa. Nahiago dut kampan ordu huntan hura izan dadin.

- Amédée Andereak, bertze guzietarik ezin urrunago doa beti zion Françoise-ek eztiki, bazatikala bertze sheiekin bakarrik izanen zen orduko amatxik apur bat « burutik bazuela » uste zuela erraitea.

- Horra benidizioea iragana ! Eulalia ezta orai jinen, zion hasperenez izabak ; aroak izitua duke.

- Baina eztira bortzak, andere Octave, laurak eta erdiak baizik.

- Laurak eta erdiak baizik ez ? eta erridau ttipiak goititu behar ukan ditut argi arrai txar baten ukaiteko. Laurak eta erdietan ! Errogazionetarik zortzi egun aitzinean ! Ha ! gaixo Françoise ! Jainko onak gutaz ontsa haserre izan behar du. Eta ere, gaurrengungo jendea sobera ari da ! Ene Octave gai-soak zion bezala, Jainko ona ahatzi dute 'ta mendekatzen da.

Gorri bizi batek phizten zituen izabaren matelak, Eulalia zen. Zorigaitzez, doi-doia zena sarr-arazia, Françoise jiten baitzen eta haren elhek izabari eginen zaukotela dudatzen etzuen bozkarioaren heinean ezartzeko helburua zuen irriño batekin, silabak berexiz, zeharkako erran-moldea erabilialia gatik, erakhartzen baitzituen, sehi on batek bezala, ikuslariak erran nahi ukanak zituen hitz berak :

- Jaun Erretora xoratua lizateke, loriatua, Andere Octave ezpada atsedenean eta ikus ahal baleza. Jaun Erretorak eztu desarriñatu nahi. Jaun Erretora beherean da, salara sar dadin errana daukot.

Egiatzki, erretoraren ikustaldiek etzaukoten izabari Françoise-ek uste zuen bezainbat atsegin emaiten eta aurpegian zabaldu behar zuela uste zuen irriñoa hura iragarri behar zuen aldi oroz, etzen osoki eriaeren sendimenduari ihardesten zuena. Erretorak (hauteko gizona urriki baitut harekin gehiago ez solastatua izanik, ezen edergintzetan jeus ezpazuen entzuten, etimologia ainitz bazakien), elizaz ikuslari aipatuener xehetasun emaitari ohitua (bazuen Combray-ko parropiaz liburu baten izkiriartzeko xedea), ethengabeko argibide 'ta bertzela ere beti berdinak zirenez akhitzen zuen. Baina horrela Eulaliarenarekin batean zuzen gertatzen zenean, haren ikustaldia garbiki gozagaitz bilakatzen zizakon izabari. Nahiagoko zuen Eulaliarenaz ontsa baliatu eta ez jende guzia aldi berean ukan. Etzen alta erretoraren ez onhartzera menturatzen baina Eulaliari harekin batean joan etzadin kheinu bat egiten zaukon, apur bat bakarrik atxikiko zuela hura joana izanen zenean.

- Jaun Erretora, zer erraiten zautaten, badela zure elizan bere xibaleta ezarria duen edergile bat berina baten kopiatzeko ? Baderraket neure adinera heldua nizala horrelako gauzarik ehoiz ere entzuna ukan gabe ! Gaurrengungo mundua zeren bila dabila bada ! Eta elizan den gauza itsusiena !

- Enindoake itsusiena dela erraiterano, baitira Combray-ko elizan ikusiak izaita merezi duten zatiak, bertze batzu ontsa zahartuak direnak ene bazilika gaizoan, berrantolatua izan ezten diosesa guziko bakarra ! Jainkoa, kalostrapea zikina da eta noizpaitekoa, baina bere hartan maiestateduna ; utz ditela ere Eztheren tapizeriak hetan nik hasteko bi sos eman ezpainezazke, baina ezagulez Sens-koen ondotik berehala ezarriak baitira. Aithor dut, bertzela ere, xehetasun apur bat arruntak badituztela, baina bertze batzuek baderakusatela oharpenezko gogo zinezko bat. Baina etzaitzala berinak aipha ! Argirik uzten eztuten eta nolakoak diren erran enezakeen leinuru batzuez ikuspena enganatzen duten ere leiho batzuen uzteak arrazoina badua, bi lauza hein berean eztiren eliza batean eta ordaindu nahi eztauztatenak Combray-ko abaden eta Guermantes-ko jaunen, lehenagoko Branbat-eko kondan hil-hobiak direlako estakuru ? Egungo Guermantes-ko Dukearen aitzineko zuzenak eta Dukesenak ere, bere gusia esposatua duen Guermantes-ko anderauren bat denaz geroz. » (Amatxik jendez ez axolatzearen bortxaz izenak nahasten baitzitu, Guermantes-ko Dukesarena erraiten zen aldi oroz bazion Villeparisis-ko Anderearen jendakia bat zatekeela. Guziak irriz karkailan hasten ziren, bere buruaren zaintzera entseatzen zen berri emaitzako eskutitz bat aiphatuz : « Baziduritan Guermantes-tik bazela hartan. » Eta aldi bakar huntan haren kontra bertzekin bat nintzan, ezin onhartuz lotura bat izan zaitekeela pensioneko haren adixkidearen eta Genofeba Branbat-ekoaren artean.) Ikusazue Roussainville, laborari parropia bat baizik ezta gaurregun, nahiz aro zaharrean leku horrek omen handi bat ukana duen feldrozko xapeletan eta erloietan. (Eniz batere segur Roussainville-ren etimologiaz. Gogotik sinets nezake lehenbiziko izena Rouville zela, *Radulfi villa*, hala nola Châteauroux *Castrum Radulfi*, baina hortaz bertze ordu batez mintzatuko nitzazue.) He bada ! elizak berina ezin ederragoak baditu, abantzu guziak aro berrikoak, eta *Combray-n Luis-Filiperen sartzea* ospedun hori Combray-n berean hobeki bailizateke, eta balio baitu, omen, Chartres-ko berinalde aiphatua. Atzo banakusan ere Percepied medikua, eza-gulea dena eta lan eder batendako dadukana. Baina, erraiten naukon bezala, bertzela biziki jendetasuneko iduri duen edergile horri, eta, diotenaz, zinez pinzeleko trebetasun handikoa : zer ohigabeko edireiten daukozu bada berina horri, bertzeak baino ere apur bat ilunagoa denari ? »

- Jaun Apezpikuari eskatzen baldin bazinako, erran zuen guriki izabak, akitua izanen zela gogoratzen ari baitzizakon, berina berri bat elezauzuke ezets.

- Zuk uste duzula, andere Octave, ihardesten zuen erretorak. Baina hain zuzen Jaun Apezpikuak du zilintzarekin ezarria zorigaitzeko berina hori Gilbert Gaiztoa, Guermantes-ko jauna dela borogatuz, Genofeba Brabantekoaren ondoko zuzena, hau Guermantes anderauren bat baitzen, San-Hilarioren ganik barkamenduaren ukaiten.

- San Hilario nun den eztut ordea ikusten ?

- Baina bai, berinaren zokoan, etzira ohartu zaia horian den andere bati ? He bada ! San Hilario da, baiteritzote ere herrialde batzuetan, bada-kizu, san Illiers, san Hélier, eta ere, Jura-aldean, san Ylie. *Sanctus Hilarius*-en aldaketa horiek guziak eztira ere dohatsuen izenetan gertatu diren bitxienak. Horrela zure patroin zaindua, ene Eulalia gaixoa, *sancta Eulalia*, badakizu Borgonian zer bilakatu den ? *San Eloi* xoil-xoilki : saildu gizon bat. Badakuzazua, Eulalia, zu hil eta zutaz gizon bat egin dezaketela ? » - « Jaun Erretorak irri solasa badu beti. » - « Gilbert-en anaiak, Charles Motelak, printze debota baina, zitz goizik galdurik, Pepin Eroa, bere buruko eritasunaren ondorioz hil ondoan, bothere goiena baitzuen larderiak huts egina daukon gaztaro bateko ausartasun guziarekin, hiri batean norbaiten aurpegia gustatzen etzizakon orduko, han azken bizitzalerano erahil-arazten zuen. Gilbert-ek, Charles-ez mendekatu nahian, Combray-ko eliza erre-arazi zuen, orduan lehenbiziko eliza, Theobert-ek, hemendik hurbil, Thiberzy-n (*Theodeberciacus*) zuen baserriko etxearen uztean, Burgonder gudu egiteko, san Hilarioren hil-hobiarren gainean eraikuntza egitea hitzemanen zuen, Dohatsuak garhaipena ukan-arazten baldin bazaukon. Ezta hartarik Theodorek jauts-araziak zituzteken elizazpia baizik gelditzen, Gilbert-ek gaineratekoa erre zuenaz geroz. Gero Charles zorigaitzekoa goitu zuen Gilen (erretorak « Guillôme » ahozkatzen zuen) Irabazlearen laguntzarekin, hortako Angeles ainitz ikustera jiten baita. Baina eztu iduri Combray-ko jenden atxikimendua bildu ukan ahal duela, ezen oldartu zizazkon meztatik jalgitzean eta burua moztu zaukoten. Bertzela ere Theodorek prestatzen du argibideak emaiten dituen liburu ttipi bat.

« Baina gure elizan oihargarriena dela ezin ukha daitekeena, ezki-ladorretik den ikuspegia, miragarriki handia baita. Segurki, zuri biziki az-

karrean etzirena, enezauzuke berrogei-ta-hamazazpi mailen igaiteko aholkua eman, Milan-go « duomo » aiphatuaren erdia da zuzen. Bada osagarrian den norbaiten akhitzekoa, are gehiago nun beheiti makurturik igaiten baita burua ezpada hautsi nahi eta jantziez mailaldekoko armiarma sare guziak biltzen baitira. Zer nahi den ontsa estalirik joan baher zinueke, gaineratzen zuen (izabari ezkiladorrera igaiteko on zelako ideiak emaiten zaukon suminduraz ohartu gabe), ezen bada halako haize-lasterra gain hartan ! Jende batzuek badiote herioaren hotza senditu dutela. Berdin da, igandetan beti batzorde batzu badira ikustera biziki urrundik ere ethortzen direnak ikuspegiak duen ederraren miresteko eta xoraturik itzultzen. Oizu, heldu den igandean, aroak baldin badatxika, segurki mundua aurki zinezake, Errogazioneak direlaketz. Aithortu behar da ere gain hartarik behako lilluragarri batez gozatzen dela, ibarrera halako ihesaldi itxuraz osoki berezi batzuekin. Eguna argi denean, Verneuil-erano garbiki ikusten da. Oroz gainetik ohiki bat bertzea gabe bai-zik ikus eztaitezkeen gauza batzu batean hartzen dira, hala nola Vivonne-aren ubidea eta Saint-Assise-lès-Combray-ko isakak, hauetarik zuhatz handi batzuen erridauaz berezia baita, ala ere Jouy-le-Vicomte-ko (*Gaudiacus vice comitis*, dakizun bezala) ur-bide guziak. Jouy-le-Vicomte-ra izan nizan aldi oroz, ur-bideko punta bat ikusi dut bada, gero karrika izkina itzulia ukan nuenean, bertze bat banakusan, baina ez gehiago orduan aitzinekoa. San-Hilarioko ezkiladorretik, bertzela da, sare oso bat da. Bakarrik ezta argiki urik ikusten, erran laiteke arraildura handi batzu direla hiria auzoka hain ontsa mozten dutenak, nun zatiek, nahiz jadanik hautsiak, elgarri datxikaten bixkotxa bat iduri baitute. Behar lizateke, ontsala, izan aldi berean San-Hilarioko ezkiladorrean eta Jouy-le-Vicomte-en.

Erretorak izaba hainbertze zuen akhitua nun hura joana baizik ez eta, Eulalia igorri behar ukana baitzuen.

- Oizu, gaixo Eulalia, zion mintzo ahul batekin, eskuaren menean zuen molsa ttipi batetik sos bat atheraz, horra zure othoitzak eztitzazun ahatz.

- Ha ! baina, andere Octave, eztaikit behar dutanez, badakizu bada enizala hortako jiten, zion Eulaliak aldi oroz, lehenbizikoa izan baliz bezalako duda eta eragozpen berarekin, eta izaba alaitzen zuen baina atsekabetzen etzuen itxura gaitzitu batekin, ezen egun batez Eulaliak, sosaren hartzean,

ohiki baino apur bat gutiago nahigabetua iduri baldin bazuen, izabak erraiten zuen :

- Eulaliak zer zuen eztakit ; ohiko gauza bera emana daukot alta, etzuen askietsia iduri.

- Uste dut bizkitartean eztuela zeren urrikal, zion hasperenekin François-ek, izabak berari eta bere haurrendako emaiten zaukon guziaren monera xehe bezala hartzera aiher baitzen, eta eskergabe batendako eroki xahutu thesor batzu bezala igande oroz Eulaliaren eskuan ezarriak ziren diruñoen, baina hain ixilki nun François ezpaitzen ehoiz ere ikustera heltzen. Etzen hori izabak Eulaliari emaiten zaukon dirua François-ek beretako nahiko zuelakotz. Aski gozatzen zen izabak zuenaz, jakinez etxekanderearen ontasunek aldi berean hunen zerbitzaria goititzen dutela eta ooren begietan edertzen, eta hura, François, Combray, Jouy-le-Vicomte eta bertze lekuetan aiphatua zela eta ospatua, izabak zituen laboretxe ainitzen gatik, erretoraren ikustaldi usu eta luzatuen gatik, edanak ziren Vichy-ko ur botoila andana bereziaren gatik. Etzen zikoitz izabarendako baizik ; haren fortunaren zaingoa ukan balu, hori izanen baitzen amesten zuena, bertze nor nahiren egintzatik ama baten bortiztasunarekin zainduko zuen. Etzizakon alta biziki gaizki idurituko izaba, ezin sendatuzko bihotz ona zuela baitzakien, emaiten ari izan baliz, aberats batzueri zen ber. Uste zukeen behar bada hauek, izabaren emaitzen beharretan ez izanez, etzezaketela horien gatik maite zutelako aierurik eman. Bertzela ere, fortunako mail handi bat zuten jende batzuer eskainirik, Sazerat Andereari, Zuan Jaunari, Legrandin Jaunari, Goupil Andereari, izabaren « lerro bereko » jende 'ta « elgarrekin ontsa zoazen » batzuer, iduritzen zizazkon barne zirela ihizin zabiltzan, elgarri jantzaldiak emaiten zituzten jende aberatsen eta irriño batekin miresten zituenen bizi bitxi eta distiratuan. Baina etzoan berdin izabaren bihotz onaren baliatzaleak François-ek « ni bezalako jendeak, ni baino gehiago eztiren jendeak » zeritzeetak baldin baziren, eta gehienik gaitzesten zituenak, erraiten ezpazaukoten bederen « Andere François » eta bere burua « hura baino gutiago » ezpaldin bazadukaten. Eta ikusi zuenean, harek aholkuak emanik ere, izabak etzuela buruan zuena baizik egiten eta dirua botatzen zuela – François-ek hala uste zuen bederen – merezimendu gabeko ezteus batzuer, izabak egiten zauzkon emaitzak ontsa ttipi zirela aurkitzen hasi zen, Eulaliari emaiten zauzkon diruketa

asmaturen ondoan. Ingurunetan etzen etxalde hain gotorrik Eulaliak errex eros zezakeela Françoise-ek uste etzuenik, ikustaldiek ekhartzen zaukoten guziarekin. Egia da Eulaliak Françoise-ren ontasun neurrigabeko eta gordez eztimatze berdina bazegiela. Ohiki, Eulalia joana zenean, Françoise hartaz onginahirik gabe ari zen profezian. Hastiatzen zuen, baina haren beldur zen eta bazadukan, hura hor zenean, « begitarte on » egin behar zaukola. Hura joan eta berriz baliatzen zen, hura izendatu gabe egia erran, baina mixterioz eta goraki mintzatuz, edo Eklesiastarenak bezala orotako molde bateko hitz batzu ahotik erortzera utziz, baina erran nahi zutena ezpaitzaitkeen izabari gordea izan. Erridauaren izkinatik Eulaliak athea hetsia zuenez behatu eta: « Jende lausengariak badakite bere buruaren ontsa harr-arazten eta xoxen biltzen ; baina gauden, Jainko onak egun eder batez osoan gatzigatzen ditu», zion, behakoa zeharka eta Joas-en aieruarekin gogoan Athalia bakarrik ukanez erraiten duenean :

Uhaitz bat bezala doa gaixtoen zoriona.

Baina erretora ethorria zenean ere eta haren ikustaldi ezin bururatuak izabaren indarrak ahituak zituenean, Françoise gambaratik Eulaliaren gibelean atheratzen zen eta bazion :

- Andere Octave, atsedean hartzera uzten zitut, biziki akhituaren itxura duzu.

Eta izabak etzuen erantzuten ere, azkena zela iduri zuen hasperen bat emanez, begiak hetsirik, hila bezala. Baina doi-doi Françoise jautsia zena laur ukaldi bortiztasun handienarekin emanek etxean joiten zutenean, eta izabak, ohean goititurik, oihu egiten zaukon :

- Eulalia jadanik joana dea ? Uste duzu ahatzi dutala Goupil Anderea mezara konsekracione aitzineko heldu zenez hari galdegitea ! Ondotik laster egikozu !

Baina Françoise itzultzen zen, Eulalia ezin hatzemanan ukanik.

- Atsekabegarri da, zion izabak burua higituz. Galdegin behar naukon gauza beharrezko bakarra !

Bizia horrela zoan izaba Léonie-rendako, beti berdina, alegiako erdainu baina xamurtasun barnatu batekin « betiko gora-behera ttipiak » zeritzonoko molde ber eztian. Guziez begiratu, ez bakarrik etxean, han bakoitza, osabide hobe baten aholkatzea debalde zela ikasirik, haren errespe-

tatzera emeki emeki jarria baitzen, baina herrian ere, paketegilea, haren khesak itzatu baino lehen, Françoise-ri galdegin-arazten baitzaukon hea izaba «etenez atsedenean », « gora-behera » horiek urte hartan uhertuak izan ziren alta. Nehor ohartu gabe ontzera heldua eta bere baitarik eroriko zen udare gorde bat bezala, gau batez gertatu zen sukalde neskatoaren haur ukaitea. Baina oinazeak ezin jasanak baitziren, eta Combray-n emaginik ez izanki, Françoise-ek argia baino lehen joan behar ukan zuen baten bila Thiberzy-ra. Izabak, sukalde neskatoaren oihuen gatik etzuen atsedetik hartu ahal ukan, eta Françoise-ek, bidea labur izanik ere berant baizik ez itzulirik, biziki huts egin zaukon. Hortako, goizean amak erran zautan : « Igan hadi bada izaba jeusen beharretan denez ikustera. » Sartu nintzan lehenbiziko barnean, eta izaba ikusi nuen, athe erdi-idekitik, sahetsaren gainean etzana, lo ; arinki gurrunkan entzun nuen. Ixil-ixila joaitera nindoan, baina egina nuen harabotsa haren loan sartua zatekeen eta « lasterrez aldatua » zukeen, beribilendako erraiten den bezala, ezen gurrunkaren musika gelditu zen zekunda batez eta doinu aphaltago batean berriz hasi, gero atzartu zen eta nik orduan ikusi ahal enuen begitartea erdi itzuli zuen; halako lazta bat itxuratzen zuen; amets izigarri bat egina zuela ageri zen ; jarria zen moldean enindezakeen ikus, eta hor egon nintzan aitzinatu ala joan behar nuenez jakin gabe ; baina iduri zuen jadanik bere baitaratua zela eta izitua zuten ikuspenak gezurrezkoak zirela ezagutua zuela ; bozkariozko irriño batek, bizia ametsak baino gutiago bortitza izan dadin onhartzen duen Jainkoari esker onezko batek aurpegia arinki argitu zaukon, eta bakarrik zela uste zuenean bere buruari erdi-ahapeka mintzatzeko hartua zuen ohidura harekin, murmurikatu zuen: « Jainkoa gorets dadila ! sukalde neskatoaren haur ukaiteaz bertze griñarik eztugu. Enuena bada ene Octave gaixoa berphiztua zela amets egiten, eta egun oroz ibilaldi bat egin-arazi nahi zautala ! » Eskua luzatu zuen mahi ttipian zen arrosariora, baina berriz hasten ari zen loak etzaukon utzi hartarano heltzeko indarra : berriz lokartu zen, goxatua, eta gambaratik jalgi nintzan gatua bezain ixil nehoiz hark ez nehork zer entzuna nuen jakina ukan gabe.

Badiotanean haur ukaite hori bezalako gertakari biziki bekanez kampo izabaren « gora-beherak » etzuela nehoiz aldakuntzarik batere ukaiten, eniz mintzo, arte berdinetan beti berdin errepikatuz, berdintasunean halako bigarren maileko berdintasun bat baizik sartzen etzutenez. Horrela

zen ebiakoitz oroz, arratsaldean Françoise Roussainville-le-Pin-go merkatura baitzoan, barazkaria guziendako oren bat lehenago izaiten. Eta izabak hain ontsa zuen bere ohiduretako hauste horren ohidura hartua, nun hortara bertze ohiduretara bezain atxikia baitzen. Hain zen « usaiatua », Françoise-ek zion bezala, nun barazkaltzeko igurikatu behar izan baliz, ebiakoiz batez, ohiko ordua, horrek « desarriñatuko » baitzuen bertze egun batez barazkariaren ordua aitzinatu behar ukana balu bezainbat. Barazkariaren aitzinatze horrek bazemon bertzela ere ebiakoitzari, gu guziendako, itxura berezi bat, urrikaltsua, eta aski gozoa. Ohiki aphaairuko phausua baino lehen bizitzeko oren bat oraino baden orduan, jakina zen, zekunda zenbaiten buruan, ethortzen ikusiko zirela, oster-zuri goiztiarrak, fagorezko arraultze moleta, merezitu gabeko bizteka. Araugabeko ebiakoitz horren aldi berritua barneko, lekuko, abantzu herriko gertakari ttipi hetarik bat zen, bizi geldi eta gizarte hetsietan, halako lokarri herritar bat sortzen baitute eta solasaldietako, irri egiteko, nahitara gotortzen diren ixtorioetako gai hautetsia bilakatzen baitira: leiendalde bateko hexur prest-presta izanen zen, gutarik batek buru epikoa ukan balu.

Goizeko, jantzi baino lehen, arrazoinik gabe, elgartasunaren indararen senditzeko atseginez, batzuek bertzer erraiten zuten omore onez, bihotz onez, herrikoitasunez : « Eztugu astirik galtzeko, ez ahatz ebiakoitza dela ! », izabak, Françoise-rekin solas-aldian eta eguna apur bat luze izanen zela gogoan, zion batean : « Aratxeki eder bat egiten bazinezaue, ebiakoitza baita. » Seiak eta erditan norbaitek ohargabeen sakelorena atheratzen bazuen erranez : « Hea, oren erdi bat oraino barazkal-aitzin », bakoitza loriatua zen hari erraiteaz : « Baina ez, zer duzu gogoan, ebiakoitza dela ahazten duzu!»; oren laurden bat berantago hartaz irri egiten zen oraino eta hitzemaiten iganen zela izabari ahazte horren erraitera haren jostatzeko. Zeruaren itxurak berak aldatua iduri zuen. Barazkal-ondoan, iguzkia, ebiakoitza zela harturik, zeru gainean bazabilan gostura oren bat gehiago, eta norbaitek, ibilaldiko beranta zela gogoan, baldin bazion : « Nola, bi orenak baizik ez ? » San-Hilarioko dorrean bi ukaldiak jaiten ikusiz (ohian ehor ezpaitute aurkitzen oraino bide jendez gabetuetan eguerdiko aphaairuaren edo etzanaldiaren gatik, arraintzariak berak utzia duen ibai bizi argiaren luzaran, eta bakarrik baitoaz hedoi auher batzu baizik han gelditzen ezten zeru hustuan), guziek

betan ihardesten zaukoten : « Baina enganatzen zituena, oren bat lehenago barazkaldu dela da, ebiakoitza dela ontsa badakizu ! » Jende basa baten (hori ginion ebiakoitzak zer berezi duen ezta kiten jende guziez) ustegabea, aitari mintzatzeko hameka orenetan jinik, mahian aurkituak baikinituen, zen, bere bizian, Françoise gehienik alegeratua zuena. Baina jostagarri baldin bazizakon ikuslari baldituak jakin etzezan ebiakoitzetan goizago barazkaltzen ginela, irrigarriago zizakon oraino (bihotzez atxikia izanik aldi berean alderdikaritasun hertsia horri) aitak, hark, gogoari emana etzezan basa horrek jakin etzezakeela, eta gure ikustean jadanik jateko salan ukana zuen ustegabeari ihardetsia zaukola bertze xehetasunik gabe : « Baina hea, ebiakoitza da ! » Bere ixtorioaren une hortara heldurik, irrizko nigarren xukatzen ari zen, eta sendi zuen atseginaren handitzeko, elgarrizketa luzatzen zuen, « ebiakoitz » horrek jeus erraiten etzaukon ikuslariak ihardetsia zuena asmatzen. Eta haren emendioez deitoratzetik ontsa urrun, etzizazkun oraino aski iduritzen eta baginon : « Baina bertze zerbait ere errana zuela iduritzen zata. Luzeago zen khondatua duzun lehenbiziko aldian. » Izababitiak berak bere orratz lana uzten zuen, burua goititzen zuen eta behatzen begitako bakunaren gainetik.

Ebiakoitzak bazuen ere berezitasun hau, egun hartan, ostaroan aharritik landa jalgitzen ginela « Mariaren ilabetera » joaiteko.

Han Vinteuil Jauna edireiten baiginuen, biziki lardea « gazte axolagabetuen ara deitoragarriendako, oraiko ideietan », amak behatzen zuen ene jantzi moldean beharbezala etzenik jeus izan etzadin, eta elizara abiatzen ginen. Orhoit niz Mariaren ilabetea nintzala elhorrixurien maitatzen hasi. Etzirelarik bakarrik elizan, hain sainduan baina han sartzeko dretxoa baginuenean, aldarean berean ezarriak, hetan barne ziren mixterioetarik ezin bereziak, gandelarren eta untzi sakratuen erdian hedatzen zituzten errara bere aldaxka elgarri lotuak besta bateko aphainduran, edertzen baitzituzten ere orstailaren ozkarrek hauetan nasaiki ereineak zirelarik, espos-andere baten zaia hegala bezala, botoin floka xuri-xuri batzu. Baina, ebaska baizik haier behatzera ausartu gabe, aphaindura ospatsu horiek bizi zirela sendi nuen eta naturak berak zuela, orstoetan ozka horiek zilatu, botoin xuri horien aphain goiena gaineratuz, edergailu hori jendearen bozkario eta aldi berean ospe miztiko bilakatua. Gorago idekitzen ziren han hemenka haien lorekoronak garazia utzi batean, hain axolagabeki atxikiz, azken jantzi arin bat

bezala, zukunen mulkoa, Birjinaren hariak bezain mehe, oso-soan lanhoztatzen zituztenak, nun neure baitan haien loreztatzeari jarraikiz eta hark bezala egin nahiz, asmatzen bainuen izana baliz bezala nexkato gazte ohargabetu eta erne baten buru higitze xoro lehiatua, behakoa kriket, ñiñiak ttipi. Vinteuil Jauna bere alabarekin ethorria zen gure ondoan jartzera.

Familia onekoa, amatxiren ahizpen pianoko erakaslea izana zen eta, ezkontidea hil eta ondoriotasun bat ukanik, Combray-tik hurbil baztertua zen, etxean ainitzetan ukaiten zen. Baina haragiko gauzetan ahalgetiegia izanez, etxera jitetik gelditu zen « ezkontza ez behar bezalakoa, egungo modakoa » egina zuen Zuanekin ez aurkitzeko. Amak, musika egiten ari zela ikasirik, jendetasunez errana zaukon, haren ikustera joanen zenean, berak egin zerbait entzun-araz zezon. Vinteuil Jauna hortaz handizki bozkariatuko zen, baina ikustatea eta onezia halako arranguretarano bazeramatzan nun, beti bertzen lekuan jarritz, asper zitza beldur baitzen eta berekoia iduri ukan zezan bere gutziari jarrikitzen baldin bazen edo hau asmatzera bakarrik uzten bazuen. Aitamak ikustaldiz etxera joanak zitzezkon batez, lagunduak nituen, baina kampoan egon nindadin onhartua zuten eta, Vinteuil Jaunaren etxea, Montjouvain, hartan gordea nintzan munhoxka gaphartsu baten azpi aldean baitzen, bigarren estaiako saloinaren hein berean aurkitua nintzan, leihotik berrogei-ta-hamar zentimetretan. Aitamen ikustaldiaren iragartzera jina izan zizakonean, Vinteuil Jauna ikusia nuen lehiatzen pianoaren gainean musika zati baten ezartzeko. Baina, aitamak sartu eta, ekhendua zuen eta zoko batean ezarria. Etzela haien ikustez zorionean bere musikatik haier joiteko baizik uste ukan zezaten beldur izana zatekeen. Eta amak berriz eskatu nahi ukana zaukon aldi oroz, errepikatua zuen aldi bat baino gehiago: « Baina hori pianoaren gainean nork ezarria duen eztaikit, eztu bere lekua », eta solasaldia bertze gai batzuetara itzulia zuen, hain zuzen horiek gutiagogo gogokoak baitzituen. Bere amodio bakarra alabarendako zuen, eta hau, mutiko baten itxurakoa, hain azkarra zen iduriz nun ezpaitzatekeen irriño bat egin gabe egon aita harendako zituen arthak ikusiz, xala batzu gehiago baitzituen beti haren soin gainetara emaiteko. Amatxik oharr-arazten zuen zein errankortasun ezitia, beratza, abantzu herabea usu iragaiten zen begitarte zahiz titakatuarekilako haur hain latzaren behakoetan. Elhe bat erran berria zuenean, errana zauen haien gogoarekin entzuten zuen, behar bada ez ontsa

aditua izaiteaz arranguran, eta ikusten zen, jende onaren begitarte gizatarren azpian, barnetik bezala argitzen, marrazkitzen, nexkato gazte bihotzminez hartu baten aurpegi pollitagoa.

Elizatik abiatzean, aldare aitzinean belhaunikatu nintzanean, senditu nuen bapatez, zutitzean, elhorrixurietarik amanda usain kharats ezti bat jalgitzen, eta ohartu nintzan orduan loren gainean bazirela gune ttipi horailago batzu uste ukan bainuen usain hura haien azpian gordea zatekeela, hala nola, zati xigortuen azpian, amanda kremaren gostua, edo, bere uderren azpian, Vinteuil Andereñoaren matelena. Elhorrixurien geldi ixilean, usain artekatu hori haien bizi indardunaren murmurika bezala zen, aldarea daldaratzten baitzuen landetako hesi bat bezala hartan addar bizidun batzu bada-biltzanean, hauk gogoratzen baitziren zukun abantzu gorrien ikustean, orai loretara aldatu mamutxa batzuen primaderako su hura, indar sumingarria atxikia zutela iduri.

Kalostrape aitzinean Vinteuil Jaunarekin solastatzen ginen ephe batez elizatik jalgitzean. Han berean kalapitan ari ziren haurren artera sartzen zen, ttipiak zainduz, handienak erasiatuz. Haren alabak erraiten baldin bazaukun bere mintzo lodiarekin zenbat askietsia izana zen gure ikusteaz, baziduriaren berehala haren baitan ahizpa sendikorrago bat gorritzen zela, gure etxera gomitatua izaitea eskatzen zuela sinets-arazi ahal ukana zaukun mutiko on xoriburu baten solas hortaz. Aitak soineko bat bizkarrera emaiten zaukon, nexkatoak berak bidatzen zuen karrosamotx ideki batera igaiten ziren eta bi-biak Montjouvain-era itzultzen. Guri aldiz, biharamunean igandea baitzen eta nehor ezpaitzen meza nagusia baino lehen jeikiko, ilargi baldin bazen eta airea bero, zuzen sarr-arazi baino lehen, aitak, loriaren amodioz, galbariotik ibilaldi luze bat egin-arazten zaukun, amari, zuzen bidatzeko eta bidearen ezagutzeko zuen dohain gutiak gerla eremaiteko jeinuaren goi egintza batendako harr-arazten baitzaukon. Batzuetan baginoazen burdinbide zubirano, haren harrizko arkuak garan hasten baitziren eta mundu jendetu ezagunetik urrun joana izaiteko herstura itxuratzen baitzauten, urte oroz Paristik ethortzean, Combray izanen zenean ontsa beha ginezan gomendatzen zaukutelakotz, geltokia ez huts egin, aitzinetik prest izan, treina bi minuten buruko berriz abiatzen baitzen eta burdinbide zubian sartzen Combray enetako haien azken muga zen herrialde girixtinoen haraindira.

Garako ethorbideetik sartzen ginen, han baitziren herriko « villa » gozagarrienak. Baratze bakoitzean ilargixuriak, Hubert Robert margolariak bezala, harbizi xurizko mail hautsiak banakatzen zituen, ur xirrixtak, burdin-sare erdi-idekiak. Haren argiak Telegrafako bulegoa suntsitua zuen. Etzen gehiagorantz zutabe erdi hautsi bat baizik gelditzen, baina hondamen betiereko baten edertasuna bazadukana. Zangoa herrestan nindoan, logalez eroria, airean ezkien usain ona iduritzen zizatan akhidura handienen gostuz baizik ukan eztaitekeen eta hori balio ez tuen saristatze bat. Batzu bertzetarik biziki urrun ziren burdin saretarik, gure urrats bakartuek atzarri zakur batzu ari ziren aldizkatuz oraino arratsetan entzutea gertatzen zautan bezalako erausia batzuetan, eta haien artean gerizatzen ethorri behar ukan zuen (leku hartan Combray-ko baratze publikoa egin zenean) garako ethorbideak, ezen, nun ere gerta nadin, hotsegiten hasten direneko eta elgarri ihardesten, ikusten dut, bere ezki eta oinbide ilargi xuriaz argituekin.

Bapatez aitak geldi-arazten gintuen eta amari galdegiten zaukon : « Nun gira ? » Ibiliak unhatua baina hartaz urgoi, samurki aithortzen zaukon batere etzakiela. Hark soingainak goititzen zituen eta irri egiten. Orduan, soineko motxaren sakelatik bere giltzarekin atheratua ukan balu bezala, aitzinean erakusten zaukun gure baratze gibelesko athe ttipia, Sant-Izpirituko karrikaren izkinarekin batean bide ezezagun batzuetarik gure igurikatzen ethorria zena. Amak bazion miresmenekin : « Harrigarria zira ! » Eta ordutik haste, urrats bakar bat egiteko enuen, lurra bazabilan enetako ene egintzak hain aspaldidanik nahizko oharpenaz lagunduak izaitetik geldituak ziren baratze hartan : Ohidurak bere besoetan hartua ninduen berriz eta oherano baninderaman haur ttipi bat bezala.

Ebiakoitzeko eguna, oren bat lehenago hasten zena eta Françoise gabe, bertze bat baino emekiago joaiten baldin bazen izabarendako, ezin egonean igurikatzen zuen bizkitartean astea hasia zenetik, haren soin ahuldu eta aldikoiak oraino jasan ahal zezazkeen berritasun guzia eta libertimendua bazaduzkalakotz. Eta etzen alta aldatze handiagorantz zenbaitetarako gutzian etzelakotz batzuetan, ez eta den hartarik bertze zerbaitez egarri den oren berezi hetarik ez ukanez, gemen eta asmamen eskasa dutener berritzeko gogo bat bere baitarik jalgi-araztea debekatzen daueten hetarik, berri den zerbaitez ekhar dezan eskatzen baitaukote heldu den minutari, athean joiten duen

piatunari, gaitzenetik baliz berdin, sendimen bat, oinaze bat ; hetan sendimenduak, harpa auher utzi bat bezala zorionak ixil-arazia duenak, nahi baitu esku batek, abreki baliz ere, jo-arazia ukan dezan, hautsia izan behar balu berdin ; hetan borondateak, hain neke irabazia baitu trabarik gabe bere gutzietara, bihotzminetara emana izaiteko zuzenbidea, nahi bailituzke uhalak gertakari manatzale batzuetara egotzi, izanik ere bortitzak. Izabaren indarrak, akhidura gutienez agortuak, ezpaitzizazkon xortaka xortaka baizik itzultzen, untzia betetzeko luzegia zela izan daiteke, eta ilabete osoak bazoazkon bertze batzuek egintzara ixurtzen duten bete arinki gaindikatu hura ukan gabean, nola baliatu behar zuen ezin jakin zezakeelarik eta delibera. Eztut dudatzen orduan – « akhitzten » etzuen lur-sagar ahiaren egunorotako berritultzeak bazemon atseginetik beretik dembora baten buruan lur-sagar bexamelarekilakoen ukaiteko gutzia sortzen zizakon bezala – hain atxikia zizaien egun beti berdin horien metatzetik hartzen zuela etxeko hondamen baten igurikan egoitea, baina ephe batean mugatuaren, eta osasuneko izanik ere hetara delibera etzaithekeen aldatze horietarik baten egitera behin betikotz bortxatuko zuenaren.

Zinez maite gininduen, gutaz orotaz nigar egitea atsegin izanen zizakon ; ontsa sendi eta izerdirik gabe zen ordu batez gertatu baliz, guziak jadanik suntsituak ginen eta harresietarik harri bakar bat laster zutik utziko etzuen, baina berak, berehala jeikia izaitekotan, ihes egiteko asti guziaz ukana ahal zuen sute batek etxea hartua ukanen zuen berria, haren itxaropenetan ainitzetan ibilia dateke, batzen zituelakotz guretako zuen maitasun guziaren, urrikitze luze batean, jakituz jasta-arazteko abantail ondokoak, eta herriaren harritzea, gure ahokuaren buruan izanez, bihoztun eta lastiman, hilurran baina zutik, eta, ontsa baliosagoa, ordu onean, astirik galdu gabe, han ur xirripa bat bazen Mirougrain-go bere laboretxe pollitean udaren iragaitera joaitera bere buruaren bortxa-araztekoa. Molde hortako gertakaririk batere nehoiz ezpaitzen izana (eta hastapenetik beretik etsipenez ezarriko zuena, ustegabeko gauza ttipi lehenetik, berri txar bat iragartzen duen eta haren doina ezin ahatz daitekeen elhe hartarik, egiazko herioaren hatza badakarren guzitik, arrazoin eta gogo hutsezko haren gerta ahaletik ontsa ezperdina), horren ongi heltzea segurki gogoan zuelarik pazienziatzko joko ezin zenbatuetan sartua zagonean, artetan biziari atsegin gehiagoren emaitako, hartan

suharki jarraitzen zizaien asmamenezko gertakari batzuen sartzearekin gelditzen zen. Françoise-ek ebasten zuela bapatez uste ukaitea laket zizakon, hortaz segur izaiteko amarruaz baliatzen zela, ohointzan hatzemaiten zuela ; ohitua izanez, karta jokoetan ari zenean bakarrik, aldi berean bere jokoaren eta kontrarioarenaren jokatzeko, bere buruari erraiten zauzkon Françoise-ren desenkusa jenatuak eta hainbertze gar eta sumindurarekin ihardesten zuen nun gutarik batek, ordu hartan sartzean, izerdi lapetan aurkitzen baitzuen, begiak sutan, ile falsu baztertuek uzten zaukotela bekoki garsoildua agerian. Badateke Françoise-ek ondoko gambaratik entzun zituela behar bada batzuetan harendako ziren elhe trufari zorrotzak, haien asmatzeak ezpaitzuen izaba osoki arinduko, gogo hutsekoak gelditu balire eta erdi ahapeka murmurikatuz izaitze gehiago eman ezpalaue. Zenbait aldiz, « oheko ikusgarri » hori etzizakon ere aski izabari, nahi zituen antzertiak jokatu. Orduan, igande batez, athe guziak mixteriozki hetsirik, Eulaliari aithortzen zauzkon Françoise-ren zuzentasunaz zituen dudak, haren uzteko zuen xedea, eta bertze aldi batez, Françoise-ri, Eulaliaren leialtasun gabeaz zituen aieruak, athea laster hetsia izanen baitzizakon ; zenbait egun berantago, bezperan errana zuenaz nardatua zen eta traidoreakin berriz baketua, horiek, bertzela ere, ondoko agerraldiko, bere ofizioak aldizkatuko baitzituzten. Baina Eulaliak artetan eman-arazten zauzkokeen aieruak etziren lastozko su bat baizik eta, sugai eskasez, berriz erortzen ziren, Eulalia ezpaitzen etxean bizi. Etzen gauza bera Françoise-ri zoazkonez, beti eta beti hegatzegi beraren azpian sendi baitzuen, hala ere, ohetik jalgitzen baliz hotza bil beldurrez, arrazoinik bazutenez jakiteko sukaldera jaustera menturatu gabe. Emeki emeki haren gogoak etzuen Françoise ordu oro zer ari zatekeen eta zer gorde nahi zaukon asmatzearen bilatzeaz bertze egitekorik ukan. Hunen begitarteko mugimendu arinenari ohartzeko zen, hitzetan kontra-erran bati, gorde nahi zuela iduri zuen gutizia bati. Eta zilatua zuela erakusten zaukon, Françoise zuri-arazten zuen hitz bakar batekin eta izabari, emazte zorigaitzekoaren bihotzean sartzeaz, libertimendu basa bat iduritzen zizakonarekin. Eta ondoko igandean, Eulaliaren salatze batek – hala nola sortzen ari den jakitate bazterrera utzi bati uste etzen eremu bat bapatez idekitzen daueten aurkiberriek – izabari borogatzeko zaukon, bere aieruetan, egia baino biziki beherago zela. « Baina Françoise-ek badakike karrosa bat orai emana daukozunaz geroz » - « Karrosa bat em-

ana daukotala ! » egiten zuen izabak. – « Ha ! eztaikit bada, nik, uste nuen, kalexan iragaiten ikusia nuen orai, Artaban bezain fierrik, Roussainville-ko merkatura joaiteko. Uste ukana nuen Andere Octave-ek emana zaukola. » Apurka apurka Françoise eta izaba, ihizia eta ihiztaria bezala, bata bertzearen amarruen aitzinetik ikustera entseatzetik etziren gelditzen. Ama beldurrean zen Françoise-ren baitan izabaren alderako egiazko herra bat handi etzadin ahal zuen bezain idorki laidoztatzen baitzuen. Hasteko Françoise-ek izabaren den gutieneko hitzer, den gutieneko jestuer ohi ez bezalako oharpen bat emaiten zauen. Zerbait eskatu behar zaukonean, luzaz zalantzan zagon egin behar zuen moldeaz. Eta bere galdea errana zuenean, ebaska izabari so egiten zuen, zer zuen gogoan eta zer deliberatuko asmatzera entseatzu haren begitarteko itxuratik. Eta horrela – edergile batek, XVII-garren mendeko Orhoitzapen batzuen irakurtzean eta Errege handiaren gana hurbildu nahiz, bide hortan dela uste duenean ixtorioko familia zenbaitetik jausten delako genealogia bat berak eginez edo eskutitzak erabiliz Europan orai diren printze batzuekin, molde berdinetan eta ondorioz hilak direnetan hutsean bilatzen duen gauzari hain zuzen gibel egiten duelarik – probinziako andere zahar batek, ohidura ezin atxiki batzuer eta auher egoitetik sortu gaiztakeria bati zintzoki obeditzea baizik etzegienak, eguneko bere egiteko ezteusenak, jeikitzea, barazkaria, atsedena, Luis XIV-garrena behin ere gogoan ukana gabe, ikusten zituen berezitasun despotiko horren bidez San-Simunek Versailles-en zen biziko « mekanika » zion hartako baliotik apur baten hartzen ; uste ukan zezakeen ere bere ixilak, begitaratean omore onezko edo goratasunezko leinuru bat, izanen zirela Françoise-ren ganik argipen baten gai hain suharra, hain beldurtia, nola baitziren Erregeren ixila, omore ona, goratasuna gortelari batek, edo berdin jaun handienek, eske bat emana zaukotenean, bidexka bateko bihurtunean, Versailles-en.

Izabak aldi berean erretoraren eta Eulaliaren ikustaldia ukanik, gero atsedean hartua zuen igande batez, guziak gauon erraitera iganak ginazkon, eta ama doluminetan ari zizakon beti ikusleak oren berean ekhartzen zituen zorigaitzaz :

- Badakit gauzak oraino gaizki moldatu direla arestian, Léonie, erran zaukon ezтики, zure jende guzia batean ukan duzu.

Amatxik hautsi zuena, erranez : « Ontasuna nasaiki... » ezen bere alaba eri zuenez geroz bizkortu behar zuela uste zuen, hari gauzak beti alderdi onetik aitzineratuz. Baina hitza orduan aitak :

- Baliatu nahi dut, erran zuen, familia guzia bildua izanaz zuer ixotorio baten erraiteko bakoitzari berriz hasi behar ukan gabe. Beldur niz ez ote giren Legrandin-ekin samurtuak : goizaen doi-doia erran dauta egunon.

Enintzan aitaren ixtorioaren entzuten egon, ezen harekin nintzan hain zuzen mezatik landa Legrandin Jauna batua ginuenean, eta sukaldera jautsi nintzan auhariko izanen zenaren jakitera egun oroz libertitzen bainin-duen egunkari batean irakurtzen diren berriek bezala, eta besta bateko gaiek bezala sustatzen. Elizatik jalgitzean Legrandin Jauna gure ondotik iragana baitzen, ikustez baizik ezagutzen ezkinuen auzoko jauretze bateko andere baten sahetsean zoala, aitak adixkidantzazko agur begiratu bat egina zuen, gu gelditu gabe ; Legrandin Jaunak doi-doia ihardetsia zuen, itxura ustegabetu batekin, ezagutu ezpaginindu bezala, eta maitagarri izan nahi eztuten jenden so berezi haren ikuspegiarekin, iduri baitute, begietako barnatasun bapatez luzatuaren zolatik, zu ezin bururatuzko bide baten buruan bezala ikusten zituztela eta hain urrun nun buru keinu nîmîño baten igortzea aski baitzaie zure panpina neurrietara haren arautzeko.

Bada, Legrandin-en lagun zen anderea jende bertuteko eta estimatu bat zen ; fortuna onez zela eta ustegabetarik hatzemaña izaiteaz eragozpe-nean ezin zatekeen, eta aita bazagon Legrandin nola samurtua ahal zukeen. « Are gehiago urriki nuke samurtua dela jakitea, erran zuen aitak, nun igandekariz jantziak diren jende horien guzien erdian, bere soineko ttipi labur zuzenarekin, lephoko merxilarekin, zerbait baitu hain guti aphaindua, hain zinez lañoa, eta osoki maitagarria den itxura abantzu xintxo bat. » Bertzela ere aitaren beldurra biharamun arratsean berean ezeztatua izan zen. Ibilaldi handi batetik itzultzen ari ginelarik, ikusi ginuen Zubi-Zaharrean Legrandin, besten gatik Combray-n egoiten baitzen zenbait egunez. Jin zizakun eskua luzaturik : « Ezagutzen dituzua, jaun irakurlea, zautan galdegina, Paul Desjardins-en neurtitz hauk :

Beltz jadanik oihanak, urdin oraino zerua,

Eztea oren hunen erakuste xorrotxa ? Nechoiz eztuzu behar bada

Paul Desjardins irakurri. Irakurrazu, haurra ; orai aldatzen ari da, diotatenaz, fraile pheredikularira, baina luzaz ur-margolari argia izan zen :

Beltz jadanik oihanak, urdin oraino zerua...

Zerua beti urdin izan dadila zuretako, adixkide gaztea ; eta ere, orai enetako hurbiltzen ari den orenean, oihanak jadanik beltz direnean, gaua laster heldu, konsolatuko zira badagitan bezala zeru aldera behatuz. » Zigarreta bat atheratu zuen sakelatik, luzaz egon hedoiertzeari beha. « Goraintzi, lagunak », erran zaukun bapatez, eta utzi gininduen.

Jateko zer zen jakitera jausten nintzan oren hartan, auharia ordukotz hasia zen, eta Françoise-ek, lagun bilakatuak zizazkon naturako indarrer manatuz, zigantek bere burua kozinari laneko harr-arzten duten mirazko leiendetan bezala, lur-ikhatza joiten zuen, hetsirik egosteko lur-sagarrak ireki lanhoan ezartzen, eta suaz behar zen heinera erre-arazten kozinako lan nagusiak, hauk, lehenik, zeramikazko untzi batzuetan aphailatuak izanik, ala dupin handi, eltze, bertz eta arrain-untzi, ala ihiziko lur-azpil, bixkotxeriako molde 'ta krema untxi, neurri orotako kaxa andana oso batean gaindi. Gelditzen nintzan mahi gainean ikusi beharrez, sukalde neskatoak han bihitu berriak baitzituen, ilar biribilñoak lerrokatuak eta joko batean pikor berdeak bezala zenbaturik ; baina ene xoramena azparragoen aitzinean izaiten zen, itzas-kolore 'ta gorraxtan ureztatuak eta buruxka, malbakara eta urdinez arinki ttittatua, histen baitzaie emeki emeki zangorano - oraino alta ondoaren lohiaz zikindua – lurrarenak eztiren ortzadarkatzetan. Baziduritan leinuru zerrutar horiek salatzen zituztela baratze-karietara aldatzen jostatua ziren izaite goxagarriak eta, bere mami jangai tinkiaren jantzi-pean, argi-hasteko margoen sortze hartan, ortzadar zizelkaduretan, arrats urdin batzuetako iraungitzetan, ikustera uzten zutela bere izaite baliosa, eta berriz ezagutzen nuena oraino, hetarik jana nuen auhariari jarraitzen zizakon gau osoan, jostatzen zirenean, Shakespeare-ren joko lillurazko bat bezalako bere trufa poetiko eta gordinetan, usainon untzi batera ene ohazpikoaren aldatzen.

Giotto-ren Garitate gaizoak, Zuanek zeritzon bezala, Françoise-ek erranik behar baitzituen « biphildu », bere ondoan zituen xare batean, itxura minberatu bat bazuen, lurreko zorigaitzak oro sendi balitu bezala ; eta az-

parragoak bere soineko gorraixten gainean inguratzen zituzten korona arin urdinak mehe-mehea marrazkituak ziren, izarrez izar, harresi-margazkian bekoki inguruan ezarriak edo Paduako Bertutearen zarean xixtatuak diren loreak bezala. Anartean, Françoise ari zen gerrenean, berak baizik erretzen etzakien, eta haren merezimenduen usaina Combray-n urrun eremana zuten oilasko hetarik baten itzulikatzen, eta mahian zerbitzatzen ari zauzkunean, eztitasuna baitzuten nagusi-arazten haren jiteaz moldatua nuen gogamen berezian, hain leun eta guri bilakatzen bazakien haragiaren usaina etzelarik enetako haren bertuten beren usaina baizik.

Baina, aita Legrandin-en aurkitzeaz familiako konseiluan zelarik sukaldera jautsi nintzan egun hura, Giotto-ren Garitatea, bere haur ukaite berriaz biziki eri, ezin jeiki zaitekeen hetarik bat zen ; Françoise-ek, laguntzarik gabe, beranta zuen. Beherera heldu nintzanean, ari zen, basakortera bazeman gibel-sukaldean, oilasko baten hiltzen, eta hunek, bere ihardokitze etsitu ontsa naturalean, Françoise errabian, beharri azpitik lephoa urratu nahiz, « ihizi zikina ! ihizi zikina ! » oihuka ari zizakolarik, gure sheiaren eztitasun saildua apur bat gutiago argitan ezartzen zuen, biharamuneko auharian eginen zuen baino, bere larru kasula bat bezala urrez brodatuaz eta ostia-untzi batetik xortakatu jus baliosaz. Hila izan zenean, Françoise-ek odola bildu zuen, baitzarion haren gorromioa itho gabe, haserrezko jauzi bat ukan zuen oraino, eta bere etsaiaren gorputzari beha, azken aldi batez erran : « Ihizi zikina ! » Igan nintzan ikharatua ; nahiko nuen Françoise, berehala, haizatua izan zadin. Baina nork eginen zauzta edateko phizkarri hain beroak, kafe hain usainonekoa, eta ere... oilasko horiek ?... Eta egiaz, karkula zozo hori, jende guziak nik bezala egin ukan beharra zuen. Ezen Léonie izabak bazakien – eta nik ez oraino – Françoise, bere alabarendako, ilobendako, bizia oihi bat gabe emanen zuena, bertze izaite batzuegoko gogortasun berezi batekoa zela. Hala ere izabak atxikia zuen, haren basakeria ezagutzen baldin bazuen, bazagien zerbitzua estimatzen baitzuen. Ohartu nintzan emeki emeki Françoise-ren eztitasunak, itxura urrikalduak, bertutek sukalde-gibeleko tragedia batzuegoko gordetzen zituztela, hala nola ixtorioak erakusten baitu elizetako berinetan eskuak bildurik ezarriak diren Errege ‘ta Erreginen erreinuak gertakari odolduez ezagunak izan zirela. Gogoan hartu nuen, bere jendakiakoetarik kampo, gizakiek are gehiago zutela haren urrikia

phizten nun haren ganik urrunago bizi baitziren. Egunkariaren irakurtzean ezagutzen etzituenen zorigaitzez ixurtzen zituen nigar uharrak, laster agortzen ziren haien gaia zen jendea molde apur bat zuzenean itxura bazezakeen. Sukalde neskatoaren haur ukaiteari jarraiki zizazkon gau hetarik batez, hau sabeleko min izigarri batzuez hartua izan zen : amak auhenka entzun zuen, jeiki zen eta Françoise iratzarri zuen, hunek, soraiorik, erran baitzuen oihu horiek guziak komedia zirela, nahi zuela « etxekanderea egin ». Medikiak, gaitzaldi horien beldur baitzen, ginuen medikuntzako liburu batean xingola bat ezarria zuen, nolakoak diren ezarria den orrialdean eta hara joan giniten errana zaukunean eman behar diren lehenbiziko arthen aurkitzeko. Amak Françoise liburuaren bila igorri zuen xingola erorzeraz utz etzezan gomendatuz. Oren baten buruan Françoise etzen itzulia ; amak sumindua uste ukan zuen berriz etzana zela eta erran zautan ikusteko liburutegira nihaur joan nindadin. Han ediren nuen Françoise, xingolak zer markatzen zuen so egin nahi ukanik, gaitzaldiaren agerbide medikuntzako irakurtzen zuela, hipaka ari ezagutzen etzuen eri orotako batez zenaz gerroz. Liburuaren egileak aipu zuen aldi mingarri bakoitzean, egiten zuen : « Ha lala ! Maria Birjina, izan datekea Jainko onak gizaki gaixo bati horrelako oinazeak eman nahi ukan dezazkokeela ? He ! gaixoa ! »

Baina hel egina ukan naukoneko eta Giotto-ren Garitatearen ohe ondora itzulia izan zeneko, nigarrak berehala agortu zizazkon ; etzuen berriz ukan ahal ez ontsa ezagutzen zuen eta egunkariaren irakurtzeak ainitzetan emana zaukon urriki eta hunkimenezko sendimen hura, ez mota bereko atseginik batere, gauaren erdian sukalde neskatoarendako jeikirik zituen aspertze ‘ta haserrean ; eta, haien irakurtzeak nigar egin-arazia zaukon oinaze beren ikustean, etzuen ukan omore gaixtoko marmarikarik baizik, irri gaixto itsusi batzu ere, erranez, joanak ginela eta entzun ezkinezakeela uste ukan zuenean : « Hortako egin behar zenaren ez egitea aski zuen ! atsegina eman dako ! eztezala orai fazoinik egin ! Behar dea mutiko bat Jainko onaz utzia izan dadin *horrekin* abiatzeko ! Ha ! ene ama gaixoaren mintzaeran erraiten zen bezala da bada :

*Zakur baten ipurdiaz amorosten denari,
Arrosa bat izaiten iduri. »*

Semabixia apur bat marranta zuenean, gauaz abiatzen baldin bazeu, eri izanik ere, etzateko orde, jeusen beharretan etzenez ikusteko, argia baino lehen lau lekoa oinez egiten zituela bere laneko sartua izaitekotan, bere familiako zuen maitasun hori bera eta etxearen geroko handitasunaren segurtatzeko zuen gutizia itzultzen ziren, bertze sehien aldera zuen politikan, erregela ezin aldatu batera : baten ez uztea izabaren ondoan egoiten, hari hurbiltzera nehoren ez uztea halako urgulu bat baitzizakon, nahiago ukanez, bera eri zenean ere, jeiki hari Vichy-ko uraren emaiteko, haren gamba-rara sartzea sukalde neskatoari haizu utzi baino lehen. Eta Fabre-ek behatu daukon mamutxa hegaldun hark bezala (leizafin lur-zilatzalea, bera hil-eta umek haragi freskotik jateko ukan dezatentzat, anatomiar hel egiten baitauko bere abretasunaren lagun, eta, kuko eta armiamak hatzemanik, jakitate 'ta trebetasun miragarriekin zilatzten baitaue zangoetako mugimenduari manatzen dauen zain gunea, baina ez biziko bertze ofizioer, bere arraultzeak haren ondoan uzten dituen mamutxa geldituak harrak horni ditzan, sortuko direnean, ihizi bat molda-errexera, lanjerrik gabea, ihes egin etzezakeena ez ihardoki, baina ez batere uxtertua), Françoise-ek edozein sehirendako etxea ezin egona izan zadin nahiaren zerbitzuko aurkitzen zituen amarru batzu hain trebeak eta urrikgaitzak nun, urteak berantago, ikasi baikinuen urte hartan hainbertze azparrago jan baldin baginuen, hori izan zela biphildu behar zituen sukalde neskato gaizoari haien usainak emaiten zauzokolakotz hats-bahidura aldi batzu hain bortitzak nun azkenean joan behar ukan baitzuen.

Ondikotz ! aburuz behin betikotz aldatu behar ginuen Legrandin-i zoakonaz. Aitak huts egina zuela gero aithortu behar ukan zuen Zubi-Zaharreko elgar aurkitzearen ondoko igandetarik batez, meza bururatzen ari baitzen eta iguzkiarekin eta kampoko harrabotsarekin batean zerbait hain guti sakratu sartzen ari, nun Goupil Anderea, Percepied Anderea (arestian, ni beranxko sartu nintzanean, begiak bere othoizetan sartuak egonak ziren jende guziak, uste ukan bainezakeen ere enindutela sartzen ikusia, ezpalute, aldi berean, haien oinek arinki baztertu ene kaderara joaitera uzten eninduen alki ttipia) hasiak baitziren gurekin bizi huntako gauza batzuez gora solastatzen jadanik plazan izan bagine bezala, ikusi ginuen alhaze erretzeko

berotuan, merkatuko harramantza nabarkatua gainditzen zuela, Legrandin, azkenik harekin aurkitua ginuen anderearen senarrak ingurunetako lur jabe gotor bati aitzineratzen ari. Legrandin-en begitarteak bazuen bizi bat, gar bat ohigabekoa; gur handi bat egin zuen gero gibeleratze batekin, horrek bizkarra hastapenean zen lekutik urrundu baitzaukon, eta bere arreba Cambremer-ko Anderearen senarrak ikasia baitzaukokeen. Zutitze lehiako horrek gibela-arazi zituen halako uhain suhar ginarritsu batean hain azkarrak uste enituen Legrandin-en hankak; eta eztakit zer gatik materia hutsezkoa zen izurkatze horrek, uhain osoki haragizko horrek, izpirituko erran-nahirik ga-beak eta aphaltasunez bete lehia batek ekaitz moldean inharrosten zuenak, bapatez phiztu zauztaten Legrandin ezagutzen ginuenetik osoki ezberdina izan zaitekeelako gogoia. Andere hark eskatu zaukon karrosazainari zerbait erran zezon, eta karrosarano zoan bitartean, andereari aitzinera emana izai-teak aurpegian ezarria zaukon bozkario herabe zerbitzura emanak bazirauen han oraino. Halako amets batean xoratua, erdi-irritan zen, gero anderearen gana lehiatuz itzultzean, ohi zuen baino lasterrago baitzoan, bi soingainak ari zizazkon irrigarriki aldizka eskun eta ezker, hain zen hortan osoki emana gai-neratekoaz axolatu gabe, nun iduri baitzuen zorionaren jostagailu bizigabe mekanikazkoa zela. Bitartean, kalostrapetik jalgitzen ari ginen, haren ondoti-k joaitera ginoazen, sobera ontsa ikasia zen buruaren itzultzeko, baina bere so bapatez ametseria barnatu batek hartua hedoiertzeko gune hain urrundu bati lotu zuen, nun ezpaikinituen ikusi ez agurtu ukan behar. Begitarteak bazatxikan xintxo soineko labur malgu eta xuxen baten gainetik, eta aberat-seria hastiatu baten erdian nahigabez galdua iduri zuenarenetik. Eta Plazako haizeak inharrosten zuen lephoko titadun bat airean zabilan Legrandin-en gainean haren berexkuntza burgoi eta beregaintasun noblearen ikurrina be-zala.

Etxera heltzen ari ginen orduan, ama orhoitu zen «saint-honoré» bixkotxa ahatzia zela eta aitari eskatu zaukon enekin gibelera itzultzea be-rehala ekhar zezaten erraitera. Legrandin elizaren ondoan gurutzatu ginuen bertze aldera heldu andere beraren bidatzen bere karrosara. Gure ondotik iragan zen, etzen andereari mintzatzetik gelditu, eta bere begi urdinaren iz-kinatik egin zaukun betespalen zerbait moldez barnetikako kheinuíño bat,

aurpegiko ginarriak hunki ukanik gabe, mintzo zizakon andereak batere ikusi gabe joan ahal zena; baina, erran-nahia hartan mugatu zuen eremua sendimenduaren indarrak ordaindu nahian, guretako utzia zen xoko urdin hartan esker onaren alegera guzia phindarka-arazi zuen, alaitasuna gainditu baitzuen eta maltzurreria hunkitzer; maitagarritasunaren xorrotxeriak idetasunezko klixkatzetarano artexkatu zituen, hitzerdietarano, azpi-entzunetarano, gaizkidetasunezko mixterioetarano; eta azkenean adixkidantzazko segurtamenak goratu zituen samurtasunezko baieztatzetarano, maitasunezko aithormenetarano, argizatzen zuela orduan gu bakarrendako, jauregitarsak ikus etzezakeen segetuzko ahuldura batekin, begitarte hormatu batean ñiñika bat amaratua.

Bezparan preseski aitamer galdegina zauen arrats hartan harekin auhaltzera igor nindezaten: «Zure adixkide zaharrari kompainia egitera zaugi, erran zautan. Behin ere hara itzuliko ezkiren herritik bidaiari batek igortzen daukun lore-floka bezala, zure gaztetasun urrunetik hatsera ematazu nik ere duela urteak eta urteak iragan dutan primaderako lore horien usain ona. Zaugi ostoixkarekin, abetxearekin, edaskiarekin, Balzac-en loretegian maitazarrearen floka badagien betibiziarekin, Phizkuntza eguneko liliarekin, izarliliarekin eta baratzetako gaukarrarekin usainontzen hasia baita zure amaxiren bidexketan, Bazkoko erauntsien elhur mokorrak urtuak eztirenean oraino. Zaugi Salomonendako gai den lili xuriaren zaia loriazkoarekin, eta gordetxen esmail margo orotakoarekin, baina zaugi oroz gaintetik azken hormetako iphar haize oraino hotxarekin eta hunek, goizetik athean igurikan dauden bi pimpirinendako, erdi zabalduko duen Jerusalemeko arrosarekin.»

Etxean bazauden hea Legrandin Jaunarekin auhaltzera igorri behar nindutenez hala ere. Baina amatxik ikustategabekoa izana zela etzuen sinetsi ukan nahi. «Zuhaurek onhartzan duzue mundutar batena ezten jantzi laño-lañoan jiten dela hara.» Bazion, zer nahi izanik ere 'ta oro gaitzenera eman ez, hala izan baliz, ez ohartuarena egitea hobe zela. Egia erran aitzak berak, Legrandin-ek ukana zuen egonaraz suminduena zena, azken duda bat bazadukan behar bada horrek zuen erran-nahiaz. Norbaiten barneko jite gordea hartan agertzen den egonara edo egintza oro bezala zen: ezta ageriko hitzer lotua izaiten, eztezakegu baieztara-az aithortuko eztuen ogendunaren leko-

katusunetik; gure sentsuena dugu bakarrik eskuan eta bagaude, orhoitzapen bakartu eta nahasi horren aitzinean, eztirenez lilluramen baten jostagailuak izan; hala nola nun egonara horiek, baliagarriak diren bakarrak, duda zen-bait uzten baitaukute aintzetzan.

Legrandin-ekin auhaltu nintzan haren zabalzan; ilargi xuri zen: «Ixil hunek badu pollitik, eztea hala, erran zautan; enea den bezalako bihotz zaurituendako, berantago irakurriko duzun elhaberrigile batek badio itzala eta ixila direla bakarrik egokiak. Eta jakizu, haurra, bizian oren bat jiten dela, eta hartarik ontsa urrun zira oraino, begi akhituek ezpaitezakete argi bakar bat baizik jasan, hau bezalako gau eder batek ilunbean antolatzen eta ixurtzen duena, beharriek ezpaitezakete gehiago ilargi xuriak ixilaren xirulan joiten duen musika baizik entzun.» Beti hain goxagarri zizatzan Legrandin Jaunaren elheak entzuten nituen; baina berriki lehen aldikotz ikusia nuen emazte batez orhoitzeak durduzaturik, eta, Legrandin ingurunetako aitoren-
seme ezagun batzuekin harremanetan zela bainakien orai, hau ere ezagutzen zukeela gogoan, kuraia hartuz, erran naukon: «Jauna, Guermantes-ko jauregitarsa..., jauregitarrak ezagutzen dituzua?», zorionean ere hitz horren erraitean haren gainean halako botere bat hartzen bainuen, izen hori neure ametsetik biltzen nuelako arrazoin bakarraren gatik, eta egiazko izaite batez ozentzen.

Baina, Guermantes izen hortan, gure adixkidearen begi urdinetan ikusi nuen ozka ttipi beltzaran bat jartzen itze ezin ikusi batek zilatuak ukan balitu bezala, ñiñikaren gaineratekoak uhain urdin batzuetan ihardokitzen zuelarik. Begipea belztu zizakon, jautsi. Eta izur samin batek marratzen zaukon ahoak lasterrago bere baitaratuz irriño bat egin zuen, behakoa minbera gelditzen zizakon batean, soina geziek lazten daukoten martir eder batena bezala : «Ez, eztitut ezagutzen», erran zuen, baina xehetasun hoin lañoari, ihardespen hoin guti ustegabekoari egoki zizakon doinu natural eta ohikoa eman orde, hitzetan zapatuz mintzaru zen, gurtuz, buruaz agur eginenez, itxuragabeko baieztapen bati, sinetsia izaiteko emaiten den indarrarekin - Guermantes-tarren ez ezagutzea halabehar berezi baten ondorioa baizik izaiten ahal ezpaliz bezala - eta ere norbaitek, mingarri zakon izanara bat ezin ixilduz, goratik erraitea nahiago duenaren ospeko mintzoarekin, bertzer

eman nahiz badagien aithorra errex, gozagarria, bere baitarikakoa delako gogoa, izanara bera - Guermantes-tarrekin ez elgar ikustea - izan zatekeela ez jasana, baina berak nahia, Guermantes-tarrekin gurutzatzea baitezpada debekatzen zaukon familiako ohidura, moralezko erregela edo botu miztiko baten ondorioa. «Ez, egin zuen berriz, bere doinua jestuez argitzen zuela, ez, eztitut ezagutzen, ehoiz ez tut nahi ukan, neure gaintasun osoa beti atxiki nahi ukana dut; oro har buru «jakobino» bat niz, badakizu. Jende ainitz sustatzera ethorri zata, bazioten Guermantes-era ez joanez ogendun nintzala, gaizki ikasi baten itxura emaiten naukola neure buruari, hartz zahar batena. Baina horra batere beldurgarri etzatan omena, hain da egia! Azkenean, munduan eztitut gehiago maite eliza zenbait baizik, bizpahirur liburu, doi-doi gehiago margazki, eta ilargi xuria, zure gaztetasunaren haize eztiak nitarano ekhartzen dautanean ene begi zaharrek gehiago berexten eztituzten lore-taloinen usaina.»

Enuen ontsa hartzen nola, ezagutzen ez tiren jende batzuen etxera ez joaiteko, behar zen nor bere gaintasunari atxikia izan, eta horrek zertan emaiten ahal zautzun salbaia edo hartz zahar baten itxura. Baina hartzen nuena zen Legrandin etzela osoki egiatia elizak, ilargi xuria eta gaztetasuna baizik ez tituela maite zionean; biziki maite zituen jauregietako jendeak, eta haier ez gustatzeko beldur hain handiaz hartua zen haien aitzinean nun ez-paitzen burjes, notari edo diru aldatzale batzuen semeak ezagutzen zituela haier ikusten uztera ausartzen, nahiago zuelakotz, egiak agertu behar baldin bazuen, hura han etzelarik izan zadin, hartarik urrun eta hark «huts eginez»; handioseriari emana zen. Egia da hortarik ezer etzuela erraiten aitamek eta nihaurek hainbertze maite ginuen mintza-moldean. Eta eskatzen nuenean: «Guermantes-tarrak ezagutzen dituzua?», Legrandin-ek ihardesten zuen: «Ez, ehoiz ez titut ezagutu nahi ukan.» Zorigaitzez etzuen hori bigarren bezala baizik ihardesten, ezen bertze Legrandin batek, bere golko zolan arthoski gordetzen zuenak, erakusten etzuenak Legrandin horrek gureaz, hunen handioseriaz ixtorio kaltegarri batzu ezagutzen zituelakotz, bertze Legrandin batek jadanik ihardetsia zuen, soaren zauriaz, ahoaren irri gaixtoaz, ihardespenaren doinu larriegiaz, san Sebastian bat bezala gure Legrandin hetaz bapatean ziztakatua eta guritua gertatua zen handioseriaren mila geziez: «Ondikotz!

zenbat min egiten dautazun! ez, Guermantes-tarrak eztitut ezagutzen, ene biziko oinaze handia atzar etzatzazula.» Eta Legrandin haur gaizto horrek, Legrandin kanta-arazle nagusi horrek, ezpazuen bertzearen mintzaera pol-lita, elhea ezin erneagoa baitzuen, ihardokia deritzotenez egina, Legrandin elhekariak ixil-arazi nahi zuenean, bertzea jadanik mintzatua zen, eta gure adixkidea lastima ahal zaitkeen bere *alter ego*-ak eginak zituzkeen aithormenez, hauen estaltzera indar egiteaz bertzerik etzegikeen.

Eta horrek eztu segurki erran nahi Legrandin Jauna etzela zintzo handiosen kontra oihuka ari zenean. Bera hala zela etzezakeen, bere baita-rik bederen, jakin, ehoiz eztitugunez geroz bertzen tirriak baizik ezagutzen, eta guhaurenez jakitera heltzen giren hura, eztugunaz geroz hetarik baizik ikasten. Gure baitan, eztira bigarren mailean baizik ari, lehenbiziko xedeak aldakuntzazko xede behar bezalakoago batzuez ordaintzen dituen idurime-naren bidez. Legrandin-en handioseriak nehoiz etzaukon dukesaren ikustera usu joaiteko aholkua emaiten. Legrandin-en idurimenari manatzen zaukon Guermantes-ko dukesa agerr-araz zezon bertute guziez aphaindurik. Legran-din dukesaren gana hurbiltzen zen, handios hastiagarriek ezagutzen eztuten izpirituko eta bertuteko lillurara utziaz bere burua estimatuz. Hetarik bat zela bertzek zakiten bakarrik; ezen, haren idurimenaren lanaren hartzeko zu-ten ezinari esker, bata bertzearen aitzinean ikusten zituzten Legrandin-en egintza mundutarra eta hunen arrazoin lehena .

Orai, etxean, Legrandin-ez etzen gehiago lilluratzekorik batere, eta gure elgar ikusteak bekanduak ziren. Ama ezin gehiago jostatzen zen Legran-din aithortzen etzuen bekatuaren erdi-erdian hatzemaiten zuen aldi oroz, barkamendurik gabekoa zionaren, handioseriaren. Aitari, hari, neke zizakon Legrandin-en erdainuen hartzea horrenbertze axolagabe 'ta alaitasunekin; eta, ene igortzea amatxirekin lanarten iragaitera Balbec-en gogoan ukan zu-ten urte batez, erran zuen: «Legrandin-i baitezpada jakin-arazi behar daukot Balbec-era joanen zireztela, hea bere arrebarekin harremanetan ezartzea es-kainiko dautzuenez ikusteko.» Amatxik, iduritzen baitzizakon itsas-mainue-tan goizetik arrats ondartzean izan behar dela gatzaren usnatzen eta nehor eztela behar han ezagutu, ikustaldiak, ibilaldiak itsas-aireari hartuak izaiten diren bertze hainbertze aldi direlakotz, galdegiten zuen aldiz gure xedeak et-

zazkoten Legrandin-i aipha, jadanik ikusten baitzuen haren ahizpa, Cambremer-ko Anderea, hotelera jiten arraintzara abiatzekotan izanen ginen orduan eta haren ukaiteko hetsirik egoitera bortxatzen. Baina amak haren beldurrak irri bazegien, lanjerra etzela hain handi uste baitzuen bere baitan, Legrandin etzela arrebarekin harremanetan gure ezartzera hain lehiatua. Bada, Balbec hari guk aiphatu behar ukan gabe, bera zen, Legrandin, alde hartara joaiteko xederik ehoiz ukan ginezakeela ez uste ukanez, sarean sartzera ethorri Vivonne-aren bazterrean aurkitu ginuen arrats batez.

- Gaur badira hedoietan briolet eta urdin batzu ontsa ederrak, ezte hala, laguna, erran zaukon aitari, urdin bat bereziki aireko baino loretakoaga, hauts koloreko landare baten urdina, zeruan ustegabetzen duena. Eta hedoiño gorraxta horrek, eztua ere lore baten margoa, julufrai ala hortenzia? Eztut biziki Manche aldean baizik, Normandia eta Britainiaren artean, oharpen aberatsagorik egin ahal ukan aireak dukeen landare itxura mota hortaz. Han, Balbec ondoan, leku hain ohilgarri haien ondoan, bada itsas-adar ttipi bat ezintasunez xoragarria, han Auge herrialdeko iguzki sartzeak, gorri eta urrezkoak, haren gutiestetik urrun bainiz bertzela ere, ezer ezpaitu ohargarririk, errankorrik; baina aire heze 'ta ezti hartan, zabaltzen dira, arratsean, zeruko floka batzu, urdin eta gorraxtak, paregabekoak direnak eta histen orenak baitematzate. Bertze batzuek orstoak berehala galtzen dituzte, eta ederrago da oraino orduan zeru osoaren ikustea lore-orsto horail eta gorraxta batzuen barreatzeaz ihaurre. Itsas-adar hartan, «opalezkoa» deritzotena, urrezko ondartzek eztiago badidurite oraino lotuak direlakotz, Andromeda ile horidun batzu bezala, ondoko ur-hegietako harroka izigarri haier, itsas-bazter hilgarri hari, hainbat hondamenen gatik aiphatuari, han negu oroz untzixka andana sunsitzen baita itsasoko lanjerretan. Balbec! gure lurraren hezurtegi zaharrena, zinez «Ar-mor», Itsasoa, lurraren azken burua, Anatole France-ek - gure adixkide ttipiak irakurri behar lukeen xoratzale bat - hain ontsa erakutsia duena, bere betiereko lanhoen azpian, *Odysea*-n Zimeriarren egiazko herria bezala. Balbec-etik bereziki, han hotel batzu eraikitzen ari baitira jadanik, andeatzen eztuten lur zahar xoragarriaren gainean, zer goxoa bi urratsetan joaitea herrialde noizpateko eta hain ederretan!

- Ha! norbait ezagutzen duzua Balbec-en? erran zuen aitak. Hain zuzen ttipi horrek hara joan behar du bi ilabeterendako bere amatxirekin eta behar bada ene emaztearekin.

Legrandinek, galde horrek ustegabeen hatzemanan aitari so zen ordu batean, etzituen begiak baztertu ahal ukan, baina zekundaz zekunda indar gehiagorekin atxikitzen zituela - eta trixteki irriño bat bazegien batean - mintzaide zuenarenetan, adixkidantzazko, zintzotasunezko eta aldi berean bekoz beko so egin beldur ez izaiteko itxura batekin, iduri ukan zuen galdeak begitartea zeharkatua zaukola argaldua izan baliz bezala, eta ikusten balu bezala, haren gibelean urrun, hedoi margo biziko bat hari gogora estakuru baten oihukatzen, uzten ahalko baitzuen, Balbec-en norbait ezagutzen zue- nez galdegiten zizakon ordu berean, bertze zerbait zuela gogoan erraitera eta galdea etzuela entzun. Ohiki horrelako soek mintzaideari erran-arazten daukote: «Gogoan nun duzu bada?» Baina aitak, jakin nahian, haserre 'ta bortitz, egin zuen berriz:

- Adixkideak badituzua alderdi hortan, Balbec hoin ontsa ezagutzen baituzu?

Azken indar etsitu batean, Legrandin-en so irriñoduna bere xamurtasun, garbi eskas, zintzotasun eta ohargabe goienara heldu zen, baina, ustez eta agian etzela gehiago ihardetsi behar baizik, erran zaukun:

- Adixkideak baditut zuhatz zauritu andanak badiren leku orotan, baina ez garhaituak, elgarretara hurbildu direnak batean othoitz egiteko hisi hunkigarri batekin hetaz urrikirik eztuen zeru gogor bati.

- Enuen hori erran nahi, hautsi zuen aitak, zuhatzak bezain hisitua eta zerua bezain urrikalgaitz. Galdegiten nuen, ene amaginarrebari zerbait gerta balakio eta han herri galdu batean ez senditzeko beharretan baliz, jenderik han ezagutzen duzunez?

- Han orotan bezala, jende guzia ezagutzen dut eta nehor ez ezagutzen, ihardetsi zuen Legrandin-ek ezpaitzuen hoin laster amor emaiten; gauzak ainitz eta jendeak biziki guti. Baina gauzek berek jendea badidurite, jende arraro batzu, izanaraz beratzak eta biziak nahigabetuak utzi lituzkeenak. Batzuetan jauretxeño bat duzu itsas-ezpondan edireiten, haren ondoan gelditu den bide bazterrean bere bihotzminaren agerr-arazteko arrats oraino gorraxtaren aitzinean, ilargia hartan goiti doalarik eta ur nabarra marratuz sartzen ari diren untziek haren garra mastetara igortzen dutelarik eta haren margoak erakusten; batzuetan etxe xume bat da, bakar-bakarra, abantzu itsusia, itxuraz herabea baina ameskarria, begi orori zorionezko eta

atsekabezko segeretu zenbait betiereko gordetzen duena. Egiarik gabeko herri hura, gaineratu zuen xorroxtasun maltzur batekin, alegia hutsezko herri hura irakurgai gaiztoa da haur batendako, eta enezake nik hura hauta eta gomenda goibeltzera jadanik hoin aiher den ene adixkide ttipiarendako, aitzinetik hortara ekharria den hunen bihotzarendako. Maitasunezko aithormenez eta debaldeko urrikiz eginak diren aroaldeak egoki datezke nizan bezalako lilluragabearentzat, beti gaizkarri dira moldatzen ari den jite batendako. Sinets nezazu, egin zuen berriz hisirekin, jadanik erdi bretoina den itsasadar hartako urek, ondorio eztingarri bat ukan dezakete, nahiz eztabadagarria, hunkirik izana den enea bezalako bihotz batendako, zauria gehiago ordaindua eztuenarendako. Zure adinean, muttikoa, debekatuak dira. Gau on, auzoak», gaineratu zuen uzten ginituela ohi zizakon laster idor harekin, eta, gure gana itzulirik mediku baten erhi zutarekin, konsulta laburpenez eman zuen: «Balbec-ik ez berrogei-ta-hamar urtetarano, eta oraino, bihotza zertan den!», oihukatu zaukun.

Aitak berriz aipatu zaukon ondoko elgar aurkizetan, galdez oinazkatu zuen, debaldetan: hala nola hetako ehunetarik batek egonara ez irabazkarri bat baina ohorezkoa ekharriko zaukon lana eta jakitatea paper zahar egiteko baliatzen zituen ohoin jakintsuna, Legrandin Jaunak, gehiago hisitu bagine, Normandia aphaleko eskualdearen ethika oso bat eta zeruaren geografia bat eginez bururatuko zuen, arreba Balbec-etik bi kilometretan bizi zuela guri aithortu baino lehen, eta haren etxera sartzeko eskutitz baten eskaintzera behartua izan baino, ezpaitzizakon hori halako gauza izigarria izanen osoki segur izan baliz - zinez izan behar zuen bezala, amaxiren jiteaz zuen ezagutzarekin - ezkinela hortaz baliatuko.

*

* *

Gure ibilaldietarik beti goizik sartzen ginen, auhal-aitzin izaba Léonie-ri ikustaldi baten egin ahal ukaiteko. Sasoin hastapenean, eguna labur baita, Sant-Izpirituko karrikara heltzen ginenean, iguzki-sartze leinuru bat

bazen oraino etxeko berinetan eta gorrindol xerrenda bat Galbarioko oihan zolan, urrunago aintziran dirdiratzen zuena; gorri hori, ainitzetan hotz aski bixi batez lagundua, bateratzen zen, ene gogoan, ibilaldiak eman atsegin poetikoari jarrikiko zizakon gormandizaren, beroaren, atsedenarena jarraik-araziko zaukon haren gainean oilaskoa erretzen ari zen suaren gorriarekin. Udan, aldiz, sartzen ginenean, iguzkia etzen oraino etzaten; eta izaba Léonie-ri egiten ginaukon ikustaldian, jausten ari zen eta leihoa hunkitzen zuen haren argia, erridau handiez eta estekagailuez trabatua zen, moztua, abarkatua, irezia, eta, komodako zitroin zura urre zatiz xartakatuz, gambara zeharka argitan ezartzen zuen oihanpetan hartzen duen beraztasunarekin. Baina, egun biziki bekan batzuetan, gure sartzean, bazen aspaldi komodak xartadura iragankorrak galduak zituela, gehiago etzen, Sant-Izpirituko karrikara heltzen ginenean, iguzki sartzeko leinururik batere berinetan, eta galbarioaren oinean aintzirak bere gorridura galdua zuen, batzuetan jadanik nabartzen hasia, eta ilargi iñhar luze batek, zabaltzen ari eta uraren ximur guzietan arrailtzen, oso-osoan zeharkatzen zuen. Orduan, etxe ondora heltzean, itxura bat ikusten ginuen etxeko athe-alharzean eta amak bazion:

- Jainkoa! horra Françoise gure aiduru, izaba khexu duk; berantegi sartzen gituk ere.

Eta gure jantzien ekhentzeko astirik hartu gabe, Léonie izabaren baitara laster igaiten ginen haren segurtatzeko erakutsiz, jadanik asmatzen zuena ez bezala, jeus etzizaikula gertatua, baina «Guermantes-ko aldera» izanak ginela eta, oizu, ibilaldi hori egiten denean, izabak ontsa bazakien bada nehoiz etzaitkeela sartua izanen zen orenaz segur izan.

- Ori, Françoise, zion izabak, Guermantes-ko aldera joanak izanen zirela niozunean! Jainkoa! gose bat badukete! eta zure erreikia dena idortua datekeela hoinbertze igurikatu ondoan. Ordu ona dea ere sartzeko! nola, Guermantes-ko aldera izan zirezte!

- Baina uste nuen bazinakiela, izaba Léonie, zion amak, Françoise-ek ikusiak ginituela baratzeko athe ttipitik joaiten.

Ezen ibilaldietako baziren Combray-ko inguruan bi «alde», hain kontrakoak nun ezpaitzen alabaina gure etxetik athe beretik jalgitzen, alde batera edo bertzera joan nahi zenean: Méséglise-la-Vineuse-ko aldea, Zuanen

etxeko aldea zeritzona ere Zuan Jaunaren etxaldearen aitzinetik iragaiten zekilakotz horrara joaiteko, eta Guermantes-ko aldea. Méséglise-la-Vineuse-tik, egia erran, eztut ehoiz «aldea» baizik ezagutu, eta igandetan Combray-n ibiltzera jiten ziren jende arrotz batzu, aldi huntan izabak berak eta guk «ezagutzen ezkinituen» jende batzu eta hortakotz «Méséglise-tik ethorri datezkeen jende batzuendako» hartzen ginituenak. Guermantes-ez den bezainbatean, gehiago jakin behar nuen egun batez, baina ontsa berantago baizik ez; eta gazte-gaztea nintzan guzian, Méséglise hedoiertzea bezain gauza ezin hunki ahala baldin bazen enetako, jadanik Combray-koaren egiterik etzuen lurra-
ren izurdurek begietarik gordea, nahi bezain urrun joanik ere, Guermantes, hura, etzauta bere «aldeko» muga bezala baizik agertu, egiazkoa baino asmu hutsezkoagoa, geografiako izaite bat gogo hutsekoa ekuadorea den bezala, edo lurburua, edo orientea. Orduan, «Guermantes-tik hartzea» Méséglise-ra joaiteko, ala alderantziz, erran-nahiaz idurituko zizatan sartaldera joaiteko sortaldetik hartzea bezain hutsa. Aita beti Méséglise-ko aldeaz ezagutzen zuen ibar ikuspen ederrenaz bezala mintzo baitzen, eta Guermantes-ko aldeaz ibai eskualde ereduaz bezala, emaiten nauen, horrela bi izaite bezala asmatuz, gure gogoak egiten dituenek baizik ez tuten berdintasun, batasun hura; hetarik bakoitzeko zati den gutiena preziosa zela baziduritan eta bere ezin hobetasun berezia agerian zuela; horien ondoan aldiz, bat edo bertzeko lur sakratura heldua izan baino lehen, haien artean jarriak ziren bide osoki egiazkoek ibar ikuspeneko ideala eta ibai eskualdekoa bezala, etzuten behatuak izaitea balio, antzertia maite duen ikusleak antzokira deramaten bide ttipiek baino gehiago. Baina oroz gainetik, haien artean ezartzen nuen, artean zuten kilometrezko urruntasuna baino biziki gehiago, ene burumunetan hetaz gogatzeko bi alderdien artean zena, bakarrik urruntzen ez tuten izpirituko urruntasun hetarik bat, baina berex ten eta bertze eremu batean ezartzen. Eta zedarritze hori ezin osoagoa egina zuen oraino behin ere, ibilaldi berean, bi aldetara egun berean ez joaiteko ginuen ohidurak, baina aldi batez Méséglise-ko aldera, bertze batez Guermantes-kora, elgarretarik urrun, hala erraiteko, hesten zituelakotz, elgarri ezin ezagunak, arratsalde ezperdi-
netako untzi hetsi eta elgarretara ixurtzerik gabetan.

Méséglise-ko aldera joan nahi zenean, nora nahi joaiteko bezala jalgitzen zen (ez goizegi, eta zerua hedoi zenean ere, ibilaldia ezpaitzen luzegia eta ezpaitzeraman urrunegi), izabaren athe handi Sant-Izpirituko karririkarikotik. Harmagileaz agurtuak izaiten ginen, eskutitzak posta-untzira botatzen ziren, iragaitean Theodore-ri erraiten zizakon, Françoise-ren partez, hunek oliorik edo kaferik etzuela gehiago, eta hiritik jalgitzen zen Zuan Jaunaren parkeko heskailu xuria luzatuz zolan bidetik. Hara baino lehen, aurkitzen ginuen, arrotzen aitzinera ethorria, lila loren usaina. Hek, bere orstoen bihotz musker frexkoen artetik, bitxiki goititzen zituzten parkeko heskailuaren gainetik bere luma malba-kolore ala xurien gandorrak, hartan mainaturik izanak ziren iguzkiak, itzalean ere, dirdirutzen baitzituen. Zenaitek, «Arxeren etxea» zeritzon etxe ttipi teiladunaz erdi gordeak, etxezaina han bizi baitzen, haren aitzin gothikoa gainditzen zuten bere dorreño goraxtaz. Bedatseko Ninfek arruntak iduriko zuten, baratze frantzes batean Persiako marrazki ttipien margo bixi garbiak bazematzen nexka zerutararak iduri horien ondoan. Haien gerri malguten inguratze eta haien buru usainonduetako kuxkula izarkatuen enegana ekharr-arazteko gutizia ukanik ere, gelditu gabe iragaiten ginen, aitamak ezpaitziren Tansonville-ra joaiten Zuan ezkonduz geroz, eta, parkera behatzen ginuela ez iduri ukaiteko, hesi bazterren luzara alhorretara zuzen igaiten den bidea hartu orde, bertze bat hartzen ginuen hara baderamana ere, baina zeharka, eta urrunegi athera-arazten ginituena. Egun batez, aitatzik erran zaukon aitari:

- Orhoit zirea atzo Zuanek erran duela, emazte-alabak Reims-era baitzoazkon, hortaz baliatuko zela Parisera joaiteko hogeita-laur orenen iragaitera? Parkea luzatzen ahal ginuke, andreak hor ez tirenez geroz, bertze hainbertzez labor ginezake.

Ephe bat gelditu ginen heskailuaren aitzinean. Lilien aroa bururatze-za zolan; batzuek ixurtzen zituzten oraino malba-koloreko mulko xut goretan bere lilien pumpula arinak; baina orstoetako zati ainitzetan, zuela aste bat bakarrik haien luma floka usainonduak bazariotelarik, gutitua eta belztua, hagon hustu, idor eta usaingabe bat zimeltzen ari zen. Aitatzik aitari erakusten zaukon lekuen itxura zertan berdina gelditua zen, eta zertan aldatua, emaztea hil zizakon egunean Zuan Jaunarekin egin zuen ibilaldiaz geroz, eta aldi hortaz baliatu zen berriz ere ibilaldi horren khondatzeko.

Gure aitzinean, bazterrak amatxi-lorez zituen bidexka bat bazoan iguzki betean jauregira. Eskunetik, aldiz, parkea zabalean hedatzen zen. In- guratzen zuten zuhatz handien itzalaz ilundua, bazen urmael bat Zuanen gurasoek zilatu; baina bere gogo huts-hutsez egiten dituen gauzetan ere, natura du gizonak lantzen; leku batzuek badadukate beti inguruan bere erresuma berezia, bere ikur orhoitzerik gabeak parke baten erdian agerian badematzate giza-lan orotarik urrun eginen zituzten bezala, inguratzeri beti heldu zaien bakartasun batean, ezarriak diren aldearen bortxaz jalgia giza-lanaren gainetik. Horrela zen, eskuz egin aintziraren gaineko bidexkaren behe- rean, bi lerrotan moldatua, orhoit-belar eta berenga lorez adaskaturik, uren bekoki argi-iluna hartzen duen korona jitezko arin urdina, eta ezpata-liliak, bere lamak erortzera utziz errege baten moldeko gurtean, latxaskiaren eta oin bustiarekilako igel-belarraren gainera hedatzen zituen bere erret-pordoin aintziretakoaren lirio xintxilikatu, ubel eta horiak.

Zuan Andereñoaren joaiteak - bidexka batean agertzen ikusteko zori laztagarria ekhenduz, eta nihaur ezagutua eta gutietsia izaitekoa Ber- gotte adixkide zuen eta katedralen ikustera harekin zoan nexkato dohat- suaz - Tansonville-ri beha egoitea haizu nuen lehenbiziko aldi orobatekoa egiten zautalarik, iduri zuen aldiz etxaldeari emaiten zituela, aitatxi bai ai- tarendako, errextasun batzu, gozatasun iraupen gabeko bat, eta, mendi alde batean ibiltzean hedoirik batere ez izaiteak badagien bezala, egun hori egiten zuela bereziki ona alde hortara ibilaldi bateko; nahiko nuen haien karkulek huts egin zezaten, mirakulu batek Zuan Andereñoa bere aitarekin agerr-araz zezan, gutarik hain hurbil nun ezpaiginezakeen huts egiteko astirik ukan eta haren ezagutza egin beharko baiginuen. Beraz, bapatez belarrean ikusi nue- nean, hor izan zaitekeelako seinale bat bezala, xare bat buxuna ur gainean zabilkion amu-hari baten ondoan ahatzia, Aitaren eta aitatxiren behakoen bertze alde batera itzul-araztera lehiatu nintzan. Bertzela ere, Zuanek guri er- ranik hor ez izaitea gaizki zela harendako, ezen bazituen oraino familiakoak etxean, amu-haria gomitetarik batena izan zaitekeen. Etzen urratsik batere bidexketan entzuten. Zuhatz zenbaiten goratasuna hautsiz, xori ezin ikusi bat egin ahala ari zen eguna labur aurki-arazi nahiz, nota luzatu batez in- gurunetako bakartasuna ikertzen zuen, baina haren ganik erantzun hain

orotakoa ukaiten, gibelerako ukaldi bat ixil eta geldiz hain errepikatua, nun erranen baitzen betierekotz geldi-arazia zuela lasterrago iragan-arazi nahi ukana zuen ephea. Argia zeru gelditik hain saminki zen erortzen nun nahiko baitzen haren oharpenetik ihes egin, eta ur geldiak berak, mamutxek loan ethengabe khexatzen baitzuten, agian asmuzko «maelstrom» zerbaiten ametsean, handitzen zuen ur gaineko tortotxak emana zautan nahasmena, lehia handian urean leinurutua zen zeruko eremu ixiletara bazeramala iduriz; abantzu zut murgiltzera zoala iduri zuen eta banindagon jadanik hea, haren ezagutzeko nituen gutiziaz eta beldurraz axolatu gabe, enuenez Zuan Andereari jakin-arazi behar arraina lotzen ari zela, - laster egin behar ukan nuenean hel egiten zautaten aita et' aitatziren gana joaiteko, ustegabetuak ni haier ez jarraikirik hetan abiatuak ziren alhorretara doan bidexkan. Ediren nuen elhorrixurien usainaz burumbetan. Hesiak bazegien aldareko moldean metatu loren ihaurduraren azpian gordetzen ziren halako kapera lerro jarraiki bat; haien behean, iguzkiak bazeman lurrean argi laur-kantoinkatu bat, berinadura bat zeharkatua ukan balu bezala; haien usain ona hedatzen zen Maria Birjinaren aldare baten aitzinean izan banintz bezain moldez leun eta xedatua, eta lore horrela aphainduetan bakoitzak bazadukan itxura ohar-gabe batean bere floka estamina dirdiratzukoa, garmoldeko zaineria mehe inharkatua, elizan khoro inguruko galeriaren eskupekoa edo berinetako arte-harria argizatzen dituztenak eta marrubi loren mami xuritan zabaltzen zirenak bezalakoa. Haien ondoan zenbat laño eta baserritarrak iduriko zuten basarrosek, hek ere iguzki betean alhorretako bide bera iganan zutenean, aste zenbaiten buruko, hats batek barreatzen dauen gorputx gorritzera doaneko zeta leunean!

Baina elhorrixurien aitzinean egon nindaitekeen, haien usain ezin ikusi geldiaz hats hartzen eta hartaz zer egin etzakien neure gogoaren aitzinera ekhartzen, galtzen, berraurkitzen, haien liliak horrara eta hunara alaitasun gazte batean igortzen zituen neurkadari batzen eta musikako artegune batzu iduriak ziren ustegabeko artegune batzueri, lillura bera eskaintzen zautaten gelditu gabe nasaitasun ezin agortu batean, baina barnago zilatzeraz utzi gabe, hala nola ehun aldiz errepikatzen diren aire batzu haien segetuan aitzinago jautsi baino lehen. Hetarik baztertzen nintzan ephe batez, gero hetara indar

berriago batzuekin hurbiltzeko. Hesiaren gibelean alhorretara buruz igaiten zen ezpondarano banindoan, liligorri galdu baten, auherki gibelera geldituak ziren nabar-lore batzuen ondotik, han-hemenka aphaintzen zutela barnea beteko daukoten tapizeria baten bazterrean argalik agertzen den baratze gai bat bezala; bekanak oraino, herri baten hurbiltzea jadanik egiten duten etxe baztertu batzuek bezala, iragartzen zautaten hartan gariak burrustatzen diren eremu neurrigabea, hedoiak kuxkulatzen; eta loregorri bakar baten ikus-teak xiriaren punttan bere garraren goititzen eta airera xaffa-arazten, oinalde urindu beltzaren gainetik, bihotza jo-arazten zautan, bidaiaz doanari bezala lur aphal batean lehenbiziko untzi ttipi bat badakusanean leihorreratua, bikeztatzaile batek antolatzen ari, eta oiuhu daginean, ikusi ere baino lehen: «Itsasoa!»

Gero berriz elhorrixurien aitzinera itzultzen nintzan ephe batez hertara so egitetik gelditu-eta hobeki ikusten ahalko direla uste den nagusi-lan haien aitzinera bezala, baina eskuez gordagailu bat egin nezakeen begietan hek baizik ez ukan nahiz, nitan sortzen zuten sendimendua ilun zagon eta nahasia, atheratzera ezin helduz eta hein lorer eraxkikitza. Haren argitzeko eninduten laguntzen, eta enezakeen bertze lore batzuer hori egin zezaten eska. Orduan, gure margolari hautetsiaren ganik ezagutzen ditugunetarik ezperdina den lan bat badakusagunean sendi dugun bozkario hura emaiten zautala, edo hartaz ordurano kraionazko ekhei bat baizik ezagutzen ezkinuen margazki baten aitzinean duguna ala pianoan baizik entzuna eztugun musika bat agertzen zaukunean orkeztra baten margoez jantzirik, aitatzik hel egin zautan eta Tansonville-ko hesia erakusten zautala, erran: «Hik elhorri xuriak maite baitituk, so egik apur bat elhorri gorraxta horri; pollita denez!»

Alabaina elhorria zen, baina gorraxta, xuriak baino ederragoa oraino. Hura ere bestetako aphainduran zen - egiazko besta bakarrak diren erlisio-neko bestetakoan, gertakizunezko burukeria batek eztituenaz geroz, besta mundutarrak bezala, hetako bereziki begiratua ezten edozein egunetan ezartzen, izaitze bestakoa ezten batean - baina aphaindura aberatsagoan oraino, ezen abarrean lotu loreak, batzu bertzen gainetik, edergailu gabeko gunerik batere ez uzteko moldez, artzain-makila «rococo» bat loreztatzen duten pumpula batzu bezala, «koloredunak» ziren, beraz gaitasun gorago batekoak,

Combray-ko edertasun ereduari jarraikiz, Plazako saldegiko edo Camus-en baitako prezioetarik estimatzen baldin bada, han bixkotxa gorraxtak kharriago baitziren. Nihauerek ere hautesten nuen krema gorraxtarekilako gasna, hartan marrubien lehertzea haizu utzia zautatena. Eta hain zuzen lore horiek gauza jangaien margoetarik bat edo edertze ezti bat hautetsia zaukoten besta handi bateko jantzi bati, horiek baitira, bere nagusitasunaren arrazoina eskaintzen dauetelakotz, argikienik ederrak iduri dutenak haurren begiendako eta, hortakotz, bertze margoek baino zerbait biziago eta naturalago badadukatenak beti haiendako, jeus etzutela haien gormandizako hitzemaiten hartua dutenean ere, eta etzirela josleak hautaturik izanak. Eta segurki, berehala senditua nuen, elhorri xurien aitzinean bezala baina miresmen gehiagorekin, etzela alegiaz, gizonaren egin-molde baten bidez, loretan xede bestakari bat emana, baina natura zela hortan mintzatua, bere baitarik, aldare baten-dako ari den baserritarsa saltzale baten lañotasunean, floka margoz eztegi eta «pompadour» molde probinziar bateko horiekin zuhaxka gehiegi betez. Adarren gainaldean, dentelazko paper batzuetan gorde untziekilako bertze hainbertze arrosa-ondo ttipi bezala, bestaburuetan hauen xirrita meheak dirdira-arazten baitziren aldarearen gainean, baziren mila lore-bottoin hitsagoak, ikustera uzten baitzituzten, erdi-zabalduz, harbizi gorraxtazko untzi baten zolan bezala, odol-margo gorri batzu, salatzen zutela, lorek ere baino gehiago, elhorriaren jite berezia, ezin ihardukia, hunek, ñiñikatzen ari zen, lilitzera zoan gune orotan, gorraxtaz baitzik ezpaitzezakeen egin. Hesian artekatua, baina etxean egoiteko astelegunez jantzi jenden erdian bestako zaian den nextato gazte bat bezain hartarik ezperdina, Mariaren ilabeteko jantzia, iduri baitzuen jadanik hartan zela, horrela zen dirdiran irriño batekin bere aphaindura frexko gorraxtan zuhaxka katoliko atsegingarria.

Hesiak ikustera usten zuen, parke barnean, bidexka bat bazterrak jazminez, gordetxez eta berengaz hauen artean julufreiek idekitzen baitzuten Kordobako larruaren gorraxta usainondu xahartuzko bere molsa hotxa, legarrean ureztatzeko hodi luze muskerrez margoztatu batek, bere itzulinguruetan, bazemala goiti, zilatua zen gunetarik, haien usainonak urztatzen zituen loren gainera, bere margo orotako eurixkaren aireztari xut irezlea. Bapatez, gelditu nintzan, enintzan higitu ahal izan, ikuspen bat eztenean bakar-

rik begiendako gertatzen den bezala, baina oharren barnagoak eskatzen di-
tuenean eta gure izaite osoaz jabetzen denean. Nexkatoño ile hori gorrail bat,
ibilalditik sartzen iduri zuela eta baratzegintzako jorrai bat eskuan, guri beha
zagon, begitarte orbain gorraxtez tittatu bat goitituz. Begi beltzak diridiran
zituen eta, orduan espainakien - ez geroztik ere ikasi - sendimen azkar baten
biltzen bere osagailu egiazkoetara, ezpainuen, erraiten den bezala, «ikertzeko
gogorik» aski bere margoetarik gogamen hutsaren berexteko, luzaz gero, ber-
riz gogoratzen zizatan aldi oroz, haien argiaren orhoitzapena heldu zizatan
berehala zeru urdin bizi batena bezala, ile horiduna zenaz geroz, hala nola
nun, begi beltzak ukan ezpalitu - horrek hanbat jaiten baitzuen ikusten zen
lehen aldian - ezpainintzan behar bada haren baitan, izan nintzan bezala,
begi urdinez berezikiago amorostua izanen.

Hari so nindagon, lehenik begien ordaria baizik ezten so harekin,
baina sentsuak oro haren leihora gurtzen direnarekin, antsian eta harrituak,
behatzen daukon gorputza nahi bailuke hunki, hartu, ereman eta harekin
arima; gero - hain nintzan beldur zekunda batetik bertzera aitatzik eta aitak,
nexaso hari ohartuz, urrun-araz nindezaten haien aitzinean apur bat laster
egin nezan erranez - bigarren so batekin, nahigabea othoizlaria, hura eni
ohar emaitera bortxatu nahi zuena, eta ene ezagutzera! Begi ñiñikak aitzinera
eta bazterrera eman zituen aitaz eta aitatziz ezagutzaren hartzeko, eta hortik
hartu zukeen ideia irrigarri girelakoa izan zatekeen, itzuli baitzen, eta, itxura
orobateko gutiesle batekin, bazterreratu haien begien menetik begitartearen
gerizatzeke; eta, hura ikusia ukan gabe urratsean jarraikiz hek aitzindua nin-
dutelaik, soa utzi zuen bere luzetasun osoan ene aldera joaiten, erran-nahi
berezirik gabe, ikusten ninduela iduri ukan gabe, baina geldirik eta irriño
gorde batekin, ezpainazakeen har, ikaspen onaz erakatsia zizatanaren araura,
gutiespen laidagarri baten seinaleztat baizik; eta eskuaz hasten zuen aldi be-
rean jestu behar ez bezalako bat, hartaz, ezagutzen ezten norbaiti publikoki
egina denean, enekin neraman ikustatezko hiztegi ttipiak ezpaitzaukon er-
ran-nahi bakar bat baizik emaiten, xede ozar batena.

- Goazen, Gilberte, haugi; zer ari hiz, oihukatu zuen mintzo samin
eta larde batekin ikusia enuen andere xuriz jantzi batek, hartarik zenbait
urratsetan jaun bat gotoinez jantzia eta ezagutzen enuena, burutik jalgitzen
zitzazkon begi batzu nitan itzatuak baitzaduzkan; eta irriñotik bapatez geldi-

tuz, nexkato gazteak bere jorraia hartu zuen eta urrundu zen ene aldera itzuli gabe, itxura obedient, ezin zilatu eta azpikari batekin.

Horrela zen ene ondotik iragan Gilberte izen hori, higo bat bezala emana, egun batez behar bada orai jende bilakatua zuenaren berraurkitzera utziko baininduen, etzelarik, ephe bat lehenago, itxura ezpaiko bat baizik. Horrela zen iragan, jazmin eta julufraien gainetik oihukatua, ureztatzeko muskerraren xortak bezala garratx eta hotx; betetzen zuela, margoztaten zeharkatua - eta berexten - zuen aire garbizko gunea, izendatzen zuen nexkaren biziko mixterioaz, harekin bizi ziren, bidaiatzen ziren jende zoridunendako; hedatzen zuela, elhorri gorraxtaren azpian, ene soingainaren heinean, haiek harekin, hartan sartuko enintzan haren biziko ezezagunarekin zuten etxekotasunaren mamia, enetako hain mingarri.

Ephe batez (urruntzen ari ginen bitartean aitatzik murmurikatzen zuelarik: «Zuan gaixo hori, zer aldia joka-arazten daukoten: joan-arazten da anderea bere Charlus-ekin bakarrik egon dadin, ezen hura da, ezagutu dut! Eta ttipi hori, itsuseria horren guziaren erdian!») hunek ihardetsi gabe Gilberte-ri ama mintzatua zizakon doinu garratzak utzia zautan iduripenak, norbaiti obeditzera bortxatua zela erakutsiz, etzela oro baino gorago, oinazea apur bat eztitu zautan, itxaropen zerbait eman eta maitasuna ttipitu. Baina lasterrez maitatsun hori nitan berriz handitu zen, ene bihotz aphalduak Gilberte-ren heinean jarri edo hau bere ganarano behehitu nahi zuen ihardokitze batez bezala. Maite nuen, urriki nuen haren laidatzeko, hari min egiteko eta nitaz orhoitzera bortxatzeko astia ez ukanik. Hain zizatan ederra iduritzen nun nahiko bainuen gibelera joan, soingainak goitituz hari oihiu egiteko: «Zein itsusia aurkitzen zitutan, irriegangarria, zein higun zitutan!» Bitartean urruntzen ari nintzan, betiko baneramala, lege natural ezin hautsi batzuen gatik ene motako haurrak hartara ezin hel daitezkeen zorionaren molde lehene-tako, nexka ile gorri baten itxura, larrua gorraxtaz ttittatua, jorrai bat eskuan eta irriz ari ene gana joaitera utziz behako luze azpikari eta erran nahirik etzuten batzu. Eta jadanik hark eta nik batean elhorri gorraxten azpian entzuna ginuen lekua insensatua zuen haren izenaren lillurak hartuko zuen, estaliko, usainonduko hari hurbilduko zizakon guzia, haren aitatxi-amatxiak, nihaurenek haien ezagutzeko zorion ezin errana ukana baitzuten, diru aldatzeko ofizio goren-gorena, hura bizi zen Parisko Champs-Élysées auzoalde mingarria.

«Léonie, erran zuen sartzean aitatzik, arestian gurekin nahi ukanen hindutan. Tansonville ehezakeen ezagun. Ausartu izan banintz, hainbat maite hitunan elhorri gorra eta abar bat moztuko naunan.» Aitatzik horrela khondatzen zaukon Léonie izabari gure ibilaldia, ala haren libertitzeko, ala etzelakotz haren jalgi-araztera heltzeko itxaropen oro galdua. Lehenago bada etxalde hori biziki maite zuen, eta bertzela ere Zuanen ikustaldiak ukanak zituen azkenak izanak ziren, jende guziari athea jadanik hesten zuelarik. Eta orai haren berri jakitera zetorreanean (ikustea oraino galdegiten zuen gure etxeko jende bakarria izaba zen), akhitua zela ihardets-arazten zaukon bezala, baina heldu den aldian igaitera utziko zuela, hala zuen arrats hartan erran: «Bai, aroa eder izanen den egun batez, karrosan parkeko atherano joanen niz.» Zintzoki zuen erraiten. Maite ukanen zuen Zuan eta Tansonvilleren berriz ikustea; baina hortaz zuen nahikaria aski zen gelditzen zizazkon indarrendako; egintzak gaindituko zituen. Zenbait aldiz eguraldiak gemenapur bat emaiten zaukon, jeikitzen zen, janzten; akhidura bertze gambarara hura iragan baino lehen hasten zen eta ohea eskatzen zuen. Harendako hasia zena - ohiki gertatzen den baino goizago bakarrik - heriora prestatzen ari den zahartasunaren utzidura hura zen, bere kuxkuaz inguratzen ari, ikus baitaiteke, berant irauten duten bizien buruan, gehienik elgar maitatu duten maitalen baitan ere, estekagailu izpiritukoenez lotu adixkidenean ere, urte berezi batetik elgar ikusteko behar den bidaiaren edo jalgitzearen egitetik gelditzen baitira, elgarri izkiriattetik, baitakite mundu huntan eztutela berriz elgar ikusiko. Izabak bazakikeen biziki ontsa Zuan etzuela berriz ikusiko, etxetik etzela gehiago atherako, baina alde bat barnean egoite hori aski errexat bilakatua zizakokeen, mingarriago, gure ustez, egin beharko zaukon arrazoinaren beraren gatik: barnean egoite hortara bortxartua baitzen egun oroz bere indarretan ohar zaitekeen ttipitzeaz eta, egintza bakoitzak, mugimendu bakoitzak, akhidura bat bilakatuz, oinaze bat ezpada, baitzemakon harendako jeus ez egiteari, bakartasunari, ixilari, atsedanaren eztitasun bizkortzale benedikatua.

Izaba etzen elhorri gorra eta abar ikusten izan; baina noiz nahi aita-mer galdez ari nindauen hea etzenez joanen, lehenago Tansonville-ra usu bazoanez, hek Zuan Andereñoaren aitamez eta aitatziki-amatziek mintza-arazi

nahiz, jainko batzu bezain handiak iduritzen baitzizaztan. Zuanen izen hori, enetako abantzu mithologiakoa bilakatua, gurasoekin elheka nindagolarik, haier entzun beharraz ahitua nindagon, enintzan nihaur haren erraitera menturatzen, baina baneramatzan Gilberte-ri eta haren etxekoer hurbiltzen ziren gaietara, hetaz ari zirenetara, hartarik urrunegi baztertua sendi enintzanetara; eta bapatez aita bortxatzen nuen, behazunez aitaxiren ofizioa hura baino lehen jadanik gure familian izana zela uste nuela alegia eginez, edo izaba Léonie-k ikusi nahi zuen elhorri gorraxtazko hesia herriko lur batean zela, nik erranaren zuzentzera, eni erraitera, nik nahi gabean bezala, bere baitarik bezala: «Baina ez, ofizio hori *Zuan*-en aitarena zukan, hesi hori *Zuan*-en parkekoa duk.» Orduan hatsa behar nuen berriz hartu, hanbat zuen izen horrek, nitan beti izkiriatua zen leku hartan jarriz, ithotzerano ene baitan haztatzen, entzuten nuen hartan bertze edozein baino beteagoa baitziduritan, gogoan, aitzinetik, ahozkatua nuen aldi guzietz phizutua zelakotz. Gurasoer eskatzera ausartua izanik ahalgetzen ninduen atsegin bat emaiten zautan, ezen atsegin hori hain zen handia nun eni emaiteko neke ainitz ukan behar-arazia baitzauen, ordaintzerik ere gabe, haiendako etzenaz geroz atsegin bat. Hortakotz solasaldia, xumetasunekin, itzul-arazten nuen. Arrangurarekin ere. Zuan izen hortan ezartzen nituen gauza xoragarri guziak, berredireiten nituen hek ahozkatzen zuteneko. Baziduritan bapatez orduan gurasoek etzezazketela ez sendi, ene ikuspegian jarriak gertatzen zirela, ene ametsak barkatzen, bereganatzen zituztela, eta garhaitu eta gaiztatu banitu bezalako zorigaitzean nintzan.

Urte hartan, aitamek, ohian baino apur bat lehenago, Parisera itzultzeko eguna hautatua ukan zutenean, abiatzeko goizean, argazkiarendako ileak kuxkulatuak baitzauztaten, oraino nehoiz ere ikusia enuen xapel bat ezarr-arazia eta balusazko bizkarreko bat jantz-arazia, amak, ene bila orotan ibilirik, aurkitu ninduen nigarretan Tansonville-ren ondoko maldaxkan, elhorrier goraintzien egiten, abar sistatzaleak ene besoez inguratuz, eta - hala nola aphaindura hutsalak ezin jasan dezazkeen tragediako printzesa bat, floka horiek guziak moldatuz ileak bekokian arthaz bilduak zautan esku nardagarriaren aldera esker gaitz - ezarriak zauttaten izurkaian eta xapel berriaren ohondikatzen. Ama etzen ene nigarrez hunkia izan, baina oihu

bat etzuen atxiki ahal ukan buruko lehertuaren eta bizkarreko andeatuaren ikustean. Enuen entzun: «Oi ene gaixo elhorriño maiteak, nion nigarretan, eninduzuen zuek griñatu nahiko, joaitera bortxatuko. Zuek ehoiz eztautazue bihotzminik eman! Hartakotz beti maitatuko zituztet.» Eta, nigarrak xukatuz, hitzemaiten nauen, handitua izanen nintzanean, enintzala bertze gizonek zeramaten bizi eroari jarraikiko eta, Parisen ere, primaderako egunetan, ikustaldi egitera eta ezteuskeria batzuen entzutera joan orde, baserrira abiatuko nintzala lehenbiziko elhorrien ikustera.

Behin alhorretaratuz geroz, etziren gehiago uzten Méséglise-ko aldera egiten zen ibilaldi gainerateko guzian. Beti-beti bazabiltzeen, ibilkari ezin ikusi bat bezala, enetako Combray-ko jeinu berezia zen haizea. Urte bakoitz, gure jiteko egunean, zinez Combray-n nintzala senditzeko, banindoan haren berraurkitzera ilderreketan lasterrez ibilki, ni haren gibeletik lasterr-araziz. Haizea beti nor beraren aldetik zen Méséglise-ko aldean, lekoetan gaindi malkhartasunik batere aurkitzen eztuen ibar goratu hartan. Banakien Zuan Andereñoa Laon aldera usu bazoala egun zenbaitendako eta, nahiz lekoa zenbaitetan zen, urruntasuna edozein trabarik ez izaiteaz ordaindua baitzen, noiz ere, arratsalde beroetan, hats ber bat bainakusan, azken hedoiertzetik jina, gari urrunduena gurr-arazten, eremu neurrigabe guzian uhain bat bezala hedatzen eta etzatera jiten, murmurikan eta ephel, astorki eta hirusten erdira, ene oinetan, iduri zuen biek elgarrena ginuen ibar harek hurbiltzen, batzen ginituela; uste nuen hats hura haren ondotik iragana zela, haren mezu zenbait zautala ahapetik erraiten nik hartu ahal ukan gabe, eta iragaitean besarkatzen nuen. Bazen ezkerretik Champieu (*Campus Pagani*, erreterak zionaz) izeneko herrixka bat. Eskun, jadanik ikusten ziren Saint-André-des-Champs-ko ezkiladorre zizelkatu baserritarak, berenaz xorrotx, ezkatatuak, hobixkaz artekatuak, gandoskatuak, horitzen ari eta pikortsu bi galburu bezala.

Artegune berdinetan, sagarrondoek, bertze edozein udare orstoekin ezin nahas daitezkeen bere orstoen aphaindura paregabekoaren erdian, idikitzen zituzten satin xurizko loreki zabalak edo dilindatzen botoin gorrituen floka herabeak. Méséglise-ko aldean niz lehen aldikotz ohartu sagarrondoek lur iguzkituan badagiten itzal biribilari, eta ere iguzkiak etzatean zeharka ors-

toen azpian josten dituen zetazko izpi ezin hunkier, ikusten baintuen aitak bere makilaz mozten behin ere makurr-arazi gabe.

Batzuetan arrastiriko zeruan ilargi xuria bazoan hedoi bat bezala, gordeka, distirarik gabe, hala nola jokatzeko ordua eztuen antzokiko jokarisa bat eta, salatik, hiriko jantzian, bere laguner so dagoena ephe batez, ixilka, hartaz axola daiten ez nahiz. Haren iduriaren berraurkitzea maite nuen margazki edo liburu batzuetan, baina ederland horiek - lehenbiziko urtetan bederen, Bloch-ek ene begiak eta gogoia harmonia xotilago batzuer jarriak ukan zituen baino lehen - hetan gaurregun ilargia eder idurituko zizatanetarik eta orduan ezagunen enunetarik ontsa bertzelakoak ziren. Saintine-ren elhaberri bat zen, behazunez, hartan garbiki igitai bat zeruan agertzen duen Gleyre-ren eskualde margazkitu bat, nihauren iduripenak ziren bezala lan lañoki osatu gabeko horietarik bat eta amatxiren ahizpak maite nituela ikusteaz sumintzen zirenetarik. Uste zuten haurren aitzinean ezarri behar direla, lehenik hek maitatuz baitute gostua erakutsiko, adineratu ondoan behin betikotz miresten diren ederlandak. Behar bada iduri baitzizaien ezthetikan balio dutenak begi ideki batek ikustea baizik egin eztezakeen egiazko gauza batzu bezalakoak direla, nork bere bihotzean haien hein berekoak emeki ondu behar ukan gabe.

Méséglise-ko aldean zen bizi Vinteuil Jauna, Montjouvain-en, phutzu handi baten bazterrean jarri etxe bat bizkarrez aldapa berrotsu bati. Bidean hartakotz usu gurutzatzen zen haren alaba, karrosa ttipi estalgi gabeko bat bazeramala laster handitan. Urte batetik hara etzen bakarrik aurkitzen, baina adin gehiagoko adixkide andere batekin, herrian aiphamen gaixtoa zuena eta egun batez alde bat Monjouvain-en jarri zena. Bazioten: «Vinteuil Jaun gaizo hark behar dua maitasunak itsutua izan zer dioten ez ohartzeko, eta onhartzeko, hura *behar ezten* hitz batez gaitzitzen dena, alaba etxean horrelako emazte batekin bizi dakidion! Emazte nagusi bat dela erraiten du, bihotz handikoa, eta musikako dohain ohigabekoak ukanen zituela landuak ukan balitu. Segur izan daiteke haren alabarekin eztela musikaz ari.» Vinteuil Jaunak hori zion; ohargarri da, alabaina, jende batek zenbat miresmen sustatzen duen beti bere gaitasun moralendako, haragiko harremanak harekin dituen bertze edozein jenderen gurasoen baitan. Gorputzeko maitasunak, hain

zuzengabeki salatua, hanbatetarano du izaite oro oneziako, bere buruaren uzteko dituen den gutieneko zati guzieren erakustera bortxatzen, nun inguru hurbilenekoen begietarano distirutzen baitute. Percepiet medikuak, zituen mintzo lodiak eta bekain handiek uzten baitzuten nahi zuen bezainbat itxuraz hala etzen fede gaixtokoaren egitera, oies ongiegile bezala zuen aiphamen ezin khordokatu eta ez merezitua jeusetan irriskatu gabe, bazakien erretorari eta jende guziari nigarrerano irri egin-arazten, doinu garratz batekin erranez: «Ha bada! bere adixkidearekin musikan ari omen da, Vinteuil Andereñoa. Badiduri horrek ustegabetzen zituztela. Nik eztakit. Vinteuil aitak dauta hori oraino atzo errana. Orogen buruan, musikaren maitatzeko dretxoan da bada, nexka hori. Eniz haurren baitan edergintzarako deiari kontra egiteko, ni. Vinteuil ere ez, iduri duenaz. Eta gero hura ere musikan ari da alabaren adixkidearekin. Ha! *zakrizti*, musikatik egiten da etxeño hartan. Baina zer duzue irriz? musika sobera egiten dute ere, jende horiek. Joan den egunean Vinteuil aita hilerri ondoan batu dut. Zangoen gainean etzagokeen.»

Guk bezala aro hetan Vinteuil Jauna ikusi zutenek ezagutzen zituen jendetarik itzuri egiten, ikusten zituenean haietarik baztertzen, ilabete zenbaitetan zahartzen, bere atsekabeen murgiltzen, alabaren zoriona zuzenki etzuen indar ororen ezin egina bilakatzen, egun osoen iragaiten emaztearen hil-hobiaren aitzinean, etzen neke izanen atsekabez hiltzen ari zela hartzea, eta bazabiltzan erran-merraner etzela ohartzen asmatzea. Ezagutzen zituen, behar bada ere sinesten. Eztateke jende bat, bertute hain handikoa izan dadila, gertaldien batzuntasunak ereman ahal eztezana egun batez baitezpadakoenik kondenatzen duen bizioaren etxekotasunean bizitzera - hori osoki ezagutu gabe bizkitartean, haren hunkitzeko eta oinazka-arazteko hartzen duen gertakari berezietako itxuraren azpian: arrats batez elhe bitxi batzu, egonara ezin argitua, haren maitatzeko bertzela hainbertze arrazoin baduen norbaiten baitan. Baina Vinteuil bezalako jende batendako bertze baten baino ontsa bihotzmin gehiago sartzen zatekeen, nola nahi bizi direnena bai-zik eztela zuzengazki uste den izanara hetarik batera etsitzean. Gertatzen direnak eztira gure usteak bizi diren munduan sartzen, hauk eztituzte sorrarazi, eztituzte desegiten; gezurtatze iraunkorrenez jo dezakete ahul-arazi gabe, eta familia batean elgarri jarrikitzen diren zorigaitz ala eritasun erauntsi batek eztu Jainkoaren oneziaz edo bere medikuaren antzeaz dudan ezarriko.

Baina Vinteuil Jaunak alaba eta bere burua gogoan zituenean munduaren ikuspegitik, zuten aiphamenarenetik, orotako estimuan zadukaten lerroan harekin bere burua ezarri nahi zuenean, orduan gizarte maileko jujamendu hori, zuzen-zuzena jasaiten zuen gehienik etsai izanen zizakon Combray-ko jende batek egina ukanen zuen bezala: bere burua bazakusan alabarekin azken ziloratua, eta horren gatik haren egon-moldek ukanak zizutzen bazuela guti, bera baino gorago ziren eta beheretik ikusten zituenen (bera baino ontsa beherago izanik ere ordu arteo) alderako lañotasun hura, errespetu hura, hetarano igaitearen bilatzeko nahikaria hura, erortze ororen ondorio abantzu bortxazkoa. Zuanekin Combray-ko karrika batean ginabiltzan egun batez, bertze batetik zetorren Vinteuil Jauna sobera bapatez gure aitzinean gertatua zen gutarik baztertzeo astiaren ukaiteko, eta Zuan - bere moraleko aitzin-gogamen guzien hondamenaren erdian, urkoaren desohorean haren aldera onginahiz artzeko arrazoin bat baizik aurkitzen ez-tuen gizon mundutarraren urguluzko garitatearekin, horren lekokutasunek are gehiago baitute emaiten dituenaren bere alderako maitasuna kilikatzen nun ukaiten dituenak baino baliosagoak senditzen baititu - luzaz Vinteuil Jaunarekin solastatua zen, elherik etzaukolarik ordu arteo emaiten, eta gu utzi baino lehen galdegina zaukon hea etzuen ez alaba utziko egun batez Tansonville-en jostatzerara. Bi urte lehenago Vinteuil Jauna suminduko zuen gomita zen, baina, orai, sendimendu hain esker onezkoek betetzen zuena nun uste baitzuen horien gatik onhartzeko ausartziaren ez ukaitera bortxatua zela. Zuanen maitagarritasuna haren alabaren aldera, berenaz laguntza hain ohoragarria eta atsegingarria iduritzen zizakon nun uste baitzuen hobe zela behar bada ez hartaz baliatzea, bere baitan atxikiko zuen goxotasun huts-hutsaren ukaitekotan.

- Zer gizon ezin hobea, erran zaukun, Zuanek utziak ukan ginituenean, burjesa izpiritudun eta pollit batzu dukesa baten lillura-pean eta errespetuan, izanik ere itsusia eta zozoa, atxikitzen dituen adei suhar berarekin. Zer gizon ezin hobea! Zer zorigaitza ezkontza hoin behar ez bezalakoa egina baitu!

Eta orduan, hainbat dira jende zintzoenak elhezuriz nahasiak eta hain dute norbaitekin solasean daudenean huntaz duten aburua uzten eta hor ezten orduko erakusten, aitamek Vinteuil Jaunarekin batean deitor-

tu zuten Zuanen ezkontza, beharbezalakotasunezko lege batzuen izenean, iduriz entzutera uzten zutela (harekin batean hel egiten zaukoten arrazoin hortaz beraz, gogara bereko jende on batzuek bezala) Montjouvain-en ezer etzela horien kontra eginik izana. Vinteuil Jaunak etzuen alaba Zuanen etxera igorri. Eta hau izan zen hortaz urriki ukan zuen lehenbizikoa. Ezen, Vinteuil utzi berria zuen aldi oroz, orhoitzen zen xehetasun bat galdegin behar zaukola haren izen bera zuen norbaitez, haren ahaide bat, uste zuenaz. Eta bere baitan ontsa hitzemana zuen aldi hartan etzuela erran behar zaukona ahatziko, Vinteuil Jaunak alaba Tansonville-ra igorriko zuenean.

Méséglise alderako ibilaldia Combray inguruan egiten ginuen bietarik laburrena zen eta hortakotz aro dudazkoetako begiratzen ginuen; Méséglise aldean aroa aski euritsu zen eta nehoiz ere ezkinuen Roussainville-ko oihanen muga begietarik uzten haren azpi tinkian atherian emaiten ahalko baiginen.

Iguzkia ainitzetan bazterrak horitzen zauzkon arraultzarako hedoi baten gibelean gordetzen zen. Dirdira - baina ez argia - ekhendua zizakon bizi orok hartan gelditua iduri zuen baserriari, Roussainville-ko herrixkak zerua zizelkatzen zuen batean xorroxtasun eta burutze lehegarri batekin bere izkina xurien goiti-beheititzea. Haize arin batek aira-arazten zuen urrunago erortzen zen bele bat, eta, zuritzera zoan zeruari kontra, oihanetako urrunak urdinago iduri zuen, hala nola egoitza zaharretako arte-oholak aphaintzen dituzten margo bereko ezperdintasun hek.

Baina bertze batzuetan betordegileak aitzindegian ezarria zuen kaputxinak mehatxatuak ginituen euria hasten zen; ur xortak, oro betan airatzen diren xori joaile batzu iduri, zerutik lerro tinki-tinkietan jausten ziren. Ez-tira elgarretarik berexten, ez bere jausteko lasterrean nora nahi joaiten, baina bakoitzak bere lekua datxikala ondotik heldu dena bereganatzen du eta zerua ainharen abiatzean baino ilunduago da. Oihanetan gerizatzen ginen. Bidaia bururatua zutela iduri zutenean, xorta batzu, ahulago, emekiago, heldu ziren oraino. Baina atherbetik berriz jalgitzen ginen, ezen xortak orstailtan gustatzen dira, eta lurra jadanik idortuxea zen hetarik zenbaitek orstoen zainetan jostatzen berantzen zuelarik, eta, punttan dilindan, iguzkira dirdiran, bapatez abarraren gain-gainetik lerratzeraz uzten zelarik eta gure sudurrera erortzen.

Ainitzetan ere atherbera baginoazen, harrizko saildu eta patriarkekin nahasirik Saint-André-des-Champs-ko kalostrapera. Zein frantzesa zen eliza hori! Athe gainean, sailduak, errege-zaldunak lirio bat eskuan, eztei eta ehortzetako agerraldi batzu han erakutsiak ziren Françoise-ren ariman eginak izan zaitezkeen moldean. Zizelkariak emanak zituen ere Ariztotele 'ta Virgilio-rekin ikusteko zuten gertakari batzu, Françoise sukaldean San Luisez berak ezaguna ukan balu bezala gogotik mintzatzen zen moldean, eta gehienetan gutiago «zuzenak» ziren aitaxi-amatxiek hura erkidatuz ahalge emaiteko. Senditzen zen edergile ertarotarrak eta Ertaroko laborarisak (XIX-garren mendean oraino bizi) zituzten gogamenak ixtorio zahar edo girixtinoaz, zuzentasun gabe bezainbat lañotasunek ohargarri egiten zituztenak, etzaduzkatela liburuatarik, baina ohitza aldi berean zahar eta zuzen, ethengabe, ahozko, moldez aldatu, ezin ezagun eta bizi batetik. Saint-André-des-Champs-ko zizeldura gothikoan ezagutzen nuen Combray-ko bertze norbait, Theodore gaztea zen, Camus-baitako mutila. Françoise-ek bertzela ere hain ontsa zuen hartan herritar bat eta adin bereko bat ezagutzen nun, izaba Léonie eriegi zenean Françoise-ek berak ohean itzuli ahal ukaiteko, jargiara eremaiteko, sukalde neskatoa igaitera utzi baino lehen izabaz bere buruaren «ontsa ikus-araztera», Theodore-ri hel egiten baitzaukon. Mutiko hori bada, hain ihizi gaitzarendako zadukatena eta arrazoinekin, hainbatetarano zen Saint-André-des-Champs aphaindua zuen gogoaz betea eta bereziki Françoise-ek «eri gaixoer», «etxekandere gaixoari» zor zizezteela uste zuen errespetuzko sendimenduz betea, nun bere buhurdikoa izabaren buruaren goititzeko zizeldura aphaletako aingeruñoen aurpegi laño eta gartsua baitzuen, lehiatzen, ezko bat eskuan, Birijina aldixartzera doanaren inguruan, harri zizelkatuzko begitarteak, hauts-kolore 'ta hasik, oihanak neguan diren bezala, lokhartze bat baizik izan ezpalire bezala, gelditze bat baizik, bizian jende xehearen mila eta mila begitartetan berloratzera prest, Theodore-rena bezala adeitsu eta maltzur, sagar ondu baten gorriaz argiztaturik. Ez aldiz aingeruño horien moldean harrian ezarria, baina kalostrapetik berex, soinaraz gizona baino gehiago, oinarri batean zutik, lur hezean oinen ezartzetik begira lezan alketx batean bezala, emazte saildu bat bazagon matelak biribil, bulharra gogor eta zaiako oihala hantzen zuena mulko ondu batek bezala zurdazko

zorro batean, bekokia hertsu, sudurra labur eta erne, begi ñiñikak sartuak, herrialdeko laborarisen itxura sendo, sorgor, bihoztunean. Egite hori, giza-iduriari bazemola bilatua enaukon eztitasun bat, usu baieztatzen zuen baserriko neska zenbaitek, gu bezala atherbera ethorria, haren hor izaiteak, orstail zizelkatuen ondoan jinak diren odol-belar orstoak bezala, iduri baitzuen, naturaren aitzinean ezartzearen bidez, behar zuela ederlanaren egitasuna estimatu. Gure aitzinean, urrun, lur hitzemana ala madarikatua, Roussainville-ek, haren harresien barnera ezpainiz behin ere izan, Roussainville-ek, noiz, euria guretako jadanik gelditua zenean, zigortua jarraikitzen zuen, Bibliako herrixka bat bezala, haren biziliarren egoitzak zeharka azotatzen zituzten ekaitzaren gezi guziez, noiz ere, jadanik Jainko Aitak barkatua zaukon haren gana jauntsu-arazten baitzituen, luzetasunez ezperdin, aldareko iguzki saindu baten arraiak iduri, iguzki berragertuaren urrezko adar listunak.

Zenbait aldiz aroa osoki gaiztatua zen, sartu behar zen eta etxean hetsirik egon. Han hemenka urrun ilunak eta urak itsasoa iduri-arazten zuten baserrian, etxe bakartu batzuek, gauan murgildua zen mendixka baten aldapetan lotuak, belak bildurik gau guziko zabalean geldirik dauden untzi ttipi batzuek bezala argitzen zuten. Baina berdin zen euria, berdin ekaitza! Udan aro gaitza ezta azpiko eguraldi geldiaren omere iragankor bat baizik, azaleko bat, neguko eguraldi aldakor eta ubiletik ontsa bertzea; eta, aldiz, lurrean jarririk, han gogortu baita euria hetan xortaka daitekeen orstailetan hauen zorion iraunkorra irriskuan ezarri gabe, goitituak ditu sasoin guziko, herriko karriketarano, etxe ta baratzeetako harresietarano, zeta ubel edo xurizko bere ikurrinak. Saloin ttipian jarririk, irakurriz barazkal-orduaren aiduru bainindagon han, ura entzuten nuen gure itsas-gaztenondoetarik xortaka erortzen, baina erauntsiak etzituela orstoak bernizatzen baizik banakien eta hor egonen zirela hitzemaitzen zutela, udaren lekuko batzu bezala, gau euritsu osoan, eguraldiari jarraipenaren segurtatzen; bihar euria izanik ere, Tansonville-ko heskailu xuriaren gainetik, bihotz moldeko orstoño batzu, ainitz, izurtuko zirela; eta bihotzminik gabe nuen Perchamps-etako karrikako zuharra ikusten ekaitzari othoitz eta agur etsitu batzuetan ari; bihotzminik gabe baratze zolan entzuten orzantzaren azken burumbak liletan urrungatzen.

Aroa goizetik gaitza baldin bazen, gurasoek ibilaldia uzten zuten eta enintzan atheratzen. Baina gero hartu nuen, egun horietan, bakarrik Méséglise-la-Vineuse aldera ibiltzeko ohidura, izaba Léonie-ren ondoriotasuneko Combray-ra jin behar ukan ginuen larrazkenean, hila baitzen azkenean, triunfan ezarr-araziz aldi berean zuen osabide ahultzaleak hil-araziko zuela ziotenak, eta ez gutiago bazuela ez idurimenezko baina gorputzeko eritasun bat beti errana zutenak, hori sinesten etzutenek beharko baitzuten egia hortaratu hil-araziko zuenean. Izabaren eritasunak iraun zuen azken hamabortz egunetan, Françoise etzizakon ephe batez baztertu, etzen buluzi, nehor etzuen hari artha baten emaitera utzi, eta etzen haren gorputzetik baztertu ehortzia izan zenean baizik. Orduan gogoan hartu ginuen Françoise-ek izabaren elhe gaixtoez, aieruez, haserrez ukana zuen halako beldur hark haren baitan handi-arazia zuela guk herrarendako hartua ginuen sendimendu bat, adeia eta maitasuna baizik etzena. Deliberatzen zuena aitzinetik ezin jakina zen haren egiazko etxekanderea, nekez huts egin-araziak ziren amarruekilakoa, bihotz on errex gurituarekilakoa, haren erregina, mixteriozko, ahal osoko monarka zendua zen. Haren ondoan guti balio ginuen guk. Crombray-n lanarten iragaitera jiten hasiak ginen aro hura, Françoise-ren begietan izabak bezainbat balio ginuen hura urrun zen. Larrazken hartan, baitezpadako urrats guzien egiten osoki hartuak, notariekin eta etxetiarrekin solasetan, aitamek, astirik guti ukanez aroak bertzalde kontra egiten zauen atheraldietako, ohidura hartu zuten ene uzteko hek gabe Méséglise-ko aldean ibiltzera, euritik begiratzen ninduen estalgi handi batez inguraturik, eta soingainera are gehiago gogotik emaiten nuena nun sendi bainuen haren marra eskoziarrek Françoise gaitzitzen zutela, haren gogoan ezpaitzen margoak doluarekin ezer ikustekorik eztuela sarr-araziko, eta izabaren heriotzeaz ginuen bihotzmina guti gustatzen baitzizakon, herioetako aphairu handirik ezpaiginuen eman, ez mintzo doinu berezi bat hartzen hartaz mintzatzeko, eta ere batzuetan ahapetik kantuz ari bainintzan. Segur niz liburu batean - eta horrela Françoise bezala nintzan - *Errolanen kantua*-ren eta Saint-André-des-Champs-en arauko doluaren gogamen hori gustukoa izanen zizatala. Baina Françoise ene ondoan zen orduko, debru batek sustatzen ninduen haserre izan zadin agiantzatzera, den estakuru ttipiena hartzen nuen hari

erraiteko izabaren urrikitan nintzala emazte on bat zelakotz, irrigarritasunak ukanik ere, baina ez batere ene izaba zelakotz, izaba izana ahalko zizatala eta hastiagarri idurituko, eta haren heriotzeak bihotzminik batere ez emanen, liburu batean zozo idurituko zizaztan elheak.

Orduan Françoise, poeta bat bezala grifñazko, familiako orhoitzapenezko gogoeta nahasiez betea, ene theorier zer erantzun ez jakiteaz desenkusatzan baldin bazen eta baldin bazion: «Nola erran eztakit», aithormen hortan irabazle nintzan Percepied medikuarendako gai zen zentzu on erkaiztun eta basa batekin; eta gaineratzen bazuen: «Hala ere *ahaidekiatik* zen, beti gelditzen da *ahaidekiari* zor den errespetua», soingainak goititzen nituen eta banion neure baitan: «Ontsa ona niz horren gaizki mintzo den ez-ikasi batekin eztabadatzeko», horrela Françoise-ren jujatzeko gizon batzuen ikuspegi hertsia hartuz, haiek gehienik gutiesten dituztenak gogameneko alderdigabeen biziki gai baitira haiek bezala egiteko, biziko erakustaldi arruntetarik bat jokatzan dutenean.

Larrazken hartako ene ibilaldiak are gehiago gozagarriak izan ziren nun liburu batean iragan oren luze batzuen ondotik egiten baintuen. Goiz guzia salan irakurtzen emanik, estalgia bizkarrera botatuz, atheratzen nintzan: ene soinak, luzaz geldirik egon behar ukanik baina lekuan berean bizitasun eta lehia metatuez betea, behar zituen gero, joaitera uzten den ziba batek bezala, alde orotara hustu. Etxetako harresiek, Tansonville-ko hesiak, Roussainville-ko oihaneko zuhatzek, Tansonville hetara bizkarrez dagon berroek, euritako edo makila ukaldiak ukaiten zituzten, bozkariozko oihuak entzuten, etzirelarik, batzu eta bertzeak, berotzen ninduten gogoeta nahasi batzu baizik, argian atsedenera heldu eztirenak, hautetsi baitaukote, argipen urru eta neke bati, berehalako jalgibide batera baztertze errexago baten atsegina. Senditu dugunaren delako itzulpen gehienek ezkituzte horrela hetaz arintzen baizik, hura gutarik athera-araziz ezagutzea ikasten eztaukun molde ilun batean. Méséglise-ko aldeari zor daukotanaz khonduaren egitera entseatzen nizanean, eta haien gune ustegabekoa edo sustatzale beharrezkoa izan zen aurkitze xumerenen, orhoit niz larrazken hartan nintzala, ibilaldi hetarik batean, Montjouvain gerizatzen duen muga berrotsuaren ondoan, lehen aldikotz gure iduripenen eta haiek ohiki baderakutsatenaren arteko ezberdintasun hortaz joa izan. Haien kontra alegeraki gudukatua nintzan oren

bat euri eta haizeren ondotik, Montjouvain-go phutzuaren hegira heltzen ari nintzalarik, Vinteuil Jaunaren baratzegeileak bere tresnak hartan ezartzen zituen etxola teilaz estaliaren aitzinean, iguzkia berriz agertua baizik etzen, eta haren urreria erauntsiaz ikuziek berririk dirdiratzten zuten zeruan, zuhatzetan, etxolako harresietan, oilo bat gainean zabilakon haren teilazko hegaztegi oraino bustian. Haizeak ufan errara luza-arazten zituen harresi bazterretan jinak ziren belarrak eta oiloaren lumetako bixarrak, batzu eta bertzeak ufaren indar arau uzten baitziren bere luzetasuneko punttetarano leuntzera, gauza geldia eta arinen utziarekin. Teilazko hegaztegiak bazegien phutzuan, iguzkiaren berrizultzeak mirailatzen zuenean, nabardura gorra bat, oraino nehoiz ohartua enindakona. Eta urean nola harresi aitzinean ikusiz irriño hits bat zeruko irriñoari ihardesten, egin nuen ene gar guziarekin euritako berriz hetsia goitituz: «Jes, jes, jes, jes!» Baina aldi berean senditu nuen ene eginbidea etzela hitz bitxi horietan gelditzea baina ene xoramenean argikiago ikustea.

Eta ordu hartan nuen oraino ikasi - baziragan laborari bati esker, itxuraz jadanik aski omore gaixtoan, gehiago hala izan baitzen ene euritakoa begitartean ukaiter zuenan, eta «aro ederra, eztea hala, eta ibiltzea goxo» ene erranari berorik gabe ihardetsi zuenean - eztirela sendi diren guziak, gizon guzien baitan, aldi berean eta aitzinetik ordenatu moldean jarrikitzen. Berantago, irakutze doi bat luze batek solastatzeko omorean ezarria ninduen aldi oroz, mintzatu nahi gorria nindakon laguna, hain zuzen solaseko atseginean egon berria zen eta nahi zuen orai geldirik utzia izan zadin. Aitamak maitasunekin gogoan ukanak baldin banituen eta haier atsegin emaiteko delibero zuhurrenak eta egokienak hartuak, dembora bera nik ahatzia nuen xoxokeria baten ikasten emana zuten eta haien basarkatzera abiatzen ari nintzanean lardeki erasiatzen ninduten.

Batzuetan bakartasunak emaiten zautan gogo-berotzeari, bertze bat gaineratzen zizakon hartarik argiki berexten enakiena, besoetan tinka nezakeen laborarisa baten ene aitzinean jalgitzen ikusteko gutiziak emana. Bapatean sortua, eta egina zuen arrazoinari zuzen erakartzeko astirik ukan gabe, gogoeta biziki ezperdinen erdian, etzizatan berekin zuen atsegina horiek emanen zautatenaren mail gorena baizik iduritzen. Merezimendu bat gehiago banemon ordu hartan ene gogoan zen guziari, urean teilazko he-

gaztegiaren dirdira gorraxtari, aspaldinadik hara joan gogo nuen Roussainville-ko herrixkari, haren oihaneko zuhatzer, elizako ezkiladorreari, bakarrik gutizigarriago iduri-arazten zauzta bihotz-hunkitze berri harekin, uste bainuen hek zutela eman-arazten, eta baitzidurien haien gana lasterrago eremaiten ninduela ene bela aire indartsuago, ez ezagun eta aldeko batez hantzen zuenean. Baina emazte bat ager zadineko gutizia horrek naturaren goxatasunak berogarriagoko zerbaitez handitzen baldin bazituen, goxatasun horiek, ordainez, zabaltzen zuten emaztearenak hertsiegirik ukanen zuen hura. Baziduritan zuhatzen edertasuna, harena zela oraino, eta eskualde horien arima, Roussainville-ko herrixkarena, urte hartan irakurtzen nituen liburuena, haren musuak emanen zautala; eta ene asmamena atsegin-nahiarekin batean berriz indartuz, atsegin-nahia asmameneko eremu orotara hedatuz, ene gutiziak mugarik etzuen gehiago. Ezen ere - naturaren erdiko ametseria horietan gertatzen den bezala, orduan, ohiduraren indarra gelditua izanez, gure gogamen hutsak baztertuak, barnatuki sinesten baitugu hartan giren lekuaren berezitasunean, bere baitarik duen bizian - ene gutiziak hel egiten zaukon emazte iragailea baitziduritan ez orotako edozeinen itxura bat, emaztea, baina lurraren emaitza baitezpadako naturala.

Ezen ordu hartan nihaur etzena oro, lurra eta izaiteak, baliosagotzat nadukan, beharrezkoago, gizon adinekoer iduri zaien baino izaitez egiazkoago. Eta lurra eta izaiteak, enituen berexten. Banuen Méséglise-ko edo Roussainville-ko laborarisa baten, Balbec-eko arraintzarisa baten gutizia, Méséglise-ren et Balbec-en gutizia nuen bezala. Emaiten ahal zautaten atsegina gutiago egiazkoa idurituko zizatan, enuen gehiago hartan sinesterik ukanen, ezpanitu nahitara haren gerta-moldeak aldatu. Balbec-eko arraintzarisa baten edo Méséglise-ko laborarisa baten ezagutzea Parisen, ondartzean aurkituak ukanen enituen maxkor batzuen ukaitea izanen zen, oihanetan hatzemana ukanen enuen iratze batena, emazteak emanen zautan atseginari ene idurimenak haien erdian inguratua zuen atsegin guzien moztea. Baina Roussainville-ko oihanean horrela barat-hunatean ibiltzea besarkatzeko laborarisarik ukan gabe, oihan horien balio gordearen, barneko edertasunaren ez ezagutzea zen. Orstailez estalia baizik enakusan neska hura, lekuko landare bat bezala zen bera enetako, bertzeak baino mota goragokoa bakarrik,

zuen egiturak herriaren barneko gostuari haietan baino hurbilagotzera uzten zuena. Are errexago nezakeen hori sinets (eta haien bidez hortara hel-araziko ninduen laztanak mota berezi batekoak izanen zirela eta emanen zautaten atsegin hartaz bertze baten ganik ezaguna ahalko enuela), nun atsegin hori, ukanak izan diren emazte guzietarik gogoaz berezia ezten adinean bainintzan oraino luzazko, eztelarik oraino atsegin beti berdin baten tresna aldizkakor batzu bezala harr-arazten dituen gogamen orotako batera aphurtua. Izaiterik ere eztu, bakar, berex eta gogoaz erranik, emazte bati hurbiltzean bilatzen den helburua bezala, aitzinetik sendi den nahasmena emaiten duena bezala. Doi-doia da ukanen den atsegin bat bezala gogoan hartzen; haren gozagarritasuna dela erraiten zako, izaitekotz; ezpaitago nor bere burua gogoan, ezpaita nor bere baitarik jalgitzea baizik bilatzen. Nahasiki igurikatua, han egonki eta gordea, egiten den orduan hainbateko goren-gorenera baderamatza so ezti batzuek bai gure ondoan denaren musuek emaiten dauzkuten bertze atseginak, nun bereziki guhauri iduritzen baitzauku gure eskerronaren olde mota bat bezala gure lagunaren bihotz onarendako eta guretako duen maitasun hautatu hunkigarriarendako, hetaz betetzen gituen ongieginetarik, zorionetik baitugu neurtzen.

Ondikotz, debaldetan nuen Roussainville-ko jaudorrea othoizten, debaldetan naukon herri hartako haur zenbait ene ondora igorr-arraz zezan eskatzen, neure lehenbiziko gutizien ukaile segetutzukoari bezala, Combray-ko gure etxearen gainetik, lirio usaina zuen bulego ttipitik, enaukonean leiho erdi-idekiko berinaren erdian dorrea baizik ikusten; bitartean ari nintzalarik, leku berri baten ikherraldia hasten duen bidaiariaren edo bere buruaz egi-tera doan etsituaren duda-muda kuraizkoetan, bihotzak huts egiter zautala, neure baitan bide ezezagun eta hilgarria uste nuen baten idekitzen, ene gana gurtzen ziren basa-kazizaren orstoen gainean karakolarena bezalako leka natural baten hatza agertzen zenerano. Auherretan othoizten nuen orai. Auherretan, eremua ene ikuspenaren hedaduran banatxikala, handik emazte bat ekharr-arazi nahiko zuen soez ekhortzen nuen. Saint-André-des-Champs-ko kalostraperano joaiten ahal nintzan; ehoiz etzen han aitaxirekin izan bantintz eta harekin solasean ezin hasteko moldez huts egin gabe aurkituko nuen laborarisa. Gelditu gabe urrungo zuhatz baten ondoari begiak itzaturik

nindagon, haren gibeletik jalgiko baitzen eta ene gana jinen; hedoiertzea ikerturik ere hutsik zagon, gaua heldu; itxaropenik gabe zizakon ene oharra eratzikitzen, ukan zezazkeen izaiten iresteko bezala, lur agor ahitu hari. Enituen gehiago orduan alaitasunez, baina errabiaz Roussainville-ko zuhatzak joiten, haien artetik etzelarik izaita bizirik *panorama* bateko oihalean margotuak izan balire baino gehiago atheratzen, noiz ere, etxera sartzeraz ezin etsituz hainbertze gutiziatua nuen emaztea besoetan tinkatua ukan baino lehen, behar bainuen hala ere berriz Combray-ko bideari lotu, neure baitan aithortu behar nuelarik alta hura ene bidean ezarriko zuen halabeharra gero eta gutiago gertakizuna zela. Eta han gertatu izan baliz, bertzela ere, mintzatzera menturatuko nindakona? Baziduritan ero batentzat hartuko ninduela; ibilaldi horietan moldatzen nituen gutiziak eta egintzara joaiten etzirenak, bertze izaita batzuek ere bazituztela, nitarik kampo egiazkoak zirela sinestetik gelditu nintzan. Etzizaztan gehiago ene jiteak moldatu gauza osoki norberarenak, indargabeak, lillurazkoak bezala baizik agertzen. Estekarik etzuten gehiago naturarekin, ordutik goxagarritasun oro eta erran-nahi oro galtzen zuen izanarekin, ene biziarenbako - bidariak alkian jarriarik irakurtzen duen elhaberi baten alegiarendako treinako bagona den bezala - antolamenduzko ingurumen bat baizik etzenarekin.

Montjouvain-en, zenbait urte berantago, senditu nuen ere iduripen batetik, orduan nahasia gelditu zen iduripenetik, sortu dateke, biziki geroago, zadizmaz egina dutan gogamena. Berantago ikusi da nola, osoki bertze arrazoin batzuen gatik, iduripen horren orhoitak ene bizian egiteko handi bat ukan behar zuen. Aro bero-bero batez zen; gurasoek, egun guziko joan behar ukana baitzuten, errana zautaten nahi bezain berant sar nindaitekeela; eta Montjouvain-go aintziran izanik, maite bainuen han teilazko hegaztegiaren leinuruen ikustea, itzalean etzana nintzan eta etxearen gainetik diren berroetan lokhartua, lehenago aita igurikatua nuen lekuan, Vinteuil Jaunaren ikustera joana zen egun batez. Atzarri nintzanean abantzu gaua zen, zutitu nahi ukan nuen, baina ikusi nuen Vinteuil Andereñoa (ezagutu ahal ukan nuen bezainbat, Combray-n ezpainuen usu ikusia, eta oraino haurra zenean bakarrik, nexkato gaztetzen hasia zenean orai) sartu berria zatekeena, ene aitzinean, nitarik zenbait zentimetretan, haren aitak enea ukana zuen eta

hartaz bere saloin ttipia egina zuen gambaran. Leioa erdi idekia zen, argia phiztua, jestu guziak ikusten nauzkon hark ni ikusi gabe, baina joaitean sarrak kraxka-araziko nituen, entzunen ninduen eta hor haren goaitatzeko gordea nintzala sinetsi ahalko zuen.

Dolu handitan zen, aita zuela guti hila baitzizakon. Ezkinazkon ikusten izanak, amak etzuen nahi ukana haren baitan onezia mugatzen zuen bertute bakarraren gatik: herabea; baina barne-barnetik urrikari zuen. Ama orhoit zen Vinteuil Jaunaren bizi bururatze trixteaz, osoki hartua lehenik alabari bazemazkon ama baten eta haurzain baten arthez, gero harek emanak zauzkon oinazez; berrikusten zuen azken demboretan agureak ukana zuen begitarte oinazkatua; bazakien hau azken urtetako lan guziaren garbian ezartzearen bururatzeaz betikotz etsitua zela: piano erakasle zahar baten musika zati gaizoak, herrixkako organixta ohiarenak, uste baikinuen bada balio handirik etzutela, baina gutiasten ezkinituenak hainbat balio baitzuten harentzat bizitzeko arrazoina izanik, alabaren gatik utzi baino lehen, eta gehienak ez notetan emanak ere, bakarrik hark gogoan atxikiak, batzu orstoxka barreatu batzuetan izkiriaturik ezin irakurriak, betiko ez ezagunak geldituko zirenak. Amak gogoan zuen ere Vinteuil Jauna hartara bortxatua izana zen etsipen oraino gaixtoago hura, alabarendako ethorkizun ohora eta errespetagarri baten etsipena; ene izabek lehenago pianoko erakasle ukana zutenaren nahikabe hori guzia aiphatzen zuenean, zinezko bihotzmin bat sendi zuen eta lazturarekin gogoratzen zizakon Vinteuil Andereñoak, sendi zukeen hura, zenbatez saminagoa, osoki nahasia aita nunbait han hil-arazirik zuen urrikiarekin. «Gaixo Vinteuil Jauna, zion amak, alabarendako bizi izan da eta hil, sariztatzerik ukan gabe. Ukanen dua hil ondoan eta zer moldez? Elezake haren ganik baizik ukan.»

Vinteuil Andereñoaren saloin ttipi zolan, khebide gainean ezarria zen haren aitaren potret ttipi baten hartzera joan zen bizi-bizia bidetik heldu zen karrosa baten burumbak jo zuen orduan, gero kanape batera eman zen, eta bereganatu zuen haren gainean potreta ezarri zuen mahi ttipi bat, Vinteuil Jaunak lehenago ene aitamer jo gogo zuen musika zatia bere ondoan ezarria zuen bezala. Berehala haren andere adixkidea sartu zen. Vinteuil Andereñoak ongi-ethorria egin zaukon jeiki gabe, bi eskuak buru gibelean, eta

kanapeko bertze aldera baztertu zen hari leku baten egiteko bezala. Uste ukan zuen adixkideak nahiagoko zuela behar bada urrunago kadera batean ikusi, bere burua ausart iduritu zizakon, bihotzeko beraztasuna asaldatu; kanapean bere leku osoa berriz hartzen zuela begiak hetsi zituen eta aharrausika hasi zen erakusteko behar bada etzana zen arrazoina lo egiteko gutizia zela. Bere lagunarekin etxekotasun garratz eta manakorra ukanik ere, ezagutzen nituen haren aitak zituen jestu agurkari gibelera atxikiak, bapateko arrangurak. Berehala zutitu zen, leihoak hetsi nahi ukan balitu eta ezin heldu bezala egin zuen.

- Utzan bada dena idekirik, bero nun, erran zuen adixkideak.

- Baina hastiagarri dun, ikusiak izanen gitun, ihardetsi zuen Vinteuil Andereñoak.

Baina asmatu zuen adixkideak usteko zuela hitz horiek bertze batzuekin ihardestera haren sustatzeko erranak zituela, haien entzuteko gutizia baitzuen hain zuzen, baina zuhurtziaz erraiteko lehentasuna hari utzi nahi zaukola. Hortakotz zukeen hartu haren soak, ikus enezakeenak, amaxiri bainbertze gustatzen zizakon errankortasun hura, bizi-bizia gaineratu zuenean:

- Ikusiak erraiten dutanean, erran nahi dinat irakurtzen ikusiak; hastiagarri da, zer ezteuseko egin dezagun ere, begi batzuek ikusiko gituztela gogoan ukaitea.

Berezko bihotz ontasun batez eta nahigabeko ikustatez, ixiltzen zituen gutziaren osoki betetzeko baitezpakoak uste ukanak zituen hitz aitzinetik gogoan erabiliak. Eta ordu oroz bere baitan birjina herabe 'ta othoizle bat ari zizakon jende gogor abre bati eskez eta gibel-arazten zuen.

- Bai, badatekeen oren huntan guri beha daudenala, baserri jendeztatu huntan, erran zuen adixkideak erkaitzez. Eta gero zer?» gaineratu zuen (oneziaz erran zituen hitz hauk begi kheinu maltzur eta samur batekin lagundu behar zituelako ustean, Vinteuil Andereñoari gozagarri izanen zizakola bazakien erranaldi bat bezala, ahalgegabea egitera entseatzen zen doinu batekin) «ikusten baginitine ere, eztun hobea baizik.»

Vinteuil Andereñoa ikharatu zen eta jeiki. Haren bihotz arranguratsu eta sendikorrak etzakien zein hitz ziren bereaz haren sentsuek nahi zuten

egintzaren arabera izanen. Bere jite egiazkoaren urrunenetik ari zen izan nahi zuen neska biziodunaren hizkuntzaren bila, baina hunek zinez erranen zituela uste zuen elheak bere ahoan hutsezkoak iduri zizazkon. Eta onhartzen zuen gutia, hartan bere herabetasun ohikoak ausartsiazko nahikariak haus-ten zituen doinu hotz batean errana zen, eta bazion artetik: «Eztun hotzik, eztun berorik, eztun bakarrik izaiteko eta irakurtzeko gutiziarik?»

- Badidurit gaur Andereñoak gogoeta ontsa lizunak dituela, er-
ran zuen azkenean, errepikatzen zukeela lehenago bere adixkidearen ahoan
entzuna zuen erranaldi bat.

Oihal izurrezko bulharsoinekoaren artekan adixkideak musu bat
ebasten zuela senditu zuen Vinteuil Andereñoak, oihu ttipi bat egin zuen,
ihes joan, eta elgarren ondotik zabiltzan jauzika, bere mahunga zabalak hegal
batzu bezala aira-araziz, xori amonatu batzu bezala kolokaz eta tiutaka. Az-
kenean Vinteuil Andereñoa kanapera erori zen adixkidearen soinaz estalirik.
Baina hau bizkarrez zen piano erakasle ohiaren potreta hartan ezarria zen
mahi ttipiari. Veinteuil Andereñoak gogoan hartu zuen adixkideak etzuela
ikusiko hari oharr-arazten ezpalu, eta erran zaukon, orduan bakarrik ikusia
balu bezala:

- Ho! aitaren potret hori guri so, nor ezarri ahal duen hor eztakit,
hogei aldiz errana dut alta etzela bere lekuan.

Musika zatiaz Vinteuil Jaunak aitari erranak zauzkon hitzak zirela
orhoitu nintzan. Ohian potret hori bere erritoxko profanatzetan erabiltzen
zuketean, ezen adixkideak ihardetsi zaukon bere liturgiako ihardestetan barne
zatezkeen hitz hauekin:

- Baina utzan den lekuan, gure okaztatzeko eztun gehiago hemen;
uste duna zinkurinaz hasiko zela, bizkarrekoa ezarriko nahiko zaunala, lei-
hoa idekirik ikusten bahau, zimino itsusiak.

Vinteuil Andereñoak erasia eztizko hitzetan ihardetsi zuen: «Ago,
ago», haren jite ona erakusten baitzuten, ez aitaz horrela mintzatzeak em-
anen ahal zaukokeen sumindurak erran-araziak zauzokolakotz (argi da bere
baitan sendimendu horren ixil-arazten jarria zela: zein arrazoinamendu
makurren bidez?), baina arrasta bat bezala zirelakotz, berekoia zela ez erakus-
teko, adixkideak harr-arazi nahi zaukon atseginari berak emaiten zaukona.
Eta ere blasfemio horier ihardestean neurri irriñodun hori, erasia bihurtu eta

xamur hori, beretu nahi zuen gaixtotasun horren molde bereziki ahalgegarri eta melenga bat iduri zizakokeen haren jite leial eta onari. Baina bere burua ezin zain zezakeen hil baten aldera hain bortizki gaixtoa zen baten ganik eztiki arthaturia izaitean hartuko zuen atseginarean deiari etzuen ihardoki ahal ukan; adixkidearen belhaunetara jauzi zen, eta bekokia aphantzera lañoki eskaini zaukon haren alaba izan baliz eginen ahal zuen moldean, ezin goxokiago sendituz horrela bi-biak abretasunaren bururano bazoazela Vinteuil Jaunari, hil-hobirano, aitatasuna ebatsiz. Adixkideak burua bi eskuen artean hartu zaukon eta bekokian musu bat utzi, Vinteuil Andereñoarendako zuen maitasun handiak eta umezurtzaren bizi orai hain trixtean libertimendu zen-baiten ezartzeko gutuziak errexa egiten zaukoten manukortasun harekin.

- Zer egin nahi daukotan badakina, itsuskeria zahar horri? erran zuen potreta berriz hartuz.

Eta entzun ahal enuen zerbait murmurikatu zuen Vinteuil Andereñoaren beharrira.

- Ho! ehaiteke mentura.

- Ez thu egitera mentura? *horri?* erran zuen adixkideak nahizko bortiztasun batekin.

Gehiagokorik enuen entzun, ezen Vinteuil Andereñoa, itxura akhittu, errebes, laneko, zintzo eta trixte batekin, berinaren eta leihoen hestera jin zen, baina banakien orai, Vinteuil Jaunak bizi guzian alabaren gatik jasanak zituen oinaze guziendako, hil ondoan haren ganik saritzat zer ukana zuen.

Uste ukan dut alta geroztik Vinteuil Jaunak hori ikusi ahal ukan balu, etzuela behar bada oraino alabaren bihotz onean sinestea galduko, eta etzuela ere behar bada hortan osoki huts eginen. Segurki, Vinteuil Andereñoaren ohiduretan gaitzaren itxura hain osoa zen nun bertze nunbait zadika baten baitan beteginzarre horren heinerako eremanaren aurkitzea neke izanen baitzen; hiriko antzokietako farandaren argitara daiteke ikus, baserriko etxe egiazko bateko argi-pean baino lehen, alaba bat adixkide bati thu egin-arazten harendako baizik bizi izan ezten aita baten potretera; ezta zadizma baizik melodramako ezthetikari bizian duen oinarria eman dezokeenik. Bizian, zadizmari datxikoten aldietarik hara, alaba batek ukan lezazke behar bada Vinteuil Andereñoak aita hilaren orhoitaren eta borondaten aldera zi-

tuen hutsak bezain abreak, baina elezazke argiki eman itxurapen hoin arrunt eta xintxo bateko egintzan bildurik; haren eginarak gaizkitik lukeena bertzen begietara gordeagoa izanen zen eta bere begietara ere, gaitza berari aithortu gabe egin bailezake.

Baina, iduripenetik haratago, Vinteuil Andereñoaren bihotzean, gaitza, hastapenean bederen, etzatekeen nahasterik gabe izan. Hura bezalako zadika bat gaitzaren edergilea da, izaite osoki gaixto bat izan elaitkeena, ezen gaitza eluke kampoan, biziki naturala iduri lakioko, bere baitarik ez berezia; eta bertutearen, hilen orhoitaren, haur-maitasunaren profanatzean, haien errespeturik ez ukanez, elezake atsegin sakrileiozkorik ediren. Vinteuil Andereñoaren motako zadikak izaite hain osoki sendimendutsuak dira, hain jitez bertutedunak, nun sentsuetako atsegina bera zerbait gaixto dela iduritzen baitzaie, gaixtaginen dohaina. Eta bere buruer onesten dauetelarik ephe batez hari emaita, gaixtoen itxura-pean dira sartzerantz entseatzen eta dute gaizkidea sarr-arazi nahi, bere arima arranguratsu eta samurretik atsegineko mundu urrikalgaitzera ihes egin dutelako lilluramenduaren ukaitekotan. Eta gogoan hartzen nuen hori zenbat zuen nahi ukanen, ongi heltzea zenbatetaran ezin egina zizakon ikustean. Bere aitatik hain ezperdina izan nahi zuen orduan, orhoit-arazten zautana, piano erakasle zaharraren gogatzeko eta mintzatzeko moldea zen. Haren argazkia baino ontsa hobeki, profanatzen zuena, bere atseginetako balia-arazten zuena baina hauen eta haren artean egoiten zena eta hetaz zuzenki gozatzea debekatzen zaukona, hau zen: aitaren begitartearekin egite ukaitea, familiako joia bat bezala utziak zauzkon bere amaren begi urdinak, Vinteuil Andereñoaren bizioaren eta haren artean elhe molde berezi bat, harendako egina etzen gogo-antze bat - debekatzen baitzaukon ohikoak zituen ikustatezko eginbide ainitzetarik biziki bertze zerbait zela ezagutzea - ezartzen zituzten maitagarritasunezko jestuak. Atseginaren gogamena emaiten zaukona, gozagarri iduri zizakona, etzen gaitza; atsegina zizakon gaizto iduritzen. Eta nola, hartara bazeman aldi oroz, bertze orduz haren arima bertutedunean etzen gogoeta gaitzez lagundua baitzen, atseginari aurkitzen zaukon azkenean debrukeriatik zerbait, Gaitzarentzat hartzen zuen. Izan daiteke Vinteuil Andereñoak bere adixkidea etzela osoki gaixtoa sendi zuela eta solas blasfemari horiek erraiten zauzkonean etzela zinez ari.

Bazuen bederen haren begitartean irriño batzuen, so batzuen besarkatzeko atsegina, gezurrezkoak behar bada, baina, bere biziozko erran-nahi aphalean, ez oneziaz eta oinazezko izaite batek, baina abre atseginkoi batek ukanen zituenak bezalakoak. Asma zezakeen ephe batez ari zela zinez aitaren orhoitzapenez sendimendu abre horiek alabaina sendituko zituen neska batek, gaizkide hoin makurrarekin, jokatuko zituen jokoetan. Etzuen behar bada uste ukanen gaitza izanara hain bekana zela, hain ohigabekoa, hain burxoragarria, hara joaitea hain atsedengarri zena, jakin balu bere baitan, nornahiren baitan bezala, emaiten diren oinazen alderako axolagabea, eztela, bertze nahi diren izenak emanik ere, abretasunaren molde laztagarri betierekoa baizik.

*

Méséglise-ko aldera joaitea aski errex baldin bazen, bertzerik zen Guermantes-ko aldera joaitea, ibilaldia luze baitzen eta eginen zen aroaz segur izan behar. Eguraldi jarraiki batzuetara sartzen zela iduritzen zenean, Françoise-ek, «uzta gaixoendako» ur xorta bat etzela erortzen etsitua eta hedoi zuri bekan batzu baizik ez ikusiz zeruko azal geldu urdinean igerika, bazio-
nean auhenka: «Eztua iduri lixa batzu baizik eztirela ikusten bere muturrak gain hartan erakutsiz jostetan? Ha! ontsa gogoan dute laborari gaixoendako euri egin-araztea! Eta gero gariak jinak izanen direnean, orduan euria «pla-pla-pla» erortzen hasiko da, ethengabe, zertara erortzen den itsasoan izan baliz baino gehiago jakin gabe». Aitak beti berdin ukanak zituenean baratze-gilearen eta aro neurkinaren abisu on berak, orduan erraiten zen auhaltzean: «Bihar, aroa holakoa bada, Guermantes-ko aldera joanen gira.» Barazkaldu eta berehala abiatzen zen baratze-
ko athe ttipitik eta Perchamps-etako karrikara sartzen, hetsia eta izkina zorrotz bat egiten zuena, hetan bizpahirur leizafinek eguna lanean zeramaten belarrez betea, bere izena bezain bitxia, baitziduritan hartarik beldu zizazkola zituen berezitasunak eta nortasun oiesa, debaldetan bila laitekeena oraiko Combray-an, hura lehenago zoan lekuan baitago ikastetxea. Baina ene ametseriak (Viollet-le-Duc-en eskolako etxegile hek iduri, ustez eta XVII-garren mendeko aitzin-galeria eta aldare baten azpian khoro erromaniko bat aurkitzen, eliza osoa XII-garren men-

dean izan behar zuen bezala ezartzen baitute) eztu eraikuntza berritik harri bat han uzten, Perchamps-etako karrika berriz hausten du eta «zen bezala» emaiten. Badaki bertzela ere bermoldatze horrendako, berregilek gehienetan dituzten baino xehetasun gehiago: ene orhoitean begiratu iduri zenbait, orai gelditzen diren azkenak behar bada, eta laster jeusetaratzera ekharriak, ene haurzaroan Combray zen hartaz; eta, berak dituelakotz ene baitan marratu ezetzatu baino lehen, hunkigarriak - itxura ilun bat erkida baldin badaiteke haien errepika batzuen eni emaita amatxik maite zuen iduri ospedunekin - hala nola Azken-auhariaren itxuratze zahar batzu edo Gentile Belini-ren margazki hura, hetan ikusten baitira, gaurregun gehiago ezten molde batean, Vinci-ren nagusi-lana eta San Markeko athea.

Iragaiten zen, Xoriaren karrikan, «Xori gezizatua» izeneko ostatu zaharraren aitzinetik, haren korroila handian sartu baitziren lehenago XVII-garren mendean Montpensier-ko, Guermantes-ko eta Montmorency-ko dukesen karrosak, Combray-ra ethorri behar zutenean etxetiarrekilako eztabadatze, edo gizamenezko gai zenbaitendako. Haren zuhatzen artetik San-Hilarioko ezkiladorrea agertzen zen ibilgunera heltzen zen. Eta han jarri nahiko nuen eta egun guzira irakurtzen egon ezkilen entzutean; ezen aroa hain zen eder eta geldi nun, orenak joiten zuenean, iduri baitzuen ez egunaren jabaldura hausten zuela, baina zadukanaz garbitzen, eta ezkila-dorreak, bertzerik ezer egiteko ez tuen norbaiten zuzentasun axolagabe arthadunarekin - beroak emeki eta naturalki bilduak zituen urre xorta bakarren jalgi-arazteko eta erortzera uzteko - etzuela ixilaren betea, behar zen orduan, tinkatua baizik.

Guermantes aldeko xoragarriena, abantzu beti Vivonne-aren erre-kako ondotik iragaita zen. Lehenik zeharkatzen zen, etxea utzi eta hamar minutetan, Zubi-Zaharra zeritzon zaldain batean. Gu heldu eta biharamuneko, Bazko egunaz pheredikuaren ondotik, eguraldi baldin bazen, banindoan harano lasterka, ibaiaren ikustera, ospezko aphailamendu batzuek, oraino utzirik dauden tresnak, zikinagoak agerr-arazten dituzten bestaburu goiz bateko nahasmen hartan, jadanik urdin-arinean ibilki lur oraino beltz eta buluzien erdian, bakarrik laguntzen zuela goizegi jin ostoixka hori eta urdin goiztiar lerro batek, han edo hemen briolet moko urdin batek bere

zangoa gurtzera uzten zuelarik bere untxian zadukan usain xortaren hazta-pean. Zubi-Zaharrak bazeman zirgabidexka batera, leku hartan arraintzari batek bere lastozko xapelarekin haren azpian errotua iduri zuen urritzondo baten orstail urdinaz ihautua baitzen udan. Banakielarik Combray-n suizaren jantzi azpian edo bereterraren elizathorra-pean zein arotz edo epizeriako mutil gordea zen, arraintzari hori da nehoiz ere nor zen jakin ez tutana. Ene gurasoak ezagutzen zituzkeen, ezen xapela goititzen zuen iragaiten ginenean; haren izena nahi nuen orduan galdegin, ixil nindadin kheinu egiten zautate-nean arrainaren ez izitzeko.

Oin zenbaiteko mugaz ura baino gorago zen zirgabidexkan abiatzen ginen; bertze aldetik ur-hegia apha zen, phentze zabal batzuetan herrixkarano hedatzen eta hartarik urrunago zen gararano. Hetan ziren barreatuak, belarrean erdi ehortzirik, lehenagoko Combray-ko kondan gazteluaren ondarrak, ertaroan alde hortarik Vivonne-aren errekek zaintzen baitzituzten Guermantes-ko jaunen eta Martinville-ko abaden jaukitzetarik. Etziren gehiago dorre zati batzu baizik soroa konkorkatzen zutenak, doi-doi ageri, hetarik baleztariak noizpait harriak egozten zituzten, goaitariak Novepont («Zubiberri»), Clairefontaine («Ithurrargi»), Martinville-le-Sec («Martiri-Agorreta»), Bailleau-l'Exempt («Bailleau-Ordezkararena») begiratzen zituzten ozka-murru zenbait, horiek oro Guermantes-en meneko lurrak, Combray hetaz inguratua baitzen, gaurregun belarraren heineratuak, horra leitzona ikastera edo josta-orduetan libertitzera zethorren fraiden eskolako haurrez gaindituak - iragan aro abantzu lurpera sartua, hotxaren hartzen ari den ibiltari bat bezala ur-bazterrean etzanik, baina amesteko ainitz bazemata, Combray-ren izenean eraxik-arazten baitzautan, oraiko hiri ttipiari, bertze bat biziki ezperdina, gogoetan sartzen ninduena edaski-lore urrezkoen azpian gordetzen zuen bere lehenagoko itxura ezin hartuaz. Ainitz bazen belarrean jostatzeke hautatua zuten leku hartan, banaka, biraka, multzoka, arraultze gorringoa bezain hori, are gehiago dirdiran, iduritzen zizatan, nun haien ikusteak emaiten zautan atsegina ezin eremanez jastatzeko gutziara batera, haien axial urreztatuan metatzen bainuen, debaldeko edertasun baten egiteko aski indar bildua zuen arteo; eta hori ene haurzaro ttipienetik, zirgabidexkatik bi besoak haietara luzatzen nituenean, ezin ahozkatuz osoki haien

izen pollit mixteriozko ipuin frantzesetako Printzena, duela mendeak Asiatik ethorriak behar bada, baina betikotz hor herrikotuak, hedoiertze xumeaz askietsiak, iguzkia eta ur-hegia maite, garako ikuspen ttipiari leial, bazatxikatela alta oraino gure oihal margazkitu zahar batzuek bezala, bere xoiltasun jendetarrean, Orienteko phindar poetiko bat.

Jostatzen nintzan haurrek xipen biltzeko Vivonne-an ezartzen zituzten berinazko ur-untzier beha, hek, hartan bere aldian hetsiak diren ibaiak beterik, sahetsak ur gogortu bat bezala argalik aldi berean «edukitzale», eta ur lazterrezko krixtail edukitzale handiago batean «edukiak», hoxtura-ren iduria gogoratzen baitzuten mahi zerbitzatu batean eginen zuten baino molde atsegingarri eta mingarriago batean, ihesean baizik ez erakutsiz eskuek bil etzezaketen ur gogortasun gabearen eta ahoak jasta etzezakeen berina ubiltasun gabearen artean. Hitzemaiten nuen berantago horrara jinen nintzala amu-hari batekin; arratsalde-askarikotik ogi apur bat har zadin ukaiten nuen, phorroxka batzu bildurik urera egozten nituen iduri baitzuten ibaiaren bete-betetzera ekhartzeko egiteko aski zirela, ezen ura inguruan aphotxali ahituezko multzo arraultzarako batzuetan gogortzen baitzen ordu arteo urturik, ezin ikusiak, kritxailtzera emanak edukitzen zituzkeenak.

Berehala Vivonne-aren ohatza ur landarez trabatua izaiten da. Badiira lehenik berex, hala nola igebelar bat zorigaizki haren erdian jarria zen ur lasterrak hain guti atsedenean uzten baitzuen nun, mekanikaz erabili gabar bat bezala, ezpaitzuen hegi bat hunkitzen berriz hartarik ethorria zen bertzera itzultzeko baizik, beti eta beti bide bikuna berreginez. Hegira bultzatua, haren girtaina hedatzen zen, luzatzen, joaiten, bere thiradurako azken heinera heltzen han uraren indarrak berriz hartzen zuen hegirano, zurda muskerra bere gana biltzen zen eta landare gaixoa bazekarren berriz are hobeki abiagunea erran daitekeenera, nun ezpaitzen han zekunda bat baizik egoiten lan beraren errepikatzean berriz abiatzeko. Ibilalditik ibilaldira han berredireiten nuen, beti izanara berdinean, zainetako eri batzu gogoratzen zituela: aitatxik hetan barne zadukan izaba Léonie, urtetan hara aldatu gabe emaiten baitzaukun aldi oroz uzteko bezperan direla uste duten eta beti atxikitzen dituzten ohidura zaharren ikuskarria; bere aldixartzen eta aztura ttipien gatinan lotuak, hetarik atheratzeko auherretan ihardokiz ari diren indarrek

eztaute joko seguratzatzen baizik eta bizitzeko ara bitxi, halabehear eta hilkor-raren klixka jo-arazten. Halakoa zen igebelar hura, zorigaitzeko jende hetarik baten berdina, haren oinaze bitxiak, beti eta beti mugarik gabe errepikatzen denak, Dante-ren jakin-nahia phizten baitzuen, eta haren berezitasunak eta arrazoina jasaiten zutenari berari luzazago erran-araziko baitzauzkon, Virgiliok ezpalu, urrats handitan urrunduz, lehen bai lehen haren gana joaitera bortxatu, aitamek ni bezala.

Baina urrunago ura emekitzen da, etxalde bar iragaiten du hara sartzea jendeari jabeak idekia zuena, ureko baratze lanetan gostu ukanik, lora-arazten zituela, Vivonne-ak egiten dituen aintzira ttipietan, igebelarez egiazko baratze batzu. Ur-bazterrak leku hartan biziki oihanduak baitziren, zuhatzen itzal handiek bazematen urari ohiki musker ilun zen zola bat baina batzuetan, arratsalde ortzidun zohartu batzuez sartzen ari ginelarik, urdin argi gordin, ubelera eman batekoa ikusi dutana, itxuraz artekatua eta moldez xaponesa. Han-hemenka, ur azalean, maharrubi bat bezala gorritzen zen bihotz gorri-biziarekilako igebelar bazterretan xuri bat. Urrunago, loreak usua-go eta hitsago ziren, gutiago leun, latxago, izurkatuago, eta nola-nahi ezarriak biribilkatze hain pollitetan nun uste baitzen ikusten zirela urean joanki, besta galant bateko orsto barreatze gogo-ilungarri batean bezala, girlanda trenkatu batzuetako arrosa haguntsuak. Bertze nunbait xoko batek iduri zuen mota arruntendako berexia, erakusten zituztela basa-julufreiaren zuri eta gorraxta garbiñoak, etxeko artha batekin baxerakia bezala ikuziak, urrunxago, batzu bertzekin tinkan ur gainean zagon zinezko taulen bat eginez, erranen zirelarik baratzetako gordetxeak, pimpirin batzu bezala jinak ureko taulen hartako zehartasun argira bere hegal urdinaran hormatuen ezartzera; taulen zerutar hartakora ere: ezen lilier zola bat emaiten zauen lilien berena baino margo baliosago, hunkigarriago batekoa; eta, ala arratsaldean zorion ohartu, ixil eta geldi baten margo guziak dirdira-araz zitzaala, ala, arrastirira, bete zezala, urrungo portu zenbaiten moldean, sartaldeko ametseriaz eta gorraxtaz, margo geldia goekilako lilien inguruan harmonian egoiteko ethengabe aldatuz, orenean barnatuago, ihesleago, mixteriozkoago - hortan mugagabetik denarekin -, bazidurien zeru betean zituela zabal-araziak.

Parke hortarik jalgitzean, Vivonne-a berriz ur-pikar bilakatzen da. Zenbat aldiz ikusi dutan, zenbat aldiz ene gogara bizitzeko libro izanen nint-

zanean hark bezala egin nahi ukan, untzikari bat, arrauna utzirik, bizkarrera zabalean etzana, burua beheiti, untziaren zolan, urean joaiten uzten duela, zerua ikus etzezakeelarik bere gainetik emeki joanki, begitartean zorionaren aitzin- gustu eta bakearekin!

Ur-hegian lirioen artean jartzen ginen. Bestazko zeruan hedoi auher bat bazabilan emeki. Noizten, azpertztez hertsatua, xirdil bat uretik jalgitzen zen hats-hartze antsiadun batean. Arratsalde askariko ordua zen. Berriz abiatu baino lehen baginauden luzaz belarrean fruitu, ogi, xokolet jaten, gutarano heldu zirela, zabalera, ahulduak, baina oraino tinki eta metalarako, San-Hilarioko ezkilaren soinu batzu hain luzeki zeharkatzen zuten airearekin nahasiak izan gabe, eta, bere soinu marra guzien pilpiraz ozkaturik, loren arrasean joiten zuten, gure oinetan.

Batzuetan, oihanez inguratu uraren bazterrean, edireiten ginuen «gozatanunezkoa» deritzoten etxe bat, bakartua, galdua, ezpaitzuen mundutik oinak bustitzen zauzkon ibaia baizik ikusten. Aurpegia gogoetana eta soineko oihal aphainak herrikoak etzituen andere gazte bat, horrara, jendeak dion bezala, «enterratzera» ethorria zatekeena, haren izena, eta oroz gainetik bihotza atxikia ahal ukana etzaukonaren izena, etzela hor ezaguna senditzeko atsegin kharatsaren jastatzera, agertua zen athe ondoan estekatu untzixka baino urrunago ikustera uzten etzuen leihora. Begiak ohartu gabe bezala goititzen zituen erripako zuhatzen gibelean iragailen mintzoaren entzutean, segur izan baitzaitekeen, haien aurpegia ikusi baino lehen, ehoiz etzutela hitza jana zaukona ezagutu ez eta ezagunen, haien iraganean jeusek etzuela haren hatzik utzi, haien ethorkizunean jeusek ez horren ukaiteko aldirik emanen. Sendi zen, haren etsian, gogotik utziak zituela han maite zuena ikusi bederen ahalko zuen lekuak, hura nehoiz ikusia etzuten hauendako. Eta beha nindagokon, handik iraganen etzela bazakien bide batean ibilirik itzultzean, bere esku etsituetarik garazia debalde bateko eskularru luzen ekhentzen ari.

Guermantes alderako ibilaldietan ezkinen behin ere Vivonne-ko ithurbegietarano igan ahal izan, ainitzetan gogoan ukanak baintuen eta baitzuten enetako izaite bat hain gogo hutsekoa, ideala, nun departamenduan Combray-tik hunenbertze kilometretan zirela errana ukan zautatenean ustegabetua izan bainintzan, Ifernuetako sartzea, zaharraroan, lurreko bertze gune berezi batean idekitzen zela jakina ukan nuenean bezainbat. Ezkinen

ere nehoiz aitzinatu ahal izan hara heltzea hainbertze agiantzatua nuen mugarano, Guermantes-erano. Banakien han egoiten zirela jauregitarrak, Guermantes-ko dukea eta dukesa, banakien egiazko jendeak zirela eta orai bizi; baina gogoan nituen aldi oroz, noiz tapizeriako moldean, Guermantes-ko kondesa gure elizako «Ezther-en koronamenduan» zen bezala, noiz leinuru aldakor batzuetan, Gilbert Gaiztoa zen bezala aza koloretik arhan urdine-kora joanez, oraino ur benedikatuaren hartzen ala gure kaderetara heltzen ari nintzan arau, noiz ere osoki ezin hunkiak, hala nola Brabanteko Jenofeba, Guermantes-ko familiaren arbasoaren iduria, ene lanterna mirazkoak gambarako erridauetan ibil-arazten zuenean eta tronadurara igan-arazten, - ororen buruan aro merobingiarretako mixterioaz inguratuak, igerikan, iguzki sartze batean bezala, «antes» silaba hortarik sortzen den argi iranja kolorean. Baina horrela izanik ere, duke 'ta dukesa bezala egiazko izaite batzu baldin baziren enetako, nahiz bitxiak, haien duke lerroko nortasuna mugababearen urruntzen zen, gorputza galtzen zuen, hango duke 'ta dukesa ziren Guermantes haren, «Guermantes-ko alde» haren guziaren, Vivonne-ko errekaaren, hango igel-belar eta zuhatz handien, eta hainbertze arratsalderen bere baitan eduki ahal ukaiteko. Eta baldin banakien etzutela bakarrik Guermantes-ko duke 'ta dukesaren izena berekin, baina XIV-garren mendetik, hango jaunak debaldetan garhaitu nahi ukanik, orduan Combray-ko kondekin ahaidetuak baitziren, Combray-ko konde zirela, eta beraz Combray-ko herritar lehenak, eta bizkitartean han bizi etziren bakarrak. Combray-ko konde, Combray-ren jabe bere izenaren erdian, bere nortasunarenean, eta baitzuketen ere bere baitan Combray-ren berezitasuna zen trixtezia bitxi eta debot hura; hiriaren jabe, baina ez etxe berezi baten, agian kampoan egoiten, karrikan, zeru-lurren artean, hala nola Gilbert Gaizto hura ezpainaukon San-Hilarion elizaburuko berinetan laka beltzeko bimperra baizik ikusten, Camus-baitara gatzaren bila nindoanean burua goititzen baldin banuen.

Gero gertatu zen Guermantes alderakoan hetarik lili mulko beltz batzu igaiten ziren herskune ttipi heze batzuen aitzinetik iragaiten nintzala. Gelditzen nintzan, ustez eta balioko zerbait ikasiko nuen, ezen iduri zizatan begien azpian nuela idazle hautetsietarik batean erakutsirik irakurria nuen herrialde ibaitsu hartarik zerbait. Eta harekin zuen, ur-errekez burburikan

zen haren lur asmatuarekin, Guermantes-ek, ene gogoan itxuraz aldatuz, bat egin, Percepied medikua entzuna ukan nuenean jauregiko parkean baziren lore 'ta urbiziez guri mintzatzen. Guermantes-ko Andereak hara jin-arazten ninduelako ametsa egiten nuen, enetako bapateko burutaldi batez hartua izanik; egun osoan amarrain arraintzan ari zen enekin. Eta arratsean, ni eskutik atxikiz, bere menpekoen baratze ttipien aitzinetik zoala, erakusten zauztan, harresi aphalen luzara, hetan bere mulko ubel eta gorriak bermatzen zituzten loreak, haien izenak ikasten. Erran-arazten zautan egin gogo nituen olerkien gaia. Eta amets horiek jakin-arazten zautaten, egun batez idazle izan nahi nuenaz geroz, zer izkiriatu nahi nuen jakiteko ordu zela. Baina neure buruari horren galdez hasten nintzan orduko, filosofiako erran-nahi mugagabeko bat hartan eduk-araz nezakeen gai bat ediren nahiz, gogoa ibiltzetik gelditzen zizatan, ene oharpenaren aitzinean enuen hutsa baizik ikusten, jainurik enuela sendi nuen edo behar bada buru-munetako erasun zenbaitek trabatzen zuela.

Batzuetan aitari nindagon horren antolatzeko. Hain indarduna zen, hain fagore handitan lerroko jenden artean, nun heltzen baitzen Françoise-ek bizikoak eta heriokoak baino beharrezkoagok zirela ikasiak zauztan legen guri hauts-araztera, gure etxeko «berremokatzearen», auzoaldean bakarrik, urte batez gibela-araztera, Sazerat Anderearen semearendako, uretara joan nahi baitzuen, baxoa bi ilabete lehenago egin zezan minixtroaren ganik ukaitera, izena *A*-tik hasten zizeen ikaslen lerroan *S*-tik hasten zizeenen aldia igurikatu gabe. Biziki eri gertatu baldin banintz, gaixtagin batzuek harturik izana, sinetsirik aitag sobera entzute bazuela indardun goienekin, Jainko onaren ondoan gomendiozko karta sobera ezin ihardokizkoak bazituela, ene eritasuna edo gatibotasuna enetako lanjerrik gabeko iduri huts batzu baizik izan etzaitentzat, geldirik igurikatuko nuen egiazko bizi onera itzultzeko, libranxako eta sendatzeko orena; jainurik ez ukaite hori, behar bada, gogoan egiten zizatan zilo beltz hori ene geroko idazkien gaiaren bila nindabilalarik, etzen ere izaiterik gabeko lillura bat baizik, eta aitaren egintzarekin geldituko zatekeen Gobernamentuarekin ala Probidenziarekin akomeatua baitzukeen aroko idazle lehenbizikoa izanzen nintzala. Baina bertze batzuetan, gurasoak khexu zirenean ni gibelera egoiten ikusiz eta ez haier jarraikitzen, orduko ene

bizia aldiz, aitaren egintza huts bat eta berak nahitara alda zezakeen bat zela iduritzeko orde, enetako egina etzen izan batean hartua bezala iduri zizatan, haren kontra ezer egin etzaitekeena, haren baitan lagunkiderik enuena, bertarik haratago ezer gordetzen etzuena. Orduan baziduritan bertze gizonek bezalako izaitea nuela, hek bezala zahartuko nintzala, hilen, eta haien erdian izkiriatzeko dohainik eztutenenetarik nintzala bakarrik. Beraz, lotsatua, literaturari behin betikotz ukho egiten naukon, Bloch-en sustatzeak izanik ere. Ene gogamenaz nuen sendimendu min, berehalako hori emaiten ahal zauztaten elhe lausengari orori nagusitzen zen, haren egintza onak orok go-raiphatzen dituzten gaixtagin baten baitan konzienziako urrikiak bezala.

Egun batez amak erran zautan: «Beti Guermantes-ko Andereaz mintzo hizanaz geroz, Percepied medikuak duela laur urte biziki ontsa arthatua baitik, Combray-ra jin beharra duk alabaren ezkontzan hor izaiteko. Zeremonian ikusten ahalko duk.» Percepied medikuaren ganik nuen bertzela ere Guermantes-ko Andereaz mintzatzen gehienik entzuna, eta erakutsia zaukun ere argazkiekilako agerkari baten aldiko bat, hartan erakutsia baitzen Leon-go printzezaren dantzaldi maskatu batean zuen jantzian.

Bapatez, ezkontzako mezaren erdian, suizak lekuz aldatzean egin zuen mugimendu batek ikus-arazi zautan kapera batean sudur luze batekilako andere ile hori bat, begiak urdin eta xorrotx, zetazko lephoko malba-kolore harro, leun, berri eta dirdiratu batekin, eta suldar ttipi batekin sudurraren izkinan. Eta haren begitarte gorriko larruan, biziki bero ukan balu bezala, ikusten baintuena, nahasiak izanik ere 'ta doi-doia ohargarri, erakutsiak zauztaten potreteko zati batzu, oroz gainerik haren baitan hartzen nituen aurpegiko itxura bereziak zein ziren erraitera entseatzen baldin bainintzan, hain zuzen Percepied medikuak ene aitzinean Guermantes-ko Anderearen erakusteko erabiliak zituen hitz beretan egiten baitziren, sudur handi bat, begi urdinak, neure baitan egin nuen: «Andere horrek egitea badu Guermantes-ko Anderearekin». Meza entzuten zuen kapera bada, Gilbert Gaixtoaren hura zen, haren hil-harri zabalen, ezti bereska xiloak bezala ur-reztatu et' artekatuen azpian baitatzan Combray-ko lehengo kondeak, eta orhoit nintzan, errana zizatanaz, Guermantes-ko familiarendako atxikia zela hetarik norbait zeremonia bateko Combray-ra jiten zeneko; etzaitekeen izan

emazte bakar bat baizik egun hartan, Guermantes-ko Anderearen egite zue-
nik, kapera hortan izanki: hura zen! Handizki hatzemaña izan nintzan. Ezen
enuen behin ere gogoari emana, Guermantes-ko Anderea gogoan nuenean,
tapizeria edo berineria bateko margoetan ikusten nuela, bertze mende ba-
tean, gainerateko jende bizietarik bertze molde batez. Nechoiz enuen buruan
hartua begitarte gorri bat, Sazerat Andereak bezalako lephoko malba-kolore
bat ukan zezazkeela, eta haren matela arraultzarakoek hainbertze ninduten
etxean ikusiak nituen jende batzuek orhoit-arazi nun aieru batek hunkitzez
baininduen, berehala ezeztatu zena, andere hori etzela behar bada, bere izaite
egiazkoan, bere osagai guzietan, zinez Guermantes-ko Anderea, baina haren
soina, emaiten zizakon izenaren ez jakinean, mediku eta salerosle emazte
batzu ere barne zituen emazte-mota berezi batekoa zela. «Hori da, ezta hori
baizik, Guermantes-ko Anderea!», zion iduri horri beha zagokone aurpegi
ohartu eta ustegabetuak, ezpaitzuen alabaina jeus ikustekorik, Guermantes-
ko Anderearen izen beraren azpian, ene ametsetan hainbertze aldiz agertuak
ziren guziekin, hura etzenaz geroz, bertzeak bezala nik nola nahi moldatua,
baina begietara lehen aldikotz jauzia zizatalakoz, duela ephe bat baizik ez,
elizan; ezpaitzen mota berekoa, ez silaba baten iranja-koloreaz hek bezala
nahitara margoztagarria, baina hain egiazko zena nun guziak, sudurraren
izkinan hantzen zizakon suldar ttipirano, baieztatzen baitzuen biziko legen
menpeko zela, hala nola, antzokiko jainko agertze batean, jainkosaren zaiako
izur batek, erhi ttipiaren daldara batek, salatzen baitute badela hor andere
jokari bizidun bat, begien aitzinean argi joko xoil bat ez ote ginuenez dudan
ginaudelarik.

Baina aldi berean, ene ikuspenean sudur luzeak, begi zorrotzek it-
zaten zuten iduri horren gainera (behar bada lehenbizian haiek zirelaketz
hartarano helduak, hetan lehenbiziko ozka egina zutelaketz, enuelarik oraino
astirik gogoari emaiteko aitzinean agertzen zizatan emaztea Guermantes-ko
Anderea izan zaitekeela), iduri berri-berri, aldizkagarri hortan, gogamen hu-
nen ezartzera entseatzen nintzan: «Guermantes-ko Anderea da», ideia hori
iduriaren aitzinean ibil-arazterano heldu gabe, arte batek berexten dituen bi
dizka bezala. Baina hain usu amestua nuen Guermantes-ko Andere horrek,
nitarik kampo egiazki bazela banakusanean orai, ene idurimenean gehiago

indar hartu zuen oraino, igurikatzen zuenetik hain izan ezperdinaren huntitzean ephe batez balditua egonik, ihardokitzen hasi baitzen eta eni erraiten: «Karlos Handia baino lehenagotik loriosak, Guermantes-tarrek bazuten bizi eta hil zuzenbidea bere menpekoetan; Guermantes-ko dukesa Jenofeba Brabantekoaren ondokoa da. Hemen diren jendetarik nehor eztu ezagutzen, eta elezake ere ezagutzea onhar.»

Eta - oi giza-soen beregaintasun miragarria, begitarteari hoin esteka ahulaz, luzeaz, hedakorraz lotuak nun berak ibil baitaitezke hartarik urrun! - Guermantes-ko Anderea kaperan bere hilen hobi gainean jarria zagon bitartean, soak bazabilzkion hara eta hunara, zutaben luzera igaiten, nitan ere gelditzen elizuntzian zabilan iguzki arrai bat bezala, baina, haren phereka ukan nuen orduan, ohartuki egiten zela iduritu zizatana. Guermantes-ko Anderea bera, geldi baitzagon, jarririk jostatzen eta ezagutzen eztituen jende batzuer hel egiten ari diren haurren ausartzia jostakinak eta egintza behar-gabekoak ikusten eztituela iduri duen ama bat bezala, enuen jakin ahal ukan baieztatzen zuenez ala gaitzesten, bere arimako auhertasunean, bere soen harat-hunarat ibiltze hori.

Nik hari aski behatu ahala ukan baino lehen joan etzadin ainitz zela iduritzen zizatan, ezen orhoit nintzan urteak bazirela haren ikustea gain-gainetik gutziagarri baziduritala, eta begiak enituen hartarik higitzen, ene so bakoitzak ahal ukan balu bezala gauza baten moldean ereman eta neure baitan begiratu haren sudur luzearen, matela gorrien orhoitzapena, eta haren begitarteaz bertze hainbertze xehetasun balios, egiazko eta bere baitako iduritzen zizaztan berezitasun guzienarena. Orai begitarte hortara banemat-zan gogamen orok eder aurki-arazten zautatenaz geroz - eta behar bada oroz gainetik, ditugun alde hoberenen zaintzeko asmuaren moldea, atsekabetua ez izaiteko beti baden gutizia hark - , ezartzen zutela (hura eta ordu arteo gogoan ukana nuen Guermantes-ko dukesa jende bakar bat zirelakotz) ephe batez haren soinaren ikuste huts bakarrak nahas-arazia zautan gainerateko gizaldetik kampo, sumintzen nintzan ene inguruan banantzunean: «Sazerat Anderea baino, Vinteuil Andereñoa baino hobeki da», hauer erkidagarria izan baliz bezala. Eta ene soak haren ile horietan geldituz, begi urdinetan, lephoaren loturan eta bertze begitarte batzu orhoit-araziko ahal zauztaten

itxurak baztertuz, egin nuen marrazki xoil neure nahitara osagaitz horren aitzinean: «Zein ederra den! Zer noblezia! Zenbat Guermantes burgoi bat, Branbant-eko Jenofebaren ondokoa dutan bada neure aitzinean!». Eta haren begitartearen argitzeko nuen oharpenak hainbat zuen berexten, nun gaurregun, han ziren jendetarik bakar bat ezpaitezaket berrikus, hura ezpada eta suiza, hunek anderea zinez Guermantes-ko Anderea zenez galdegin naukonean baietz ihardetsi baitzautan.

Baina hura, berrikusten dut, oroz gainetik haize 'ta ortzi egun bateko iguzki artekatu beroak argitzen zuen sankristiko itzulia jendeak egiten zuen orduan, Guermantes-ko Anderea han baitzagon haien izenak ere etzazkien Combray-ko jende guzien erdian, baina haien aphaltasunak sobera baitzuen haren nagusigoa oihukatzen berak haien alderako onginahi zintzo bat ukan etzezan, garazia on eta lañotasunaren bidez gehiago larderia emanen zaelako ustean ere. Beraz, ezagutzen den norbaiti igortzen diren so nahikor erran-nahi bereziarekilako haien ezin emanean, baina bakarrik bere aitzinean gogamen arin batzu ezin atxik zezakeen argi urdinezko uhain batean ethengabe joaitera utziz, etzuen horrek jena ahal zezan nahi, iragaitean edireiten zituen eta noiz nahi hetara heltzen zen jende ttipi horiek gutiesten zituela iduri ukan. Berrikusten ditut ere, lephoko malba-kolore, zetazko eta harrotu haren gainean, begi ustegabetu eztiak, gainera eman baitzauen, norbaiti bereziki igortzera menturatu gabe, baina guziek berea har zezaten, bere menpekoen ondoan desenkusutzen dela eta maite dituela iduri duen andere goien baten irriño apur bat herabea. Hura begiez uzten enuelarik irriño hori ene gainera erori zen. Meza demboran nitan gelditzera utzia zuen so hura orduan gogoratzuz, Gilbert Gaiztoaren berina zeharkatua ukanen zuen iguzki arrai bat bezain urdina, egin nuen neure baitan: «Baina eni ohartzen dateke.» Gustatzen nindakola uste ukan nuen, nitaz orhoituko zela eliza utzia ukanen zuenean, enegatik behar bada trixte izanen zela arratsean Guermantes-en. Eta berehala maitatu nuen, ezen emazte bat maita ukan dezaguntzat aski badeke batzuetan gaitzestez so egin dezaukun, Zuan Andereñoak egina zuela iduritua izana zizatan bezala, eta behin ere eztela gurea izanen uste ukan dezagun; zenbait aldiz ere guri oneziarekin so egin dezaukun aski izan daiteke Guermantes-ko Andereak bazagien bezala eta gurea izan daitekeela uste

ukan dezagun. Begiak ezin bil daitekeen eta bizkitartean eskainiko zautan berenga bat bezala urdintzen zizazkon; eta iguzkiak, hedoi batez mehatxatua baina oraino bere indar guziaz bazemala plazara eta sankristira, moko-belar lore itxura bat emaiten zauen bestaburuko lurtean hedatuak ziren eta hetan Guermantes-ko Anderea irriño batekin aitzinatzen ari zen tapizer, haien ilekiari balus gorra bat gaineratuz, argizko larru bat, *Lohengrin*-go zati batzu, Carpaccio-ren margazki batzu berezitzen dituen ospeko xamurtasun eta ezintasun serio mota hura, gogoan harr-arazten baitute Baudelaire-ek trompetaren soinua «goxagarri» dela nola erran ahal ukan duen.

Egun hartarik hara, Guermantes-ko alderako ene ibilaldietan, lehenago baino ere zenbat lastimagarriago iduritu zizatan leteretarako nuen dohain ttipia, eta nehoiz idazle aipatu izaitari ukho egin behar ukaite! Hortik sendi nituen urrikiak, ametsetan apur bat bazterrean bakarrik nindagolarik, hainbat ninduten oinazkatzen, nun haien ez senditzeko ene izpiritua, oinazearen aitzinean halako ezin batekin, osoki gelditzen baitzen neurtitzez, elhaberriez, ene antze eskasak gogoan ukaitea debekatzen zautan poesiako geroaz gogoetatetik. Orduan, literaturazko axolatz horietarik ontsa urrun, eta jeusetan haier lotua izan gabe, bapatez hegaztegi batek, harri batean iguzki leinuruak, bide bateko usainak geldi-arazten ninduten bazemataten atsegin berezi baten gatik, eta ere baitziruditen gordetzen zutela, ikusten nuenetik haratago, hartzera joaiteko gomita bazegiten eta indar eginik ere ikustera heltzen enintzan zerbait. Hori hetan zela sendi bainuen, banindagon hor, geldirik, beha eta beha, hats hartzen, neure gogoarekin iduritik eta usainetik haratago joaitera entseatzen. Eta aitatxi berriz hatzeman behar baldin banuen, bidari jarraiki, begiak hetsirik egoitera lehiatzen nintzan; nahi nuen zuzenki hegaztegiaren orratzaz, harriaren leinuruaz orhoitu, ezen, zergatik zen hartu ahal ukan gabe, beteak idurituak zizaztan, idekitzera emanak, eni haren estalgi bat baizik etzirenaren uztera. Etziren segur mota hortako iduripenak egun batez idazle handi eta poeta izaiteko galdua nuen itxaropena itzultzen ahal zautate-nak, ezen adimenduko baliorik etzuen eta gogo hutsezko egia edozeini lotua etzen gauza berezi bati lotuak ziren beti. Baina arrazoinkatu gabeko atsegin bat bazemataten bederen, emankortasun mota bateko lillura bat, eta horrela literaturako lan handi bateko gai filosofiko baten bilatzean ukanak nituen aspertzetik eta ene ezinaren sendimendutik baztertzen ninduten. Konzienziako

eginbidea hain nekea zen alta, molde, usain edo margozko iduripen horiek hartzera bortxatzen nindutena, horien giblean zer gordetzen zen ikustera indar egitekoa, nun ezpainuen luzatu indar horietarik ihes egitea eta akhidura horien baztertzea haizu utz zezaztaten desenkusa batzuen neure buruarendako bilatzea. Zorionez gurasoek deitzen ninduten, sendi nuen enuela oraikoan ene bilaketan baliagarriki jarraikitze behar zen bakerik, eta gogotik uztea hobe zela sartua izanen nintzan arteo, eta ondoriorik ukan gabe ez aitzinetik akhitzea. Ordutik enintzan molde edo usain batez inguratzen zen gauza ez ezagun hartaz axolatu, etxera banekarranaz geroz ontsa bakean, haien gatik bizidun berraurkituko nuen idurien estalgiaz gerizatua baitzen, hala nola, arraintzara utzia ninduten egunetan, zarean ekhartzen nituen arrainak, haien hoxtura begiratzen zuen belar estalgi bat gainetik. Etxera eta, bertze zerbaitez gogutzen nintzan eta horrela zizaztan gogoan (gambara batean ene ibilaldietan moztuak nituen liliak edo emanak zauztaten gauzak bezala) metatzen leinuru bat hartan jokatzen zen harri bat, hegaztegi bat, ezkila soinu bat, orsto usain bat, ainitz iduri, aspaldi baitu haien azpian hila dela, haren argitzeko borondaterik aski ez nik ukanik, aitzinetik senditua nuen gauzen izana. Bizkitartean aldi batez - gure ibilaldia bere iraupen ohikotik haratago luzatua izanik, , arratsaldea bururatzera zoalarik, Percepied medikuaren aurkitzeko zoriona ukana baiginuen biderditan, karrosan lauhazkan joanki, ezagutuak baiginituen eta harekin igan-araziak - mota hortako iduripen bat ukan nuen eta enuen apur bat barnatu gabe utzi. Karrosazainaren ondoan igan-arazia ninduten, zimizta bezala ginoazen medikuak Combray-ra sartu baino lehen behar zuelakotz Martinville-le-Sec-en eri baten etxean gelditu, elgarrekin hitzarturik athe aitzinian igurikatuko ginuela. Bide itzultze batean senditu nuen bapatez bertze edozeinen iduririk etzuen atsegin berezi hura, Martinville-ko bi ezkiladorren ikustean, iguzkiak etzatean hetara baitzeman eta gure karrosaren mugimenduak eta bideko bihurgunek lekuz alda-arazten zituela iduri baitzuten, eta gero Vieuxvicq-ekoaren, hunek, mendixka batek eta ibar batek hetarik berexia, eta urrunean ordoki gorago batean jarria, haien auzo-auzoa iduri baitzuen alta.

Haien dorre-punttak zuen moldeari ohartzean, haien lekuz aldatzeari, iguzkituak izaiteari, sendi nuen enintzala ene iduripenaren bururano joaiten, zerbait bazela mugimendu horren giblean, argi horrenean, edukitzen eta aldi berean gordetzen zutela iduri zuten zerbait.

Ezkiladorrek hain urrun zuten iduri eta hain guti gu hetera hurbiltzen ari ginela, nun ustegabetua izan bainintzan, ephe zenbait berantago, Martinville-ko elizaren aitzinean gelditu ginelarik. Hedoiertzean haier ohartzetik ukana nuen atseginarene arrazoina enakien eta arrazoin hori bilatu behar ukaitea ontsa nekagarri iduritzen zizatan; iguzkira higitzen ziren marra horien neure buruan geroko atxikitzea gutiziatzen nuen eta hetaz gehiago ez orai axolatzea. Eta badu itxura, egin ukan banu, bi ezkiladorreak betiko joanen zirela hainbertze zuhatz, hegaztegi, usain, soinu, emana zautaten eta behin ere barnatu eztutan atsegin ilun horren gatik bertzetarik bereziak nituenekin batzera. Medikua jin artean aitamekin solastatzera jautsi nintzan. Gero berriz abiatu ginen, alkian ene lekua hartu nuen, burua itzuli berriz ere ezkiladorren ikusteko, berantxago azken aldiko egin baintuen bide bateko bihurtunean. Elhe emaiteko gogoan iduri etzuen ezkiladorreak ene solasari doi-doi ihardetsia ukanik, behar ukan nuen, bertze lagun baten eskasean, nihauren gana jo eta ene ezkiladorrez orhoitzera entseatu. Berehala haien itxurak eta sahets iguzkituak, halako azal bat izanak balire bezala, urratu ziren, hetan gordea zenetik apur bat agertu zizatan, ephe bat aitzinean nitan etzen gogoeta bat ukan nuen, buruan hitzetan moldatu zizatana, eta ares-tian haien ikusteak sendi-arazia zautan atsegina hainbatez zen handitu nun, halako xoramen batek harturik, bertzerik jeus gogoan ukan ahal ezpainuen. Ordu hartan eta jadanik Martinville-tik urrun ginelarik, buru itzultzean berriz ikusi nituen, beltz-beltza aldi hartan, iguzkia jadanik etzana baitzen. Noiztenka bideko bihurtunek gordetzen zauztaten, gero azken aldi batez agertu ziren, eta enituen gehiago ikusi.

Martinville-ko ezkiladorren gibelean gordea zena erranaldi pollit baten iduriko zerbait izan zaitekeela neure buruari erran gabe, atsegin emaiten zautaten hitz batzuen itxuran agertua zizatanaz geroz, medikuari izkiriatzeko bat eta paper bat eskatuz, ene konzienziaren arintzeko eta ene suhartasunari obeditzeko, karrosa jauzika joanik ere, geroztik hatzeman dutan zatiño hau izkiriatu nuen, guti baizik ezpaitut aldatu ukan behar:

«Bakartuak, ibarraren heinetik goititzen eta baserri zabalean galduak bezala, zerura igaiten ziren Martinville-ko bi ezkiladorreak. Laster hirur ikusi ginituen: itzuli bizi batez haien aitzinera jartzera jinez, ezkiladorre berandu bat, Vieuxvicq-ekoa, batua zizaien. Minutak iragaiten ziren, gu lehian joai-

ten ari eta bizkitartean hirur ezkiladorreak beti gure aitzinean urrun, ibarrean phausatu hirur xori bezala, iguzkira geldirik ikusten baitira. Gero Vieuxvicq-eko ezkiladorreak bazterrera egin zuen, urrundu zen, eta Martinville-koak bakarrik gelditu ziren, urruntasun hortan ere, haien sahetsetan irriñotan eta jostatzen ikusten nuen sartaldeko argiaz hartuak. Guk hainbertze luzaturik hetara hurbiltzeko, gogoan nuen haien ondoan izaiteko oraino behar ukanen ginuen dembora noiz ere, bapatez, karrosak itzuli eginik, haien oinetan ezarri baiginituen; eta haren aitzinera hain gogorki egotziak ziren, gelditzeko astia baizik ezpaiginuen ukan kalostrapearekin ez joiteko. Bideari jarraiki ginen; Martinville jadanik zuela guti utzia ginuen eta herrixka, gu ephe batez lagundurik, itzalia zen, hedoiertzean bakarrik guri beha ihes joanki, haren ezkiladorrek eta Vieuxvicq-ekoak goraintzitako bere puntta iguzkituak inharrosten zituztenean. Batzuetan bat ezeztatzen zen bertze biek gu oraino ephe batez ikus ahal ginintzaten; baina bidea bertze alde bateratu zen, argian itzuli egin zuten bi urrezko ophoek bezala eta ene begietarik itzali ziren. Baina, geroxago, Combray-tik jadanik hurbil ginelarik, iguzkia orai etzana, azken aldi batez ikusi nituen biziki urrundik, ezpaitziren gehiago zeruan margoztatu hirur lore bezala baizik alhorren marra aphilaren gainean. Leienda bateko hirur nexkato gaztez orhoit-arazten ninduten ere, jadanik iluna erortzen ari zen bakartasun batean utziak; eta lauhazkan urruntzen ari ginen batean, ikusi nituen herabeki bere bidearen bila eta, bere itxura noblean behaztopa zenbait egin ondoan, elgarretara tinkatzen, bat bertzearen gibeletik lerratzen, zeru oraino gorraxtan itxura bakar beltz baten baizik ez egiten, xoragarria eta etsitua, eta gauan ezeztatzen.»

Ehoiz ere enuen orrialde hori gogoan ukan; baina aldi hartan, medikuaren karrosazainak Martinville-ko merkatuan erosiak zituen hegaztinak ohiki zare batean ezartzen zituen alkiaren izkinan, izkiriatzea bururatua ukan nuelarik, halako zorionean izan nintzan, hainbat sendi nuen ezkiladorre horietaz eta gibelean gordetzen zutenaz osoki arindua nindutela nun, nihaur oilo bat izan banintz eta arraultze bat erruna ukan banu bezala, buru hausteko moldean kantuz hasi bainintzan.

Egun guzian, ibilaldi horietan, amets egin ahal ukana nuen Guerantes-ko dukesaren adixkide izaiteak emanen zautan atseginaz, harekin amarrain arraintzan artzeak, Vivionne-an untzian ibiltzeak, eta, zorion egar-

rian, ordu horietan biziari beti arratsalde zoriondun zerrenda batez egina izaitea baizik bertzerik jeus ez eskatzeak. Baina etxerako bidean ezkerretik laboretxe bati ohartua nintzanean, aldiz biziki hurbil ziren bertze bietarik aski urrun, ezpaitzen hartarik hara haritzekilako bidexka bat baizik hartu behar, alde batetik phentze batzu baitzituen bakoitza hesien barnean arte berdinetan sagarrondo batzuekin, hauek emaiten zauela, iguzkiak etzatean argitzen zituenan, bere itzalen marrazki xaponesa, bihotza bapatez joiten hasten zizatan, oren erdi bat barne sartuak izanen ginela banakien eta, Guermantes-ko aldera joanak ginenean eta auharia berantago ezarria, salda jan orduko etzatera igorriko nindutela, hala nola nun ama, mahian atxikia auharian gomitak izan balire bezala, ezpaitzizatan ohean gauon erraitera jinen. Hartara sartu berria nintzan trixteziako gunea, zuela ephe bat oraino zorionean nindoanetik bertzelakoa zen, zeru batzuetan xerrenda gorra bat marra batez bezala xerrenda musker eta beltz batetik berezia den bezainbat. Xori bat ikusten da gorraxtan hegaldaka, burura heltzera doa, beltza abantzu hunkitzen du, gero han sartua da. Arestian inguratzen ninduten gutzietarik, Guermantes-era joaitekoa, bidaiatzekoa, zoriondun izaitekoa, hainbertze kamporatua nintzan orai nun ezpaitzautan haien egiteak atsegirik batere emanen. Zein gogotik utziko nuen hori guzia gau osoan amaren besoetan nigar egin ahal ukaiteko! Hotzikarak hartzen ninduen, enituen begi antsiatuak amaren begitartetik baztertzen, gaur ezpaitzen neure burua hartan gogoz ikusten nuen gambaran agertuko, hil nahiko nuen. Eta izanara horrek biharamunerano iraunen zuen, goizeko arraiek, bere marrak, baratzegileak bezala, leihorano igaiten ziren amatxi-lorez aphaindu harresian ezartzen zituztelarik, ohetik jauzi eginen nuenean lasterrez baratzera jausteko, arratsak amaren uzteko ordua nehoiz ekharriko zuela gehiago gogoan ukan gabe. Eta horrela, Guermantes-ko aldetik dut ikasi nitan, aldi batzuetan, elgarri jarraikitzen diren izanara horien berexen, eta egun osoaren uztzerano doazenen, batek bertzea haizatzen duela, sukarraren zuzentasunarekin; elgarren auzo, baina bata bertzetik hain berex, eta elgarren artean harreman ukaiteko biderik hain gabeak, nun ezpaitzaket gehiago gogoan har, eta ez itxura ere baten baitan bertzeak eman dautan gutizia, edo beldurra, edo hartan egin dutana.

Enetako beraz Méséglise-ko aldea eta Guermantes-koa gelditu dira bata bertzearen ondoan deramatzagun bizi guzien artean dugun biziko, ger-

taldiez gehienik beteko, aroaldiez aberatseneko, erran nahi dut gogoaren biziko gertakari ttipi ainitzer loturik. Dударик gabe ohar gabean ari da gutan aitzinatzen, eta guretako erran-nahia eta itxura aldatua dauzkoten egia, bide berri batzu idekiak dauzkutenak, aspaldidanik ari ginen haien aurkitzearen prestatzen; baina hori jakin gabean zen, eta guretako eztira ikusi ahal ditugun egunekoak baizik. Orduan belarrean jostatzen ziren loreak, iguzkitara zoan urak, haien agertzea inguratu zuen eskualde guziak oraino laguntzen dute haren begitarte ohartu gabearen edo baztertuaren orhoitzapena; eta eiki iragaile xume hortaz, ametsetan ari zen haur hortaz luzaz begiztatuak zirenean - errege bat jendetan galdu orhoitzapenlari batez egina den bezala - , naturako xoko horrek, baratze izkina horrek etzuten uste ahak ukanen hari esker zirela bere berezitasun iragankorrenetan bizirik egoitera deituak; eta bizkitartean han basarrosek laster ordainduko duten hesiaren luzara lorez lore dabilan elhorrixuri usain hura, bidexka bateko legarrean oiharzunik gabeko urratsaren hotsean, ur-landare baten ondoan ibaiaren urak egiten duen ur-begia eta berehala lehertzen dena, ene buru-berotzeak hartu ditu eta bat bertzearen ondotik hainbertze urteren iragan-araztera ereman, ingurunean aldiz bideak ezeztatu direlarik, hetan ibili direnak eta hek ohondikatu dituztenen orhoitzapena hil. Batzuetan eskualde zati hori horrela gaurregunerano ekharria bertze orotarik hain berezirik agertzen da, nun ene gogoan baitabil nahasiki hala nola Delos-ko irla loreztatu bat, erran eztezaketalarik zein heritik, zein arotik - behar bada xoilki zein ametsetik - badatorren. Baina oroz gainetik ene gogo zolako metatze barnatu batzu bezala, oraino hetan bermatzen nizan lur ihardokitzaleak bezala ditut gogoan ukan behar Méséglise-ko eta Guermantes-ko aldeak. Gauzetan, izaitetan sinestea banuelakotz, hetan nindabilalarik, dira ezagun-arazi dauztaten gauzak, izaitzak oraino seriocki hartzen ditutan eta bozkarioa emaiten dautaten bakarrak. Ala guzia badagien sinestea nitan agortua delakotz, ala gauzak eztiarelakotz orhoitean baizik moldatzen, gaurregun lehen aldikotz erakusten dauztaten loreak etzaizkit egiazko loreak iduritzen.

Méséglise-ko aldeak bere elhorrixuri, nabar-lore, lobelar gorri, saggarrondoekin, Guermantes-ko aldeak bere ibai aphotxalidunarekin, igebe-lar eta edaskiekin, egin dute behin betikotz enetako han bizi nahiko nuen eskualden itxura, oroz lehen arraintzara joan ahal izaita nahi dutana, unt-

zixkan ibiltzera, gatzelu gothikoetako ondarren ikustera eta garien erdian, Saint-André-des-Champs zen bezala, eliza gotor, baserritar eta gari-meta bat bezala urreztatua zen baten ikustera; eta, bidaiatzean, alhorretan oraino aurkitzea gertatzen zautan nabar-lore, elhorrixuri, sagarrondoak, barnatasun berean daudelakotz, ene iraganaren heinean, berehala bihotzera mintzo zazkit. Eta bizkitartean, lekuetan berea duten zerbait badelakotz, Guermantes-ko aldearen berrikusteko gutuziak hartzen nuenean, elaitake askietsia izan Vivonne-ean bezain igebelar ederrak, ederragoak diren ibai baten bazterrera ni ermanez, arratsean - berantago maitasunera joaiten den, eta hartarik betiereko ezin baztertua bilaka daitekeen herstura hura nitan atzartzen zen orenean - etxera sartzean eni gauon erraitera neurea baino ama ederrago eta adimendunago bat ethor zadin agiantzatuko nuen baino gehiago. Ez; zorionean lokartu ahal ukaiteko geroztik edozein maitalarik emana ahal eztautan nahasmen gabeko bake harekin - hetan sinesten denean berean hetaz dudatzen denaz geroz eta haien bihotzaz nehoiz ez jabetzen amaren musua ukaiten nuen moldean, gibel-gogoetarik atxiki gabe, enetako etzen xede baten ondarrik gabe - behar nuena hura izan zadin zen bezala, begi azpian akatx bat omen zen zerbait baina gaineratekoa bezain maite nuenarekilako begitarte hura enegana gur zezan bezala, berdin ere berrikusi nahi dutana, ezagutu dutan Guermantes-ko aldea da, elgarri tinkatu bertze bietarik apur bat urrunago den laboretxearekin, haritzen bidexkara sartzean; phentze hek dira, hetan, iguzkiak aintzira bat bezala miraila bilakatuak dituenean, sagarrondoan orstoak marrazkitzen baitira, eskualde hura da, batzuetan gauaz ene ametsetan haren nortasunak tinkatzen bainu abantzu izigarriko indar, atzartu ondoan berridiren eztezaketan batekin. Izan daiteke sendipen hoin ezperdinak nitan betikotz ezin berexteko moldean batuak ukanik, bakarrik aldi berean sendi-araziak zauztatelakotz, Méséglise-ko aldeak eta Guermantes-koak ezarri nautela, ethorkizuneko, atsekabe ainitzen ukaiteko eta huts ainitzen egiteko ere lanjerrean. Ezen usu norbait berrikusi nahi ukan dut xoilki elhorrixuri hesi bat orhoit-arazten zautalakotz zela ohartu gabe, eta maitasun beritze batean sinestera, sinets-araztera eremana izan niz, bidaiatzeko gutuzia xoil baten bidez. Baina hortik beretik ere, hetara lot daitezkeen gaurrengungo ene sendipenetan iraunez, oinarri batzu emaiten dauete, barnatasun zerbait,

bertzeri baino neurri bat gehiago; xoragarritasun zenbait gehitzen ere, enetako baizik ezten erran-nahi bat. Udako arratsetan zeru harmoniaduna abre bat bezala burumbaz ari denean eta bakoitza ekaitzari muttur, Méséglise-ko aldeari dut zor bakarrik egoitea gogo-erautzian, darion euriaren artetik, lila ezin ikusi eta iraunkor batzuen usainaz hats-hartzen.

*
* *
*

Goizerano horrela nindagon ainitzetan Combray-ko dembora go-goan, ene gau trixte lorik gabeak, eta berrikiago haien iduria gatilu the baten gustuaz - Combray-n «usaina» erranen zaukotenez - itzulia izana zizatan hainbertze egun, eta, orhoitzapenen elgarri lotzetik, hiri ttipi hura utzi eta urteak eta urteak berantago, ni sortu baino lehen Zuanek ukana zuen maitasun batez ikasia nuena, duela mendeak hilak diren jende batzuen biziare gure adixkide hoberenarenez baino errexkiago ukaiten den xehetasunetako zuzentasun zorrotzagoarekin, ezina iduri den gauza, hiri batetik bertzera elhekatzea ezina iduri lizatekeen bezala, ezin hori zein aldetarik itzuli behar den jakiten ezteno. Batzu bertzer gaineratu orhoitzapen horiek orok etzuten meta bat baizik egiten, ez alta ez berexi ahal ukan gabe, haien artean - zahartuenean eta berrikiago usain batetik sortuak zirenen, gero haren ganik jakinak nituen bertze norbaiten orhoitzapenak baizik etzirenen -, arraildura batzu, egiazko hutsune batzu ezpada, bederen harroka batzuetan, harbizi batzuetan, ethorkiko, adineko, «moldakuntzako» ezperdintasunak salatzen dituzten marrazki edo margo ñabardura hetarik.

Goiza hurbiltzen ari zenean, bazen segur aspaldi atzartzeko ezpai labur hura ezeztatua zela. Egiazki zein gambaretan nintzan banakien, inguruan ilunean berriz eraikia nuen eta - ala orhoit hutsarekin bidatuz, ala, seinale bezala, leihoko erridauak haren oinean ezartzen nituen leinuru ahul baten ikusteak lagunduz -, oso-oso eraikia nuen, etxegile batek eta leiho-ather bere idekitze hastapeneko atxikitzen dauen tapizalari batek bezala, mirailak berriz lekuruak nituen eta komoda berriz bere ohiko lekuan ezarria. Baina doi-doi egunak - eta ez harentzat hartua nuen azken itxindi baten leinu-

ruak burdin-gorritzko erridau-ziri batean - egiten zuena ilunbean, kledaz bezala, bere marra xuri zuzentzalea, leihoak bere erridauekin uzten baitzuen han hutsez ezarria nuen atheko gunea, aldi berean, hari leku egiteko, ene orhoitak errebeski hor emana zuen bulegoa bazoalarik laster handitan, khebidea aitzinean igorritz, artebideko harresia baztertuz; bazen korroilaño bat, duela ephe bat oraino ikuztegia zagon lekuan, eta ilunean berreraikia nuen egoitza joan zen atzartzean artetik ikusiak nituen egoitzekin batzera, erridauen gainetik egunaren erhi xutak marratua zuen ikur hitsak haizaturik.

Zati bigarrena

ZUANEN MAITASUN BAT

Verdurin-darren «multxo ttipian», «billkura ttipian», «batasun ttipian» hartua izaiteko, gauza bat aski zen baina baitezpadakoa, «Credo» batean sinetsi behar ukaitea, artikulua bat hau baitzuen: urte hartan Verdurin Andreak gerizatzen zuen pianixta gazteak, hartaz baitzion «Wagner-en horrela joitea elizateke haizu izan behar!», aldi berean Planté 'ta Rubinstein «erhausten» zituela, eta Cottard medikua Potain baino eritasun ezagubide hobekoa zela. Verdurin-darrek haien etxera joaiten etziren jendeak euria bezain aspergarri zirela sinets-araz etzezakoten «lagun berri» orok, bere burua ordu berean baztertua ikusten zuen. Emazteak hortan jakin-nahi mundutar ororen uzteko eta bertze saloinetako gozagarriaz nor berak berri ukaiteko gizonak baino bihurriagoak izanez, Verdurin-darrek sendi baitzuten ere ikhertzeko gogo hori eta arinkeriak su hori khotsuz eliza ttipiarendako hilgarri bilaka zaitezkeela, bata bertzearen ondotik emazteki «leial» guzien egoztera ekharriak izanak ziren.

Horiek, medikuaren ezkontide gaztea ezpada, urte hartan, nahiz Verdurin Anderea bera bertutekoa zen eta familia burjes errespetagarri, ezin gehiago aberats osoki ez ezagun batekoa - harekin emeki emeki gurutzatze oro nahitara utzia baitzuen - , nunbait han jende bakar abantzu erdi-munduko batean mugatzen ziren: Crécy-ko Anderea, Verdurin Andreak izen ttipitik deitzen zuena, Odette, «maitasun» bat zela baitzion, eta harekin pianixtaren izaba, munduaz jende jakitate gabeak, haien lañotasunari hainbat errex sinets-arazia baitzizakon Sagan-go prinzesa eta Guermantes-ko dukesa

dohakabe batzuen ordaintzera bortxatuak izanak zirela bere auharian jendearen ukaiteko, nun andere handi horien etxera gomiatuak izaita eskainia izan balizaie, lehenagoko etxezainak eta julisak hori erdainuz ezetsiko baitzuten.

Verdurin-darrek etzuten auhaltzera gomiatzen: haien etxean «mahikoak ezarriak zinituen». Auhal-ondoko, egitaraurik etzen. Pianixta gazteak joiten zuen, baina bakarrik «bere gostura», nehor ezpaitzen bortxatzen eta Verdurin Jaunak zion bezala: «Guzia adixkidendako, eta biba lagunak!» Pianixtak jo nahi baldin bazuen *Walkyrie*-ko zaldi lasterra edo *Tristan*-en aitzin-musika, Verdurin Anderea erasian hasten zen, ez musika hori laket etzuelakotz, baina aldiz gehiegi hunkitzen baitzuen. «Nahi duzue beraz buruko mina ukan dezatan? Badakizue bada beti gauza bera dela hori joiten duen aldi guzietan. Zer gertatuko zatan badakit! Bihar jeiki nahiko dutanean, gauon, nehor ez!» Joiten ezpazuen, solastatzen zen, eta adixkidetarik batek, gehienetan ordu hartako haien margolariak, «uzten zuen», Verdurin Jaunak zion bezala, «jende guzia urra-arazten zuen ezteus-elhe gotor bat», eta oroz gaineratik Verdurin Anderea, hari - hain zen ohitua sendi zituenen erran-molde itxuratuaren zuzenki hartzen - egun batez Cottard medikuak (orduan hasiberria zen gazte bat) behar ukan baitzaukon sobera irri eginik atheraia zuen matel-hezurra lekuan ezarri.

Jantzi beltza debekatua zen, «lagunez lagun» zirelakotz eta «aspergarrien» iduririk ez ukaiteko, hetarik zaintzen baitzen izurritetik bezala eta ezpaitziren auhal-ondo handietara baizik gomiatzen, ahal bezain bekan emaiten zirenak eta bakarrik margolaria jostatzen ahal baldin bazuten edo pianixta ezagun-arazten. Gaineratekotan, pentsa-mentsaka jostatzen zen, soineko berezietan auhaltzen, baina elgarren artean, arrotzik batere «multxo ttipiarekin» nahasi gabe.

Baina «lagunkidek» Verdurin Anderearen bizian leku gehiago hartua zuten arau, aspergarriak, gaitzetsiak, haren ganik adixkideak urrun atxikitzen zituen jende guzia izan zen batzuetan libro izaitera uzten etzitzutena, baten, bertzearen ofizioa, heren baten baserriko etxea edo osasun gaixtoa. Cottard medikuak uste bazuen mahitik jalgi behar zuela lanjerrean zen eri baten ondora itzultzeko: «Nork daki, zion Verdurin Andereak, gaur haren

desarriñatzera zure ez joaiteak biziki on gehiago eginen dauko behar bada; zu gabe gau on bat eremanen du; bihar goizean joanen zira eta sendatua aurkituko duzu.» Negilaren hastapenetik, eritua zen Eguberriz eta urthatsez leialek «tradituko» zutela gogoratuz. Pianixtaren izabak nahi zuen baitezpada egun hartan familian auhaltzera bere amaren etxera jin zakidion:

- Uste duzu hil laitekeela, zure ama, egin zuen gogorki Verdurin Andereak, urthatsez ezpazinezte harekin auhaltzen, «*probinzian*»!

Ondoko astean khexua berphizten zizakon:

- Zu, jaun medikua, jakintsun bat, izpiritu azkar bat, Ortzirale sainduz naturalki bertze egun batez bezala heldu zira? erran zaukon Cottard-i, lehenbiziko urtean, doinu segur batekin, ihardesteaz dudatzen ahal ezpala bezala. Baina hark erran aiduru ikharan zagon, ethorri izan ezpaltz, bakarrik egoiteko irriskutan baitzen.

- Ethorriko nauzu Ortzirale sainduz.... goraintzien egitera, Bazko-ko bestak Auberñan iraganen baititugu.

- Auberñan? kukusoek eta biphiek jana izaiteko, on baino hobe dagizula!

Eta ixil baten ondotik:

- Errana ukan bazinauku bederen, horren antolatzera entseatuko ginen, eta bidaiaren elgarrekin egitera behar diren errextasunekin.

Berdin, «leial» batek adixkide bat baldin bazuen, edo «ohiko» andere batek batzuetan «uztera» ekhar zezakeen amorosaldi zenbait, Verdurindarrek, emazte batek maitari bat ukan zezan ezpaitziren izitzen haien etxean ukan zezan ber, hetan maita zezan eta haier hautets etzezan ber, bazioten: «He bada! ekharrazu, zure adixkidea.» Eta entseguko hartzen zen, ikusteko hea etzuenez Verdurin Anderearendako segeturik ukanen, «multxo ttipian» batua izaiteko gai zenez. Hala ezpaldin bazen, ekharria zuen leiala bazterrera hartzen zen eta emaiten zizakon bere adixkide edo maitariarekin nahasteko zerbitzua. Bertzela, «jin berria» bere aldiari leial bat bilakatzen zen. Beraz urte hartan, erdi-munduko andereak erran zaukonean Verdurin Jaunari gizon xoragarri baten ezagutza egina zuela, Zuan Jaunarena, eta haien etxean onhartua izaiteaz zorion handitan izanen zela entzun-arazi, ordu berean Verdurin Jaunak galdea bere emazteari jakin-arazi zaukon. (Etzuen ehoiz abururik em-

aztearen ondotik baizik, bere egiteko berezia hunen nahikunden egin-araztea baitzuen, eta leialen gutizien, antzezko ahal handi batzuekin.)

- Huna Crécy-ko Anderea zerbait nahi baitautzu eskatu. Bere adixkidetarik bat nahi luke zure aitzineratu, Zuan Jauna. Zer diozu?

- Baina, nolaz ez, zerbait ezets daiteke hanelako ezin pollitago bati? Zaude ixilik, etzaizu zure aburua eskatzen, ezin pollitago bat zirela diotzut.

- Hala nahi duzunaz geroz, ihardetsi zuen Odette-ek doinu jostakin batekin, eta gehitu: enizala *fishing for compliments* badakizu.

- He bada! ekharrazu, zure adixkidea, gozagarria baldin bada.

«Multxo ttipiak» etzuen segur Zuan-ek ikusten zuen jendearen iduririk batere, eta zinezko mundutarrek aurkituko zuten hartan zuen bezalako leku berezi baten ukan beharrik etzela, Verdurin-darren etxean bere buruaren onharr-arazteko. Baina Zuanek emazteak hainbertzetarano maite zituen nun arixtokraziako abantzu guziak ezagunak zituen eta ezer ikasteko etzaukoten egunetik haste, ezpaitzen gehiago Saint-Germain bazter-hiriak emanak zauzkon herritartasunezko karter, letera, abantzu noblezioako tituluer atxikia izan, halako diru ordaintzezko, berez baliorik gabeko kreditezko hitz bati bezala baizik, berez baliorik gabea, baina lerro baten ukaitea haizu uzten zaukonari probinziako xoko zenbaitetan, han jaunttoaren edo grefieraren alaba pollita iduritua zizakolakotz. Ezen orduan gutiziak edo maitazarreak berremaiten zaukon orai ohiko bizian galdua zuen goratasunezko sendimendu bat (nahiz hark zukeen lehenago izpirituko dohainak atsegin arinetan hondatuak zituen bizimolde mundutarrera eremana, eta edergintzako zuen jakitatearen erabiltzera lerroko andere batzuer bere margazki erosketetan edo hotelen mubleztatzean aholku emaiten), eta distiran izaitea gutizia-arazten zaukona, hartaz amoratua zen ezezagun baten begietan, Zuan izenak berberak entzutera emaiten etzuen aphaintasun batez. Hori oroz gainetik gutiziatzen zuen anderea ethorki xumekoa zenean. Adimenduko gizon batek bertze adimenduko bati zozoa dela iduritzeko beldurrik eztuen bezala, ezta jaun handi baten ganik, baina baserritar baten ganik gizon aphaïn bat bere aphaintasunaren gaitzetsia ikusteaz beldurtuko. Mundua badenetik hutsalerialiaz nasaiki emanak izan diren izpirituko joko eta gezurren hirur laurdenak, bere burua ttipitzen baizik etzaueten jende batzuen ganik, aphilagoko

batzuek emanak izan dira. Eta Zuan, dukesa batekin lañoa eta axolagabea zena, ikharan zagon, fazoin eginez, gambarazain baten aitzinean.

Etzen hainbertze jende bezala, hauk auherreriaz edo leku berezi bati estekatua egoitetik den gizarteko handitasunak badagien eginbeharraren sendimendu etsituaz, biziak, hartan heriotzerano hetsirik dauden munduko lerrotik hara, eskaintzen daueten atseginetarik elikatzen baitira, azkenean aski baitzaie atsegin erraitea, hobe eskasez, behin hetara ohituak izanez geroz, badaduzkan libertimendu artekoer eta nazka jasangarrier. Zuanek, hark, etzuen haiekin libertitzen zen emazteak pollitak aurki zitzaen bilatzen, baina hastapenean pollitak aurkituak zituen emaztekin libertitzea. Eta ainitzetan eder aski arruntekoak ziren, ezen bera ohartu gabe bilatzen zituen gorputzeko edertasunak, osoki kontrakoak ziren hautesten zituen edergilek zizelkatu edo margoztatuak mireskarri egiten zauzkonekin. Barnatasunak, itxurako ilundurak hormatzen zauzkoten sentzuak, haragi sano, jori eta gorra bat aski zelarik aldiz haien phizteko.

Bidaian aurkitzen bazuen ezagutzearen ez bilatzea aphainago izanen zen familia bat, baina hartan emazte bat gertatzen zenean oraino ezagutua etzuen zerbait goxagarriez aphaindua, orduan «bere hartan» egoitea eta eman-arazia zaukon gutziaren enganatzea, harekin senditu ahalko zuen atseginarene ordaintzea bertze atsegin batez, maitale ohi bati jin zakidion izkiriatuz, biziaren aitzinean amor emaita beldurti bat idurituko zizakon, zorion berri bati ukho egite zozo bat, herriaren ikustera joaiteko orde Pariseren marrazki batzuer beha bere gambaran hetsirik egoitea bezainbat. Etzuen bere burua eginak zituen ezagutzetako eraikuntzen barnean hesten, baina, gastu berri batzuekin hurbildik behatuz berreraiki ahal ukaiteko emazte bat gustatua zizakon leku orotan, eremu ikertzalek berekin deramatzatatan oihal-ete irauskarri hetarik bat moldatua zuen. Ezin ereman edo atsegin berri batekin ezin ordain zaitekeen guzia, urrurik utziko zuen, bertze batzuer den gutziagarria iduriturik ere. Zenbat aldiz dukesa baten baitan zuen arrakasta, hark aldirik aurkitu gabe Zuani atsegingarri izaiteko ukana zuen gutzia urtetan metatuaz egina, bapatez utzia zuen hari eskatuz, mezu ausartegi baten bidez, telegrafazko gomendio bat harremanetan ezarrezana, ordu berean, baserrian haren alabari ohartua zizakon etxe-gizon batekin, diamant bat ogi phoxi batekin

ordainduko zuen gose amikatu batek bezala! Ondotik, hortaz jostatzen zen ere, baitzuen bere baitan halako oies bat, gaitasun hautuko batzuek ordaintzen zutena. Eta gero, auherrik bizi izan diren gizon adimenduko hetarik zen, konsolamendu baten bila dabiltzanak eta behar bada desenkusa baten, auhertasun horrek haien adimenduari edergintzak edo ikaskuntzak egin lezaketen bezain gauza atsegingarri batzu eskaintzen dauetzeelako gogoan, eta «Biziak» elhaberri guziek baino gertaldi ohargarriagoak, ustegabekoagoak badaduzkalakoan. Hori zuen bederen munduko bere adixkide gogoz xorrotxener segurtatzen eta errexi sinets-arazten, bereziki Charlus-ko baroinari, hunen bozkariatzen jostatzen baitzen gertatzen zizazkon ixtorio jostagarri batzu erraibez, ala burdinbidez baturik gero bere etxera ekharria zuen emazte bat, aurkitua baitzuen ordu hartan Europako politikako hari guziak eskuetan nahasten zizazkon monarka baten arreba zela, horrela bera molde goxagarri batean hortaz jakinduru gertatzen baitzen, ala, gertaldietako joko batzunaren bidez, kozinersa baten maitari bilakatu ahalko zuenez edo ez, kardinalen bilkurak eginen zuen hautuaren menean baitzen.

Bertzela ere etzuen bakarrik haiekin bereziki lotua zen alharguntsa bertutedun, jeneral, akademialarien andana dirdiranta, Zuanek hoinbertze ausartasunekin ararteko izaitera bortxatzen. Zituen adixkideak oro ohituak ziren noiztenka haren eskutitz baten ukaiten, hartan gomendiozko edo sartzeko hitz bat eskatua baitzizaien, itxura iraunkor bat eta helburu aldakor batzu, errebeskeria batzuek baino hobeki salatzen zituen diplomazioko trebetasun, maitasun jarraikien eta estakuru ezperdinen artean beti berdin batekin. Ainitzetan erran-arazi ditut urteak eta urteak berantago, haren nortasunari ohartzen hasi nintzanean enarekin osoki bertze alde batzuetarik zituen iduripenen gatik, oraino hala etzen aitaxiri (ene jaiotzeko ingurunetan zen hasi haien arteko atxikimendu handia, eta egintza horiek luzaz geldi-arazi zituen) izkiriatzen zaukonean, hunek, estalgiaren gainean adixkidearen izkiri-ria ezagutuz, egiten zuen: «Horra Zuan zerbaiten galdez: guardi eman!» Eta, ala aieruz, ala jendeak gutzizatzen eztuten zerbaiten eskaintzera bultzatzen gituden sendimendu nahigabea debrutarraz, aitaxi-amatxiek ez-eza emaiten zuten igortzen zauzteen galde betetzeko errexener, hala nola igande oroz gure etxean auhaltzen zen nexkato gazte bati aitzineratzea, bortxatuak baitziren, Zuanek aipatzen zauen aldi oroz, alegia etzutela gehiago ikusten egitera,

aste guzian harekin nor gomitatuko zen ari zirelarik, eta ainitzetan nehor ezpaitzen aurkitzen, hortaz hoin zoriondu izanen zenari hel egin eskasez.

Batzuetan aitatxi-amatxien senar-emazte adixkide batek eta ordu arteo Zuanen ez ikustez deitoratua zenak, jakin-arazten zauen atseginekin eta behar bada gutziaren sorr-arazteko nahikaria batekin, haiendako izan daitekeen goxagarriena bilakatua zela, gehiago etzituela uzten. Aitaxik etzuen haien atsegina uhertu nahi, baina amatxiri so egiten zaukon ahapeka kantatzen zuela:

*Mixterio hori bada zer da?
Jeusik eztezaket kompreni.*

edo: *Ikuspen iragankorra...*

edo: *Gauza horietan
Hobe da jeusik ez ikusiz.*

Ilabete zenbait berantago, aitaxik galdegiten baldin bazaukon Zuanen adixkide berriari: «Eta Zuan, beti ainitz ikusten duzua?» hizkidearen begitartea luzatzen zen: «Ehoiz etzazula haren izena ene aitzinean erran! - Baina hain atxikiak zinezuela uste nuen...» Horrela zenbait ilabetez amatxiren gusi batzuen etxekotua izana zen, abantzu egun oroz haien etxean auhalduz. Bapatez jitetik gelditu zen, aitzinetik erran gabe. Eri zela uste izan zen, eta amatxiren gusi anderea berrien galdatzera zoan, sukaldean eskutitz bat aurkitu zuenean kozinersaren khonduetan axolagabean utzia. Emazte horri jakin-arazten zaukon Paristik urrunduko zela, gehiago etzela jiten ahalko. Haren ohaidea zen, eta hausteko orduan, gatziatzea balio zuela uste ukana zuen bakarra.

Aldiz ordu batean zuen ohaidea jende mundutar bat zenean edo bederen ethorki xumegi batek edo izanara araugabekoegi batek munduan onhar-araztea debekatzen etzaukon norbait, orduan harendako berriz hara joaiten zen, baina bakarrik hartan zabilan edo hara ereman-arazia zuen ingurune berezian. «Gaur Zuanen beha egoitea ezto balio, erraiten zen, badakizue bada haren Amerikanosaren Operako eguna dela.» Hetan ohitua zen, auhaltzen zen, pokerrean jokatzen zen saloin bereziki hetsietan onhar-arazten

zuen; arrats oroz, bere ile gorrien xutari eman ixurkatze arin batek eztitasun apur batez hautsia zaukonean begi muskerren bizitasuna, lore bat hautatzen zuen botoinxiloko eta bazoan bere ohaidearen berredireitera haren idegoko emazte baten edo bertzearen etxean auhariz; eta orduan, haiendako euria ala eguraldia egiten zuen eta hor aurkituko zituen modako jendek, maite zuen emaztearen aitzinean, hetaz gaindituko zuten miresmena edo adixkidantza gogoan, gozagarritik berredireiten zuen orai soraioturik uzten zuen bizi mundutarrean, baina hunen mamia, hartan josatzen zen gar sartu batek hartua eta beroki margoztatua, maitasun berri batez osatua zuenaz geroztik baliosa eta ederra iduritzen zizakon.

Baina, estekadura edo amoroskeria horietarik bakoitza Zuanek, bere baitarik, bortxarik gabe, xoragarri aurkitua zuen begitarte edo soin baten ikustean sortua zen amets baten gauzatze guti edo aski osoa izana zelarik, aldiz egun batez antzokian lehenagoko bere adixkide batek Odette de Crécy-ren aitzinera ekharria ukan zuenean, emazte loriagarri batez bezala mintzaturik, harekin behar bada zerbaitezara heltzen ahalko zenaz, baina egiazki zen baino ukan nekeagoa zela erranez, hura ezagun-araziz berak zerbait gustagarriago egina zuela iduri ukaitekotan, Zuani agertua zizakon ez segurki ederrik gabe, baina orobat zizakon eder mota batekoa, gutiziarik batere emaiten etzaukona, baina halako higundura bat gorputzean sortzen, guziek dituzten bezalako emazte hetarik bat, bakoitzarendako bertzeak ez bezalakoak, eta gure sentsuek nahi dutenaren kontrakoak direnetarik. Zuani gustatzeko begitarte orrazea zorrotzegia zuen, larrua beratzegia, matel-ondoak jalkorre-giak, aurpegiak thiran. Begiak ederrak ziren, baina hain handi nun bere phi-zuarekin jausten baitziren, begitartearen gaineratekoa akhitzen baitzuten eta ez ontsa edo omore gaixtoan zelako itxura emaiten. Dembora zenbait antzerkiko aitzineratze horren ondotik, andereak izkiritua zaukon hainbat interesatzen zuten bildumen ikustearen eskatzeko, «hark, gauza ederren gostua bazuen jakitate gabeak», hobeki ezagunen zuela iduritzen zizakola erranez bere *home*-an ikusia ukanen zuenean, han asmatzen baitzuen «bere thearekin eta liburuekin hain gozoki», nahiz etzaukon ustegabetua zela gordea hain trixtea zen auzoalde hortan bizi izaitiaz eta «bera hain *smart* zelarik harendako hain guti hala zenean». Eta hara jitera utzia ukana zuen ondoan, joaiten errana

zaukon hainbat zorion ukana zuen egoitza hartan hain guti egonik zuen urrikia, harendako ezagutzen zituen bertze izaiteak baino gehiagoko zerbait izana baliz bezala mintzatuz, iduri baitzuen bien artean ezartzen zuela Zuani irriño bat egin-arazia zaukon halako lotura elhaberrizko bat. Baina Zuan hartara hurbiltzen ari zen adin jadanik apur bat etsituan eta amoros izaiteko atseginaz askietsia izaitea ikasia denean ordaintzerik hertsikiegi eskatu gabe, bihotzen hurbiltze hori, ezpada gehiago gaztoro lehenean bezala maitasuna baitezpada hartara doan helburua, hari loturik dago, aldiz, gogamenetako esteka hain azkar batez nun, gertatzen baldin bada, maitasuna sorr-araz baitezake. Lehen, maite zen emaztearen bihotzaz jabetzea amesten zen; berantago, emazte baten bihotzaren jabe dela senditzea amoros bilaka-arazteko aski izaiten ahal zaitzu. Horrela, adin batean, norberaren atsegina delarik gehienik bilatzen, iduri lukeelarik emazte baten ederrarendako den gustuak leku handiagoa hartu behar lukeela, maitasuna sor daiteke - maitasun gorputzetakoena - ukan gabe, oinarritako, hastapeneko gutizia bat. Biziko ordu hortan, aldi bat baino gehigotan maitasunak joa izaiten da; ezta hau gehiago bere lege ezezagun eta hilkorren araura aldatzen, gure bihotz ustegabetu jasailearen aitzinean. Laguntzera heldu gatzaizkio, orhoituaz, esondatuaz makurtzen dugu. Haren seinale baten ezagutzean, orhoitzen gira, bertzeak berphizten ditugu. Haren airea baitakigu, gure baitan oso-osoa sartua, ez-tugu - ederrak emaiten daukun miresmenaz beteak gira - emazte batek hastapena erran dezagun beharrik, gaineratekoaren edireiteko. Eta erditan hasten bada, bihotzak elgarretara hurbiltzen diren gunean, bertzearendako baizik ez gehiago izaitea aiphu den hartan, musika hura aski ohikoa dugu gure maite lagunarekin berehala batzeko gure aiduru dagon lekuan.

Odette de Crécy berriz izan zen Zuanen ikusten, gero ikustaldiak usutu zituen; eta badateke hetarik bakoitzak Zuani berritzen zaukola sendi zuen atsekabea, bere burua aurkituz artean berezitasunak apur bat ahatziak zauzkon begitarte horren aitzinean, eta ez hain errankor ez, gaztea izanik ere, hain histua zela orhoitua etzenarenean; harekin mintzo zen bitartean, damu zuen haren edertasun handia ezpaitzen berainik hautatuko zituenen motakoa. Erran behar da bertzela ere Odette-ren begitarteak meheago eta zorrotzago iduri zuela bekokia eta matelen gaina, gune leun eta zabalago

hura, ilen nasaiak - orduan «aitzinetara» luzatuak ukaiten ziren, «kiskurrean» goitituak, beharrien luzara xerlo ero batzu eginez - estalirik baitzauden; eta soin miragarriki egina zuenari doakonaz, bete-betean ikustea neke zen - aro hartako modaren gatik eta Parisko emazte hobekienik janzten zirenetarik bat izanik ere -, hainbat zaukon emazteari bulhar ingurukoak, asmatu behar zen sabel baten gainean aitzinera jalgiz eta bapatez moko moldean geldituz, azpian zaia bikunen balona hantzen hasten zen batean, emaiten zati ezperdin elgarrekin gaizki lotu batzuez egina zelako itxura; hainbat ziren izurdurak, hegalak, barnekoa beregaintasun osoan, bere moldearen nahitara eta oihal motaren araura, jarraitzen gorropiloetara, dentelazko uhainetara, gagatazko lerro zuzenetara, edo barneko sardaiaren luzara eremaiten, baina batere jende biziari lotu gabe, hau, girgileria horien egitura berera hurbiltzen edo urruntzen zen arau, han tinkatua gertatzen baitzen edo galdua.

Baina, Odette joana zenean, Zuanek bazuen irriño bat, berriz jitea haizu utziko zaukon artean demborak harendako zenbat irauen zuen errana zaukola gogoan; orhoit zen aldi batez luzazegi izan etzadin othoiztua zuen aire khexu, herabeaz; eta ordu hartan eginak zituen soez, beldurrezko othoizte batean haren gainean itzatuak, hunkigarri bilakatzen baitzuten lasto xurizko xapel, xingola beltzekilakoaren aitzinean lotua zuen gordetxe artifizialezko flokaren azpian. «Eta zu, errana zuen, ene etxera aldi batez thearen hartzera etzinitazke jin?» Lan batzuetan ari zelako estakurua eman zuen, Ver Meer de Delft-*ez ikher-lan bat*, egiazki urte 'ta urteak geroz utzia. «Ezer egin etzetzaketala ontsa ikusten dut, nik ahulak, zuek bezalako jakintsun handi batzuen ondoan, zaukon ihardetsia. Igela auzitegiaren aitzinean bezala nintzateke. Eta bizkitartean hain ikaskura niz, jakingura, argitu nahia. Zein josagarri datekeen irakurketan artzea, paper zahar batzuetan sudurraren sartzea!» gaineratua zuen andere aphain batek hartzen duen bere buruaz askietsa delako itxurarekin, zikintzeko beldurrik gabe lan arrunt batera emaitiaz bozkariatzen dela erraiteko, hala nola kozina egitea «eskuak berak orhean ezarriz». «Nitaz trufatuko zira, ene ikustera uzten etzitzen margolari hori (Ver Meer erran nahi zuen), enuen ehoiz aiphatzen entzuna; oraino bizi dea? Haren lanetarik Parisen ikus daitekea, zer maite duzun itxura ahal dezatan, apur bat asma zer den hainbat lan badagien bekoki handi horren azpian, beti gogoetan ari dela sendi den buru horren barnean, eta nihauri erran: horra,

hori du gogoan. Zer ametsa lizatekeen zure lanetan barne izaitea!» Adixkidantza berrietako zuen beldurraren estakuru desenkusatu zen, galantasunez zorigaitzean izaiteko beldurra deitua zuenaren. «Atxikimendu baten beldur zira? zein bitxi den, nik eztutalarik hori baizik bilatzen, baten ukaiteko bizia eman bainezake, erran zuen mintzo hain naturalarekin, hain zintzoarekin, nun Zuan hunkia izana baitzen. Emazte baten ganik sofritua dukezu. Eta bertzeak hura bezalakoak direla uste. Zure komprentitzen eztu jakin; hain izaite berezia zira. Hori dut lehenik zutan maitatu, ontsa senditu dut etzinelajende guzia bezalakoak. - Eta gero zu ere berdin, zaukon ihardetsia, badakit emazteak nolakoak diren, egiteko ainitz badukezu, libertate guti. - Nik, eztut ehoiz egitekorik jeus! Beti libro niz, zuretako beti hala izanen. Ene ikustea errex izanen ahal zaizun egunaren edo gauaren edozein ordutan, igorrazu ene bila, eta lasterrez jiteko zoriondunegia izanen niz. Eginen duzua? Goxo zer izan lizatekeen badakizu? Verdurin Anderearen aitzinera ekharr-araztea, haren etxera bainoa arrats oroz. Sinetsazu! han elgarretaratzen bagine eta zure han izaitea apur bat ene gatik dela banaki!»

Eta izan daiteke, haien solasez horrela orhoituz, bakarrik zenean hura horrela gogoan ukanez, haren iduria bertze ainitz emazteren iduriaren artean ametseria elhaberrietako batzuetan ibil-arazten zuela bakarrik; baina, edozein gertaldiri esker (edo ere behar bada halakorik gabe, izanara bat, ordu arteo gordea, agertzen denean gertatzen denak haren baitan eraginik ukan gabe) Odette de Crécy-ren iduria amets horien guzien irestera heldu zenean, ametsak haren orhotzapenetik ezin berexiak baldin baziren, orduan haren soinaren betegin eskasak etzuen baliorik batere ukanen, ez eta ere izana izan zadin, bertze bat baino guti ala gehiago, Zuanen gostuaren araukoa, handik goiti, maite zuenaren soina bilakaturik, bozkaria ala oinazka zezakeen bakarria izanen zenaz geroz.

Hain zuzen aitatzik ezaguturik ukana zuen - orai zituen adixkidatarik batez ere erranen ahal etzen gauza - Verdurindar horien familia. Baina etzuen batere gehiago ikusten» Verdurin gaztea» zeritzona, eta bizi arrunt eta zirtzilera jautsia zela zadukana, nahiz miliun ainitzekin. Egun batez eskutitz bat ukan zuen Zuanen ganik eskatzen baitzaukon etzuen Verdurindarrekin harremanetan ezartzen ahal: «Guardi eman! guardi eman! egina zuen aita-txik, enau batere horrek harritzen, hortara erori behar zuen bada Zuanek.

Ingurumen pollita! Lehenik eskatzen dautana ez tut egin nahi, ezpaitut jaun hori ezagutzen. Gero emazte ixtorio bat gordetzen duke, egiteko horietan eniz sartzen. Ha bada! gozatzekoa ukanen dugu, Zuan Verdurinxka horiekin jartzen baldin bada.» Eta aitatzik eza emanik, Odette-ek berak zuen Verdurindarren etxera eremana.

Verdurindarrek, Zuan abiatu zen egunean, auhariz ukanak zituzten Cottard medikua eta Anderea, pianixta gaztea bere izabarekin, orduan fagoretan zuten margolaria, bertze leial batzu haiekin batu baitziren arratsean berantago.

Cottard medikuak ehoiz etzakien segurki zein doinutan ihardetsi behar zuen norbaiti, mintzaideak irri egin nahi zuenez ala serio zen. Eta, zer gerta ere, begitarteko erran-nahi guziak osatzen zituen irriño baldintzazko eta aldizko batez, horren xorroxtasun igurikariak xintxoa bezala salatua izaitetik zurituko baitzuen errana zizakon solasa burlatzeko gertatua izan baliz. Baina zeren, kontrako aieruari ihardokitzeotan, ezpaitzen begitartean irriño horren argiki erakustera menturatzen, beti dudako zerbait ikusten zen han ibilki, egitera ausartzen etzen galdea entzutera uzten zuena: «Zin-zinez erraiten duzua hori?» Karrikan, eta ere orotara bizian, etzen saloin batean ibili behar zuen araz baino batere segurtatuagoa, eta ikusten zen ibiltarier, karroser, gertakarier, irriño maltzur baten emaiten, aitzinetik zuen egonarari behargabe oro ekhentzen zaukona, phorogatzen zuenaz geroz, egoki ezpazen, ontsa bazakiela, eta hori hartua baldin bazuen, irria gogoan egiten zuela.

Galde zintzo bat haizu zela iduri zizakon gai orotan, medikuak etzuen bere duden eremuaren hertsitzeko indar egitea huts egiten eta jakitatearen hedatzeko. Horrela, bere probinzia utzia zuenean ama zuhur batek emanak zauzkon aholku jarraikiz, ezagutzen etzuen errantza bat edo izen berezi bat etzituen joaitera uzten, hetaz jakinduru izaitera indar egin gabe.

Errantzetako, xehetasunez ezin ase zen, ezen, ustez eta erran nahi bat dutena baino zorrotzagoa bazuten, usuenik erabiltzen entzuten zituenekin zuzenki zer erran nahi zen jakin nahiko zuen: debru baten ederra, odol urdina, kadera ziri baten bizia, Rabelais-en oren laurdena, aphainketako printze izaitea, karta xuri uztea, *quia*-ra ekharria izaitea, eta b., eta zein ordu berezietan erran horiek erabil zezazkeen berak ere. Horien hutsez, ikasiak zituen hitz-joko batzu emaiten zituen. Haren aitzinean erraiten ziren jende-

izenetako aldiz, bakarrik haien errepikatzea aski zizakon galdezko doinu batekin, uste baitzuen hori aski zela galdegiten zituela iduri ukanen etzuen xehetasun batzuen eman-arazteko.

Orotan ezartzen zuela uste zuen kritikako antzeak osoki huts egiten baitzaukon, zerbitzu emaiten den norbaiten ganik zerbitzu ukaiten dela erraiteak - sinetsia izaita agiantzatu gabe - duen jendetasunezko xorroxtasuna debaldekoa zen harekin, oro hitzean hartzen zuen. Zer bazen ere Verdurin Andereak harendako zuen itsumena, azkenean, biziki xorrotxa zela aurkitzean jarraitzen zuen batean, nardatzen hasia zen; ikusten zuen antzoki aitzindegi batera Sarah Bernhardt-en entzutera gomitatzen zuenean, erranez, ikustate gehiago egitekotan :»Maitagarriegia zira hunara jinik, jaun medikua, are gehiago segur bainiz Sarah Bernhardt jadanik entzuna duzula, eta tauladari hurbilegi gira behar bada», Cottard medikuak, egondegian sartua baitzen hobeki agertzeko edo ezeztatzeko norbaitek ikusgarriaren balioaz zerbait erran zezon igurikatzen zuen irriño batekin, ihardesten zaukola: «Alabaina biziki hurbilegi gira eta Sarah Bernhardt-*ez* akhitzen hasiak. Baina ethor nindadilako nahia errana dautazu. Zure nahiak manuak dira enetako. Zuri zerbitzu ttipi hunen egiteaz zorion sobera badut. Zer elaitake egin zuri gozagarri izaiteko, hain zira ona!» Eta gaineratzen zuen: «Sarah Bernhardt, Urrezko Mintzoa da zinez, eztea hala? Ainitz izkiriatzan da taulak erretzen dituela. Erran-molde bitxia da, ez?» jiten etziren argipen batzuen esperanza.

«Badakizu, errana zaukon Verdurin Andereak senarrari, bidez huts egiten dugula uste dut medikuari eskaintzen daukoguna xumetasunez gutiesten dugunean. Ohiko bizi-moldetik kampo bizi den jakintsun bat da, bere baitarik eztu gauzen balioa ezagutzen eta guk erraiten daukogunari dago. - Erraitera enitzaizun menturatua, baina ohartua nintzan», erantzun zuen Verdurin Jaunak. Eta ondoko urthatsez, Cottard medikuari hirur mila liberako errubis baten igortzeko orde ontsa gauza gutia zela erranez, Verdurin Jaunak harri bermoldatu bat igorri zaukon ederragoko bat nekez aurki zaitkeela entzutera utziz.

Verdurin Andereak iragarria ukan zuenean, arrastirian, Zuan Jauna han izanen zela : «Zuan?» egina zuen medikua ustegabeak bortitz bilakatua zuen doinu batekin, ezen beti orotara prest zela berak uste zuen gizon hori den berri ttipienak ustegabetarik hartzen zuen. Eta ihardesten etzizakola iku-

siz: «Zuan? Nor hori, Zuan?» oihukatu zuen herstura ezin handiago batean, bapatez ematu zena Verdurin Andreak erran ukan zaukonean: «Baina aiphatua dugun Odette-ren adixkidea. - Ha! ongi, ongi, baniz», ihardetsi zuen medikuak eztiturik. Margolaria aldiz, Verdurin Andreak etxean Zuanen sartzeaz bozkariatzen zen, uste baitzuen Odette-ez amaratua zela eta atxiki-menduak maite zituelakotz. «Jeusek enau ezkontza egiteak bezainbat jostatzen, erran zaukon segetuz Cottard medikuari beharrira, ainitz eginik badut jadanik, emazten artean ere!»

Verdurindarrer Zuan biziki «smart» zela erranez, Odette-ek «aspergarri» batez izi-araziak zituen. Egin zauen, aldiz, iduripen bat ezin hobea, haien jakin gabean gizarte aphainean ibiltzen zela baitzen horren zeharhako arrazoinetarik bat. Bazuen alabaina behin munduan izan ez tiren gizon adimendukoen gainean ere apur bat han bizi izan direnen nagusitasunetarik bat, hori baita gutiziaz edo asmamenari emaiten daukon hastioaz haren ez itxuraldatzea, eta baliorik batere gabekoa bezala hartzea. Haien maitagarritasunak, urgulueria orotarik eta maitagarriegi iduritzeko beldurretik berexia izanik, badu, bere soinar malgutuek, gorputzaren gaineratekoa barne izan gabean, zuzenki nahi dutenaren egiteko duten mugimenduetako errextasun hura, garazia hura. Munduko gizonaren egintza xola, noiz eskua emanez garazia onekin aitzineratzen zaukon gizon gazte ez ezagunari eta noiz adeirekin gurtuz hari aitzineratua zaukon embaxadoreari, iragana zen azkenean, bera ohartu gabe, Zuanek gizartean zuen izanara osora, ukan baitzuen bere baitarik, Verdurindarrak ziren bezala bere lerrotik beheragoko jende batzuen aitzinean, lehia bat, eskaintza batzu egin baitzituen, haien ustez aspergarri batek ukanen etzizutzenak. Etzuen hotz une bat ukan Cottard medikuarekin baizik: hura ikusiz begiaz kheinuka (Cottard-ek «jitera uztea» zeritzon jestua) elgarri mintzatuak izan gabe, Zuanek uste ukan zuen medikuak ezagutzen zukeela atsegin leku zenbaitetan harekin gertaturik, nahiz bera biziki guti hara zoan alta, nehoiz ezpaitzen bestagilen muduan bizi izana. Aierua behar-gabekoa aurkituz, oroz gainetik Odette-ren aitzinean, hartaz ideia gaixto bat har baitzezakeen, itxura hotz-hormatu bat hartu zuen. Baina haren ondoan zen andere bat Cottard Andreak zela ikasi zuenean, gogoratu zizakon hura bezain senar gazte batek etzuela bere emaztearen aitzinean motak hortako

libertimendu batzuez aieru emaita bilatuko. Margolariak Zuan gomitatu zuen berehala bere landegira Odette-rekin jitera; Zuanek gixakoa aurkitu zuen. «Nik baino gehiago fagore ukanen duzu behar bada, erran zuen Verdurin Andereak, xixtatuarena egin nahi zuen doinu batekin, eta Cottard-en potreta erakutsiko zaizu (berak manatua zaukon margolariari). Guardi emazu, Biche «jauna», orhoit-arazi zaukon margolariari, joko ohiko bat baitzen hari «jauna» hitz horren erraitea, so pollitaren, begiaren aldeño xorrotxaren, jostagarriaren itzultzea. Badakizu, oroz gainetik nahi dutana, haren irriñoa dela; eskatua dautzutana, irriño horren potreta da.» Eta erran-molde hori ohargarria iduritu baitzizakon, goro-gora errepikatu zuen gomit andana batek entzuna zuela segur izaiteko, eta ere, estakuru zerbaiten bidez, batzu elgarretara hurbil-arazi zituen lehenik. Zuanek geldegin zuen gomit guzien ezagutzaren egitea, Verdurindarren adixkide zahar batena ere, Saniette, huni bere herabeak, lañotasunak eta bihotz onak leku orotan gal-arazia baitzaukoten artxiboetako jakintzak, fortuna gotorak eta familia hautukoak emana zaukoten adeia. Ahoan bazuen, mintzatzean, maitagarri zen ahi bat, mihiko akatsa arimako dohain bat baino gutiago salatzen zuela sendi zelakotz, ehoiz ere galdua etzuen adin leheneko ogengabetasunaren ondar bat bezala. Ezin ahozka zezazkeen konsonante guziek itxuratzen zituzten egin etzezazkeen bertze hainbertze gogorkeria. Saniette-ri aitzineratua izaitea galdeginez, Zuanek egin zaukon Verdurin Andereari aldiak gain-azpikatuak ukan balitu bezalako ondorioa, hainbertzetarano nun ihardetsi baitzuen ezperdintasuna azpimarratuz: «Zuan Jauna, nahi zinukea gure adixkide Saniette-ri nor ziren erraiteko onezia ukan?», baina Saniette-ren baitan Verdurrindarrek behin ere jakin-arazi etzaukoten atxikimendu suhar bat phiztu zuena, ezen Saniette-ek apur bat aspertzen zituen, eta etzuten hari adixkide egiteko gutziarik. Baina, aldiz, Zuanek ezin gehiago hunki zituen berehala pianixtaren izabarekin ezagutza egitea galdegin behar zauela uste ukan zuenean. Arropa beltzean beti bezala, beltzez beti ontsa dela eta aphainenik hori dela uste baitzuen, begitar-tea gorriegitua zuen jan berria zen aldi oroz bezala. Zuanen aitzinean errespaturekin gurtu zen, baina maiestaterekin xutitu. Ikasirik batere ezpaitzuen eta erdaraz hutsak egin beldur izanki, nahitara molde nahasi batean mintzo zen, ustez eta, hitz makhar zenbait atheratzen bazuen, lanho batez hainbertze

ezeztatua izanen zela nun ezpaitzikon segurki ohartu ahalko, hortako haren solasa ezpaitzen erlastura ezin argigarri bat baizik, hartarik noiztenka jalgitzen zirela hetaz segur sendi zen hitz bakarrak. Zuanek uste ukan zuen Verdurin Jaunari mintzatzean hartaz arinki trufa zaitekeela, hau aldiz hortaz gaitzitu baitzen.

«Hauteko emaztea da, zuen ihardetsi. Eztela xoragarria uzten dautzut; baina segurki badiozut harekin mintzo denean gozagarria dela. - Eztut hortaz dudatzen, onhartu zuen berehala Zuanek. Erran nahi nuen etzizatara «goren-gorena» iduritzen, gaineratu zuen hitz hori bereziz, eta oro har komplimendu bat da izaitekotz! - Oizu, erran zuen Verdurin Jaunak, ustegabetuko zitut, xoragarriki izkiriatzen du. Haren iloba eztuzu behin ere entzun? miragarri da, eztea hala, jaun medikua? Zerbait jo dezan eska dezotan nahi duzua, Zuan Jauna? - Baina zoriona izanen da...» hasia zen ihardesten Zuan, medikuak itxura trufari batekin moztu zuenean. Alabaina, solastatzean handieria, itzuli ospeko batzuen erabiltzea zahartua zela gogoan harturik, hitz larri bat «zoriona» izana zen bezala seriocki errana entzuten zueneko, uste zuen ahozkatua zuena irrigarri izana zela. Eta, gainera, hitz hori halabeharrez gertatua baldin bazen «itzuli zahartuak» zeritzeenen barnean, hitza zen bezain erabilia izanik ere, medikuak uste zuen hasia zen erranaldia irri egiteko zela eta erkaitzekin bururatzen zuen hizkideak sartu nahi ukanik salatzen zuela iduri zuen leku arrunt batekin, hark etzuelarik gogoari emana ere.

- Zorion bat Frantziarendako! egin zuen maltzurki besoak handizki goitituz.

Verdurin Jauna etzen irri egin gabe egon ahal izan.

- Zer dute irriz, jende on horiek guziek, badiduri zuen xokoñoan eztela hor gogo-ilunduratik sortzen, egin zuen Verdurin Andereak. Uste baduzue jostatzen nizala, ni, penitenzian bakar-bakarrik egoiten, gaineratu zuen itxura hisiatu batekin, haurrarena eginez.

Verdurin Anderea izai ziratzuko alki gora suedar batean jarria zen, erresuma hortako arrabitari batek ekharria zaukona eta begiratzen zuena, alkitxa baten moldea orhoit-arazten bazuen ere eta zituen muble zahar ederrekin gaizki emaiten; baina leialek noiztenka egiten zauzkoten emaitzak nahi

zituen agerian atxiki, jiten zirenean emailek haien ezagutzeko atsegina ukan zezaten. Horra zertako egin ahala sinets-arazi nahi zuen lili eta ononetan gelditi zaiten, horiek suntsitzen baitira bederen; baina etzen hortara heltzen, eta haren etxean bazen oin-berogailuz, kuxinaz, orenez, haizolbez, aro-neurkinez, untziez bildegi bat, errepika metatze 'ta emaitza mota nahastekatze batean.

Hoki gora hortarik gemenarekin sartzen zen leialen solasaldian eta hauen «zteuskeriez» alaitzen; baina matel-hezurrean gertatua zizakon ixtripuaz geroztik, egiazki irriz ethentzeko nekea etzuen gehiago hartzen eta ordainez ihakin hitzartu batean ari zen, erran nahi zuena, harendako akhitzerik ez irrisurik gabe, urratzeko irriz ari zela. Ohitu batek aspergarri batez edo aspergarrien lerrora egotzirik izana zen lehenagoko ohitu batez den gutieneko hitza uzten zueneko - eta Verdurin Jaunaren etsipen handian luzaz ukana baitzuen emaztea bezain goxagarria izaiteko nahia, baina zinez irri eginez laster hats-hantzen baitzen, ethengabeko eta alegiako irri horren amarruak baztertua baitzuen ere 'ta garhaitua - oihiu ttipi bat emaiten zuen, betorbain batek estaltzen ari zituen bere xori begiak hesten zituen, eta bapatez, ikuskarri behargabeko baten gordetzeko astia baizik ukana ezpalu bezala edo gaitzaldi hilgarri bati ihardokitzekoa, begitarte murgiltzen zuela estaltzen eta osoki gordetzen zuten eskuen azpian, iduri zuen irri baten sarraraztera, ezeztatzer indar egiten zuela, bere burua hartara utzia ukan balu, aldixartzerano eremanen baitzuen. Horrela, leialen alaitasunaz burxoratua, laguntasunez, gaitzerraitez eta baieztatzez horditua, Verdurin Anderea, bere hupa-gunean gora, bixkotxañoa arno beroan bustia zizakon xori bat iduri, maitagarritasunez hipaka ari zen.

Bitartean Verdurin Jaunak, Zuani piparen phizteko baimena eskaturik («hemen ezta jenatzen, lagunartean gira»), pianixta gaztea pianoan jar zadin othoizten zuen.

- Hea, bada, etzazula enhoa, ezta hemen khexatua izaiteko, egin zuen Verdurin Andreak, oinazkatua izan dadin eztut nahi, nik!

- Baina zergatik nahi duzu oinazkatua izan dadin? erran zuen Verdurin Jaunak, Zuan Jaunak eztu behar bada ezagutzen aurkitu berria dugun *fa diezeko zonata*; pianoko egin den antolamendua joren dauku.

- Ha! ez, ez, ene zonata ez! oihukatu zuen Verdurin Andereak, nigar eginaren bortxaz eztut marranta baten biltzeko gutziariak begitartean zainetako minarekin, azken aldian bezala; milesker, eztut berriz hasi nahi, ageri da etzireztela zuek zortzi egunez ohaturik egonen!

Joko ttipi horrek, pianixta joitera zoan aldi oro berritzen zena, adixkideak lehenbizikoa izan baliz bezainbat xoratzen zituen, «Etxekanderearen» berezitasun gustagarriaren eta musikako zuen sendikortasunaren phorogu bezala. Haren ondoan zirenek kheinu egiten zaueten urrunago pipatzen edo kartetan ari zirener, hurbil zaiten, zerbait gertatzen zela, Reischtag-ean egiten den bezala, ordu ohargarrietan: «Entzun, entzun.» Eta biharamunean ethorriak ahal etzirenak urrikitan ezartzen ziren jokoia ohian baino ere jostagarriagoa izana zela erranez.

- He beraz! nahi baduzu, bagira, erran zuen Verdurin Jaunak, eztu «andante»-a baizik joren.

- Andante-a baizik ez, nola ari ziren! egin zuen Verdurin Andereak. Hain zuzen Andante-ak dauzta zango-besoak hausten. Miragarria da zinez, Nagusia! *Bederatzigarren*-ean «eztugu azken zatia baizik entzunen «erraiten balu bezala da, edo *Kantari-Nagusi*-etan hasteko musika.

Medikuak, bitartean, Verdurin Anderea sustatzen zuen joitera utz zezan onhartzera, ez musikak emaiten zauzkon nahasmenak alegiakoak zirela uste zuelakotz - zaineriako izanara batzu ezagutzen zituen hetan - baina mediku ainitzek baitute ohidura hau: manatuak dituztenen berehala eztitzea, hetan barne diren bilkura mundutar zenbaitez - biziki handiagoo iduritzen zauen gauza - ari deneko, eta lixerigailua edo gripa aldi bateko ahatz dezaten aholkatzen daukoten jende hura bilkuraren antolatzaile baitezpadako bat de-nean.

- Etzira aldi huntan gaizki izanen, ikusiko duzu, erran zaukon soaz hortara bildu nahiz.

- Egi-egia? ihardetsi zuen Verdurin Andereak, horrelako fagore baten esperanzan amor emaita baizik izan ezpaliz bezala. Behar bada ere, erituko zela erranaren bortxaz, hori gezurra zela eta eri baten arima hartzen zuela orhoit etzen ephe batzu bazatezkeen. Eriek bada, aldixarren bekan-tasuna beti bere zuhurtziaren menean ezarr-arazi behar ukaiteaz nekatuak,

laket zaien eta ohian min egiten dauen oro eginen ahal dutela sinestera bere buruaren uztea maite dute, boteredun norbaiten eskuetara emaiten diren ber, hunek, nekerik batere berek hartu gabe, hitz batez edo pirula batez zutik ezarriko baititu.

Odette pianoaren ondoan zen tapizeriazko kanape batean jartzera joana zen:

- Badakizu, ene lekuñoa badut, erran zaukon Verdurin Andereari.

Hunek, Zuan kadera batean jarririk, jeik-arazi zuen:

- Etzira ontsa hor, zoaz bada Odette-ren ondoan jartzera, eztea hala Odette, Zuan Jaunari leku bat egin zinezokeela?

- Zein Beauvais pollita, erran zuen jarri baino lehen Zuanek, maitagarri izaitea bilatzen baitzuen.

- Ha! zorion dut ene kanapea estimatzen baituzu, ihardetsi zuen Verdurin Andereak. Eta badiozut hoin ederrik ikusi nahi baduzu, berehala etsitzea hobe duzula. Nehoiz eztute berdinek jeus egin. Kadera ttipiak ere mirazkoak dira. Horri guziari sarri so eginen duzu. Burdin-hori bakoitza alkiko gai ttipiari doako; jakizu, horren guziaren ikusi nahian bazira jostatzeko baduzu, aldi on bat hitzemaiten dautzut. Bazterretako xerrendaño horiek bakarrik, oizu hor, Hartzeta eta Mahatsen zola gorri hortan mahatsondo ttipi hori. Marrazkitua eztea? Zer diozu, bazakitela polliki uste dut, marrazkitzen! Eztea aski jateko gutizia emalea? Ene senarrak dio fruituak eztitutala maite hark baino gutiago jaten dutalakotz. Ez ez, zuek guziak baino gormantagoa niz, baina eztut ahoan haien ezartzeko beharrik, begiez gozatzen nizanaz gerroz. Zer duzue orok irriz? Galdegikozue medikuari, mahats horiek purgatzeko nautela erranen dautzue. Batzuek arthak Fontainebleau-n hartzen dituzte, nik neure Beauvais-ekilako arthamendu ttipian egiten ditut. Baina, Zuan Jauna, etzira bizkarraldean dituzten burdin-horiñoak hunki gabe abiatuko. Eztea xaharrez aski leundua? Baina ez, esku osoaz, ontsa harzkizu.

- Verdurin Andereak burdin-horien eskuztatzen hasten baldin bada, eztugu gaur musika entzuten, erran zuen margolariak.

- Ixil zaite, itsusi bat zira. Oro har, egin zuen andereak Zuanen gana itzuliz, hori baino gauza gutiago atsegingarriak debekatzen zauzku guri ematzer. Baina horri erkida daitekeen haragirik ezta! Verdurin Jaunak nitaz jelos

izaiteko ohorea egiten zautalarik - hea ikustatekoa izan zaite bederen, choiz hala izan etzirela ez erran...

- Baina jeus-jeusik eztut erraiten. Hea, jaun medikua, lekuko hartzen zitut: zerbait erran duta?

Zuan ari zen jendetasunez burdin-horien haztatzen eta etzen berehala gelditzera menturatzen.

- Goazen, berantago pherekatuko dituzu; zu zira orai pherekatuko, beharrian pherekatuko; maite duzu hori, uste dut; horra hori bere gain hartuko duen gizon gazte bat.

Pianixtak jo ukana zuenean bada, Zuan harekin hor ziren jendekin baino maitagarriago izan zen, eta horra zergatik:

Aitzineko urtean, auhalondo batez, musikako lan bat entzuna zuen pianoan eta arrabitean joa. Lehenik, etzizakon tresnek bazematzaten soinuen edertasun ageria baizik gustatu. Eta atsegina jadanik handi izana zen, arrabitaren soinu-marra ttipi, mehe, ihardokitzaile, tinki eta gidariaren azpian, ikusia zuenean bapatez, uhain hots batean bezala jeikitzen, pianoaren aldi zabala, molde orotakoa, ezin berexia, ilargiak xoratzen eta eztitzen duen itasasorearen nahasmendu malba-kolorea bezala. Baina ordu batez, inguru bati argiki ohartu ahal gabe, gustatzen zizakonari izenik eman ahal gabe, bapatez xoratua, bazoan airea edo harmonia - zein berak etzakien - eta arima zabalkiango idekia zaukona, hala nola arratseko aire hezean doazen eta sudur-xiloen zabaltzeko ahala baduten arrosa usain batzu, bildu nahi ukana zuen. Izan daiteke musika etzakielakotz zukeela ukana hoin sendipen nahasia, behar bada egiazki musikakoak diren sendipen bakarrak alta, ez oraino entzunak, osoki bereziak, bertze sendipen mota edozeinetara ezin ekharriak. Horrelako sendipen bat, ephe batez, hala erraiteko *sine materia* da. Badateke orduan entzuten ditugun notek, baderamatela jadanik, duten goratasunaren eta ainitzaren araura, gure begien aitzinean eremu ezperdin batzuen hartzera, arabezka batzuen marratzera, guri zabaltasunezko, arintasunezko, geldizko, burukeriazko sendimendu batzuen emaitera. Baina notak ezeztatuak dira sendipen horiek, ondoko notek jadanik edo aldi berekoek phizten dituztenez gaingituak ez izaiteko, gutan aski moldatuak diren baino lehen. Eta sendimendu horrek jarraik lezake bere ixurgaiaz eta «urtuaz» epheka agertzen diren notalden inguratzen, doi-doia oihargarri, berehala murgiltzeko

eta itzaltzeko, badematen atsegin bereziaren bidez bakarrik ezagunak, ezin erakutsiak, ezin gogoratuak, izendatuak, ezin erranak - orhoitak, uhainen erdian zimenduen ezartzen ari den langile bat iduri, aire-zati iragankor horien itxura berdin batzu guretako eginez, ezpaginitu jarraikitzen zezteenekin haien erkidatzera eta berextera uzten. Horrela, doi-doia zena iraungia Zuanek ukana zuen sendipen atsegingarria, orhoitak ordu berean itzulpen labur eta aldiko bat emana ukana zaukonean, baina hari jadanik ohartua zizakona musikak jarraikitzen zuen batean, hala nola nun, sendipen bera bapatez berritzulia izan zenean, jadanik ezin hatzemana baitzen. Haren hedamena itxuratzen zuen, zituen nota multzo araukideak, izkirio moldea, errankortasuna; bazuen bere aitzinean musika hutsa izaitetik gelditua den gauza hura, marrazkitik dena, eraikuntzatik, gogamenetik. Aldi huntan aire bati garbiki ohartua zizakon, soinu uhainen gainetik ephe zenbaitez goititzen. Berehala atsegin berezi batzu eskainiak zauzkon hura entzun aitzinean behin ere gogoan ukanak etzitzenak, hark baizik ezerek ezagun-arazten ahal etzazuakonak, eta ezagutzen etzuen maitasun bat senditua zuen harendako.

Neurkada urri batean, bazeraman lehenik hunara, gero horrara, gero bertze nunbaitera, zorion noble, adigarri eta argi batera. Eta bapatez, heldua zen unetik eta handik Zuan hari jarraikitzaera zoakolarik, ephe batez gelditu eta, bertze norapait joaiten zen, eta abiatze berri, lasterrago, xehe, gogo-ilungarri, ethengabe 'ta ezti batean, bazeraman berekin ikuspegi ezezagun batzuetara. Gero itzali zen. Suharki nahi ukan zuen heren aldi batez berrikusi. Eta berriz agertu zen alabaina, baina Zuani argikiago mintzatu gabe, atsegin arinago bat emanez ere. Baina, etxera sartu eta, haren beharra ukan zuen: hala nola gizon bat, ephe batez iragaiten ikusia duen emazte batek bizian edertasun berri baten iduria sarr-arazia ukanik, bere sendikortasunari balio handiago bat emaiten daukona, jadanik maite duena eta haren izena ezagutzen eztuena, behin ere berriz ikusiko duenez eztakienean bakarrik.

Musikako aire baten alderako amodio horrek ere iduritu ukan zuen ephe batez Zuanen baitan halako berriz gatzetze bat hasten ahal zuela. Bazen hain aspaldi biziari helburu nahi bezalako baten emaitiaz etsiturik egunorotako askieste batzuen bilatzean mugatzen zela, nun uste baitzuen, behin ere bere baitan argiki erran gabe, etzela hori heriotzerano aldatuko; gehiagorik dena, izpirituan gogamen gorarik bazuela ez sendituz, egiazki bazirela

sinestetik gelditua zen, hek osoki ezetsi ahal ukan gabe bizkitartean. Hor-tako zuen gauzen funtsaren bazterrera emaita haizu uzten zaukoten balio gabeko gogamen batzuetan gerizatza joaiteko ohidura hartua. Mundura ez joanez etzuen hobeki eginen bere baitan galdegiten etzuen bezala, baina baitzakien segurki gomit hori onhartua zuenez geroz joan behar zuela eta, gero ikustaldirik egiten ezpazuen, kartak igorriko beharko zituela, berdin ere solastatzean indar egiten zuen ehoiz ere gauzez bere aburu min zenbaiten bihotzekin ez erraiteko, baina zerbait moldez bere baitarik gaian balioa bazuten xehetasun batzuen eta bere neurriaren ez emaitera haizu uzten zutenen emaiteko. Ezin gehiago xorrotza zen kozina egiteko molde bateko, margolari baten sortze ala hiltzeko eguneko, haren lanen izendegiko. Batzuetan, hala ere, lan batez, biziaren hartzeko molde batez aburu baten erraiterano bazoan, baina orduan bere hitzer irkaitzeko doinu bat emaiten zauen, baziona osoki sinesten ezpalu bezala. Bada, hala nola erikor batzu, bapatez hara heldu diren herri batek, bizimodu ezperdin batek, batzuetan gorputzean bere baitarik sortu mixteriozko aldakuntza zenbaitek emaiten daularik gaitzaren halako gibelatze bat, nun gogoan berriz hartzen baitute berantean uste etzuten bizi osoki bertzelako bat ukan dezaketela, Zuanek aurkitzen zuen bere baitan, entzuna zuen erranaldi baten orhoitzapenean, han agertuko etzizakonez jakiteko jo-araziak zituen zonata batzuetan, hetan sinestea utzia zuen gauza ezin ikusi hetarik baten izaitea eta, jasaiten zuen moraleko idortasunaren gainean musikak halako eragin hautuko bat ukana balu bezala, sendi zuen ber-riz haier bere biziaren emaiteko nahikaria eta abantzu indarra. Baina, entzuna zuen musika nork egina zuen jakitera ezin heldurik, etzuen ardiets-arazi ahala eta azkenean ahatzia zuen. Aste hartan batuak zituen bada bera bezala arrats hartan han ziren jende batzu eta galdekatuak; baina batzu musikaren ondotik ethorriak ziren edo lehenago joanak; batzu alta joiten zenean han ziren, baina solastatzera bertze saloin batera joanak, eta bertze batzuek, entzuten egonik, etzuten lehenbizikoek baino gehiago entzuna. Etxeko nagusiek hek, jin-araziak zituzten musikariek joitea galdegina zuten lan berri bat zela bazakiten; bere itzuliaren egitera joanak ziren, Zuanek etzuen gehiagokorik jakin ahal ukana. Bazituen ba adixkide musikariak, baina aireak emana zaukon atsegin berezi ezin adi-araziaz orhoitzen zen batean, begien aitzinean

marratzen zauzkon itxurak ikusten zituelarik, etzezakeen bizkitartean kanta. Gero hortaz gogoratzetik gelditu zen.

Bada, pianixta gaztea Verdurin Anderearen etxean doi-doia joiten hasi eta minuta zenbaiten buruko, bapatez, bi neurtetan luzaz atxiki nota baten ondotik, hurbiltzen ikusi zuen, bere sortze mixteriozkoaren gordetzeko soinu erridau bat bezala luzatua eta hedatua zen musikaren azpitik jalgitzen, eta, bere hots segetretuzkoan zatikatua, maite zuen aire arin eta usainondua ezagutu. Eta hark, hain berezia, bazuen lillura bat hain bere baitakoa eta bertze edozeinek lekua har etzezakokeena, nun Zuanendako karrikan miretsia zuen eta nehoiz ere aurkitzeaz etsitua zuen norbait adixkidantzazko saloin batean aurkitua ukan balu bezala izan baitzen. Azkenean, airea urrundu zuen, erakuslari, erne, bere usainaren abarduretan, Zuanen begitartean uzten zuela ber irriñoaren leinurua. Baina orai Zuanek ezezagun horren izena galdegin zezakeen (*Vinteuil-en Arrabit eta pianoko andante-a zela errana zaukoten*), bazadukan, etxean ukanen ahal zuen nahi bezain usu, haren hizkuntzaren eta segetretuaren ikastera entseatuko zen.

Horra zertako pianixtak bururatua ukan zuenean Zuan haren gana hurbildu zen, Verdurin Andereari ainitz gustatu zizakon esker onaren eraiteko.

- Zer xoratzalea, eztea hala, erran zaukon Zuani; ontsa hartzen dua bada bere zonata, frikun ttipiak? Pianoa hortarano hel zaitekeela etzinakien. Pianoa salbu nahi den guzia da, ala fe! Aldi oroz hatzemana niz, orkeztra entzuten dutala uste dut. Orkeztra ere baino ederrago da, beteago.

Pianixta gaztea gurtu zen, eta, irriñoaz, izpirituzko zerbait erraiten balu bezala hitzak azpimarratuz:

- Biziki bihotz ona zira enetako, erran zuen.

Eta Verdurin Andereak senarrari erraiten zaukolarik «Bada, iranjaritaritik emozu, ontsa merezitua du», Zuan ari zen Odette-ri aireño hortaz nola amoros izana zen erraiten. Verdurin Andereak urrunagotik errana ukan zuenean: «He bada! badidurit gauza eder batzu erraiten zaizkitzula, Odette», hunek ihardetsi zuen: «Bai, biziki ederrak», eta Zuanek lañotasun hori goxagarri aurkitu zuen. Bitartean ari zen Vinteuil-ez xehetasun galdatzen, haren lanaz, aireño horrek zer erran-nahi ukana zukeen harendako, oroz gainetik hori zuen jakin nahiko.

Baina musikariaren miresle zirela zioten jende horiek (Zuanek haren zonata zinez ederra zela errana ukan zuenean, Verdurin Andereak egina zuen: «Uste dut bada ederra dela! Baina Vinteuil-en zonata ezteela ezagutzen ezta aithortzen, ez ezagutzea ezta haizu», eta margolariak gaineratua zuen: «Ha! zerbait osoki handi da, eztea hala? Ezta nahi baduzu gauza «khario» eta «jendearendako egina», eztea hala? baina edergilendako azkarki hunkigarria»), baziduriten galde horiek oro behin ere bere baitan eginak etzituztela, ezpaitzaueten ihardetsi ahal ukan.

Ez eta Zuanek bere aire hautetsiaz egin zituen bizpahirur oharrer ere:

- Ori, jostagarri da, ehoiz enintzan hortaz ohartua; erranen dautzut xehekeria bilatzea ezutala maite 'ta ixkilima puntten artean galtzea; hemen ezta dembora ezteusen ikertzean galtzen, ezta hori etxeko ara», ihardetsi zuen Verdurin Andereak Cottard medikuak miresmen xoxo batekin eta suhartasun serio batekin behatzen zaukolarik itzuli ohitu horien guzieren uhainetan jokatzen. Bertzela ere hura eta Cottard Anderea, jende xehe batzuek ere baduten bezalako zentzu on mota batekin, ontsa zaintzen ziren musika batez aburu baten emaitetik edo alegia mirestetik, elgarri aithortzen baitzuten, behin etxera sartu eta, etzutela «Biche Jaunaren» margolaritza baino gehiago aditzen. Jendeak ezpaitu naturako goxagarritik, garaziatik, moldetarik emeki beretua duen edergintza batez erran ohikoetan bildua duena baizik ezagutzen, eta edergile zinez berri bat erran ohiko horien baztertzetik hasten baita, Cottard Jaun-Anderek, hortan jendea iduri, etzuten ez Vinteuil Jaunaren zonan, ez margolariaren potretetan, haiendako musikaren harmonia eta margazkiaren ederra egiten zuten hura aurkitzen. Iduri zizaien pianixtak zonata joiten zuenean, pianoan ustagabeka hartzen zituela elgarrekin hek ohituak ziren moldeko loturarik egiazki etzuten nota batzu, eta margolariak bere oihalera margoak ustegabeka botatzen zituela. Hauetan molde bat ezagun zezaketenean, dorpetua eta arruntua edireiten zuten (erran nahi da karrikan berean izaitte biziak haren bidez ikusten zituzten margolaritzako eskolaren aphainduratik gabetuak), eta ez egiazkoa, Biche Jaunak jakin ezpalu bezala soingain bat nola egina zen eta emaztek ileak eztituztela malba-kolore.

Alta leialak elgarretarik urrunduak baitziren, medikuak senditu zuen bazela hor aldi baliagarri bat eta, Verdurin Anderea ari zelarik Vinteuil-

en zonataz azken hitz baten erraiten, urera jauzi egiten duen igerikari hasiberri batek haren ikusteko jende gehiegi ezten ordua hautatzen duen bezala:

- Beraz, *di primo cartello* erraiten den musikari bat da! egin zuen bapateko deliberamendu batean.

Zuanek ikasi zuen bakarrik Vinteuil-en zonataren berriki agertzeak ondorio handi bat ukana zuela biziki aitzinamendura emana zen ezagule multzo baten baitan, baina jende handienaz osoki ezezaguna zela.

- Ezagutzen dut bada Vinteuil deritzoten norbait, erran zuen Zuanek ene amaxiren ahizpen pianoko erakaslea gogoan.

- Behar bada hura da, egin zuen Verdurin Andereak.

- Oi! ez!, ihardetsi zuen Zuanek irriz. Bi minutaz ikusi bazinute, etzinezakete galderik egin.

- Galdearen egitea, ihardestea da beraz? erran zuen medikuak.

- Baina ahaide bat izan laiteke, egin zuen berriz Zuanek, aski trixte lizatekeena, baina azkenean jeinuko gizon bat ihizi zahar baten gusia izan daiteke. Horrela baliz, aithor dut neure burua hartara bortxa enezakeen gatzigu garratzik eztela ihizi zaharrak zonataren egileari aitzinera nindezokeentzat; eta lehenik, ihizi zaharrarekin ibiltzeko gatzigurik, izitzekoa datekeena.

Margolariak bazakien ordu hartan Vinteuil biziki eri zela, eta Potain medikua beldur zela etzuela salbatzen ahalko.

- Nola, egin zuen Verdurin Andereak, badira oraino bere burua Potain-i artha-arazten duten jendeak!

- Ha! Verdurin Anderea, erran zuen Cottard-ek, doinu jostakin batean, ene lankide batez mintzo zirela ahazten duzu, ene nagusietarik batez erran behar nuke.

Margolariak entzuna zuen Vinteuil ero bilakatzeaz mehatxatua zela. Eta bazion haren zonataren zati batzuetarik hortaz ohar zaitekeela. Zuanek etzuen hitz hori arrazoin gabea aurkitu, baina nahasi zuen; ezen musika hutsezko lan batek hizkuntzan haien gaixtatzeak erotasuna iragartzen duen arrazoinzeko eredurik batere ez ukanez, zonata batean ezagutzen zen erotasuna zakur eme baten erotasuna, zaldi batena bezain mixteriozko zerbait iduritzen zizakon, nahiz alabaina horiek ikusten diren.

- Utz nezazu bada geldirik zure nagusiekin, hamar aldiz hark bezainbat badakizu, ihardetsi zaukon Verdurin Andereak Cottard medikuari,

bere aburuen ukaiteko kuraia baduen eta ikus-molde bereko ez tirener bel-
durrik gabe ihardokitzen duen norbaiten doinuarekin. Ez tituzu zure eriak
hiltzen, zuk bederen!

- Baina, Anderea, Akademiako da, egin zuen berriz medikuak ir-
kaitzeko doinu batekin. Eri batek nahiago badu jakitateko printze baten
eskutik hil... «Potain-ek arthatzen nau» erraitea biziki aphainago da.

- Ha! aphainago dela? erran zuen Verdurin Andereak. Eritasunetan
«aphaina» bada beraz, orai? hori enakien... Zenbat jostatzen nauzun! egin
zuen begitartea eskuetan murgiltzen zuen batean. Eta ni, onez onean serio
siki ez tabadan ari, hatzemaiten ninduzula ohartu gabe.

Verdurin Jauna aldiz, hoin gutirendako irriz hastea apur bat akhi-
garri zela baitzidurikon, pipatik ufa bat hartuz gelditu zen, maitagarri izai-
tean emaztearen heinera hel etzaitkeela trixteki gogoan.

- Zure adixkidea biziki gustatzen zaukula badakizu, erran zuen Ver-
durin Andereak Odette-ri, hunek gauona erraiten ari zaukon orduan. Lañoa
da, goxagarria; nehoiz ezpadaukuzu horrelako adixkiderik baizik aitzinerat-
zeko, ekhartzen ahal dituzu.

Verdurin Jaunak oharr-arazi zuen Zuani etzizakola alta pianixtare
n izaba gustatu.

- Apur bat lekuz aldatua senditu da, gizon hori, ihardetsi zuen Ver-
durin Andereak, etzinue alta nahi, lehen aldian, etxeko doinua jadanik
hartua ukan dezan, duela urteak gure multxo ttipian barne den Cottard me-
dikuak bezala. Lehenbiziko aldiak ez tu khondatzen, harremanetan jartzeko
baliagarri zen. Zu Odette, bihar Châtelet-ean gutaratuko dela hitza hartua
da. Bila joaiten bizinazko?

- Baina ez, ez tu nahi.

- Ha! bada, nahiko duzun bezala. Azken orduan gure uztera egin
eztezan ber!

Verdurin Anderearen ustegabetze handitan, behin ere etzuen utzi.
Hetaratzen zen nun nahi, batzuetan oraino hara guti joaiten ziren hiribaz-
terreko ostatuetan, ezpaitzen sasoina, usuago antzokian, Verdurin Andereak
biziki maite baitzuen; eta egun batez, etxean, Zuani erran baitzaukon lehen
aldietako, bestaldietako arratsetan, lerro-mozle bat ontsa baliagarri izanen zi-
zaiela, Gambetta-ren ehorzketako egunean halakorik ez ukaiteak ainitz jena-

tuak zituela, bere ezagutza distiratuak behin ere aiphatzen etzituelarik, baina bakarrik haien gordetzea guti onhargarri idurituko zizakon guti estimatuez, hauetan hartzen baitzuen Saint-Germain bazter-hiriko mundu ofiziala, Zuanek ihardetsi zuen:

- Hortara ariko nizala hitzemaiten dautzut, *Danicheff* berriz hasiko duteneko ukanen duzu, bihar hain zuzen Elysée-an poliziako Prefetarekin barazkaltzen niz.

- Nola hori, Elysée-an? oihukatu zuen Cottard medikuak ortzantz mintzo betean.

- Bai, Grévy Jaunaren etxean, ihardetsi zuen Zuanek, erran zuenak egina zuen ondorioaz apur bat jenatua.

Eta margolariak erran zaukon medikuari irri-solas moldez:

- Horrek usu hartzen zitu?

Gehienetan, argibidea ukan eta, Cottard-ek bazion: «Ha! ongi, ongi, ontsa da» eta etzuen hunkia zela erakusten. Baina, aldi hortan, Zuanen lehenbiziko hitzek, ohiko bakea eman orde, harekin auhaltzen zen gizon bat, kargu ofizialik ez aiphameneko jeusik etzuen bat, Estatuko Buruzagiarekin etxekotua zela, ustegabetze mukurruan uzten zuten.

- Nola hori, Grévy Jauna? Grévy Jauna ezagutzen duzu? erran zaukon Zuani, ezezagun batek Errepublikako Presidentaren ikustea eskatzen daukon hirizain baten itxurarekin, eta, hitz horietarik «zer ikus norekin duen» ohartzean, egunkariak dioten bezala, gaizo eroa segurtatzen baitu ordu berean hartua izanen dela, eta Polizako Eritegira igortzen.

- Apur bat ezagutzen dut, elgarren adixkideak baditugu (Gales-ko printzea zela erraitera etzen menturatu), biziki errex gomitatzen du bertzela ere, eta hitzemaiten dautzut barazkari horiek jostagarririk jeus eztutela, biziki laño dira bertzela ere, nehoiz ezkira mahian zortzi baino gehiago, ihardetsi zuen Zuanek hizkidearen begietan Errepublikako Presidentarekin zuen adixkidantzak distiragarriegirik iduri ukan zezakeenaren eztitzera indar eginez.

Berehala Cottard-ek, Zuanen erranari egonez, Grévy Jaunaren etxerako gomitaren balioaz aburu hau hartu zuen, gauza biziki guti bilatu bat zela eta nornahik ukan zezakeena. Ordutik, Elysée-an Zuanen, bertze edonoren bezala ibiltzeaz etzen ustegabetu, eta apur bat deitoratzen zuen ere gomitak berak aspergarri zirela aithortzen zuen barazkari batzuetara joaiteaz.

- Ha! ongi, ongi, ontsa da, erran zuen aduanari baten doinuan, lehenik aieruan, baina gero, zure argibiden ondotik, baimena emaiten baitautzu eta zure malak ideki gabe joaitera uzten baitzitu.

- Ha! barazkari horiek eztirela jostagarri, sinesten zitut, bertutea baduzu hara joaiteko, erran zuen Verdurin Andereak, Errepublikako Presidenta aspergarri bat zela iduri baitzizakon, bereziki lanjerosa jendearen biltzeko eta bortxatzeko indarrak bazituelakotz, leialen aldera erabilirik, hauen utz-arazteko ahala ukan zezaketenak. Eltze bat bezain elkorra omen da eta erhiekin jaten.

- Alabaina, etzituzke beraz hara joaiteak biziki jostatzen, erran zuen medikuak urrikalmendu puntta batekin; eta, zortzi gomiten zenbakiaz orhoituz, «Barazkariak adixkide minen artekoak direa?» galdegin zuen bizi-bizia ikuskari baten nahia baino gehiago hizkuntzalari baten garrarekin.

Baina haren begietan Errepublikako Presidentak zuen ospeak garhaitu zituen alta azkenean bai Zaunen lañotasuna bai Verdurin Anderearen gogo gaitza, eta auhari guziez Cottard-ek oharpenekin galdegiten zuen: «Ikusiko dugua gaur Zuan Jauna? Adixkidantza bereziak baditu Grévy Jaunarekin. Hori da bada *gentleman* bat deritzotena?» Hari hortzetako erakusketa batera gomitaren eskaintzerano joan zen ere.

- Zurekin izanen diren jendekin onhartua izanen zira, baina eztira zakurrak sartzera uzten. Gogoan hartzen duzu, hori badiozut eztakiten adixkide batzu ukan ditutalakotz eta gero dolutu baitira.

Verdurin Jauna aldiz, Zuanek behin ere aiphatuak etzituen ezagutza indardunak bazituela aurkitzeak bere emaztearen baitan ukana zuen ondorio gaixtoari ohartu zen.

Kamporako aldi bat ezpazen antolatua, Verdurin-darren etxean zuen multxo ttipia Zuanek berriz aurkitzen, baina etzen arratseko baizik ethortzen, eta abantzu nehoiz etzuen auhaltzea onhartzan Odette-ek othoiztua izanik ere.

- Zurekin bakarrik aihal nindaike, hori nahiago baduzu, erraiten zaukon.

- Eta Verdurin Anderea?

- Ho! ontsa errex lizateke. Erraitea aski nuke ene zaia eztela prest, karrosa motxa berant ethorri dela. Akomeatzeko bidea bada beti.

- Gixakoa zira.

Baina Zuanek bazion bere baitan, Odette-ri erraiten baldin bazaukon (auhal-ondoan bakarrik haren aurkitzea onhartuz) harekin izaiteari hautesten zituen atsegin batzu bazirela, Odette-ek harendako sendi zuen gostua etzela luzaz askietsia izanen. Eta, bertzalde, Odette-ren ederra baino ainitzetan nahiago ukanez hartaz hartua zen langilesa ttipi arrosa bat bezain frexko eta biribilarena, arratseko hastapenaren iragaitea harekin maiteago zuen, Odette gero ikusiko zuela segur baitzen. Arrazoin beren gatik zuen Verdurin-darren etxera joaiteko Odette bila jin zakidion ehoiz ez onhartzen. Langilesa ttipiak igurikatzen zuen etxe ondoan Remi karrosazainak ezagutzen zuen karrika izkina batean, Zuanen ondora igaiten zen eta haren besoetan egoiten karrosa Verdurin-darren etxe aitzinean gelditzen zen arteo. Sartzen zenean, Verdurin Andereak goizean igorriak zituen arrosak erakutsiz erraiten zaukon: «Erasiatzen zitut» eta leku bat Odette-ren ondoan erakusten; pianixtak joiten zuen, biendako, haien maitasunaren herriko kantua zen Vinteuil-en aire ttipia. Neurte zenbaitez bakarrik entzuten diren arrabiteko daldaratze jarraikietarik hasten zen, aitzin eremu guzia hartzen baitzuten, gero bapatez baziduriten baztertzen zirela eta, athe erdi-ideki baten uztai hertsia barnatzen dituen Pieter de Hoche-ren margazki hetan bezala, urrun-urrunean, bertze margo batean, arteko argi balusazko batean, aire ttipia agertzen zen, jantzan, baserritar, artekatua, iragankor, bertze mundu batekoa. Bazoan izurdura laño eta betiereko batzuetan, bere garaziaren dohainak han eta hemen banakatzen zituela ezin erranezko irriño berdinarekin; baina Zuanek uste zuen orai lilluragabete zerbait ikusten zaukola. Haren bidea bazerakutson zorionaren hutsaleria aireak ezagutzen zuela bazidurien. Bere garazia arinean, egina denetik zerbait bazuen, urrikiari jarraikitzen den estekamendu gabete hura bezala. Baina hortaz axola guti zuen, gutiago zuen zen hartan ikusten - bai Zuanen bai Odette-ren izaiteaz jakingabea zen musikari batendako erran zezakeenean, eta mendetan entzun zuten guzientzako - bere maitasunaren lekukotasun bat, orhoitzapen bat bezala baino, Verdurin-darrendako ere, pianixta gaztearendako, Zuanekin batean Odette baitzuen gogoratzen, batzen baitzitu; hainbertzetarano zen nun, Odette-ek, burukeriaz, othoizturik, norbaiti zonata osoaren jo-arazteko xedea utzi eta, zati bakar horren ezagutzean baitzuen geroztik jarraiki. «Zergatik behar

duzu gaineratekoa ezagutu? errana zaukon. Hori da *gure* zatia.» Eta ere, hoin hurbil eta bizkitartean ezin mugatuan iragaiten ari zen orduan, haier mintzo zizaielarik etzituela ezagutzen oinazetan gogoan ukanez, abantzu urriki zuen erran-nahi bat ukan zezan, bere baitako edertasun geldia bat, haiendako arrotz, hala nola emanak diren joia batzuetan, edo emazte maitatu baten eskutitzetan ere, harri baliosari eta hizkuntzako hitzer aiherkunder bezala ez-tirelakotz ber-berak maitasun iragankor baten eta izaite berezi baten mamiaz eginak.

Usu gertatzen zen hainbat zela langileza gaztearekin berandua Verdurin-darren etxera joan baino lehen, nun pianixtak aire ttipia joa ukan orduko, Zuan ohartzen baitzen laster Odette-ek sartu behar zuen ordua izanen zela. Bere hotel ttipiko atherano laguntzen zuen, La Pérouse karrikan, Triunfako Arkuaren gibelean. Horren gatik zuen behar bada ere, hari fagore guzien ez eskatzeko, gutiago baitezpadakoa zizakon haren goizago ikusteko atsegina uzten, Verdurin-darren etxera harekin batean ethortzekoa, elgarrekin joaiteko onhartzen zaukon eta Zuani hain baliosa zizakon dretxo horren ukaiteko, horri ezker, iduri baitzizakon etzuela hura nehork ikusten, etzela nehor haien artean jartzen, nehork etzaukola, utzia ukanen zuenean, oraino harekin egoitea debekatzen.

Horrela Zuanen karrosan itzultzen zen; arrats batez, hura jautsi berria eta Zuanek «bihar arteo» ziolarik, etxe aitzinean zuen baratze ttipian azken omiasaindu-lore bat bildu zuen lasterrez eta joan baino lehen Zuani eman. Itzultzean ahoari tinkan atxiki zuen, eta egun zenbaiten buruan lilia zimeldua izan zenean, balioski bere bulegoan hetsirik ezarri.

Baina etzen ehoiz haren etxera sartzen. Bi aldiz bakarrik, arrastirian, izana zen harendako hain beharrezkoa zen egintza hartan barne izaiten: «thearen hartzen». Karrika labur haietako bakartasunak eta hutsak (abantzu oro elgarri lotu hotel ttipi batzuez eginak, bapatez haien berdintasuna saldegi itsusi batek hausten baitzuen, auzoalde horiek oraino aiphu gaixtokoak ziren aroaren lekuko eta ondarkin sordets), baratzean eta zuhatzetan gelditua zen elhurrak, urtaroaren ezazolak, naturaren hurbilak, zerbait mixteriozkoago emaiten baitzaueten sartzean aurkituak zituen beroari eta lilieri.

Goititua zen zolan ezkerretik utziz bazterreko karrika ttipi batera emaiten zuen Odette-ren gambara, mailalde zuzen bat bazoan saloinera eta

saloin ttipira, ilunez margoztatu harresi batzuen artean, hauek baitzituzten orienteko oihal batzu dilindan, arrosario turko lerro batzu eta lanterna xapones handi bat zetazko hari batetik dilindan (ikuslarien ez uzteko otzidenteko aitzinamenduaz gabeturik, gazarekin argitzen zuen). Saloinak baino lehen bazen arte-barne bat, harresia baratzetako ziri-sare batez laurkantoinkaturik, baina hau urreztatua, luzetasun osoan khutxa batekin huntan lilitan baitzen, landaretegi bero batean bezala, ordu hartan oraino bekan ziren omiasaindu-lore gotor lerro bat (ontsa urrun zirenak alta baratzegile batzuek berantago ukan ahal zituztenetarik). Zuan nardatzen zuen aitzineko urtetik hetara bazeman modak, baina atsegin ukana zuen, aldi hartan, barneko erditizalaren ikustean gorraxtaz, iranja-kolorez eta xuriz marratua, egun hautsarakoetan phizten diren izar iragankor horien arrai usainonduekin. Odette-ek gambarako arropa gorraxtan hartua zuen, lephoa eta besoak hasik. Bere ondoan jarr-arazia zuen saloineko xokoetan moldatuak ziren baztergune mixteriozko ainitzetarik batean, Xinako untzi-gordegailuek zaduzkaten gaitzeko palma-ondo batzuen gerizan, edo hetan argazki, xingola floka, aireztagailu batzu lotuak ziren haizolbe batzuenen. Zuani errana zaukon: «Horrela etzira goxoki, zaude, nik ontsa ezarriko zitut», eta bere baitarik asmatu zerbait bereziendako ukana zuen irri ttipi bardailarekin, Zuanen buru gibelean, oin azpian zeta xaponesezko kuxina batzu ezarriak zituen, eskuaz zapatzen zituenak aberastasun horietarik nahikoa ukan balu bezala eta haien balioaz axolarik ez. Baina, gambarazaina ethorria izan zenean bat bertzearen ondotik argi andana baten ekhartzera, abantzu oro Xinako untxi batzuen barnean, banazka edo birazka argitzen zutela, oro muble berezien gainean aldare batzuetan bezala, eta negu arrastiri azken hortako ilunabar jadanik abantzu gauazkoan iguzki etzate bat agerr-arazia baitzuten, gorraxta eta eztiagoa - ametsetan ezartzen zuela behar bada maitari zenbait berina argituek agerr-arazten eta aldi berean gordetzen zuten hor izaite mixteriozkoaren aitzinean - , begi bazterraz mutila lardeki zaindua zuen bere leku ohikoan ezartzen zituenez ikusteko. Uste zuen behar etzen lekuan bakar bat ezarriz, bere saloineko itxura osoa aurdikia izanen zela, eta bere potreta, ilainkiz oihalezatatu xibalet zeharka eman batean ezarria, gaizki argitua. Hortako sukarrekin behatzen zuen gizon arrunt haren mugimenduer eta bizi-bizia erasiatu zuen bi loreuntzietarik hurbilegi iragana zelakotz, beretzat baitzadukan haien garbitzea,

andea zitzaten beldurrean eta hurbilagotik so egitera joan baitzen markestuak etzituenez ikusteko.

Zituen Xinako gauza ttipi horier molde «jostagarriak» aurkitzen zezteen, orkiz-lorer ere, katleia delakoer oroz gainetik, hek baitziren, omiasaindu-lorekin, haren lili hautetsiak, baitzuten loreak bezalakoak ez izaiteko abantail handia, baina zetaz, satinez izaitekoa. «Horrek iduri du zure soingainekoaren horraduran mozturik izana dela», erran zaukon Zuani orkizlore bat erakutsiz, lili hain «aphain» harendako estimu zerbaitekin, naturak bazemon ahizpa lerden ustegabeko harendako, izaiten lerroan harenganik hain urrun eta bizkitartean arraro, bere saloinean leku bat egin zezontzat emazte ainitz baino gaiago. Aldizka erakusten zauzkola untxi bat edertzen zuten edo sutaitzin batean brodatuak ziren ximera suzko mihidun batzu, orkizlore floka baten koronak, zilhar esmail belztuarekilako kamelu lasterkari bat begiak hargorritzatuak khebide gainean jadazko apho baten ondoan, ari zen aldizka gaiztasunaren beldurra ukan balu bezala, mustroen bitxikeriaz irri egiten, loren ausartaz ahalgetzen, eta «maite-maiteak» deitzen zituen kamelu lasterkariaren eta aphoaren besarkatzeko gutiza ezin atxiki bat ukaiten. Eta sino-mino horiek kontra egiten zuten debozione batzuetako zuen zintzotasunarekin, bereziki Laghet-eko Andredona Mariarenarekin, lehenago, Nizan bizi zenean, eritasun hilgarri batetik sendatua baitzuen, eta baitzadukan beti berekin indar mugabageak emaiten zauzkon haren medaila urrezko bat. Odette-ek Zuani egin zaukon bere «thea», galdegin: «Zitroina ala krema?» eta ihardesten baitzuen «krema», irri batekin erran: «Xortaño bat!» Eta ona baitzizakon: «Badakusazu zer duzun maite badakitala». The hura, alabaina, hari bezala Zuani hain baliosa zen zerbait iduritua zizakon, eta maitasunak bere buruari estakuru emaiteko, iraupen hitzemaiteko hainbateko beharra badu, hura gabe aldiz izan etzaitzkeen eta harekin bururatzen diren atseginetako, nun, zazpi orenetan utzia ukan zuenean etxera jantzien ezartzera joaiteko, bere karrosa-motzean egin zuen bide osoan, arratsalde hark egina zaukon zoriona ezin gordez, bere baitan errepikatzen baitzuen: «Ontsa goxagarri lizateke jendeño baten ukaitea haren etxean gauza bat hoin arrarora aurkitzen dena, the onetik.» Oren bat berantago, hitz bat ukan zuen Odette-ren ganik, eta izkirio handi hura berehala ezagutu, alegiazko gogordura britaniar batek

larderiazko itxura bat emaiten baitzauden hizki moldegaitz batzuer, begi guti-ago arategatu batzuendako erran nahiko baitzuten behar bada gogameneko nahasmena, ikaskuntzako eskasa, zintzotasun eta borondate gabea. Zuanek zigarreta untxia Odette-ren etxean ahatzia zuen. «Nolaz eztuzu zure bihotza ere ahatzi, etzinitutan berriz hartzera utziko.»

Egin zaukon bigarren ikustaldi batek ondorio gehiago ukan zuen behar bada. Haren etxera joaiten, ikusi behar zuen aldi oroz bezala, Odette bere baitan itxuratzen zuen; haren begitartea pollita zela aurkitzeko, hain usu horiak, eroriak zituen matelak, batzuetan titta gorri batzuekin, mate-londo arrosa-kolore frexkoetara mugatu behar ukanak atsekabetzen zuen, idealera ezin heldua dela eta zoriona gauza arteko bat dela phorogatzeko batek bezala. Ikusi nahi zuen grabadura bat ekhartzen zaukon. Hura apur bat ez ontsan zen; Xinako krepa malba-koloreko mainu-arropa batean hartu zuen, bulharretara biltzen zuela, soingaineko baten aran, oihal aberaski brodatu bat. Zuanen ondoan xutik, laxoan utziak zituen ileak matelen luzara erortzen, zango bat jantzari moldean arinki plegatuz, burua behehituz, bere begi handi, erne etzelarik hain akhitsu eta mutiriek behatzen zaukon grabadurara gurtu ahal ukaiteko, Zuan jo zuen kapera Sistinako harresi-margazki batean ikusten den Zephora, Jethro-ren alabaren aurpegiarekin zuen iduriaz. Zuanek ukana zuen beti nagusien margazkietan, ez bakarrik inguratzen gitzuten gauzen orotako izanararen, baina aldiz orotasuneko gutienik gai iduri duenaren, ezagutzen ditugun aurpegietako ezaugarri nork berearen berraurkitzea maite ukaiteko gustu berezi hura: horrela Antonio Rizzo-k egin Loredan dukearen itxura molde baten gaian, matel-ondoan aitzinatzea, bekainen zeharka, oro har Remi bere karrosazainaren iduri ezin ukhatua; Ghirlandajo baten margoetan, Palancy-ko Jaunaren sudurra; Tintoret-en potret batean, Boulbon-go medikuaren matela-bizarretako lehenbiziko ile landatuen hedatzea matelako gizenera, sudurreko haustura, soaren sarkortasuna, betespalen odoltsua. Bizia ezagutza mundutarretara, solastatzera mugaturik ukanaz urriki bat beti atxikia baitzuen, uste zuen behar bada edergile handien ganik ukana zuen halako barkamendu bihotz-enezko bat edirenen zuela, hek ere atseginekin ikusiak zituztelakotz, eta bere lanean sarr-araziak, ederlanari egiazen eta biziaren lekukotasun berezi bat, modernitateko gozo bat emaiten

daukoten horrelako begitarteak; izan daiteke ere munduko jenden arinkeriaz hainbertzetarano hartua izaitera utzia zuela bere burua, nun sendi baitzuen lehenagoko lan batean oraiko jenden izenez aieru aitzindu eta gaztegarri horien aurkitzeko beharra. Izan daiteke, aldiz, edergile baten nortasunetik aski atxikia zuela ezagugarri berezi horiek, erran-nahi orotakoago bat hartuz, atsegin eman zezotenzat, ikusten zitueneko, mozturik, liberaturik, lehenagoko potret batek itxuratzen etzuen norbaitekin zuen idurian. Dena den, behar bada zenbait demboraz geroztik sendi zituenetako beteak, eta nahiz musika maite ukaitetik jina zizakon izaitekotz, margazkietako zuen gostua bera aberastua baitzaukon, barnatuagoa izan zen - Zuanen baitan ukan zuen eragina iraunkorragoa ere - ordu hartan aurkitu zuen atsegina Odette-ren idurian delako Sandro di Martino haren Zephorarekin (gogotikago Botticelli izengoiti herritarraz izendatzen denarekin, geroztik margolariaren lan egiazkoaz orhoit-arazi orde, hedatua den ideia arrunt eta hutsezkoaz egiten baitu). Gehiago etzuen Odette-ren begitarte matelen gaitasun handiago edo ttipiagooz estimatu, eta behin ere besarkatzera ausartzen baldin bazizakon ezpainez hunkitzean ustez aurkitu behar zuen eztitasun garbiki haragituaren arau, baina haren soek harilgatu zituzten marra arin ederren hastaria bezala, bere biribilkatze uztaituari jarraikitzen, garondoaren neurkada ilen ixurtzeari eta betespalen gurtuari lotuz, hala nola haren izan-moldea adigarri bilakatzen eta argitzen zuen potret batean.

Hari so zagon; harresi-margazkiko zati bat ageri zizakon begitartean eta soinean, geroztik beti bilatu nahi ukan zuena, ala Odette-ren ondoan zenean, ala bakarrik hura gogoan; eta, nahiz etzatekeen ederlan firenzarrari atxikia hartan hura edireiten zuelakotz baizik, iduritze horrek alta bazemon hari ere eder bat, baliosago bilakatzen zuen. Zuanek bere burua erasiatu zuen Sandro handiari adoragarria iduritu zizakon izaita baten balioa ez ezaguturik, eta goretsi zen Odette-ren ikustean zuen atseginak baieztatzea aurki zezan berak zuen ezthetikako kulturaren. Bere baitan egin zuen Odettez gogotzea bere zorion ametsekin bateratuz, etzela uste ukana zuen bezain gaitzueneko zerbaite eskasetara etsiturik izana, ederlaneko gustu xorroxtuenak askiesten zauzkonaz geroz. Ahazten zuen Odette etzela horren gatik bere nahikunden arauko emazte bat. «Lan firenziar» hitzak zerbitzu handi bat

eman zaukon Zuani. Utzi zuen, izenburu baten moldean, Odette-ren iduriaren sarr-araztera ordu arteo egin ahal ukana etzuen ametsetako mundu, nobletasunekin han jarri zen batean. Eta emazte hartaz ukana zuen ikuspen bakarrik haragikoak, haren begitarteaz, soinaz, eder guziaz zituen dudak ethengabe berrituz, maitasuna ahultzen ari zaukolarik, duda horiek suntsituak izan ziren, maitatsun hori azkartua, haren lekuan oinarritako ezthetika segur bateko ereduak ukan zituenean; barne hartu gabe haragi higatu batek emanik naturalak eta bierartekoak iduri zuten musua eta jabetzea, erakustokiko ederlan baten adorazionearen osatzera jinez, naturaz gainekoak eta ezin goxoagoak iduritu zizazkola.

Ilabeteak geroztik Odette-ren ikustea baizik ez egiteaz urrikitzera emana zenean, bazion bere baitan ederlan nagusi estimagarri bati demborra ainitzen emaita arrazoinekoa zela, behin betiko gai berezi eta bereziki gozagarri batean moldatuari, noiz edergile baten lañotasunarekin behatzen zaukon molde ezin bekanagokoan egin bati, gogotasunarekin eta abantail nahigabearekin, noiz bildumari baten urguluarekin, berekoitasunarekin eta atsegin-nahiarekin.

Bere laneko mahian ezarri zuen, Odette-ren margazki bat izan baliz bezala, Jethro-ren alabaren itxura bat. Miresten zituen begi handiak, larru bierartekoa asmatzera uzten zuen begitarte beratza, matela akhituen luzara ile kuskula miragarriak; eta, ordu arteo ezthetika moldean eder zizakona emazte bizi bati eratzikiz, gorputzeko merezimendu batzuetara aldatzen zuen, ukan ahal zezakeen izaite batean bildurik hauen aurkitzeaz bere burua goresten zuela. Hari beha gauden lan nagusi baten gana eremaiten gituen atxikimendu nahasi hori, orai Jephthe-ren alabaren lehenbiziko itxura ezagutzen zuenaz geroz, gutizia bat bilakatzen zen, handik hara Odette-ren soinak hastapenean emana etzaukona ordaindu zuena. Botticelli horri luzaz beha egona zenean, berea zuen Botticelli-a zuen gogoan, ederrago iduritzen baitzizakon oraino eta, bere gana Zephora-ren margazkiaren hurbiltzean, uste zuen bihotzaren kontra Odette zuela tinkatzen.

Eta bizkitartean etzuen bakarrik Odette-ren unhaduraren aitzintzeko ahal zuena egiten, baina batzuetan berearen; Odette-ek haren ikusteko errextasun guziak bazituenaz geroztik, gauza handirik etzuela hari erraiteko

sendituz, beldur zen elgarrekin zirenean orai zituen ara apur bat errankor-tasun gabekoek, beti berdinek, eta behin betikotz jarriek, etzezaten azke-nean haren baitan hil Odette-ek maitasuna aithortu nahiko zaukon eguna-ren itxaropen ametsetakoa, amoros bilakatua eta atxikia zuen bakarra. Eta Odette-ren itxura moral, geldiegi, eta akhituko zuela beldur zenaren berrit-zeko, bapatez eskutitz bat izkiriatu zaukon alegiazko atsekabetzez eta haserre itxuratuez betea, eta auhal-aitzin ereman-arazi. Iztua izanen zela bazakien, ihardetsiko zuela, eta galduko zuelako beldurrak ariman jasan-arazi behar zaukon kontra-egitean, uste zuen behin ere oraino erranak etzauzkon hit-zak jalgiko zizazkola; - horrela zituen alabaina ukanak ordu arteo Odette-ek izkiriatuak zauzkon eskutiz xamurrenak, hetarik bat, «Etxe Urrezko»-tik eguerditan ekharr-arazia (Murzian uholdeak hartuendako Paris-Murziako besta egunean zen), hitz hauetarik hasten zen: «Adixkidea, eskua hainbateko ikharan dut nun doi-doia baitezaket izkiria», eta omiasaindu lore idortuaren tiranta berean atxikia zuen. Edo ere, hari izkiriatzeko astirik ukana ezpazuen, Zuan Verdurin-darren etxera helduko zenean, bizi-bizia ethorriko zizakon, erranen: «Mintzatu behar zitut», eta ikuskurarekin egonen zen, haren begi-tartean eta elhetan, ordu arteo bihotzean gorderik atxikia zuenari beha.

Verdurin-darren etxera hurbiltzean bakarrik, ikusten zituenean, ar-giztatuak, ehoiz ere kampokoak hesten etzizezteen leiho handiak, bihotz-beratzen zen haien urrezko argian zabaltzen ikusiko zuen izaite xoragarria gogoan. Batzuetan gomiten itzalak ageri ziren, mehe 'ta beltz, artetik, ar-gien aitzinean, hala nola bertze orstoak argi baizik eztiren argi-estali argal batean lekuka ezartzen diren grabadura ttipi hek. Odette-ren itxura berexi nahi zuen. Gero, hura ethorri orduko, bera ohartu gabea, begiak halako zorianaz argitzen zizazkon nun Verdurin Jaunak baitzion margolariari: «Bero da ene ustez.» Eta Odette-ren han izaiteak etxe hori alabaina Zuanendako handitzen zuen hetan onhartua zen batek ere etzadukanaz: senditzeko tresna mota batez, barne guzietara abarkatzen zen zare zaintsu batez eta bihotzera ethengabeko phizkailuak ekhartzen zauzkonaz.

Horrela «multxo» ttipiak bazegien gizarteko gorputz xoilaren jo-koak, egunoroz Odette-rekin aurkitzeko leku hitz-hartuak bazituen beti Zuanendako, eta ikusten zuenean alegia axolagabearen egitea haizu uzten zaukon, edo berdin ez ikusteko gura, irrisku handitan ezartzen etzuena, zer

ere izkiriatua baitzaukon egun hartan, nahitez Odette arratsean ikusiko zue-
naz geroz eta haren etxera eremanen.

Baina aldi batez, elgarrekin itzultze ezin hutsegin hori gogoan uka-
nik, bere langilesa ttipia (Boulogne-ko) Oihanerano eremana zuelarik Ver-
durin-darren etxera joaiteko orduaren gibelatzekotan, hain berant ethorri
zen hara nun Odette, ustez eta etzela jinen, joana baitzen. Etzela saloinean
ikustean, Zuanek bihotzean oinaze bat senditu zuen; lehen aldikotz neurtzen
zuen atsegin baten ez ukaiteaz ikharan zen, ordu arteo nahi zuenean ukanen
zuelako segurtasun hartan izanik, hunek atsegin guzrien handitasuna gutitzen
baitaiku edo ere ikustera batere ez uzten.

- Ikusi duzua zer burua egin duen, etzela hor ohartu denean? erran
zaukon Verdurin Jaunak emazteari, hatzemana dela erran daiteke ene ustez!

- Zer burua egin duen? galdegin zuen bortizki Cottard medikuak,
eri ikusten izanik, bere emaztearen bila heldu baitzen eta nortaz ari ziren
ezpaitzakien.

- Nola, eztuzue athe aitzinean ikusi Zuan bere ederrenean ...

- Ez. Zuan izan da hemen?

- Ho! ephe batez bakarrik. Zuan biziki ezin-egon bat ukan dugu,
biziki zainetan. Hartzen duzu, Odette joana zen.

- Erran nahi duzu ezin ongiago dela harekin, artzainaren orena ikus-
arazi daukola, erran zuen medikuak, bere erranaldietan zuhurki entseatuz.

- Baina ez, jeus-jeusik ezta, eta gutartean erraiteko, Odette ontsa
hutsean dela uste dut eta phegar bat bezala ari, hala baita ere bertzalde.

- Taratata, erran zuen Verdurin Jaunak, zuk zer dakizu, jeusik eztela?
ezkira ikusten izanak, eztea hala?

- Eni, erranen zautan, ihardetsi zuen urgoiki Verdurin Andereak.
Bere gauza ttipi guziak erraiten dauztala badiotzut! Nehor ezpaitu ordu hun-
tan, errana daukot harekin etzan behar lukeela. Ezin duela dio, amadioxka
azkar bat ukana duela bada harendako, horrek hura ere herabetzen duela, eta
gero eztuela molde hortan maite, izaite ideal bat dela, harendado duen sen-
dimendua andea beldur, eta nik dakita zer. Oso-osoki behar duena da alta.

- Zure aburuko ez izaitera utziko nauzu, erran zuen Verdurin Jau-
nak, etzata jaun hori erdikal-baizik gustatzen; handi egin nahi duela idurit-

zen zata.

Verdurin Anderea geldi-geldia eman zen, gizaiduri bat bilakatu baliz bezalako itxura bat hartu zuen, horrela eginez haizu izan baitzizakon «handi egin» hitz ezin jasan hori entzuna ezpalu bezala egitea, haiekin «handi egin» ahal zatekeela entzutera emaiten baitzuen, beraz norbait «hek baino gehiago» zela.

- Azkenean, jeusik ezpada, eztut uste jaun horrek *bertutekoa* dela uste duelakotz dela, erran zuen irkaitzez Verdurin Jaunak. Eta ororen buruan, jeus eztaiteke erran, adimendua baduela iduriz uste duenaz geroz. Ez-takit entzuna duzunez joan den arratsean Vinteuil-en zonataz zer zerasan; Odette ene bihotz guziaz maite dut, baina hari ezthetika theorian artzeko, ezta sineskeriara guti emana izan behar!

- Hea, etzazula Odette-ez gaitzerran, erran zuen Verdurin Andereak haurarena eginez.

- Baina horrek eztauko goxagarria izaitea debekatzen; baina eztugu hartaz gaitzerraitean, badiogu bakarrik eztela bertute bat ez eta adimendu bat. Azkenean, erran zaukon margolariari, hainbertzetarano nahi duzua bertuteduna izan dadin? Biziki gutiago goxagarria lizateke behar bada?

Mailartean, Zuan etxezainak batua zuen, ethorri zenean ezpaitzen hor eta Odette-ek galdegina baitzaukon, baina oren bat bazen jadanik, ethortzen baliz erran zezon Prevost-baitara xokolet presa baten hartzera joanen zela sartu baino lehen. Zuan Prebost-baitara abiatu zen, baina urrats bakoitz karrosa bertze batzuek gelditua zaukoten, edo iragaiten ziren ibiltari batzuek, aurdikitzeaz zorionean izanen zen traba hastiagarriak, hirizainaren berbalak ezpalu oinezkoaren iragaiteak baino gehiago berandua ukan. Emaiten zuen dembora neurtuz ari zen, zekunda zenbait minuta guzier gehituz laburregi eginak etzituela segur izaiteko, horrek utziko baitzuen azki goiz heltzeko eta Odette-ren oraino aurkitzeko zoria egiazki zena baino handiagoa zela sinestera. Eta ordu batez, sukardun batek bezala lo egin duenean eta bere burua garbiki hetarik berexi gabe zerabiltzan ametserien arrazoingabeaz ohartzan denean, Zuanek bapatez bere baitan ikusi zituen Odette Verdurindarren etxetik joana zela errana zizakon ordutik gogoan zuenaren bitxitasuna, bihotzean jasaiten zuen oinaze berria, baina atzartzetik jalgitzen baliz bezala

baizik senditu etzituenak. Zer? nahasmen hori guzia Odette bihar baizik ikusiko etzuelakotz, preseski agiantzatua zuen gauza, zuela oren bat, Verdurin Anderearen etxera joaitean! Ikusi behar ukan zuen bada, Prevost-baitara zezaraman karrosa hartan, etzela berdina, eta ez gehiago bakarrik, izaitte berri bat bazuela hor berekin, berari eratxikia, berarekin hartua, utzi ahalko etzuen behar bada, harekin nagusi batekin edo eritasun batekin bezala gupidaz baliatu beharko zuena. Eta bizkitartean jende berri batez emendatua zela sendi zuen unetik hara, bizia Baliagarriagoa iduritzen zizakon. Doi-doietarik zion bere buruari Prevost-baitan izan zaitekeen elgarretaratze hori (igurikatzeak hainbat baitzituen aitzineko orduak andeatzen, biluzten, nun ezpaitzuen gogamen bat, orhoitzapen bat aurkitzen, harekin bere gogoia atsedenean ezar zezakeenik), izan zaitekeen alta, gertatzen baldin bazen, bertzeak bezalakoa izanen zela, jeus guti. Arrats oroz bezala, Odette-rekin izanen zen orduko, haren begitarte aldakorrera ebaska igorritz berehala baztertuko zuen behako bat, hartan gutizia baten urratsa ikus zezan eta haren abantail-nahi gabean gehiago sinets etzezan beldurrez, hura gogoan ukan ahaletik geldituko zen, haren berehala ez uztea eta biharamunean Verdurin-darren etxean aurkituko zuela (iduri ukan gabean) segur izaittea haizu utz zezoten estakuru batzuen bila sobera hartua: erran nahi da besarkatzera ausartu gabe hurbiltzen zuen emazte horren hor izaitte debaldekoak emaiten zauzkon oinazearen eta atsekabearen ordu hartan luzatzetik eta gehiagoko egun batez berritetik.

Etzen Prevost-baitan, karrika handiko ostatu guzietan bilatu nahi ukan zuen. Astia irabazi nahiz, batzuen ikusten ari zen bitartean, bertzetara igorri zuen Remi karrosazaina (Rizzo-ren Loredan duke hura) gero igurikatzerara joan baitzizakon errana zaukon gunean. Karrosa etzen itzultzen eta Zuanek heldu zen ordua gogoratzen zuen, aldi berean Remi-k: «Anderea hor da», eta: «Anderea etzen ostatuetarik batean ere» erranen zaukona bezala. Eta horrela arratsa bururatzen ikusten zuen hor, dena bat eta bizkitartean aldizkatua, edo herstura ezeztatuko zuen Odette-ren batzea aitzinean, edo gaur haren edireiteko etsipen bortxazkoa, etxera hura ikusia ukan gabe sartzearen onhartzea.

Karrosazaina itzuli zen, baina, Zuanen aitzinean gelditu zenean, hunek etzaukon erran : «Anderea hatzeman duzua?» baina: «Orhoit-araz nezazu

bada bihar egurraren manatzeaz, uste dut meta ttipitzen hasia dela.» Behar bada bazion bere baitan Remi-k Odette haren igurika zagon kafe batean aurkitua ukan balu, arratsaren bururapen gaizkorra jadanik ezetzatua zela zorionezko arratsaren bururatzeko hastapenarekin, eta etzuela lehiatze beharrik hatzeman eta leku seguruean ezarri zorion baterano heltzeko, ezpaitzuen gehiago ihes eginen. Baina ere geldia indarrak egiten zuen hori; ariman bazuen izaitze batzuek gorputzean duten malgutasun eskas hura, ukaldi bati itzuri egiteko, jantzitik gar baten urruntzeko, presako mugimendu baten egiteko orduan, hasten baitira zekunda batez aitzinean zuten izanara hartan egoiten, han bere bermagunearen, oldearen edireiteko bezala. Eta badateke, karrosazainak moztu balu erranez: «Anderea hor da», ihardetsiko zuela: «Haba, egia duzu, emana nautzun egitekoa, ori, enuen uste ukanen» eta harekin egur horniduraz mintzatzen jarraikiko, ukana zuen bihotz hunkiduraren gordetzeko eta bere buruari ezin-egonarekin hausteko eta zorionera emaitzeko astiaren uztea gatik.

Baina karrosazaina itzuli zizakon nihun ere aurkitua etzuela erraitera, eta bere aburua gaineratu zuen, zerbitzari zahar batek bezala:

- Uste dut jaunak eztuela sartzeaz bertzerik egiteko.

Baina Zuanek errex egiten zuen alegiako axolagabea, Remik ihardesten zuenari ezer alda etzezakeelarik, erori zen, ikusi zuenean ekhartzen eta bilatzen zuenaren utz-araztera entseatzen zela:

- Baina ez batere, egin zuen, andere hori hatzeman behar dugu; baitezpadakoa da. Ezin gehiago nardatua lizateke, egiteko baten gatik, eta gaitzitu, ikusia ezpanindu.

Bertzela ere argi iraungitzen hasten ari ziren orotan. Karrika handietako zuhatzen azpian, mixteriozko ilun batean, iragaile bekanduagoak bazabiltzan, doi-doia ezagugarri. Arteka Zuanen gana hurbiltzen zen emazte baten itzalak, hitz bat beharrira murmurikatuz, etxera ereman zezan galdez, ikhara-arazi zuen. Gorputz ilun horiek oro herstura batekin abantzu hunkitzen zituen, hilen itxurekilako erresuma ilunean Eurydice bilatua ukan balu bezala.

Maitasunaren sortzeko molde guzietan, gaitz sakratuaren hedatzale guzietan, ondorio gehienik duena da bada, gutan noizten iragaiten den nahasmenduzko hats handi hori. Orduan harekin lakot giren izaitea, zoriak

berea egina du, hura dugu maitatuko. Bertze bat bezain edo gehiago gusta dakidigun beharrik ezta ere. Behar zena, harendako dugun gostua berex-berexkarria bilaka zadin da. Eta baldintza hori betea da noiz ere - hark huts egin daukun ordu hartan - haren gozotasunak emaiten zauzkun atseginen bilatzearen orde, bapatez gutan jarri baita behar antsiadun bat, mundu huntako legek ezin asean badagitena eta sendatzeko nekea - hartaz jabetzeko behar ero mingarria.

Zuanek bere burua azken ostatuetara ereman-arazi zuen; hori zen bakean asmatua zuen zorioneko mentura bakarra; etzuen orai bere nahasmena gordetzen, ez eta batze hortan ezartzen zuen balioa, eta ondorio ona heltzeko zorian, karrosazainari sari bat hitzeman zaukon, berak zuenaren gainera jinen zen ondorio onera heltzeko gutizia hari eman-araziz, Odette, jadanik etzatzera sartua bazen ere, karrika handiko ostatu batean gerta ahal baladi bezala. Etxe Urreztaturano joan zen, Tortoni-baitan bietan sartu eta, hura gehiago ikusia ukan gabe, Kafé Angelesetik jalgi berria zen, urrats handitan ibilki, itxuraz galdua, Italiarren karrika handian igurikatzen zuen karrosaren batzeko, kontrako aldera heldu zen norbaitekin jo zuenean: Odette zen; ge-roago argitu zuen erranez Prevost-baitan lekurik ez hatzemanik, auhaltzeko Etxe Urreztatura joana zela han ohartua etzizakon xoko batean, eta bere karrosara zoala.

Hain guti zagon Zuanen ikusteari, nun izialdurazko mugimendu bat ukan baitzuen. Hark, aldiz, Paris osoan laster egina zuen, ez aurki zайтеkeela uste zuelakotz, baina etsitzea bortitzegi zelakotz. Baina, arrazoinak arrats hartako ezin ukana zela gelditu gabe estimatua zaukon bozkario hura, etzizakon orai egiazkoagoa baizik iduritzen; ezpaitzuen itxura dutenaren atzinetik ikustez lagundua, bere baitarik kampoan gelditzen baitzizakon; etzuen bere izpiritutik zerbaiten hartze beharrik hari emaiteko; bozkarioak berainik zuen egia hori emaiten, berainik haren gana igortzen, amets bateg bezala argitzen baitzuen, izitua zuen bakartasunaren ezeztatzerano, eta hartan bermatzen baitzuen, hartan ezartzen, gogoetatzerik gabe, bere zorionezko ametseria. Horrela Mediterraneko bazterrera eguraldi batez heldua den bidaiari bat, utziak dituen herrien izaiteaz dudana, bere ikuspena lilluratzera uzten baitu, hetara so egiteko orde, uren urdin argi iraunkorrak emaiten dituen arraiez.

Odette-ren karrosara igan zen harekin eta bereari jarraik zakidion erran.

Katleia floka bat bazadukan eskuan eta Zuanek ikusi zuen iletan bazituela, buruko oihal dentelazkoaren azpian, orkiz lore berak zisne luma bildu batzuer estekan. Bere mantalinarenean azpian, balusa uhain batekin jantzia zen, hunek, zeharka bildurik, hirur kantoineko zabal batez agertzera uzten baitzuen zeta xurizko zaia baten beherea eta, papo-hutsaren idekitzean, gainalde bat berdinean zeta xurizkoa, bertze katleia lore batzuekin hartan sartuak. Zuanek egin zaukon izialduratik doi-doia zen bere baitaratua, traba batekin zaldiari bazterrerara jauzi bat egin-arazi zaukonean. Bapatez lekuz aldaratuak izan ziren, Odette-ek oihu bat egin zuen, pilpiretan zagon, hatsik gabe.

- Jeus ezta, erran zaukon, etzaitela izi.

Eta bazatxikan soingainetik, egon-arazteko bere kontra bermatuz; gero erran zaukon:

- Oroz gainetik, etzaitela mintza, ez ihardets kheinuz baizik gehiago hats bahitua ez izaiteko. Ukaldiak aldaratuak dituen zure papoko loreak berriaz lekuan ezar ditzadan eztuzu gaizki hartuko? Gal ditzazun beldur niz, apur bat sartu nahi nituzke.

Hark, hoinbertze fazoinetan gizonen ikusten ezpaitzen jarria, erran zuen irriño bat eginez:

- Ez, batere ez.

Baina Zuanek, ihardespenez herabetua, behar bada ere estakuru hori hartua zuenean zintzo izana zelako itxuraren ukaiteko, edo berdinean hala izana zela jadanik sinesten hasten ari, egin zuen:

- Oi! ez, oroz gainetik, ez mintza, hatsa galduko duzu oraino, jestuz ihardesten ahal dautazu bada, entzunen zitut. Zinez, horrek etzitu jenatzen? Ikusazu, bada zerbait... gainera erori zaizun hazi-irin apur bat dela uste dut: eskuaz garbi dezatan onhartzen duzu? Eniz azkarregi ari, ez bortitzegi? Apur bat gilikatzen zitut behar bada? ezpainuke zure zaiaren balusa hunki nahi ez zimurtzeko. Baina, badakusazu, zinez estekatu behar zuten, eroriko ziren; eta horrela, nihaurek apur bat sartuz... Serioski, eniz aspergarri? eta usainik badutenez hats hartuz, ez ere? Behin ere eztitut senditu, egin dezaket? egia errazu.

Irriñoz, Odette-ek soingainak arinki goititu zituen, «eroa zira, laket zatala ikusten duzu bada» erraiteko bezala.

Zuanek bertze eskua haren matelaren luzean goititzen zuen; Odette-ek geldituki so egin zaukon, haiekin egite bazuela aurkitua zuen margolari firrenziarraren emaztek duten aire ahuldu eta seriosarekin; betespalen hegirano ekharriak, haren begi dirdirantek, haienak bezala zabal eta mehe, atheratzera zoazila iduri zuten, bi nigarrekin. Lephoha gurtzen zuen haier guzietan egiten ikusten zaien moldean, gai paganoetan erlisione-koetan bezala. Eta ohikoa zukeen egonara batean, ordu horietan egoki zela bazakien eta ahaztetik bere burua zaintzen zuenean, indar guzietan beharra bazuela iduri zuen begitar-teen atxikitze-ko, ezin ikusizko indar batek Zuanen gana erakharri balu bezala. Eta, erortzera utzia ukan zezan baino lehen, berak nahi gabea, ez-painetara, Zuanek zuen ephe batez atxiki, bere ganik haratxago, bi eskuez. Gogamenari ethortze-ko astia utzi nahi ukana zaukon, hain luzaz pherekatua zuen ametsaren ezagutze-ko, hala nola ainitz maitatua duen haur baten on-dorio onean parte hartzera deitzen den ahaide bat. Badateke ere Zuanek oraino ez beretua, ez besarkatua ere etzuen eta azken aldikotz ikusten zuen begitarte hortan eratxikitzen zuela, betikotz utziko den eskualde bat, abiatze-ko egun batez, harekin batean ereman nahi den behako hura.

Baina hain herabea zen harekin, nun arrats hartan hartaz jabetzera heldurik azkenean, katleien antolatze-ko hasiz, ala hura gaitzi beldurrez, ala gibelera behatuz gezurra errana zuela iduri ukaiteko beldurrez, ala galde bai-tezpadako hori (berritzen ahal zuena, lehen aldian Odette gaitzitua etzuen-ge-ko) baino handiago baten egiteko ausartzia eskasez, ondoko egunetan estakuru beraz baliatu baitzen. Papoan katleiak baldin bazituen, erraiten zuten: «Zorigaitza da, gaur, katleiek antolatze beharrik eztute, eztira joan den arratsean bezala aldaraturik izanak; badidurit alta hau eztela biziki zuten. Bertzek baino usain gehiago badutenez ikus dezaket?» Edo, ezpaldin bazuen: «Ho! gaur katleiarik ez, ene antolamendu ttipieri ezin eman.» Hala nola nun, zenbait egunez, lehen arratsean jarraikia zizakon ordenua ezpaitzen aldatua izan, erhiekin eta ezpaine-kin Odette-ren lephoaren hunkitze batzuetarik ha-siz, eta hauekin baitziren ere aldi oroz pherekuak hasten; eta biziki beran-tago, katleien antolatzea (edo alegiazko antolatzea) aspaldi danik utzia izan

zanean, «katleia egite» hitz-ordainduak, gogoari eman gabe baitzerabilaten gorputzeko jabetzea erran nahi zutenean (hartan ezpada ere jeusez jabetzen), ohidura hura ahazti eta, haien mintza-moldean iraun zuen, hartaz orhoitarazten zuela. Eta badateke «amore egitea» erraiteko molde berezi horrek etzuela osoki bertze izenkiden erran-nahi bera. Emaztez osoki soraiotua izan daiteke, ezin ezperdinagoen ukaitea beti gauza berdina eta aitzinetik ezaguna dela eduk, atsegin berri bat bilakatzen zaiku aldiz ukaiteko aski neke diren (edo hala uste ditugun) emaztez ari baldin bada, haiekin ditugun adixkidantzetako gertakari ustegabeko batetik jalgi-araztera bortxatuak izaiteko, Zuanendako katleien antolatzea izana zen bezala. Bazagon ikharan, arrats hartan (baina Odette-ek, zion bere baitan, amarru hortara erortzen bazen, ezin zezakeen asma) emazte hortaz jabetzea haien loreki zabal malbarakoetaririk jalgiko zelako esperanza; eta jadanik sendi zuen atsegina, eta behar bada Odette-ek jasan nahiko etzuen, uste zuenaz, ezagutua ukanen etzuelakotz, horren gatik iduritzen zizakon (lurreko parabisuko loren artean jastatu zuen lehenbiziko gizonari egin ahal zizakon bezala) ordu arteo izana etzen atsegin bat, berak egin ukaitea bilatzen zuena, atsegin bat - emana zaukon izen bereziak hatza atxiki zuen bezala - osoki berezia eta berria.

Orai, arrats oroz, Odette etxera eremana zuenean, behar zuen sartu, ainitzetan gambarako arropan jalgitzen zen berriz eta Zuan karrosarano laguntzen zuen, karrosazainaren aitzinean besarkatzen, baziola: «Zergatik ez, bertzez zer axola dut?» Zuan Verdurin-darren etxera etzoan arratsetan (bertze moldez ikus zezakeenaz geroztik batzuetan gertatzen zena), mundura zoan arrats gero eta gehiago bekanetan, etxera jin zakidion eskatzen zaukon sartu baino lehen, zein oren ere izan zadin. Primadera zen, primadera garbi hormatu bat. Arratsaldi batetik atheratzean, bere karrosa idekira igaiten zen, zangoen gainean estalgi bat emaiten zuen, harekin batean zoazen eta haiekin itzul zadin galdegiten zaukoten adixkider ezin zuela ihardesten, etzoala alde berera, eta karrosazaina trosta handitan abiatzen zen nora joan baitzakien. Hek ustegabetzen ziren, eta, egjazki, Zuan etzen berdina. Emazte baten ezagutzea galdegiten zuen eskutizik ehoiz etzen gehiago haren ganik ukaiten. Batez etzen gehiago axolatzen, aurkitzen diren lekuetara joaitetik begiratzen zen ere. Ostatu batean, baserrian, egonara atzo oraino hartarik ezagutuko

zen eta beti ukanen zuela iduri zuenaren kontrakoa zuen. Hain da gutan bihotzeko sukar bat, aitzinekoaren lekua hartzen duen izanara iraupen gabeko eta ezperdin bat, eta ordu arteo hetarik agertzen zen ezagugarri ezin aldatuak suntzitzen dituen! Aldiz ezin aldatua zena orai, hau zen: Zuan nun ere izan zadin, Odette-ren gana joaitea etzuela huts egiten. Haren ganik berezten zuen bidea zen beti zuzen egiten zuena, bere biziaren malda ezin ihardokia eta zuta. Egia erran, ainitzetan munduan berant egonik, nahiagoko zuen itzuli handi hori egin gabe etxera zuzen zuzena sartu eta hura biharamunean baizik ez ikusi; baina ohi gabeko oren batean abiatu behar ukaiteak berak haren etxera joaiteko, uzten zituen adixkidek elgarri baziotela «Biziki atxikia da, bada segurki edozein orenetan haren etxera joaitera bortxatzen duen emazte zenbait» asmatzeak, sendi-arazten zaukoten maitasunezko egiteko bat duten gizonen bizia zeramala eta hetan atseginezko ametseria bati bere atsedenaren eta abantailen sakrifkatzeak barneko lilluramen bat sorr-arazten dauenena. Gero, bera ohartu gabe, Odette-ek igurikatzen zuelako segurtasun horrek, etzela bertze batzuekin bertze nunbait, etzela hura ikusi gabe itzuliko, Odette Verdurin-darren etxean etzen arratsean senditua zuen antsia ahatzi, baina beti berriz sortzera emana zen hura hausten zuen, eta orai jабaldua izaita hain ezti zizakon nun zoriona zela erran baitzaitekeen. Antsia horri zuen behar bada zor Odette-ek haren baitan hartua zuen leku handia. Ohiki hain gira jendez axolagabeak nun, hetarik batean hoinbertzetaranoko oinaze 'ta bozkariozko eman ahalak ezarri ditugunean, bertze mundu batekoa dela iduri baitzaiku, poesiaz inguratzen baita, gure biziaz egiten baitu hartan gutarik guti edo aski hurbildua izanen den eremu hunkigarri bat bezala. Zuanek etzezakeen bere buruari nahasmenik gabe galdegin ondoko urtetan Odette harendako zer bilakatuko zen. Batzuetan, bere karrosa idekitik ikusten zuelarik, gau hotz eder argi hetan, ilargia dirdiran haren begien eta karrika hustuen artean bere argiaren ixurtzen, gogoan zuen ilargiarena bezala argitu eta arinki gorraxtatu bertze aurpegi hura, egun batez gogoaren aitzinean jalgia zizakona, ordutik, hartan ikusten zuen mixteriozko argia mundura hedatzen zuena.

Odette-ek sehiak etzatera igortzen zituen orenaren ondotik jiten baldin bazen, baratze ttipiko xilintxan jo baino lehen, bazoan haren gamba-

rako leihoak, ondoko hoteletako leiho oro berdin baina ilunen artean argitan bakarra, behean, emaiten zuen karrikara. Berinan joiten zuen, eta hark, entzunik, ihardesten zuen eta igurikatzen bazoakon bertze aldera, sartzeko athera. Pianoan idekiak aurkitzen zituen hautesten zituen musiketarik zenbait: Tagliafico-ren *Arrosen balza* edo *Ero gaizoa* (haren izkiriozko nahiaz, ehortziko zenean jo beharko zirenak), haien orde Vinteuil-en zonatako aire ttipia jo zezan eskatzen zaukon, nahiz Odette-ek biziki gaizki joiten zuen; baina musika batetik gelditzen zaukun ikuspen ederrena, ainitzetan, piano makurtu batetik erhi malestruk batzuek athera soinu gaiztoen gainetik jalgi zen hura da. Aire ttipiak Odette-rentzat zuen maitasunari lotua izaiten jarritzen zuen Zuanendako. Sendi zuen bada maitasun hori, kampokorik jeus etzuen zerbait zela, beraz bertze nehork ikus etzezakeen zerbait; ohartzen zen Odette-ren gaitasunak etzirela harekin iragaiten zituen orduer hoinbertze balio eman zezeentzat aski. Eta usu, adimen egiatia zenean bakarrik nagusi Zuanen baitan, nahi zuen idurimenezko atsegin batendako hoinbertze adimenduko eta gizarteko abantailen uztetik gelditu. Baina aire ttipiak, entzuten zueneko, bazakien haren baitan behar zuen lekuaren liberatzen, hortaz Zuanen arimako arauak bertzelakatuak izaiten baitziren. Bazter bat atxikia zen hark ere kampoko gauza edozeinekin ikustekorik etzuen gozatzte batendako, bizkitartean, maitasunarena bezala osoki norik berarena izaiteko orde, Zuanek egiazko gauzak baino goragoko zerbait bezala hartu behar baitzuen. Lilluramen ez ezagun baten egarri hori, aire ttipiak sortzen zuen haren baitan, baina asetzeko jeusik ez ekhartzen. Hala nola nun, hetan aire ttipiak gauzetako abantailaz axolatzea, ororendako baliagarri ziren gizarteko gogoe-tak ezabatuak zituen Zuanen arimako guneak, huts-hutsik utziak baitzituen, eta han Odette-ren izenaren ezartzeko libro zen. Eta gero, Odette-ren amodioak apur bat labur eta atsekabegarri ukan zezakeenari, aire ttipiak ekhartzen zuen bere izaitte mixteriozkoa eta harekin batzen. Aire ttipia entzuten zuenean Zuanen begitartearen ikustean, hats hartzeari zabaltasun gehiago bazemon lokhargailu baten iresten ari zela iduriko zen. Eta musikatik hartzen zuen atseginak eta laster haren baitan zinezko behar bat sortuko zuenak, bazuen alabaina, ordu horietan, usain on entseatzen ukanen zuenaren egitea, harendako eginak ezkiren mundu baten hunkitzean ukanen zuena-

rena, molde gabekoa iduritzen baitzaiku gure begiek ikusten ez tutelakotz, erran-nahi gabea gure adimenduari ihes egiten duelakotz, sentsu bakar batez baizik ezkirelakotz hartarano heltzen. Atsedean handia, mitxteriozko berritza zen Zuanendako - haren begiek, nahiz margolaritzako ezagule zorrotzak, gogoak, nahiz bizi-molden ikusle trebea, betikotz baitzadukaten biziak duen idorraren hatz ezin ezabatua - gizonetarik arrotz zen izaite batera aldatua senditzea, itsu, arrazoineko ahalik gabe, abantzu ametsetako adabakoitz bat, mundua entzutetik baizik hautemaiten etzuen izaite alegiazko bat. Eta aire ttipian adimena hartara jauts etzizakokeen erran-nahi bat bilatzen baitzuen, zein zoramen bitxia zuen arrazoinamenduko laguntza oroz arima barnatuenaren biluzten, eta soinuaren arte-bidetik, irazkai ilunetik iragan-arazten! Erranaldi horren ezitasunean zatzen mingarri zen guziari, behar bada segetutzko khexu zerbaiti ere ohartzen hasten ari zen, baina etzezakeen hortaz paira. Odette-ek erran zezon maitasuna beratza zela, zer axola zuen, harena hain zen azkarra! Emaiten zuen trixteziak jostatzen zen, bere gainetik iragaiten senditzen zuen, baina bere zorionaz zuen sendimendua barnatuago eta eztiago egiten zuen phereka bat bezala. Odette-ri hamar aldiz jo-arazten zaukon, hogei aldiz, aldi berean haren besarkatetik gelditi etzadin bortxatzen zuela! Musu bakoitzak bertze bat eskatzen du. Ha! Maite den lehen ordutan, hain dira musuak naturalki sortzen! hain dira nasai batzu bertzen kontra tinkan! eta oren batez elgarri eman diren musuen zenbatzeko, ostaroan alhor bateko lilien egiteko bezainbat neke balizateke. Orduan Odette-ek gelditzera egiten zuen, baziola: «Nola nahi duk horrela josta nindadin atxikitzen baldin banauk? etzezakeat oro betan egin, jakik bederen zer nahi dukan, airea jo behar diata ala pheraka ttipiak egin?», Zuan khexatzen zen eta hura karkailaz hasten, gero musu elementia batera aldatzen zen irrian eta Zuanen gainera erortzen. Edo ere itxura muthiri batean behatzen zaukon, Zuanek begitarte bat ikusten zuen Botticelli-ren *Moisen bizian* izaiteko gai zena, Odette-ren lephoari behar zen ukhurdura emanik, hartan ezartzen zuen; eta uraz emendatu thinduan ontsa margoztatua zuenean, XV-garren mendean bezala kape-
ra Sistinako harresian, bizkitartean hor, pianoan, egona zelako gogoeta, orai berean, besarkatua eta hartua izaitera prest, egiazki bazela eta bizi zelako gogoeta xoratzera heldu zizakon halako indarrean, nun, begia galdua, iresteko

bezala matel-hezurak tinkan, Botticelli-ren neskaso horren gana botatzen baitzen eta mateletan zimikaz hasten baitzizakon. Gero, utzia zuenean, ez berriz besarkatzera sartu gabe, orhoitzapenean haren usainetik edo begitarretetik zerbaiten eremaita ahazia zuelakotz, bere karrosa idekira itzultzen ari zen bitartean, egunorotako ikustaldi horiek haizu uzteaz Odette benedikatzen zuen, etzaukotela hari bozkario handi-handi bat emaiten sendituz, baina bekaizti bilakatzetik bere burua zaintzen zuen batean - Verdurin-darren etxean aurkitua etzuen arrats hartan sortua zizakon gaitzaren berriz jasaiteko aldia ekhenduz - langunduko baitzuten, lehenbizikoa hain mingarria izana zizakonaz eta bakarra geldituko zenaz bertze gaitzaldirik ukaitera ez utziz, bere biziko ordu bitxi horien burura heltzen, ordu hain xoragarriak, Paris ilargi xuritarra zeharkatzen zuen haien moldean. Eta, itzultze hortan, argizagia orai haren ganik urrundua zela ohartzean eta abantzu hedoiertzearen muga, haren maitasunak ere lege ezin aldatu natural batzuer obeditzen zuela senditzean, bere buruari galdez ari zen hea sartua zen aldi horrek oraino luzaz iraunen zuenez, laster etzaukonez gogoak begitarte maite hura leku urrundu eta ttipitu batean baizik ikusiko, bere lilluramenaren hedatzetik gelditzera hurbildua. Zuanek lilluramena gauzetan aurkitzen baitzuen, amaratua zenetik, lehenago gazte-gaztean edergilea zela uste zuen bezala; baina etzen orai lilluramen bera; hau, Odette-ek bakarrik zaukon emaiten. Senditzen zituen bizi arinegi batek ezeztatuak zituen gaztaroko gogamenak bere baitan berphizten, baina bazadukaten orok izaite berezi baten ikurra; eta, orai etxean haien eremaiten atsegin goxo bat hartzen zuen oren luzetan, sendatzen ari zizakon arimarekin bakarrik, apurka berriz zen ber hura bilkatzen ari zen, baina bertze norbaitena.

Etzoan Odette-ren etxera arratsean baizik, eta jeus etzakien egunaz zuen ordutegiaz, iraganaz baino gehiago, hainbertzetarano nun, ezta-kigunaren asmatzera utziz, ezagutzeko gutizia emaiten daukun hastapeneko xehetasun ttipi hark ere huts egiten baitzaukon. Hortakotz etzen ari bere baitan zer egiten zukeen galdez, ez eta haren bizia zer izana zen. Irriño bat bazuen bakarrik batzuetan gogoratuz, zuela urte zenbait, ezagutzen etzue-
nean, emazte bat aiphatua zaukotela, zuzen orhoit bazen, segurki hura zatekeena, neska arin bat bezala, emazte diruz ordaindu bat, haien artean guti

bizi izana baitzen, nortasun azkar, funtsez gaitzera bihurtu bat oraino emaiten zauen emazte hetarik bat, elhaberrigile batzuen idurimenak luzaz horrela erakutsi baitzituen. Bazion bere baitan munduak egiten duen aiphamenaren kontra joaitea ainitz aldiz aski dela norbaitez zuzenki jujatzeko, horrelako jite baten aitzinean Odette-rena ezartzen zuenean, ona, lañoa, idealari emana, egiaren ez erraiteko abantzu hain ahal gabea nun, egun batez, harekin bakarrik auhaldu ahal ukaiteko, Verdurin-darrer ez ontsan zela izkiria zezeen othoizturik, ikusia baitzuen biharamunean, hobeki zenez galdegiten zaukon Verdurin Anderearen aitzinean, gorritzen, ahopiatzen eta nahigabeen erakusten, aurpegian, gezur erraiteak bazegikon dolua, oinazea, eta, ihardestean metatzen zituelarik bezperako ez ontsa alegiazkoaz xehetasun asmatuak, so othoizlariez eta mintzo lastimatuaz bere elhen falsutasunaz barkamendu eska-arazten zuela iduri ukaiten.

Egun batzuez alta, baina bekan, arratsaldean Zuanen etxera jiten zen, hunen ametseriaren haustera edo zuela guti berriz hartan hasia zen Ver Meer-*ez* ikherlan baten. Crécy-ko Anderea saloin ttipian zela erraitera jiten zizazkon. Bazoan han haren batzera, athea idekitzen zuenean, Zuan ikusia zuen orduko Odette-ren begitarte arrosa-kolorean - ahoaren moldea aldatzen zaukola, begien behakoa, matelen itxura - irriño bat nahastera heldu zen. Bakarrik gertatu eta, irriño hori bazakusan berriz, bezperan ukana zuena, horrelako aldi batez harekin hartua zuen bertzea, katleiak zuzenduz aspergarri zenez galdegina zaukolarik, karrosan, ihardespenetako egina zuen hura; eta gainerateko demboran Odette-ek ukana zuen bizia, ezer ezpaitzuen hararik ezagutzen, agertzen zizakon, bere zola hits koloregabeen, Watteau-ren laneko orsto batzu iduri, hetan ikusten baitira, leku orotan, alde orotara, paper horailean hirur margoetan eginak, ezin zenbatuzko irriñoak. Baina, batzuetan, Zuanek osoki hutsa ikusten zuen bizi hortako xoko batean, gogoak etzela hutsa erraiten baldin bazaukon ere ezin asma baitzezakeen, adixkide batek, elgar maite zutelako aieruan, ezteuseko gauzez bertzerik hari erraitera irriskatu gabe, Odette-ren itxura aiphatzen zaukon, ikusia baitzuen, goizean berean, Abbaticci-ko karrikari goiti joanki, soingaineko ttipi mofetaz aphaindu batean, Rembrandt-en arako xapel batekin eta briolet floka bat papoan. Marrazki xoil horrek Zuani gogoa nahasten zaukon, bapatean ikus-

araziz Odette-ek bazuela osoki harena etzen bizi bat; nahi zuen jakin eza-
gutzen etzaukon jantzi horrekin nori gustatu nahi ukana zuen; bere baitan
hitzemaiten zuen nora zoan galdeginen zaukola, arrats hartan, maite zuena-
ren bizi guzian - abantzu izaiterik gabea, ezin ikusia zizakolakotz - , emaiten
zauzkon irriño horietarik hara, gauza bakar bat baizik izan ezpaliz bezala:
haren ibiltzea Rembrandt-en arako xapel baten azpian, papoan briolet floka
batekin.

Vinteuil-en aire ttipia eskatuz *Arrosen balza*-ren orde, Zuanek
etzuen bereziki berak maita zezazkeen gauza batzuen hari jo-araztea bilatzen,
ez eta, musikan literaturan baino gehiago, Odette-ek zuen gustu gaixtoaren
zuzentzea. Ohartzen zen etzela adimenduna. Zuani poeta handiez mintza
zakidion hainbertze nahiko zuela erranez, Odette-ek asmatua zuen berehala
bertsu heroiko edo Borelli-ko bizkondearen moldean sendimenduzko batzu,
hunkigarriagoan oraino, ezagunen zituela. Ver Meer de Delft-i zoakonaz,
eskatu zaukon emazte baten ganik oinazkatua izana zenez, emazte batek zue-
nez sustatua, eta Zuanek hortaz ezer etzakitela aithorturik, margolari hori
bazterrera utzi zuen. Bazion ainitzetan: «Uste dut bada, alabaina, poesia
baino ederragorik jeus elizateke egia baliz, poetek erraiten duten guzia go-
goan balute. Baina ainitzetan, ezta jende horiek baino abantail-nahituagorik.
Ontsa badakit, halako poeta bat maitatu duen adixkide bat banuen. Etzen
neurtitzetan maitasunaz baizik mintzo, zeruaz, izarrez. Ha! nola hatzmana
izan den! Hirur ehun mila liberaz goiti jan dauzko.» Orduan Zuanek ederla-
naren balioa zerk egiten zuen erakatsi nahi baldin bazaukon, neurtitzak ala
margazkiak nola behar ziren miretsi, ephe baten buruan entzutetik gelditzen
zen, baziola: «Ba... horrela zela iduritzen zizatan.» Eta Odette hainbertzeta-
rano nahigabetua zela sendi zuen, nun nahiago baitzaukon gezur bat erran,
horiek oro etzirela oraino ezteus batzu baizik, funtserano joaiteko astirik
etzuela, bazela bertze zerbait. Baina bizi-bizia erraiten zaukon: «Bertze zer-
bait? zer?... errak beraz», baina Zuanek etzuen erraiten, hori zein arina eta
uste zuenetik zein ezperdina idurituko zizakon jakinez, gutiago mirazkoa eta
gutiago hunkigarria, eta ere ederlanaz lilluragabeturik, etzadin aldi berean
maitasunaz hala izan beldurrez.

Alabaina, Zuan, adimenez, uste ukanen zuena baino ttipiago idu-
ritzen zizakon. «Beti badatxikak hire odol-hotza, enetako ezin argitua hiz.»

Gehiago miresten zuen diruaz zuen axolagabeen, bakoitzarendako zuen gixakoan, arthatuan. Gerta dateke alabaina, ainitzetan Zuan zen baino handiago batzuendako, jakintsun bat, edergile bat, inguratzen dutenez eztelarik ez ezaguna, haren adimenaren goientasunak menperatuak dituela erakusten duen sendimendua, eztela haren ideiadako duten miresmena, ezpaitituzte hartzen, baina oneziarendako duten errespetua. Errespetua zuen ere Zuanek munduan zuen lerroak Odette-ren baitan sortzen, baina etzuen hartara sarraraz zezan bilatzen. Ezin egin zezakeela sendi zuen behar bada, eta beldurtzen zatekeen ere bakarrik haren aipatzean lotsagarri zizazkon gauza batzu agerr-araz zitzan. Dena den haren izena nehoiz ere aipa etzezan hitzeman-arazia zaukon. Mundura ez joan nahi ukaiteko Odette-ren arrazoina, omen, lehenago adixkide batekin ukana zuen samurgo bat zen, andere horrek, mendekatzeko, gero hartaz gaitzerrana baitzuen. Zuanek ihardesten zuen: «Baina ez tin jende guziak hire adixkidea ezagutu. - Baina bai, berria hedatzen duk, mundua hain da gaixtoa.» Alde batetik Zuanek etzuen ixtorio hori zer zen hartu, baina bertetik bazakien «mundua gaixtoa da», «gaitzerran bat hedatzen da» erranaldi horiek, oro har egia bezala hartuak direla; hala gertatzen diren aldiak badatezke. Odette-rena horietarik zena? Galde hori egiten zuen bere baitan, baina ez luzaz, aiher baitzen, hura ere, aitak lehenago zuen gogoko dorpe hartara, neke zen zerbaitez ari zenean. Bertzela ere, Odette hainbat izitzen zuen mundu hark, etzaukon behar bada gutizia handirik eman-arazten, ontsa garbiki itxuratu ahal ukaiteko ezagutzen zuenetik urrunegi baitzen. Bizkitartean, alde batzuetarik zinez laño gelditurik ere (behazunez adixkidetako emazte josle ttipi bat atxiki zuen, abantzu egun oroz igaiten zuela haren mailalde zut, ilun, kharatsa), aphaintasunez egarri zen, baina etzuen hartaz munduko jendek zuten ideia bera. Hauendako, aphaintasuna jende guti batzuen ganik darion gauza zen, hein baterano aski urrun igortzen dutena - haien inguru hurbilekoetarik urrundu arau ahulagotua - bere adixkidek bai adixkiden adixkidek badagiten batasunera, hauen izenek halako aurkibide bat egiten baitute. Munduko jendek hori bere orhoitean dadukate, gai horietan jakintza bat badute hartarik hartua baitute halako gostu bat, antze bat, hala nola nun Zuanek, behazunez, bere jakitate mundutarrari hel egin behar ukan gabe, egunkari batean irakurtzen baldin bazituen auhari batean ziren jenden izenak, berehala erran baitzezakeen auhari hortan

zen aphaintasuneko berexkuntza, literaturan ezagule batek, erranaldi baten irakurtze xoiletik, egilearen literaturako gaitasuna zuzen-zuzena estimatzen duen bezala. Baina Odette gauza horiek eztazkiten jendetarik zen (ainitz ainitz bada, zer ere uste ukan dezaten munduko jendek, gizarteko mail orotan bezala), aphaintasun osoki bertze bat asmatzen dutenatarik, itxura ezperdinak hartzen baititu jende horien ingurumenaren arau, baina, izan dadin Odette-ek amesten zuena ala haren aitzinean Cottard Anderea gurtzen zena, izaitez haien guziendako berdin eta zuzen hurbil-errega. Bertzea, munduko jendena, hala da ere egia erraiteko, baina ephe zenbait hartu behar da. Odette-ek bazion norbaitez:

- Ehoiz ezta leku aphainetara baizik joaiten.

Eta Zuanek hortaz zer erran nahi zuen galdegiten zaukonean, ihardesten zuen erdeinu apur batekin:

- Baina leku aphainak, alabaina! Hire adinean leku aphainak zer diren erakatsi behar baldin bazaik, zer nahi duk erran dezatan, nik? behazunez, Emperatrizaren ethorbidea igandetan, Aintzirako itzulia bortz orenetan, Eden Antzokia ortzegunetan, Zaldilastertokia ortziraletan, dantzaldiak...

- Baina zein dantzaldi?

- Parisen emaiten direnak ori, dantzaldi aphainak, erran nahi diat. To, Herbinger, badakik, mublerietako diru artekari baten etxean den hura? baina ba, badakikek, Parisko gizon aiphatuenatarik duk, mutiko gazte ile hori bat, ezin gehiago handi-nahia, beti lili bat botoin xiloan, marra bat bizkarrean, maripulis argi batzuekin; erakustaldi lehen guzietara baderaman margazki zahar harekin duk. He bada! dantzaldi bat emana dik, joan den arratsean, Parisen den aphain guzia han zian. Nola nahiko nian hara joan! baina gomit paper bat behar zian athean erakutsi eta enian ukan ahala. Oro har, nahiago diat ez han izanik, jendez bazian hiltzekoa, jeusik enian ikusiko. Herbinger-en etxean izana ahal zela erraiteko zian izaitekotz. Eta badakik, nik, banaloria! Bertzela ere, erraiten ahal duk bada han zirela dioten ehun emaztetarik, erdiaz bederen eztela hori egia... Baina ustegabetzen nuk, hi, hoin gizon «pschutt»-a, ez han izanik.

Baina Zuanek etzuen batere hark aphainaz zuen gogamen horren alda-araztea bilatzen; uste baitzuen berak zuena etzela egiazkoagoa, harena

bezain zozoa zela, baliorik gabea, amoranteari horren ikastea etzuen abantailik batere ikusten, hala nola nun ilabeteak iraganik Odette ezpaitzen Zaun haien etxera zoanez axolatzen, haien ganik ukan zezazkeen zaldilasterkatzalen hazta-lekuetako, zaldi konkursoetako, antzerti lehen aldietako billetendako baizik. Nahiko zuen ezagutza hoin baliagarriekilakoa atxik zezan, baina bertzalde guti aphainak zirela sinestera ekharria zen, Villeparisis-ko markesta karrikan iragaiten ikusia zuenaz geroztik ile beltzeko zaian, xingolekilako bonet batekin.

- Baina, *darling*, antzokiko alkizain bat iduri dik, etxezain zahar bat. Hori, markesta, baina, ontsa khario ordaindu behar nintzatekek horrela phildaturik atheratzeko!

Zuan Orléans-ko kaiako hotelean bizi izaita etzuen gogoan hartzen, aithortzera menturatu gabe, harendako etzela gai iduri baitzizakon.

Egiki, bazuen «zaharkiak» maite zituelako nahikaria, eta itxura xoratu xorrotx bat hartzen zuen egun osoaren iragaitea «puxkila bila» biziki maite zuela erraiteko, «zurruburrakerien» ondotik, «arokoak» ziren gauzen. Nahiz halako buru gogortasun batean hisitzen zen (eta familiako ohidura zenbaiti jarrikitzen iduri) galder behin ere ez ihardestean, eta bere egunetako ordutegiaz «khondurik ez emaiten», aldi batez Zuani aiphatua zaukon bere etxera gomitatua zuen andere adixkide bat, han guzia «arokoa» baitzen. Baina Zuan etzen ehoiz zein arokoa erran-araztera heldu. Alta, gogoetan egonik, «ertarotarra» zela ihardetsi zuen. Hortik entzutera emaiten zuen zureriak bazirela. Berantago, bere adixkideaz berriz mintzatu zizakon eta gaineratu zuen dudazko doinu batean, eta bezperan harekin auhaldua den eta haren izena nehoiz entzuna etzen norbaiten aipatzeko hartzen den itxura alegia entzungarrian, zure gomitatzaiek iduri dutelarik hain aiphatua den norbaitendako dadukatela nun uste ukan nahi baita nortaz mintzatu nahi duzun solaskideak aitzinetik ontsa jakinen duela: «Jateko sala bat badu... hemezortzigarreneko!» Hori ezin itsusiago zizakon alta, biluzia, etxea bururaturik izana ezpaliz bezala, han emazteak itsusi-itsusiak, moda horrek ehoiz ezpaitzuen ere hartuko. Azkenik, heren aldi batez, berriz aiphatu zuen eta Zuani erakutsi jateko sala hura egina zuen gizona nun bizi zen, ethorr-arazteko gutizia baitzuen, dirua ukanen zuenean, bat egiten ahalko etzaukonez

ikusteko, ez segurki berdina, baina berak amesten zuen hura eta zorigaitzez bere hotel ttipiaren neurriek onhartzen etzutena, alase gora batzuekin, Berphizteko muble 'ta Blois-ko jauregian bezalako khebide batzuekin. Egun hartan, agertzera utzi zuen Zuanen aitzinean hunek Orléans-ko kaian zuen bizitegi azker gogatzan zuen; gaitzetsia baitzuen Odette-ren adixkideak eman zezan, ez Luis XVI-garrenekora, hori, nahiz etzen egiten, xoragarria izan baitaitake, baina zaharki falsura: «Ehuke nahi hi bezala muble hautsi eta tapiza higatu batzuen erdian bizi ladin», erran zaukon, burjesiaren errespetua haren baitan emazte arinaren ezagule nahiari nagusitzen baitzen oraino.

Phuxkileria eroste eta neurtitzak maite zituztenez, karkula aphilak gutiesten, ohorez eta amorez ametsetan zirenez, gainerateko gizon oro baino goragoko lerro bat egiten zuen. Egiazki gustu horien ukaiteko beharrik etzen, goraki erraiten ziren ber; auherrik ibiltzea maite zuela, saldegi zaharretan erhien zikintzea, salerosketako mende hortaz ehoiz ere etzela estimatua izanzen, bere intresez ezpaitzuen axolarik, eta hortakotz bertze mende batekoa zela auhaltzean aithortua zaukon gizon baten ganik, itzultzen zen erranez: «Baina jende ezin maitagarriagoa duk, sendikorra, enian hori nehoiz ere uste ukanen!» eta harendako sendi zuen bapateko adixkidetasun neurrigabe bat. Aldiz, gustuak bazituztenak, Zuanek bezala, baina ez hetaz mintzatzen, hek hotz-hotza uzten zuten. Zuan etzela diruari atxikia aithortzera bortxatua zen egia erran, baina bazion aire mutiri batekin: «Baina hura, ezta gauza bera»; eta alabaina, haren idurimenari mintzo zena, etzen abantail nahigabeko egintza, horren hiztegia zen.

Ainitzetan, hark amesten zuena ezin egin zezakeela senditzean, Zuanek bilatzen zuen bederen Odette harekin laket izan zadin, gauza orotan zuen gustu gaitz horren, gogamen arrunt horien kontra ez joiatea, bertzela ere maite zituenak haren ganik heldu zen guzia bezala, xoratzen zutena, emazte horren bertze hainbertze berezitasun baitziren, horien bidez emazte horren izaitea agertzen baitzizakon, ikuskarri bilakatzen. Hortako, *Reine Topaze* delakora joan beharrez zorionean iduri zuenean, edo behakoa serio, khexu eta nahikor bilakatzen zizakonean, lilien bestaren edo bakarrik theko orduaren huts beldur zenean, «muffin» eta «toast»-ekin, Erret-Karrikako Thean, han izaitea baitezpadakoa zela uste baitzuen emazte baten aphaintasuneko

omenaren konsekratzeko, Zuanek, zoramenduan guziak giren bezala haur baten jiteaz edo mintzatzera doala iduri duen potret baten egitasunaz, hain ontsa sendi zuen amorantearen arima aurpegira hurbiltzen, nun ezin baitzagokeen ezpaineekin hunkitzera jin gabe. «Ha! lilien bestara eremana izan dadin nahi du, Odette ttipiak, bere burua mirets-arazi, ongi, eremanen da, amor emaita aski zaiku.» Zuanek ikuspena apur bat laburra baitzuen, begitakoak erabili behar ukan zituen etxean lan egiteko eta hartu, mundura joaiteko, gutiago itsutzen zuen begitako bakarra. Begian ikusi zaukon lehen aldian, etzuen bozkarioa atxiki ahal ukan: «Gizon batendako, ezta erraiteko baizik, biziki aphain dela aurkitzen dut! Zein ontsa hizan horrela! zinezko *gentleman* baten egitea duk. Etzaik titulu batek baizik huts egiten!» gaineratu zuen, urrikizko doinu apur batekin. Odette horrela izan zadin maite zuen, eta berdin, Bretoiniarsa batez amoratua izana baliz, mottoarekin ikusiz zorionean izanen zen eta arima herratuetan sineste bazuela erraiten entzuzenez. Ordu arteo, ederlandetako duten gostua atsegin-nahitik berex handitzen zauen gizon ainitzen baitan bezala, ezperdintasun bitxi bat izana zen bati eta bertzeari emaiten zauzteen gozaldien artean, emazte gero eta arruntago batzuen ondoan, erderlan gero eta hautukoagoen lilluramenez atsegin hartzen zuela, sehi ttipi bat eremanez egongia sareztatu batera, entzuteko gura zuen antzerti «dekadenzia» moldeko baten agerraldiko, edo margolaritza «impresionixa» erakustaldi bateko, segur izanez bertzalde munduko emazte aditu batek etzuela hartan gehiago hartuko, baina etzuela hoin polliki ixilik egoitea jakinen. Aldiz, Odette maite zuenaz geroztik, gogoz harekin bat izaita, biek arima bakar bat ukan zezaten, hain ezti zizakon, nun hari gustatzen zizazkon gauzetan laket izaitera entseatzen baitzen; atsegin are barnatuagoa aurkitzen zuen ere ez bakarrik haren ohiduren hartzean, baina haren aburuen beretzean, nun, horiek ezpaitzuten Zuanen adimenean errorik batere, maite zuenaz orhoit-arazten baitzuten bakarrik, haren gatik hautetsiak zituelakotz. *Serge Panine*-ra itzultzen baldin bazen, Olivier Metra-ren gidari ikusterera joaiteko aldiak bilatzen bazituen, Odette-ren gogamen guzietan ikasia izaitearen eztitasuneko, haren gustu orotan erdizka izaiteko zen. Haren gana hurbiltzen zuen gozo hori, hark maite zituen liburuek eta lekuek bazutena, hartaz orhoit-arazten etzuten ederragoko batzuen bano mixteriozkoa-

goa iduritzen zizakon. Bertzela ere, gaztaroan zituen adimeneko sinesteak ahultzera utzirik, eta zen gizon mundutarraren sineskaiztasuna bera ohartu gabe hetan sarturik, uste zuen (edo bederen hain luzaz hori uste ukana zuen nun oraino erraiten baitzuen) gustukoak ditugun gauzek ezutela bere baitan balio baitezpadakorik, baina guzia aroko gauza dela, gizarte mailekoa, modek egiten dutela, hauetan arruntenek hautukoenetako hartzen direnak balio baitituzte. Eta uste baitzuen ederlan erakustaldi berri baterako gomit karta batzuen ukaiteari Odette-ek emaiten zuen munta etzela berez lehenago Gales-ko printzearen etxean barazkaltzeko berak zuen atsegina baino zerbait irrigarriago, berdin ere, etzuen uste Odette-ek Monte-Carlo-rendako edo Righisarendako aithor zuen miresmena, hark itsusia asmatzen zuen Holandaren edo trixtea zizakon Versailles-endako berak zuen gostua baino arrazoingabeagoa zela.

Odette-ren inguruko guzia bezala, hori ezpaitzen zerbait moldez hura ikusi ahal ukaiteko, harekin solastatzeko zuen ara baizik, Verdurin-darrek in izaita maite zuen. Hor, libertimendu orotan berdin, aphairu, musika, joko, jantzi bereziekilako auhari, baserriko aldi, antzokiko aldi, «aspergarriendako» emaiten ziren «arrats handietan» ere, Odette hor zen, Odette ikusten zen, Odette-rekin solastatzen, hura gomitatuz Verdurin-darrek baitzemoten Zuani horien emaitza ezin estimagarria, «multxo ttipian» bertze nun nahi baino laketago zen, zinezko merezimenduak aurkitu nahi zauzkon, asmatzen baitzuen horrela, gostuz, bizi guzian han ibiliko zela. Bada, Odette beti maitatuko zuela bere buruari erraitera ezin ausartuz, hori ez sinets heldurrez, Verdurin-darren etxean beti ibiliko zelakoan bederen (erranbide hune, *a priori*, adimenaren aldetik prinzipiozko ihardokitze gutiago phizten baitzaukon), bere burua ikusten zuen ethorkizunean arrats oroz Odette-rekin batuz jarraikitzen; etzen hori behar bada beti maitatzea bezalako gauza berdina, baina oraikoan, maite zuen bitartean, egun batez etzela haren ikustetik geldituko, nahi zuen guzia hori zen. «Zer ingurumen xoragarria, zion bere baitan. Egiazko bizia nola hor den eremaiten! Munduan baino zenbat adimendu gehiago den, zenbat gehiago «artixta» den hor! Verdurin Andreak, apur bat irrieginarri diren hantura ttipi batzu ukanik ere, zein maitasun zinezkoa duen margolaritzarendako, musikarendako, ederlanendado zer

suhartasuna, edergiler atsegin emaiteko zer nahikunde! Munduko jendez duen aburua ezta zuzena; baina ere horrekin guziarekin, munduak eztuenez aburu oraino hutsezkoagoa edergilen bizimoldeaz! Badateke adimenduko behar handirik eztutala solastatzean asetzeko, baina Cottard-ekin beteginki laket niz, nahiz athermaldi zozo batzu egiten dituen. Eta margolariaz den bezainbatean, haren espantueria nardagarri baldin bada norbaiten ustegabetea bilatzen duenean, aldiz ezagutu dutan adimendu ederrenetarik bat da. Eta oroz gaintek hor, libro senditzen da, trabarik gabe nahi dena egiten, fazoi-nik gabe. Nolako omore oneko gastua egiten den egun oroz saloin hortan! Hots, berexkunde bekan batzu ezpadira, nehoiz eniz gehiago horrara baizik joanen. Ohidurak eta bizia eztitut hemendik goiti hor baizik ukanen.

Eta Verdurin-darren baitakoak zirela uste zuen gaitasunak ezpaitziren Odette-rendako zuen maitasunak haien etxean gozatuak zituen atseginek emaiten zaueten leinurua baizik, gaitasun horiek seriosagoak, barnatuagoak, baitezpadakoagoak bilakatzen ziren ere atsegin horiek hala zirenean. Verdurin Andereak baitzemon artetan Zuani hunendako zoriona izan zaitekeen gauza bakarra; hersturan sendi zen arrats batez Odette gomit batekin bertze batekin baino gehiago mintzatua zelakotz, eta, haren kontra khexu, berarekin itzuliko zenez galdegiteko lehen urratsa egin nahi etzuen batez, Verdurin Andereak bakea eta bozkarioa ekharriak baitzauzkon bere baitarik erranez: «Odette, Zuan Jauna lagunduko duzu, eztea hala?»; eta heldu zen udan Odette hura gabe norapait joanen zenez bere buruari galdez egona zenean lehenik antsiarekin, egun oroz ikusiko ahal zuenez, Verdurin Andereak gomitatuko baitzituen biak bere baserriko etxean udaren iragaitera, Zuan, berak ez jakinean abantail-nahia eta eskerrona utziz adimenera sartzen eta gogoan eragin ukaiten, bazoan Verdurin Anderea arima handikoa zela goraki aithortzerano. Lehenago Louvre-ko eskolan zituen adixkidetarik bat mintza zakidiola zenbait jende hautuko edo gora jarri batzuez: «Ehun aldiz nahiago ditiat Verdurin-darrak», zaukon ihardesten. Eta haren baitan berri zen ospe batekin: «Jende bihotz handiko batzu dituk, eta bihotz handitasuna duk, azkenean, behere huntan balioa dikan gauza bakarra eta berexkuntza egiten. Ikusak, bi izaite mota baizik eztuk: bihotz handikoak eta bertzeak; eta alderdi bat hartu behar den adinera heldua nuk, nor maitatu nahi den eta

nor gutietsi behin betikotz deliberatu behar denera, maite direnekin egon eta, bertzeekin andeatu den demboraren ordaintzeko, hek ez heriorano utzi. He bada! gaineratzen zuen, gauza bat erraiten denean, ez egia delakotz, baina erraitean atsegin hartzen delakotz eta gutaz bertze nunbaitik heldu baliz bezala bere mintzoan entzuten, nor bera ontsa ohartu gabe ere sendi den bihotz hunkidura arin harekin, hortaz egina duk, bihotz handikoen baizik ez maitatzea hautatua diat eta bihotz handitasunean baizik ez bizitzea. Verdurin Anderea zinez adimenduna denez galdegiten dautak. Segurtatzen deat bihotzeko nobletasunaren lekukotasunak emanak dautala, eta hara, zer nahi duk, gogoko goratasunik gabe heltzen eztenarenak. Badik segurki ederlanetako adimen barnatu bat. Baina mireskarriena eztuk behar bada hortan; eta enetako ukana dikan egitate ttipi, hautuki on batek, jeinuzko oharpen batek, jestu lañoki ezin ederrago batek, biziaren ezagutza bat agertzen die filosofiako liburu guziak baino barnatuagoa.»

Bere baitan erran ahalko zuen alta bazirela lehengo haren gurasoen adixkide batzu Verdurin-darrak bezain lañoak, ukanak zituela gaztaroko lagun batzu ederlanez hek bezain amorratuak, bertze jende batzu ezagutzen bihotz handikoak, eta, bizkitartean, hautua lañotasunera, ederlanetara eta bihotz handitasunera emana zuenetik, ehoiz etzituela gehiago ikusten. Baina horiek etzuten Odette ezagutzen, eta, ezaguna ukan balute, Zuanen gana haren hurbiltzeaz etziren axolatuko.

Etzatekeen beraz behar bada, Verdurin-darren inguruko guzietan, Zuanek bezainbat maite zituen edo maite zituela uste zuen leil bakar bat. Eta bizkitartean, Verdurin Jaunak errana zuenean Zuan etzizakola begikoa, etzuen bakarrik berak gogoan zuena errana, baina emaztearena ere asmatua zuen. Badateke Zuanek bazuela Odette-rendako atxikimendu bat bereziegia, Verdurin Andereari hartaz egunoroz mintzatzeko artharik hartua etzuen; badateke Verdurin-darren etxekotasunaz baliatzeko zuen zuhurtzia berak, ainitzetan auhaltzera jitetik begiratuaz asmatzen etzuten arrazoin baten gatik eta hunen orde «aspergarrien» etxerako gomit baten ez huts egiteko nahia ikusten zutenetik, badateke ere, haier horren gordetzeko hartuak zituen artha guziak izanik ere, zuen bizi mundutar distirantaren apurka apurka aurkitzeak, horrek guziak hazten zuela haren kontra zuten sumindura. Baina

arrazoin barnatua bertzerik zen. Laster senditua zuten haren baitan eremu berezi, ezin zilatu bat, hartan jarraikitzen baitzuen ixil-ixila bere buruari aithortzen Sagan-go prinzesa etzela irriegangarri eta Cottard-en hitz-jokoak etzirela jostagarri, eta azkenean, nahiz bere maitagarritasuna etzuen ehoiz uzten eta etzen haien sineskaian kontra jazartzen, Zuani horien harr-arazteko, osoki horietara haren biltzeko ezina, behin ere nehoren baitan aurkitua etzutena. Aspergarriekin ibiltzea barkatuko zaukoten (bertzela ere mila aldiz, bihotzaren zolan, Verdurin-darrak haier hautesten baitzezteen), onhartu balu, behazun onaren emaiteko, leialen aitzinean haier ukho egitea. Baina arnegamendu hori nehoiz athera ahalko etzizakon bat zela hartu zuten.

Zenbat etzen berdin Odette-ek gomita zezaten eskatua zauen «berri» batekin, nahiz etzuen aldi gutitan baizik aurkitua, eta hartan ezperanza handiak ezartzen zituzten batekin, Forcheville-ko kondea! (Gertatu zen Sannette-ren koinata zela hain zuzen, horrek leialak ustegabetez bete baitzitu-
tuen: artxibolari zaharrak hain ara lañoak zituen nun beti gizarte lerro aphil batekoa zela uste ukana baitzuten eta ezpaitzauden mundu aberats hein batean arixtokrata batekoa zela jakitera.) Forcheville arrunki handinahia zen dudarik gabe, Zuan etzelarik hala; urrun zen ere, hau bezala, Verdurin-darren ingurukoan bertze guzien gainean ezartzetik. Baina ezagutzen zituen jende batzuek Verdurin Andereak emaiten zituen gaitzerraita ageriekiegi hutsezkoekin bat izaitea Zuani debekatzen zaukon jitezko bihotzpe-ratasun hartarik etzuen. Margolariak egun batzuez botatzen zituen atheraldi espantuzko arruntetan, Cottard emaitera ausartzen zen irri-solas bidarimutilen arakoetan eta Zuanek, biak maite baitzitu, errex desenkusatzan zitue-netan baina goresteko kuraia eta gogo falsurik ukan gabe, Forcheville, aldiz, batzuez zentzordatua, miretsia zen, gogoan hartzen ere etzitelarik, eta bertzetan goxatzen. Eta hain zuzen Forcheville han izan zen lehenbiziko auhariak ezperdintasun horiek argian ezarri zituen, Zuanen gaitasunak agerr-arazi eta hunen desgrazia lehiatu.

Auhari hortan han ziren, ohituetarik bertze, Sorbonako erakasle bat, Verdurin Anderea uretan aurkitua zuena eta, unibersitateko kargu eta jakitatezko lanek ezapalauzkote libertateko epheak biziki bekan ukan-araziak, usu haien etxera gogotik ethorriko zena. Ezen bazituen bizirako jakin-nahi

hura, sineskeria hura, hauek, bere ikaskuntzen gaiari doakon sinets-gogortasun zerbaiti baturik, edozein ofiziotan, gizon adimenduko batzuer emaiten baitaue, medikuntzan sinesterik eztuten mediku ala latinerako itzulpenean eztuten lizetako erakasle, izpiritu zabalak, distiratuak, eta goienak ere direlako omena. Verdurin Anderearen etxean, gomparaketak gauza xoilenetan bilatzen balitu bezala egiten zuen, filosofiaz edo literaturaz mintzo zenean, lehenik bizitzera prestatze bat baizik eztirela uste baitzuen, eta orai arteo liburuetan baizik aurkitua etzuen multxo ttipian egintzan edireiten zuela asmatzen; eta gero behar bada, gai zenbaiten alderako errespetua lehenago gogoan sarr-arazia ukanik, eta berak jakin gabean atxikirik, uste zuen unibersitateko gizonaz buluzten zela haiekin ausartasun batzu hartuz, berari ausart iduritzen etzizazkonak hala gelditua zelakotz baizik.

Aphairu hastapenetik, Forcheville-ko Jaunak, «berriarendako» aphaintetan gastu handiak eginak zituen Verdurin-go Anderearen eskunean ezarria, baitzion: «Berezi da, zaia xuri hori», medikuak, ezpaitzen hari so egitetik gelditua, hain zen «-ko»-rekileko bat zeritzona nola egina zen jakin-nahia, eta haren oharpenaren biltzeko eta harekin harremanetan hurbilagozik sartzeko aldiaren bila, «xuri» hitza airean hatzeman zuen eta, sudurra azietatik goititu gabe, erran: «xuri? Gaztelako Xuria, Blanka?», eta gero burua higitu gabe irriño batekin so dudatu batzu ezker eta eskun ebaska igorri. Zuanek, irriño baten ukaiteko egin zituen indar mingarri debaldekoekin, atheraldi hori zozoa zizakola entzun-arazi zuen bitartean, Forcheville-ek erakutsia zuen aldi berean horrek zuen xorroxtasuna gostukoa zuela eta bazakiela bizitzen, Verdurin Anderea xoratuko zuen bozkario bat arau zuzen batzuetan atxikiz.

- Horrelako jakintsun batez zer diozu? galdegina zaukon Forcheville-ri. Bi minutaz ezin dateke horrekin serioski mintza. Berdinak atheratzen dezteezua, zure eritegian? gaineratua zuen medikuaren gana itzuliz, ez ahal da egun oroz aspergarri, beraz. Neure buruaren han sarr-araztea eskatu beharko dutala ikusten dut.

- Medikua Gaztelako Blanka atso nahasi hartaz - horrela mintza baldin banaiteke - ari zela entzuna dut ustez. Eztea egia, anderea? galdegin zaukon Brichot-ek Verdurin Andereari, hunek, aldixartzera, begiak hetsirik,

aurpegia bi eskuen artean hartzen zuela bapatez handik oihu itho batzu jalgi baitziren. Jainkoaz, anderea, eninduzke, baldin badira, mahi hunen inguruko arima errespetagarriak asaldatu nahi, *sub rosa*... Aithor dut bertzela ere gure errepublika atheniar - oi zenbat! - ezin aiphatuak gogo argitu gabeko «kapetiarsa» hortan ohora lezakeela poliziako prefet larderiadun lehenbizikoa. Bai bai, gomitari maitea, zinez bai, egin zuen berriz silaba bakoitza berexten zuen mintzo ontsa ozenduarekin, Verdurin Jaunak eman kontrako arrazoin bati ihardesteko. *Chronique de Saint-Denis* delakoak, hartako berrien zuzentasuna ezin ukha baitezakegu, eztu gauza hortaz dudarik batere uzten. Emazte bat elizateke jende langile laikotasunaren aldeko batez, patroinetako, saindu baten ama hori baino hobeki hautatua izan, garratzak ikusarazi baitzauzkon bertzela ere, Suger, San Bernat eta bertzek dioten bezala; harekin bakoitzak berea hartu behar zuen.

- Nor da jaun hori? galdegin zaukon Forcheville-ek Verdurin Andereari, lehen mailekoa dela iduri du.

- Nola, Brichot aiphatua eztuzu ezagutzen? Omena badu Europa guzian.

- Ha! Bréchet da, egin zuen ontsa entzuna etzuen Forcheville-ek, hoinbertze erranen dautazu, gaineratu zuen gizon aiphatuan begi zabaldu batzu itzatuz. Omena baduen gizon batekin auhaltzea beti ohargarri da. Baina, erratazu, hautuko jende batzuekin gomitatzen gituzu. Ezta zure etxean aspertzen.

- Ho! badakizu, gehienik dena, erran zuen xumetasunekin Verdurin Andereak, konfiñxian sendi direla da. Mintzo dira nahi dutenaz, eta solasa badoa phindarretan jalgiz. Horrela Brichot, gaur, jeuz ezta; ikusia dut, badakizu, hemen, lilluragarri, aitzinean belhaurikatzeko gai; oizu bada! bertzen etxean, eztu gehiago izpiriturik, hitzak athera behar zazko, aspergarri da ere.

- Bitxi da! erran zuen Frocheville-ek, ustegabetua.

Brichot-ena bezalako izpiritu molde bat zozo hutsarendako hartua izanen zen Zuanek gaztaroa iragana zuen mundu hertsian, nahiz egiazko adimendu batekin akomegarri den. Eta erakaslearena, bizkor eta ontsa hazia, Zuani izpiritudunak zizazkon munduko jende ainitzez gutiziatua izan zaitkeen naski. Baina hauek hain ontsa zauzkoten azkenean bere gostuak

eta higundurak gogoan sarr-araziak, bederen bizi mundutarrari doakon guzian, eta ere izaitekotz adimenaren eremuari eratxikia izan behar lukeen hortako zatietarik batean, solastatzean, nun Zuanek ezpaitzituen Brichot-en irri-solasak jakintsunkeriazkoak, arruntak eta gohaindi-arazterano gizenak baizik aurkitu ahal ukan. Ara onetako zuen ohiduran gaitzitua zen ere, unibersitatelari burgoiak, bakoitzari mintzatzean, erakustera eman nahi zuen doinu latz militarraz. Azkenik, arrats hartan, bere barkaberatasunetik zerbait galdua zukeen, Odette-ek ekhartzeko ideia bitxia ukana zuen Forcheville horren aldera Verdurin Andereak zabaltzen zuen amultsutasunaren ikustean. Zuanendako apur bat jenatua, andereak galdegina zaukon:

- Nola iduritzen zaizu, gure gomita?

Eta hark, lehen aldian ohartzuz aspaldidanik ezagutzen zuen Forcheville emazte bati gustatzen ahal zizakola eta gizon aski ederra zela, ihardetsia zuen: «Okaztagarria!» Segurki, etzuen Odette-ez jelos izaitea gogoan, baina etzen ohian bezain zorionean sendi eta Brichot-ek, Gaztelako Blankaren amaren ixtorioa erasten hasia baitzuen, «urteak eta urteak Henri Plantagenet-ekin egona harekin ezkondu baino lehen», nahi ukan zaukonean Zuani jarraipena erran zezan eska-arazi, baziola: «eztea hala Zuan Jauna?» laborari baten heinean jartzeko edo soldado baten sustatzeko hartzen den doinu gertarian, Zuanek moztu zuen Brichot-en oldea, etxekanderearen haserre handitan, ihardetsiz desenkusa zezaten eskatzen zuela Gaztelako Blankaz hoin guti interesatua izaiteaz, baina zerbait bazuela margolariari galdegiteko. Hau, alabaina, arratsaldean izana zen erakustaldi baten ikusten, Verdurin Anderearen adixkidea izana eta berriki hila zen artixta baten lanena; eta Zuanek jakin nahiko zuen haren ganik (haren gostua estimatzen baitzuen) zinez haren azken lanetan bazenez jadanik aitzinekoetan zentzordaturik uzten zuen trebetasun handia.

- Alde hortarik, ohi ez bezalakoa zen, baina etzizatan, nola erran, ederlan biziki «goratua» iduritzen, erran zuen Zuanek irriño batean.

- Goratua... erakunde baten goratasunerano, moztu zuen Cottard-ek besoak goitituz alegiazko serioztasun batean.

Mahi guzia irri karkailaz hasi zen.

- Horrekin serio ezin egon dela erraiten nautzunean, erran zaukon

Verdurin Andereak Forcheville-ri. Gutienik uste denean, irri egiteko elhe bat atheratzen dautzu.

Baina ohartu zen Zuan bakarrik zela ez alegeratu. Bertzela ere Cottard-ek Forcheville-ri haren aitzinean irri egin-araz zezon etzizakon hainbat gustatzen. Baina margolariak, Zuani molde ohargarri batean ihardesteko orde, harekin bakarrik izan baliz eginen zukeena, nahiago ukan zuen gomiter bere burua mirets-arazi, edergile zenduaren trebetasunaz zerbait sartuz.

- Hurbildu niz, erran zuen, nola egina zuen ikusteko, sudurra gainean ezarri dut. Ha! bai zinez! ezin erran laiteke kolaz egina denez, errubisaz, sabonaz, burdin-horiaz, iguzkia, ala kakaz!

- Eta bat hamabi, egin zuen berantegi nehork ere artetik erran zuena hartu etzaukon medikuak.

- Jeusez egina dela iduri du, hasi zen berriz margolaria, jukutria ezin agertua da *La Ronde*-an ala les *Régentes*-etan baino gehiago eta aztaparez Rembrandt eta Hals baino azkarrago da oraino. Guzia hor da, baina bai, zinez.

Eta buruko mintzoan jarraiki ahal ukaiteko nota gorenera helduak diren kantariak bezala, murmurikan gelditu zen, eta irriz, margolatze hori ederraren bortxaz alabaina ezteus bat izana baliz bezala.

- Usainontzen du, burua hartzen dautzu, hats bahitzen, gilikatzen zitu, eta zertaz egina den jakiteko phirrit, sorginkeria da, maltzurria, mirakulua (eta osoki irri karkailan): ezin oneskarrirano!» Eta geldituz, burua larriki goitituz, gozagarri bilakatzerantz entseatu zen mintzo aphal barnatu bat hartuz, gaineratu zuen: «eta hain da zintzo!»

«*La Ronde* baino azkarrago da» errana zuenean salbu, Verdurin Anderearen ganik ihardokitze bat eman-arazia zuen blasfemia, *La Ronde* munduan den nagusi-lan handienetakotzat baitzadukan *Bederatzigarren sinfoaniarekin* eta *Samothrace*-arekin, eta «kakaz egina», hunek Forcheville-ri inguruan behako bat eman-arazia baitzaukon hitza bazoanez ikusteko eta gero ahoan irriño begiratu eta baiezko bat ekharria, gomit guziek, Zuanek salbu, so batzu emanak zauzkoten margolariari miresmenez lilluran.

- Nola jostatzen nauen horla abiatzen denean, egin zuen, hark bururatu ukan zuenean, Verdurin Andereak, Forcheville-ko Jauna lehen aldikotz

heldu zen egun hartan hain zuzen mahiaren hain ohargarri izateaz xoratua. Eta zuk, zer duzu horrela egoiten, abere bat bezala ahoa zabalik? erran zaukon senarrari. Ontsa mintzo dela badakizu alta; entzuten zituen lehen aldia dela erran laiteke. Mintzo zinelarik ikusi bazinu, iresten zinduen. Eta bihar zuk erran guzia errepikatuko dauku hitz bat ere jan gabe.

- Baina ez, gezurrik ezta, erran zuen margolariak, bere arrakastaz loriatua, tartarikaz ari nizala uste duzue iduriz, phatxada dela; ikustera eremanen zituztet, espantua denez ikusiko duzue, ni baino xoratuago itzuliko zireztela hitzemaiten dautzuet!

- Baina eztugu espantuz ari zirela uste, nahi dugu bakarrik jan dezazun, eta ene senarrak jan dezan ere; emozu berriz Jaunari arrain xabal normandiarretik, duena hoztua dela ikusten duzu. Eztugu halako lehiarik, sua baliz bezala zerbitzatzen duzu, igurika apur bat ensalada eman baino lehen.

Cottard Andereak, xumea baitzen eta guti mintzo, segurtasun eskasik ez ukaiten bazakien alta gogatzeko zorionezko batek hitz zuzen bat aurki-arazia zaukonean. Ondorio ona ukanen zuela sendi zuenn, horrek konfianzia ezartzen, eta egiten zuena ofizioan aitzinatzen senarrari baliagarri izaiteko baino gutiago bere bururaren distira-arazteko zen. Etzuen beraz Verdurin Andereak errana zuen ensalada hitza joaitera utzi.

- Ezta ensala xaponexa? erran zuen erdi ahapetik Odette-ren gana itzuliz.

Eta Dumas-en antzerti berri eta hots handikoaz aieru laño, baina argi baten egitean zen ausartziaz eta behar orduaz ahalgetua eta xoratua, karkailetan hasi zen, xintxo baten irri goxagarrian, haro gutikoan, baina hain ezin ihardokian nun ephé batez menperatu ahal ukan gabe egon baitzen. «Andere hori nor da? Izpiritua badu», erran zuen Forcheville-ek.

- Ez, baina eginen dautzugu, ortzirale guziez auhaltzera jiten bazira.

- Ontsa probinziarra idurituko nitzaizuz, jauna, erran zaukon Cottard Andereak Zuani, baina orok aiphatzen duten *Francillon* hura eztut oraino ikusia. Medikua jadanik izana da (orhoit niz ere zurekin arrastiriaren iragaiteko atsegin handia ukana duela erran dautala) eta aithor dut eztutala biziki arrazoinetara aurkitu lekuak aloka ditzan berriz hara enekin itzultzeko. Ageri dena, Antzoki-Frantsesean, nehoiz ezta iragan arrastiriaz dolutzen, beti hain ontsa jokatu da, baina adixkide biziki gixakoak baititugu (Cottard

Andereak izen bat bekan emaiten zuen eta «gure adixkide batzu», «ene adixkidetarik bat» erraitean gelditzen zen, doinu alegiazko batean, nahi duena baizik izendatzen eztuen norbaiten itxura handituarekin) aintzetzan egongiak baitituzte, eta balioa duten berritasun guzietara gure eremaiteko ideia ona, beti segur niz goiz edo berant *Francillon* ikusiko dutala, eta hartaz aburu bat moldatu ahaliko. Aithortu behar dut alta neure burua aski zozo aurkitzen dutala, ikustaldiz noan saloin guzietan, ezpaita ensalada xapones zorigaitzeko hori baizik aiphu. Apur bat akhitzten hasten ari da ere, gaineratu zuen ikusiz Zuanek etzuela orduko berri sutsu hortaz hark bezain hartua iduri, nahiz erran behar den hori gogamen aski jostagarri batzuendako estakurua dela. Andere adixkidetan bat badut horrela, biziki emazte pollita izanik ere, biziki inguratua, biziki munduan sartua, etxean ensalada xapones hori egin-arazi duela baitio, baina Alexandre Dumas semeak antzertian erraiten duen guzia ezarr-araziz. Jatera adixkide batzu ethorr-araziak zituen. Zorigaitzez enintzan hautatuetan. Baina gero khondatua dauku, bere egunean: higungarria omen zen, irriz urra-arazi gitu. Baina badakizu, dena erraiteko moldean da, erran zuen, Zuanek itxura larri bat bazadukala ikusiz.

Eta Zuanek behar bada *Francillon* maite etzuelako aieruan:

- Bertzela ere askietsia izanen enizala uste dut. Eztut uste *Serge Panine* balio duela, Crécy-ko Anderearen mira da. Horra bederen zola baduten gai batzu, goga-arazten duten batzu; baina ensalada molde baten emaita Antzoki-Frantsesean! *Serge Panine* aldiz! Bertzela ere, Georges Ohnet-en lumatik heldu den guzia bezala da, hain da beti ontsa izkiriataua. *Serge Panine*-ri ere hauta nezakeen *Le Maître des Forges* ezagutzen duzunez eztakit.

- Barka ezatazu, erran zuen Zuanek irkaitzezko doinu batean, baina bi nagusi-lan horiendako ene miresmen eskasa berdintsua dela aithortzen dut.

- Zinez, zer gaizki hatzemaiten dauezu? Alderdi bat hartua duzua? Apur bat trixte dela aurkitzen duzua behar bada? Bertzela ere, beti diotan bezala, nehoiz ezta elhaberriez eztabadatu behar ez eta antzertiez. Bakoitzak badu bere ikus moldea eta nik hautesten dutana hastiagarri aurki dezakezu.

Forcheville-ez moztua izan zen, Zuan helatzen baitzuen. Alabaina, Cottard Anderea *Francillon*-ez ari zen bitartean, Forcheville-ek errana zaukon Verdurin Andereari margolariaren «speech» zeritzon ttipiarendako zuen miresmena.

- Jaunak badu elheko errextasun bat, orhoit bat! errana zaukon Verdurin Andereari margolariak bururatua ukan zuenean, bekan aurkitu duta. Alafe! bertze hainbertze nahi nuke nihaurek. Pheredikalari hauteko bat egin lezake. Erran daiteke badituzula hor, Bréchet Jaunarekin, elgar balio duten bi lumero; eztakit ere, elhasturian, hunek elezakeenez erakaslea garhait. Naturalkiago heldu zako, gutiago artharekin egina da. Nahiz badituen, bidenabar, hitz apur bat gordin batzu, baina egungo gostua da, eztut usu entzun horrelako trebetasunarekin thu-untziaren edukitzen, erreximenduan ginion bezala, han banuelarik alta jaunak arestian orhoit-arazten zautan lagun bat. Zer nahitaz, nik dakita zuri erraiteko, baso huntaz, behazunez, orenak eta orenak eras zezakeen; ez, ez basoaz beraz, diotanak arrazoinik eztu; baina Waterloo-ko guduaz, nahiko duzunaz, eta bidenabar ehoiz ere gogoratuko etzizaizkitzun gauza berri batzu igortzen zauzkitzun. Bertzela ere Zuan erreximendu berean zen: ezagutu duke.

- Zuan Jauna usu ikusten duzu? galdegin zuen Verdurin Andereak.

- Baina ez, ihardetsi zuen Forcheville-ko Jaunak, eta Odette-ren gana errexkiago hurbiltzeko Zuanendako gozagarri izan nahi baitzuen, zituen ezagutza ederren aiphatzeko aldi hortaz baliatu nahiz, haren lausengatzekotan, baina munduko gizon batek bezala aiphatzeko, bihotz onezko kritika doinu batekin, eta ustegabeko ondorio on batez bezala goresten zuela iduri ez ukaiteko: «Eztea hala Zuan, ehoiz etzitut ikusten. Bertzela ere, zure ikusteko nola egin? Ihizi hori La Tremoille-tarren baitan, Laumes-tarrenean eta hortan guzian sartua da beti!...»

Salakeria are gehiago gezurrezkoa bertzela ere, nun urtea baitzen Zuan etzoala gehiago Verdurin-darren etxera baizik. Baina ezagutzen etzituzten jenden izena bera gaitzespeneko ixil batekin hartua zen haien etxean. Verdurin Jaunak, «aspergarri» horien izenek, oroz gainetik horrela jendearen begitartera antzerik gabe egotzirik, emaztearen baitan ondorio atsekabegarri bat egina ukan zezaten beldurrez, behako bat igorri zaukon artha khexuaz betea. Ikusi zuen orduan Verdurin Andereak, emana zizakon berriaren ez gogoan hartzeko, hartaz ez hunkia izaiteko, ez bakarrik muturik egoiteko, baina gor eta gogor izaiteko hartua zuen deliberoa, alegia egiten dugun bezala hutsean den adixkide bat solasaldiaren artetik desenkusa baten emai-

tera entseatzan denean, entzuna ukaitea onhartzen dela iduri bailuke, edo gure aitzinean eskergabe baten izena erraiten denean, Verdurin Andereak beraz, haren ixilak baimen baten itxura ukan etzezan, baina bizigabeko gauza batzuen jakingabekoa, bapatez aurpegia bizi oroz, higitze oroz buluzia zuen; haren bekoki gupia etzen gehiago zizeldura biribildu bateko marrazki lan eder bat baizik, Zuan beti haien etxean zagon La Trémoille horien izena ezpaitzen hara sartu ahal izana; sudur arinki zimurtuak ikustera uzten zuen biziaren idurira egina zen ozka bat. Aho erdi-idekia mintzatzeraz zola erranen zen. Etzen gehiago ezko molde galdu bat baizik, igelsuzko maska bat, eraikuntza bateko entsegu bat, Industriako Palaziorako soingainalde bat, haren aitzinean jendea segurki geldituko baitzen miretsi nahiz nola zizeltzalea, La Trémoille eta Laumes-tarrenaren kontrako Verdurin-darren gaitasun ezin galgarria erakutsiz (haien baliokoak baitira segurki, munduko aspergarri guzienenekoak bezala), harriaren zuriari eta gogorrari maiestate abantzu aita-saindu batenaren emaitera heldua baitzen. Baina harbizia azkenean phiztu zen eta jende horien etxera joaiteko okaztatua izan behar etzela entzun-arazi zuen, emaztea beti mozkorra baitzen eta senarra hain ezjakina nun «collidor» erraiten baitzuen «corridor»-en orde.

- Ontsa khario ordaindurik ere jende horiek enezazke etxean sartzeraz utz, bururatu zuen Verdurin Andereak, Zuani so manukor batekin behatuz.

Etzagokeen pianixtaren izabak bere lañotasun sainduan bezala egi-terano amor emanen zuelako ustean, hunek egina baitzuen: «Alaintso! Ustegabetzen nauena da haiekin mintzatzea onhartzen duten jendeak oraino aurkitzen dituztela! beldur nintzatekeela iduritzen zata: ukaldi gaixto bat hain errex ukana da! Nolaz bada oraino haien gibeletik laster egiteko jende aski abrea?» Baina zertako etzuen bederen Forcheville-ek bezala ihardesten: «Oizu, dukesa da; badira oraino horrek durduzatzen dituen jendeak», horrek Verdurin Anderea utzia baitzuen bederen ihardestera: «On baino hobe dagiela!» Horren orde, Zuan irri batekin gelditu zen, horrelako erokeria seriosean har etzezakeela ere erran nahi zuena. Verdurin Jaunak, emaztearen gana ebaska so batzuen igortzen jarraitzen zuela, bazakusan bihotz-minekin eta hartzen zuen hark heresiaren atheratzera heltzen ezten inkisidore handi ba-

ten haserrea sendi zuela, eta Zuan gibelera egitera ekharri nahian, nork bere aburuen zaintzeko kuraia beti karkula bat eta bihotz-gabekeria bat iduritzen baita haren kontra doanaren begietan, Verdurin Jaunak hel egin zaukon:

- Errazu bada zintzoki gogoan zer duzun, ezkira haier errepikatzeraz joanen.

Zuanek horri ihardetsi baitzuen:

- Baina ezta batere dukesaren beldurrez (La Trémoille horietaz mintzo bazirezte). Seguratzten dautzuet haren etxera joaitea orok maite dutela. Eztautzuet erraiten «barna-barnatua» dela («barna» hitza ahozkatu zuen hitz irriegangarri bat izana baliz bezala, ezen haren mintzamoldeak bazatxikan berritze zerbaitek, musikaren maitatzeaz markatuak, ordu hartan gal-arazia zaukon gogoko ohidura batzuen hatza - batzuetan aburuak sutsuki emaiten zituen -) baina, zin-zinez, biziki adimendukoa da eta senarra egiazko leteradun bat. Jende xoragarriak dira.

Hala nola nun Verdurin Anderea, multxo ttipiaren batasun moralaren egitea sinestegabe bakar horrek debekatuko zaukola sendituz, ezpaitzen, hisitu horren hitzek zenbat oinazkatzen zuten ikusten etzuenaren kontrako bere errabian, bihotzaren zolatik oihu egin gabe egon ahal izan:

- Iduri zaizula nahi baduzu, baina ez bederen guri erran.

- Adimendua derizotzunean da guzia, erran zuen Forcheville-ek nahi baitzuen bere aldian dirdiratu. Hea, Zuan, zer da zuretako adimendua?

- Horra! egin zuen Odette-ek, horra aipha ditzatan eskatzen dauzkotan gauza handiak, baina nehoiz eztu nahi.

- Baina ba... erran zuen goraki Zuanek.

- Bertzer! erran zuen Odette-ek.

- Bertz ala unti? galdegin zuen medikuak.

- Zuretzat, egin zuen berriz Forcheville-ek, adimendua, jendearen elhasturia dea, artezki sartzen jakitea?

- Zure artekoa burura ezazu azieta ekhen dezazuten, erran zuen Verdurin Andereak Saniette-ri mintzatuz doinu samin batekin, hura, bere gogoetetan murgildua, jatetik gelditua baitzen. Eta behar bada hartua zuen doinuaz ahalgeturik: «Jeus ezta, astia baduzu, bertzendako da, zerbitzatzea tratatzen baita.

- Bada, erran zuen Brichot-ek silabak jo-araziz, adimenduaren mugabide ontsa bitxia Fenelon anarkixta ezti haren baitan...

- Behazue! erran zauen Verdurin Andereak Forcheville-ri eta medikuari, adimenduaz Fenelon-en mugabidea erranen dauku, baliagarri da, horren ikasteko aldirik ezta beti.

Baina Brichot bazagon Zuanek berea emana ukan zezan aiduru. Hunek etzuen ihardetsi eta bazterrera eginez Verdurin Anderea Forcheville-ri eskaintzeaz gozaten zen gudu distiratu huts egin-arazi zuen.

- Alabaina, enekin bezala da, erran zuen Odette-ek doinu muttur batekin, aski gora hatzemaiten eztuen bakarra enizala ikusteaz eniz gaitzitua.

- Verdurin Andereak hain guti gomendagarri erakutsiak dauzkun La Trémoille-ko horiek, galdegin zuen Brichot-ek, indarrekin ahozkatuz, etxetiarrendako ontsa emaiten zuelakotz haien ezagutzeaz Sévigné-ko Andere handi-nahi on hark zorian zuela aithortzen zuen hetarik jausten direa? Egia da markestsak bertze arrazoin bat ere bazuela, eta horri eremaiten zuena, ezen, oro baino lehen leteragile, izkiriartzea guzien aitzinean ezartzen zuen. Bada erregulariki alabari igortzen zaukon egunkarian, «La Trémouaille-ko» Andereak zuen, ahaiden ganik ontsa argiturik, atzerrietako politika egiten.

- Baina ez, familia bera dela eztut uste, erran zuen zer gerta ere Verdurin Andereak.

Saniette, azieta oraino bete lasterrez mahi-nagusiarri itzulia zaukonaz geroztik, bere ixil gogoetatuan berriz sartua baitzen, handik jalgi zen azkenean La Trémoille-ko dukearen etxean egina zuen auhari baten ixtorioaren khondatzeko irri eginez, hortik ondorioztatzen baitzen dukeak etzakiela George Sand emazte baten izenordea zela. Zuanek, Saniette-rendako atxikimendua baitzuen, uste ukan zuen dukearen kulturaz xehetasun batzu eman behar zauzkola, hunen ganik horrelako jakingabea garbiki ezina zela; baina bapatez gelditu zen, hartu berria zuen Saniette-ek etzuela lekukotasun horien beharrik eta bazakiela ixtorioa gezurrezkoa zela, guti lehenago berak asmatua zuelakotz. Gizon ezin hobe horrek pairatzen zuen Verdurin-darrez hoin aspergarri aurkitua izaiteaz; eta jakinez auhari hortan ohian baino ere hitsago izana zela, etzuen bururatzera utzi nahi ukana jostatzer a heldu gabe. Hain errexki amor eman zuen, hari zagon ondorioak huts egina zuela ikus-

tean hain zuen zorigaitzean iduri, eta doinu hain uzkurtean zaukon Zuani ihardetsi, hau etzadin hisi ordutik debaldekoa zen ezeztatze batean («Ontsa, ontsa; dena den, huts badagit ere, ezta gaizki egin bat, ene ustez»), nun Zuanek nahiko baitzuen ixtorioa egia eta goxagarria zela erran ahal. Entzuten egona zizaien medikuari gogoratu zizakon *Se non è vero* erraiteko ordua zela, baina etzen bere hitzez aski segur eta nahasiko zela beldur izan zen.

Auhal-ondoan, Forcheville joan zen berainik medikuaren gana.

- Eztaiteke gaizki izana, Verdurin Anderea, eta gero, harekin mintza daitekeen emaztea da, guzia hortan da enetako. Egia, adinean apur bat aitzinatzen hasia da. Baina Crécy-ko Anderea, horra adimendua baduela iduri duen emazteño bat, ha! zaperlipopet! begi amerikarra duela berehala ageri da, horrek! Crécy-ko Andereaz mintzo gira, erran zaukon hurbiltzen ari zen Verdurin Jaunari, pipa ahoan. Emazte gorputz bezala badidurit...

- Ortzia baino nahiago nuke ohean ukan, erran zuen tarrapatan Cottard-ek, Forcheville-ek berriz hatsa har zezan igurikan baitzagon irri-solas zahartu horren sartzeko, beldurrez-eta aldi ona itzul etzadin solasa gaiez aldatzen baliz, eta errepikatze batetik ezin bereziak diren bihotz-hunkidura eta hotzaren gordetzera entseatzen den olde 'ta segurtasun soberako harekin erran baitzuen. Forcheville-ek bazakien, gogoan hartu zuen eta jostatu zen. Verdurin Jaunak bere aldetik, alaitasuna guti gorde nahi ukan zuen, ezen horren erakustera emaiteko itxurapen bat aurkitua zuen berrikitana, emazteak zerabilanetik bertzelakoa, baina berdin xoilak eta berdin argiak. Karkailetan ari den norbaiten buru eta soingain higitzean doi-doia hasia zeneko berehala eztulka emaiten zen, pipako khea, irria azkarregi eginez, iretsia ukana balu bezala. Eta beti aho izkinan atxikitzen zuela, itho-aldiaren eta irriaren sinoa ethengabe luzatzen zuen. Horrela hark eta Verdurin Andereak, hunek, aitzinean, ixtorio bat erraiten zaukon margolariaren entzuten, begiak hesten zituelarik begitartea bi eskuen artean bapatez sartu baino lehen, iduri zuten alaitasuna ezperdinki itxuratzen zituzten antzokiko bi maska.

Verdurin Jauna bertzela ere zuhur izana zen pipa ahotik ez utziz, ezen Cottard-ek, ephe bat urruntzeko beharretan, egin baitzuen erdi-ahapeka berrikitana ikasia zuen eta leku berera joan behar zuen aldi oroz errepikatzen zuen athermaldi bat: «Ephe batez joan behar dut Aumale-ko dukearekin solastatzera», hala nola nun Verdurin Jaunaren eztulaldia berriz hasi baitzen.

- Hea, utzazu bada pipa ahotik, irria horrela atxikiz ithoko zirela ikusten duzu, erran zaukon Verdurin Andereak edarien eskaintzera heldu baitzen.

- Zer gizon goxagarria zure senarra, laurek bezainbat izpiritu badu, erran zaukon Forcheville-ek Cottard Andereari. Eskerrak Anderea. Ni bezalako soldado zahar batek, ehoiz ezto ttottari ez erraiten.

- Forcheville Jaunak Odette xoragarri aurkitzen du, erran zaukon Verdurin Jaunak emazteari.

- Hain zuzen ere aldi batez zurekin barazkaldu nahi luke, egin zuen Verdurin Andereak. Hori antolatuko dugu, baina Zuanek ezto jakin behar. Badakizu, hotz apur bat ezartzen du. Eztautzu horrek auhaltzera jitea debeatuko, alabaina, biziki usu ukanen zitugulako esperanza gaude. Heldu den sasoin ederrarekin, bagoaz usu aire betean jatera. Etzituzte aspertuko, Oihanean auhari ttipiek ? ontsa, ontsa, biziki goxo izanen da. Etzirea zure lanari emanen, zu! oihu egin zaukon pianixta ttipiari, erakutsi nahiz, Forcheville bezalako berri gotor baten aitzinean, aldi berean zuen izpiritua eta leialen gainean zuen botere osoa.

- Forcheville-ko Jauna ari zizatan zutaz gaitzerraiten, erran zaukon Cottard Andereak senarrari hau saloinera sartu zenean.

Eta Cottard-ek, auhari hastetik gogoan hartua zuen Forcheville-ren nobleziaren ideari jarraikiz, erran zaukon:

- Baroinesa baten arthatzen ari niz orai, Putbus baroinesa; Putbus-tarrak gurutzadetan ziren, eztea hala? Badute, Pomeranian, Konkordiako plaza baino hamarretan handiago den aintzira bat. Errumatisima idor baten-dako arthatzen dut, emazte xoragarria da. Verdurin Anderea ezagutzen du bertzela ere, uste dut.

Horrek Forcheville haizu utzi baitzuen, ephe bat berantago Cottard Anderearekin bakarrik gertatu zenean, hunen senarrak emana zuen jujamendu aldekoaren osatzera:

- Eta gero ohargarria da, mundua ezagutzen duela ageri du. Alabaina, hainbertze gauza badakite, medikuek!

- Zonatako airea joren dut Zuan Jaunarendako, erran zuen pianixtak.

- Ha! jes! ez ote da bederen «zonatekilako sugea»? galdegin zuen Forcheville-ko Jaunak bere buruari oharr-arazi nahiz.

Baina Cottard medikuak, hitz-joko hori ezpaitzuen ehoiz entzuna, etzuen hartu eta Forcheville-ek huts egina zuela uste ukan zuen. Bizi-bizia hurbildu zen horren zuzentzeko:

- Baina ez, ezta «zonatekilako sugea» erraiten, «soinuekilako sugea» da, erran zuen doinu suhar, ezin-egon eta triunfari batean.

Forcheville-ek hitz-jokoa argitu zaukon. Medikua gorritu zen.

- Aithorrazu jostagarria dela, jaun medikua?

- Ho! aspaldidanik ezagutzen dut, ihardetsi zuen Cottard-ek.

Baina ixildu ziren; bere bi otabetako atxikidura ikharatuaz gerizatzen zuten arrabitaren daldaren azpian - hola nola mendietako herrialde batean, turrusta baten geldi idurizko eta burxoragari baten giblean, ohartzen baita, berrehun oin-neurri beherago, dabilan andere baten itxura nîmiñoari - aire ttipia agertua zen, urrun, garaziadun, soinuzko oihal argal ethengabearen uhainaldi luzearen gerizan. Eta Zuan, bihotzaren barnetik, bere maitasunaren mandatari ixil bati bezala mintzatu zizakon, Forcheville horri etzezan beha erran behar zaukon Odette-ren adixkide bati bezala;

- Ha! berant ethortzen zira, erran zaukon Verdurin Andereak auhalondoko baizik gomitatua etzuen leial bati, paregabeko Brichot «bat» ukana dugu, mintzari bat! Baina joan da. Eztea hala, Zuan Jauna? Harekin aurkitzen zinelako lehen aldia dela uste dut, erran zuen ezagutza egitea hari zuela zor oharr-arazteko. Eztea hala, ezin goxagarriago izan dela, gure Brichot?

Zuan jendeki gurtu zen.

- Ez? Etzaizu ohargarri izan? galdegin zaukon idorki Verdurin Andereak.

- Baina ba, anderea, biziki, loriatu niz. Apur bat ihardets-ezina da eta jendekinegia behar bada ene gustuko. Nahiago naukoke batzuetan dudamuda eta ezitasun apur bat, baina hainbertze gauza badaki eta ontsa gizon ona dela iduri du.

Guziak biziki berant joan ziren. Cottard-en lehen hitzak emazteari hauk izan ziren:

- Bekan ikusi dut Verdurin Anderea gaur bezain aldarlean.

- Zer da bada zuzen Verdurin Andere hori, hala-hulako norbait? erran zaukon Forcheville-ek margolariari hunekin itzultzea eskainia baitzaukon.

Odette-ek damurekin ikusi zuen urruntzen, etzen Zuanekin ez itzultzera menturatu baina karrosan omore gaxtoan izan zen, eta Zuanek haren etxera sartzen ahal zenez eskatu zaukonean, ihardetsi zuen «Erran gabe doa», soingainak ezin-egon batean goitituz.

Gomitak oro joanak izan zirenean, Verdurin Andereak erran zaukon senarrari:

- Ohartu zirea Zuanek zein irri xoxoa ukan duen La Trémoille-ko Anderea aipatu dugunean?

Ohartua zen izen horren ondotik Zuan eta Forcheville-ek «-ko» atzizkia aldi bat baino gehiagotan etzutela emana. Tituluek etzituztela herabetzen erakusteko zela ezpaitzuen dudan emaiten, nahiko zuen haien burgoitasunari jarraiki, baina zein gramatika molderen bidez egiten zen etzuen ontsa hartua. Beraz mintzatzeko zuen ara gaixtoa bere errepublikartasun ezin khordokatuari nagusitzen zizakola, bazion oraino «La Trémoille-ko-tarrak», edo hobeki kafe-konzertuetako kantularien hitzetan eta margazki trufarigilen leiendetan erabilia zen laburpenarekin «La Trémoille-k'arrak»; baina zuzentzen zuen erranez: «La Trémoille Anderea». «*Dukesa*, Zuanek dion bezala», gaineratu zuen irkaitzez, aiphamen bat baizik etzuela emaiten phorogutzen zuen erdi-irri batekin eta izendatze hoin laño bezain irrigarria etzuela bere gain hartzen.

- Ezin gehiago zozoa aurkitu dutala erranen dautzut.

Eta Verdurin Jaunak ihardetsi zuen:

- Ezta zintzoa, jaun maltzur bat da, beti liho eta ixtuparen artean. Beti nahi ditu hori eta hura akomeatu. Zer ezperdintasuna Forcheville-rekin! Huna bederen zer gogutzen duen deplauki erraiten dautzun gizona. Gus-tatzen zaizu ala ez. Ezta bertzea bezala, nehoiz ezpaita ez phiko ez mahats. Bertzela ere Odette-ek Forcheville hori ontsa hautesten duela iduri du, eta arrazoin bademakot. Eta ororen buruan, Zuanek munduko gizonarena egin nahi badauku ere, dukesen zaintzalearena, bertzeak badu bere titulua: Forcheville-ko kondea da beti, gaineratu zuen doinu arthatu batean, kondate horren ixtorioaren jakile, horren balio berezia haztatzen balu bezala.

- Erranen dautzut, egin zuen Verdurin Andereak, uste ukan duela Brichot-en kontra aieru phozoindatu aski irriegingarri batzu igorri behar zi-

tuela. Alabaina, Brichot hemen maitatua zela ikusi baitu, gure hunkitzeko moldea zen, gure auhariaren gutiestekoa. Atherratzean jorratuko zituen laguntza dela sendi da.

- Baina errana dautzut, ihardetsi zuen Verdurin Jaunak, huts egina da, doi bat handi den oroz bekaizti den jende ttipia.

Egiaz leial bat etzen Zuan baino nahi gaitzekoagoa etzenik; baina orok bazuten irri-solasez, hunkimenezko eta bihotz-enezko izpi batez bere gaitzerranen ontzeko zuhurtzia; aldiz Zuan hartzera ausartzen zen den gutieneko begiruneak, hetarano jaustea gutiesten zuen ohiko itzuliez garbi, hala nola «Eztugu gaizkirik erraiten», fede gaixtoko zerbait iduritzen zen. Badira idazlari berezi batzu, haien den ausartzia ttipiena ezin jasana baita, eztituztelakotz lehenik jendearen gustuak lausengatu eta hari ohitua den leku arruntak aitzinera eman: molde berean zuen Zuanek Verdurin Anderea sumintzen. Zuanen ganik haienetik bezala, mintzamoldearen berritasunak zuen xede ilunak bazituela sinets-arazten.

Zuanek etzakien oraino Verdurin-darren etxean mehatxatzen zuen desgazaria eta haien irrigarritasunen edertzean jarraitzen zen, bere maitasunaren erditik.

Etzen Odette-rekin hitzarterik, gehienetan bederen, arratsean baizik; baina egunaz, beldurrez eta bere buruaz akhi zezan haren etxera joanez, nahiko zuen bederen haren gogoa bete ukan, eta ari zen ordu oroz hartan parte hartzeko aldi baten bila, baina harendako gozagarri zen molde. Baldin, lore edo joia saltzale baten aitzindegian, zuhaxka edo joia baten ikusteak xoratzen bazuen, Odette-ri igortzea gogoratzen zizakon berehala, berari emana zaukon atsegina, hark senditurik, harendako zuen amodioa handituko zuela asmatuz, eta berehala La Pérouse karrikara ereman-arazten zuen, ez nahiz gibelatu, Zuanen ganik zerbait ukanen baitzuen, molde batez haren ondoan aurkituko zen ordua. Oroz gainetik nahi zuen etxetik athera baino lehen ukan zitzan, Verdurin-darren etxean ikusiko zuelarik sendituko zuen esker onak ongi-ethorri xamurrago bat eman-araz zezon, edo berdin, nork daki? remaileak aski laster egiten balu, behar bada auhal-aitzin Odette-ek igorriko zaukon eskutitz bat, edo etxera ber-bera ethortzea, ikustaldi gehiagoko batean, Zuanen eskertzeko. Lehenago bezala Odette-ren jitean despi-

teko ondorioen entsegua egiten zuenean, esker onezkoen bidez nahi zituen oraino agertuak etzauzkon sendimendu zati gorde batzu jakin.

Bazituen usu diruko traba batzu eta, zor zenbaitez hertsatua, laguntzera jin zakidion othoizten zuen. Hortaz zorionean zen Odette-ri harendako zuen maitasunaz, edo bakarrik zuen eraginaz, ukan zezakeen baliagarritasunaz ideia handi bat eman zezokeen guziaz bezala. Hastapenean errana izan balakio : «hire lerroa dik laket», eta orai: «hire fortuna dik maite», etzuen sinetsiko, etzen bertzela ere biziki gaizetsia izanen Odette hari atxikia zela uste ukan zezaten - elgarrekin bat zirela itxura zezaten - handi-nahia edo dirua bezain gauza askar batez. Baina, hori egia zela uste ukana balu ere, etzen behar bada oinazkatua izanen Odette-ek harendako zuen maitasunari, haren baitan aurki zezazkeen gozoak edo gaitasunak baino eskora iraunkor-rago horren edireitez: abantail-nahia, Zuanen ikustetik gelditzera ekharria izanen zaitzkeen egunean jitea beti debekatuko zaukon abantail-nahia. Oraikotz, emaitzez mukurru gaudituz, zerbitzu batzu emanaz, haren ganik, haren adimendutik, bere baitarik hari gustatzeko artha ezingarritik kampako abantail batzuetan egon zaitzkeen. Eta amoros izaiteko atsegin hark, maitatzeko baizik ez bizitzeak, horren egiatasuna dudan eman ezpaitzezakeen, ororen buruan hortaz ordaintzen zuen sariak, gorputzik gabeko sendimenen maitale arin bezala, haren balioa handitzen zaukon - hala nola jende batzu itsasoaren ikustea eta uhainen azantza goxagarri direnez lehenik dudan, onhartzen baitituzte bere gustu abantail-nahi gabekin batean, hetaz gozatzea haizu emaiten dauen hoteleko gambara eguneko ehun liberetan alokatuz.

Mota hortako gogoeta batzuek, berriz ere Odette-ek emazte ordaindu batez bezala mintzatua zizakon aroko orhoitzapenera zeramaten egun batez, eta aldi bat gehiago jostatzen ari zelarik jende mota bitxi horren, emazte ordainduaren - osagailu ez ezagun eta debruzko batzuen nahasketa dirdiranta, hala nola Gustave Moreau-ren agerpen bat, joia balios batzuekin artekatu lore phozoinduez moldatua - eta Odette horren elgarri kontraktzen, begitartean iragaiten ikusiak baitzauzkon lehenago bere ama, adixkideak, senditzen ikusiak zituen sendimendu berak, dohakabe batendako urrikizkoa, bidegabe batendako jazarmenezkoa, ongi-egin batendako eskeronezkoa, solasak hain usu Zuanek hobekienik ezagutzen zituen gauzetara

zoazkon Odette horren, Zuanen bildumetara, gambarara, mutil zahartura, bere diru-tituluak haren etxean zituen diruzainera, gertatu zen diruzain horren azken iduriak diru hartzeko beharretan zela orhoit-arazi zaukola. Alabaina, Odette-ek zituen diruzko neketan laguntzera ilabete huntan aitzinekoan baino gutiago nasaiki jiten baldinbazen, eta gutiziatzen zuen diamantezko lepho inguruko bat eskaintzen ezpaldin bazaukon, etzuen haren baitan Zuanen eskuzabaltasunarendako zuen miresmen hura, eskerron hura berrituko, hain zoriondun egiten zutenak; eta ere harendako zuen amodioa, agerpenak gutiago handiak zirela ikusiko baitzuen, ttipitua zela sinets-araztea irriskatuko zuen. Orduan, bapatez, bere baitan egin zuen hori ez ote zenez hain zuzen haren «ordaintzea» («ordaintze» horren ideia, alabaina, atheraia izaiten ahal baliz bezala, ez gauza mixteriozko ez gaitzera eman batzuetarik, baina haren biziko zola egunoroko eta bakarretik, hala nola mila liberako billet hori, etxeko eta ohikoa, urraturik berriz lotua, gambara-mutilak, ilabeteko khonduak eta saria ordaindu eta, bulego zaharraren tirantan hetsi ondoan, Zuanek handik berriz hartua baitzuen Odette-ri igortzeko bertze laurekin); eta hitz hori etzaithekeenez erran Odette-rendako, ezagutzen zuenez geroztik (ephe batez ezpaitzuen aieru ukan dirurik ehoiz ukana ahal zuela haren ganik baizik), harekin hain ezin akomeagarria zela uste ukana zuen hitz hori, «emazte ordaindua». Ideia hori etzuen barnatu ahal ukan, ezen Zuanen baitan sortzezkoa, artekatua eta probidenziala zen gogo auhertasunaren aldi bat jin zizakon ordu hartan adimenduko argi guziaren iraungitzera, geroago eletrika argia ezarria izan zenean, etxe batean eletrika moztu ahal izan zen bezain bapatean. Gogoa haztamuka ibili zizakon ilunbean ephe batez, begitakoak ekhendu zituen, berinak ikuzi, eskua begietan ibili, eta etzuen berriz argia aurkitu ideia osoki ezperdin baten aitzinean gertatu zenean baizik, beharko zela heldu den ilabetean Odette-ri lauren orde bortz mila liberaren igortzera entseatu, horrek eginen zauzkon ustegabe 'ta zorionaren gatik.

Arratsean, etzagolarik etxean Odette-ren berraurkitzeko orduaren aiduru, ala Verdurin-darren etxean ala, izaitekotz, laket zizezteen udako osatu batean, Oihanean eta oroz gainetik Saint-Cloud-en, bazoan auhaltzera lehenago han ohiko gomitetarik bat zen etxe aphain hetarik batera. Etzitzen osoki utzi nahi behar bada egun batez - nork zakien? - Odette-ri baliagar-

ri izanen zizazkon, eta haieri esker, artean, hari gozagarri izaitera heltzen zen jende batzu. Gero, luzaz ukana zuen munduaren, aberaskeriaren ohi-durak, emana zaukon, erdeinuarekin batean, haien beharra, hala nola nun bizitegi ttipienak hain zuzen printzen egoitzen hein ber-berekoak agertuak zizazkon ordutik, sentsuak hainbertzetarano baitzizazkon bigarrener jarriak nun lehenbizikoetan izaitean zerbait moldez gaizki sendituko baitzen. Bazuen D mailaldean, ezkerreko mailartean, dantzaldi batzu emaiten zituzten burjes ttipi batzuek - sinetsi ahalko etzuten indarrarekin - Parisko besta ederrenak emaiten zituen Parme-ko prinzesarendako zuen adei bera. Baina etzizakon iduri dantzaldian zela aitamekin etxekanderearen etzateko gaba-ran egonez; eta ikustegi oihalez estalien ikusteak, jantzitegi bilakatuak ziren ohen, oinestalgian soingainekoak eta xapelak metan, bazemon, gaurregun hogeit urte eletrikari jarriak diren jender ikhazten ari den lampa batek, edo iraugitzera doan beilargi batek egiten ahal daueten ithotzeko sendipen bera.

Hirian auhaltzen zen egunean, zazpiak eta erdietako atela-arazte zuen; janzten zen Odette gogoan eta horrela etzen bakarrik izaiten, ezen gogomenean beti Odette-ren ukaiteak emaiten zauen harenganik urrun zen orduer hor zenetakoek zuten xoramen berezia. Karrosara igaiten zen, baina sendi zuen gogamen horrek harekin batean jauzi egina zuela eta balhaunen gainean jartzen zizakola, beti berekin eremaiten den etxe-ihizi maite bat bezala eta mahian berekin atxikiko zuena, gomiten ez jakinean. Pherekatzen zuen, haren ondoan berotzen zen, eta, halako langidura bat senditzen zuela, uzten zen lephoa eta sudurra tinkatzen zaukon ikhara arin batera joaiten, haren baitan berria zena, zeinu-lore floka botoin xiloan lotzen zuen batean. Zenbait dembora baitzen bere burua ez ontsan eta goibel sendi zuela, oroz gainetik Odette-ek Forcheville Verdurin-darrer aitzineratua zauenaz geroztik, Zuaneke nahiko zuen baserrian apur bat atsedean hartzera joan. Baina etzuen egun bakar batez, Odette han zeno, Pariseren uzteko kuraiarik ukanen. Aire bereo zen, uda-leheneko egun ederrak. Eta harrizko hiri bat zeharka zezakeen hotel hetsi batera joaiteko, ethengabe aitzinean zuena, Combray-ko ondoan zuen parke bat zen, han, laur orenetako, azparrago landaretzera heldu baino lehen, Méséglise-ko alhorretarik bazetorren haizeari esker, hegigardoi baten itzalean jasta baitzaitekeen orhoit-lorez eta ezpara-lorez inguratua zen aintzi-

rako bazterrean bezainbat hoxtura, eta han, auhaltzen zenean, baratzezainak artekaturik, mahi inguruan baitzabiltzan arrosak eta mahaxuxa-gorriak.

Auhal-ondoan, Oihaneko edo Saint-Cloud-eko hitzartzea goizik baldin bazen, mahitik landa hain laster abiatzen zen - oroz gainetik euri irriskua baldin bazen eta goizago «leialen» sarr-araztekoa - nun aldi batez Laumes-etako prinzesak (haren etxean berant auhalduak izanik Zuanek kafea zerbitzatu baino lehen utzia baitzuen Oihaneko irlan Verdurin-darrene-taratzeko) erran baitzuen:

- Zinez, Zuanek hogeita-hamar urte gehiago balitu eta pixaxtreko eritasun bat, hoin laster joiteaz desenkusa laiteke. Hala ere, jendeaz trufatzen da.

Bazion bere baitan Combray-n baizik jastatzera joan etzaitkeen uda-leheneko xoramena, bederen Zisnen irlan aurkituko zuela edo Saint-Cloud-en. Baina gogoan ezpaitzezakeen Odette baizik ukan, orstoen usaina senditua zuenez ere etzakien, ilargi xuri izana zenez. Ongi ethorria zonatako aire ttipiak egiten zaukon, baratzean ostatuko pianoan jorik. Pianorik han ezpaldin bazen, Verdurin-darrek hartzen zuten gambara batetik edo jateko salatik jauts-arazteko neke handia; etzen hori Zuan haien baitan berriz fagorean zelakotz. Baina norbaitendako, maite etzuten batendako ere, atsegin antzeko baten moldatzeko gogoak, handitzen zituen haien baitan, adelu horiek egiten ziren artean, adixkidantzaz eta bihotz onezko sendimenduak. Batzuetan bazion uda-leheneko arrats berri bat zela iragaiten ari, zuhatzer, zeruari so egitera bortxatzen zen. Baina Odette-ren han izaiteak ezartzen zuen nahasmenak, eta ere zenbait dembora hartan uzten etzuen ez-ontsa arin batek, naturak eman dezakeen sendimenduetako zola baitezpadakoak diren bakeaz eta gozoaz gabetzen zuen.

Zuanek Verdurin-darren etxean auhaltzea onhartua zuen arrats batez, auharian errana baitzuen lagun ohi batzuekilako aphairu bat bazuela biharamunean, Odette-ek mahian berean ihardetsia zaukon, Forcheville-ren aitzinean, orai leialetarik bat baitzen, margolariaren eta Cottard-en aitzinean:

- Ba, zure aphairua baduzula badakit; etzitut beraz neure etxean baizik ikusiko, baina etzaitela berantegi ethor.

Nahiz Zuan Odette-ren adixkidantzaz leial baten edo bertzearen-dako etzen oraino nehoiz gaizkiturik izana, eztitasun barnatu bat sendi zuen horrela guzien aitzinean haren entzutean, herabe gabeko ausartzia segur horrekin, arrats orotako hitz-hartze horien aithortzen, haren etxean zuen izanara abantailekoaren eta Zuanendako horrek entzun-arazten zuen hautestearen. Egiaz Zuanek usu gogoan ukana zuen Odette etzela edozein moldez nehon ez bezalako emazte bat, eta bera baino hainbat beheragokoa zen jende baten gainean zuen burupeak ezer etzuen «leialen» aurpegira goraki aithortzen ikustean Zuani gozagarriago iduritzen ahal zizakonik; baina gizon ainitzi Odette emazte xoragarri eta gutziagarri bat iduritzen zizauela ohartua zenez geroztik, haiendako haren gorputzak zuen atsegingarriak phiztua zaukon haren bihotzeko zati den ttipienetan osoki nagusi izaiteko behar mingarri bat. Eta arratsetan harekin zeramatzan orduer balio ezin estimatu baten lotzen hasia zen, han bere belhaunetan jarr-arazten baitzuen, holako gauzaz gogoan zer zuen erran-arazten, orai lurrean haien jabe izaiteari atxikia zen ontasun bakarrak bere baitan erabiliz. Horrela, auhari hortarik landa, berex hartzen zuela, etzuen suharki haren eskertzea huts egin, erakusten zaukon eskerronak zuen neurriaren araura emaiten ahal zauzkon atsegin moten hari ikas-araztea bilatuz, gorena hau baitzen: maitasunak iraunen zaukon eta zaurigarri eginen zuen dembora guzian, bekaizkeriaren ukaldietarik zaintzea.

Biharamunean aphairutik jalgi zenean, euri erauntsia zen, etzuen eskupean bere karrosa idekia baizik; adixkide batek eskaini zaukon etxera bere karrosa motzean eremaitea, eta nola Odette-ek, jin zakidion galdegina zaukolakotz, nehoren beha etzagola segur utzia baitzuen, gogoan arinik eta bihotza gozoan zen, horrela euripean abiatzeko orde, etzatera bere etxera sartuko. Baina behar bada, arrats ondarraren beti, berexkuntza bat gabe, harekin iragaiteari etzela atxikia iduri ikusten balu, Odette etzen harendako begiratzeaz axolatuko, Zuanek bereziki nahiko zuen aldi batez hain zuzen.

Haren etxera hameka orenetan heldu zen, eta, goizago ez jin ahal ukanik desenkusutzen baitzen, Odette ontsa berant zela alabaina deitoratu zen, buruan min sendi zuela eta oren erdi bat baino gehiago etzuela atxikiko, gauerditan igorriko zuela; eta, guti berantago, akhittua senditu zen eta lo-khartu nahi ukan zuen.

- Beraz, gaur katleiarik ez? erran zaukon Zuanek, ni katleiaño on bat gogoan bainindagon.

Eta doinu apur bat muttur eta zaintsu batean, ihardetsi zaukon:

- Baina ez, gaixoa, gaur katleiarik ez, ez ontsan nizala ikusten duk bada!

- On eginen zaunan behar bada, baina enun hisituko.

Joan baino lehen argia hil zezan othoiztu zuen, erridauak Zuanek berak hetsi zituen eta joan zen. Baina, etxera sartu eta, gogora jin zizakon bapatez Odette arrats hartan norbaiten aiduru zagola, alegia akhituarena egina zaukola bakarrik eta argia hil zezan eskatua lokhartuko zela sinets zezan, handik hura joana zen bezain laster, argia berriz phiztua zuela, eta gaua harekin iragan behar zuena sarr-arazia. Orenari behatu zuen. Bazen nunbait han oren bat eta erdi utzia zuela, berriz athera zen, fiakra bat hartu zuen eta haren etxe ondo-ondoan geldi-arazi, izkinaz harenera zuzenean zen karrika ttipi batean eta haren hotelaren gibelera bazemanean, han batzuetan haren gambarako leihoan joiten baitzuen idekitzera jin zakidion; karrosatik jautsi zen, oro huts eta beltz zen auzoalde hortan; etzuen oinez zenbait urratsen egitea baizik behar ukan eta abantzu haren etxe aitzinean jalgi zen. Karrikan aspaldidanik hetsiak ziren leiho guzietan, bat zuen bakarrik ikusi handik, mami mixteriozko urreztatua hertsitzen zaukoten kampoko leihoen artetik, gamera betetzen zuen argiak baitzarion, hainbat bertze gauetan, karrikara heltzean urrunenetik bazakusan orduko, bozkariatzen baitzuen eta jakin-arazten: «hor duk hire igurikan» eta orai, oinazkatzen baitzuen erranez: «hork duk igurikatzen zianarekin». Nor zen jakin nahi zuen; harresiaren luzaran leihorano aitzinatu zen, baina leihoen ttaula zeharkatuen artetik jeus etzezakeen ikus: gauko ixilean solastatze baten murmurika entzuten zuen bakarrik.

Eiki, bihotzmin zuen argi haren ikustean, urreztatzen zuen airean, leiho-etxearen gibelean, higitzen ari zelarik gizon-emazte ezin ikusi hastiatuak, murmurika horren entzutean agerr-arazten baitzituen hura joan-eta ethorria zenaren hor izaitea, Odette-ren gezurra, harekin gozatzen ari zuen zoriona. Bizkitartean jinik askietsia zen: etxetik jalgitzera bortxatua zuen minak bere zorroztasuna galdua zuen garbi ez izaitetik gelditua zen batean,

orai Odette-ren bertze bizia, ordu hartan ukana baitzuen bapateko eta ahalik gabeko aierua, baitzadukan hor, lampak betean argiturik, berak ez jakinean gimbura hortan preso, horrara, nahiko zuenean, sartuko baitzen, hatzemanen baitzuen eta beretuko; edo izaitekotz leihoetan joren zuen biziki berant bazetorreanean usu egiten zuen bezala; horrela, bederen, Odette-ek hartuko zuen jakina zuela, argia ikusia zuela eta solasaldia entzuna, eta Zuanek, ares-tian itxuratzen zuelarik bertzearekin haren lilluramenez irri egiten, orai, hek zituen ikusten, bere hutsean segurrean, ooren buruan hark bairatuak hemendik ontsa urrun uste zutenean eta jadanik bazakielarik, hark, leihoetan joren zuela. Eta behar bada, ordu hartan abantzu gozagarriki sendi zuena, duda baten eta oinaze baten ez-titzetik bertzelako zerbait zen: adimeneko at-segin bat. Baldin, amaratua zenetik, gauzek berriz hartua bazuten harendako lehenago edireiten zauen balio gozagarritik zerbait, baina bakarrik Odette-ren orhoitzapenez argituak ziren unetan, orai, bekaizkeriak Zuanen gaztaro ikasteari emaneko bertze dohain bat zuen berphizten, egiaren maitasun amorratua, baina, hura ere, beraren eta maite zuenaren artean jarria, argia haren ganik baizik etzadukana, osoki norberaren egia, gai bakarretako, balio ezin estimatukoa eta edertasun abantzu abantail-nahi gabekoa, Odette-ren egintzak zituena, haren ezagutzak, xedeak, haren iragana. Bere biziko bertze edozein ordutan, jende baten egintza ttipi eta egun orotako jestuak beti bali-iorik gabeak idurituak zizazkon Zuani: erran-merranez salatzen baldin ba-zizakon, ezteusetako hartzen zuen, eta, entzuten zuen bitartean, etzuen hari bere oharpen arruntena baizik emaiten; bere burua bierartekoenean sendi zuen orduetarik bat zen. Baina maitasunaren arotaldi bitxi hortan, norbe-reak zerbait hain barnatu hartzen du nun, Zuanek emazte baten egintza den ttipienendako bere baitan atzartzen sendi zuen jakin-nahi hori, lehenago Ixtorioarendako ukana zuena baitzen. Eta orai arteo ahalgetua zuen guzia, leiho baten aitzinean barrandan egoitea, nor-k daki? behar bada bihar berean trebeki axolarik etzutenen mintza-araztea, diruz sehien erosteia, etzizakon gehiago iduritzen, hala nola idazki batzuen izkirioaren argitzea, lekukota-sunen erkidatzea eta orhoitzeko eraikuntzen aztartzea, jakitatezko ikerraldi bateko bidea bezala baizik, adimeneko balio zinezkoa bazutenak eta egiaren bilatzeko egokiak.

Leihoetan joiterakoan, ephe batez ahalgetu zen aieruak ukanak zituela Odette-ek jakinen zuela gogoan, berriz itzulia zela, karrika aitzinean goaitan egona. Ainitzetan errana zaukon bekaiztiaz zuen higuntasuna, barrandan egoiten ziren maitariez. Egitera zoana ontsa moldegaitza zen, eta hemendik goiti Odette-ek hastiatuko zuen, aldiz ordu huntan oraino, joa etzueno, behar bada, enganatzen zuen batean, maite zuen. Zenbat zorion gertakizun, egintzara heltzea horrela sakrifikatzen zauenak berehalako atsegin baten ukaitez ezin egonean! Baina egiaren jakiteko nahia azkarrago zen eta nobleagoa iduritu zizakon. Zuzen-zuzenean haien ezagutzeko bizia emanen zuen gertaldietako egia zer zen argiz marratu leiho horren gibelean zela bazakien, hala nola eskuizkiribu balios hetarik bateko estali urrez marrazki-tuaren azpian, ikhertzen dituen jakintsuna ezpaitaiteke haien ederlan aberatasaz hunkia izan gabe egon. Atsegin bizi bat sendi zuen suhartzen zuen egiaren ezagutzean, gai arinki argi, hain beroaz eta ederraz egina zen ale bakar, iragankor eta balios hortan. Eta gero haien gainean bere baitan sendi zuen abantaila - hainbat senditzeko beharretan zen abantaila - , gutiago jakitea zen behar bada, bazakiela haier erakustea baino. Zango punttetan goititu zen. Jo zuen. Etzuten entzuna, azkarrago jo zuen, solasaldia gelditu zen. Gizon mintzo batek ihardetsi zuen, bilatu baitzuen ezagutzen zituen Odette-ren adixkidetarik zeinena izan zaitekeen:

- Nor da hor?

Ezagutzen zuela etzen segur. Aldi bat jo zuen oraino. Berina ideki zen, gero leihoak. Orai, gibelera egiteko biderik etzen eta, guzia jakinen zue-naz geroz, gehiegi zorigaitzean, bekaizti eta jakin-nahia ez iduritzeko, doinu axolagabe alai batekin oihu eginez gelditu zen:

- Etzaitela desarraña, hortik banindoan, argia ikusi dut, ez ontsatua etzinenez jakin nahi ukan.

So egin zuen. Haren aitzinean, leihoan baziren bi jaun zahar, batek argia eskuan, eta orduan, gambara ikusi zuen, gambara ez ezagun bat. Ohitua baitzen, Odette-ren etxera biziki berant jiten zenean, haren leihoaren ezagutzen leiho oro berdinen artean argitua zen bakarra zelakotz, huts egina zuen eta auzoko etxearena zen ondoko leihoan joa. Desenkusatuz urrundu zen eta etxera sartu, zuen jakin-nahiak maitasuna oso utzirik zorionean eta,

hain luzaz Odette-ren aldera halako axolagabe bat erakutsi ondoan, ezpaitzaukon emana, bekaizkeriaz, sobera maite zuelako phorogua, ezen horrek, bi maitarien artean, ukaiten duena aski maitatetik betikotz libroan uzten du.

Nahigabe hori etzaukon aipatu, berak ere etzuen gehiago buruan. Baina artean gogoko olde bat heldu zen ohartua etzizakon orhoitzapenarekin batzera, joiten zuen, aitzinago sarr-arazten, eta Zuanek oinaze bapateko eta barnatu bat senditua zuen. Gorputzeko oinaze bat izana baliz bezala, Zuanen gogamenek etzezaketen ttipi-araz; baina gorputzeko oinazearen gainean bederen, gogametik berex delakotz, gogoia gelditu daiteke, ttipitua dela ohar, artean ethendua dela. Baina oinaze hura, gogoak, berriz orhoitzean bakarrik, berregiten zuen. Gogoan ez ukan nahia, hartaz gogatzera zen oraino, oraino oinazkatua izaitea. Eta, adixkide batzuekin solasean, mina ahazten zuenean, erraiten zaukon hitz batek bapatez itxuraldatzen zuen, hala nola malestruk batek artharik gabe alderdi minberatua hunki daukon zauritu bat. Odette uzten zuenean, zorionean zen, bakean sendi, hark ukanak zituen irriñoiez orhoitzen, bertze holakoaz eta halakoaz mintzo zenean trufariez eta harendako xamurrez, gurtzeko bere haxetik bazterrera emana zuen buruaren phizuaz, abantzu nahigabean, Zuanen ezpainetara erortzera uzteko, lehenbiziko aldia karrosan egin zuen bezala, haren besoetan zelarik emanak zauzkon behako hil-urranduekin, buru gurtua haren soingainera hozperatuki tinkatzen zuen batean.

Baina berehala bekaizkeria, maitasunaren itzala baliz bezala, arratsean berean igorria zaukon irriño berriaz - baina orai kontra emana, Zuanek trufatzen zenaz eta bertze baten alderako amodioaz betetzen - osatzen zen, buru gurtze hortaz, baina bertze ezpain batzuetara aurdikiatz, eta, orai bertze bati emanak, harendako ukanak zituen maitasunezko seinale guziez. Eta haren etxetik eremaiten zituen atseginezko orhoitzapenak oro, bertze hainbertze ekhai bezala ziren, barne aphaintzale batek erakusten daukitzun «langai» hek bezalakoak, Zuan uzten zutela bertze batzuekin ukan zitzazkeen egonara sutsu ala aldixartzeratuez ideia baten moldatzen. Hala nola nun harekin hartzen zuen atsegin bakoitzaz, hark asmatzen zuen phereku bakoitzaz eta hari ezitasunaren erraiteko arinkeria ukan zuenaz, aurkitzen zaukon garazia bakoitzaz dolutzerano baitzoan, ephe bat berantago, zuen oinazea tresna berri batzuekin azkartuko zutela bazakielakotz.

Hau oraino bortitzagotua zizakon ustegabetarik, zuela zenbait egun, eta lehen aldikotz Odette-ren begietan hatzemana zuen so labur baten orhoitzapena itzultzen zizakonean. Auhal-ondo zen, Verdurin-darren etxean. Ala Forcheville-ek, Saniette bere suhia etzela haien baitan fagoretan sendituz, trufagai bezala hartu nahi ukanik berak haren bizkar dirdiratu nahi ukana baitzuen; ala hunek erran berria zaukon hitz errebes batez sumindua izanik, nahiz han zirenak zertaz aieru damugarria ukan zezakeen ohartuak ere izan gabe, eta maltzurkeriak batere gabe erraiten zuenaren nahigabe osoan; ala, azkenik, zenbait dembora baitzuen sobera ontsa ezagutzen zuen, eta haren han izaiteaz beraz jenatua sendi ez izaiteko beratzegia zela bazakien norbaiten etxetik igorr-arazteko aldi bat bilatzen zuela, Forcheville-ek Saniette-ren elhe errebes hari ihardetsi zuen hainbertzetaranoko abretasunarekin, haren laidoztatzen hasiz, bertzearen othoitzez, bihotzminaz, izialduraz indar hartuz, oihutan ari zen arau, nun dohakabea, Verdurin Andereari egon behar zuenez eskatu ondoan, erantzunik ukan gabean, joana baitzen ahopiatuz, nigarra begietan. Atheraldi hortan Odette sorgor egona zen, baina athea Saniette-ren ondotik hetsia izan zenean, begitartearen ohiko itxura, hala erraiteko, mail andana batez jauts-arazten zuela, Forcheville-rekin, aphaltasunez, hein berean izaiteko, begi-ñiñikak dirdiran ezarriak zituen hark ukana zuen auzartiaz goresmenezko irriño azpikari batekin, eta jasan zuenarendako erkaitezkoarekin. Gaizkidetasunezko behako bat igorria zaukon, haina ontsa erran nahi zuena: «Horra garbitaldi bat, edo jeus eztakit. Ikusi duzua haren itxura ahalgetua? nigarrez ari zen», nun Forcheville-ek, begiez irriño hori batu zuenean, oraino berotua zen sumindura zinezkotik edo alegiazkotik bapatean berebaitaturik, irriño bat egin baitzuen eta ihardetsi:

- Maitagarri izaitea aski zuen, hemen izanen zen oraino, zehaldi on bat baliagarri izan daiteke adin orotan.

Zuan arratsalderditan ikustaldi baten egitera jalgia zen egun batez, Odette-ren etxean sartzeko ideia ukan zuen behin ere joaiten etzen ordu hortan, baina baitzakien beti etxean zela etzanaldiaren egiten eta theko ordu aitzinean eskutitz izkiriatzen, eta atsegin ukanen baitzuen desarriñatu gabe apur bat haren ikusten. Etxezainak erran zaukon uste zuenaz hor zela; jo zuen, harrabots zerbait etzuten zuela uste ukan, norbait ibilki, baina etzuten

ideki. Antsiatua, haserretua, hotelaren bertze aldeak hara bazeman karrika ttipira joan zen, Odette-ren gambarako leiho aitzinean jarri; erridauek ikustea debekatzen zaukoten, berinetan jo zuen, hel egin; nehork etzuen ideki. Auzo batzu hari so zaudela ikusi zuen. Abiatu zen, gogoari emanaz, orenen buruan, urrats batzu entzuten zituela uste ukaitean huts egina zuela behar bada. Oren bat berantago, berriz ethorri zen. Aurkitu zuen; erran zaukon arestian jo zuenean etxean zela, baina lo; xilintxak atzarr-arazia zuen, Zuan zela asmatua, haren ondotik laster egina, baina joana zen. Berinetan joiten entzuna zuen bada. Erran hortan Zuanek berehala ezagutu zuen hatzemanak diren gezurtariak asmatzen duten egintza gezurrezkoan sarr-arazteaz konso-latzen diren egiazko egintza baten zatetarik bat, ustez eta hortan Egriari berea emaiten duten eta harekin duen iduria gordetzen. Eiki, Odette-ek egin berria zuen zerbait agertu nahi etzuenean, bere golkoan ontsa gordetzen zuen. Baina gezurra erran nahi zaukonaren aitzinean gertatzen zeneko, nahasmen batek hartzen zuen, ideia guziak galtzen zituen, asmatzeko, arrazoinkatzeko ahalak ere, etzuen bere buruan hutsa baizik aurkitzen; alta zerbait erran behar zen, eta hain zuzen gorde nahi zuena menean edireiten zuen eta, egi izanez, hor gelditua zen gauza bakarra. Hartarik zati ttipi bat berexten zuen, bere hartan baliorik gabea, bere baitan baziola orenen buruan hori hobe zela xehetasun ezin egiaztatu bat zenaz geroz, gerrurrezko baten lanjer berak etzituena. «Hori bederen, zion bere baitan, egi da, hori bederen irabazi da, xehetasunak galdegin dezazke, egi dela ezagunen du, enau bederen horrek salatuko.» Hutsean zen, horrek zuen salatzen, etzen ohartzen egiazko xehetasun horrek izkina batzu bazituela hetarik berexia zuen egiazko egintzarekin oha etzaitzkeenak eta, zein ere izan zaiten haien artean ezarriko zituen xehetasun asmatuak, gaiaren soberakinetik eta beteak etziren hutsetarik beti agertuko zutela etzela horien artetik jiten. «Xilintzaren joiten entzuna ninduela aithortzen du, gero athearen, eta ni nintzala uste ukana zuela, ene ikusteko gura bazuela, zion bere baitan Zuanek. Baina hori etzuela idek-araziarekin ezta akomeatzen.»

Baina etzuen arrazoingabe hortaz oharr-arazi, uste baitzuen Odette-ek, bere gain utzirik, egiaren seinale ahul bat izanen zen gezur zenbait erranen zuela behar bada; mintzo zen; etzuen mozten, erraiten zauzkon hitz horiek

deboziona amikatu eta mingarri batekin biltzen zituen, sendi baitzuen ere (hain zuzen mintzo zizakon batean haien giblean gordetzen zuelakotz) nahasiki atxikitzen zutela, haren itxura dudazkoa marrazkitzen, oihal sakratuak bezala, hartarik ehoiz gezur horiek baizik, hatz ezin irakurri eta jainkotarrak, ukanen etzituen gauza ezin gehiago balios eta ondikotz! ezin aurkitu horren hatza: - hirur orenetan Zuan ethorria zenean zer ari zen -, ehoiz ezpaitzuen hartarik gezur horietaz bertzerik ukanen, herexa jainkotar ezin irakurriak, eta estimatu gabeen beha zagokoa izaite horren orhoitzapen gordatzalean, baina emanen etzaukonean baizik ezpaitzen gehiago bizi. Artetan jelosten zen bada Odette-ren egunorotako egintzak etzirela biziki-biziki ohargarriak eta bertze gizon batzuekin ukan zezazkeen adixkidantzek etzemate bere baitarik, orotako molde batean eta gogatzten duen izaite orendako, goibeltasun gaizkorrik, eta bereaz egiteko sukarra eman dezakeenik. Zuanek gogoan hartzen zuen orduan oharpen hori, goibeltasun hori, etzituera bere baitan baizik, eritasun bat bezala, eta, hau sendatua izanen zenean, Odette-ren egintzak, emaiten ahalko zituen musuak, bertze hainbertze emazterenak bezala, lanjerrik gabeak bilakatuko zirela. Baina orai haietara bazeman jakin-nahi mingarriak arrazoina etzezan Zuanen beraren baitan baizik ukan, hori etzen jakin-nahi horrek balioa bazuela eta gozaldi emaiteko ahal den guziaren egin behar ukaitea arrazoingabea zela ediren-araz zezokeena.

Zuan helden ari baitzen filosofia jadanik hartan gaztarokoa ezten adin batera - aro hartakoak lagundurik, Zuan hartan ainitz bizi izana zen mundukoak, han adimenduna dela oro dudan emaiten den neurrian eta egiazkorik eta segurrik eztela bakoitzaren gostuak baizik onhartzen zen Laumes-ko prinzesaren lagunkideriakoak - , filosofia gauzako bat, abantzu medikuntzako, bere nahikunden gaiak agertzera utzi orde, jadanik iraganak diren urtetarik, bere baitan bereziak eta betierekoak bezala har ahal dezazketen ohidurez, gutiziez egin sare geldi baten moldatzera entseatzen diren gizon batzuenak, eta, deliberatuki, lehenik gogo emanen baitute hartzen duten bizi motak satifa ahal ditzan. Zuani zuhur iduritzen zizakon Odette-ek zer egina zuen ez jakitean sendi zuen oinazeari bizian bere lekuaren uztea, aro heze batek bere negalaren handitzeari bezain ontsa; diru khonduetan aitzinetik behar zen guziaren baztertzea, Odette-ek egunak iragaiten zituen mol-

deaz, hek ukan gabe zorigaitzean sendituko zen xehetasun batzuen ukaiteko, hetarik atsegin ukanen zuela bazakien bertze gostu batzuetarako begiratzen zuen bezain ontsa, amoros bilakatu aitzinean bederen, hala nola bildumena eta janari onarena.

Odette-ri etxera joaiteko goraintzia erran nahi ukan zuenean, hark oraino egon zadin eskatu zaukon eta bizitasunekin atxiki zuen ere, besotik hartuz, jalgitzeko athearen idekitzera zoan orduan. Baina etzen hortaz ohartu, ezen solalsaldi bat betetzen duten jestu, hitz, gertakari ttipien artean, ezin huts egina da, hetan oharpena atzartzen ahal daukun jeusi ohartu gabe, gure aieruek han edo hemen bilatzen duten egia gordetzen dutenen ondotik iragan gaiten, eta aldiz azpian ezer ezten batzuetan geldi. Odette-ek errepi-katzen zaukon beti: «Zer zorigaitza hi, nehoiz ere ehizalarik arratsaldetan jiten, gertatzen zaikan aldi bakar bateko, ehautala ikusi.» Ontsa b azakien ontsa Odette etzela hartaz aski amoratua ikustaldi hori hutsegini dolu hoin biziaren ukaiteko, baina, ona baitzen eta Zuani atsegin emaiteko gutizian, ainitzetan ere hari kontra eginik trixte, ezin gehiago zuzen iduritu zizakon aldi hartan ere hala izan zadin harekin oren baten iragaiteko atseginaz, handia zenaz, ez harendako baina Zuanendako, gabeturik. Gauza aski guti larria zen alta Odette hartan jarraikitzen zen itxura oinazkatuaz azkenean ustegabetua ez izaiteko. Orhoit-arazten zauzkon, ohian aurkitzen zuen baino ere gehiago, «la Primavera» egin duen margolariaren emazten begitarteak. Ordu hartan bazuen oinaze phizuegiaren azpian erortzera doala iduri duen haien begitarte aurdiki bihotz-erdiratua, Jesus haurra xoilki granada batekin jostatzen uzten dutenean, edo Moisi so egiten aspil batera ur itxurtzen ari. Aldi batez jadanik horrelako trixtezia ikusia zaukon, baina noiz etzakien. Eta bapatez, orhoitu zen: Odette-ek Verdurin Andereari gezurra erran zaukonean, eri zelako estakuru eta egiazki Zuanekin egoiteko jin etzen auhari hartako biharamunean. Segurki, emaztetan onestena izana baliz ere etzuen gezur hoin maleziagabeaz urrikirik ukan ahalko. Baina Odette-ek ohiki erraiten zituenak gutiago halakoak ziren eta, batzuekin ala bertzekin, neke izigarriak emanen ahalko zauzkoten aurkitze batzuen trabatzeko baliatzen ziren. Gezurrean zenean, beraz, beldurrak hartua, bere buruaren zaintzeko guti harmatua sendi, ondorioaz dudan, nigar egiteko gura bazuen, akhiduraz, lo

egin eztuen haur batek bezala. Bazakien ere haren gezurrak, erraiten zaukon gizona, eta gezurra gaizki erranez behar bada haren menera eroriko zena, ohian larriki damutzen zuela. Orduan haren aitzinean sendi zen aldi berean xume 'ta ogendun. Eta gezur baliorik gabeko eta mundutar bat erran behar zuenean, sendipen eta orhoitzapen elgarretaratzeaz, bazituen buru akhidura bateko ez ontsa eta gaizki egin baten urrikia.

Zein gezur aphaltariaren erraiten ari zizakon Zuani, bere burua egitera bortxatzen zuen indarraren azpian erortzera zoala eta garazia eskatzen zuela iduri zuen behako oinazkatu horren, mintzo pleinudun horren ukaiteko? Gogoan ukan zuen etzizakola bakarrik arratsaldeko gertakariko egiares gordetzera indarrez ari, baina oraikoagoa zen zerbaiten, behar bada ez oraino gertatua eta hurbil-hurbila, eta Zuan egia hortaz argi zezakeenaren. Ordu hartan berean xilintxa ukaldi bat entzun zuen. Odette etzen gehiago elhekatzetik gelditu, baina haren hitzak etziren auhenkatze bat baizik: Zuan arratsaldean ez ikusirik zuen urrikia, hari ez idekia ukanik, zinezko etsipen bat bailakaturia zen.

Sartzeko athea entzuen zen berriz hesten eta karrosa baten harra-botsa, Odette atheraia zela errana zizakon jende bat - Zuanek araez aurkitu behar etzuen - berriz joaiten baliz bezala. Orduan gogoari emanaz ohikoa etzuen oren batean ethorritz bakarrik, jakin zezan hark nahi etzuen hainbertze gauzen makurtzen aurkitua zela, kuraia galtzeko sendimendu bat ukan zuen, abantzu hersturazko bat. Baina, Odette maite baitzuen, bere gogamen guzieren harengana itzultzen ohitua baitzen, bere buruaz ukan ahal zezakeen urrikia, harendako zuen senditu, eta murmurikatu: «Gaixo maitea!» Utzi zue-
nean, mahi gainean ziren eskutitz batzu hartu zituen eta Odette-ek postan ezar zituan eskatu zaukon. Ereman zituen eta, etxera sartu ondoan, berekin atxikiak zituela ohartu. Postarano berriz itzuli zen, sakelatik athera zituen eta untzira egotzi baino lehen helbidetara so egin. Oro hornitzale batzue-
ndako ziren, bat salbu Forcheville-rendako. Eskuan zadukan. Bazion bere baitan: «Barnean dena ikus baneza, banakike nola deitzen duen, nola mintzo zakon, bien artean zerbait badenez. Behar bada ere ez so egingez, Odette-ren aldera pollit etzen zerbait badagit, molde bakarria baita harendako gaitzerranezkoa den aieru batetik neure buruaren liberatzeko, zer nahi den ere haren oinaz-

katzeko egina denetik eta jeusek suntsi elezakeenetik, eskutitza behin galduz geroz.»

Postatik landa etxera sartu zen, baina azken eskutitza berekin atxikia zuen. Ezkargi bat phiztu zuen eta idekitzera menturatua etzen estalgia hartara hurbildu. Ezer etzuen lehenik irakurri ahal ukan, baina estalgia mehea zen, eta barnean zuen karta gogorrari tinkan atxik-araziz, haren argalean barna azken hitzak irakurri ahal zituen. Bururatzeko erranaldi biziki hotz bat zen. Baldin, Forcheville-ri bidali eskutitz bat hark ikusi orde, Zuani igorri eskutitz bat irakurria zuena Forcheville izan baliz, hitz batzu irakurri ahalko zituen bertzela xamurrak! Hura baino handiago zen estalgi-pean jantzan ari zen karta geldirik atxiki zuen, behatzarekin lerra-araziz, lerro guziak aldika doblatua etzen estalgiko gune azpira ekharri, bakarra baitzen hartan barna irakur zaitekeena.

Horrela ere etzezakeen ongi irakur. Jeus etzuen bertzela horrek egiten, ezen ikusirik aski bazuen baliorik gabeko gertakari ttipi bat baizik etzela ohartzeko, eta etzela batere maitasunezko gauzez ari; Odette-ren osaba bati zioakon zerbait zen. Zuanek irakurria zuen bada eskutitzaren hastean: «arrazoin ukan dut», baina Odette-ek zeren egiteko arrazoin ukana zuen etzuen ontsa hartzen, noiz ere, bapatez, lehenik irakurri ahala etzuen hitz bat agertu baitzen eta lerroalde osoaren erran-nahia argitu: «Idekiz arrazoin ukan dut, osaba zen.» Idekiz! beraz Forcheville zen hor arestian Zuanek joa zuenean eta joan-arazia zuen, hortik zen entzuna zuen harrabotsa.

Orduan eskutitz guzia irakurri zuen; bururatzean Odette desenkusetzen zen harekin ere fazoinik hartu gabe egina ukanik eta zigarretak etxean ahatziak zituela erraiten zaukon, Zuani izkiriaturia zaukon erranaldi bera ethorri zen lehenbiziko aldietarik batez. Baina Zuanendako gaineratua zuen: «bihotza ahatzia ahal ukan bazinu, etzinitutan berriz hartzera utziko». Forcheville-rendako horrelakorik jeus ez: haien arteko ixtorio zerbait entzutera utz lezakeen aierurik batere. Egia erran, bertzela ere Forcheville hortan guzian hura baino gehiago enganatua zen, Odette-ek osaba zela sinets-arazteko izkiri-riatzen zaukonaz geroz. Oro har, hura zen, Zuan, balioa eratxikitzen zaukon gizona eta harendako bertzea igorria zuena. Bizkitartean, jeusik ezpaldin bazen Forcheville eta Odette-ren artean, zergatik ez berehala ideki, zergatik

erran: «Idekiz ontsa egin dut, osaba zen»? gazki zenik jeus ezpazuen orduan egiten, Forcheville-ek nola argi zezakeen ere etzuela ideki ahal ukanen? Zuan hor zagon, lastimatua, nahasia eta bizkitartean zorionean, Odette-ek beldurrik gabe emana zaukon eskutitz horren aitzinean, hain zen osoa Zuanen jendetasunean zuen konfientzia, baina eskutitzaren estalgian zehar agertzen baitzizakon, behien ere ezagutzen ahalko zuela uste ukanen etzuen gertakari ttipi baten segetuarekin, Odette-ren bizitik apur bat, hala nola ezezagunean zuzen idekia den zati hertsu argitu bat. Gero bekaizti izaitez alegezaten zen, bekaiztasun horrek bere baitako bizi bat ukan balu bezala, berkoia, haziko zuen orotaz gose amikatua, bere kaltetan izanik ere. Alhatzekoa bazuen orai eta Zuan egun oroz khexatzen ahalko zen Odette-ek bortz orenetan ukanak zituen ikustaldi guzietan, ordu hartan Forcheville nun izana zatekeen jakitearen bilatzeaz. Ezen Zuanen maitasunak bazudukan beti Odette-ek egunak zertan iragaiten zituen ez jakiteak, eta aldi berean asmamenaz ez jakinaren ordaintzeko adimenean zuen auherrak hastapenetik emana zaukoten izantza bera. Lehenik etzen Odette-ren bizi guziaz bekaizti izan, baina hetan gertaldi batek, behar bada gaizki hartuak, Odette-ek bairatu ahal ukan zuelako ustera ekharri zuen orduz bakarrik. Bekaizkeria, lotzeko adar bat, gero biga, gero hirur igortzen dituen olagarro bat bezala, indarrekin lotu zen arratsaldeko bortz orenetako horri, gero bertze bati, gero bertze bati ere. Baina Zuanek bere oinazen asmatzen etzakien. Etziren kampotik jina zizakon oinaze bati iraupena, orhoitzapena baizik.

Baina hor gauza guzietan emaiten zaukoten. Odette Forcheville-en ganik urrundu nahi ukan zuen, zenbait egunez Hegoaldera ereman. Baina uste zuen hotelean ziren gizon guzietan nahi zutela eta hark ere hek nahi. Hor-takotz Zuanek lehenago bidaian jende berriak bilatzen zituenean, jendetze ainitzak, basatua ikusten zen, gizonen kompaniari ihes egiten, horrek bortizki zauritua ukana balu bezala. Eta nolaz etzen gizonen hastiatzale izanen, gizon orotan Odette-rendako maitale izan zaitezkeen bat bazakusanean? Eta bekaizkeriak horrela, lehenbizian Odette-rendako ukana zuen gustu atseginezko airoak ere baino gehiago, Zuanen jitea uhertzen zuen eta, bertzen begietara, jite hori hetarik erakustera emaiten zen ezagugarri agerien itxura osoki aldatzen zen.

Odette-ek Forcheville-ri bidali eskutitza irakurria zuen egunetik ilabete bat berantago, Zuan joan zen Verdurin-darrek Oihanean emaiten zuten auhari batera. Abiatzeko orduan, ohartu zen Verdurin Anderea eta gomitu batzu gordeka mintzo zirela eta hartu zuen ustez pianixtari orhoit-arazten zizakola biharamunean Chatou-n bestaldi batera ethor zadin; hura bada, Zuan, etzen gomitatua.

Verdurin-darrak etziren erdi-ahapetik baizik mintzatuak eta hitz nahasietan, baina margolariak, agian gogo bertzee nunbait, egin zuen:

- Argirik batere elizateke behar eta *Ilargi xuri*-ko zonata jo dezan ilunbean, gauzen hobeki ikusteko argitan.

Verdurin Andereak, Zuan bi urratsetan zela ikustean, hartu zuen mintzatzeko denaren ixil-arazteko gutizia eta entzuten duenaren begietan ogengabeko aire baten atxikitzeak soaren ezteustasunean ezeztatzen den itxura hura, gaizkidearekin adimenezko kheinua amarrugabearen irriñoen azpian gordetzen duena eta, ondarrean, behargabe batez ohartzen diren guziena baita, ordu berean agertzerak bademana, egin dutener ezpada, bederen jasaiten duenari. Odette-ek ukan zuen bapatez biziko neke lehegarriar ihardokitzetik gelditzen den etsitu baten itxura; eta Zuan ari zen antsiarekin, ostatu hura utzi ondoan, Odette-rekin itzultzean, argipen batzu galdeginen ahal zauzkon, biharamunean *Chatou*-ra joan etzadin edo gomita-araz zezan ukanen zuen ordutik berexeten zuten minuten khondatzen, eta sendi zuen herstura haren besoetan eztitu ahalko zuenen. Azkenean karrosak eskatu ziren. Verdurin Andereak erran zaukon Zuani:

- Ikus arteo beraz, eztea hala?» orai arteo beti egina zuen bezala etzaukola erraiten «Bihar arteo Chatou-n, etzi ene etxean», Zuanek gogoan har etzezan soaren maitagarritasunaz eta irriñoaren tinkiaz entseatzu.

Verdurin Jaun-Anderek Forcheville berekin igan-arazi zuten, Zuanen karrosa haienaren gibelean jarria zen, berean Odette-ren igan-arazteko hek abia aiduru baitzagon.

- Odette, eremaiten zaitugu, erran zuen Verdurin Andereak, leku ttipi bat badugu zuretako Forcheville-ko Jaunaren ondoan.

- Ba Anderea, ihardetsi zuen Odette-ek.

- Nola, baina eremaiten zinitutala uste nuen, egin zuen Zuanek,

behar ziren hitzak gordekeriarik gabe erranez, karrosako athexka idekia baitzen, zekundak khondatuak, eta zen izanaran hura gabe etzaitkeen sar.

- Baina Verdurin Andereak galdegina nau.

- Hea, bakarrik itzul ahal zaiteke, aski aldiz utzia dautzugu, erran zuen Verdurin Andereak.

- Baina gauza handi bat erran behar naukon Andereari.

- He bada! izkiriaturko daukozu.

- Goraintzi, erran zaukon Odette-k, eskua luzatuz.

Zuan irriño baten egitera entseatu zen, baina lurrera aurdikia iduri zuen.

- Zuan orai gurekin hartzera ausartzen den egin-moldeak ikusi dituzua? erran zaukon Verdurin Andereak senarrari etxeratuak izan zirenean. Janen ninduela uste ukan dut, Odette gurekin eremaiten ginuelakotz. Jendetasun gabe batekoa da, zinez! Orduan, erran beza berehala hitz-hartzeko etxe bat atxikitzen dugula! Odette-ek horrelako arak jasan dezazkeela eztut gogoan hartzen. Iduri du badiola: enea zira. Gogoan zer dutan erranen daukot Odette-ri, hartuko duela esperatzen dut.

Eta ephe bat berantago gaineratu zuen, haserrean:

- Ez, baina ikusazu, ihizi zikina! ohargabeen bazerabiltzala, eta behar bada bere buruaren xuritzeko behar berari jarraikiz - Combray-n Françoise bezala oilaskoak hil nahi etzuenean - , hiltzera doan ihizi lanjergabeko baten azken jauziek lehertu duen baserritar bati ekhentzen dauzkon hitz berak.

Eta Verdurin Anderearen karrosa joana izan zenean eta Zuanena aitzinatu, karrosazainak hari behatuz eskatu zaukon etzenez eri edo zorigaitz zerbait gertatua zenez.

Zuanek igorri zuen, oinez nahi zuen ibili, eta hala zen, Oihanean gaindi, sartu. Bera mintzo zen, gora-gora, eta orai arteo multxo ttipiaren goxatasunez xeheki mintzo zenean eta Verdurin-darren gogo handia gorai-phatzen zuenean hartua zuen doinu apur bat alegiazkoarekin. Baina, Odette-ren elheak, irriñoak eta musuak ezti aurkituak zituen bezain hastiagarri bilakatzen zizazkon molde berean, hartarik bertze batzuer igorriak zirenean, Verdurin-darren saloinak, arestian oraino jostagarri iduritzen zizakonak, ederlandarendako zinezko gustu bat zarionak eta ere halako moraleko noble-tasun bat, orai han Odette-ek bertze norbait baitzuen aurkituko, nahi nola maitatuko, agerr-arazten zauzkon bere irrigarritasuna, zozoa eta itsuskeria.

Chatou-n biharamuneko auhal-ondoa nardarekin asmatzen zuen. «Lehenik Chatou-ra joateko ideia hori! Saldegia hetsia baizik ez tuten oihal saltzale batzu bezala! Zinez jende horiek burjestasunean ezin goragoak dira, egiazko bizirik eztukete, Labiche-ren theatrotik datorzke!»

Cottard-tarrak han izanen dira, behar bada Brichot. «Aski bitxiki irigarri eztea, batzu bertzen gainean bizi diren jendexka horien bizia, galduak uste bailukete, alafe, ezpalire bihar oro *Chatou*-n elgarretaritzen!» Ondikotz! han izanen zen ere margolaria, «ezkontza egitea» hain maite zuen margolaria, Forcheville bere landegira Odette-rekin jitera gomitatuko zuena. Odette ikusten zuen baserritaldi hortako jantzi aphainegi bat soinean, «ezen hain da jendetierra eta oroz gainetik, gaixo maitea, hain da xoxoa!»

Entzuten zituen Verdurin Andereak auhal-ondoan erranen zituen irri-solasak, nor ere izan zadin jo-mugatako ukanen zuten aspergarria, beti jostatua zutenak, Odette ikusten zuelakotz berekin batean irriz, abantzu bere baitan. Orai sendi zuen behar bada hartaz zaukotela Odette-ri irri egin-araziko. «Zer alaitasun kharatsa! zion», ahoari nardazko errankortasun bat emanez hain azkarra, nun berak ere baitzuen ginarrietan ihakin horren sendimena athorra lephoaren kontra zintzurra gorritua ukaiterano. «Eta begitartea Jainkoaren idurira egina duen izaite batek irri egiteko gaia nola aurki dezake solas okaztagarri horietan? Sudur den gutieneko beratzak higundurik itzuri egin lezake horrelako alphorez gohainditzera ez uzteko. Ezin sinetsia da zinez gogoan ukaitea gizaki batek, ezkoa zintzoki eskainia daukon bera bezalako baten aldera irri egitera ausartuz, gogoan har eztezakeela bere burua den borondate hoberenarekin handik atheratzea ezina izanen den lohi batarano jauts-arazten duela. Elhe hoin zikinak zalapastan eta gaitzerranean ari diren phutzu zokoetarik sobera mila ‘ta mila metretan gorago bizi niz, Verdurin-tsa baten irri-solasez ziliportatua izaiteko, egin zuen, burua goitituz, soina gibelera burgoiki zutituz. Jainkoa lekuko, Odette hortik zintzoki athera nahi ukan dutala, eta aire noble ‘ta garbiago batera igan-arazi. Baina giza-pairamenak baditu bere mugak, eta enea ahitua da», egin zuen bere baitan, irrizurizko ingurumenetik Odette-ren jalgi-arazteko eginbide hori minuta zenbait baino lehenagokoa baliz bezala, eta irrizuri horiek gaia Zuan bera zutela behar bada eta haren ganik Odette-ren baztertzeko xedea gogoari emana zuenetik baizik hartua ezpalu bezala.

Ikusten zituen pianixta *Ilarguxuriko zonata*-ren joitera ari eta Verdurin Anderearen fazoinak Beethoven-ek haren zainer eginen zauen minaz izitzen: «Zozola! gezurtia! egin zuen, eta *Ederlana* maite duela uste!» Odetteri erranen zaukon, Forcheville-rendako trebeki hitz lausengari batzu adiarazi ondoan, hainbertze aldiz Zuanendako egina zuen bezala: «Lekuño bat eginen daukozu Forcheville-ko Jaunari zure sahetsean.» «Ilunbean! makaela, artekarisa!», hori zen ere ixilik egoitera, elgarrekin amets egitera, elgarri so egitera, eskuaren hartzera gomitatuko zituen musikari bazemon izena. Zerbait on aurkitzen zaukon, Platon-en, Bossuet-en eta erakaspen frantzes zahararren baitan ederlanen kontrako larderiari.

Oro har, Verdurin-darren etxean zeramaten bizia eta hain usu «egiazko bizia» deitua zuena, guzietako gaitzena iduritzen zizakon, eta haien multxo ttipia ingurunetan azkena. «Zinez, zion, gizarte mailetan den aphalena da, Dante-ren azken ingurua. Idazki ospeduna hartaz dela ezta dudarik bature. Ondarrean, munduko jendek, hetaz gaitzerran baitaiteke, baina hala ere gaixtagin lerro horietaz bertzerik baitira, bere zuhurtzia barnatua erakusten dute horien ezagutzea ez onhartuz, erhien puntta bera hetan ez zikindu nahiz! Zer asmu Saint-Germain bazter-hiriko *Noli me tangere* hortan!»

Bazen aspaldi Oihaneko bidexkak utziak zituela, etxera helduxea zen, noiz ere, bere oinazetik eta zintzotasun gabearen aldartetik - bere mintzoaren gezurrezko doinuek, soinu alegiazkoak, gero eta nasaikiago ixurtzen baitzaukoten horiek bazematen hordieria - ez oraino bere baitaratua, gauaren ixilean jarraitzen baitzuen oraino gora-gora erasten: «Munduko jendek bere hutsak badituzte nehork nik baino hobeki ezagutzen eztituenak, baina azkenean hala ere gauza batzu haiekin ezinak diren jendeak dira. Ezagutu dutan emazte aphain holakoa betegina izaitetik urrun zen, baina bazen hala ere haren baitan beraztasunezko zola bat, egitatetan leialtasun bat, falsukeria bateko gai, zer gerta ladin ere, eginen etzutenak, haren eta Verdurin-tsa bezalako mihitzar baten artean osinen uzteko aski baitira. Verdurin! zer izena! Ha! oso-osoan direla erran daiteke, bere motan eder-ederrak! Jainkoari esker, etzen ordu baizik desohore horrekin, satsukeria horiekin nahastekan egoitearen ez gehiago onhartzeko!»

Baina, duela guti oraino Verdurin-darrer emaiten zauezteen bertuteak ezpaitziren aski izanen, zinez ukanak balituzte ere, haren maitasuna

ezpalute fagoratu eta gerizatu, haren baitan haien gogo-handitasunaz beraz zen eta, bertze jende batzuen bitartez hedatua izanik ere, Odette-ren ganik baizik jiten ahal etzizakon horditasun haren phizteko, molde berean, orai Verdurin-darrer aurkitzen zauen gaiztasunak, egiazkoa izana baliz ere, etzuen, Odette ezpalute Forcheville-rekin eta hura gabe gomitatua, Zuanen suminduraren erotzeko eta haien «desohorearen» sala-arazteko ahala ukanen. Eta dudarik gabe Zuanen mintzoak harek berak baino argikiago ikusten zuen, etzituenean Verdurin-darren munduarendako higuntasunaz eta haiekilakoa bururatua ukaiteaz beteak ziren hitzak ahozkatu nahi, doinu falsu batekin ezpazen, eta, gogoan zuenaren baino lehen, haren haserrearen asetzeko hautatuak izan balire bezala. Gogoa alabaina, ahapaldi horietan ari zen bitartean, bera ohartu gabe, gai osoki ezperdin batez hartua zukeen, ezen, etxera heldu eta, doi-doia zuena athe handia berriz hetsia, bapatez bekokia jo zuen, eta, berriz idek-arazten zuela, jalgi baitzen mintzo aldi huntan jitezko batekin eginez: «Bihar Chatou-ko auharira gomitatua izaiteko bidea hatzemana dutala uste dut!» Baina etzatekeen bide ona, ezpaitzen gomitatua izan: Cottard medikuak, gertaldi larri batendako probinziara deitua izanik, ezpaitzitzen Verdurin-darrak zenbait egunez ikusiak eta ezpaitzen Chatou-ra joan ahal izana, erran zuen, auhari hortako biharamunean, haiekin mahian jartzean:

- Baina, eztugua Zuan Jauna ikusiko, gaur? Adixkide mina deitzen dena du...

- Uste dut bada ezetz! egin zuen Verdurin Andreak, Jainkoak begira gaitzala, aspergarria da, zozoa eta gaizki ikasia.

Hitz hortan Cottard agertu zen aldi berean ustegabetua eta obedienta, ordu arteo sinetsia zuen egiaren kontrako baten aitzinean bezala, baina argi eta garbiki ezin ukhatu baten; eta, itxura hunki eta beldurti bategan sudurra azietara behehituz, ihardetsi zuen bakarrik: «Ha! ha! ha! ha! ha!», bere golko zolarano ordenu oneko erretiran, noten zurubiaren luzara, mintzoaren doinueria guzia gibelka zeharkatuz. Eta Verdurin-darren etxean Zuan etzen gehiago aipatu.

Orduan Zuan eta Odette elgarretaratuak zituen saloin hura haien hitzartzendako traba bat izan zen. Elgar maite zuten lehenbiziko aroetan

bezala Odette-ek etzaukon orai erraiten: «Zer nahi den bihar arratsean elgar ikusiko dugu, auhari bat bada Verdurin-darren etxean», baina: «Bihar arratsean eztugu elgar ikusten ahalko, auhari bat bada Verdurin-darren etxean.» Edo Verdurin-darrek Opéra-Comique-ra ereman behar zuten *Une Nuit de Cléopâtre*-ren ikustera, eta Zuanek irakurtzen zuen hara joan etzadin eska zezonaren beldurra Odette-ren begietan, duela guti bere maitearen begitar-tean artetik musu eman gabe ezin egonen baitzizakon, eta orai sumintzen baitzuen. «Ezta bizkitartean haserrea, zion bere baitan, musika gorotzezko hortan xoriak bezala mokoaz emaitera joaiteko duen gutizia ikusiz sendi dutana. Griña da, ez segur enetako, baina harendako; griña, sei ilabete baino gehiago enekin hurbilik egun oroz bizi izan ondoan, ikusiz eztela aski bertzelakatu ahal izan berainik Victor Massé-ren baztertze! eta oroz gainetik ez heltzeko gogoan hartzera arrats batzu badirela hetan izaite jitez apur bat beratzen atsegin bati itzuri egiten jakin behar baitu, hori eskatua zaukonen. Jakin behar luke erraiten: «Eniz joanen», adimenduaren gatik ezpaziluz baizik, haren arimako balioa ihardetsiko duenetik neurtuko denaz geroz behin betiko.» Bere buruari sinets-arazirik alabaina Odette-ren izpirituko balioaz jujamendu aldekoago baten eman ahal ukaiteko zuela arrats hartan, Opéra-Comique-ra joaiteko orde, harekin egon zadin nahi, arrazoin bera zaukon Odette-ri emaiten, bere bururari bezain zintzotasun eskas neurrian, eta ere mail batez gehiagokoa, orduan bere alderako maitasunetik haren hartzeko gutiziari obeditzen baitzuen ere.

- Zin-zinez, erraiten zaukon, hura antzokira abiatu baino ephe zenbait aitzinean, athera etzadin eskatuz, nahi nukkeen guzia, neurekoia baninz, eza eman dezatanan lizateke, egiteko mila gauza baitituz gaur, eta nihaur artean hatzemana izanen bainiz eta ontsa aspertua, uste den guziaren kontra, ehizala joanen ihardesten badautan. Baina ene egitekoak, ene atseginak, ez-titun oro, hitaz gogatu behar dinat. Egun bat gerta daiteke, neure burua hire ganik behin betikotz urrundua ikusiz, ene erasiatzeko eskubidea ukanen baitun hi ez abisatua ukanik, maitasunak luzamenekin ihardokitzen eztauen jujamendu larde hetarik bat hitaz emanen nuela sendi nuen minuta baitezpadaoetan. Ikusan, *Une Nuit de Cléopâtre* (zer izenburua!) jeus eztun aldi huntan. Jakin behar dena hau dun: zinez izpirituko lerroan eta xoratzekoan ere azkena den izaite hori hizanez, atsegin bati ukho egiteko ahalik eztuen

izaite erdainagarria. Beraz, hori baldin bahiz, nolaz izanen hiz maitatua, ez-paldin bahiz jende bat ere, izaite berezi bat, ez betegina, baina bederen betegingarria? Molde gabeko ur bat hiz heldu zaukon maldaren arau dariona, orhoitzapen ez gogamenik gabeko arrain bat, bere urtegian biziko deno, egunean ehun aldiz buruaz jo eginen duena urarendako edukitzen jarraikiko duen berinerianen kontra. Hartzen duna hire ihardespentak ondoriotzat ukanen dinala, ez berehala hire maitatzetik geldituko nunala, erran gabe doan, baina gutiago gustagarri eginen hauela ene begietan, ehizala jende bat gogoan hartuko dinatanean, gauza ororen beherean hizala eta baten gainean jartzen eztakinala? Ageriki eskatu nahiagoko naunan *Une Nuit de Cléopâtre* utz hezan gauza baliorik gabeko bat bezala (izen okaztagarri horrekin ezpainen zikintzera bortzatzen naunanaz geroz) hala ere joanen ehizalako esperanzan. Baina, gogoan horren atxikitzena deliberatua izanez, hire ihardespentetik horrelako ondorioen atheratzera, hire abisatzea leial aurkitu dinat.

Bazen zenbait dembora Odette-ek bihotz-hunkidurazko eta ezpaian izaiteko seinale batzu bazematzala. Hitzaldi horren erran-nahia hartu eskasean, hartzen zuen bederen «larius» eta erasialdien edo othoiezko galden lerroan sar zaitekeela, gizonekin zuen ohidurak uzten baitzuen, hitzetako erran xehean gelditu gabe, amaratuak ezpalire etzituztela erranen ondorioztatzena, eta amaratuak zirenaz geroz, haier obeditzea debalde zela, haien ondoritik etzirela amorosago baizik izanen. Beraz Zuan jabaldura handienarekin entzunen zuen orena bazoala ikusi ezpalu eta, oraino mintzatzea ephe batez luzatzen balu, irriño xamur, hisitu eta nahasi batean erran zaukon bezala: «azkenean Hasteko musika huts eginen zuela!»

Bertze aldi batzuez erraiten zaukon orok baino gehiago haren maitatzetik utz-araziko zuena, gezur erraitetik ez gelditu nahi ukaitea zela. «Aphaintasunaren alde xoiletik ere, zion, eztuna bada hartzen heure ahal lilluragarritik zenbat dunan galtzen, gezur erraitera aphalduz? Aithor batez, zenbat huts ehezake barka-araz!» Baina debaldetan zauzkon Zuanek horrela gezurrik ez erraiteko zituen arrazoinak aitzinean ezartzen; gezurrean orotako sistema bat aurdiki ahalko zuten Odette-ren baitan; baina holakorik etzuen; azki zizakon bakarrik, egin zaukon zerbait Zuanek jakin etzezan nahi zuen aldi oroz, ez hari erraitea. Horrela gezurra harendako atherabide mota berezi bat zen; eta edo gezurraz baliatu edo egia aithortu behar zuenez deliberatzera

ekharr zezakeen gauza bakarra, arrazoin mota berezi bat zen ere: Zuaneke egia errana etzuela jakiteko zen zori guti edo aski handia.

Gorputzean, Odette-ek aldarte gaixto bat iragaiten ari zuen : loditzen ari zen; eta lehenago zituen xoragarri errankor minbera, behako ustegabetu ametsetakoak gaztaro lehenarekin joanak zizazkola iduri zuten. Hala nola nun Zuani hain maitagarri bilakatua baitzizakon, hala erraiteko, hain zuzen ontsa gutiago pollita aurkitzen zuen orduan. Luzaz beha egoiten zizakon, haren baitan ezaguna zuen xoragarriaren berriz ukaitera entseatzeko, eta etzuen aurkitzen. Baina kuxkuberri horren azpian, beti Odette zela bizi jakitea, beti nahikaria iheskor, azpikari, ezin hatzeman bera, Zuani aski zizakon haren biltzeko beti gar beraren ukaiten jarraitzeko. Eta gero zuela bi urteko argazki batzuer so egoiten zen, zein goxagarria izana zen orhoituz. Eta horrek harendako hoinbertze neke hartzetik aphur bat konsolatzen zuen.

Verdurin-darrek Saint-Germain-era zeramatenean, Chatou-ra, Meulan-era, ainitzetan, sasoin ederrez baldin bazen, eskaintzen zuten han, lekuan berean, etzaten egoitea eta biharamunean baizik ez itzultzea. Verdurin Andereak nahi zituen izaba Parisen gelditua zizakon pianixtaren arrangurak eztitu:

- Zutarik libratua izaiteaz loriatua izanen da. Eta nola griñatua lizateke, gurekin zirela badakienaz geroz; bertzela ere guzia neure gain hartzen dut.

Baina hortara heltzen ezpaldin bazen, Verdurin Jauna abiatzen zen, telegrafako bulego bat aurkitzen zuen edo mezulari bat, eta norbait abisatu behar zuten leialak nor ziren eskatzen zuen. Baina Odette-ek eskertzen zuen nehorendako mezurik etzuela erranez, Zuani errana baitzaukon alde bat guzien aitzinean hari mezu bat igorritz, bere burua irriskutan ezarriko zuela. Batzuetan egun andana batez zen ez hor izaiten, Verdurin-darrek eremaiten zuten Dreux-ko hil-hobien ikustera, edo Compiègne-ra, margolariaren aholkuz, oihanean iguzkiaren etzate batzuen mirestera, eta Pierrefonds-ko gaztelurano urruntzen ziren.

- Eraikuntza hamar urtez ikasia dutan ni gabe egiazko eraikuntza batzu ikus ahal lezazkeela gogoan ukaita, eta noiz nahi Beauvais edo Saint-Loup-de-Naud-ra jende lerro handieneko batzuen eremaitera othoiztua nizana gabe, harendako bakarrik egin nezakeelarik, eta horren orde badoala azken abrekin Louis-Philippe-ren eta Viollet-le-Duc-en huskinen mirestera!

Badidurit artixta izaite beharrik ezteela hortako eta, usna bereziki xorrotxik gabe ere, ezteela kakuntzi batzuen ikustera joaitea hautatzen gorotzen usainaren hurbilagotik hartzeko.

Baina Odette Dreux-era joana zenean edo Pierrefonds-era - ondikotz! hari joaiteko baimenik eman gabe, halabeharrez bezala, bere baitarik, horrek, zion, ondorio deitoragarri bat ukanen baitzuen - maitasunezko elharri xoragarrienean murgiltzen zen, burdinbidetako erakustegian, ikasten baitzauzkon harenganatzeko bideak, arratsaldean, arratsean, goiz huntan berean! Bidea? abantzu gehiago: baimena. Ezen azkenean erakustegia eta treinak berak ezpaitziren zakurrendako eginak. Jendeari jakin-arazten baldin bazen, iragarki batzuen bidez, goizeko zortzietan abiatzen zela Pierrefonds-era hamarretan helduko zen treina bat, Pierrefonds-era joaitea haizu zen beraz, eta hortako Odette-ren baimena soberakin; eta ere egintza horrek Odette-ren ikusteaz osoki bertze arrazoin bat ukan zezakeen, hura ezagutzen etzuten jende batzuek egun oroz egiten zutenaz geroz, eta maxinen bero-arazteko lanak balio ukan zezakeentzat aski jende ainitzek.

Oro har, etzezokeen bederen Zuanek gura baldin bazuen Pierrefonds-era joaitea debeka! Bada, hain zuen, gura bazuela sendi zuen eta, Odette ezagutua ezpalu, joanen zen segurki. Bazen aspaldi nahi zuela Violet-le-Duc-en berregintzako lanez aburu zuzenago bat ukan. Eta ari zen aroarekin, bazuen Compiègne-ko oihanean ibilaldi baten gutizia ezin azkarra goa.

Zorigaitza zen zinez egun ikusi nahi zuen leku bakarra Odette-ek debeka zezon. Egund! Haren debekua izanik ere joaiten baliz, *egun berean* ikusten ahalko zuen! Baina, Pierrefonds-en axolatzen etzuen norbait aurkitua ukan balu, Odette-ek bozik erranen zaukonean: «Ori, zu hemen!», eta Verdurin-darrekin jautsia zen hotelera haren ikustera joan zadin galdeginen, aldiz hura, Zuan, han aurkitzen balu, gaitzitua izanen zen, bere baitan eginen zuen jarraikia zela, gutiago maitatuko zuen, behar bada burua hasarrerekin itzuliko haren ikustean. «Orduan, bidaiatzeko zuzenbiderik eztut gehiago!» erranen zaukon itzuli ondoan, Zuanek zuelarik, oro har, gehiago bidaiatzeko zuzenbiderik ez! Ephe batez ukana zuen, Compiègne eta Pierrefonds-era joan ahal ukaiteko, Odette-ren batzeko zela iduri ukan gabe, bere adixkidetarik bati, Forestelle-ko markesari hara ereman-araz ze-

zan eskatzeko ideia, jauregi bat baitzuen auzoan. Hau, xedea zer zuen jakin-arazia baitzaukon arrazoinik eman gabe, bozkariotan zen eta miresten zuen nola Zuanek, hamabortz urte hetan lehenbiziko aldian, haren etxaldearen ikustera jitea azkenean onhar zezan eta, han geldi etzaitkeenez geroz, zion bezala, bederen elgarrekin ibilaldi eta itzuli batzuen egitea hitzeman zezon. Zuanek jadanik asmatzen zuen han zela Forestelle-ko Jaunarekin. Odette ikusi baino lehen ere, haren ikustera heltzen ezpaldin bazen ere, zer zoriona ukanen zuen oinaren ezartzean lur hartan, ordu berezi batez han zein lekutan izanen zen jakin gabe, orotan sendituko baitzuen bapatez agertzen ahal zelako pilpira: gazteluko korroilan, Zuanendako eder bilakatuan haren gatik zelakotz ikustera joana; orai hunkigarria iduritzen zizakon hiriko karrika guzietan; iguzki-sartze barnatu eta xamur batez gorraztatua zen oihaneko bide bakoitzean; - ihes-leku ainitzak eta aldizkakoak, hetara baitzoan aldi berean gerizatzen, zituen itxaropenen leku orotako segurtasun gabea, Zuanen bihotz zori ondun, ibilkari, ainiztua.

«Oroz gainetik, erranen zaukon Forestelle-ko Jaunari, Odette 'ta Verdurin-darren gainera erortzeari guardi eman dezagun; jakin berria dut hain zuzen egun Pierrefonds-en direla. Elgar ikusteko aski dembora bada Parisen, eluke handik joaiteak balio, batzu bertzeak gabe urrats bat ez egin ahal ukaiteko.» Eta Zuanen adixkideak etzuen hartuko, aldi bat han izan eta, zergatik zituen xedeak hogeietan aldatzen, alta han Verdurin-darren hatzik ere ikusi etzen Compiègne-ko hoteletako jateko sala guziak ikertuko batean jartzera deliberatu gabe, ihes egin nahi zaukola zion hura bera bilatzen zuela iduri, eta azkenean aurkituko zuen orduko ihes eginez, ezen multxo ttipia ediren ukan balu, ageriki bazter egingen zaukon, Odette ikusia ukaiteaz eta hark ikusia izaiteaz zorionean, oroz gainetik hartaz axolatzen etzelarik hark ikusia izanaz. Baina ez, asmatuko zuen bada harendako zela hor. Eta Forestelle-ko Jauna abiatzeko bila ethortzen zizakonean, erraiten zuen: «Ondikotz! ez, egun enaiteke Pierrefonds-era joan, hain zuzen Odette han da.» Eta Zuanek zorion zuen hala ere senditzean, egun hartan ezpaldin bazuen, hilkorretan bakarra, Pierrefonds-era joaiteko dretxorik, Odette-rendako bertzeak ez bezalako norbait zelakotz zela alabaina, haren maitaria, eta ibiltzeko zuzenbide orotakoari egiten zaukon hertsapen hori, etzela hain

khario zizakon esklabotasun horren, maitasun horren moldetarik bat baizik. Hots harekin samurtzeko irriskutan ez jartzea hobe zen, pairatzea, itzul zadin igurikatzea. Egunak bazematzan Compiègnes-ko oihaneko karta baten gainera gurtua Tendre-koa izana baliz bezala, Pierrefonds-ko gazteluaren argazki batzuez inguratua. Hura itzul zaitekeen eguna jiten zen orduko, burdinbidetako erakustegia berridekitzen zuen, zein treina hartua zukeen karkulatzen eta, berandua bazen, oraino gelditzen zizazkon bertzeak. Mezu bat huts egin beldurrez etzen atheratzen, ez etzaten, azken treinarekin itzulirik, gauaren erdian ikustera jiteko ustegabea egin nahi ukan balauko ere. Hain zuzen athe handian joiten entzuten zuen, idekitzeko berantzen zutela iduri zizakon, etxezaina atzari nahi zuen, Odette-ri hel egiteko leihoan emaiten zen, ezen, bera hamar aldiz baino gehiagotan egitera jautsia zen gomendioen gatik ere, Zuan etzela hor erraiten ahal zizakon. Mutil bat zen sartzen ari. Iragaiten ziren karrosen hegaldatze ethengabeari ohartzen zizakon, ordurano ehoiz etzaukolarik gogoia emana. Bakoitza entzuten zuen urrundik ethortzen, hurbiltzen, gelditua izan gabe athetik urruntzen eta norapait harendako etzen mezu baten eremaiten. Gau osoan igurikatzen zuen, ontsa debaldetan, ezen Verdurin-darrek etxera itzultzea aitzinatua zuten, Odette eguerdiz geroz Parisen zen; Zuanen abisatzea etzizakon gogoratu; zer egin ez jakinez, arratsaldearen iragaiten antzokian izana zen eta bazen aspaldi etzatzera sartua zela eta lokhartua.

Zuan ezpaitzuen gogoan ukana ere. Eta bizi zela ahazten zuen ordu horiek, bere aphainkeria guzia baino ere baliagarriago zizazkon Odette-ri, Zuan hobeki eratxik-arazten zaukoten. Eta etzuen, nik Combray-n haurzaroan ukan nituen bezala, arratsean berriz sortuko diren oinazeak ahazten diren egun zoriondun hetarik. Egunak, Zuanek Odette-rekin iragaiten zitu; eta bazion artetan bere buruari emazte hoin pollitaren uztea Parisera bakarrik atheratzen, karrikaren erdian joiaz bete untxi baten uztea bezain zuhurtzia gabekoa zela. Orduan iragaile guzien kontra sumintzen zen ohoin batzuen kontra bezala. Baina haien aurpegi andana oso moldegabeak, haren asmenenari ihes eginez, bekaizkeria etzaukon hazten. Zuanen gogamena akhitzten zuen, hunek, eskua begietara emanez, egiten zuela: «Jainkoaren nahitara», hala nola munduaren izaite egiazkoaren edo arimaren hilezinaren

galdeari ihardesten amorratu ondoan, bere burumuner sinestezko egintza baten atsedena uzten daueten batzu. Baina beti hor etzenaz gogatzea ezin berexteko moldean Zuanen biziko egintza xoilenekin nahasia zen - barazkari, eskutitz ukaite, athermaldi, etzate - hura gabe horien egiteko sendi zuen bihotzminetik beretik, Margarita Austriakoak Brou-ko elizan Philibert Ederarren izen-hizkiak, hartaz zuen urrikiaren gatik, orotan bere izen-hizkiekin artekatu zituen bezala.

Egun batzuez, etxean egon orde, bazoan auzo hurbileko ostatu batean barazkaltzera hango janari ona gustatua baitzizakon lehenago eta orai ezpaitzoan hara aldi berean miztikazkoak eta bitxi baino bitxiagoak diren arrazoin «elhaberrietakoak» deritzoten horietarik baten gatik baizik: ostatu harek (eta han da orai ere) Odette bizi zen karrikaren izen bera baitzuen, *Lapérouse*. Batzuetan, Odette-ek joan-jin labur bat egina zuenean, Parisera itzulia zela Zuani jakin-arazteaz etzen egun zenbaiten buruan baizik orhoitzen. Eta erraiten zaukon xoil-xoilki, lehen bezala zer gerta ere egiari hartu zatiño batez estaltzeko axolarik hartu gabe, goizeko treinatik ordu berean sartua zela. Elhe horiek gezurrezkoak ziren; gezurrezkoak ziren bederen Odette-rendako, uxterrak, etzutelakotz, egiak izanak balire bezala, garara haren ethortzeko orhoitzapenean bermagunerik; eta ere, erraiten zituen orduan, ezin zezazkeen gogoan itxura, treinatik jautsia zela zion orduan osoki ezperdinki egina zuenaren iduri kontrakoaren gatik. Baina Zuanen gogoan, aldiz, trabagailurik batere aurkitzen etzuten elhe horiek lotzera bazethorzen eta egia hain ezin dudatzeko baten higi-ezinaren hartzera nun, adixkide batek treina beretik ethorria zela erraiten baldin bazaukon eta Odette etzuela ikusia, segur baitzen adixkideak zuela egunean edo orenean huts egiten, haren errana Odette-ren elhekin akomeatzen etzenaz geroz. Etzizazkon hauk gezurrezkoak idurituko lehenik hala zirela mesfidatua izan ezpaliz. Gezurra ziola sinets zezantzat, aitzineko aieru bat baldintza beharrezkoa zen. Aski zen ere bertzela. Orduan Odette-ek zion guzia dudazkoa zizakon. Izen baten erraiten entzuten zuena, haren maitaletarik batena zen segurki; uste hori behin gogoan moldaturik, asteak bazematzan deitoratzen; berri biltzeko bulego batekin solasean jarri zen ere aldi batez ez ezagunaren helbidearen, ordutegiaren jakiteko, ezpaitzuen bidaiaz joana izanen zenean baizik hats hartzera

utziko, eta jakin baitzuen azkenean Odette-ren osaba bat zela hogei urtez geroz hila.

Nahiz Odette-ek etzuen gehienetan leku publikoetan haren gana joan zadin onhartzten, horrek erran-merranak sortuko zituela baitzion, gertatzen zen hura bezala gomitatua zen arratseko besta batean - Forcheville-ren etxera, margolariarenera, edo minixterio batean garitatezko besta batera - harekin batean aurki zadin. Odette ikusten zuen baina etzen egoitera ausartzen hura gaitzi beldurrean bertze batzuekin hartzen zituen atseginen barrandan zela iduritzuz eta - bakar-bakarrrik sartzen zen batean, antsiarekin etzatera joaiten nihaurek hala izan behar nuen bezala urte zenbait berantago auhaltzera etxera ethorriko zen arratsetan, Combray-n - ezin mugatuak iduritzen baitzizazkon bururatzen ikusiak etzituelakotz. Aldi bat edo biez arrats horietan ukan zituen, bapatez gelditu khexuaren gibel-ukaldia ezpalute hain bortizki jasaiten, jabaldurazko bozkario batzu direla erran laitezkeenak, baketze batean jarriak direlakotz: margolariaren etxeko besta batean ephe baten iragaitera joana zen eta itzultzera zoan; Odette han uzten zuen atzerritar distirant bilakatua, haren soek eta alaitasunak, Zuanendako etzirenek, iduri zutelarik hor edo nunbait jastatua (behar bada gero hara joan etzadin ikharan zagon «Nahas-mahaslarien dantzokian») izanen zen atsegin zenbaitez mintzo zirela, Zuanen gorputzen batzeak berak baino jelosia gehiago bazemolarik, nekez asmatzen baitzuen. Landegiko athearen iragaitera zoan jadanik entzun zuenean hitz hauekin berriz deitzen zela (lazzatzen zuen bururapen hori bestatik ekhenduz, gibelera ikusiz Odette xuritzen baitzuten eta haren itzultzeaz egiten ez gauza ezin asmagarri bezain izigarri bat, baina ezagun eta ezti bat, eta Zuanen ondoan egonen zena, haren egun orotako bizitik apur bat iduri, karrosan, Odette bera itxura distirant eta alaiegiaz biluzten baitzuten, ephe batez, Zuanen berarendako, eta ez mixteriozko atsegin batzu buruan, jantzia zuen maska bat baizik etzela erakusten, eta jadanik hartaz akitua zela) Odette-ek igortzen zauzkon hitz hauekin, ordukotz alhazean zelarrik: «Enauk bi minutaz igurikatu nahi? abiatuko nuk, elgarrekin itzuliko gituk, etxera lagunduko nauk.»

Egia da egun batez Forcheville-ek Zuanekin batean eremana izaitea galdegina zuela, baina, Odette-ren etxe aitzinera heldu eta, hark ere sartzeko

baimena eskatua zuela, Odette-ek ihardetsia baitzuen Zuan erakutsiz: «Ha! hori jaun horri dago, galda ezozu. Ongi, sar zaitte ixtant bat nahi baduzu, baina ez luzaz, enekin gostura mintzatzea laket duela jakin-arazten baitautzut, eta badatorrenean ikuslariak izan ditene ez biziki maite. Ha gizon hau ezagutzen bazinu nik bezainbat! eztea hala, *my love*, ni baizik eztela ontsa ezagutzen zituenik?»

Eta Zuan hunkiagoa zen oraino ikusten zuenan horrela Forcheville-ren aitzinean elhe ez bakarrik maitasunezko, hautestezko horien erraiten, baina erasiazko batzuen ere, hala nola: «Segur niz igandeko auhariarendako eztauezula oraino zure adixkider ihardetsia. Etzaitela joan nahi baduzu, baina jendetasuna edukazu bederen», edo: «Utzia duzua bakarrik hemen Ver Meer-*ez* dagizun lana, bihar apur bat aitzinatu ahal ukaiteko? Zer auherral Lan egin-araziko dautzut, nik!», erakustera baitzematen Zuanek mundura zituen gomitez eta edergintzako lanez Odette jakinduru zela, bi-bien arteko bizi bat bazutela. Eta horren erraiten, irriño bat egiten zaukon hartan Zuanek sendi baitzuen osoan harena zela.

Ordu horietan, Odette iranja-edari egiten ari zauen batean, bapatez, hala nola argi-igortzale hastean gaizki arautu batek harresian, gauza baten inguruan, ametsetako itzal handi batzu baderabiltzalarik, gero haren baitan etzatera eta ezeztatzer a heldu baitira, Odette-*ez* egiten zituen gogamen izigarri eta higikorrak ezabatzen ziren, Zuanek aitzinean zuen soin xoragarriari eratxikitzen. Bazuen Odette-*rekin* iragan oren hori, argiaren azpian, behar bada gezurrezko oren bat etzelako aieru bapatekoa, bakarrik harendako egina zela (osoki itxuratu ahal ukan gabe ethengabe gogoan zuen gauza laztagarri eta atsegingarri haren gordetzeko egina, Odette-*ren* egiazko bititik oren bat, hura hor etzanean Odette-*ek* zuen bititik), antzokiko tresna eta kartoinezko fruitu batzuekilakoa, baina behar bada zinez Odette-*ren* bizikoa zela; Zuan hor izana ezpazen, Forcheville-*ri* jargia bera eskainiko zaukola eta ixuriko ez edari ezezagun bat baina hain zuzen iranja-edari hori bera; Odette bizi zen mundua etzela hark beti han ezartzen zuen mundu laztagarri eta naturaz gaineko bertze mundu hura, haren idurimenean baizik etzena behar bada, baina egiazko mundua, goibeldura berezirik batere etzema, izkiriatuko ahal zuen mahi hori barne eta jastatzea haizu ukanen zuen edari hori,

esker onarekin bezainbat jakin-nahi eta miresmenekin behatzen zauen gauza horiek oro; ezen haren ametsak iretsiz hetaz liberatu baldin bazuten, hek aldiz hortaz aberastuak ziren, zinez gauza eginak zirela erakusten zaukoten, eta izpiritua hunkitzen, begien aitzinean hobeki agertzen zizazkon, bihotza jabaltzen zaukoten aldi berean. Ha! zoriak utzi balu Odette-rekin egoitza bakar baten baizik ez ukaitera, eta haren etxean berean izan zadin, baldin, bazkaltzeko zer zen mutilari galdegitean, Odette-ek zer janen zuen ihardetsia izan balizako, Odette-ek goizean Boulogne-ko Oihaneko ethorbidean ibiltzera joan nahi zuenean, senar on bezala zuen eginbideak bortxatua ukan balu, atheratzeko gutiziarik ez ukanik ere, haren laguntzera, beroegi zuenean haren bizkarrekoa ermanez, eta arratsean auhal-eta etxean barneko jantzie-tan egon nahi bazuen, haren ondoan hor egoitera bortxatua izana baliz, hark nahiko zuenaren egiten; orduan zenbat Zuanen biziko esteusek oro, aldi berean Odette-ren bizian barne izanak zirelakotz, etxekotuenek ere - hala nola hainbat amets bazaduzkaten, hainbat gutizia itxuratzen zuten argi hori, iranja edari hori, jargia hori - hartuko zuten halako eztitasun nasaiegi bat eta mixteriozko phizu bat!

Zuan jelosten zen alta horrela urrikitzen zuena, bere maitasunaren aldekoa izanen etzen jabaldura bat zela, bake bat. Odette nehoiz hor etzen, urrikitu, asmamenezko norbait izaitetik geldituko zenean; harendako zuen sendimendua zonatako aireak bazemon nahasmen mixteriozko hura bera izanen etzenean gehiago, baina atxikimendu bat, eskerrona; bien artean Zuanen erotasunari eta goibeldurari bururapena ekharriko zaukoten harreman ohiko batzu jarriko zirenean, orduan Odette-ren biziko egintzak bere baitarik guti ohargarriak idurituko zizazkon - hala zirelako aierua aldi batzuez jadanik ukana zuen bezala, behazunez estalgiaren barnean Forcheville-ri igorri eskutitza irakurria zuen egunean. Bere gaitzari behatuz berak ikhertzeko bere buruari emana ukan balu bezain gogo ernearekin, bazion bere baitan, sendatua izanen zenean, Odette-ek egin ahalko zuen guziak etzuela axolatuko. Baina bere izanara eriaeren barnetik, egia erran, sendatze hortaz herioaz bezain beldur zen, orai zen guziaren hiltzea izanen baitzen alabaina.

Arrastiri gozo horien ondotik, Zuanen aieruak eztituak ziren; Odette benedikatzen zuen eta biharamunean, goizetik, joia ederrenak igort-

zen zauzkon etxera bezperako onezia horiek sustatua baitzuten ala sendi zuen esker ona, ala berritzen ikusteko zuen gutizia, ala nekatzeko beharretan zen maitasunaren gorena.

Baina, bertze ordu batzuez, oinazeak berriz hartzen zuen, asmatzen zuen Odette Forcheville-ren ohaide zela eta, biek ikusia zutenean, Verdurin-darren karrosa zolatik, Oihanean, hara gomitatua etzen Chatou-ko bezperan, karrosazaina bera ohartua zizakon etsipenezko itxurarekin, harekin itzul zadin auherretan eskatzen, gero bere aldera joaiten, bakarrik, garhaitua, Odette-ek ukanak baitzituzkeen, hura Forcheville-ri erakutsiz eta erranez «Ha! nola errabian den!», hunek Verdurin-darren etxetik Saniette haizatua zuen egunean ukanak zituen behako maltzur, aphalt, azpikariak.

Orduan Zuanek hasiatzen zuen. «Baina ere, zozoegia niz, zion bere baitan, ene diruaz bertze batzuen atsegina ordaintzen dut. Ontsa eginen du guardi emaitiaz hala ere eta sokari ez behar baino gehiago thiratzeaz, jeusjeusik eman ezpainezake gehiago. Zer nahi den, artean gainerateko egintza maitagarriak utz ditzagun! Gogoan ukaitea atzo berean, Bayreuth-eko sa-soinaldian izaiteko gura zuela baziolarik, ukana dutala hari gu biendako inguruetan Bavière-ko erregeren jauregi pollitetarik baten alokatzearen eskaintzeko zozokeria. Eta bertzela ere eztu hainbat loriatua iduritu, ez erran ba edo ez; agian eztu nahiko, Jainko handia! hamabortz egunez harekin Wagner-en entzuten egoitea arraina sagarras baino gehiago axolatzen eztenean, alai lizateke!» Eta Zuanen herrak, maitasunak bezala, erakustera emaiteko eta egintzako beharra baitzuen, bere asmamen gaixtoen urrunago eremaitea laket zuen, gehiago hasiatzen zuelakotz Odette-ri ustez bazematzen zimarkuen gatik, eta egia zirela gertatzen baliz, haren gatzigatzeko aldia ukan baitzezakeen eta handitzen ari zizakon errabiaren asetzekoa. Horrela haren ganik eskutitz bat ukanen zuela asmatzerano joan zen hartan dirua eskatuko baitzaukon Bayreuth-en auzoko jauregi haren alokatzeko, baina Zuani bera ezin ethor zaitekeela jakin-araziz, Forcheville-ri eta Verdurin-darrer gomitatuko zituela hitzeman zaelakotz. Ha! ausartzia hori ukan zezan nola gustatuko zizakon! Zer bozkarioa ukanen zuen ez erraitean, mendekiozko ihardespenearen izkiriartzean, goro-gora hartako hitzen hautatzean, erraitean atsegin baitzuen, eskutitza zinez ukana balu bezala!

Bada, hori zen biharamunean berean gertatu. Izkiriatu zaukon Verdurin-darrek eta hauen adixkidek erakutsia zutela Wagner-en ikuskarri horietan izaiteko gutizia eta, diru hori igorri nahi balauko bada, ukanen zuela azkenean, hain usu haien etxean onhartua izanik, hark ere bere aldian haien gomitatzeko atsegina. Zuanek beraz, etzuen hitzik erraiten, azpiz entzuna zen haien han izaiteak harena baztertzen zuela.

Orduan bezperan hitzez-hitz egina zuen ihardespén izigarri hura behin ere balia zaitekeela uste ukaitera ausartu gabe, bazuen hari eremanzateko bozkarioa. Ondikotz! sendi zuen Odette-ek berak zuen diruarekin, edo erreki ukan zezakeenarekin, Bayreuth-en alokatu ahalko zuela hala ere gura zuenaz geroz, etzelarik Bach eta Clapissón-en artean berexkuntzarik egiteko gai. Baina xuhurkiago bizi beharko zuen oro har. Etzuen, aldi hortan mila liberako zenbait Zuanek igorri ukan balauko bezala, arrats oroz, jauregi batean, auhari hautuko hetarik antolatzeke ahalik, haien ondotik ukanen baitzuen behar bada - oraino nehoiz ere ukana etzukeena - Forcheville-ren besoetara erortzeke burutaldia. Eta gero, bidaia hastiatu hori, etzuen berak, Zuanek, ordainduko! - Ha! trabatu ahal balu! Odette-ek abiatu baino lehen zangoa behartu ahal balu! garara eremanen zuen karrosazainak onhartu balu, nahi den sarian, han ephe batez bortxaz hetsirik egonen zen leku batera emazte fede gaixtoko haren, begiak Forcheville-ri gaizkidetasunezko irriñoaz dirdiran, Odette Zuanendako berrogei-ta zortzi orenez geroz zen haren eremaitea!

Baina nehoiz etzen luzaz hala izaiten; zenbait egunen buruan so dirdiratu azpikariak bere argitik eta zimarkutik zerbait galtzen zuen; Forcheville-ri «nola errabian den!» erraiten Odette-ek zuen itxura hastiatu hura histen ari zen, ezabatzen. Orduan, bertze Odette haren aurpegi hura berriz apurka agertzen zen eta eztiki dirdiraturaz goititzen, Forcheville-ri ere irriño bat igortzen zaukon harena, baina hartan Zuanendako maitasunik baizik etzen irriñoa, bazionean: «Etzaitela luzaz egon, jaun horrek ezpaitu ikustaldiak ukan ditzadan biziki maite ene ondoan izaiteko gutizia duenean. Ha! jende hori nik bezain ontsa ezagutzen bazinu!», hain azkarki laket zizakon jendetasunezko egintza zenbaitez, edo haren baitan baizik konfienxiarik etzuen gertaldi larri hetarik batez eskatua zaukon aholku zenbaitez Zuanen eskertzeke zuen irriño hura bera.

Orduan bazagon bere baitan, Odette horri, nolaz izkiriatura ahal zaukon ordu arteo egin zezakeela hark uste ukanen etzuen eskutitz laidagarri hura, eta, bere oneziaz, leialtasunaz, haren estimuan irabazia zuen lerro goratik Zuan jauts-arazia zukeena. Gutiago maitagarri bilakatuko zizakon, ezen gaitasun horien gatik, ez Forcheville-ren ez nehoren baitan Odette-ek edireiten etzituenen gatik zuen maite. Horien gatik zaukon Odette-ek hain usu erakusten bekaizti zenean Zuanek baliorik batere emaiten etzaukon gixakotasun hura, etzelakotz gutiziazko ezagugarri bat, eta adixkidantza baitzuen ere izaitekotz maitasuna baino gehiago borogutzen, baina berriz haren balioaren senditzen hasten ari baitzen zituen aieruen berainik arintzeak, edergintzako irakurketa batek edo adixkide batekin solastatzeak aintzetan indarturik, zuen maitasun mina elgar ordaintzez gutiago behartua egiten zuten arau.

Orai harat-hunateko horren ondotik, Odette berriz jina baitzen naturalki Zuanen bekaizkeriak ephe batez handik baztertua zuen lekura, xoragarri aurkitzen zuen gunera, amultsutasunez betea iduritzen zizakon, baiezko behako batekin, hain pollit horrela, nun ezpaitzaitekeen egon ezpainak haren gana aitzinatu gabe hor izan baliz eta besarkatu ahal ukan balu bezala; eta behako xoragarri on horren gatik, atxikitzen zaukon egiazki hor ukana izan balu eta zuen gutiziari askiestearen emaiteko bere idurimenak baizik moldatua ukana ezpalu bezainbat eskerron.

Zenbat bihotzmin emana zaukokeen! Segurki haren kontra zuen erresuminari arrazoin baliagarriak aurkitzen zauzkon, baina horren sendiarazteko etziren aski izanen hainbertze maitatua ukan ezpalu. Etzituena gaizki berdin larriak ukan bertze emazte batzuen aldera, hala ere orai gogotik zerbitzu eginen baitzauen, haien kontra haserterik gabe izanez gehiago maite etzitu elakotz? Ehoiz ere egun batez axolagabe berdinean gertatu behar balu Odette-ren aldera, gogoan hartuko zuen bekaizkeriak bakarrik zaukola zerbait ezin jasan, ezin barkatu aurki-arazia Odette-ek bere aldetik Verdurindarrer jendetasunaren ordaindu ahal ukaiteko, etxekanderearen egiteko zuen gutiziari, oro har, hoin naturalari, haurkeria apur batetik eta ere arimako beraztasun zerbaitetik heldu zenari.

Ikusmolde hortara itzultzen zen - bere maitasunaren eta jelsiaren kontrakoa, zenbait aldiz hartan jartzen baitzen gogoan halako zuzentasun

baten gatik eta gerta zaitezkeen guzietz khondu edukitzeko - handik Odette-ren jujatzera entseatuz maitatua ukan ezpalu bezala, harendako bertzeak bezalako emazte bat izana baliz bezala, Odette-ren bizia, Zuan hor etzen orduko, bertzelakoa izana ezpaliz bezala, hari gordez moldatua, haren kontra eremana.

Zergatik sinets han Forcheville-rekin edo bertze batzuekin jastatuko zituela haren ondoan ezagunak etzituen atsegin xoragarri batzu, Zuanen bekaizkeriak bakarrik oso-osoan asmatzen zituenak? Bayreuth-en ala Parisen, Forcheville-ek Zuan gogoan zuela gertatzen bazen, etzatekeen izanen Odette-ren bizian ainitz zen norbaitez bezala baizik, Odette-ren etxean biak gertatzen zirenean hari lekuaren uztera bortxatua zenaz. Hura gabe han izaitan Forcheville eta Odette irabazle baldin baziren, Zuanek zuen hori nahi ukanen hara joaitearen debekatzea debaldetan bilatuz; haren xedea baietsia ukan balu aldiz, onhargarria bertzela ere, han Zuanen aholkuz zela idurituko zuen, hark igorria zela sendituko zen, egoitza hark emana, eta etxean hainbertzetan ukana zuten jende horien ukaitean sendituko zuen atseginaz, Zuan zuen eskertuko.

Eta - Zuanekin samurtua joaiteko orde, hura berriz ikusia ukan gabe - dirua igortzen balauko, bidaia hortara sustatzen balu eta atsegingarri izan lakidion bere gain hartzen, ethorriko zizakon zorionean, eskerronetan, eta Zuanek ukanen zuen abantzu aste batez hurbil jastatua etzuen eta jeusek ordain etzezakeen haren ikusteko bozkario hura. Ezen Zuanek hastiorik gabe gogoan itxura zezakeen orduko, haren irriñoan onezia berriko zezakeeneko, eta bertze orori ekhartzeko gutizia jelosiak etzaukolarik maitasunaren gainera emaiten, maitasun hori Odette-ek berak emaiten zauzkon sendimenendako gustu bat bilakatzen zen berriz gehienean, haren behako baten jeikitzearen, irriño hetarik baten moldatzearen, mintzoaren doinu baten emaiterearen mirestearen ikusgarri bat bezala edo gertakari bat bezala galdekatzearen atseginarendako. Bertze guziak ez bezalako atsegin horrek azkenean egina zuen Zuanen baitan haren behar bat eta hark baizik hor izaiteaz edo bere eskutitez ase etzezakeena, abantzu Zuanen biziko aro berri horren berezitasuna zen bertze behar bat bezain abantailnahi gabea, aphaina, bihurria, orduan aitzineko urtetako idorrari, ahultasunari jarraikia baitzizeen gogoren betegi bat bezala, berak gehiago jakin gabe barneko biziaren ustegabeko

aberaste hori zeri zor zuen, ordu batetik hara bizkortzen, gizentzen den, eta ephe batez sendatze osora doala iduri duen osagarri beratzeko norbaitek dakien baino gehiago: egiazko mundutik haratago handitzen ari zizakon bertze behar hori, musikaren entzutekoa, ezagutzekoa zen.

Horrela, bere gaitzaren bermoldatzetik beretik, maitasunetik bekaizkeria egina ukan ondoan, hasten ari zen berriz Odette-rendako atxiki-menduaren, urrikiaren moldatzen. Odette xoragarria eta ona bilakatua zen berriz. Harekin gogor izanak zimikatzen zuen. Nahi zuen ondora jin zakidion eta, aitzinean, berak hari atsegin zenbait emana ukan, eskerrona ikusi nahiz haren aurpegiaren orhatzen eta irriñoaren itxuratzen.

Beraz Odette, zenbait egunen ondotik berriz itzultzen ikusiko zuela seguruean, aitzinean bezain xamur eta xume, baketze baten eskatzera, ari zen Zuani ez gustatzeaz beldur ez izaiteko eta ere haren khexatzeko ohiduraren hartzen, eta ezesten zauzkon, hori errex zizakonean, haier gehienik atxikia zen fagoreak.

Etzakien behar bada Zuan haren aldera zenbat zintzo izana zen gaitziturik egonak zirenean, dirurik igorriko etzaukola errana zuenean eta hari gaizki egitea bilatuko zuela. Ez ere behar bada gehiago zenbat hala zen, haren aldera ezpazen ere, bederen bere aldera, zuten adixkidantzako geroaren abantailetan, Odette-ri hura gabe egon zaitekeela, elgarrekin hausten ahalko zutela erakusteko, zenbait demboraz Odette-ren etxera joan gabe egoitea deliberritzen zuen bertze aldi batzuez.

Zenbait aldiz gríña berririk emana etzaukon egun batzuen ondotik gertatzen zen; eta, eginen zauzkon ikustaldi hurbiletan, bozkario handirik batere har etzezakeela baitzakien, baina segurkiago hartan zen atsedena hautsiko zuen gríña berri zenbait, izkiriartzen zaukon lanez biziki hartua izanez erranak zauzkon egunetarik batean ere etzuela ikusi ahalko. Odette-ren esku-titz batek bada, berarenarekin gurutzatua zenak, hain zuzen hitzartu eguna alda zezan othoizten zuen. Bazagon hea zergatik zen; aieruek, oinazeak berriz hartzen zuten. Etzezakeen gehiago, gertatzen zen nahasmendu berri hortan, aitzineko gogo-atseiden erdi hartan hartua zuen deliberoa atxik, haren etxera laster egiten zuen eta ondoko egun orotan haren ikustea hertsiki galdegiten. Eta ezpalauko ere lehenik Odette-ek izkiriartua, ihardesten baldin bazuen bakarrik, baía emanez, elgarretarik berexete labur batez Zuanek bazagien gal-

deari, hura ikusi gabe ezin egon zaitekeentzat hori aski zen. Ezen, Zuanen karkularen kontra, Odette-ren baiak guzia aldatua zuen haren baitan. Zer-baiten jabe diren guziek bezala, ephe batez jabe ezpalire zer gertatuko zen jakiteko, hori gogotik baztertua zuen, bertze guzia Odette hor zenean zuen ara berean utziz. Gauza baten huts egitea, bada, ezta bakarrik hortan, ezta bakarrik hor ez izaitearen zati bat, bertze guziaren nahasmendua da, aitzinekoan ikus eztaitekeen izanara berri bat.

Baina bertze batzuetan aldiz - Odette bidaian abiatzera zoan - eskaturua berak hautatzen zuen liskarraldi ttipi zenbaiten ondotik zuen etzaukola izkiriaturko eta itzuliko zenean baizik etzuela ikusiko azkenean deliberraten, horrela hark behar bada betikoa zela usteko zuen samurraldi handi baten itxurak eman ez eta abantaila galdeginez, bidaiaren gatik zati handiena ezin hutsegina zen eta bakarrik apur bat lehenago has-arazten zuen berexte bati. Itxuratzen zuen jadanik Odette khexu, ikustaldirik ez eskutitzik ez ukarik atsekabetua, eta iduri horrek, Zuanen bekaizkeria eztituz, haren ikusteko ohiduraren galtzea errexagotzen zaukon. Egia da, batzuetan, hirur asteko berexte onhartuaren luzetasun artekatu guziari esker Zuanen deliberoak hara urruntzen zuen gogoaren azken buruan, atseginekin zuela hartzen Odette itzuliko zenean berriz ikusiko zuelako ideia: baina hain ezin egon gutiarekin zen ere, nun bere buruari galdez hasten ari baitzen hea etzuenek elikatze hoin errexaren iraupena bere nahitara bikunduko. Etzituen oraino hirur egun baizik, aintzetan Odette ikusi gabe eta orai bezala aitzinetik deliberratua ukan gabe iragana zuena baino ephe biziki gutiago luzea. Horra bizkitartean nun nahigabe arin batek edo gorputzeko ez ontsa batek - oraiko ephea ordu ohigabeko bat, erregelaz kampoko bat zela gogoan hartzera sustatuz, hor zuhurtziak berak onhar baitezake atseginak ekhartzen duen atsedenen onestea eta borondateari, indarraren berriz haste baliagarriano, goraintzi erraita - borondatearen eragina mozten baitzuen, eta tinkan atxikitzetik hau geldiarazten; edo, gutiago ere, Odette-ri galdegitea ahatzia zuen xehetasun bat, ala karrosaren berriz thinda-arazteko kolorea hautatua zuenez, ala mol-san ohiko diru-balioak nahi zituenek erosi edo bereziak (biziki pollit izanen zen hura ikusi gabe egon zaitekeela erakustea, baina gero thindua berregiteko izaiten baliz edo diru-balioek intresik ez emaiten, ontsa aitzinatua izanen zen), horra nun tiran dagon kautxuki bat uzten denean bezala edo erdi-ide-

kitzen den mekanika airez bete bateko airea, berriz haren ikusteko ideia, han atxikia zen urrunetik, jauzi batez itzultzen zen oraiaren alhorrera eta berehala egin zaitezkeenetara.

Ihardukitzerik gehiago aurkitu gabe itzultzen zen, eta bertzela ere hainbertzetarano iharduk ezina nun Zuanek ontsa gutiago grña ukana baitzuen Odette-ren ganik berexia egon behar zuen hamabortz egunen muga batetik bertzera hurbiltzen ari zela senditzean, haren etxera joaiteko karrosazainak karrosaren atelutzen bazematzen hamar minuten igurikatzean baino, hauk ezin-egonezko eta bozkariozko zoramen batzuetan iragaiten zituelarik, mila aldiz hari maitasunaren nasaiki emaitekotan, berriz aurkituko zuelako ideia hori ethengabe buruan, hain urrun uste zuelarik, berritzultze ustegabeko batean, berriz konzienzia hurbilenean bere ondoan baitzuen. Ideia horrek ezpaitzuen, berari traba egiteko, ordu berean iharduki nahi ukaiteko gutiziarik, hau etzelakotz gehiago Zuanen baitan, bere bururari phorogatua ukanik - hala uste zuen bederen - hortako hoin errexki gai zela: etzuen beraz erraitekorik batere ikusten, orai nahi orduko eginen zuela segur zen berexkuntza horren gibelatzeko entseguan. Odette-ren berrikusteko ideia hori heldu zizakon ere ohidurak higatuak zituen gustagarritasun batez, berritasun batez aphaindurik, bizitasun batez dohaturik, ez hirur baina hamabortz egunetako gabezian (uzte baten iraupenak karkulatu behar baitu, aitzinetik, mugatua den egunetik hasiz), eta ordu arteo errex sakrifkatzen den atsegin segur bat izanen zenetik, egina baitzuen haren kontra indarrik gabe gelditzen den ustegabeko zorion bat. Eta hori zen azkenean Odette-ek gogoan zer ukana zukeen, behar bada zer egina zukeen Zuanen ez jakinak ederturik itzultzen zelakotz, hari bizi zelako seinalerik ere etzaukola emana ikustean, hala nola nun aurkituko zuena Odette abantzu ezezagun baten agerpen ezin ohargarriagoa baitzen.

Baina hark, Zuanek diru galdeari emana zaukon eza alegiakoa bai-
zik etzela uste ukana zuen bezala, etzuen estakuru bat baizik ikusten karrosaren berriz thindatzeaz edo erosteko diru-balioaz galdegiten zaukon xehetasu-
nean. Ezen etzituen Zuanek iragaiten zituen gaitzaldi horiek guziak gogoan hartzen, eta horietaz zuen ideian, zuten mekanikeria baztertzen zuen, aitzinetik ezagutzen zuena baizik ezpaitzuen sinesten, bururapen beharrezko,

ezin hutsegin eta beti berdinean. Ideia osatu gabea - are barnatuagoa behar bada - Zuanen ikuspegitik estimatzen baldin bazen, aurkituko baitzukeen Odette-ek etzuela komprenitzen, hala nola morfina hartzale edo bulharrerri bat, segur izanez gelditurik izanak direla, bat bere ohidura okitutik liberatzerara zoanean kampoan gertatu zerbaitez, bertzea azkenean sendatzera zoanean ustegabeko ez-ontsa batez, medikuaz ez adituak sendi baitira, eztzelakotz gertaldi delako horier haiek dioten balio bera emaiten, erier berriz sendigarri izaiteko bizioak eta eritasunak hartu dituzten maska hutsak, eztirelarik, egiazki, haien gainera phizatzetik gelditu, hek zuhurtziako eta sendatzeko ametzak gogoan zaudelarik. Eta zinez, Zuanen maitasuna heldua zen medikua eta, eritasun batzuetan, barber atrebituena, eri bati bere bizioaz gabetzea edo eritasunaren ekhentzea oraino arrazoinetza edo egingarria ere denez bere buruari galdez dauden heinera.

Maitasun horren hedapenaz, segurki, Zuanek etzuen konzienzia zuzenik. Neurtzera entsegu egin nahi zuenean, gertatzen zen batzuetan ttipitua iduri zuela, abantzu ezteusetarano jautsia; behazunez, Odette maitatu baino lehen, hunen aurpegiak, errankortasun gabeak, frexkotasun gabeko larru-antzeak emana zaukoten gustu gutia, abantzu desgustua, berriz gogora heldu zizakon egun batzuez. «Zinez, bada aitzinatze sendigarri bat, zion biharamunean; gauzak zuzen ikusiz, enuen atzo haren ohean izaiten abantzu atseginik batere: bitxi da, itsusia zizatan ere.» Eta segurki, zinez ari zen, baina haren maitasuna gorputzeko gutiziaren eremuetarik ontsa urrunago hedatzen zen. Odette-ren personak berak etzadukan hartan leku handirik. Mahi gainean soaz Odette-ren argazkia aurkitzen zuenean, edo hau ikustera jiten zizakonean, nekez zuen haragizko edo paperreko iduria batzen bere baitan zuen nahasmen mingarri betikoarekin. Bazion abantzu ustegabeturik: «Hura da», bapatez gutarik kampa berezirik aitzinean gure eritasunetarik bat erakusten balaukute bezala eta oinazkatzen gituenaren idurikoa ezpaginu aurkitzen. «Hura» zer zen bere buruari galdegitera entseatzen zen: ezen maitasunak eta herioak duten elgarren iduria da - beti errepikatzen diren hain guti argi haiek baino lehen - , egiazki den bezala gorde dadin beldurrean, nortasunaren mixterioaz aitzinago guhauri galdez egon-araztea. Eta Zuanen maitasuna zen eritasun hura hainbat zen gehitua, hainbat Zuanen ohidura

guziekin, egintza guziekin, gogamenarekin, osagarriarekin, loarekin, biziarekin nahasia, heriotzearen ondoko gutiziatzen zuenarekin ere, hainbat zuen harekin berarekin bat egiten, nun ezpaitzizakokeen ekhendu ahalko hura bera abantzu osoan suntsitu gabe: barbergintzan erraiten den bezala, haren maitasuna «ezin operatua» zen.

Maitasun horrendako Zuan abantail-nahi guzietarik hainbert-zetarano aldaraturik izana zen nun, hala beharrez, mundura berritzultzen zenean, bere baitan erranez zituen ezagutzek, bertzela ere Odette-ek biziki zuzen estimatu ahalko etzuen joia-lan aphain batek bezala, Odette-ren begietan berari balio apur bat eman-araz zezoketela (eta behar bada egia izanen zen, alabaina, ezagutza horiek maitasun hortaz beraz aphalduak izan ezpallire, Odette-ren baitan hunkitzen zituen gauzak oro gutiets-arazten baitzitu-tuen Zuanek gutiago baliosak aithortzen zituela iduri zuelakotz), han sendi baitzuen, hark ezagutzen etzituen leku batzuen, jende batzuen erdian izaitiaz zuen hersturarekin batean, elhaberri batean edo margazki batean hartuko zuen atsegin garbia, hetan jende astidun baten libertimenduak erakutsiak direnean, etxean zelarik etxeko biziaren urratsari, bere eta sehien jantzieraren aphainari, diru-balioen emaitza onari beha gustatzen zen bezala, San-Simun irakurriz egoiten zen ara berean, haren idazle hautetsienetarik bat baitzen, egunetako mekanikeriari beha, Maintenon-go Anderearen aphairuetako jatekoari, edo Lulli-ren zikoizkeria ontsa arautuari edo ibilara handiari. Eta estekamendugabe hori oso-osea etzen neurri ahulean, Zuanek sendi zuen jastatzen berri horren arrazoina, bere maitasunetik, bere bihotzminetik abantzu kampoan geldituak ziren bere baitako zati bakarretara ephe batez ihes egin ahal ukaitea zen.

Alde hortarik, ene izabak emaiten zaukon nortasun berezi hori, «Zuan semea» izaitte hori, bere nortasun bereziago «Charles Swann»-etik berex, zen orai hobekienik laket zuena. Egun batez, Parme-ko prinzesaren urtemugako (eta hura ainitzetan Odette-ri zeharka gozagarri izan baitzizakokeen, besta handi batzuetako, jubilau batzuetako lekuak ukan-araziz), fruitu batzu igorri nahi ukanak baitzauzkon, nola mana-araz ez sobera jakinean, amaren andere gusi bat hortaz kargatua zuen, hunek, harendako komisione baten egiteaz loriatua, izkiratua baitzaukon, khondu emaiten, etzituela

fruitu guziak leku berean hartuak, baina mahatsak Crapote-ren baitan haren ezpezialitatea baita, marrubiak Jauret-en baitan, Madariak Chevet-enean, han ederrenak baitziren eta b., «fruitu bakoitza nihaurek banaka mihatua eta ikhertua.» Eta alabaina, prinzesaren eskertzetarik, Zuanek jujatu ahal ukana zuen marrubien usain onaz eta madarien guriaz. Baina oroz gainetik «fruitu bakoitza nihaurek banaka mihatua eta ikhertua» hitza oinazearendako sosegu bat izana zizakon, gogoa eremanez bekan joaiten zen alde batera, nahiz bere baitan zuen, burjesia aberats eta on bateko ondoko bezala, han begiratuak baitziren sortzez, nahiko zuen orduko baliatzera prest-presta, «etxe onen» ezagutza eta manatze baten ontsa egiteko antzea.

«Zuan semea» zela luzazegi ahatzia zuen, segurki, berriz ephe bateko hala bilakatzen zenean, atsegin baten ez senditzeko, gainerateko demboran ukaiten ahalko zituenak eta hetaz soraiotua zenak baino biziagoa; eta burjesen jendetasuna, haiendako «Zuan semea» baitzen gehienik gelditzen, nobleziarena baino gutiagokoa baldin bazen (baina lausengarriagoa, hetan bederen ehoiz ezpaita ikustatetik berexten), goientasun baten eskutitza, printzen arteko zein ere libertimendu eskain zezon, etzizakokeen gurasoen adixkide zahar batzuen familian ezkontza batean lekuko edo bakarrik han izaitea galdegiten zaukona bezain gozagarri izan, batzuek haren ikusten jarraikia baitzuten - hala nola aitaxi, aitzineko urtean, amaren ezkontzara gomitatua zuena -, bertze batzuek ere doi-doia baitzuten bera ezagutzen baina jendetasunezko eginbide bat zela uste, Zuan Jaunaren ondoko ohoragarriaren aldera.

Baina, haiekin zituen etxekotasun jadanik zahartuen gatik, munduko jendeak, hein batean, Zuanen etxeoetan, mutilerian eta familian sartzen ziren ere. Adixkidantza distiratu horier behatzean, sendi zuen, bere baitarik kampo, aitzinekoetarik ukanak zituen lur ederrer, zilharrerria ederrari, mahiko oiheria ederrari behatzean zuen bermagailu bera. Eta etxean odol ukaldi batekin eror baladi, ezin naturalkiago zela gambarazaina Chartresko dukearen, Reuss-ko printzearen, Luxembourg-eko dukearen eta Charlus-ko baroinaren bila lasterrez joanen gogoan ukaiteak, ekhartzen zaukon gure Françoise zaharrak ukanen zuen konsolamendu bera jakitean bere oihal finezko mihisetan ehortzia izanen zela, ez betatxatuetan (edo hain arinki

nun horrek ezpaitzuen langilearen arthaz ideia gorago bat baizik emaiten), hil-mihise horren itxuratik usu halako satifamendu bat hartzen baitzuen, ez nahi bada ontsa izaitzekoa, baina bederen bere alderako amodiozkoa. Baina oroz gaintetik, Odette-ri buruz egiten eta gogatzten zituen guzietan, Zuan beti menperatua zen eta eremana Odette-ri, ez behar bada gutiago maitagarri, baina ikusteko nor nahi baino, Verdurin-darren leialetan aspergarriena baino gutiago gustagarri zizakolako sendimendu ez aithortuaz, - han bera gizon hautetsietan hautetsiena zen mundua gogoratzen zizakonean, haren ekharrarazteko ahal den guzia egiten zuena, ez ikustez deitoratzen, berriz hasten zen bizi zorionekoago bat bazela sinesten, hartaz gose izaiten, ilabetez geroz ohatua, barurean dagon eri bati gertazen den bezala, egunkari batean bazkari ofizial bateko janariak ikusten dituenen edo Ziziliarako itsas-itzuli baten iragartzea.

Munduko jenden ondoan desenkusa emaitera bortxatua baldin bazen haier ikustaldirik ez egiteaz, horien egiteaz zuen Odette-ren ondoan desenkusatzeta bilatzen. Baina ere ordaintzen zituen (ilabete buruan bere baitan galdez, haren pazienziatz sobera baliatua baldin bazen eta usuegi haren ikusten izana, hea aski zenez hari laur mila liberaren igortzea), eta bakoitzarendako estakuru bat aurkitzen, hari ekhartzeko emaitza bat, beharra zuen xehetasun bat, edo haren etxera joanki aurkitua zuen Charlus-ko Jaunak lagun zezan baitezpada galdegina ukanik. Bertzerik nehor ez han izanez, Charlus-ko Jauna othoizten zuen haren etxera laster egin zezan, erran zezon bere baitarik bezala, solastatzean, Zuani mintzatu behar ukaiteaz orhoitzen zela, Odette-ek onhar zezan etxera beherahala jin zakidion galdegina-araztea; baina gehienetan Zuanek debaldetan igurikatzen zuen eta Charlus-ko Jaunak aratsean erraiten zaukon haren jokoak etzuela ondoriorik ukan. Hala nola nun Odette orai ezpazen usu etxean izaiten, Parisen ere, han egoiten zenean, Zuan guti ikusten baitzuen; eta hark, maite zuenean, erraiten zaukolarik: «Beti libro niz» eta «Bertzen aburuak zer egiten ahal dauta?», orai, Zuanek ikusi nahi zuen aldi oroz, jendetasunezko urrats batzu aitzinatzen zituen eta eginbeharrezko estakuru batzu. Garitatezko besta batera joaita Zuanek aiphatzen zuenean, margazki berri erakustaldi batera, Odette han izanen zen antzokiko lehenaldi batera, hunek erraiten zaukon nahi zuela zuten atxi-

kimendua ageri-agerian ezarri, neska-tzar batendako hartzen zuela. Hori hainbertzetarano zen nun harekin batzeaz ez osoki gabetua izaiteko, Zuanek, baitzakien Adolphe ene osaba-bitxia berak ere adixkide ukana zuena Odette-ek ontsa ezagutzen zuela eta ainitz estimatzen, egun batez ikustera joan baitzizakon Bellechasse-ko karrikan zuen bizitegi ttipira Odette-ren gainean zuen indarraz balia zadin eskatzera. Beti hartzen baitzituen, Zuani ene osabaz mintzo zenean, itxura poetiko batzu, baziola: «Ha! hura, etzian hi bezala, harendako nian adixkidantza hain gauza ederra zian, hain handia, hain pollita! Etzian hark ukanen leku publiko guzietan enekin agertu nahi ukaiteko aski ikustate guti», Zuan eragozpenean izan zen eta etzakien zein doinutara goititu behar zuen ene osabari Odette-ez mintzatzeko. Odette-ren ezin hobetasuna jarri zuen lehen-lehenik, gizatasuna baino gorago aingeruetakoa zelako egitasun ageria, zituen bertute ezin erakutsien eta ezagutzatik haien ideia ezin ondoriozta zaitkeenen argitasuna. «Nahi dut zurekin mintzatu. Zuk, badakizu Odette zein emazte guzien gaineko emaztea den, nolako izaite adorarria, nolako aingerua. Baina Parisko bizia zer den ere badakizu. Jende guziak eztu Odette ezagutzen zuk eta nik ezagutzen dugun moldean. Badira beraz jende batzu joko apur bat irrieginarria badagitala iduri zaue-nak; kampoan, antzokian aurki dezatan eztezake onhar ere. Zuk, hainbertze konfiencia baitu zutan, etzinezazkokea bi hitz erran enetako, ene agur batek egiten daukon gaizkia handiegitzen duela segurtatu?»

Osabak eman zaukon Zuani Odette ikusi gabe apur bat egon behar zuelako aholkua, gehiago baizik etzuela maitatuko, eta Odette-ri Zuan utz zezan nahi zuen leku orotan haren gana joaitera. Zenbait egun berantago, Odette-ek erran zaukon Zuani nahigabe bat ukana zuela ene osaba gizon guziak bezalakoa zela ikustean: bortxaz hartu nahi ukana zuen. Zuan ezti-arazi zuen, berehala ene osabaren desafiatzera joan nahi baitzuen, baina Zuanek aurkitu zuenean eskua etzaukon tinkatu nahi ukan. Osaba Adolphe-rekilako samurtze hortaz are gehiago dolutu zen nun uste ukana baitzuen, batzuetan ikusi ukan balu eta harekin konfiencia osoan mintzatu izana baliz, Odette-ek lehenago Nizan eremana zuen bizi-erosten ziren gauza batzuen argian ezartzera entsatuko zela. Hain zuzen Adolphe osabak negua han iragaiten zuen. Eta Zuanek uste zuen ere Odette han zuela behar bada ezagutua. Bere

aitzinean norbaiti entzuna zuen gutiak, Odette-ren maitaria izana zen gizon batez, Zuan zentzordatua zuen. Baina, ezagutu baino lehen, haien ikastea itsusia eta ezin sinetsia izanen zizazkon gauzak, behin betikotz bere bihotzminaren barnean zituen, onhartzen zituen, etzuen gehiago izanak etzaitzkeela gogoan hartu ahalko. Bakarrik bere amoranteaz bazegien gogamen bakoitzak berriz hunkitzen zuen ezin ezabatuzko moldean. Iduritu zizakon ere, aldi batez, hartzen zuela Odette-ren baitan uste ukanen etzuen bizi-moldeko arintasun hori, aski ezaguna zela, eta Baden eta Nizan, ilabete batzu han eremaiten zituelarik lehenago, galanterian halako aiphamen bat ukana zuela. Atsegale batzuetara hurbitzea bilatu zuen, haien galdekatzeko; baina Odette ezagutzen zuela bazakiten; eta gero, berriz hartaz gogora-araztearen beldur zen, haren hatzetan berriz haien ezartzearen. Baina ordu arteo Baden ala Nizan mundu oroko herritarren bizia bezain aspergarririk jeus idurituko etzizakolarik, behar bada lehenago atsegineko hiri horietan Odette-ek besta egina zukeela ikastean, orai Zuani esker gehiago etzuen diru behar zenbaiti ihardesteko zenez behin ere jakin ahal ukan gabe, edo berriz sor zaitezkeen burutaldi batzuer, bazagon orai, antsia ahalgabe, itsu eta burzoragarri bategin, leze ondagabeari beha, hartan hondatzera joanak baitziren neguan Angelesen ibilgunean eta udan Badeko ezkien azpian iragaitera joaiten zen zazpi urtekoaren hastapenak; eta hetan barnatasun mingarri baina miragarri bat aurkitzen zuen, poeta batek emanen zauen bezalakoa. Itsasalde Urdineko goronikako gertakari ttipien berriz ezarriko zuen, Odette-ren irriñoan edo soetan - alta hain zintzoak eta lañoak - zerbaiten hartzera lagundua ahal ukan balu, Botticelli-ren «Primavera»-ko ariman, «Vanna» ederrereanean, edo Benuzarenean aitzinago sartzera entseatzekotan, XV-en mendeko Firenzatik gelditzen diren dokumentoak galdekatzen dituen ezthetikalari batek baino suhartasun gehiago.

Ainitzetan, ezer erran gabe, Zuan hari beha zagon, ametsetan; Odette-ek erraiten zuen: «Zein trixte iduri dukan!» Etzuen oraino hain aspaldi, izaite on bat, ezagunak zituen hoberenak iduria zelako ideiatik, emazte ordaindu bat zelakora iragana zen; kontrako aldera geroztik gertatua zizakon Crécy-ko Odette-tik, behar bada atsegalez, gizon emakoiez ezagunegitik, begitarte itxuraz hain eztira, jitez hain onera berriz itzultzea. Bazion bere

baitan: «Nizan «Odette de Crécy» nor den jende guziak badakielako horrek zer erran nahi du? Omen horiek, egia izanik ere, bertzen gogamenetarik eginak dira»; leienda hori, zinezkoa izan baliz ere, uste zuen Odette-ren ganik kampo zela, etzela haren baitan nortasun ezin bildu eta gaizkin bat bezala; gaizki egitera ekharria izana ahal zen izaitea, begi onekilako emazte bat zela, oinazearendako bihotz urrikiz betea, besoetan atxikia, tinkatua eta erabilia zuen soin manukorrarekilakoa, egun batez oso-osoan berea ukan ahal zezakeena, hari beharrezkoa izaitea heltzen baliz. Hor zen, usu akhitua, ephe batendako begitartea Zuan oinazkatzen zuten gauza ez ezagunetako axolatzet suhar eta alaitik hustua; ileak eskuez baztertzen zituen; bekokia, aurpegiak zabalago iduri zizakon; orduan, bapatez, gogamen xoilki gizatar zenbait, atsedenezko edo bere gana biltzeko ephe batean bere baitara emanak direnean izaite guzien baitan dena bezalako sendimendu on bat, arrai hori bat bezala begietarik jalgitzen zizakon. Eta berehala haren aurpegia argitzen zen hala nola baserri kolorez uher bat, bapatean haren itxuraldatzeko baztertzen diren hedoiez estalia, iguzkia etzatera doanean. Ordu hetan Odette-ren baitan zen bizia, ameskerian behatzen zaukola iduri zuen ethorkizuna, Zuanek harekin uzitu ahalko zituen; nahasmen gaixto batek ere etzuen iduri hetan ondar zenbait utzia zuela. Nahi den bekanak bilakaturik ere, etziren ordu horiek debaldekoak izan. Orhoitzapenaren bidez, Zuanek zati horiek elgarri lotzen zituen, artekak ezabatzen, urrean bezala urtzen zuen Odette bihotz oneko eta eztitu bat, horrendako eginen baitzituen berantago (lan hunen bigarren zatian ikusiko den bezala) bertze Odette harek ukanen etzituen sakrifizioak. Baina ordu horiek zein bekanak ziren, eta zein guti zuen orai ikusten! Arratseko hitzartzetako ere, etzaukon azken minutan baizik emaiten ahalko zaukonez erraiten, ezen, beti Zuan libro edirenen zuela jakinez, nahi zuen lehenik bertze neherek jitea eskainiko etzaukola segur izan. Harendako ezin gehiago baitezpadakoa zen ihardespen baten beha egon behar zuelako estakurua emaiten zuen, eta Zuan etxera ekharr-arazia ukan ondoan ere, adixkide batzuek Odette-ri eskatzen baldin bazaukoten hetara joan zadin antzokian edo auhaltzeko, bozkariozko jauzi bat egiten zuen eta lasterrez janzten zen. Aphainketan aitzinatzen ari zen arau, bazegien mugimendu bakoitzak Zuan hurbiltzen zuen utzi beharko zen unera, Odette-ek olde ezin

atxiki batean ihes eginen zuenera; eta, azkenean prest, bere behako tinki eta oharpenaz argituak mirailara emaiten zituenean azken aldikotz, ezpainetan gorri apur bat ezartzen, bekokian ilexirgil bat lotzen eta arratsetako soingaineko ezkur urrezkoduna galdegiten, Zuanek hain zuen trixte iduri nun Odette-ek ezpaitzezakeen ezin-egonezko jestu bat atxik eta baitzior: «Horra nola eskertzen naukan azken minutarano atxikia ukanaz. Nik uste nialarik zerbait maitagarri banuela. Bertze aldi bateko jakitea on duk!» Batzuetan, haren samurtzeko irriskutan, bere baitan hitzemaiten zuen nora joana zen jakitera entseatuko zela, behar bada argitzen ahalko zuen Forcheville-rekin batasun baten egiteaz amets egiten. Bertzela ere arratsa norekin iraganen zuen bazakienean, ontsa bekan zen, zituen ezagutza guzietan etzuela, zeharka bada zeharka, Odette harekin egona zen gizona ezagutzen zuen norbait aurkitzen ahal eta haren ganik xehetasun bat edo bertze ukaiten. Eta adixkide bati gauza hunen edo horren argitzea bila zezan izkiriartzen zaukon batean, ihardespen gabeko galde horien egitetik gelditzeko atsedena sendi zuen eta bertze norbaiten gain galdegiteko akhiduraren uztekoa.

Egia da Zuan etzela biziki aitzinatuagoa xehetasun batzu ukanak zituelarik. Jakiteak eztu beti debekatzea ekhartzen, baina bederen badazkigun gauzak, hor daduzkagu, eskuetan ezpada ere, bederen gogoan, han gure nahitara moldatzen baititugu, eta horrek haien gainean halako botere bat badugulako lillura emaiten. Odette Charlus-ko Jaunarekin zen aldi oroz Zuan zorionean zen. Charlus-ko Jaunaren eta haren artean, Zuanek bazakien jeusik gerta etzaitzekeela, Charlus-ko Jauna harekin atheratzen zenean, Zuanendako adixkidantzaz zela eta etzuela nekerik ukanen Odette-ek zer egina zuen erraiteko. Zenbait aldiz hain bermuki errana zaukon Zuani arrats batez ezin ikus zezakeela, arratseko atheraldi bati hain atxikia iduri zuen, nun Zuani baitezpadakoa baitzizakon Charlus-ko Jauna haren laguntzeko libro izan zadin. Biharamunean, Charlus-ko Jaunari galde ainitz egitera menturatu gabe, bortxatzen zuen, haren lehenbiziko ihardespenak etzituela ontsa hartuak alegia eginez, xehetasun berri batzuen emaitera, bakoitzaren ondolik arinduago sendi baitzen, ezen berehala ikasten zuen Odette-ek arratsa atsegin garbietenan iragana zuela. «Baina nola, ene Memeñoa, eztut ontsa hartzen..., etzirezte haren etxetik jalgi ondoan Grévin erakustokian izan.

Lehenik bertze nunbait izanak zinezten. Ez? Ho! Zein bitxi den! Jostatzen nauzula ezta kizu, ene Memeñoa. Baina zer ideia bitxia ukana duen gero Gatu-Beltzera joaiteko... Ez? zuk. Bitxikeria. Oro har ezta batere ideia gaixtoa, ainitz jende ezagutzen zukeen han? Ez? Ezta nehor mintzatu? Ohigabekoa da. Beraz bi-biak horrela bakarrik egon zirezte? Badakusat hemendik. Ontsa gixakoa zira, ene Memeñoa, ontsa maite zitut.» Zuan arindua sendi zen. Gertatua zizakolarik, doi-doia behatzen zauen axolagabe batzuekin mintzo zenean, erranaldi batzuen entzutea (behazunez hau: «Atzo Crécy-ko Anderea ikusi dut, eztazagutan jaun batekin zen»), erranaldi horiek, berehala, Zuanen bihotzera orduko, molde idorrera aldatzen ziren, harrizko zerbait bezala gogortzen, urratzen zutela, eta handik ez higitzen; zein eztiak ziren aldiz hitz hauk: «Nehor etzuen ezagutzen, ezta nehor mintzatu», zein guriak, errexak, hatsegingarriak! Ephe baten buruan bazion alta bere baitan Odette-ek ontsa aspergarri aurkitzen zukeela, harekin egoiteari hautesten zituen atseginak horiek zirenaz geroz. Eta horien ezteusak, segurtatzen baldin bazuen, trahidura batek bezalako bihotzmina emaiten zaukoten.

Nora joana zen jakiten ahal etzuelarik ere, aski ukanen zuen, orduan sendi zuen antsiaren eztitzeko, eta Odette-en han izaitea, haren ondoan izaiteko goxoa baitzen haren kontrako erremedio berezi bakarra (luzara gaitza handitzen zuen erremedioa, baina bederen oinazea artean ezitzen), aski ukanen zuen beraz, Odette-ek bakarrik haizu utzi balu, hunen igurikan egoitea itzuliko zen ordu hartarano, harek eman jabalduran nahastera jinen baitziren lillura batek, sorginkeria batek bertzetarik ezperdinak zirela sinets-arazia zaukoten orenak. Baina etzuen nahi; Zuan etxera itzultzen zen; bidenabar langai batzuen moldatzera indar egiten zuen, gogoan Odette-ren ukaitetik gelditzen zen; baina, jantziak uzten zituen batean, gogamen aski alai batzuen ukaitera heltzen; biharamunean nagusi-lan zenbaiten ikustera joaiteko ezperanzaz bihotza beterik etzaten; eta argia hiltzen zuen; baina, lokhartzera prestatzeko, bere buruari hartaz - hain zizakon ohikoa - ohartzen ere etzen hertsadura baten emaitetik gelditzen zen orduko, berehala hotzikara batek hartzen zuen eta hipaka hasten zen. Zergatik zen ere etzuen jakin nahi, begiak xukatzen zituen, eta bazion irri eginez: «Goxagarri da, zainek hartzen ari naute.» Gero etzezakeen gogoan ukan, akhidura handi bat sen-

ditu gabe, biharamunean berriz hasi beharko zela Odette-ek zer egina zuen jakitera entseatzan, hura ikusi ahal ukaiteko ezagutza batzuer hel egiten. Beharrezko lan ethengabe, aldatzerik gabe, ondoriorik gabeko hori, hain bortitza zizakon, nun egun batez, egiazko bozkario bat senditu baitzuen behar bada mingaixto hilgarri bat bazuela gogatzean, jeusetaz axolaterik etzuela gehiago ukanen, eritasunak zuela manatuko, bere jostagailua egingen, azken ordu hurbildurano. Eta alabaina, usu gertatu baldin bazizakon, ordu hartan, herioaren gutizia, gutiago zen oinazen zorrotzasanari ihes egiteko egiten zuen indar beti berdinari baino.

Bizi nahiko zuen bizkitartean Odette gehiago maitatuko etzuen ordurano, hark gezur erraiteko arrazoinik ukanen etzuenarano eta haren ganik ikasiko zuenerano hea, arratsaldean ikustera izana zizakon egunean, Forcheville-rekin etzana zenez ala ez. Ainitzetan egun batzuez, Odette-ek bertze norbait maite zuelako aieruak baztertzen zuen Forcheville-ez galde horren egitetik, hortaz etzen abantzu axolatzen ere, hala nola eritasun bereko molde berri batzuek iduri baitute ephe batez aitzinekoetarik arinduak gituztela. Baina baziren egun batzu hetan aieru batek ere oinazkatzen etzuenak. Uste zuen sendatua zela. Baina biharamun goizean, atzartzean, sendi zuen leku berean, bezperako egun guzian haren sendimena iduripen guzian uhaitzean nahasia bezala zuen oinaze bera. Hau lekuz etzen aldatua, eta ere Zuan oinazearen zorrotzak zuen iratzarria.

Odette-ek ezpaitzaukon egun oroz hartua zadukaten gauza hain baitezpadako horietaz xehetasunik batere emaiten (nahiz aski luzaz bizi izana zen ehoiz ere atseginez bertzerik eztela jakiteko), etzaitekeen egun luzaz jarraikian haien asmatzen, buru-munak hutsik zabilzkion; orduan erhiaztan betespala akhituak thorratzen zituen begitako bakuna egingen zuen bezala, eta gogatzetik oso-osoa gelditzen zen. Ezezagun horren azalean bazauden alta noiztenka berriz agertzen ziren egiteko batzu, Odette-ek nahasiki jendakia urrundu edo lehengo adixkide batzuen alderako eginbehar batzuer lotzen zituenak, hauk, usu aiphatzen zauzkon bakarrak izanez Zuanen ikustera uzten etzutenak, Odette-ren biziko leku beti berdina eta baitezpadakoa egiten zutela iduri zauzkoalarik. Aitzineko egunean «Zaldilaster-lekura neure adixkide anderearekin noan eguna»-ren erraitean ukana zuen doinuaren gatik, eri zela

senditurik eta gogoan ukanik «behar bada Odette-ek ene etxetik iragan nahiko zuen», orhoitzen baldin bazen hain zuzen egun hartako zela, bazion bere baitan: «Ha! ez, jin dadin eska dezotan eztu balio, lehenago gogoan ukan behar nuen, Zaldilaster-lekura doan eguna da. Egin ahal daitekeen hartako eduk gaiten; gauza ezin onhartu eta aitzinetik ezetsi batzuetan higitzea debalde da.» Eta Odette-ri zoakon Zaldilaster-lekura joaiteko eginbide 'ta Zuanek horrela amor emaiten zaukon hori, etzizakon bakarrik ezinbertzezkoa iduritzen; baina hartzen zuen baitezpadakotasun horrek iduri zuen, hurbil ala urrundik hunkitzen zuen oro, onhargarri eta zuzen bilakatzen zuela. Odette-ek, karrikan iragaile baten ganik Zuanen baitan jelosia phiztua zuen agur bat ukan eta, horren galder ihardesten baldin bazuen, ezezagun hori aiphatzen zauzkon hiruzpalaur eginbidezkoetan sartzen, eta, behazunez, baldin bazion: «Zaldilaster-lekura harekin noan andere adixkidearen egongian zen jaun bat da», argibide horrek Zuanen aieruak ezitzen zituen, ezin hutsegina baitzizakon alabaina adixkide hark Odette-ez bertze gomit batzu ukan zitzan Zaldilaster-lekuko egongian, baina nehoiz ezpaitzuen haien itxuratzea bilatu edo egin ahal ukan. Ha! zenbat maite ukanen zuen Zaldilaster-lekura zoan andere adixkide haren ezagutzea, edo Odette-rekin hara ereman zezan! Bere ezagutza guziak nola emanen zituen Odette ohiki ikusten zuen edozeinen ezagutzeko, esku-arthatzale bat izan baliz ere edo saldegietako nes-kato bat! Haiendako erregina batzueandako baino gehiago gastu egingen zuen. Etzaukotena emanen, Odette-ren bizitik zakitenetik, bere oinazen eztigarri bakarra? Zein bozik zituen Odette-ek solastatzen zituen jende xoil horiekin egunak iraganen, ala bere abantailetan, ala egiazko lañotasunez! Zein gogotik zen Odette-ek hara eremaiten etzuen etxe zikin eta gutiziatu bateko borzkarren estaian bizitzen jarriko, han, alegia haren maitaria zela egingen zuen dendari ttipi baztertuarekin bizi izan baliz, abantzu egun oroz Odette-ren ikustaldia ukanen baitzuen! Auzoalde abantzu jende xehearen horietan, zein bizi xumean, okaztagarrian, baina ez-tian atsedenez eta zorionez betean bizitzea zuen betiereko onhartuko.

Batzuetan gertatzen zen oraino, noiz ere, Zuan aurkitua ukanik, hunek ezagutzen etzuen norbait bere gana hurbiltzen ikusten zuenean, Odette-ren begitartean ohar zaitekeela Forcheville hor zelarik ikustera ethor-

ria zizakon egunean ukana zuen trixtezia hari. Baina bekan zen; ezen, egin behar zuen guzia izanik ere eta munduak hartaz gogatuko zuenaren beldurra, Zuanen ikustera heltzen zen egunetan, Odette-ren egonaran nagusi zena segurtasuna zen: aldamen handia, behar bada berak jakin gabeko ordaina, edo ezaguna zuen lehenbiziko demboretan Zuanen ondoan, haren ganik urrun ere, sendi zuen hunkitze beldurriaren ihardokitze naturala, eskutitz bat hitz hauekin hasten zuenean: «Adixkidea, eskua hainbat ikharan dut, nun doidoietarik baitezaket izkiria» (hala zion bederen, eta, gehiago alegia egin nahi ukaiteko, hunkimen hortarik apur bat zintzoa zatekeen). Zuan gustatzen zizakon orduan. Ehoiz ehor ezta beretzat baizik ikharatzen, maite direnentzat baizik. Gure zoriona eztenean gehiago haien eskuetan, nolako errextasunaz, nolako ausartasunaz den haien ondoan gozatzen! Zuani mintzatzean, izkiri-riatzean, etzuen gehiago berea zuelako lillura ukan nahi zuenean zituen hitz hetarik, Zuanez mintzo zenean «ene», «enea» hitzen erraiteko aldiak gertarazten zituela - «Ene ontasuna zira, gure adixkidantzaren usain ona da, badatxikat enekin» - hari geroaz mintzatzekoak, herioaz ere, bi-biendako gauza ber batez bezala. Ordu hetan, Zuanek zion guziari, ihardesten zuen miresmenekin: «Zu, zu nehoiz etzira mundu guzia bezalakoa izanen»; bazagon haren buru luxe apur bar garsoilduari beha, Zuanek zuen arrakasta ezagutzen zuten jendek gogoan hau baitzuten: «Ezta erregularki ederra, nahi baduzu, baina aphaina badu: ile ttupetta hori, begitako bakun hori, irriño hori!», eta Zuan zer zen jakin-nahiagotua behar bada haren maitari izaitera gutiziatua baino, bazion: «Buru hortan zer den jakin ahal baneza!» Orai, Zuanen erran guzier, doinu batzuetan haserretu, batzuetan urrikaldu batean ihardesten zuen: «Ha! nehoiz ehiz bada mundu guzia bezalakoa izanen!» Griñak apur bat zahartuagoa baizik etzuen buruari so zagon (baina guziek orai, egitaraua irakurri den zinfonia zati bateko xedeak agertzera utz dezazkeen, eta jendekiaren ezagutzetik haur batek noren egite duen asma-araz dezakeen gaitasun haren beraren indarrez, Zuanez hau gogutzen baitzuten: «Ezta egiazki itsusia nahi baduzu, baina irriegingarria da: begitako bakun hori, ile ttupetta hori, irriño hori!», bere asmamen aiduruak eremanean moldatuz zenbait ilabeteren buruan bihotzez maitatua den buru baten eta buru adardun baten arteko muga ezin ikusia), bazion: «Ha! nihaur alda banindadi, buru hortan dena arrazoinzkoa bilaka ahal beneza.»

Beti agiantzatzen zuenaren sinestera ekharria, Odette-ek harekin zituen izanarek dudatzera uzten bazuten bakarrik, elhe hortara jauzi egiten zuen amikatuki:

- Nahi badun ahal dun, erraiten zaukon.

Eta indar egiten zuen Odette-ri erakusteko, haren ezti-araztea, bidatzea, hari lan egin-araztea, bertze emazte batzuek hortara emaita galdegiten bazik etzuten egiteko noble bat izanen zela, egiaz gaineratu behar baita haien eskuetan lan noblea etzizakola gehiago bere libertateaz jabetze ausart eta ezin jasan bat baizik idurituko. «Apur bat maite ezpaldin banindu, zion bere baitan, eluke ene bertzelakatzeko gutiziarik. Hortako gehiago ikus nezan beharko da.» Horrela zuen edireiten Odette-ek egiten zaukon erasia hortan, kasu emaiten zaukolako, behar bada maite zuelako phorogu bat; alabaina, hain guti zaukon orai emaiten nun behar baitzituen horrelakoak bezala hartu gauza bat edo bertzearendako egiten zauzkon debekuak. Egun batez, erran zaukon etzuela haren karrosazaina maite, behar bada burua haren kontra «muntatzen» zaukola, etzuela hasteko Zuanekin hark nahi zituen zuzentasun eta adeikoa. Sendi zuen Zuanek nahi zuela hitz hauen erraiten entzun: «Ene etxera jiteko etzakala gehiago harr», musu bat nahi ukanen zuen bezala. Odette omore onean baitzen, hori erran zaukon; Zuan hunkia izan zen. Arratsean, Charlus-ko Jaunarekin solastatzean, Odette-ez argiki mintzatu ahal ukaiteko gozoa baitzuen harekin (ezen Zuanen den gutieneko solasak, hura ezagutzen etzuten jendekin ere, zerbait moldez hartaz ari ziren), erran zaukon:

- Uste dut alta maite nauela; hain da gixakoa enetako, badagitana etzako segurki orobatekoa.

Eta, haren etxera joaiteko orduan, bere karrosara igaitean bidean utzi behar zuen adixkide batekin, Charlus-ek erraiten baldin bazaukon: «To, eztea Loredan alketxean jarria?», nolako bozkario gogo-ilunduan ihardesten zaukon:

- Ho! *zaprizti ez!* erranen dauiat, La Pérouse karrikara noanean eztezakeat har Loredan. Odette-ek ezetik har dezatan nahi, etzakok enetako ontsa iduritzen; azkenean zer nahi duk, emazteak, badakik! biziki gaizki har lezakekala badakiat. Ha zinez! Remi-ren hartzea askiko nian! zer ixtorioa enian ukanen!

Harekin orai Odette-ek zituen eginara berri axolagabe, gogo bazterkari, haserrekor horiek, Zuan segurki oinazkatzen zuten; baina etzen oinazeari ohartzen; emeki emeki baitzen, egunetik egunera, Odette haren aldera hoztua, orai zena hastapenean izana zenaren aitzinean zuzen ezarriz baizik etzuen gertatua zen aldakuntzaren barnatasuna neurtu ahalko. Aldakuntza hori zen bada egun oroz gau eta egun Zuanek sendi zuen zauri barnatua, segetutzkoa; eta gogamenak horri hurbilegi zoazkola sendi zue-neko, bizi-bizia bertze alde batera igortzen zituen sobera oinazkatua izan beldurrez. Bazion bada arrazoin hutsezko molde batean: «Ordu bat bazen Odette-ek maite ninduen», baina dembora hura nehoiz etzuen berrikusten. Gabinetean behatzetik baztertzen zuen komoda bat bazen molde berean, atheratzean eta sartzean haren ez ikusteko itzuli bat emaiten baitzuen, hark lehenbiziko arratsean emana zaukon dona-marte lorea han tirant batean het-sirik baitzagon, eta hetan hau zioten eskutitzak: «Nolaz eztuzu ere utzi zure bihotza, berriz hartzera etzinindutan utziko» eta «Gau eta eguneko zein ere orenez ene beharretan izanen baitzira, sienale bat ematazu eta ene bizi-az nahi duzuna egizu», bazen berdin Zuanen baitan gogo haren gana hurbiltzera uzten etzuen gune bat, behar zenean arrazoinamendu luze baten itzulia egin-arazten baitzaukon haren aitzinetik ez iragan behar ukaiteko: zorionezko egunen orhoitzapena hartan bizi zen gune hura.

Baina zuhurtzia hain arthatu horri huts egin-arazia izan zizakon mundura joana zen arrats batez.

Saint-Euverte-ko markestsaren etxean zen, gero bere garitatezko musikaldietako baliatzen zituen artixta batzu entzun-arazten zituen urte hartako azken arratsetarik batez. Zuanek, bat bertzearen ondotik aitzineko guzietara joan nahi ukana baitzuen baina joaitera deliberatu ahal izan gabe, ukana zuen, hartara joaiteko janzen ari zelarik, Charlus-ko baroinaren ikus-taldia harekin berriz markestsaren etxera itzultzearen eskaintzera jina, haren laguntzak han gutixago aspertzen lagun baldin bazezakeen, eta guti-ago trixte izaiten. Baina Zuanek ihardetsia zuen:

- Zurekin izaiteko nukkeen atseginaz eztezakezu duda. Baina egin dezaketazun atsegin handiena, Odette-ren ikustera joaita da izaitekotz. Haren ondoan zein eragin ezin hobea duzun badakizu. Uste dut eztela gaur

atheratzen lehenagoko bere dendariaren ikusten izan baino lehen hara, bertzela ere, lagun dezazun segurki atsegin ukanen baitu. Zer nahi den aitzinean bere etxean aurkituko duzu. Haren libertitzera entsea zaite eta ere arrazoinetz hari mintzatzen. Biharko laket izan dakidion eta hirurek elgarrekin egin ginezakeen zerbait antola ahal bazineza... Entsea zaite ere uda huntako xede batzuen jartzera, zerbaiten gutiziarik baldin balu, hirur-hirurek egin ginezakeen itsas-itzuli baten, nik dakita zeren? Arrats huntaz den bezainbatean, enago haren ikustekotan; baina hori nahi balu edo arte bat hartzen bazinu, eni hitz baten igortzea aski dautazu gauerdirano Saint-Euverte-ko Anderearen etxera, eta gero ene etxera. Enetako egiten duzun guziaz eskertzen zitut, zein maite zitutan badakizu.

Baroinak hitzeman zaukon nahi zuen ikustaldiaren egitera joaitea hura Saint-Euverte-ko hoteleko atherano ereman eta, Zuan hara heldu baitzen Charlus-ko Jaunak arratsa La Pérouse karrikan iraganen zuela gogoan ukaitez goxaturik, baina Odette hunkitzen etzuten gauza oroz, eta bereziki munduko gauzez axolagabe ilun batean, horien emaiten baitzauden, gure borondatearendako ez gehiago helburu bat izanez, bere baitarik agertzen zaikun zerbaiten goxotasuna. Karrosatik jautsi orduko, etxekanderek zere moniazko egunetan bere gomiter eskaini nahi duten bere etxeko biziaren laburpen alegiakoaren lehenbiziko ikuspegian, bilatzen baitute orduan jantziko eta inguruko aphaindurako egiaren errespetatzea, Zuanek atsegin hartu zuen Balzac-en «tigre» delakoen ondokoen, «groom»-en ikustean, ibilaldietako lagun ohikoak, xapela buruan eta botak oinetan, hotelaren aitzinean kampoan baitzauden ibilbidean, edo zalditegien aitzinean, bere taloinetako sarbidean lerrokaturik ezarriak izanen ziren baratzezain batzu bezala. Izaite bizen eta erakustokietako potretetan artean berdintasunen bilatzeko betidanik ukana zuen antze berezia ari zizakon oraino, baina molde jarraikiago eta orotakoago batean; bizi mundutar osoa zizakon, hartarik orai urrundua izanez, margazki lerro bat bezala aitzinean agertzen. Lehenago, mundutarra zelarik, bere soingainekoarekin sartzen zen aldategian gero handik jantzi hegaldunean atheratzeko (baina han zer gertatua zen jakin gabe, han egoiten zen ephelaburretan gogoia oraino utzi berria zuen bestan zuelakotz, edo jadanik hartara sarr-araziko zuten bestan), ohartu zen lehen aldikotz, gomit

hoin berankorraren ethortze ustegabeakoak atzarria zuen oineko mutileriari, barretua, miragarri bezain auher, han hemenka alkixka edo khutxa batzuen gainean lo, orduan, bere erbi-zakur orraze zorrotz nobleak goitituz, zutitu baitziren, eta elgarretaturik, Zuanen inguruan eman.

Bat, itxuraz bereziki abrea eta gatzigu bortitzenak itxuratzen dituzten Berphizteko margazkietan den burregoaren aski idurikoa, gauzen hartzeko aitzinera jin zizakon barkatzera emana iduri etzuen aire batekin. Baina haren alzeiruzko soaren idorra harizko eskularruen eztiak ordaintzen zuen, hala nola nun Zuanen gana hurbiltzean iduri baitzuen harendako gaitzestea sendi zuela eta haren xapelarendako errespetua. Artha handi batekin hartu zuen, eta hori neurtua zuen molde zuzenak zerbait ximen emaiten zaukon eta zuen indarrak abantzu hunkigarri bilakatzen zen beraztasun bat. Gero bere mutil lagunetarik bati eman zaukon, hau berria eta herabea, sendi zuen izialdura erakusten zuena behako erotu batzu alde orotara igorritz, eta hartua den lehenbiziko egunetan ihizi hetsi baten asaldura.

Zenbait urratsetan, sehi-jantzietan zen mutiko handi bat ametsetan zagon, geldi-geldia, gizaidurikoa, debaldekoa, Mantegna-ren margazki builatsuenetan ikusten den gurlari bakarrik aphaundurazko hura bezala, gogoa nunbait, haren ondoan oldartzen eta sarraskitzen ari direlarik; Zuanen inguruan lehiatzen ziren bere lagunetarik berex, iduri zuen, bere begi urdin-nahasi abrez doi-doi jarraitzen zizakon gertakari hortaz, etzela Inozenten sarraskia edo Jondoni Jakoberen martirioa izan baliz baino gehiago axolatzen. Iduri zuen hain zuzen Mantegnaren Paduako modela zenbaitek edo Albert Düreren Aleman batek ernaldu zaharraroko gizaiduri batetik sortu arraza itsabasi hartarik zela - edo Zuanek han ikusia zuen eta han oraino ametsetan dagon San Zeno-ko erretaulan edo Eremitani-etako harri-marrazkietan baizik ehoiz izan etzenetik. Eta haren ile gorri jitez kixkurkatuetako xerloak, baina brillantiaz lotuak, nasaiki moldatuak ziren, Mantuako margolariak ethengabe ikasten ari zituen gizaidiru greketan diren bezala, eta kreaturetan gizona baizik ezpadu itxuratzen, baitaki bederen haren molde xoiletarik aberastasun hain aldakor eta natura osotik hartu bezalakoan atheratzen, nun adats batek, bere kuxkulen itzulikatze leun eta moko xorrotzetan, edo bere trenzen diadema hirurkunen eta loratzen ari denaren goitian, iduri baitu aldi berean gorbela meta bat, urxo ohandze bat, jazinto xerlanga eta suge bihurdukatze bat.

Bertze batzu oraino, gaitzekoak hek ere, mailadi handi baten mailetan zauden, haien han izaite aphaindurazkoak eta harbiziko geldiak izendarazi ahalko baitzuen, Dogen Palaziokoa bezala: «Ziganten Mailaldea», eta Zuan hartan abiatu baitzen Odette-ek etzuela nehoiz ere igana gogatzeko trixteziarekin. Ha! Nolako bozkarioarekin aldiz iganen zituen dendari ttipi erretiratuaren estaia beltz, usaindu eta lepho hauskarriak, hartako «borzkarrenean» hainbat zorion ukanen baitzuen arratsaren iragaiteko dretxoaren ordaintzen, Opera-n asteko aitzin-egongia bat baino kharioago, Odette hara zoan arratsetan, eta bertze egunetan ere, hartaz mintzatu ahal ukaiteko, Zuan hor etzenean ikusten ohitua zen jendekin bizitzen, ezen horren gatik iduritzen zizakon bazadukatela gorderik, maitearen bititik, zerbait egiazkoago, helgaitzago eta mixteriozkoago. Lehenagoko dendariaren mailalde usaindu eta gutziziatu hortan aldiz, zerbitzuko bigarrenik ezpaitzen, arrats oroz athe bakoitzaren aitzinean ikusten zelarik esne untzi huts zikin bat oinpekoan prest ezarria, Zuanek ordu huntan igaiten zuen mailalde handiegin eta gaitzetsian, alde batean ala bertzean, goratasun erperdinetan, harresian etxezaindegiko leihoak edo bizitegi bateko atheak bazegien zilogune bakoitzean, manatzen zuten barneko zerbitzua itxuratzen zutela eta gomiter gizamena emaiten, etxezain bat, etxe-buruzagi bat, zilhargin bat (astearen gaineratekoa bakoitzak bere eremuan apur bat bere gain bazeramaten jende gaizoak, han botigazain ttipi batzu bezala auhaltzen baitziren, eta bihar mediku baten edo industriari baten zerbitzu burjestarrean izanen behar bada), arte bekan batzuetan baizik janzten etzuten eta hartan ez hain errexean sendi ziren mutil-jantzi argi-biziai ezarri baino lehen egin izanak zitzezteen gomendioer ez huts egiteari oharrean, bazauden bere athariaren arku-pean, lañotasun jendetarrez eztitu distira ospedun batekin, saindu batzu bere saindutegian bezala; eta gaitzeko suiza batek, elizan bezala jantzia, lauzak bere makilaz joiten zituen gomit bakoitzaren iragaitean. Mutil begitarte zurpail bat, ile buxtan buru gibelean floka batez estekatu batekin, hala nola Goya-ren sankristano bat edo aurkibide idazkari bat, luzaran jarraikia zizakon mailaldekoko gainaldera heldu eta, Zuan bulego baten aitzinetik iragan zen, han mutil batzuek, errexistro handi batzuen aitzinean notari batzu bezala jarriak, zutiturik, haren izena izkiriatu baitzuten. Gero aldategi ttipi bat iragan zuen, harek - ja-beak ederlan bakar baten kadretzat baliatzeko antolatatu dituen barne batzu

bezalako, bere izena hartarik hartzen baitute, eta, nahi ukan den murriz batean, bertzerik jeus ez edukitzen - sartzean orori erakusten baitzuen, Benvenuto Cellini-ren itxura baliodun batek gizon bat goaitan itxuratzen duen bezala, mutil-jantzi gazte bat, soina aitzinera apur bat gurturik, lephoko zut gorriaren gainera begitarte oraino gorriago bat goitituz, handik baitzarioten uhainka suak, herabeak eta ongi egin nahiak, eta, musika entzuten zen saloinaren aitzinean hedatuak ziren Aubusson-go tapizeriak zilatuz, bere so oldardun, erne, galduaz, soldado baten geldian edo naturaz gaineko sineste batean - asaldamenduaren alegoria, igurikatzearen haragitzea, gudurako deiaren aipamena - , iduri baitzuen goaitatzen zuela, aingeru ala barrandari, jaurdorre ala kathedrale bateko ezkiladorretik, etsaiaren agertzea edo Juja-menduko orena. Zuani etzizakon musikaldiko salan sartzea baizik gelditzen, athezain gatinaz kargatu batek hango atheak ideki baitzauzkon, gurtuz, hiri bateko gakoak emanen zauzkon molde berean. Baina gogoan zuen ordu berean han izanen ahal zen etxea, Odette-ek onhartua ukan balu, eta oinpeko baten gainean doi-doi ikusi esne-untzi baten orhoitzapenez bihotza hertsatua ukan zuen.

Zuanek laster berrediren zuen gizonen itsustasunaren sendimendua, tapizeriaren haraindian, mutilen ikusgarriari gomitena jarraiki zizakonean. Baina begitarten itsusi hori ere, alta ontsa ezagutzen zuena, berri iduritzen zizakon, haien aurpegiak - ordurano jarraiki behar zizaien atsegin, baztertu behar ziren nazka, edo ordaintzeko ziren ikustate andana bat itxuratua zaukon jende zenbaiten ezagutzeko seinale xoilki baliagarri batzu izaiteko orde - bazuendaz geroztik, bakarrik ezthetikazko arau batzuez elgarri loturik, bakoitza bere baitako molde berezian. Eta haien erdian tinkatua gertatu zen gizon horietan, etzen orai, ainitzek zituzten begitako bakunetarano (lehenago, Zuani gehien-gehienik ezpaitzaukoten begitako bakun bat bazutela baizik erran-araziko), ohidura bat, ororendako bera erran-nahi ukaitetik liberaturik, bakoitza halako nortasun batekin agertzen etzizakonik. Sartzen solasean ari ziren Froberville-ko jeneralari eta Bréauté-ko markesari ezpaitzauen behar bada so egin margazki bateko bi personaieri bezala baizik, «Jockey»-ra ekharria eta buruz-buruko guduetan lagundua zuten adixkide baliagarriak izanak zirelarik, jeneralaren begitakoa, obuz baten ezkaila bezala betespalen

artean gelditua haren begitarte arrunt, zarraztatu, garhailean, Begi-bakoiztunaren begiak bezala zilatzen zuen bekokiaren erdian, zauri izigarri bat bezala agertu zizakon Zuani, ukana izaitea lorios izan zaitekeena baina orori erakustea ausart; Bréautéko Jaunarenak, aldiz, bestakari bezala, eskularru beltz-xuri arinen, «gibus»-aren, lephoko xixter zuriaren gainera ezarria zuena eta ohiko begitordea hartaz ordaintzen (Zuanek berak bazegien bezala) mundura joaiteko, bazekarren, giblean loturik, hala nola mikrozkopa baten azpian ixtorio naturaleko aphailamendu bat, behako ezin ttipiagotu bat amultsutasunez ihautua, gelditu gabe irriño bat igorritz tronaduren gorari, besten ederrari, ikuskizunen atsegingarriari eta edarien onari.

- Oizu, zu hemen, baina badira eternitateak etzitugula ikusia, erran zaukon Zuani jeneralak, haren itxura akhituari ohartuz eta hortarik eginenez eritasun handi batek zuela behar bada mundutik baztertzen, gaineratu baitzuen: «Ontsa zira, badakizu!», Bréauté-ko Jaunak galdegiten zuelarik: «Nola, zu, adixkidea, zer ari zira bada hemen?» begitako bakuna begi izkinan ezarri berria zuen elhaberrilari mundutar bati, urrikirik gabe gogoetan barna ikhertzeko zuen tresna bakarra, hunek itxura gotorr eta mixteriozko batean erantzun baitzuen, *rr*-ak luzatuz:

- Barrandan nago.

Forestelle-ko markesaren begitako bakuna ñimiñoa zen, bazterrik batere gabe, eta, begia tinkatze ethengabe mingarri batera bortxatuz hartan loturik baitzagokon han izaitea ezin argigarria den eta ekheia arraroa duen hexurki bat bezala, markesaren aurpegiari bazemakon beraztasun hits bat, hortarik anderek uste baitzuten maitasunezko pena handi batzuen ukaiteko gai zela. Baina Saint-Candé-ko Jaunarena, gaitzeko erhaztun batez inguratua, Zaturno bezala, ordu oroz hartarik arautzen zen begitarte baten erdigunea zen, sudur daldarari gorria eta aho ezpain handi erkaiztuna ari zizazkolarik, bere sinoez, berinazko uztaia hetaz dirdiran zagon izpirituzko phindarren heinean izaitera indar egiten, eta munduko behako ederrener hautetsia ikusten baitzen lillura alegiazko eta atsegin xorrotxez amets egin-arazten zauen andere gazte handi-uste eta biziatu batzuen ganik; bitartean, bere begitakoaren giblean, Palancy-ko Jaunak, begi biribilekilako bere arrain buru handiarekin, baitzabilan emeki bestaren erditik bere matel-hezur-

rak artetan bidearen hautatzeko bezala idekiz, iduri zuen berekin zeramala bere urtegiaren berinatetik zati bat bakarrik ustegabekoa, eta behar bada osoki itxurapenezkoa, urtegi osoa itxuratu behar zuena, eta Zuan, Giotto-ren Paduako *Bizioen* eta *Bertuten* miresle handia, orhoit-arazi zuena egoiten den ziloa gordetzen duten oihanak gogoratzen dituen aldaxka orstatu bat bere ondoan dadukan Zuzengabe hartaz.

Zuan aitzinatua zen, Saint-Euverte-ko Andereak orthoizturik, eta, xirulari batek joiten zuen *Orphée*-ko aire baten entzuteko, xoko batean emana, handik ezpaitzituenez zorigaitzez ikuspegi bakarretako biak elgarren ondoan jarririk zauden bi andere jadanik adineko baizik, Cambremer-ko markestsa eta Franquetot-eko bizkondesa, hauek, gusi izanez, auhalondoe-tan dembora iragaiten baitzuten gara batean bezala, bere xakuak eskuan eta alabak gibeletik bat bertzearen bila eta ezpaitzirenez seseguan bere haizeztatze-koaz edo mokanesaz bi auzoko leku markatuak zituztenean baizik: Cambremer-ko Anderea, munduan biziki ezagutza guti ukanez, lagun baten ukaitez are gehiago zorionean zen, Franquetot-eko Andereak, aldez biziki ezaguna izanez, zerbait aphaizirik, berezirik aurkitzen zuelarik bere ezagun eder horier erakustean gaztaroko orhoitzapenak elgarrekin zituzten andere ez ezagun bat hautesten zuela. Irkaintz ilun batez betea, Zuanek ikusten zituen xirilako aireari jarraikia zizakon pianoko arte-musikari beha (Liszt-en «San Frantses xorier mintzo»), eta pianixtaren joko burxoragarriari beha, Franquetot-eko Anderea antsiarekin, begiak galduak, hetan lasterrez zalutasunekin zabilan joguneak lauretan hogeitaz goratik eror zaitezkeen trapeza lerro bat izanak balire bezala, ez eta auzoko andereari ustegabeko eta ezezko so batzu igorri gabe, erran nahi baitzuten: «Ezin sinetsia da, gizon batek hori egin zezakeela ehoiz enuen usteko»; Cambremer-ko Andereak, musikako erakaspen azkar bat ukana duen emazte bezala, metronomako balanzari bilakatua zen buruaz neurkada joiten zuela, soingain batetik bertzeraren hunen harat-hunataren neurria eta lasterra halakoak bilakatuak zirelarik (oinaze handiegiek eta neurrian egoitea gehiago bilatzen ez tutenek duten so mota galdu utziarekin, diotelarik «Zer nahi duzu!») nun, noiz nahi, beharrik diamant bakunak gortzeko mihier lotzen baitzizakon eta behar baitzituenez iletan zituen mahats beltzak berriz goititu, horren gatik mugimenduaren lasterra gelditu gabe.

Franquetot-eko Anderearen bertze aldean zen, apur bat aitzinago, Gallardongo markesta, bere gogamen hautukoaz hartua, Guermantes-tarrekin zuen ahaidegoaz, hortik munduaren eta berarendako ospe ainitz ukaiten baitzuen ahalge doi batekin, haietan ziren omen handienekoe apur bat bazterrean baitzadukaten, behar bada aspergarria zelakotz, edo gaixtoa, edo beheragoko adar batekoa, edo berdin arrazoinik batere gabe. Ezagutzen etzuen norbaiten ondoan gertatzen zenean, hala nola orai Franquetot-eko Anderearenean, oinazetan zagon Guermantes-tarrekilako ahaidegoaz zuen konziencia kampora agerian eman ezpaitzaitekeen seinale ikusgarrietan, hala nola, eliza bizan-ziarretako mozaiketan, bat bertzearean azpian zutabe baten aran ezarririk, saildu baten ondoan, erraiten dituela uste izan behar den hitzak emaiten dituztenetan. Ordu hartan gogoan zuen ehoiz etzuela gomit bat ez ikustaldi bat ukana bere gusi gazte Laumes-ko prinzesaren ganik, hau ezkondua zen sei urtez gerotzik. Gogoeta horrek haserrez betetzen zuen, baina burgoitasunez ere; ezen, Laumes-ko Anderearen etxean haren ez ikustez ustegabetzen ziren jender, han Mathilde prinzesaren aurkitzeko irriskutan izanen zela eraiterean bortxaz - hori ezpaitzaukon bere familia legitimixta baino legitimixtagoak ehoiz barkatuko -, alabaina gusi gaztearen etxera ez joaiteko zuen arrazoina hori zela sinestera jina zen azkenean. Orhoit zen alta Laumes-ko Andereari nola aurki zezakeen aldi bat baino gehiagotan galdegina zaukola baina ez nahasiki baizik, eta bertzela ere orhoit apur bat aphaigarri hori osoki ezabatzen zuen murmurikatuz: «Lehenbiziko urratsen egitea eztago hala ere eni, hark baino hogeit urte gehiago baditut.» Bere baitan zeratsan hitz horien bertuteari esker, soingainak gorputzetik berezirik gibeler a burgoiki emaiten zituen, hetan burua abantzu etzanik ezarriak gogoratzen zuela mahi batean bere luma guziekin zerbitzatzen den faizant urguluntzi baten buru apailatua. Etzen hori jitez tipitua, zukuta eta topoloa zelakotz; baina ukanak zituen eskergaitz ahalgegarriek zutitua zuten hala nola zuhatz batzu, moldegaizki erroitz baten ondoan sortu eta, gibeler a eginez handitzera bortxatuak bere plomuaren atxikitzeko. Ez osoki-osoki bertze Guermantes-tarren berdina izaitiaz konsolatzeko, prinzipioetan ez amor emaitiaz eta burgoitasunez zituela hoin guti ikusten bere buruari ethengabe erraitera bortxatua, gogoeta horrek soina bermoldatua zaukon azkenean eta halako ederbegi bat harr-ara-

zia, burjestsen begietan arrazako seinale batendako hartzen zena eta artetan munduko gizonen behako akhítua gutizia izpi batez phizten zuena. Gallardon-go Anderearen solastatzeari jasan-arazi balizako, hitz bakoitzaren guti edo aski errepikatzearen hartzeaz, hizkuntza gorde baten giltza aurki-arazten ahal duten ikhermen hetarik, norbait ohartuko zen etzela itzuli bat, ohikoen ere, «ene Guermantes gusien etxean», «Elzear Guermantes-koaren osagarria», «ene Guermantes izabaren etxean», «ene Guermantes gusiaren antzokiko egongia» baino usuago itzultzen. Omen handiko norbait aiphatzen bazizakon, ihardesten zuen, berak hura ezagutu gabean, Guermantes-tarren etxean mila aldiz aurkitua zuela, baina hori doinu hain hotz-hormatu batean eta mintzo hain ithoarekin nun, berak ezpazuen ezagutzen, hori soingainak gibel-arazten zauzkon prinzipio ezin ekhendu eta hisituen gatik zela, hala nola bulharren azkartzeko gimnaztikako erakaslek zu etzan-arazten zituzten zurubi hetan.

Bada, Laumes-ko prinzesa, Saint-Euverte-ko Anderearen etxean aurkitzea uste ukanen etzena, haien zuzen ethorri berria zen. Hara bihotzontasunez baizik jiten etzen saloin batean etzuela bere lerroko lehentasunaren sendi-araztea bilatzen erakusteko, soingainak aphalduz sartua zen mozteko jendetzerik batere ez aitzinean iragaitera uzteko nehor etzen lekuan ere, espesuki giblean geldituz, han bere lekuan zelako itxurarekin, errege bat bezala antzoki baten athean lerroan egonki buruzagiek hor dela jakina eztuteno; eta, hor zela eta errespetuak eskatzen zituela ez iduri ukaiteko, soa bakarrik tapiza bateko edo bere zaiako marrazki bati beha mugatuz, bazagon zutik lañoena iduritua zizakon lekuan (ontsa baitzakien handik Saint-Euverte-ko Anderearen oihu loriatu batek atherako zuela hunek ikusia ukanen zue-neko), ez ezaguna zizakon Cambremer-ko Anderearen ondoan. Bere auzo musikazalearen sinokeriari beha zagon baina hark bezala egin gabe. Hori etzen, Saint-Euverte-ko Anderearen ondoan bortz minuten iragaitera heldu zen aldi bateko, Laumes-ko prinzesak etzuelakotz, egiten zaukon ikustateak balio bikuna ukan zezan, ahal bezain amultsua izaiteko gutiziarik. Baina, jítez, «soberakeriak» zeritzeenak hastio zituen eta erakutsi nahi zuen etzuela hartan bizi zen idego motarekin etzoazen agerpen batzuen erakusteari emaita beharrik, nahiz bertzaldetik alta etzuten hunki gabe uzten, leku berri bateko ingurumenak, aphalagoa baliz ere, bere buruaz segurrenean diren jendetan

berdin, handi-arazten duen eta herabetasunetik hurbila den bertzek bezala egiteko gogoari esker. Bere buruari galdez hasten ari zen hea jestueria hori etzenez joiten zen musikak eta behar bada egun hartarano entzuna zuenaren motan sartzen etzenak nahitez eman-arazten zuena, geldirik egoitea etzenez ederlanaren aldera hartzegabearen erakustea eta etxekanderearenera ikustategabearen; hala nola nun, elgarren kontrako sendimendu horien adi-arazteko «hautsi-mautsi» batez, ari baitzen noiz soingainetako uhalaren goititzen edo bere ile horietako korail edo esmail gorraxtazko biribil ttipien, diamantez izoztuen, ile-antze loriagarri pollit bat egiten zauzkotenen segurtatzen, auzo suhartasunez betea ikus-nahi hotz batekin ikertzen zuen batean, noiz ephe batez haizeztatzekoarekin neurkadaren joiten, baina, bere jabetasunari ez ukho egiteko, kontraneurrian. Pianixtak Liszt-en zatia bururaturik eta Chopin-en aitzin-musika bat hasirik, Cambremer-ko Andereak igorri zaukon Franquetot-ekoari askieste jakinduru batez eta iragan aroaren aieruaz xamurtu irriño bat. Gaztaroan ikasia zuen Chopin-en aire ingurukatuz luzatuen pherekatzen, hain libroak, hain malguak, hain hunkikoak, bere lekuaren bilatzen eta entseatzen hasten baitira abiatu diren aldetik kampo eta ontsa urrun, haien hunkitzea helduko zela uste zen unetik ontsa urrun, ezpaitira oldezko baztertze hortan berriz deliberatukiago baizik joiten - aitzinetik gogatu, zuzenagoko itzultze batean, oihu egin-arazteranoko ozentasunean joren zuen krixtail baten gainean bezala - zure bihotzaren joitera itzultzeko baizik.

Ezagutza guti zuen, jantzaldietara guti zoan familia probinziar batean bizi izanez, bere jauregiko dorrearen bakartasunean xoraturik egona zen, asmatzen zituen birazkako guzien dantzaren emekitzen, lehiatzen, lore batzu bezala orstokatzen, ephe batez dantzaldiaren uzten haizearen entzuteko izaietan ufaka, aintziraren bazterrean, eta han bapatez aitzinera heldu, lurreko maitariez ehoiz asmatu denetik ezperdinago, mutiko gazte lerdan baten ikusten, mintzoa apur bat kantari, atzerritar eta makur, eskularru xurietan. Baina musika horren edertasun xahartuak higitua iduri zuen orai. Urte zenbaitez geroztik ezagulen estimutik gabetua, galduak zituen bere ohorea eta gozagarritasuna, gustu gaitza dutenek ere etzaukoten atsegin ezin aithortu eta bien arteko bat baizik aurkitzen. Cambremer-ko Andereak behako bat eman zuen ebaska gibelera. Bazakien bere erren gazteak (familia berriaren-

dako errespetuz betea, izpirituari doazkon gauzetan salbu, hetan, harmonia eta greka ere ikasiak ukanez, argi bereziak baitzituen) Chopin gutiesten zuela eta joiten entzuten zuenean pairatzen. Baina bere adineko jende batzuekin haratago zen «wagneriar» horren begirantzatik urrun, Cambremer-ko Andereak uzten zuen bere burua atsegin goxo batzuetara joaiten. Laumes-ko prinzesak sendi zituen ere. Jitez musikarako dohainik gabe, zuela hamabortz urte pianoko ikastaldi batzu ukanak zituen Saint-Germain bazter-hiriko erakasle baten ganik, emazte jeinuko bat bizi azkenean, hiruretan hogeitahamar urtetan, bere lehengo ikaslen alaba eta alababixier ikastaldi emaiten berriz hasteko beharrera bortxaturik izana. Hila zen orai. Baina haren erakas-moldea, soinu ederra, batzuetan berphizten ziren haren ikaslen erhien azpian, bertzela jende bien arteko batzu bilakatuak zirenenetan ere, musika utzia eta pianoa abantzu nehoiz ez idekitzen. Hortako Laumes-ko Andereak burua higitu ahal zuen, jakitate betean, gogoz ikasia zuen aitzin-musika hori pianixtak joiten zuen araren estimu zuzen batean. Hasia zen aireko bururapenak berainik kantatu zuen haren ezpainetan. Eta murmurikatu zuen: «Beti xxoragarri da», hitz hasteko *x* bikun batekin, beraztasunezko erakusgarri bat zena eta hartaz sendi zituen a ezpainak lore eder bat bezala hain hunkigarriki ximurtuak, nun soa oldez haiekin arautu baitzuen, bazemola orduan halako uherdura sendimenduzko bat. Bitartean Gallardon-go Andereak bazion bere baitan nardagarri zela ontsa bekan baizik ukan etzezan Laumes-ko prinzesaren batzeko aldirik, baitzuen hari ikastaldi baten emaiteko gutizia haren agurrari ez ihardetsiz. Gusia hor zuela etzakien. Franquetot-eko Anderearen buru aldaratze batek agertu zaukon. Berehala haren gana lasterrez lehiatu zen; baina, itxura gorati eta hotz-hormatu bat hartuz orori orhoit-arazteko etzuela harremanik nahi haren etxean Mathilda prinzesarekin bekoz-beko gerta ahal zaitekeen jende batekin eta «adin berekoak» etzirelakotz haren aitzinera joaiterik etzuenarekin, nahi ukan zuen alta itxura gora eta begiratu horrek bazegien urratsa garbi zezan eta prinzesa solastatzera bortxa zezan hitz batekin, erran zaukon: «Nola dun senarra?» printzea biziki eri ukan baliz bezalako mintzo griñatuarekin. Prinzesak, aldi berean norbaitez trufan ari zela bertzer erakusteko eta ere begitartea aho ernearen eta behako argiaren ingururan bilduz bere buruaren pollitago agerr-arazteko egona zen eta berezia zuen irri baten karkailetan ihardetsi zaukon:

- Baina ezin hobeki!

Eta berriz irri egin zuen. Soina goititzen zuen bitartean eta aurpegia hozten, printzearen osagarriaz oraino alta urduri, Gallardon-go Andreak erran zaukon gusiari:

- Oriane (hemen Laumes-ko Andreak itxura ustegabetu irrikor batean so egin zuen ezin ikusia zen norbaiti eta Gallardon-go Anderea izen ttipiaz deitzera nehoiz ere haizu utzia etzuela lekuko hartu nahi zuela iduri zuenari), biziki nahi niken bihar etxera ephe batez jin hindakitanan Mozart-en klarinetarekilako laurko baten entzutera. Zer dionan jakin nahi niken.

Iduri zuen etzuela gomit bat egiten, baina zerbitzu bat eskatzen, eta Mozart-en laurkoaz prinzesaren eritzi beharretan zela, kozinersa berri batek moldatu janari bat izan baliz bezala haren antzeaz jale hautatu baten aburua-
ren ukaitea baitezpadakoa zizakona.

- Baina laurko hori ezagutzen dinat, eta berehala erran dezakenat... maite dinatala!

- Badakin, senarra ez tinat ontsa, bere gibelmina..., hire ikusteaz atsegin handia liken, egin zuen berriz Gallardon-go Andreak, bazegiola orai prinzesari haren arratsaldian agertzeaz garitatezko eginbide bat.

Haien etxera joan nahi etzuela jender erraitea prinzesak etzuen maite. Egun oroz izkiriitzen zuen hara joaitea ehoiz ere buruan ukanen etzuen atheraldi batez - amaginarrebaren ustegabeko ikustaldi baten gatik, koinataren gomit baten gatik, baserrirako itzuli baten gatik - gabetua izanik zuen dolua. Ainitz jender emaiten zuen horrela haien ezagutzetarik zela sinesteko bozkarioa, haien etxera gogotik joanen zela, etzuela egin ahal ukana hek bere arratsaldiarekin burkidegoan sartzen ikusteaz lausengatuak ziren behargabe printzetar batzuen gatik baizik. Gero, Guermantes-tarren idego izpiritudunekotik izanez, han oraino bizi baita Mérimée-tik jausten den izpiritu erne, leku arrunt eta sendimendu ohitu gabeko hartarik, eta azkenik Meilhac eta Halévy-ren antzertietan agertu denetik zer bait, hori moldatzen zuen gizarteko harremanetara ere, baikor, zuzen izaitera, egia lañora hurbiltzera entseatzen zuen jendetasunerano aldaratzen. Etxekandere bati etzaukon haren arratsaldira joaiteko zuen gutziaren erraitea luzatzen; gixakoago iduritzen zizakon hara joan ahal izaitzea edo ez haien menea zen egintza ttipi zenbaiten aiphatzea:

- Ori, erranen daunat, egin zaukon Gallardon-go Andereari, neure egunaldia atxik dezotan aspaldidanik eskatua dautan andere adixkide baten etxera joan behar dinat bihar arratsean. Antzokira eremaiten bagitu, eztun, nahi den gogo onarekin ere, hire etxera jiteko ahalik; baina haren etxean egoiten baldin bagira, gu bakarrik izanen girela baitakit, uzten ahalko dinat.

- Ori, Zuan hire adixkidea ikusia duna?

- Baina ez, Charles maite hura, hor zela enakinan, ikus nezan entsegu eginen dinat.

- Saint-Euverte-saren etxera ere jin dadin bitxi da, erran zuen Gallardon-go Andereak. Ho! adimendukoa dela badakit, gaineratu zuen azpikaria zela erran nahiz hortarik, baina hala ere, Judu bat bi arxapezpikuen arrebaren eta errenaren etxean!

- Ahalgerekin aithortzen dinat enizala hortaz ofensatua, erran zuen Laumes-ko prinzesak.

- Konbertitua dela badakinat, eta jadanik haren gurasoak eta aitari-amatxiak ere. Baina erraiten dine konbertituak bere erlisioneari bertzeak baino atxikiagoak gelditzen direla, itxura hutsa dutela, eztea hala?

- Gai hortan ezinat argirik batere.

Pianixtak Chopin-en bi zati jo behar baitzituen, aitzin-musika bururaturik, berehala polonesean hasia zen. Baina Gallardon-go Andereak bere gusia Zuan-en hor izaiteaz oharr-arazia zuenez geroztik, Chopin bera berphizturik bere lan guzien joitera jiten ahalko zen Laumes-ko Anderea hortaz ohartu ahal izan gabe. Gizaldearen bi erdietarik batekoa zen, hartan bertze erdiak ezagutzen eztituen izaitendako duen jakin-nahia ordaintzen baitu ezagutzen dituenendako duen axolak. Saint-Germain bazter-hiriko ainitz emaztek bezala, zen lekuan bere idegoko norbaiten izaiteak, eta nahiz jeus berezirik etzuen hari erraiteko, oharpena osoki hartzen zaukon bertze guzien kaltetan. Orduetik, Zuan ohartuko zizakolako ustean, prinzesak etzuen gehiago egin, azukreño bat eskaintzen eta gero ekhentzen zakon sagu xuri hezi batek bezala, begitartearen itzultzea baizik, gogaidetasunezko mila kheinu eta Chopin-en polonesaren sendimenduarekin jeus ikustekorik etzutenez betea, Zuan zagon aldera, eta hau lekuz aldatzen bazen arau berean egiten zuen bere irriño haren gana itzulia.

- Oriane, ehadila gaitzi - egin zuen berriz Gallardon-go Andereak ezpaitzaitekeen egon bere gizarteko itxaropen handiak eta mundua egun batez lilluratuko zuelako ustea, zerbait gozagaitzen berehala erraiteko atsegin ilunari sakrifikatu gabe -, jende batzu badira, Zuan Jaun hori, eztaitekeela etxera ethorr-araz diotenak, egia dea?

- Baina... egia dela badakiken, ihardetsi zuen Laumes-ko printzesak, berrogei-ta-hamar aldiz gomitatua dunalarik aldi bat ethorri etzaunanaz geroz.

Bere gusi gaitzituaren uztean, berriz egin zuen musika entzuten zutenak khexatu zituen irri karkaila bat, baina Saint-Euverte-ko Anderearen oharpena bereganatu, ikustatez pianoaren ondoan egona baitzen eta bakarrik orduan baitzuen prinzesa ikusi. Laumes-ko Anderearen ikusteaz are gehiago zen Saint-Euverte-ko Anderea loriatua nun uste baitzuen oraino Guermantes-en zela bere aitagarreba eriaren arthatzen.

- Baina nola, prinzesa, hor zinen?

- Bai, xokoño batean egona nintzan, gauza ederrak entzun ditut.

- Nola, memento luzea bazen jadanik hor zinela?

- Baina ba, luze luze bat biziki labur iduritu zatana, luze bakarrik ezpaitzinitutan ikusten.

Saint-Euverte-ko Andereak jargia bat eman nahi ukan zaukon prinzesari hunek ihardetsi baitzuen:

- Ez eta ez! Zergatik? Nun nahi ontsa niz.

Eta, nahitara, andere handi baten lañotasunaren hobeki erakusteko, bizkarrik gabeko alki ttipi bati ohartuz:

- Oizu, alketx hori, behar dutan guzia da. Horrek zut atxik-araziko nau. Oi! Jainkoa, harrabotsa egiten dut oraino, neure burua uhaka-araziko dut.

Bitartean pianixtak lasterra bikunduz, musikako sendimendua goren-gorenean zen, mutil bat iragaiten ari zen plat batean ekharri edateko emaiten kullerak jo-arazten zituela, eta Saint-Euverte-ko Andereak joan zadin kheinu batzu egiten zauzkon, hark ikusi gabe. Andere espos berri bat, emazte gazte batek axolagabetua iduritu behar eztuela ikasia baitzizakon, atseginezko irriño batean zagon, begiez etxekanderea bilatzen zuen bitar-

tean horrelako gozaldi bateko hura «gogoan ukana ukaitez» eskertzen zuela behakoaz erakusteko. Alta, nahiz Franquetot-eko Andereak baino ez-titasun gehiagorekin, etzizakon musikari khexurik gabe jarraikitzen; baina haren khexuaren arrazoina, pianixtaren orde, pianoa zen, haren gainean ez-kargi bat jauzten baitzen «fortissimo» bakoitzean eta irriskatzen baitzuen, argi-estalgari su emaiten e-zpazuen, bederen zur gorri-nabarren orbaintzea. Azkenean ezin egon zen eta, pianoa ezarria zen tauladaren bi mailak iraganez, ezko-bilgiaren ekhentzeko laster egin zuen. Baina dodoia zoan eskuez haren huntitzera, azken notalde batean, musika bururatu baitzen eta pianixta zutitu. Hala ere emazte gaztearen lehen urrats suharrak, haren eta joilearen artean horrek egin zuen hurbiltasun laburrak, sortu zuten sendimendu bat orotara haren aldekoa.

- Andere horrek egin duenari ohartu zirena, prinzesa, erran zaukon Froberville-ko jeneralak agurtzera jina zizakon Laumes-ko prinzesari eta Saint-Euverte-ko Andereak ephe batez utzi zuenari. Bitxi da. Artixta bat dea?

- Ez, Cambremer-ko Andere ttipi bat, ihardetsi zuen prinzesak ohar-tu gabean bezala, eta bizi-bizia gaineratu: Erraiten entzun dutana errepikatzen dautzut, nor denaz ezer ez-takit, ene gibelean erran dute Saint-Euverte-ko Anderearen baserriko auzo batzu direla, baina nehork ezagutzen dituela ez-tut uste. «Baserriko jende batzu» datezke! Bertzela ere, ez-takit hemen den gizarte aiphukoan biziki sartua zirenez, baina jende ustegabegarri horien guz-ien izenaz den gutieneko ideiarik ez-tut. Zertan uste duzu bizia deramatela Saint-Euverte-ko Anderearen arratsaldietarik harat? Musikariek, kaderekin eta edariek, batean ekharr-araziak dituzke. Aithor ezazu «Belloir-en etxeko gomit» horiek miragarri eder direla. Ba ote du zinez aste oroz alegiako ikusle horien guz-ien alokatzeko kuraia ? Ezina da!

- Ha! baina Cambremer, izen egiazkoa da eta zaharra, erran zuen jeneralak.

- Zaharra izaitean gaitzik batere ez-tut ikusten, ihardetsi zuen idorki prinzesak; baina zer nahi den ez-tu beharrira ontsa *joiten*, gaineratu zuen hitz hori gakotxen artean izan baliz bezala agerr-araziz, Guermantes idegoaren berezitasuna zen mintzatzeko molde hautatuarekin.

- Uste duzu? Gustagarriki pollita da, erran zuen jeneralak e-zpaitzuen Cambremer-ko Anderea begietarik uzten. Ezta zure aburua, prinzesa?

- Gehiegi aitzineratzen da, uste dut emazte gazte baten baitan, eztela hori gozagarri, «gure adinekoa dela» ezpaitut uste (erran-molde hori Gallardon-dar eta Germantes-tarrek elgarrena zuten).

Baina prinzesak ikusten baitzuen Froberville-ko Jaunak Cambremer-ko Andereari so jarraitzen zuela, gaineratu zuen, erdi Anderearendako gaiztotasunez, erdi jeneralarendako ikustatez: «Ez gozagarri... haren senarrarendako! Ez ezagutzeaz urriki dut, hari hoin atxikia zirenaz geroz, aitzineratuko nautzun», erran zuen prinzesak, nahiz ezer horrelakorik etzuen eginen emazte gaztea ezaguna ukan balu. «Gauon erran beharko dautzut, agiantzatzera joan behar naukon andere adixkide baten besta baita, erran zuen doinu laño eta zintzo batean, hara zoan bilkura mundutarra zeremonia aspergarri - baina han izaita beharrezkoa eta hunkigarria zen - baten heinera hertsituz. Bertzela ere han Basin aurkitu behar dut, hemen nizan bitartean izana baita ene ustez ezagutzen dituzun adixkide batzuen ikusten, zubi izen bat dutenak, Iena-tarrak.»

- Lehenik garhaipen baten izena izana da, prinzesa, erran zuen jeneralak. Zer nahi duzu, ni bezalako soldado zahar-zahar batendako, gaineratu zuen begitako bakuna hartuz garbitzeko, lotura bat eginen zuen bezala, prinzesak begiak oldez baztertzen zituen batean, Imperioko noblezia bertzerik da egiaz, baina, den bezala, bere motan biziki eder, heroikoki gudukatu diren jende batzu dira.

- Baina gizandiendako errespetuz bete niz, erran zuen prinzesak, erkaitz arinezko doinu batean: Basin-ekin ezpaldin baniz Iena-ko prinzesa horren etxera joaiten, ezagutzen eztitutalakotz da xoil-xoilki. Basin-ek ezagutzen ditu, eta biziki maite. Ho! ez, ezta zuk uste duzuna, ezta amoroskeria bat, kontra erraitekorik jeus ez tut! Bertzela ere, kontra jarri nahi ukaitea baliatzen zatanarendako! gaineratu zuen mintzo apur bat trixte batekin, ezen orok bazakiten Laumes-ko printzea bere gusi xoragarriarekin ezkondua zen biharamunetik etzela hari huts egitetik gelditua. Baina ezta hori, lehenago ezagutu dituen jende batzu dira, haiekin loriatzen da, eta hori biziki ontsa zata. Erranen dautzut hastetik haien etxeaz erran dautana baizik ezpaliz ere... Emazu gogoari dituzten muble guziak «Imperio» direla!

- Baina, prinzesa, nolaz ez, bere aitaxi-amatxien mubleria dute.

- Nahi baduzu, baina eztira hortako gutiago itsusi. Biziki ontsa adit-

zen dut gauza pollitik ezin ukan daitekeela, baina ez ukan bederen gauza irriegangaririk. Zer nahi duzu? Estilo hastiagarri hori baino handi-mandi nahiagorik, burjesagorik jeus eztut ezagutzen, mainutegiek bezalako zisne buruak dituzten bere komodekin.

- Baina gauza ederrak badituztela uste dut ere, badukete delako bake aiphatu hura izenpetua izana den mozaikazko mahia...

- Ha! Ixtorioaren aldetik ohargarri diren gauzak badituztela, eztautzut erraiten. Baina ezin daitezke eder izan, ezin itsusiagoak direnez geroz! Nik ere horrelako gauzak baditut, Basin-ek Montesquiou-tarren ondorio-tasunez ukanak dituenak. Baina Guermantes-ko selauruetan daude nehork ezpaitu han ikusten. Baina, ezta hortan, haien etxera Basin-ekin laster egin nezake, ikustera joan nindaie ere bere giza-lehoin eta burdin-horien erdian ezagutzen banitu, baina... eztitut ezagutzen! Beti errana zata eni, ttipia nintzanean, ezagutzen ezten jenden etxera joaitea ezteela ontsa, erran zuen haurtasuneko doinu bat hartuz. Beraz, ikasi dautatena egiten dut. Jende gaizo hek ikusten dituzua, ezagutzen eztuten norbait sartzen ikusten balute? Biziki gaizki har nindezakete behar bada! erran zuen prinzesak.

Eta, aphainkeriaz, aieru horrek eman-arazten zaukon irriñoa edertu zuen, jeneralaren gainean gelditua zuen bere so urdinari errankortasun ametsetako ezti bat emanez.

- Ha! prinzesa, bozkarioz ezin egon laitezkeela ontsa badakizu...

- Baina ez, zergatik? galdegin zaukon bizitazun handiegi batekin, ala Frantziako andere handienetarik bat zela bazakielako itxuraren ez ukaiteko, ala jeneralaren ganik horren entzuteko atseginaren. Zergatik? Zer dakizu? Behar bada den gauza gozagaizkarriena lizateke. Nik eztakit, baina nihaurtarik jujatzen badut, ezagutzen ditutan jenden ikusteak jadanik hainbat aspertzen nau, uste baitut ezagutzen eztitutanak ikusi behar balire, «heroikoak ere», ero bilaka nindaieela. Bertzela ere, dakusagun, hori gabe ezagutzen diren zu bezalako adixkide ohiko batzuez ezpaliz, heroikotasuna munduan nork berarekin molde erabil-errex batekoa lizatekeenez eztakit. Auhari batzuen emaitak hainbat nau jadanik aspertzen, baina mahira joaiteko behar baliz Spartacus-i besoa eman... Ez zinez, nehoiz enezake hamalaurgarren bezala Vercingetorix-i hel egin. Arratsaldi handietako begira nezakeela uste dut. Eta ezpaitut emaiten...

- Ha! prinzesa, etzira jeusetako Guermantes! Baduzunez aski, Guermantes-tarren izpiritu hura!

- Baina beti erraiten da Guermantes-tarren izpiritua. Zertako den ez tut behin ere hartu ahal ukan. Ezagutzen dituzu bada zuk hartarik baduten *bertzte batzu*, gaineratu zuen irri karkaila haguntsu bozkariozko batean, begitarte guzia bildurik, zuen bizitasunera oro baturik, begiak dirdiran, bakarrik haren elhek eman ahal zezaketen alaitasunezko iguzkitze argitsu batez sutan, prinzesak berak erranak ukanik ere, haren izpirituaren eta edertasunaren laudorio bat baitziren. Oizu, horra Zuan zure Cambremer-saren agurtzen ari dela iduri, hor... Saint-Euverte haren ondoan, eztuzu ikusten! Galdegikozu haren aitzinera ereman zaitzan. Baina laster egizu, joan nahi du!

- Zein aurpegi gaixtoa duen ohartua zirea? erran zuen jeneralak.

- Ene Charles-ñoa! Ha! azkenean heldu da, ikusi nahi ezkinituela gogoari emaiten hasia nintzan!

Zuanek biziki maite zuen Laumes-ko prinzesa, eta haren ikusteak Guermantes-*ez* orhoit-arazten zuen, Combray-ren auzoko lurra, hain maite zuen herri hura guzia eta orai hara itzultzen etzena Odette-ren ganik ez urruntzeko baizik. Prinzesari laket zizakola bazakien ara erdi-artixta erdi-mundutarrez baliatuz eta berainik berraurkitzen zituenez ephe batendako lehengo ingurumenera berriz sartzen zenean - nahi baitzuen ere baserriaz zuen herrimina beretako erran:

- Ha! erran zuen saheska, hari mintzo zizakon Saint-Euverte-ko Andereaz eta harendako mintzo zen Laumes-ko Andereaz aldi berean entzuna izaiteko, huna prinzesa xoragarria! Ikusazue, espesuki Guermantes-tik ethorria da Liszt-en *San Frantses Asisako*-aren entzuteko eta ez tu astirik ukan, pinpinxori pollit batek bezala, buruan ezarri nahiz baxakaran eta elhorrixuri fruitu ttipi zenbaiten xixtakatzeko baizik; badira ere oraino ihitz xortak, dukesa aieika arr-aratzen dukeen izotzetik apur bat. Biziki pollit da, prinzesa maitea.

- Nola prinzesa Guermantes-tik espesuki ethorria da? Baina sobera da! Enakien, ahalgetua niz, egin zuen lañoki Saint-Euverte-ko Andereak Zuanen izpiritu motari guti ohitua izanez. Eta prinzesaren ileantzeari behatuz: Baina egia da, iduri du... nola erran nezake, ez gaztainak, ez oi! xoragarriko ideia da! Baina printzesak nola jakin ahal zezakeen ene programa!

Musikariek eztautate nihauri ere jakin-arazi.

Zuan, baitzakien, harekin mintzatzeko molde galantak atxikiak zituen emazte baten ondoan zenean, munduko jende ainitzek hartzen etzizutzen gauza xorrotx batzuen erraiten, hitz-ordainez baizik mintzatua etzela Saint-Euverte-ko Andereari erraiterano etzen jausti. Prinzesa aldiz irri karkailan hasi zen, Zuanen izpiritua haren idegoan ezin gehiago estimatua zelakotz, eta ere egina zizakon komplimendu bat etzezakeelakotz entzun, hartan garazia arinenak eta ezin ihardokizko irrigarritasun bat aurkitu gabe.

- He bada! loriatua niz, Charles, ene elhorrixuri fruituñoak gustatzen baldin bazazkitzu. Cambremer-sa hori zergatik agurtzen duzu, zu ere haren baserriko auzoa zirea?

Saint-Euverte-ko Anderea, prinzesak askietsia iduri zuela ikusiz, ur-rundua zen.

- Baina zuhaur hala zira, prinzesa.

- Ni, baserriak orotan badituzte beraz, jende horiek! Nola nahi nukkeen haien lekuan izan!

- Ez Cambremer-tarrak berak, andere horren jendakia batzu ziren; Combray-ra bazetorren Legrandin andereño bat. Eztakit badakizunez Combray-ko kondesa zirela eta kapitoak emaitza bat zor dautzula?

- Kapitoak zer zor dautan eztakit, baina ba urte oroz erretorak ehun liberaz arindua nauela, eta hortaz elika naitekeela. Cambremer horiek azkenean izen ontsa ustegabegarri bat dute. Behar den hartan zuzen bururatzen da, baina gaizki! erran zuen irriz.

- Ezta hobeki hasten, ihardetsi zuen Zuanek.

- Alabaina laburpen bikun hori!

- Biziki haserre den eta beharbezalako norbait da eta lehenbiziko hitzaren bururano ((*Cambr...*)) joaitera menturatu eztena.

- Baina bigarrena hasi gabe ((*mer...*)) egon etzaitkeenaz geroz, lehenbizikoaren bururatzea hobeki eginen zuen behin betikotz hortan gelditzeke. Gostu xoragarriko irri-solas batzuetan ari gira, ene Charles-ñoa, baina zure gehiago ez ikustea zein aspergarri den, gaineratu zuen doinu pherekari batekin, hain dut zurekin solastatzea maite. Gogora ezazu enaukola Froberville zozo horri Cambremer izena ustegabegarria zela harr-arazten ahalko ere.

Bizia gauza itsusi bat dela aithorrazu. Aspertzetik eniz ikusten zitutanean baizik gelditzen.

Eta hori etzatekeen egia. Baina Zuanek eta prinzesak bazuten gauza ttipien jujatzeko ara berdin bat, ondorioa baitzuen - ezpazen arrazoina - mintzatzeko eta ahozkatzeko ere moldean egite handi bat. Iduri horri etzizakon ohartzen ezer ezpaitzen haien bi mintzoak baino ezperdinagorik. Baina gogoaz heltzen bazen Zuanen solaser inguratzen zituzten doinuaren eta haien artetik jalgitzen ziren muxtatxen ekhentzera, ohartzen zen Guermantes-tarren idegoko ahapaldi berak, malgudura berak, erran-molde bera zirela. Balio zuten gauzetako, Zuanek eta prinzesak etzituzten jeusetan aburu berak. Baina Zuan hoin trixtatua zenaz geroztik, beti nigarrez hasterako ait-zinean den halako hotz-ikhara hura sendi baitzuen, bazuen erahiltzale batek bere egintzaz mintzatzeko duen behar hura bera. Eta prinzesaren entzutean bizia gauza laztagarri bat zela erraiten, Odette-ez mintzatua izan balizako ukanen zuen eztitasun bera senditu zuen.

- Oi! ba, bizia gauza laztagarria da. Elgar ikusi behar dugu, adixkide maitea. Zurekin den maitagarria, alegera etzirela da. Arratsaldi bat elgarrekin iragan ginezake.

- Baina, uste dut baietz, zergatik etzintazke Guermantes-era jin, ene amaginarreba bozkarioz xoratua lizateke. Biziki itsusia delako omena du, baina erranen dautzut herrialde hura laket zatala, «margoztagarri» diren herriak hastio ditut.

- Uste dut bada, miragarria da, ihardetsi zuen Zuanek, abantzu ederregia, enetako biziegia, ordu huntan. Han bizi izana nizalakotz behar bada, baina gauzak berainik mintzo zazta! Aire hats bat jeikitzen deneko, gariak higitzen hasten direneko, iduri zata norbait ethorriko dela, berri bat ukanen dutala: eta ur bazterrean etxe ttipi hek... ontsa zorigaitzean nintzateke.

- Ho! ene Charles-ñoa, guardi emazu, horra Rampillon-sa itsusi harek ikusia nauela, gorde nezazu, orhoit-araz ezatazu bada zer gertatua zaukon, nahasten dut, alaba ezkondua du edo bere maitaria, eztaikit batere; biak behar bada... eta elgarrekin!... Ha! ez, orhoit niz, bere printzeak hai-zatua du... eni mintzo zirelako itxura harrazu, Bérénice auhaltzera gomitat-

zera jin etzakiditan. Bertzela ere, banoa. Entzun, ene Charles-ñoa, ikusten zitutan aldi batendako, eztuzu ebatsia nahi izan eta ene karrosan Parme-ko prinzesaren etxera ereman zaitzatan hainbat zorion luke, eta Basin-ek ere han batu behar bainau. Zure berririk ezpaginu Meme-ren ganik... Gehiago nehoiz ikusten etzitutala gogoari emazu!

Zuanek ez erran zuen, Charlus-ko Jaunari jakin-arazia ukanik Saint-Euverte-ko Anderearen etxea utzi eta, zuzen etxera sartuko zela, etzen axolatzen Parme-ko Prinzesaren etxera joanez, mutil baten eskutik arratsaldi osoan igurikatua zuen hitz baten huts egiteaz, eta behar bada athezainaren etxean aurkituko zuenaz. «Zuan gaixo hura, erran zaukon arrats hartan Laumes-ko prinzesak senarrari, beti gixakoa da, baina nola zorigaitzean iduri duen. Ikusiko duzu, egun hautarik batez auhaltzera jitea hitzemana baitu. Irriegin-garri iduritzen zata ororen buruan haren adimenduko gizon bat mota hortako jende batendako oinazetan izan dadin eta ohargarririk jeus eztuena ere zozola dela baitiote», gaineratu zuen amoros eztiren jenden zuhurtziarekin, uste baitute gizon izpiritudun batek eztuela zorigaitzean izan behar balioa duen norbaitendako baizik; xiri mota bat bezain izaite ttipi baten bidez izurritearen ukaiteaz eritu behar izaiteaz ustegabetzea bezala da nunbait han.

Zuanek joan nahi zuen, baina ihes egitera zoan orduan, Froberville-ko jeneralak galdegin zaukon Cambremer-ko Anderearen ezagutza egitea eta harekin saloinean sartu behar ukan zuen hunen bila.

- Errazu bada, Zuan, nahiago nuke emazte horren senarra izan salbaiez sarraskitua izaitea baino, zer diozu?

«Salbaiez sarraskitua» hitzek Zuanen bihotza minki zauritu zuten; berehala senditu zuen jeneralarekin solasaren jarraikitzeko gutizia:

- Ha! erran zaukon, ontsa bizi ederrak izanak dira horrela bururatu direnak... Dumont d'Urville-ek haren hautsak gibelera ekharri zituen itsas-turi hura, La Pérouse... (eta Zuan jadanik Odette-ri mintzo balizako bezain zorionean zen). Giza-jite eder bat da La Pérouse-rena eta biziki miresten dutana, gaineratu zuen txura gogo-ilundu batekin.

- Ha! Ontsa ontsa, La Pérouse, erran zuen jeneralak. Izen ezaguna da. Karrika bat badu.

- Norbait ezagutzen duzu La Pérouse karrikan? galdegin zuen Zuanek khexu iduri.

- Eztut Chanlivault-ko Anderea baizik ezagutzen, Chaussepierre gaizo haren arreba. Komedia arratsaldi bat pollita emana dauku joan den egunean. Egun batez biziki aphaia izanen den saloina da, ikusiko duzu!

- Ha! La Pérouse karrikan egoiten da. Gustagarri da, hain da karrika pollita, hain trixtea.

- Baina ez, izana etzirela zenbait dembora badelakotz da hori; ezta gehiago trixte, eraikitzen hasia da, auzoalde hori guzia.

Azkenean Cambremer-ko Andere gaztea Zuanek Froberville-ko Jaunari aitzineratu zaukolarik, lehen aldia baitzen jeneralaren izena entzuten zuela, hortaz bertzerik ehoiz haren aitzinean errana izan ezpaliz ukanen zuen zorionezko eta ustegabezko irriño bat hasi zuen, ezen bere familia berriaren adixkideak ez ezagunez, hetarik bat zela uste zuen; eta ezkondua zenaz geroztik hainbertzetan aiphatzen entzuna zuela iduri ukanez jendetasuna erakusten zuelako ustean, eskua aitzinatzen zuen aire dudazko batekin, garhaitu behar zuen herabe ikasia eta hura gaingitzen zuen oldezko adixkidantzaren phorogua izan behar zuenarekin. Hortako aitamaginarrebek, oraino Frantziako jende distirantenak zirela uste zituenak, bazioten aingeru bat zela; are gehiago nun, bere semearekin ezkont-araziz, haren gaitasunen deier amor emana zutela iduri ukan nahiago baitzuen, zuen fortuna handiari baino lehen.

- Arimatik musikaria zirela ageri da, anderea, ohartu gabean ezko-bilgiaz gertatuari aieru eginez.

Baina musikaldia berriz hasi zen eta Zuanek gogoan hartu zuen programako aldi berri hori bururatu baino lehen etzaitkeela joan. Oinazetan zen zituzten zozotasuna eta irrigarritasunak agertzen zizazkon jende horien erdian hetsiriko egoiteaz, are minkiago nun Zuanen maitasunaren ez jakinean, eta ezaguna ukan balute hartaz axolatzeko ezinean, eta haurkeria batez bezala irri egiteaz edo erokeria batez bezala lastimatzeaz bertzerik ez egin ahalean, Zuanen berarendako baizik izaiterik etzuen itxuran agerr-arazten baitzaukoten, eta kampo jeusek egiazkoa zela ezpaitzaukon baieztatzen; min zuen oroz gainerik, hainbaterano ere nun musika joitekoen soinuak oihu egiteko gutizia emaiten baitzaukon, Odette nehoiz ere jinen etzen leku hortan bahiturik egoiteaz, nehork, jeusek hura ezagutzen etzuen lekuan, han osoki huts egiten zuenean.

Baina bapatez sartua izan baliz bezala izan zen, eta berarendako agertze hori hain oinaze erdiragarria nun eskua bihotzera eman behar ukan baitzuen. Ezen arrabita nota gora batzuetara igana zen eta han igurikan bezala egonki, noten atxikitzetik gelditu gabe luzatzen zenean, igurikatzen zuen eta hurbiltzen ari zen gauzaren jadanik ikusteaz zuen gogoberoan, indar etsitu batekin hura ethorri arteo irautera entseatzeko, hil gabe hari ongi ethorri egiteko, iragan ahal zadin ephe batez oraino bidearen idekirik atxikitzeko, hori gabe berriz eror zaitekeen athe bat atxikitzen den bezala. Eta Zuanek gogoan hartzeko astirik ukana baino lehen, eta erraiteko: «Vinteuil-en zonatako aire ttipia, entzun eztezagun!» Odette-ek maite zuen aroko orhoitzape-nak oro, eta egun hartarano bere golkoaren zolan ezin ikusiak atxik-araztera heldua zenak, berriz itzulia uste zuten maitasunaren aroko arrai bapateko horrek enganaturik, atzarriak ziren eta, hegaldaka, berriz iganak, orai haren zorigaitzarendako urrikirik gabe, zorionaren errepika ahatzien eroki kantat-zera.

«Zorionean nintzan aroa», «maitatua nintzan aroa» itzuli arrazoin hutsezkoen orde, ordurano usu erranak zituenak gehiegi oinazkatua izan gabe, adimenduak ezpaitzauzkon hetan iragan arotik baliogabeko zati batzu baizik hetsirik ezarriak, berraurkitu zuen zorion galdu haren izaite berezi airagarritik behin betikotz atxikia zuen guzia; oro berrikusi zuen, karrosan botatuak zauzkon urre-lore elhurtu kuxkulatuak, ezpainen kontra atxikiak zituenak, «Urrezko Etxearen» helbide grabatua «Izkiriartzen dautzutanean eskua hain zata ikharatzen» irakurria zuen eskutitzaren gainean, bekainen elgarretara hurbiltzea aire othoizlari batekin errana zaukonean: «Eztautazu sobera luzaturik kheinu eginen?» Senditu zituen, Loredan dendari ttipiaren bila zolan bitartean bere «broza» hari goiti-arazten zuen ile-mozlearen burdinaren usaina, uda-lehen hartan hain usu erori ziren euriak, bere karrosa idekian ilargitara itzultze hormagarria, gogoko ohiduren, urtaroetako sendimenen, larruko ondorioen hari korropilo guziak, aste andana batera hedatua baitzuten soina hartan berriz hartua edireiten zuen sare berdindu bat. Ordu hartan, jakin-nahi atsegale baten asetzen ari zen maitasunetik bizi diren jenden atseginak ezagutuz. Hortan egoiten ahalko zela uste ukana zuen, hetan ziren oinazen ikastera etzela bortxatua izanen; orai Odette-ren lilurragarria gauza guti baitzizakon lanho uher bat bezala luzatzen zuen lastura izigarri

hunuen ondoan: ordu oroz zer egina zuen ez jakiteko herstura neurrigabea, orotan eta beti haren jabe ez izaitekoa! Ondikotz, orhoitu zen nolako doinuarekin egina zuen: «Baina beti ikusten ahalko zitut, beti libro niz!» nehoiz ere hala etzelarik! Zuanen biziaz ukanak zituen arrangura, jakin-nahia, hartan sartzera uzteko fagorea - Zuan aldiz losatzen zuena behargabe aspergarri batzuen emaille bezala - egin zezon gutizia suharra; nola Zuanek bere burua Verdurin-darren etxera joaitera utz zezan othoiztera bortxatua izana zen; eta, ilabetean behin Odette etxera jin-arazten zuenean, nola behar izana zen, Zuanek onhartu baino lehen, errepika zezon egunoroz amesten zuen haren ikusteko ohidura hura nolako atsegin bizia izanen zizakon, Zuani berari etzizakolarik buru-hauste akhigarri bat baizik iduritzen, gero Odette-ek hastio ukana zuena eta behin betikotz hautsia, artean harendako hoin behar ezin garhaitua eta hoin mingarria bilakatua zelarik. Nolako egia zen etzakien noiz ere, Odette ikusia zuen heren aldian, hunek errepikatzen zaukolarik: «Baina zergatik enauzu jitera usuago uzten?», irriz ihardetsia baitzaukon, galantasunez: «oinazetan izan beldurrez». Orai, ondikotz! batzuetan oraino han gertatzen zen ostatu edo hotel batetik hunen izena moldizkiturik bazekarren paper batean izkiriartzen zaukola, baina erretzen zuten suzko eskutitz batzu bezala ziren: «Vouillemont hoteletik izkiriartua da! hara zertara joana da? norekin? zer gertatu da han?» Orhoitu zen Italianoek karrika handian iraungitzen ari ziren gaz mokoez, uste guzien kontra aurkitua zuenean bazabiltzan itzalen erdian, abantzu naturaz goragokoa iduritua zizakon gau hartan eta, alabaina - haren bila joanez, hura aurkituz, etzaukonez hark nahi ez bezala eginen bere buruari galdatzerik ere etzuen gaua, hain zen segur etzuela Odette-ek haren ikustea eta harekin sartzea baino zorion handiagorik - atheak hetsi direnean handiz ehoiz itzul eztaitekeen mixteriozko mundu batekoa zen bada. Eta Zuanek ikusi zuen, gogoaz berritu zorion horren aitzinean geldi-geldia, berehala ezagutu etzuelakotz urrikal-arazi zuen zorigaitzeko norbait, hala nola nun begiak behehitu behar ukan baitzuten nigarrez beteak zituela ikus etzezatzen. Bera zen.

Hori gogoan hartua ukan zuenean, urrikia gelditu zen, baina Odette-ek maitatua zuen bertze Zuan hartaz bekaiztu zen, gehiegi oinazkatua izan gabe hetaz bere baitan «behar bada maite ditu» ainitzetan errana zuenez ere, orai maitatzeko gogamen uherra, hartan maitasunik ezpaita, aldizkatua zue-

naz geroz urre-lorekin eta Urrezko Etxearen izenburuarekin, hartaz beteak zinerak, hek. Gero bihotzmina biziegituz, eskua bekokira eman zuen, begitako bakuna erortzera utzi, berina garbitu. Agian, bere burua ordu hartan ikusia ukan balu, jadanik ohartua zizaien begitakoen bilduman ezarriko zuen berea, gogoeta nardagarri bat bezala lekuz aldatzen baitzuen eta haren aitzin alphortuan, mokanes batekin, griñen ezabatzea bilatzen.

Arrabitak baditu - musikako tresna ez ikusiz, entzuten dena ez-padaiteke haren itxurara erakharr, hunek soinu-ara aldatzen baitu - doinu batzu kontralto mintzo batzuen hain berdinak, nun musikaldian kantari bat sartua delako lillura ukaiten baita. Begiak goititzen dira, eztira soinu-untziak baizik ikusten, Xinako untxi batzu bezain baliosak, baina, artetan, Zirenaren dei nahigabegarriaz oraino bairatua izaiten da; batzuetan uste da ere jeinu gatibu bat entzuten dela untxi jakinduruaren barnean ezin egonez, sorginek hartua eta daldarikan, debrua ur benedikatu untxi batean bezala; batzuetan azkenik, iduri du, airean, izaita naturaz gaineko eta huts bat dela iragaiten ari, bere mezu ezin ikusiaren xingola hedatuz.

Musikariak ari izan balire bezala, agertzeko behar zituen zeremonia batzuen egiten baino biziki gutiago aire ttipiaren joiten, eta ephe batzuez haren agerr-arazteko mirakuluaren ukaiteko eta luzatzeko behar ziren enkantamenduetan, Zuanek, ezpaitzezakeen ikus brioletaz haratagoko mundu batekoa izan baliz baino gehiago, eta aldakuntza bateko frexkuraz bezala gozaten baitzen harengana hurbiltzean hartzen zuen anarteko itsutasunaz, han zela sendi zuen, jainkosa gerizagarri eta bere maitasunaren segeteru ukaile bat bezala, jendearen aitzinean haren gana jin ahal izaiteko eta bazterrera ereman ahal ukaiteko, soinu-zuko itxura hori jantzia zuena. Eta iragaiten ari zelarik, arin, jabalgarri, usainon bat bezala murmurikatua, hari erran behar zuena erranez eta ziotzan hitz guziak Zuanek ikertzen zituela, hoin laster airatzen ikusten zituelakotz urrikian, ezpainak ohargabeen higitzen zituen iragaitean harmoniazko gorputz iheslarieri musu emaiteko moldean. Etzen bahitua eta bakartua sendi, hura, Zuani, erdi-ahapeka Odette- ez mintzo zizakonaz geroz. Ezpaitzuen lehenago bezala Odette eta biak aire ttipiaz ez ezagunak zirelako iduripena. Hain usu zen haien bien zorionen lekuko izana! Egia da ere ainitzetan horien beraztasunaz abisatua zuela. Eta ere, haren irriñoan bihotzmin zenbait ordu hartan asmatzen zuelarik, doinu argi lilluragabeen,

orai aurkitzen zaukon izaitekotz etsipen abantzu alai baten garazia. Lehenago hetaz mintzo zizakon griñez eta Zuanek ikusten zituenez, hetaz hunkia izan gabe, irriñoan bazeramatzala bere laster ingurukatuan, orai Zuanenak bilakatuak ziren griña horietaz ehoiz ere arindua ahal izaiteko itxaropenik gabe, bazidurien bere zorionaz lehen bezala baziola: «Zer da bada hori guzia? Ezer ez.»

Zuanen gogamena orduan lehen aldikotz urrikiz eta xamurtasunezko olde batean Vinteuil haren gana joan zen, hark ere hainbat oinaze jasan ahal zukeen anaia ez ezagun eta ezin gorago haren gana: zer bizi ukana zukeen? zein oinazetako zolan hartua zukeen jainkozko indar hura, kreatzeko ahal mugarik gabeko hura? Aire ttipia zizakonean bere oinazen ezteuztasunaz mintzo, Zuanek eztitasuna aurkitzen zaukon arestian alta ezin jasana iduritua zizakon zuhurtzia hari berari, haren maitasuna baliogabeko xorokeria batentzat zadukaten axolagabekoen aurpegietan irakurtzen zuela uste zuenean. Ezen aire ttipiak, aldiz, zein ere aburu ukan zezakeen arimako izanara horien iraupen laburraz, zerbait ikusten baitzauen, ez jende horiek orok bazagiten bezala, egiazko bizia baino gutiago serio den zerbait, baina hori baino hain goragokoa nun errana izaitea balio zuen bakarria baitzen. Trixetzia min bateko goxatasun horien imitatza zen entseatzen, berphiztera, eta senditzen dituenaz bertze ororendako ezin jakin-araziak izaitea eta arinkeria batzu iduritzea den horien izaite hutserano, aire ttipiak bildua zuen, ikustera emana. Hala nola nun haien balioa aithorr-arazten baitzauen eta eztitasun jainkotarra jasta-arazten hor ziren jender guzier - doi bat musikari ziren ber-, gero bere bizian ezpaitzitzuten berriz ezagutuko, bere ondoan sortzen ikusiko zuten maitasun berezi bakoitzean. Haien biltzeko ukana zuen moldea etzaitkeen, agjan, arrazoinamenduzko ondorioetaratua izan. Baina Zuani berari ariman zituen aberastasunak agerr-araziz, musikaren maitatzea, zerbait demborarendako bederen, zuela urtea baino gehiago sortua zizakonaz geroztik, musikako notaldeak egiazko ideia batzuendako zaduzkan, bertze mundu batekoak, bertze lerro batekoak, ideia ilunbez estaliak, ez ezagunak, adimenduaz ezin zilatuak, baina hala ere batzu bertzetarik osoki bereziak, balioz eta erran-nahiz elgarren artean ezperdinak. Verdurin-darren arratsalditik landa, beretako berriz aire ttipiaren jo-araztean, bilatua zuen nola, usainon batek, phereku batek bezala, bereganatzen zuen, inguratzen; ohartua

zen egiten zuten bortz noten arte gutiaren eta hetarik bien errepikatze jarraikiaren ondorioa zela eztitasun bildu eta hozpil bateko iduripen hori. Baina bazakien egiazki horrela arrazoinkatzen ari zela ez aireaz beraz baina arau xoil batzuez, bere adimenduaren errextasuneko entzuna zuen mixteriozko izaitearen ordaintzeko ezarriak, Verdurin-darrak ezagutu baino lehen, zonata lehen aldikotz entzuna zuen arratsaldi hartan. Bazakien pianoaren orhoitzapenak berak makurtzen zuela ere musikako gauzak hartan ikusten zituen aldean, musikariarendako idekirik dagon eremua ezteela zazpi notako jogune eskas bat, baina ezin neurtua den jogunetalde bat, osoan oraino abantzu ez ezaguna, han bakarrik lekuka, ikhertugabeko ilunbe handi batzuez bereziak, osatzen duten xamurtasunezko, suhartasunezko, kuraiatzko, zohardurazko jogune miliunetarik - bakoitza bertzetarik mundu bat bertzetik den bezain ezperdina - zenbait baitituzte bakarrik edergile handi batzuek aurkituak, bademagutela, edirena duten airearen oihartzuna gutan iratzarriz, huts eta ezteusarendako dadukagun arimako gau ezin zilatu etsigarriak, gure ez jakinean, nolako aberastasuna, zenbat gauza ezperdin gordetzen dituen erakusteko zerbitzua. Vinteuil musikari horietarik bat izana zen. Haren aire ttipian, nahiz arrazonari azal ilun bat erakusten zaukon, eduki bat hain gorria sendi zen, hain argia, hortan indar bat ezartzen zuen hain berria, hain berebaitakoa, nun entzuna zutenek golkoan baitzadukaten adimenezko ideien hein berean.

Zuan hari zagon maitasunaren eta zorionaren gogamen bati bezala, baitzakien berezitasuna zertan zuen, *Princesse de Clèves* edo *René*-rendako bazakien bezain ontsa, izen hauk gogoratzen zitzazkolarik. Aire ttipia gogoan etzuelarik ere, haren izpirituan gorderik bizi zen bertze gogamen berdinek gabeko batzu bezala, hala nola argiarena, soinuarena, lureko mendi-ibarrena, gorputzeko atseginarena, horiek baitira gure barneko eremua joritzen eta aphaintzen duten ukantza aberatsak. Galduko ditugu behar bada, ezabatuko dira behar bada, ezteusera berrituztzen baldin bagira. Baina bizi gireno, eztitugula ezagutu ezin dezakegu egin egiazko gauza batendako egin dezakegun baino gehiago, behazunez phizten den lamparen argiaz duda dezakegun baino, gure gambarako gauza bertzelakatuen aitzinean, handik ilunaren orhoitzapenak berak ihes egina duenean. Hortik, Vinteuil-en aire

ttipia, behazunez *Tristan*-go aire bat bezala, itxuratzen baitaiku ere sendimenduzko jabetasun zerbait, gure izaite hilkorra moldatua zen, aski hunkigarri zen gizatar zerbait hartua zuen. Haren zoria ethorkizunari lotua zen, aphaindura berezienetarik bat emaiten zaukon gure arimaren izaiteari. Bada-teke egia ezteusean dela eta gure amets guziak eztuela izaiterik, baina orduan senditzen dugu musikako aire horiek, haren eretzean baizik eztiren gogamen horiek jeus izan behar eztutela ere. Hondatuko gira, baina gure zoriari jarraikiko zauzkon jainkozko gatibu horiek hor ditugu gurekin preso. Eta herioak horiekin badu gutiago samin, gutiago ahalgegarri, behar bada gutiagokoa gertakizun den zerbait.

Zuan etzen beraz hutsean zonatako airea egiazki bazela sinestean. Eiki, alde hortarik gizatarra, naturaz goragoko eta nehoiz ikusi eztugun izaite mota batekoa zen alta, baina hala ere xoraturik ezagutzen duguna ezin ikusiarren ikherle zenbait hetarik baten hatzemaitera heltzen denean, hara heltzen den mundu jainkotarretik ephe zenbaitendako gurearen gainean distirutzen ekhartzera. Hori zuen Vinteuil-ek bere aire ttipiarekin egina. Zuanek sendi zuen musika egileak aski ukana zuela, musikako bere tresnekin, haren argiratzea, ikusteko gai egitea, haren itxurari errespetuz jarraikitzea, esku hain xamurraz, hain zuhurraz, hain beratzaz nun soinua ephe oroz aldatzen baitzizakon, itzal baten erakusteko eztituz, itzuli ausartago bati hatzetik jarraikitze beharra zuenean berriz bizkortuz. Eta Zuanek airea izaite egiazkoa zela sinestean huts egiten etzuelako phorogua hau zen: edozein ezagule doit bat xorrotxa enganioaz berehala ohartuko zela, Vinteuil-ek, ahal gutiago ukanik haren itxuren ikusteko eta emaiteko, bere ikuspeneko eskasak edo eskuaren ahuldurak gorde nahi ukan balitu, han edo hemen bere baitarikako gauza batzu gainera emanaz.

Itzalia zen orai. Zuanek bazakien azken mugimenduaren ondarrean berriz agertuko zela, Verdurin Anderearen pianixtak beti bazterrera uzten zuen zati luze baten ondotik. Baziren hor Zuanek lehen entzunaldian berexiak etzituen eta orai ikusten zituen ideia miragarri batzu, izan balire bezala, haren orhoitzapeneko jantzitegian, berritasunaren maskadura berdinez gabetuak. Zuanek entzuten zituen airearen egitean sartuko ziren musika zati barreatu guziak, beharrezko bururapenaren aitzin-mezulariak bezala, haren

moldatzearen lekuko zen. «Oi ausartzia, zion bere baitan, Lavoisier batena, Ampère batena bezain jeinuzkoa, Vinteuil-en ausartzia indar ez ezagun baten legetan entseatzen, haien edireiten, ikhertu eztenean gaindi baderamala, izan daitekeen bururapenera buruz, hartan fidatzen den eta nehoiz ikusiko eztuen uztarria!» Azken zatiaren hastapenean arrabitaren eta pianoaren artean Zuanek entzun zuen solasaren ederra! Giza-hitzez gabetzeak, nola-nahi egitea nagusi uzteko orde, uste ukanen zen bezala, urrundua zuen; ehoiz etzen elhestatzea hoin zorrozki behar zena izan, etzuen galdetako zuzentasuna hein berean ukan, ez eta ihardesten ageria. Lehenik piano bakartua deitoratu zen, lagunak utzia duen xori bat iduri; arrabitak entzun zuen, auzoko zuhatz batetik bezala ihardetsi. Munduaren hastapenean bezala zen, oraino hek biak baizik lurlean izan ezpalire bezala, edo izaitekotz gainerateko guziari hetsia zen mundu hartan, egile baten arrazoinezko gogoak eraikian eta nehoiz han bi-biak baizik izanen etzirenean: zonata hartan. Xori bat dea, aire ttipiaren arima oraino ez osatua, mixteriozko andere bat dea, pianoak gero deitoratzea xamurki errepikatzen zaukon izaite ezin ikusi auhenkari hori? Oihuak hain zituen bapatez egiten nun arrabitariak behar baitzuen laster egin bere ziriteaz haien biltzeko. Xori miragarria! arrabitariak iduri zuen xoratu nahi zuela, hezi, bildu. Aldi batez oraino mintzatuko zela Zuanek bazakien. Eta hain ontsa zen bera bikundua nun haren aitzinean gertatuko zen berehalako orduaren igurikatzeak inharrosi baitzuen neurtitz eder batek edo berri trixte batek gutan sortzen duten hipa batez, ez bakarrik gaudenean, baina hetan dukeen bihotz-hunkidurak berazten dituen bertze guhaur bat ikusten dugun adixkide batzuer ikasten baldin badauegu. Berriz agertu zen, baina aldi hontan airean dilindan egoiteko eta ephe batez baizik ez joiteko, geldi-geldirik bezala, eta gero ezeztatzeko. Zuanek etzuen beraz hoin guti bazirauen arte laburretik ezer galdu. Aire hor zagon oraino badagon urbegi leinurudun bat iduri. Hala nola ortzadarra, argitasuna ahultzen duenean, aphaltzen, gero berriz goititzen eta iraungi baino lehen, oraino egina etzuen bezala une batez gorenera eremaiten: ordurano agertzera utziak zituen bi margoak, bertze hari nabartu batzuez aberastu zituen, prismako guziez, eta guziak kanta-arazi. Zuan etzen higitzera menturatzen eta nahiko zituen bertze jendeak geldirik atxik-arazi, den gutieneko mugimenduak, ezeztatetik hoin hurbil zen naturaz goragoko xoramena, atsegingarri eta beratza, irriskutan ezarri ahal balu

bezala. Nehork etzuen, egia erran, mintzatzea gogoan. Bera hor etzen bakar baten elhe ezin errana, hil batena behar bada (Zuanek Vinteuil bizi zenez etzakien), zeremoniako urratsen gainera airatzen, aski zen hirur ehun jenden oharpenaren garhaitzeko, arima bat horrela orhoit-arazia zen taulada hortaz bazegiela naturaz goragoko zeremonia eman ahal zaitekeen aldare ospatsue-netarik bat. Hala nola nun, airea azkenean barreatua izan zelarik, haren lekua jadanik hartua zuten ondoko notaldetan zatikaturik joanki, Zuan lehenik haserretua izan baldin bazen Monterinder-ko kondesaren ikustean (bere enuxenkerien gatik aiphatua zen) haren gana gurtzen bere iduripenen er-raiteko zonata bururatua izan baino ere aitzinean, etzen irriño bat gabe egon ahal izan, eta bahar bada ere hark ikusten etzuen erran-nahi barnatu bat aurkitu gabe, erabili zituen hitzetan. Musikarien trebeaz xoratua, kondesak egin zuen Zuani mintzatuz: «Mirakuluzkoa da, nehoiz eztut hoin azkarrik jeus entzun...» Baina zuzentasunezko arrangura batez lehenbiziko erran hori hobe-arazi nahiz, hau gaineratu zuen: «hoin azkarrik jeus... mahi itzulika-rien ondotik!»

Arratsaldi hortarik haste, Zuanek gogoan hartu zuen Odette-ek ha-rendako ukana zuen sendimendua nehoiz etzela berriz phiztuko, zorionaz zituen itxaropenak gehiago etzirela beteko. Eta oraino Zuanekin ustegabeen gixako eta xamur izana zen egunetan, oharpen zenbait ukana baldin bazuen, haren gana itzultzeko seinale itxurazko eta gezurrezko horiek bere baitan hartzen zituen, eritasun ezin sendatu bateko azken egunetara heldua den adixkide baten arthatzean norbaitek dituen grifa xamur eta dudakor bere-kin, egintza balios batzuez dionean: «atzo, diru khonduak berak egin ditu eta bera da egina ginuen emendatze bateko hutsari ohartu; arraultze bat at-seginekin jan du, ontsa hartzen badu bihar kostelet bat entseatuko dugu», nahiz badakiten horiek jeus eztutela erran nahi ezin hutsegina den heriotze baten bezperan. Badateke Zuan segur zela orai Odette-ren ganik urrun bizi izan baliz, azkenean etzela hartaz axolatuko, hala nola nun askietsia izanen baitzen hark Paris behin betikotz utz zezan; egoiteko kuraia ukanen zuen; baina joaitekorik etzuen.

Hori ainitzetan gogoratua zizakon. Orai Ver Meer-*ez* bazegien la-nean berriz hasirik, zenbait egunendako bederen La Haye-ra, Dresde-ra, Brunswick-era itzuli beharko zuen. Segur zen «Diana-ren Ikuztaldi» bat,

Goldschmidt salaldian Maurithuis-aren bidez erosirik izana zena, Ver Meer bat zela egiazki. Eta nahiko zuen margazkia lekuan berean ikhertu bere aburuaren azkartzeko. Baina Odette han zelarik Pariseren uztea eta han etzenezan ere - sendimenak ohiduraz eztituak ez tiren leku berrietan, oinazea indartzen baita, berphizten - xede hain bortitza zizakon nun ezpaitzen ethengabe hura gogoan egoiteko gai sendi nehoiz egitera deliberatua etzela sendi bazakielakotz baizik. Baina gertatzen zen lotarik bidaiatzeko ideia bere baitan sortzen zizakola, bidaiaria ezin egina zela orhoitu gabe, eta egiten zuela. Amets egin zuen egun batez bazoala urte batendako, kaian nigarrez goraintzi erraiten zaukon mutiko gazte baten gana bagoneko athexkan gurtua. Treina abiatzen ari, antsiak atzari zuen, etzoala ohartu zen, Odette arrats hortan ikusiko zuela, biharamunean, abantzu egun oroz. Orduan, oraino bere ametsaz hunki-hunkia, bere buruaren jabe egiten zuten gertaldi bereziak benedikatu zituen, horier esker Odette-ren ondoan egon baitzaitkeen, eta ere batzuetan ikustera jin zakidion onhar zezan ukaiten ahal baitzuen. Eta, abantail horien guzieren errepikatzean: bere izanara, bere fortuna - Odette ainitzetan sobera horren beharrean baitzen hauste baten aitzinean ez gibelera egiteko (baitzuen ere, ziotenaz, Zuanekin ezkontzeko gibel-asmu bat) - Charlus-ko Jaunaren adixkidantza hura, nahiz etzaukon egiazki nehoiz Odette-ren ganik gauza handirik ukan-arazia, baina hark ainitz estimatzen zuen elgarren adixkide hori Zuan-ez ohoragarriki mintzo entzuten zuelako goxoa emaiten baitzaukon; eta azkenik bere adimendurano, oso-osozan bazerabilana egun oroz Odette-ri haren aitzinean izaita, gozagarri ezpada, bederen beharrezkoa egin zezon estakuru berri baten hatzemaiten. Horrek guziak huts egina ukan balauko zer bilakatuko zen ametsetan egon zen; izan baliz, bertze hainbertze bezala, behartua, jeusik gabe, edozein lanen hartzera bortxatua, edo ahaide batzuer, ezkontide bati lotua, Odette-ren uztera bortxatua izan beharko zuela, oraino hoin hurbildik lazten zuen amets hori egia izana ahal zaitkeela, egin zuen bere baitan: «Nehork eztu bere zoriona ezagutzen. Ezta nehoiz uste den bezain zorigaitzekoa izaiten.» Baina ohartu zen bazela zenbait urte bizi horrek irauten zuela, espera zezakeen guzia betiko izan zadin zela, bere lan guziak utziko zituela, atseginak, adixkideak, azkenean bizi guzia, zorionik batere ekhar etzezokeen aurkitaldi baten egun orotako igu-

rikan; eta egin zuen ez ote zuenez huts egiten, zerk ere haien atxikimendua fagoratu baitzuen eta haustera ez utzia, etzaukonez bere zoria trabatua, gertaldi gutziagarria etzenez ametsa izana zeno hainbat bozkariatzen zuen hura: joaitea; egin zuen nork bere zorigaitza eztuela ezagutzen, eztela nehoiz uste den bezain zorionean izaiten.

Batzuetan itxarotzen zuen Odette ixtripu zenbaitetan hilen zela oinazetik gabe, goizetik arrats kampoan baitzen, karriketan, bidetan. Eta osorik itzultzen baitzen, miresten zuen giza-soina zein azkar eta malgu zen, ethengabe inguratzen zuten lanjer guzier (Zuanek ezin zenbatuak baitzaduzkan bere segetutzko gutziak asmatuak zituenenez geroztik) hutsegin-araz ahal zezen, garhait-ahal zitzan, eta horrela jendeak utz zitzan, gaztigurik abantzu batere gabe, bere gezurrezko lanean artzen, bere atseginaren bilatzen. Eta Zuanek bere bihotzetik ontsa hurbil sendi zuen delako Mahomet II hura, Bellini-k hartaz egina zuen potreta maite baitzuen eta, bere emaztetarik batere amoros erotua zela senditurik, azkenean puñalaz jo baitzuen, dio lañoki haren biziegile beneziarrak, gogoko libertatearen berredireiteko. Gero bere buruaz baizik horrela ez axolatzeaz sumintzen zen, eta jasanak zituen oinazek urrikirik batere merezi etzutela iduri zizakon berak Odette-ren bizia hoin gutitako zadukanaz geroz.

Itzultzerik gabe haren ganik ezin berezi ahal izanez, bederen, berezterik gabe ikusia ukan balu, oinazea azkenean ematuko zizakon eta behar bada maitasuna iraungiko. Odette-ek Paris behin betikotz utzi nahi etzuenaz geroz, Zuanek nahiko zuen nehoiz ere utz etzezan. Bazakielakotz bederen haren hor ez izaite bakar handiena urte oroz agorril-buruiletakoa zela, ilabete batzuek aitzinetik gogamen samin horren urt-arazteko astia bazuen bere baitan bazekharren geroko Aro luze guzian, hau, oraiko egunen arau berdineko egun batzuek egina, baitzabilan argal eta hotzik Zuanen gogoan trixteziaren hazten, baina oinaze biziegirik eman-arazi gabe. Baina barneko ethorkizun hori, ibai hits libro hori, huna nun Odette-ren hitz bakar batek Zuanen baitarano hunkitzen zuen eta, horma mokor bat bezala, geldiarazten, zuen ubildura gogortzen, Zuan bera oso-osoan horma-arazten; eta bapatez gaitzeko meta ezin zatikatu batez betea senditurik izana zen, barneko azal guzietan leherr-arazterano phizatzen baitzaukon: Odette-ek zuen errana, beha

zagokon so irriñodun azpikari batekin: «Forcheville badoa Mendekostez bidaia eder baten egitera. Egiptora doa», eta Zuanek berehala hartua zuen horrek erran nahi zuela: «Mendekostez banoa Forcheville-rekin Egiptora.» Alabaina, egun batzu berantago, Zuanek erraiten baldin bazaukon: «Dakusagun, Forcheville-rekin eginen dunala aiphatua dautan bidaia hortaz», ihardesten zuen ohartu gabeen bezala: «Bai, maitañoa, 19-an goaz, Piramidetako argazki bat igorriko daukagu.» Orduan Forcheville-ren ohaidea zenez ikasi nahi zuen, berari galdegin. Bazakien nola, Odette zen bezain sinespera izanez, eginen etzituen arnegu batzu bazirela, eta gero, galdekatuz haserretuko zuela, etzen gehiago bere burua hastia-araziko zuela beldur izaiterik, Zuan orai arteo gibelera atxikia zuenik, haren ganik behin ere maitatua izaiteko itxaropen oro galdua zuenaz geroz.

Egun batez eskutitz izengabeko bat ukan zuen, baitzion Odette gizon andana baten ohaidea izana zela (batzuen izena emaiten zuen, hetan Forcheville, Bréauté-ko Jauna, margolaria), emazte batzuen, eta putakeriazko etxe batzuetan ibiltzen zela. Oinazkatua izan zen adixkidetan eskutitz horren igortzeko gai zen norbait bazuela gogoratuz (xehetasun batzuetarik Zuanen biziaren ezagutza etxekotu bat erakustera emaiten baitzuen izkiriatua zuenaren baitan). Nor izan zaitekeen bilatu zuen. Baina nehoiz etzuen jenden egintza ez ezagunez, dituzten elhekin lotura ageririk gabe direnez aierurik ukana. Eta jakin nahi ukan zuenean hea Charlus-ko Jaunaren itxurapean, Laumes-ko Jaunarenean, Orsan-go Jaunarenean behar zuenez ezarri egintza itsusi hori sortua zen eskualde ez ezaguna, gizon horietarik batek ehoiz ezpaitzitzen eskutitz izengabeak haren aitzinean onhartuak eta hortaz errana zaukoten guziak gaitzesten zituztela entzutera uzten baitzuen, bat edo bertzearen jiteari desohorezko egintza horren lotzeko arrazoinik etzuen ikusi. Charlus-ko Jaunarena gogo apur bat makurtu batena zen, baina zinez on eta maitariarena. Orsan-goari zoakonaz, Zuanek ehoiz etzuen aurkitua jende bat, gertaldi trixtenetan ere, elhe hobeki senditu batekin, jestu ixil eta zuzenago batekin jin zizakonik. Hartarano zen nun ezpaitzezakeen har Orsan-go Jaunari emaiten zizakon egitate apur bat minbera emazte aberats batekin zuen adixkidantzan eta, hura gogoan zuen aldi oroz, Zuanek bazterrera utzi behar baitzuen haren izpirituko beraztasunaz hainbertze lekukotasunekin ezin akomeatua zen omen gaixto hori. Ephe batez Zuanek senditu zuen iz-

piritua iluntzen zizakola eta doi bat argiren berraurkitzeko bertze zerbaitez gogatzen hasi zen. Gero gogamen horietara berriz itzultzeko kuraia ukan zuen. Baina orduan, nehoz aierurik ez ukan ahal ondoan, guziez ukaiteko beharretan izan zen. Ororen buruan, Charlus-ko Jaunak maite zuen, bihotz onekoa zen. Baina zainek hartua zuten, Zuan eri zela jakinez bihar nigarrez hasiko zen behar bada, eta egun bekaizkeriaz, haserrez, gogoratua zizakon bapateko ideia zenbaiten gatik, gaitz egin nahi ukana zaukokeen. Gizon mota hori, azkenean, guzietako gaixtoena da. Laumes-ko printzea, segurki, Charlus-ko Jaunak bezainbat Zuanen maitatzetik urrun zen. Baina horren beraren gatik, etzen harekin hain minbera; eta gero jite hotzekoa zen dudarik gabe, baina itsuskerietako egintza handietako bezain ahalgabea; Zuan urrikitan zen bere bizian horrelako jende batzuer baizik ez lotua izanik. Gogatzen zuen gero gizonak urkoari gaitz egitetik zaintzen dituen, onezia dela, azkenean etzaitekeela berme jar berak bezalako jitea zuten jendez baizik, hala baitzen, bihotzaren aldetik, Charlus-ko Jaunarena. Zuani nahigabe horren egiteko gogoak berak suminduko zuen. Baina, sendikor etzen gizon batekin, Laumes-ko printzea zen bezala, bertze izanara bateko arrazoin batzuek nolako egintza batzuetarano ereman zezaketen, aitzinetik nola jakin? Bihotz onaren ukaitea, hori da guzia, eta Charlus-ko Jaunak bazuen. Orsan-go Jaunak etzuen eskas ere, eta Zuanekin zituen harremanak, onez-onekoak baina guti barnatuak, orotaz gogamen berdinak ukanez, elgarrekin solastatzean zuten gozotik sortuak, Charlus-ko Jaunaren atxikimendu suhartua baino atsedengarriagoak ziren, hau buruberotasunezko egintza batzuetara, on edo gaitz, ekharria izaiteko gai baitzen. Norbait baldin bazen Zuan haren ganik beti entzuna eta berazki maitatua sendi izana zena, Orsan-go Jauna zen. Bai, baina zeraman bizi guti ohoragarri hori? Zuanek ez hori gogoan harturik urriki zuen, irrisolasez ainitzetan aithorturik etzituela nehoiz adixkidantzaz eta eztimuzko sendimenduak frikun baten laguntasunean baino bizkorkiagi sendituak. Ezta arrazoinik gabe, zion orai bere baitan, gizonak urkoa jujatzen dutenetik, egintzetarik baldin bada. Zerbait erran nahi duenik ezta hori baizik, ezta batere badioguna, gogoan duguna. Charlus eta Laumes-tarrek halako eta hulako hutsak ukan dezazkete, jende zuzenak dira. Orsan-ek horietarik ezta behar bada, baina ezta gizon zuzena. Aldi bat gehiago gaizki egina ahal duke. Gero Zuanek Remi-z aieru ukan zuen, eskutitza etzuen

egia erran asma-arazia ahal ukanen, baina ephe batez bide hori ona iduritu zizakon. Lehenik Loredan-ek Odette-ri aiherrazteko arrazoinak bazituen. Eta gero nola ez uste ukan gure sehiak, guretik beheragoko lerro batean bizi izanez, gure fortuna eta hutser gaineratuz asmatzen dituzten eta haien gatik gutiziatzen eta gutiesten gituzten aberastasun eta bizio batzu, gertatuko direla nahitez gure munduko jendez bertzela egitera ekharriak? Aieru ukan zuen ere ene aitatziz. Zuanek zerbitzu bat galdegina zaukon aldi oroz, etzuenen beti eza ukana? eta gero, zituen ideia burjesekin, Zuanen onetan ari zela uste ukana zukeen. Bergotte-ek aieru ukan zuen ere, margolariaz, Verdurin-darrez, aldi bat gehiago jende mundutarren zuhurtzia miretsi, horrelako gauzak egin daitezkeen, behar bada jostagai on batzuen izenpean aithortuak diren artixten mundu horrekin ibiltzea ez onhartu nahi ukaitez. Baina nola nahi bizi diren jende horien egintza zuzentasunezko batzuek orhoitu zen, eta diru eskasak, aberaskeria beharrak, atseginetako usteldurak hartara arixtokratak deramatzen atherabidezko, abantzu ohoinkeriazko biziarekin erkidatu zituen. Hots, izengabeko eskutitz horrek erakusten zuen gaixtakeriako gai zen norbait ezagutzen zuela, baina etzuen arrazoin gehiagorekin ikusten zergatik gaixtakeria hori izan zaitezkeen gizon beratz baten golkoan - nehork ezpaitu ikhertua - gordea, gizon hotz batenean baino, artixtarenean burjesarenean baino, jaun handiarenean mutilarenean baino lehen. Gizonen jujatzeko, zein berexpide har? etzen oro har ezagutzen zituen jendetan bakar bat itsuskeria baten egiteko gai izan etzaitzekeenik. Guzien ikustetik gelditu behar zena? Gogoia nahasi zizakon; eskuak bizpahirur aldiz bekokira eman zituen, begitakoaren berinak oihalaz garbitu eta, gogoan hartuz ororen buruan hura balio zuten jende batzu bazabiltzala Charlus-ko Jaunarekin, Laumes-ko printzearekin, egin zuen bere baitan horrek erran nahi zuela, itsuskeria egiteko gai zirela ezpada, bederen hortako gai izan etzaitzekeen batzuekin ibiltzea bakoitzak onhartzen duen biziko behar bat dela. Eta jarraiki zuen hetaz aieru ukana zuen adixkide horier guzier eskuaren tinkatzen, behar bada haren etzitza bilatua zutelako gibel-gogo itxura hutsezkoa atxikiz.

Eskutitzaren erran-nahiaz beraz, etzen khexatu, Odette-ren kontra eginak ziren salakeriek egiaren itzalik ezpaitzuten. Jende ainitzek bezala Zuanek gogoia auherra zuen eta ere asmatzeko ahala eskas. Bazakien ontsa

nola jenden biziko egia orotako bat kontramoldez betea den, baina, bakoitzari bereziki doakonean, haren biziko zati ezagutzen etzuen guzia ezagutzen zuenaren berdina bezala asmatzen zuen. Gordetzen zizakona ezagutzen zuenarekin lagunduz asmatzen zuen. Odette haren ondoan zen orduetan, aiphatzen baldin bazuten elgarrekin behar ez bezalako egintza bat edo bertze batek ukana zuen sendimendu gaixto zenbait, Odette-ek kondenatzen zituen Zuanek bere aitamer erraiten entzunak zituen eta haier atxikia gelditua zen erregela beren izenean; eta gero bere liliak antolatzen zituen, the kikera bat edaten, Zuanen lanez axolatzen zen. Beraz Zuanek ohidura horiek Odette-ren gainerateko bizira hedatzen zituen, jestu horiek errepikatzen zituen Odette haren ganik urrun zen orduak itxuratu nahi zituenean. Zen bezala edo izaitekotz luzaz Zuanekin izana zen bezala erakutsia izan balaukote, baina bertze gizon baten ondoan, oinazkatua izanen zen, itxura hori ezin sinetsia izanen zizakon. Baina makaela batzuen etxera joaiten zela, emazte batzuekin atsegalekerian artzen, izaite higugarri batzuen bizi zikina zeramala, zer zorokeria arrazoingabea! hortako, Jainkoari esker, asmatuak zituen urre-lorek, the-aldi jarraikiek, bertutezko sumindurek etzuten lekurik batere uzten! Alta noiztenka, Odette-ri entzutera uzten zaukon egiten zuen guzia batzuek, gaixtakeriaz, erraiten zaukotela; eta, behar zenean, xehetasun ezteus baina egiazko batez baliatuz, bertze ainitzen artean berak nahigabean agertzera uzten zuen puntta ttipi bakarra baliz bezala, bere baitan gorderik zadukan Odette-ren bizi berregin osotik, egiazki etzazkien eta hetaz aierurik ere etzuen gauza batzuek jakinduru zela uste ukaitera ekhartzen zuen; ezen Odette hoin usu othoi-othoizten baldin bazuen egia etzezan alda, hori, bera oharturik ala ez, bazegien guzia erran zezontzat zen. Dударik gabe, Odette-ri zion bezala, zintzotasuna maite zuen, baina maite zuen bere ohaidearen biaz argitzen ahal duen emazain batek bezala. Hortakotz zintzotasunaren maitatzeak, abantailnahi gabekoa ez izanez, etzuen hobetua. Maite zuen egia, Odette-ek erranen zaukona zen; baina bera, egia horren ukaiteko, etzen gezurrari hel egiteko beldur, giza-izaite oro andeatzera eremaiten zuela Odette-ri ethengabe erakusten zaukon gezurrari. Orogen buruan, Odette-ek bezainbat gezur erraiten zuen etzelakotz, hura baino zorigaitz handiagoan izanez, hura baino gutiago berekoia. Eta hark, Zuanen entzutean hari berari

eginak zituen gauzen erraiten, aire mesfidatu batekin behatzen zaukon, eta, zer gerta ere, gaitzitu batekin, bere egintzez aphaldua eta gorritzera ekharria ez iduritzeko.

Egun batez, berriz bekaitzaldiez hartua izan gabe oraino iragana ahal zuen bakezko dembora luzenean izanez, Zuanek onhartua zuen Laumes-ko prinzesarekin antzokira joaitea. Egunkaria idekirik, zer jokatzten zuten bilatu nahiz, izenburuaren ikusteak - Théodore Barrière-ren *Harbizizko Neskak* - hain bortizki jo zuen nun gibelera egin baitzuen eta burua itzuli. Taulada bazterreko argiaz argiturik bezala, ageri zen leku berri hartan, hainbertzetan begi-pean ukaitearen bortxaz ohartzeko ohidura galdua zuen «harbizi» hitz hori bapatez ohargarri bilakatua zizakon: berehala orhoit-ara-zia zaukon lehenago Odette-ek erran ixtorio hura, Industriako Palazioko Saloinera egin zuen ikustaldi batez Verdurin Anderearekin, hunek erran baitzaukon: «Guardi eman, hire urt-arazten jakinen dinat bada, ehiz harbizizkoa.» Odette-ek irri-solas bat baizik etzela errana zaukon. Baina bazuen orduan hartan orai baino konfienxia gehiago. Eta hain zuzen eskutitz izengabea mota hortako maitasunez ari zen. Egunkariari begien emaitera menturatu gabe, ideki zuen, «Harbizizko Neskak» hitz horren ez ikusteko orsto bat itzuli zuen eta ohargabeen departamenduko berrien irakurtzen hasi. Ekaitz bat izana zen Itsasartean, herexak aiphatzen ziren Dieppe-en, Cabourg-en, Beuzeval-en. Gibeleratze berri bat egin zuen berehala.

Beuzeval-en izenak eskualde hortako bertze herri batena gogoratua zaukon, Beuzeville, izen horrek marratto batez loturik bertze bat baitakhar, Bréauté-rena, kartetan usu ikusia zuena, baina lehen aldikotz ohartzten baitzen bere adixkide Bréauté-ko Jaunarena bera zela, eskutitz izengabeak Odette-ren maitaria izana zela baitzion. Orogen buruan, Bréauté-ko Jaunaz, salaketa etzen itxurarik gabe; baina Verdurin Anderereaz, ezina zen. Odette-ek batzuetan gezurrak erraiten zituenetik, ehoiz egiarik etzuela erraiten ezin ondorioztatua zen, eta, Verdurin Anderearekin ukan zituen solas horietan eta berak Zuani erranak zauzkonetan debaldeko irrisolas lanjeros batzu eza-gutuak zituen, emazte batzuek, biziko gauzen eta bizioaren ezagungabeen, erraiten baitituzte bere inozentia horrela argiratuz, eta, behazunez Odette zen bezala, bertze edozein baino urrunago baitira emazte batendako maitasun suhar baten senditzetik. Aldiz, nahigabeen ephe batez Zuanen baitan

errana zuenetik sortuak zituen aieruen baztertzean ukana zuen sumindura, bazoan osoki bere maitearen gostuez eta jiteaz bazakienarekin. Baina orduan, bekaiztiaren asmu hetarik batez, neurtizlariari edo jakintsunari, errima bat edo oharpen bat baizik eztuelarik oraino, behar duten indar guzia emanen dauen gogamena edo legea ekhartzen daukoaren bezalakoaz, Zuan orhoitu zen lehen aldikotz Odette-ek erran hitz batez, jadanik bi urte bazuen: «Ho! Verdurin Anderea, eztu orai enetakorik baizik, haren amorea niz, besarkatzen nau, erosketak harekin egin ditzatan nahi du, hika mintza nindakion.» Odette-ek erranak zauzkon arrazoiengabeko solas bizioa itxuratu behar zutenekin ikusterotik bazela erranaldi hortan senditzetik urrun, adixkidantza bero baten lekukotasun batzu bezala hartuak zituen. Huna orai Verdurin Anderearen xamurtasun hortaz orhoitzea jina zela bapatez behar ez bezalako solasaldi horren orhoitzapenarekin batzera. Gogoan etzezazkeen berex eta ikusi zituen ere bizian elgarrekin nahasiak, xamurtasunak irrisolas horier emaiten zauela zerbait serio eta gotor, ordainez inozentzia hura gal-arazten zauelarik. Odette-ren etxera joan zen, haren ganik urrun jarri. Etzen haren besarkatzera ausartzen, ez jakinez haren baitan, bere baitan, atxikimendua ala haserrea zuen musu batek phiztuko. Bazagon ixilik, ikusten zuen maitasuna hiltzen ari. Delibero bat hartu zuen bapatez.

- Odette, erran zaukon, maite-maitea, hastiagarri nizala ontsa bada-kinat, baina gauza batzu behar dauzkinat galdegin. Orhoit hiz hitaz eta Verdurin Andereaz ukana ninan ideiaz? Egia denez erratan, harekin edo bertze batekin

Burua inharrosi zuen ahoa zimurtuz, «Kabalkadaren ikustera jinen zirea, Errebixtaren ikustera?» galdegina dauen norbaiti joanen ez tirela, horrek aspertzen dituela ihardesteko jende batzuek usu baderabilaten seinalea. Baina buru inharroste horrek, geroko gertakari batendako egiten dena ohian, iragan gertakari baten ezestea duda zenbaitekin nahasten du hortakotz. Gehiago dena, ez titu, gaitzestearen orde, moraleko ezin baten orde, nork bere gostuko arrazoin batzu baizik gogora emaiten. Odette-ren ikustean hori egia etzelako seinalearen egiten, Zuanek hartu zuen behar bada egia zela.

- Erran dauiat, ontsa badakik, gaineratu zuen itxura haserretu eta zorigaitzeko batekin.

- Bai, badakinat, baina segur hiza? Etzatanala erran «Ontsa bada-kik», erratan: «Horrelako gauzarik eztiat emazte batekin ere egin.»

Ikastaldi bat bezala errepikatu zuen, erkaitzeko doinu batekin, Zuan utzi nahi ukana balu bezala:

- Horrelako gauzarik eztiat emazte batekin ere eginen.

- Laghet-eko Andredona Mariaren medailaren gainean zin egiten ahal dautana?

Zuanek bazakien medaila horren gainean etzuela zin egin.

- Oi! zein zorrigaitzekoa egiten naukan, egin zuen jauzi batez haren galdearen hertsaduratik ihes eginez. Baina bururatua duka? Zer duk bada egun? Hastiatu behar hautala deliberatua duka? Horra, nahi nian hirekin lehengo bizi ona berriz hartu, eta horra hire eskerrona!

Baina, etzuen uzten, barber batek bere egintza hausten daukon eria-
ren hertsaldia burara dadin igurikatzen duen bezala, baina ez utz-arazten:

- Ontsa huts egiten dun, Odette, uste badun hiri den gutienik aiher nintzatekeenala, erran zaukon eztitasun sineskarri eta gezurrezko batekin. Nehoiz eztaunat dakitana baizik aiphatzen, eta diotana baino ainitz gehiago badakinat beti. Baina hihaurek dun bakarrik, aithortzeaz, hire hastiatzea emaiten dautan gauza eztitzen ahal, bertze batzuen ganik baizik ikasia ez-tinatano. Hiretako dinatan haserrea eztun hire egintzetarik sortzen, guzia barkatzen daunat, maite hautanaz geroz, baina hire falsukeriatik, badazki-tan gauzen ukhatzean hisi-arazten hauen falsukeria arrazoingabetik. Baina nola nahi dun hire maitatzen jarraik ahal nindadin, ikusten hautanean gezurrezkoa dela badakintan gauza batez zin egiten? Odette, gu biendako mingarri dunan ordu hau etzana luza. Hala nahi badun, zekunda batean bururatua izanen dun, betikotz liberatua izanen hiz. Erratan hire medailaren gainean, ba ala ez, gauza horietarik eztunanez egin.

- Baina eztakiat nik, egin zuen haserrean, duela aspaldi behar bada, zer egiten nian ohartu gabe, bizpahirur aldiz behar bada.

Zuanek ahal ziren guziak gogoan ukanak zituen. Gertatzen denak gerta daitekeenarekin ikustekorik ezer eztu, hartzen dugun ganibet ukaldi batek gure buru gainean hedoen mugimendu arinekin baino gehiago, hitz horiek, «bispahirur aldiz», bihotzaren bizian halako gurutze bat egin zauko-

tenaz geroz. Gauza bitxia da «bizpahirur aldiz» hitz horiek, hitzak baizik ez, airera erran hitzak, urrundik, horrela bihotza egiazki hunkitzen balute bezala urra dezaketen, eri dezaketen, iresten den pozoin batek bezala. Nahigabeen Zuanek gogoan ukan zuen Saint-Euverte-ko Anderearen etxean entzuna zuena: «Entzuna dutan azkarrena, mahi itzulikarien ondotik.» Sendi zuen oinaze hori etzen uste ukana zuen jeusen idurikoa. Ez bakarrik, zituen mesfidatze osoko orduetan, gaitzean hoin urrun joaita bekan asmatua zuelakotz, baina, gauza hori asmatzen zuenean ere, nahasia, dudazkoa gelditzen zelakotz, «bizpahirur aldiz behar bada» hitzetarik jalgia zen lazta berezi horarik gabe, ezaguna zuen guzitik lehen aldikotz hartaz hunkitua den eritasun bat bezain ezperdina den bortiztasun berezi hortarik gabe. Eta bizkitartean gaitz guzia horren ganik heldu zizakon Odette hori, etzuen gutiago maite, balio gehiagokoa zizakon ordea, oinazea handitzen ari zen arau, aldi berean eztigarriaren balioa, emazte bakar horrek zuen kontrapozoinarena handitzen baliz bezala. Artha gehiago eman nahi zaukon bapatez larriagoa edireiten den eritasun bati bezala. Nahi zuen «bizpahirur aldiz» egina zuela errana zaukon gauza itsusia etzadin berri. Ainitzetan erraiten da, adixkide bati bere ohaidearen hutsen salatzean, eztela haren gana hurbil-araztera baizik heltzen eztituelakotz sinesten, baina zenbat gehiago sinesten baldin baditu! Baina, zion Zuanek bere baitan, haren gerizatza nola hel? Emazte berezi baten ganik egin zezakeen behar bada, baina baziren bertze ehun eta ehun, eta gogoan hartu zuen nolako erokerian sartua zen, Odette Verdurin-darren etxean aurkitua etzuen arratsean, bertze izaite baten jabe izaitez - beti gauza ezin egina baita - gutiziatzen hasi. Zuanendako zorionez, ariman etsai andana bat bezala sartuak zizazkon oinaze berrien azpian, bazen zola bat jitez zaharra-goa, eztiagoa eta ixilki langilea, alderdi zauritu bateko zelulak zati damutua-ren berregitekotan jartzen baitira berehala, zango-beso hebaindu bateko ginariak bere mugimenduetan berriz hastera ari diren bezala. Haren arimako biziliarr zaharrago, ethorkizkoago horiek bere indar guziak erabili zituzten ephe batez eri bati, operatu den bati atsedenean delako lillura bademon lan gordeki antolatzaile hortan. Aldi huntan, ohian bezala gutiago zen Zuanen buru munitan atsedendaldi hori gertatu, haren bihotzean egin zen izaitekotz. Baina bizian aldi batez gertatu diren gauzak oro berregitera ari dira, eta hilt-

zera doan ihizi bat bururatua iduri zuen azken jauzi batek berriz inharrosten duen bezala, ephe batez gerizaturik egona zen Zuanen bihotzaren gainera, oinaze bera berainik berriz jin zen gurutze beraren marratzera. Ilargixurizko arrats hetaz orhoitu zen, han, La Pérouse karrikara zeraman karrosa idekian luzatua, atseginekin amoroski baitzerabiltzan gizon amonatuaren sendime-nak, baitezpada emanen zuten fruitu pozoinatuaren ez jakinean. Baina go-gamen horiek etzuten zekunda baten ephea baizik iraun, bihotzera eskuaren emaiteko artea, hatsaren berriz hartzekoa eta bere oinazearen gordetzeko irriño baten egitera heltzekoa. Bere buruari galdeka hasten ari zen jadanik berriz. Ezen ukaldi horren emaitera heltzeko, oraino nehoiz senditua zuen oinaze bortitzenaren ezagun-arazteko etsai batek ukan nahiko etzuen nekea hartua zuen bekaizkeriak, etzuen aski oinazkatua izana zela aurkitzen eta eman nahi zaukon zauri bat oraino barnagoa. Horrela, jainko gaixto bat iduri, Zuan bekaizkeriak sustatzen zuen eta bere galmenera bultzatzen. Etzen haren gatik izan, baina bakarrik Odette-renetik, pairua ezpazen hastapenean larritu.

- Maite-maitea, erran zaukon, aski hortan, ezagutzen dutan nor-baitekin zena?

- Baina ez, zin egiten deat, uste diat bertzela ere gauza handitu dia-tala, hortarano enizala izan.

Zuanek irriño bat egin zuen eta berriz:

- Zer nahi dun? berdin zatan, baina zorigaitza dun izena ezpadau-tan erraiten ahal. Nor den neure baitan itxuratu ahal ukaiteak, hori gogoan berriz ukaitea debekatzen ahalko zautanan. Hiretako erraiten dinat, gehiago ezpaihaut aspertuko. Gauzen itxuratzea hain dun bakegarri! Izigarri dena, ez asmatu ahal ukaitea dun. Baina hain hiz gixakoa izana, ehaut akhitu nahi. Egin dautanan on guziaz bihotz-bihotzetik eskertzen haut. Hortan aski. Hitz hau bakarrik: «Zenbat dembora din?»

- Oi! Charles, hiltzen naukala eztuk ikusten! aspaldikoena duk. Ne-hoiz enian berriz gogoan ukana, iduri duk nahi dauztakala ideia horiek bai-tezpada berriz eman? Ontsa aitzinatua hintzateke, erran zuen, ohargabeko zozotasun eta gaixtotasun nahitu batekin.

- Ho! jakin nahi ninan bakarrik ezagutzen hautanaz geroz zenez? Baina hain naturakoa lizatekeen; hemen egiten zena? arrats berezi batez zela

ezin erran dezatan, arrats hartan zer ari nindunan itxuratu ahal ukaiteko? hartzen dun bada norekin zen ehizala orhoitzen ezin dela, Odette, maitea.

- Baina eztakiat nik, uste diat Oihanean zela irlan gurekin batzera ethorri hizan arrats hartan. Laumes-ko prinzesaren etxean auhaldua hintzan, erran zuen, egia zela baieztatzen zuen xehetasun baten emaitiaz zorionean. Ondoko mahian bazian aspaldi aspaldidanik ikusia enian emazte bat. Erran dautak: «Harroka ttipiaren gibelera zaugi bada, ilargixuriaren ikustera.» Lehenik aharrausi bat egin diat eta ihardetsi: «Ez akhitua niz, ontsa niz hemen.» Erran dik ehoiz etzela segurki halako ilargixuririk izan. Erran dakeat: «Nolaz ez!»; banakian bada zertaratu nahi zian.

Odette-ek hori guzia erraiten zuen abantzu irriz, ala osoki naturala baitzizakon, ala larritasuna arinduko zuelako ustean, ala aphaldua ez iduri ukaiteko. Zuanen bagitartea ikusiz, doinuz aldatu zen:

- Miseraule bat hiz, ene oinazkatzea gustatzen zaik, geldirik utz nezakan egiten dauzkiatan gezur batzuen erran-arazteko.

Zuani emana zizakon bigarren ukaldi hori lehenbizikoa ere baino bortitzagoa zen. Etzuen ehoiz uste ukana gauza hoin berria zela, ikusten jakina etzuten bere begietarik gordea, ez ezaguna etzuen iragan batean, baina hoin ontsa orhoit zen arrats batzuetan, Odette-rekin bizi ukanak zituenetan, berak hain ontsa ezagunak uste ukanak zituenetan, orai, gibeletik, zerbait falsu eta laztagarri hartzen zutenetan; haien bien artean, bapatez, zilo handi bat idekitzen zen, Oihaneke irlako ordu hura. Odette-ek, adimendukoa izan gabe, bazuen naturazko xoragarritasun bat. Gertakaria hainbertze lañotasunekin errana zuen, itxuratua, nun Zuanek oro ikusten baitzuen: Odette-ren aharrausia, harroka ttipia. Entzuten zuen ihardesten - airoski, ondikotz! - : «Zer gezurra!» Gaur bertzerik jeus erranen etzuela sendi zuen, agertzeko berririk jeus etzela ordu hartan igurikatzeko; erran zaukon: «Gaixo maite-maitea, barka ezatan, griñatzen hautala sendi dinat, aski, eztinat gehiago go-goan.»

Baina hark ikusi zuen Zuanen begiak ezagutzen etzituen gauzetan geldituak zaudela eta haien maitasuneko iraganean, nahasia zelakotz haren orhoitean beti berdinean eta eztian, orai zauri batek bezala Oihaneke irlako minuta hark, ilargixuritara, Laumes-ko prinzesaren auharitik landa, urratzen baitzuen. Baina hain zen bizia laketgarri zela edireiten ohitua - egin zai-

tezkeen aurkintza ohargarrien miresten - nun, horrelako oinazea luzaz jasan etzezakeela uste ukaiterano oinazkatua zen batean, baitzion bere baitan: «Bizia zinez estonagarri da eta ustegabeko gauza ederrak baditu; oro har bizioa uste den baino gauza hedatuagoa da. Horra fidatzen nintzan emazte bat, itxura hain lañoa zuena, hain onesta, eta bederen, arina bazen ere, gostua orotan behar bezalakoa eta sanao zuela iduri: itxuragabeko salaketa baten gatik, galdekatzen dut, eta aithortzen dautan gutiak uste ukanen zen baino biziki gehiago agertzen du». Etzaitkeen alta abantailnahi gabeko ohar horietan geldi. Errana zaukonaren balio zuzenaren jakitea bilatzen zuen, gauza horiek usu eginak zituenez, berrituko zirenez ondorioztatu behar zuen ala ez jakiteko. Erranak zituen hitz hauk errepikatzen zituen bere baitan: «Banakian bada zertaratu nahia zian», «Bizpahirur aldiz», «Zer gezurra!», baina etziren desarmaturik berragertzen Zuanen gogoan, bakoitzak bazadukan bere ganibeta eta hartaz ukaldi berri bat emaiten zaukon. Ontsa luzaz, eri bat ezin dagokeen bezala minberatzen duen mugimenduaren egitera minuta oroz entseatu gabe, hitz hauk errepikatzen zituen: «Ontsa niz hemen», «Zer gezurra!», baina oinazea hain zen azkar nun gelditzera bortxatua baitzen. Miresten zuen nola, beti hain arinki, hain alaiki jujatuak zituen egintza batzu, orai hartarik hil daitekeen eritasun bat bezain larriak bilakatuak zizazkon. Odette-ri begira zezoten galdatzen ahalko zauen emazte ainitz ezagutzen zuen. Baina nola uste ukan Zuanen oraiko ikuspegi berean jarriko zirela, eta ez hain luzaz ukan zuenean, haren bizi atsegalea beti bidatua zuenean, etzaukotela irri eginez erranen: «Bertzeak atseginez gabetu nahi dituen bekaizti itsusia?» Zein trampa ustegabeen behehitutik (Odette-ren maitasunetik atsegin hautuzko batzu baizik ukanak etzituenean) izana ote zen bapatez ifernuko inguru berri hortara eta hortik nola athera ahalko zen ikusten etzuenera aurdikia? Gaixo Odette! etzizakon batere aiher. Etzen huts erditan baizik. Etziotena bere amak zuela, abantzu haurra, Nizan, Angeles aberats bati emana? Baina zer egia minbera zuten harendako hartzen lehenago axolagabeen irakurriak zituen Alfred de Vigny-ren *Egunkari*-ko lerro hauek: «Emazte batendako maitasunaz hartua sendi denean, norberak erran behar luke: Nola inguratua da? Nola bizi izana da? Biziko zorion osoa hortan dago.» Zuan ustegabetzen zen ikusiz gogoan erraiten zituen hitz xoil batzuek, hala

nola «Nolaz ez!», «Banakian bada zertaratu nahi zian», hainbertze min egin ahal zezakotela. Baina hartzen zuen hitz xoil batzu uste zituenak etzirela Odette mintzo zenean senditua zuen eta berriz ukan zezakeen oinazea artean zadukaten harmaduraren zatiak baizik.

Ezen oinaze hori bera zuen bada berriz senditzen. Jakina ahal zezakeen orai - apur bat ahazia ukan zezakeen ere, aroa iragan arau, barkatua - hitz horiek bere baitan errepikatzen zituenean, oinaze zaharrak berriz Odette mintzatu aitzinean zen bezala ezartzen zuela: jakingabea, konfienxian; bere bekaizkeria abreak ezartzen zuen berriz, Odette-ren aithormenez joa izaiteko, oraino ezjakinean den baten lekuan: ilabete batzuen buruan ixtorio zahar horrek agerpen batek bezala zentzordatzen zuen oraino. Orhoitaren indar berregile lazkarria miresten zuen. Etzezakeen igurika ernatzale horren ahultzetik baizik, adinarekin joritasuna ttipitzen baitzako, oinaze izigarri horren eztitzea. Baina noiz ere Odette-ek erran hitz batek Zuanen oinazkatzeko zuen indarra apur bat ahitua iduri baitzuen, ordu arteo Zuanen gogo hartan gelditua etzenetarik bat, hitz abantzu berri bat, bazetorren bertzen aldizkatzera eta indar osoan joiten zuen. Laumes-ko prinzesaren etxean auhaldua zen arratsaz orhoitzea mingarria zizakon, baina etzen minaren erdigunea baizik. Hau inguruan hedatzen zen nahasiki ondoko egun guzietarano. Eta bere orhoitzapenetan haren zein ere gunetara hunki nahi ukan zezan, Verdurindarrak hain usu Oihaneko Irlan auhalduek ziren urtaro guziak zaukon min egiten. Hainbat min nun apurka bekaizkeriak bere baitan sortzen zauzkon jakin-nahiak, hek onhartuz emanen zaukoten oinaze berrien beldurraz ezeztatuak izan baitziren. Ohartzen zen hura aurkitu baino lehen iragan Odette-ren bizi guzia, behin ere itxuratu nahi ukana etzuen aroa, etzela nahasiki basakuzan eremu arrazoin hutsezkoa, baina urte berezi batzuez eginik izana zela, egiazko gertakari batzuez betea. Baina horiek ikasiz, beldur zen iragan hits, ubil eta jasangarri horrek har zezan gorputz hunkigai zikin bat, begitarte berezi debruzko bat. Eta hori asmatu ez nahi ukaitean jarraikitzen zuen, ez gogoko auhertasunez, baina oinazearen beldurrez. Bazagon egun batez Oihaneko Irlaren izena, Laumes-ko prinzesarena, urradura zaharra senditu gabe entzunen ahal zituelako itxaropenean, eta zuhurtzia gabekoa zela Odette-ren sustatzea hitz berri batzuen, leku, gertakari berezi batzuen

izenen emaitera, hauek, mina doi-doia eztitu orduko, bertze molde batean berphiztuko baitzuten.

Ainitzetan alta, ezagutzen etzituen gauzak, orai ezagutzeko beldur zenak, Odette-ek berak zauzkon bere oldez eta ohartu gabean agertzen; alabaina bizioak Odette-ren egiazko biziaren eta Zuanek uste ukana zuen, eta oraino ere ainitzetan bazeramala uste zuen doi bat garbiaren arteak zer hedapena zuen, Odette-ek etzakien: jende biziodun batek, dituen bizioen aierurik ukan eztezaten nahi duen jenden aitzinean alegia bertute berdina beti erakusten duenak, bizio horiek, beti handitzen ari direla ezpaitu berak senditzen, bizi molde beharbezalakoetarik apurka zein urrun deramaten ohartzeko gaitasunik eztu. Odette-ren gogoan Zuani gordetzen zauzkon egintzen orhoitzapenarekin batean bizi baitziren, haien leinurua bertze batzuek apurka hartzen zuten, haien khotsua, berak bitxirik jeus hetan aurkitu gabe, bere baitan bizi-arazten zituen ingurune berezian hek gaizki jo gabe. Baina Zuani erraiten baldin bazauzkon, salatzen zuten ingurumenen agertzeaz laztua zen. Egun batez nahi zaukon, gaitzi-arazi gabe, makaela batzuen etxean behin ere izana zenez Odette-ri galdatu. Egia erraiteko, ezetz segur zen; izengabeko eskutitzaren irakurtzeak aierua gogoan sartua zaukon, baina azaletik; etzuen hartan sineskarri zenik jeus aurkitu, baina egiazki gogoan egona zizakon, eta nahi zuen, aieru osoki gauzazko baina hala ere eragozpengarri hori, Odette-ek errotik athera zezan. «Ho! ez! Ezta horren gatik jazarria enizalakotz, gaineratu zuen, irriño batean urguluzko gozo bat erakutsiz, gehiago ezpaitzen ohartzten Zuani etzizakola hori onhargarri iduritzen ahal. Atzo bat izan da oraino bi oren baino gehiago ene igurikatzen egon dena, nahi den saria eskaintzen zautan. Ba omen da embaxadore bat erran daukona: «Ezpadautazu ekhartzen neureaz egiten dut.» Atheraia nizala erran zako, anderea nihaurek mintzatu behar ukan dut joan-arazteko. Nola hartu dutan ikus hezan nahiko nian, ondoko barnetik entzuten ninduen gambarazainak erran dautak oi-huka ari nintzala: «Baina ez tutala nahi erraiten dautzutanaz geroz! Hola da, etzata gustatzen. Nahi dutanaren egitera libro nizala uste dut, halere! Diru beharretan banintz, ez tut erraiten...» Etzezainak manua ukana dik gehiago sartzera utz eztezan, baserrian nizala erranen dik. Ha! han gorderik izan hadin nahiko nian. Askietsia izanen hintzala uste diat, maitea. Onetik ere badik, ikusten duk, hire Odette-ñoak, hoin hastiagarri iduri badik ere.»

Bertzela ere, Zuanek aurkituak zituela uste zuen hutsen aithormenak, egiten zauzkonean, huni baliatzen zizazkon izaitekotz duda berri batzuen hastapenetako zaharragoen geldi-arazteko baino gehiago, nehoiz ezpaitziren hauekin osoki aratuak. Odette-ek bere aithormenetik baitezpadako guzia ekhendua ahal zezakeen, bazen oraino gaineratekoan Zuanek ehoiz asmatua etzuen zerbait, berririk zuenaz lehertzen baitzuen eta bere bekaizkeraizko korropiloa bazegitenaren aldatzera utziko. Aithormen horiek, gehiago etzezazkeen ahatz. Arimak garraiatzen zauzkon, ez onhartzen, leriartzen hala nola gorputz hil batzu. Hetaz pozoindatua zuen.

Aldi batez Odette mintzatu zizakon Forcheville-ek Paris-Murziako bestara egin-arazia zaukon ikustaldi batez. «Nola, jadanik ezagutzen huen? Ha! bai, egia da», erran zuen Zuanek, etzakiela ez iduri ukaiteko errana zuzenduz. Eta bapatez ikharan hazi zen, Odette-ren ganik hain preziozki atxikia zuen eskutitza ukana zuen Paris-Murziako besta egun hortan, Etxe-Urrezkoan Forcheville-rekin auhaltzen ari zela behar bada gogoraturaz. «Alta Etxe-Urrezkoak egia eztela jakina dutan nik dakita zer orhoit-arazten dautan», erran zaukon izitzeko. - «Ba, Prévost-enean bilatua nindukanean handik jalgitzen nintzala erran deatan arratsean enintzala han izana», ihardetsi zaukon (Zuanen itxura ikusiz bazakiela uste baitzuen), deliberatuki, hortan ezarriz ahalgegabea baino lehen, herabea, Zuanen gaitzitzeko beldur bat bere ganako amodioz gorde nahi zuena, eta gero zintzo izan zaitekeela hari erakusteko nahikaria. Hortako zuen jo burrego batenak ziren zorroztasun eta indarrarekin baina bortiztasunik gabe, Odette ezpaitzen Zuani egiten zaukon gaitzaz ohartzen; eta irriz hasi zen ere, behar bada, egiaz eta gehienik, aphaltua, ahalgetua zela ez iduritzeko. «Egia duk enintzala Etxe-Urrezkoan izana, Forcheville-ren etxetik heldu nintzala. Prévost-enean izana nindian egiazki, hori etzian gezurra, han aurkitua nindian eta haren grabadurer behatzera sar nindadin galdegina zautakan. Baina norbait ikustera jina zizakean. Etxe-Urrezkotik heldu nintzala erran deat, hi asper beldur bainindian. Ikusten duk, aski gixako zian ene ganik. Demagun ogenduna izan nizala, deplauki erraiten deat bederen. Zer abantail nitek ez erranez ere Paris-Murziako egunean harekin bazkaldua nintzala, egia bazian? Are gehiago nun orduan ezpaigian elgar biziki ezagutzen, errak, maitea.» Zuanek irriño bat egin zaukon hitz lehergarri horiek hartaz egina zuten gizon indar gabearen bapateko bi-

hozkabetasunarekin. Beraz, hortaz berriz gogatzera behin ere menturatua etzen ilabetetan beretan zorion osokoak izanak zirelaketz, Zuan maitatua zuen ilabete horietan ere, gezurrez ari zen jadanik! Etxe-Urrezkotik jalgitzen zela errana zaukon ordu hura bezala («Kathleya» egina zuten lehenbiziko arratsa), bertzerik zenbat ba ote zen, Zuanek hartaz aieru ukana etzuen ere gezur bat gordetzen zutenik! Orhoitu zen egun batez errana zaukola: «Aski nuke Verdurin Andereari ene zaia eztela prest erraitea, ene karrosa berant ethorri dela. Akomeatzeko bidea bada beti.» Zuani ere araez, berant bateko estakurua, hitzartu ordu baten aldatzekoa badematen hitzatarik batzu erranak zauzkon ainitz aldiz, gorderik ukana zuketean, hura orduan ohartu gabe, bertze batekin egina zukeen zerbait, hari ere hau erranik: «Askiko dut Zuani erraitea ene zaia eztela prest, ene karrosa berant ethorri dela. Akomeatzeko bidea bada beti.» Eta Zuanen orhoitzapen eztienez guzien azpian, Odette-ek lehenago erranak zauzkon hitz lañoenen azpian, ebanjelioko hitzak bezala sinetsiak zituenean, leku ohituenean, dendariaren etxe, Oihaneko ethorbide, Zaldilastertoki, egun xehekienik emanetan oraino jokoa, lekua uzten duen dembora soberakinari esker gordea, egintza batzuetako gordalekutzat balia baitaiteke, sendi zuen azpizko gezur batzu sar zaitezkeela; maitatuenik gelditua zizakon guzia (arrats hoberenak, La Pérouse karrika bera Odette-ek erranak zauzkonetarik bertze oren batzuetan beti utzia zukeena) ahalgegarri bilakatzen zizakon, orotara heda-araztean baitzuen Etxe-Urreztatuko aithor-raren entzutean senditua zuen lastura ilunetik apur bat, eta, Niniba-ko Desolamenduko ihizi higungarriak bezala, harri bat bertzearen ondotik haren iragan guzia khordokatzen. Orhoitak Etxe-Urrezkoaren izen mingarria erraiten zaukon aldi oroz bazterrera egiten baldin bazuen orai, etzen gehiago, berriki oraino Saint-Euverte-ko Anderearen arratsaldian bezala, aspaldidanik galdua zuen zorion bat orhoit-arazten zaukolaketz, baina berriki ikasia baikizik etzuen zorigaitz bat. Gero Etxe-Urrezkoaren izenaz Oihaneko irlarenaz bezala izan zen, emeki emeki Zuani min egin-araztetik gelditu zen. Ezen gure maitasuna, gure bekaiztasuna direla uste ditugunak, eztira sendimendu jarraiki ber bat, ezin ikusi bat. Ainitz eta ainitz maitasunez eginak dira, bekaiztasun ezperdinez eta iragankorrek direnez, baina bere ainiztasun jarraiki ethengabetik iraupenaren itxura bademate, batasunaren lillura. Zuanen maitasunaren bizia, bekaiztasunaren leiala, herioaz eginak ziren, ezin zenbatuzko gu-

tizien, duden leialtasungabeaz, orok gaia Odette baitzuten. Luzaz egon baliz hura ikusi gabe, hiltzen zirenak etziren bertze batzuez ordainduak izanen. Baina Odette-ren hor izaiteak Zuanen bihotzean jarraitzen zuen aieruak eta xamurtasunak aldizkatuz.

Arrats batzuetan bapatez Zuanekin gixakoa bilakatzen zen berriz, gogortasunekin jakin-arazten baitzaukon behar zuela hortaz berehala balia-tu, urteak eta urteak baino lehen berriz agertzen ikusiko etzuelako gaztigu-pean; berehala behar zen haren etxera sartu «kattleya egitera», eta Zuanek omen zuen gutizia hori hain zen bapatekoa, hain ezin argitua, hain manuka-ria, gero egiten zauzkon pherekuak hain erakuskarriak eta ohigabeakoak, nun maitasun basa itxuragabeko horrek Zuani gezur batek edo gaixtakeria batek bezainbat griña emaiten baitzaukon. Horrela, Odette-ek manaturik, haren etxera sartua zen arrats batez, eta ari zizakolarik ohiki zuen idorrarekin kontra emaiten zuten elhe sutsu batzuekin musuak aldizkatuz, Zuanek uste ukan zuen bapatez harrabots bat entzuten zuela; jeiki zen, orotan mihatu zuen, nehor ez aurkitu, baina etzuen Odette-ren ondoan bere lekuaren hartzeko kuraiarik ukan, hark orduan, errabia gorenean, untzi bat hautsi baitzuen eta Zuani erran: «Jeus eztaitekek ehoiz egin hirekin!» Eta Zuan dudan egon zen hea etzuenez haren bekaizkeria oinazkatu nahi zuen eta sentsuak phiztu nahi zauzkon norbait gorderik ukana.

Batzuetan aurkilekuak ziren etxe batzuetara bazoan, Odette-ek zer-bait ikasiko zuelako ustean, haren izendatzera ausartu gabe alta. «Badut nexkaño bat gustatuko zaizuna», zion makaelak. Eta oren bat egoiten zen trixteki solasean jeus gehiago egiten etzuelakotz ustegabetua zen nexka gaixo batekin. Gazte-gazte xoragarri batek erran zaukon egun batez: «Nahi nukeena, adixkide baten aurkitzea da, orduan segurra lizateke, norbaiten bilatzera nehoiz enindoake gehiago. - Zinez, emazte bat maitatua izaiteaz hunkia izan daitekeela uste duna, nehoiz eztuela gizona enganatzen? galdegin zaukon hersturan. - Segurki baietz! jiteak nola diren!». Zuan etzagokeen nexka horier Laumes-ko prinzesari gustatuko zizazkon gauza berak erran gabe. Adixkide baten bila zabilanari, erran zaukon irriño batekin: «Gixako da, gerrikoaren koloreko begi urdinak ezarriak ditun. - Zuk ere, mahungaburu urdinak dituzu. - Horrelako leku bateko zein solasaldi ederra dugun! Aspertzen haut behar bada? zer egina badun? - Ez, badut asti guzia, aspertua baninduzu,

erranen nautzun. Mintzatzen zure entzutea maite dut aldiz. - Biziki ohoratua niz. Ezkirea solasean polliki ari, erran zaukon sartu berria zen makaelari. - Baina ba, hain zuzen hori nion neure baitan. Zein pherestu diren! Horra! Orai solastatzera ene etxera jiten da. Hala zion Printzeak joan den egunean, bere emaztearen etxean baino ontsa hobeki zela. Orai munduko andere guziek molde berezi bat hartua omen dute, egaizko eskandala! Uzten zituztet, ixila niz.» Eta Zuan utzi zuen begi urdinekilako nexkarekin. Baina laster zutitu zen nexkari adio erranez, etzizakon ohargarri, Odette etzuen ezagutzen.

Margolaria eri egonik, Cottard medikukak itsas-bidaia bat konseilatu zaukon; leial batzuek harekin joaitea aiphatu zuten; Verdurin-darrak etziren bakarrik egoitera deliberatu izan ahal, untzi berezi bat alokatu zuten, gero erosi, eta horrela Odette-ek egin zuen itsas-itzuli ainitz. Dembora apur batez geroztik joana zen aldi oroz, Zuanek haren ganik urruntzen ari zela senditzen zuen, baina gogoko urruntasun hori bidekoari arautua izana balizako bezala, Odette itzulia zela bazakien orduko, ezin zagokeen hura ikusi gabe. Aldi batez, hek bere ustez ilabete batendako baizik ez joanak, ala bidenabar gutiziatuak izanik, ala Verdurin Jaunak azpiz aitzinetik gauzak antolaturik bere emazteari atsegin egiteko eta leialak aldizka baizik ez abisaturik, Tuniz-tik Aljer-era joan ziren, gero Italiara, gero Greziara, Konstantinopoliz-era, Asia Erdikora. Urtea hurbil bazuen bidaiak irauten zuela. Zuan osoki gostuan sendi zen, abantzu zorionean. Nahiz Verdurin Andereak pianixtari eta Cottard medikuari sinets-arazi nahi ukana zauen bataren izabak eta bertzearen eriek etzutela batere haien beharrik, eta zer nahi izanik ere Cottard Anderearen uztea Parisen sartzera etzela zuhur iraultzan omen baitzen, Konstantinopoliz-en libertatean utzi behar ukan zituen. Eta margolaria haiekin abiatu zen. Egun batez, hirur bidaiariak itzuli eta laster, Zuanek hara joan behar zuen Luxembourg-erako onibuz bat iragaiten ikusiz, barnera jauzi egina zuen, eta han bekoz-beko Cottard Anderearen aitzinean jarria aurkitu zen, hau bere «egun handietako» ikustaldien egiten, handizki jantzia, luma xapelean, zetazko zaia, mankerdi, parasola, kartuntzi, eta eskularru xuri garbituak. Ikur horiek soinean, aroa idor zenean bazoan oinez etxe batetik bertzera, auzoalde batean, baina gero bertze auzoaldera iragaiteko korrespondenziarekilako onibuzaz baliatzen zen. Lehenbizian, emaztearen gixako-

tasun jaiok burjes ttipiaren gogordura zilatua ukan baino lehen, eta bertzela ere Zuani Verdurindarrez mintzatu behar zizakonez sobera jakin gabe, solas batzu erran zituen, onibuzak bere harrabotsaz artetan osoki estaltzen zuen mintzo urri, moldegaitz, eztiak, entzuten zituen eta egun batean estaiak igaiten zezteen hogeita bortz etxetan errepikatzen zituenen artean hautatuak:

- Eztautzut galdeginen, jauna, zu bezalako gizon batek ikusi duenez, Mirliton-etan, Paris guziari laster egin-arazten daukon Machard-en potreta. He bada, zer diozu hartaz? Onhartzen dutenen aldean zirea ala gazkitzen dutenenean? Ezta saloin guzietan Machard-en potretaz baizik mintzo; ezta aphain, ezta garbi, ezta «treinan», Machard-en portretaz ezpadu nork bere aburua emaiten.

Zuanek ihardetsirik potret hori etzuela ikusia, Cottard Anderea beldur izan zen aithortzera bortxatuz ofensatua etzuenez.

- Ha! biziki ontsa da, deplauki aithortzen duzu bederen, Machard-en potreta ez ikusirik etzira desohoratua sendi. Hori biziki eder zata zure ganik. He bada, nik ikusi dut, aburuak eztira berdin, batzuek apur bat milikatua dela, apur bat krema joa, nik, ezin hobea aurkitzen dut. Alabaina eztuela gure Biche adixkidearen emazte hori eta urdinen egiterik. Baina deplauki aithortu behar dautzut, enauzu biziki mende azkenekoa aurkituko, baina gogoan dutan bezala diot, eztut hartzen. Gure Jainkoa, ene senarraren potretetan diren gaitasunak ezagutzen ditut, ohian egina duena baino gutiago bitxi da, baina muxtatxak urdinak egin behar ukan dauzko. Machard aldiz! Oizu, hain zuzen ordu huntan (zure aurkitzeko atsegina handiena emaiten baita) haren etxera noan adixkidearen senarrak hitzeman dauko, Akademiara izendatua baldin bada (medikuaren lankidetarik bat da) potreta Machard-i egin-araziko daukola. Alabaina amets ederra da! Bertze adixkide bat badut Leloir maiteago duela diona. Ni eniz ez-jakin gaizo bat baizik eta Leloir jakitatez behar bada nagusitzen da. Baina iduritzen zata potret baten lehenbiziko gaitasuna, 10.000 libera balio dituelarik oroz gaineratik, egite ukaitea dela eta egite gustagarri.

Lumaren gorak, kartuntziko markak, eskularruetan thindatzaleak marratua zuen zenbaki ttipiak eta Zuani Verdurin-darrez mintzatzeko eragotzerak eman-arazten zauzkon solas horien ondotik, Cottard Andreak,

bidatzaleak geldi-arazi behar zuen Bonaparte karrikako izkinatik oraino urrun zirela ikusiz, bertze solas batzu aholkatzen zauzkon bere bihotza entzun zuen.

- Beharriek tirrinta egin dautzuket, jauna, erran zaukon, Verdurin Anderearekin egin dugun bidain. Zu baizik etzen aipu.

Zuan ontsa ustegabetua izan zen, uste zuen haren izena nehoiz etzela Verdurin-darren aitzinean erraiten.

- Bertzela ere, gaineratu zuen Cottard Andereak, Crécy-ko Anderea han zen, guzia errana da. Odette nunbait delarik, ezin daiteke luzaz egon zutaz mintzatu gabe. Eta uste ukan dezakezu eztela gaitzez. Nola! etzira segur? erran zuen, Zuanen dudazko jestu bat ikusiz.

Eta zintzoki sinesten zuenak bazeramala, adixkide batzuen arteko amodioaz mintzatzeko erran-nahian bakarrik erabiltzen zuen hitz hortan gogamen gaixtorik batere ezarri gabe:

- Baina, adoratzen zitu! Ha! uste dut elaithekeela hitz hori haren aitzinean erran behar! Ontsa ezarria zinzateke! Zertaz ere bada, behazunez margazki bat ikusten bazen, bazion: «Ha! hemen baliz, hark lezake egiazkoa denez ala ez zuri erraita jakin. Hura bezalakorik bat ezta hortako.» Eta noiz nahi galdegiten zuen: «Zer ari dateke orai? Apur bat lanean ari baliz bederen! Zorigaitz da, mutiko bat hoin dohatua, hoin auherra izaitea. (Barkatzen dautazu, eztea hala?) Ordu huntan badakusat, gu gogoan dago, nun ote giren galdez.» Hitz bat erran du ere ontsa pollit zatana; Verdurin Andereak galdegiten zaukon: «Baina nola ikus dezakezu orai zer ari den, hartarik zortzi ehun lekoatan zirenaz geroz?» Orduan Odette-ek ihardetsi dauko: «Adixkide baten begiko, ezin denik jeus ezta.» Ez zin egiten dautzut, eztautzut hori balakatzeko erraiten, ainitzik ezten bezalako adixkide bat baduzu hor. Verdurin Andereak azken egunean erraiten zautan oraino (badakizu abiatzeko bezperan hobeki solastatzen da): «Eztiot Odette-ek ezkituela maite, baina erraiten daukogun guziak phizu handirik eluke Zuan Jaunak erran lezokeenaren ondoan.» Oi! Jainkoa, huna nun bidatzaleak geldi-arazten nauen, zurekin elhekatuz Bonaparte karrikatik urruntzera nindoan... luma xuxen dutanez erraiteko zerbitzua eginen dautazua?»

Eta Cottard Andereak mankerditik esku xuriz larruztatua athera zuen, hartarik joan baitzen, onibuz barnea bete zuen bizi gora bateko oiharzu-

na, ikuspegia, thindatzalearen usainarekin nahasia. Eta Zuan harendako xamurtasunez gainditzen senditu zen, Verdurin Anderearendako bezainbat (eta abantzu Odette-rendako bezainbat, ezen hunendako sendi zuena, oinazearekin gehiago nahasia ez izanez, etzen biziki maitasuna), onibuz-gibel idekitik begi beraztuez jarraikitzen zizakon batean, Bonaparte karrikari kuraiarekin lotzen, luma gora, zaia esku batez goitituz, bertzeaz bazaduzkala parasola eta marka agerian uzten zaukon kartuntzia, mankerdia aitzinean dilindan.

Zuanek Odette-rendako zituen sendimendu erikorrer burkidetza eman nahiz, Cottard Andereak, senarra izanen zizakon baino sendatzale hobe, haien ondoan bertze sendimendu batzu xertatuak zituen, ohi bezalakoak horiek, eskerronezkoak, adixkidantzazkoak, Zuanen gogoan Odette gizakia-
ren idurikoagoa bilakatuko zutenak (bertze emazteak bezalakoagoa hek ere sendimendu horiek eman-arazten ahal zauzkotelakotz), haren aldatze behin betikoa lehia-araziko baitzuten atxikimendu bakezkoan maitatu Odette hortara, arrats batez Zuan eremana zuena, margolariaren etxean besta batetik landa, iranja edari baten hartzera Forcheville-rekin eta Zuani iduritua baitzizakon haren ondoan zorionean izanen zela.

Lehenago laztarekin usu gogoan ukanik Odette-ez hartua izaitetik geldituko zela egun batez, deliberatua zuen ernerik egonen zela eta, maitasunak uzten ari zuela senditu orduko, hari estekan egonen zela, atxikiko zuela. Baina huna nun maitasunaren ahultzeari aldi berean arautzen zizakon amoros egoiteko gutziaren ahultzea. Ezen eztaiteke norbait alda, erran nahi da bertze norbait bilaka, izaiterik gehiago eztuen emaztearen sendimenduer jarraikitzen den batean. Batzuetan egunkari batean ikusia zuen izen batek, Odette-ren maitarietarik bat izana ahal zela uste zuen gizonetarik batenak, berriz bekaizkeria emaiten zaukon. Baina ontsa arina zen eta erakusten baitzaukon etzela oraino hainbertze oinazkatua izana zen, baina ere sendimolde hain atsegingarria ezaguna zuen aro hartarik osoki jalgia, eta zoriak bidena-bar utziko baitzuen behar bada urrundik eta ebaska haren edertasunen ikustera, bekaizkeria horrek bazemon sustatze gozagarri bat, Paristar gogo-ilunari Benezia uzten duenean Frantziara itzultzeko, Italia eta uda eztirela oraino urrun azken sistuli batek sendi-arazten daukon bezala. Baina gehienetan, handik atheratzen zen bere biziko aro hain berezian, hartan egoiteko ezpada, bederen egin zezakeeno hartaz ikuspen argi baten ukaiteko indar egin nahi

zuenean, ohartzen zen jadanik ezin zezakeela; nahiko zuen, itzaltzera zoan eskualde bat bezala, utzi berria zuen maitasun hori ikusi; baina bikun izaitea hain da neke 'ta nork bere buruari ukaitetik utzia den sendimendu baten egiazko ikuspenaren emaitza, nun berehala, burumunetan iluna jartzen ari baitzizakon, jeus ezpaitzuen gehiago ikusten, behatzea uzten baitzuen, begitakoa ekhentzen, haren berinak garbitzen. Bazion bere baitan atsedenaldirik baten hartzea hobe zela, sarri asti izanen zela oraino, eta bidaiari baten jakin-nahi gabea zokoratzen zen, gogorduran, logaleturik xapela lo egiteko begien gainera behehitzen duenean, gero eta lasterrago deramala sendi duen bagonean, hain luzaz bizi izana den herritik urrun eta azken agur bat eman gabe etzuela joaitera utziko bere baitan hitzemana, Zuanek ustegabeen bildu zuenean bere ondoan Forcheville Odette-ren maitaria izana zelako lekukotasuna, ohartu zen oinazerik batere etzuela horren gatik sendi, maitasuna orai urrun zela, eta behin betikotz uzten zuen orduan ez abisatua izaiteaz urrikitu zen. Odette lehen aldikotz besarkatu aitzinean, Zuanendako hain luzaz ukana zuen eta besarkatze horrek orhoitzapena bertzelakaturiko zaukon begitartearen orhoitean izkiriartzea bilatua zuen bezala, nahiko zauzkon ere, gogoz bederen, maitasun, bekaiztasun emaile Odette horri, oinazkatzen zuen et gehiago orai ikusiko etzuen Odette horri, bazeno, goraintziak egin ahal ukan.

Hutsean zen. Aldi bat gehiago ikusi behar zuen oraino, aste zenbait berantago. Lotarik izan zen, amets bateko ilunabarrean. Bazabilan Verdurin Anderearekin, Cottard medikuarekin, ezagutzen etzuen mutiko gazte «fez» batekilakoarekin, margolariarekin, Odette-rekin, Napoleon III-garrenarekin eta aitatzirekin, itsas-bazterraren gainari, noiz goratik noiz zenbait metretan bakarrik, zut jarraikitzen zizakon bide batean, hala nola nun ethengabe igaiten eta jausten baitzen; jausten ari ziren bidaiariak etzizezteen igaiten ari zirener jadanik ageri, gelditzen zen argi gutia ahultzen ari zen eta iduri zuen orduan gau beltza berehala hedatzera zoala. Noiztenka uhainak hegirano jauzten ziren, eta Zuanek ziliporta hormatuak sendi zituen mateletan. Odette-ek xuka zitzaiz erraiten zaukon, ezin zuen eta haren aldera ahalgetua zen, oheko athorran izaiteaz bezala. Ilunbearen gatik agian ohartuko etzirela uste zuen, alta Verdurin Andereak so ustegabetu batekin behatu zaukon

begitartea aldatzen zizakola Zuanek ikusi zuen ephe luze batez, sudurra luzatzen, eta muxtatxa handi batzu bazituela. Odette-ri so egiteko itzuli zen: matelak hits zituen, ttita gorri batzuekin, aurpegia akhitua, begipeak beltz, baina behatzen zaukon nigar xorta batzuek bezala haren gana erortzera egiten zuten begi xamurtasunez bete batzuekin, eta hain maite zuela sendi zuen nun berahala ereman nahiko baitzuen. Bapatez Odette-ek ukharaia itzuli zuen, oren ttipi bati behatu eta erran: «Joan behar dut», guziak molde be-rean uzten zituen, Zuan berex hartu gabe, arratsean edo bertze egun batez berriz nun ikusiko zuen erran gabe. Galdegitera etzen menturatu, jarraiki nahiko zizakon eta bortxartua zen, haren aldera itzuli gabe, irriño batekin Verdurin Anderearen galde bati erantzutera; baina bihotzak lazkarriki joi-ten zaukon, arestian hain maite zituen begiak nahiko zauzkon irazi, matela frexkotasunik gabeak lehertu. Zuanek igaiten jarraikitzen zuen Verdurin An-derearekin, beraz Odette-ren ganik urrats oroz urruntzen, hau bertze aldera jausten baitzen. Zekunda baten buruan, oren ainitz izan zen jadanik joana zela. Margolariak Zuani oharr-arazi zaukon Napoleon III-garrena Odette-ren ondotik laster itzalia zela. «Seguraz ere biak hitzartuak ziren, gaineratu zuen, malda-pean elgarrekin batu datezke, baina jendetasunez adiorik eztute erran nahi ukan. Haren ohaidea da.» Mutiko gazte ez ezaguna nigarrez hasi zen. Zuanek balakatu nahi ukan zuen. «Ororen buruan Odette-ek arrazoin du, erran zaukon begiak idortuz eta feza burutik ekhenduz errexkiago izan zadin. Hamar aldiz erran daukot. Zergatik izan hoin trixte? Hori zen bada adi ahal zezakeen gizona.» Horrela Zuan bere buruari mintzo zen, hastape-nean ezagutu ahal etzuen gizona hura baitzen; elhaberrilari batzuek bezala, bere nortasuna bi jendetan uzitua zuen, ametsa egiten zuena, eta fez bat buruan bere aitzinean ikusten zuena.

Napoleon III-garrenaz den bezainbatean, ideien elgarretaratze na-hasi batek, gero baroinaren ohiko aurpegiaren aldatze zenbaitek, azkenik Ohorezko aiphamenaren kordoin handiak papoan, Forcheville-ri zaukoten haren izena eman-arazia; baina egiazki, ametsean zen jendeak itxuratzen eta orhoit-arazten zaukon guzitik, Forcheville zen bada. Ezen, iduri osagaitz eta aldakor batzuetarik, Zuanek lotarik hutsezko ondorioak hartzen zituen, gau-zen moldatzeko halako indarra zutenak orduan nun zatikatze xoilan bidez

errepikatzen baitzen behereko izaite batzu bezala; bere ahurreko beroaren senditzeaz, tinkatzen zuela uste zuen esku arrotz baten ahurra moldatzen zuen, eta oraino konzienzian etzituen sendimendu eta iduripenez, gertakariak bezalako batzu sorr-arazten, hauek, elgarri lotuak jarraikitzetik, Zuanen lora ordu onean zuzen ekharriko baitzuten haren maitasunaren hartzeko edo beraren iratzartzeko behar zen jende hura. Bapatez gau bat beltza jarri zen, zeinu batek jo zuen, biziliar batzu iragan ziren lasterretan, sutan ziren etxe batzuetarik ihesi; Zuanek entzun zituen jauzten ziren uhainen harrabotsa eta bere bihotza, bortiztasun berean antsiaz bularretan joiten. Bihotzeko pilpirak bapatez lehiaz bikundu ziren, oinaze bat, higundura ezin argitu batzu senditu zituen; erreduraz estalia zen laborari batek iragaiten erraiten zaukon: «Zaugi Charlus-i galdegitera Odette bere lagunarekin arratsaldiaren bururatzen nun izana den, harekin egona da lehenago eta oro erraiten dauko. Sua hek dute ezarri.» Gambarako mutila zen iratzartzera jiten baziola:

- Jauna, zortziak dira eta ile mozlea hor da, oren baten buruan berriz jin dadin erran daukot.

Baina elhe horiek, Zuan hartan murgildua zen loaren inguruetan sartuz, etzizazkon konzienziarano helduak uraren zolan arrai batez iguzki bat egiten duen makurdura hura jasanez baizik, xilintxaren harrabotsa ephe bat lehenago, leze horien zolan zeinu baten ozena hartuz, sutearen gertakariak erdia zen bezala. Bizkitartean gogoan ikusten zuen ingurumena erhautsetan airatu zen, begiak ideki zituen, azken aldi batez urruntzen ari zen itsas-uhain bat entzun. Matela hunki zuen. Idorra zen. Orhoit zen alta ur hotza senditua zuela eta gatzaren gostua. Jeiki zen, jantzi. Ile mozlea goizik ethorr-arazia zuen ene aitaxiri goizean izkiriatua baitzaukon arratsaldean Combray-ra joanen zela, jakinik Cambremer-ko Andereak - sortzez Legrandin Andereño - han egun batzu iragan behar zituela. Bere orhoitean begitarte gazte horren goxoa hain aspalditik izana etzen baserriarenari eratxikiz, biek batean eskaintzen zaukoten zenbait egunendako Pariseren uztera delibera-arazia zuen gozatasun bat. Jende batzuen aitzinean emaiten gituzten zoriak ezpaitira hek maite ditugun aroarekin batean gertatzen, baina, aitzinago joanez, hasi den baino lehen gerta baitaitezke edo bururatua denean errepika, beratango gus-tatu behar zaukun norbaitek gure bizian egiten dituen lehenbiziko agerral-

diek hartzen dute guretako gaztiapen baten, aitzin-mezu baten balioa. Molde berean zuen Zuanek antzokian aurkitu Odette-ren itxura usu gogoan ukan hura, nehoiz berrikusiko zuela uste etzuen lehenbiziko arrats hartan - eta zen orai Froberville-ko jenerala Cambremer-ko Andereari aitzineratu zaukon Saint-Euverte-ko Anderearen arratsaldiaz orhoitzen. Gure biziko abantail-nahiak hain dira ainitz, nun ezpaita bekan gertatzen oraino izaiterik eztuen zorion baten zedarriak ezarriak izaiten direla oinazkatzen gituen goibeltasun bat handitzen ari den aldi berean. Zuani ere hori gerta zakidiokeen Saint-Euverte-ko Anderearen etxetik bertze nunbait. Eta nork daki, arrats hartan bertze nunbait gertatu izan baliz, bertze zorion batzu, bertze goibeltasun batzu etzituenez ukanen, eta gero etzizakonez ezin hutseginak zirela agertuko? Baina hala izana zela iduritzen zizakona, gertatua zena hori zen, eta probidenziazko zerbaiten ikustetik etzen urrun Saint-Euverte-ko Anderearen arratsaldira joaitea deliberatua ukaitean, biziaren asmuak zuen aberastasunaren miresteko gutizitua zen eta berari galde neke batean - hala nola gehienik agiantzatzekoa zer zen - luzaz egoiteko ezinean zen haren izpirituak, arrats hartan jasanak zituen oinazetan eta jadanik hozitzen ari ziren atsegin ezin asmatuetan - bien arteko neurriaren arautzea egiteko zobera neke baitzen - halako gatinadura beharrezko bat ikusten zuelakotz.

Baina, atzari eta oren baten buruan, ile-mozleari erraiten ari zaukon «brozak» bagonean etzuela makurtua izan behar, ametsaz berriz gogatu zen, berrikusi zituen, bere ondo-ondoan sendituak zituen bezala, Odette-ren larruantze hitsa, matela mehegiak, aurpegi akhitua, begi joak, Odette-rendako zuen maitasun iraunkorretik haren ganik ukana zuen lehenbiziko iduriaren ahaztea ekharria zuten xamurtasun jarraikietan zehar, oharpenetik galdua zuen guzia, adixkidantza hasia zuten lehenbiziko aroez geroz, orhoita agian, lo zagolarik, hauetan izana baitzizakokeen zuzen senditua zuenaren bila. Eta noiztenka Zuanen baitan, zorigaitzean etzen orduko, berriz agertzen zen, eta, haren zuzentasunaren heina aldi berean aphaltzen zuen ezakolkeriarekin, egin zuen bere baitan: «Biziko urteak eta urteak andeatu ditutala erran behar, hil nahi ukan dutala, maitasunik handiena ukan, gustatzen etzizatan emazte batendako, ene gostukoa etzen batendako!»

Zati herena

HERRI IZEN :

IZENA

Logabeko gauetan usuenik haren iduria gogora deitzen nuen gambaretan, bat etzen Combray-ko gambaren idurikoa - hauk aire hazi-irindun, pikorkatu, jangarri eta debot batez erhaustatuak - Ondartzako Hotel-Handikoa baino gutiago, Balbec-en, hunen murrurri erripolineztatuek baitzadukaten, ura urdintzen den igerigia bateko harresi leunek bezala, aire bat garbia, zeru kolorekoa eta gazia. Hotel horren antolamenduaz kargaturik izana zen tapizier bavierarrak batetik bertzera barnetako aphaindura aldatua zuen, hirur aldetarik murruren luzean, hala nola ni hartan gertatua nintzanean, liburutegi apha batzu ezarriz, berinazko erakustegi batzu, hetan, bazadukaten lekuaren araura, eta aitzinetik ikusia etzuen ondorio batez, itsasoaren itxura aldakor baten edo bertzearen zati batek dirdirutzen baitzuen, itsas-margazki argi batzuen lerroa hedatuz, zur-gorritzko marra lodiek hausten zutena bakarrik. Hainbertzetarano nun barne osoak iduri baitzuen mubleria «modern style»-ko erakustaldietan agertzen diren etzandegi modela hetarik bat, han etzanen denaren begiak bozkariatuko dituztela uste den ederlan batzuek aphainduak baitira, eta bizitegiak izan behar duen lekuaren araberrako gai batzu emanak baitzetztee.

Baina jeus etzen ere egiazko Balbec horren idurikoa hartaz ainitzetan amets egina nuena baino gutiago, ekaitza zen egunetan, haizea hain azkarra zenean nun Françoise-ek Champs-Élysées-etara eremaitean gomendatzen baitzaute harresietarik hurbilegi ibil enindadin burura teilarik eror etzakiditan, eta auhenka aiphatzen zituelarik egunkariak iragartzen zituzten ixtripu eta hondamen handiak. Itsasoan ekaitz baten ikustekoa baino gutizia handiagorik enuen, gutiago ikuskarri eder bat bezala, naturako bizi egiazkoaren ephe agerian ezarri bat bezala baino; edo izaitekotz enetako etzen ikuskarri ederrik artifiziarki ene atsegineko antolatuak etzirela banakien hek baizik, baina beharrezkoak zirenak, ezin aldatuak: naturazko edertasunak edo ederlan handikoak. Enintzan ikusi-nahia, enintzan jakiteko guraz gose nihaur baino egiazkoagoa uste nuenaz baizik, jeinu handi baten gogamenetik apur baten erakusteko balioa enetako bazuenaz, edo naturaren indarretik edo garaziatik, bere baitara utzirik agertzen den molde berean, gizonen esku-hartzerik gabe. Gure amaren galtzetik haren mintzo ederraren doinuak fonografan bereziki bildurik konsola ezkinetzakeen bezala, berdin ere ekaitz mekanikaz itxuratu batek utziko ninduen Erakustaldiko ithurri argizatuek bezain axolagabetua. Nahi nuen ere, ekaitza osoki egiazkoa izan zadin, ur-bazterra bera zinezkoa, eta ez herriko gizon batzuek berriki egin itsas-ezponda bat. Bertzela ere natura, nitan phizten zituen sendimendu guzietz, gizonen egintza mekanikatuen kontrakoena zena iduritzen zizatan. Gutiago bazadukan haien hatza, are gehiago zuen ene bihotzaren hedamenari eremua eskaintzen. Gogoan atxikia nuen bada Legrandin-ek aiphatzen zaukun Balbec-en izena, «itsas-bazter hilgarri, bere hondamenez aiphatuetarik, urtean sei ilabatez lanhoen hil-mihiseak eta uhainen hagnak inguratzen dituztenetarik» ondartz hurbil-hurbil batena bezala.

«Han sendi da oraino oinen azpian, zion, Finistère-an berean baino ontsa gehiago (orai hotel batzu han gainkatzen balire ere, lurraren hezurreria zaharrena aldatu ahal ukan gabe), han sendi da lur frantzes, europear, Lur zaharraren azken muga. Eta arraintzarien azken kampakendua ere, mundua hasi denaz geroz bizi izan diren arraintzari guziak bezalakoan, itsasoko lanhoen eta itzal ilunen betiereko erresumaren belharrean.»

Combray-en Zuan Jaunaren aitzinean Balbec-eko ondartz hartz

mintzatua nintzan egun batez, haren ganik ikasi nahiz hea ekaitz azkarrenen ikusteko gune hobekienik hautatua zenez, ihardetsia zautan: «Balbec ezagutzen dutala uste dut bada! Balbec-eko eliza, XII eta XIII-garren mendetako, oraino erdi erromana, gothiko normandiarraren erakuskai ohargarriena da behar bada, eta hain berezia! ederlan persiarretik dela iduri du.» Eta leku horiek, ordu arteo orhoitaz haratagoko naturakoak baizik etzirela idurituak zizatzanak, lur-borobilak jasan gertakari handien arokoarenak, - eta giza-ixtoriotik Hartz Handia ala Itsaso-Handia bezain urrun, haiendako, balenendako baino gehiago ertarorik izan etzen arraintzari basa horiekin -, gozo handia izan zizatan haien ikustea bapatez menden lerroan sartuak, aro erromana ezagutua ukanik, eta jakitea hirusta gothikoa ethorria zela ere behar zen orduan arkaitz basa horien zainetatzera, hala nola landare beratz baina bizkor hek, uda-lehena denean, izarkatzen baitute han hemenka lurburuetako elhurra. Eta gothikoak leku eta gizon horier emaiten baldin bazauen eskas zuten beharrezkotasun bat, horiek ere ordainez bat ekhartzen zaukoten. Indar egiten nuen gogoan itxuratzeo arraintzariak nola bizi izanak ziren, hor nola entseatuak zituzten gizarteko harreman herabe ustegabeoak, ertaroan, Ifernu itsas-hegiko gune batean, herioko ezpondaren oinetan; eta gothikoak bizi gehiago bazuela iduritzen zizatan, orai arteo beti hetan asmatua nuen hirietarik berex, ikus bainezakeen nola, aldi berezi batean, arkaitz basa batzuen gainean, ezkila dorre mehe batean hozitua zen eta lilitua. Ereman ninduten Balbec-eko gizaiduri aiphatuenen itxurapen batzuen ikustera - apostoluak artilitsu eta sudurra zabal, kalostrapeko Birjina -, eta bozkarioz hatsa bularretan gelditzen zizatan betiereko lano gazituan zizelkaduretan moldatzen ikusten ahalko nituela gogatzten nuenean. Orduan, otsaileko arrats ekaiztun eztiatan, haizeak, ene bihotzera Balbec-erako bidaia baten egiteko xedea ufatuz, ezpaitzuen gambarako khebidea baino gutiago ikhara-arazten, eragintza gothikoaren gutizia nitan itsasoko ekaitz batenarekin nahasten zuen.

Nahiko nuen biharamunean berean oren bat hogei-ta biko trein eder joria hartu nehoiz ezpainezakeen, bihotza pilpiran hasi gabe, burdinbidetako Kompainiaren erreklametan, abiatzeko orena irakur: iduri zizatan arratsaldeko gune berezi batean ozka gozagarri bat ezartzen zuela, mixeriozko seinale bat hartarik oren bidetik baztertuek oraino baitzeramaten bada arratserano, biharamun goizerano, baina, Pariseren orde, treina baziragan eta

haien artean hautatzera uzten ginituen hirietarik batean ikusiko baitziren. Ezen Bayeux, Coutances, Vitré, Questambert, Pontorson, Balbec, Lannion, Lamballe, Benodet, Quimperlé-n gelditzen zen, eta bazoan aitzina eskaintzen zauztan izenez mukurru miragarriki kargaturik, hetan zein hautetsikoen ezpainakien, bat ezin sakrifikatu ahalez. Baina haren igurikan egon ere gabe, lehiaka jantziz, arratsean berean abiatzen ahalko nintzan, eta Balbecera helduko goizargia itsaso erotuaren gainean jeikiko zenean, haren hagon airatuetarik geritzatzera estilo persiarreko elizara joanen bainintzan. Baina Bazkoko lanarten hurbiltzean, aitamek Italia ipharraldean aldi batez iraganaraztea hitzmana ukan zautatenean, horra nun oso-oso eta hetaz bete izana nintzan ekaitz ametsen orde, orotarik lasterrez, gero eta gorago, heldu ziren uhainen ikustea baizik ez agiantzatuz, itsas-bazter ohilenean, itsas-ezpondak bezain eliza zut eta latz batzuen ondoan, haien dorretan itsas-xoriak garrasiaz ariko baitziren, horra nun bapatez horiek ezabatuz, zuten gozagarri guziaz gabetuz, haren kontrakoak zirelaketz eta ahuldu ahalko baizik etzutelaketz, ene baitan jartzen zen uda-lehen leinuruez nabartuenaren amets kontrakoa, ez izotzaren orratz guziekin oraino saminki xixtatzen zuen Combray-ko udalehena, baina jadanik lirioez eta eguerdi-lorez Fiesola-ko alhorrak eztaltzen zituena eta Angelico-renen iduriko urre zolez Firenze argiztatzen. Orditik, arraiak, usainonak, margoak zizaztan bakarrik baliodunak iduritzen; ezen idurien aldizkatzeak gutizia nitan bertze alde batera eremana zuen, eta ene sendimenduen doinuaren bertzelakatze oso batera, musikan batzuetan direnak bezain bapatekora. Gero gertatu zen aro aldapan xoil bat aski izan zela nitan doinuz aldatze baten egiteko urtaro itzultzerik igurikatu behar ukan gabe. Ezen ainitzetan sasoin batean galdurik aurkitzen da bertze bateko eguna, han bizi-arazten baikitu, hartako atsegin bereziak gogoratzen, hetaz gutizia-arazten eta egiten ari ginen ametsak hausten, bertze zati bateko orsto hori bere aldian baino lehenago edo berantago ezarriz Zorionaren egutegi artekatuan. Baina berehala, hala nola gure gozoak edo osagarriak hetarik ustegabeko irabazi aski mehe bat baizik har eztezakeen naturazko gertaldiak - jakitatea hetaz jabetzen den egunerano, eta halabehararen menetik eta baimenetik bazterturik nahitara berrituz, haien agertarazteko ahala berriz eskuetarazten daukun egunerano -, berdin ere Atlantikako eta Italiako amets

horien ekharpena aroen eta sasoinen aldatzearen menean izaitetik gelditu zen. Berriz sorrarazteko enuen izenen erraitea baizik behar ukan: Balbec, Venezia, Firenze, hauen barnean metatua baitzen azkenean izendatzen zituzten lekuek gogoan ezarria zautaten gutizia. Uda-lehenean ere, liburu batean Balbec-en izenaren ediritea aski zen nitan ekaitzen eta gothiko nomandiarraren atzartzeko; ekaitz egun batez berdin, Firenze edo Venezia-ren izenak bazematan iguzkiaren, lirioen, Duken palazioaren eta Santa-Maria-Loretakoaren gutizia.

Baina izen horiek behin betikotz iretsi baldin bazuten hiri horietaz nuen iduria, etzen horiek bermoldatuz baizik izan, nitan horien berrargertzea bere lege berezien menean ezarriz baizik; horrela ukan zuten ondorioa, iduri horren ederrago bilakatzea izan zen, baina ere Normandiako eta Italiako hiriak egiazki izan zaitezkeen baino ezperdinago egitea, eta, ene idurimenaren bozkario arrazoin gabeak handi-araziz, bidaietan ukanen nuen geroko nahiagabearen azkartzea. Lurreko leku zenbaitez hartua nuen gogamena goratu zuten, bereziagoak eginez, eta beraz egiazkoagoak. Enituen orduan hiriak, eskualdeak, eraikuntzak margazki guti edo aski gozagarri batzu bezala itxuratzen, han edo hemen gai ber batean moldatuak, baina hetarik bakoitza ezezagun bat bezala, izaitz bertzetarik berexa, ene arima hortaz gose zena eta ezagutzea abantail ukanen zuena. Zenbat hartu zuten orduan oraino bereziagoko zerbait, izen batzuez erranak izaitetik, haiendako baizik etziren izen batzuez, jendeak dituzten bezalako izenez! Hitzek eskaintzen daukute gauzez ikastetxetako murruetan dilidan ezartzen direnak bezalako iduri ttipi argi ohiko bat, haurrer erakusteko behazun baten bidez zer den zurlaneko mahi bat, xori bat, zinaurritegi bat, mota bereko guzien berdinak bezala asmatuak baitira. Baina izenek eskaintzen dute jendez - eta jendeak bezala bereziak, bakarrak direla sinestera ohitzen gitzuten hiriez - iduri nahasi bat, haietarik hartzen baitu, haien soinu ozen edo ilunetik, hartaz berdinki margoztatua den kolorea, hala nola iragarki batzu, osoan urdinak edo osoan gorriak, hetan, erabili den egitatearen edo aphaintzalearen burutaldi baten gatik, urdin edo gorri baitira ez bakarrik zerua eta itsasoa, baina untziak, eliza, iragaileak. Parme-ren izena, *La Chartreuse* irakurria nuenez geroztik hara gehienik joan nahi nuen hirietarik bat, agertzen baitzizatan tinki,

leun, malba-kolore 'ta ezti, han onhartua izanen nintzan Parme-ko edozein etxe aiphatzen baldin bazizatan, egoitza, leun, tinki, malba-kolore 'ta ezti batean, Italiako bertze edozein hiriko egoitzekin ezer ikustekorik etzuenan biziko nintzala gogatzeko atsegina emaiten zizatan, Parme izen horren silaba phizuaaren bidez baizik asmatzen enuenaz geroz, aieririk batere ezpaitzako ibiltzen, eta eztitasun «stendhaldarretik» eta brioleten leinuruez irets-arazia naukon guziarenez. Gogoan Firenze nuenean, hiri mirakuluz usainondu bat bezala zen eta lore-korona baten idurikoa, lirioen hiria izendatzen baitzen eta haren katedralea Santa-Maria-Loretakoa. Balbec-ez zen bezainbatean, hartarik hartua izan zen lurraren margoa badatxikan eltzeki normandiar zahar batean bezala, hartan oraino ezeztatu den ohidura zenbaiten itxura, zuzenbide feudal zenbaitena, lekuen lehengo izanara batena, haren silabak ezperdinki moldatuak zituen ahozkatzeko ara noizpaitekoarena - heltzean kafesnea zerbitzatzen zautan ostalerraren baitan aurkituko nuela ezpainuen dudatzen - margoztatzen ikusten den izenetarik bat zen, elizaren aitzinean it-saso erotuaren ikustera baneramala, emaiten bainaukon ere alegietako jende baten itxura liskartzale, ospetsu, ertarotarra.

Osagarria azkartzen baldin bazizatan eta gurasoek onhartzen bazuten, Balbec-en egoitera joan nindadin ezpada, bederen aldi batez, Normandiako eta Britainiako eskualden eta eraikuntzaren ezagutzeko, hain usu idurimenaz igana nintzan biak eta hogeita biko treina hura har nezan, hiri ederrenetan gelditzea hobetsiko nuen; baina elgarrekin erkidaturik ere, nola hauta, elgarrekin ezin aldizkatuak diren izaite batzu baino gehiago, Bayeux-ren (bere dentela gorrailean gainetik azken silabako urre zahartuak argiztatzen) eta bertzen artean: Vitré-ren (doinu xorrotzak berinaki zaharra zur beltzez zeharkitzen), Lamballes eztiaren (bere xurian, baitoa arraultze gorrin-gotik hautsaran perlaturano), Coutances-en (kathedrale normandiarra, bere azken silaben gantzu horailean, azken silaba bikunak, jori eta horail, burrazko dorre batez koronatzan baitu), Lannion-en (bere ixil herrixkakoan, ulia jarraikitzen zaukon karrosaren harrabotsean), Questambert-en, Pontorson-en (bere jaoan irrigingarri, luma xuri eta moko hori leku ibaitu et airakor horien bidetan ihaurtuak), Benodet-en (izen doi-doi lehiorrari lotua, ibaiak bere gorbelen erdian ereman nahi duela iduri baitu), Pont-Aven-en (buruko oihal arin baten airatze xuri gorra hodi bateko ur muskertuan daldaratuz

dirdiran), Quimperlé-ren (hura, hobeki estekatua, ertaroaz geroztik, hetaz gurugurikan dagon latsen artean eta, berinadura bateko armiamia saretan barna, zilhar belztuzko orratz lanpustuetan aldatzen diren iguzki arraiek marrazkitzen dutena bezalako uherdura batez perlaztatzen)?

Iduri horiek hutsezkoak ziren bertze arrazoin baten gatik ere: nahitez biziki xoilduak baitziren. Dударик gabe, ene idurimenak nahi zuena eta ene sentsuek oraian atseginik gabe 'ta ez osoan baizik ez ikusten, izenen iheslekuan hetsia nuen; дударик gabe, han ametsa metatua nuelakotz, ene gutziak orai erakharr-arazten zituzten. Baina izenak ez tira biziki zabal: hetan sarr-araz nezakeena, hiriaren berezitasun nagusietarik bizpahirur ziren gehien-gehienik eta han artekorik gabe jartzen ziren. Balbec-en izenean, itsas-mainuetan erosten diren punttako-luma loditzale hetan bezala, uhain batzu ikusten nituen estilo persiarreko elizaren inguruan goitituak. Badateke ere iduri horien xoiltzea izan zela ene baitan hartu zuten nagusitasunaren egiletarik bat. Aitak deliberatua ukan zuenean, urte batez, Bazkoko lanarten iragaitera Firenze-ra eta Venezia-ra joanen ginela, Firenze-ren izenean hiriak ohiki osatzen dituzten gaien sarr-arazteko astirik ez ukanez, Giotto-ren jeinua, bere izaitean, zela uste nuenaren ernaltzetik, uda-leheneko usainon batzuen bidez, hiri naturaz gaineko baten jalgi-araztera bortxatua izan nintzan. Gehin-gehienik - izen batean ezpaitaiteke leku baino iraupen gehiago eduk-araz - , Giotto-ren margazki batzuetan bezala jende ber bat egintzako aldi ezperdinetan erakusten baitute, hemen ohe batean etzanik, hor zaldiz igaitera joanki, Firenze-ren izena bi aldetan zen zatikatua. Batean, pabellun eraikuntzazko baten azpian, harresi margoztadura bati beha nindagokon, gainetik baitzadukan goizeko iguzki baten erridaua, erhaustatua, zeharka, handitzen ari; bertzean (ezpainuen uste izenak helburu helgaitz batzu zirela, baina hartan murgiltzera joanen nintzan egiazko giro bat, oraino bizi ukana enuen biziak, hetan hesten nuen bizi garbi hunkigabeak emaiten zauen atsegin gorputzekoener, gertakari lañoener, margolari lehenetan den garazia hura) lehiarekin iragaiten nuen - fruituekin eta Chianti-ko arnoarekin igurikatzen ninduen barazkariarren lasterrago edireiteko - «Ponte Vecchio» zubi zaharra, iloriz, lilipaz eta eguerdi-lorez trabatua. Nahiz Parisen nintzan, hori nuen ikusten, eta ez ene inguruan zena. Ikusmolde xoilki izaitezko batean ere, gutziziatzen ditugun herriek badadukate ordu oroz gure egiazko bizian,

hartan gauden herriak baino ainitz leku gehiago. Badateke orduan ene go-goan zenari oharpen gehiago ekharri baldin banauko nihaurek «Firenze-ra, Parme-ra, Pisa-ra, Venezia-ra joaitea» hitzak erraiten nituenean, ohartuko nintzala ikusten nuena etzela batere hiria, baina bizia beti neguko arratsalde azkenetan iragana zuen gizalde batendako izan zaitekeen bezain gauza bat hain ezperdina, hain goxagarria, mirazko gauza hau: uda-leheneko goiz bat.

Egiazko izaiterik gabeko iduri horiek, geldi-geldiak, beti berdinak, ene gau-egunak betez, ene biziko aro hori aitzinekoetarik (eta gauzak kam-potik baizik ikusten eztituen - erran nahi da jeusik ikusten ez-tuen - ohartzale batendako haiekin nahasi ahalko zirenetarik) bertzelakatu zuten, hala nola opera batean aire batek berritasun bat sartzen baitu, liburuxkaren irakurtzeaz bertzerik ezpaliz egiten gogoari eman elizatekeena, are gutiago antzokiaren kampoan egonez darioten oren laurdenen khondatzen. Hala ere, zenbatze xoil horren aldetik ere, gure biziko egunak eztira berdinak. Egunen iragaiteko, jite apur bat zaintsukoek, enea zen bezala, eskuan dituzte, beribilek bezala, «viteza» erperdinak. Badira egun batzu menditsu eta malkarrak mugagabeko dembora emaiten baita hetan igaiten, eta egun maldadunak laster handitan kantuz jausten baitira. Ilabete hortan - aire bat bezala ethengabe errepikatzen baintuen, ezin asez, Firenze, Venezia, Parme-ren iduri horiek, eta nitan sustatzen zuten gutiziak zerbait baitzadukan jende baten alderako maitasun bat izan baliz bezain barnatuki berezia - nitarik berex zen izaite egiazko bati lotuak zirela uste ukaitetik enintzan gelditu, eta itxaropen bat ezagun-arazi zautaten, lehen aroetako girixtinoek parabisuan sartzeko bez-peran haz zezaketen bezain ederra. Hortako, ametseriak moldatua zuen eta sentsuek ikusten etzutena - eta are gehiago hauendako gutziagarri, ezagut-zen zutenenetik bertzelako - sentsuen bidez ikusi eta hunkitu nahi ukai-tearen artean zen kontra-izanaz axolatu gabe, iduri horien izaite egiazkoak orhoit-arazten zautanak zuen ene gutizia sustatzen, askietsia izanen zela hit-zemaitea bezala baitzen. Eta, nahiz ene buru-berotzearen arrazoina gozaldi ederlanetako bat zen, bidaia-liburuek ezthetikakoek baino gehiago hazten zuten, eta, bidaia-liburuek baino ere gehiago, burdinbidetako erakustariak. Hunkitzen ninduen hau zen: idurimenean hain hurbil, baina helgaitza, ikusten nuen Firenze hura nitarik urruntzen zuen bidea, neure baitan, ezin egina baldin bazen, heinka, itzuli bat eginez, «lur-bidea» hartuz, hartara

heltzen ahalko nintzala. Segurki, neure baitan errepikatzen nuenean, horrela ikustera nindoanari hainbat balio emanez, Venezia «Giorgione-ren eskola» zela, «Titien-en egoitza, ertaroko etxe-eraikuntzaren erakustoki osoena», zorionean nintzan. Zorion gehiago nuen alta, laster bateko atherarik, aroaren gatik urratsa zalu, uda-lehen goiztiarreko egun batzuen ondotik, berriz negura itzulia baitzen (Combray-n, Aste Saindukari, aurkitzen ginuena bezala) -, karrika handian itsas-gaztainondoak ikusten nituela ura bezalako aire hormatu batean murgilduak, ordukotz hala ere abiatzen ari, gomit zuzenak, jadanik jantzietan, eta etsitzera utzi gabe, bere meta izozkatuetan, hotzaren indar ilhortzaleak kontra eginik ere, baina haien jite aitzinagarriaren geldi-araztera heldu gabe, orstatze ezin trabatuaren biribiltzen eta zizelkatzen -, gogoan nuenean Zubi Zaharra jadanik lilipaz eta eguerdi-lorez ihautua zela, uda-leheneko iguzkiak Hodi Handiko uhainak margoztatzen zituela urdin hain ilun batez eta esmeralda hain noblez nun, Titien-en margazkien oinetan hiltzera jinez, hauen margoekin heinka baitzaitezkeen. Bozkarioa enuen gehiago atxiki ahal ukan aita, aro-neurkinari behatzen zuen batean eta hotza deitoratzen, treina hoberenak zein ziren bilatzen hasi zenean, eta gogoan hartu nuelarik landegi ikhaztunean, inguruan aldapenaren egitea bere gain hartzen zuen gambara mirazkoan sartuko nintzanean, biharamunean atzar nindaitekeela harbizi eta urrezko hirian, «harnabarrez aphainduan eta esmeraldaz lauzatuan». Horrela, Venezia eta lirioetako Hiria etziren bakarrik nahitara idurimenaren aitzinera emaiten ziren alegiazko margazki batzu, baina izaitea bazuten, ikusi nahi baldin baziren baitezpada iragan behar zen Paristik bide zenbaitetan, lurreko gune berezi batean, eta ez edozein bertzetan, hitz batez egiazkoak ziren. Gehiago ere hala izan ziren enetako, aitak erranez: «Oro har, Venezian egon zintzazkete jorrailaren hogeitik hogeita bederatzirano eta Firenze-ra hel Bazko goizeko», bi-biak jalgi-arazi zituenean ez bakarrik arrazoin hutsezko Lekutik, baina hartan ez aldian bidaia bakar bat, baina bertze batzu aldi berekoak ere (gertakizunak baizik eztirenaz geroz guhaur hetaz hunkiegiak izan gabe) han ezartzen ditugun idurimenezko Arotik - bera hain ontsa berregiten den Aro hura nun hiri batean iragana ukanik oraino bertze batean iragan baitezakegu -, eta eman-arazi zuenean hetako erabiltzen diren gauzen egiazkotasuna phorogatzen duten egun berezi batzu, ezen egun bakar horiek, baliatuz higatzen dira, eztira berriz itzultzen,

ezin daitezke bizi hemen, han eginak baldin badira. Senditu nuen ur-beltzez zikindua nuen barneko-motx xuria xuriketariak ekharri behar zuen astelehenetik hasten zen aste ingurura zoazila, hartan iretsiak izaiteko, oraino izaiterik etzuten aro idealetik atheratzean, geometria hunkigarrienaren bidez, haien gopoil eta dorreak nihauren biziko eremuan sartu beharko nituen bi hiri Erreginak.

Enintzan alta oraino aleganziaren azken mailerako bidean baizik; azkenean (orduan zizatan bakarrik agertu, karrika zalapastatuetan, Giorgione-ren harresi-marrazkien leinuruaz gorrituetan, hainbertze gaztiapen ukanik ere asmatzen jarrakia nuen bezala, etzirela gizon «itsasoa bezain maiestatedun izigarriak, bizkarreko odolduaren izurren azpian bazeramatela burdin-hori leinuruekilako harmeria» ibiliko heldu zen astean Venezia-n, Bazko bezperan, baina nihaur izan nindaitekeela, prestatu zautaten San-Markoko argazki batean, marrazkilariak ezarria zuen jende ñimiño hura, xapel biribila buruan, kalostreparen aitzinean) aita entzun nuenean eni eraiten: «Hotz dateke oraino Hodi Handian, ontsa egin hezake zer gerta ere neguko bizkarrekoa eta maripulis lodia heure malan ezarriz.» Hitz horietan halako gogo-erautzi batera igan nintzan; ordurano ezina uste ukana nuena, sendi nintzan zinez «Indietako itsasoan ziren arkaitzen iduriko amethixtazko harroka» haien artean sartzen ari; jimaztika ezin handiago eta ene indarrak baino goragoko batean, inguruan nuen gambarako aire debaldekoaz kuxku batez bezala buluzten nintzala, ordaindu nuen Venezia-ko aire neurri berekoaz, ametsetakoa bezalako itsas-aire ezin erran eta berezia, ene idurimenak Venezia izenean hetsia zuen hartaz; senditu nuen gorputzetik jalgitze mirakuluzko bat nitan egiten; harekin batean berehala sortu zen zinturreko min gotor bat hartu dugularik senditzen den goitikatzeko gutizia nahasia, eta ohean ezarri behar ukan ninduten sukar bat hain zailarekin nun medikuak erran baitzuen utzi behar zela orai ez bakarrik Firenze 'ta Venezia-ra joaitea, baina, osoki sendatua izanen nintzanean ere, beharko zela, urte batez bederen, bidaiako xede oro eta nahasmendua ekhar zezakeen oro utzi.

Eta ondikotz, debekatu zuen ere baitezpada antzokira utz nindezaten Berma-ren entzutera; artixta miragarriak, Bergotte-ek jeinua edireiten zaukonak, hainbertze balioduna eta hain ederra zen zerbait eni ezagun-araziz, Firenze-ra eta Venezia-ra ez izanik konsolatuko ninduen behar bada. Gelditu

behar zen egun oroz Champs-Elysées-etara ene igortzean, akhitzera utziko eninduen norbaiten begirantzan, Françoise izan baitzen, izaba Léonie hilez geroz gure zerbitzuan sartua. Champs-Elysées-etara joaitea ezin jasana izan zizatan. Bergotte-ek bere liburuetarik batean erakutsiak ukan balitu bederen, ezagutu nahiko nituzkeen, ene idurimenean haien iduri-iduriko bat ezartzen hasia zizatan gauza guziak bezala. Hunek berotzen zituen, bizi-arazten, nor-tasun bat emaiten zauen, eta nahi nituen bizian berriz aurkitu; baina baratze publiko hortan jeus etzen ene ametsetara lotzen.

*

Egun batez, gure ohiko lekuan aspertzen ari nintzalarik, zurezko zaldien ondoan, Françoise-ek ibilaldiz eremana ninduen, garagar azukar saltzalen etxola ttipiek arte berdinetan zaintzen duten mugatik haratago, han aurpegiak ez ezagunak diren eta ahuntz karrosa badabilan leku hurbil baina arrotz hetara; gero itzulia zen bere gauzen hartzera erramu multzo bati bizkarrez zagon kaderan; haren aiduru, sorotxa handi baina bekan eta motza, iguzkiak horitua ohondikatzen nuen, haren buruko ur-askaren gainetik gizaiduri bat baita, noiz ere, bidexkatik, askaren aitzinean bolantean josteta ari zen nexka ile gorriekilako bati mintzatuz, bertze batek, bizkarrekoaren janzen eta bere esku-sarearen biltzen, oiuhu egin baitzaukon, mintzo motz batean: «Goraintzi, Gilberte, banoa, ez ahatz aihal-ondoan hire etxera heldu gitunala.» Gilberte izen hori ondotik iragan zizatan, are gehiago izendatzen zuenaren bizia gogora emanaz nun ezpaitzuen bakarrik hor ezten eta aiphazen den norbait bezala egiten, baina helatzen baitzuen; horrela ondotik iragan zizatan, egintzan baliz bezala, jalgitzearen oldeak eta helburuaren hurbilak azkartzen zuen indar batekin; bazeramatzan berekin, hori sendi nuen, harendako errana zenaz, ez nik, baina hel egiten zaukon adixkideak bazazkienak, erraiten zuen batean berrikusten zuen edo bederen gogoan zuen guzia, egunoroz zuten adixkidantza mina, batak bertzeari egiten zizutzen ikustaldiak, eta enetako are gehiago ezin heldua eta mingarria zen ez ezagun hura guzia, baina ni hartan sartu ahal izan gabe abantzu hunkitzen ninduen nexka zoriondunarendako hain errexa eta erabilgarria, oiuhu batean

airera igortzen zuen; - Zuan Andereñoaren biziko gune ezin ikusi batzuetarik, haren etxean, auhal-ondoan, izanen zen arratsetik, horiek zuzen-zuena joz, jalgi-arazia zuen usainon atsegingarria airean uzten zuela jadanik; - mol-datzen zuela, haur eta sehien artean ibilkari zerutarra, margo balios bateko hedoiño bat, Poussin-en baratze baten gainean biribil dagona iduri, xeheki itxuratzen baitu, operako hedoi zaldiz eta karroz bete batek bezala, jainkoen biziko agerpen zenbait; - azkenik botatzen zuela, belartze larrutu hartara, aldi berean soropil zimeldu bateko zati bat eta bolant jokari ile horiaren arratsaldeko une bat zen lekuan (ezpaitzen botatzetik eta berriz hatzemaitetik gelditu buruko luma urdinarekilako erriensa batek hel egina ukan zaukonean baizik), mirazko eta suharr-orsto koloreko xerranga ttipi bat, leinuru bat bezain ezin hunkia eta tapiza bat bezala hedatua, ezpainintzan ene urrats gibelatu, bihozmindu eta profanataletan han ibiltzetik gelditu ahal izan, Françoise-ek oihu egiten zautalarik: «Hea, maripulisa botoina-ezazu bada, eta goazen», eta ohartu nintzanean, lehen aldikotz, mintzaera arrunta zuela, eta, ondikotz, xapelean luma urdinik ez.

Berriz itzuliko zena ere Champs-Elysées-etara? Biharamunean etzen han; baina ondoko egunetan ikusi nuen; bere adixkidekin jostaten ari zen lekuaren inguruan itzulika nindabilan beti, hala nola nun marra-jokoko aski izan etziren aldi batez galdegin-arazi baitzautan haren alderdikoak osatu nahi nituenez, eta geroztik han zen aldi oroz harekin jostatu bainintzan. Baina etzen hori egun guziez; baziren ikastaldiek, gatiximak, arratsalde-askari batek jitetik tratatzen zutenak, enetik berexia zen haren bizi guziak, bi aldiz, Gilberte izenean tinkatua, hain mingarriki ene ondotik iragaiten senditua bainuen, Combray-ko pattarrean eta Champs-Elysées-etako soropilean. Egun horietan, ikusiko etzela jakin-arazten zuen aitzinetik; ikasketen gatik bazen, erraiten zuen: «Aspergarri da, bihar eniz jiten ahalko; guziak ni gabe jostatu zirezte», apur bat konsolatzen ninduen aire grifiatu batean; baina aldiz bazkal-ondo batera gomitatua baldin bazen eta, horren ez jakinean, jostatzera jinen zenez galdegiten baldin banaukon, ihardesten zautan: «Agian ez! Itxarotzen dut amak ene adixkidearen etxera joaitera utziko nauela.» Bederen, egun horietan, enuela ikusiko banakien, bertze batzuetan aldiz, ustegabeen zuen bere amak komisione egitera berekin eremaiten, eta biharamunean ba-

zion: «Ha! ba, amarekin atheraia niz», gauza naturala izan baliz bezala, eta ez norbaitendako izan zaitkeen zorigaitz handiena. Baziren ere aro gaixtoko egunak, errientsak orduan, euriaren beldur izanez, ezpaitzuen Champs-Elysées-etara ereman nahi.

Beraz zerua dudan bazen, enintzan goizetik hari galdez egoitetik gelditzen eta aitzin-mezu guzietan behatzen. Aitzineko etxekanderea ikusten baldin banuen, leiho ondoan, xapelaren ezartzen, banion neure baitan: «Andere hori atherako da; athera daitekeen aroa da beraz: Gilberte-ek zergatik elezake andere horrek bezala egin?» Baina aroa iluntzen zen, amak zion hobe zaitkeela oraino, iguzki arrai bat askiko zela hortako, baina euria segurrago zela; eta euria bazen, Champs-Elysées-tara zertako joan? Beraz askaritik haste ene begi antsiadunak etziren zeru dudazko hedoiztatutik baztertzen. Leiho aitzinean, galeria hauts-kolore zen. Bapatez, harri mutirian enuen margo gutiago hitsa ikusten, baina gutiago hits baterako indar bat bezala senditzen nuen, bere argia joaitera utzi nahi lukeen arrai gupida baten daldara. Ephe bat berantago, galeria zurail zen eta ur goiztiar batez bezala dirdiran, eta haren sareko mila leinuru burdinerian jartzera ethorriak ziren. Haize ufa batek barreartzen zituen, harria berriz ilundua zen, baina, etxekotuak iduri, berriz heldu ziren; harria berriz doi-doia zuritzen hasia zen eta, musikan, Aitzin-musika baten buruan nota bakar bat, arteko mail guziak laster iraganik, «fortissimo» gorenera deramaten azkartze jarraiki haien iduriko batez, banakusan egun ederretako urre geldi, ezin aldatu hartarano heltzen, hartan barandako bermagune landua beltzez agertzen baitzen hala nola orstatze xingolatu bat, konzienzia behakor bat eta edergile baten askiestea salatzen zituela iduri zuen xehetasun ttipienetako marratzearen arintasunean, eta bere meta ilun zorionekoetan halako ageriakin, halako balusarekian nun, zinez, iguzkizko aintzira hartan zatzaten leinuru zabal orstoztatuek iduri baitzuten bazakitela jabaldura eta zoriona zituztela hitzemaiten.

Huntz-orsto iragankorra, xarrangil-lore iheslaria! harresian herresta daitezkeen edo leihoaldea aphain dezaketenetan, ainitzen ustez, hitsena eta trixtena; enetako, orotan maitatuena gure galerian agertua zen egunetik, behar bada jadanik Champs-Elysées-etan zen Gilberte-ren itzala bera bezala, erranen baitzautan, hara heldu orduko: «Barretan jostatzen has gaiten bere-

hala, ene alderdiko izanen zira»; itzal beratza, hats batez eremana, baina ere urtaruari etzoakona, baina orenari; egunak ezesten edo emanen duen zorion berehalakoaren agiantza, maitasunaren zorionarena; harrian goroldioa bera den baino eztiagoa, beroagoa; iraunkorra, sortzeko eta bozkarioz dirdiratzeko arrai bat aski baitu, negu-minean ere.

Eta bertze landaretze oro ezeztatua den egun hetarano ere, zuhatz zaharren zura inguratzen duen larru musker ederra elhur-pean gordea delarik, elhurra gelditzen zenean, baina aroa estaliegia egoiten Gilberte atherako zela uste ukaiteko, orduan bapatez, amari erran-araziz: «Ori horra hain zuzen eguraldi dela, Champs-Elysées-etara joaitera entsea zintzazkete behar bada hala ere», galeria estaltzen zuen elhur hedatuan, agertua zen iguzkiak urre-izpiak artekatzen zituen eta leinuru beltzez brodatzen. Egun hartan ezkinuen nehor edireiten, edo nexkatoño bakar bat joaitera abian segurtatzen baitzautan Gilberte etzela jinen. Errientsen bilkura larde baina hozpilak utziak zituen kaderak hutsak ziren. Bakarrik, soropilaren ondoan, aroaldi oroz ethortzen zen adin bateko andere bat jarririk zagon, beti jantzeria berdin, miragarri eta ilun bat soinean, haren ezagutzaren egiteko bazterrera utziko baintuen, orduan, aldatzea haizu ukan banu, gero bizian ukanen nituen abantail handienak oro. Ezen Gilberte agurtzera joaiten zizakon egun guziez; Gilberte-ri bere «ama maite-maitearen» berriak galdegiten zauzkon; eta baziduritan, hura ezagutua ukan banu, osoki bertze norbait izanen nintzala Gilberte-rendako, hunen aitamen elhaideak ezagutzen zituen norbait. Bere haur-bitxiak urrunago jostatzen ari zizakon bitartean, beti *Les Débats* gazeta irakurtzen zuen, «ene *Débats* zaharrak» zeritzeenak, eta arixtokrat-ara batean bazion hirizainaz edo kadera alokarisaz mintzo zenean: «Ene adixkide zahar hirizaina», «hura eta ni adixkide zaharrak giren kadera alokaria».

Françoise geldirik egoiteko hoztuegia zen, Konkordiako zubirano joan ginen Zekuanaren ikustera hormaz hartua, bakoitza eta haurrak ere hartara beldurrik gabe hurbiltzen baitziren leihorrera hondatua zen balena handi-handi ezin zain zaitekeen eta zatikatuko zen batera bezala. Champs-Elysées-etara itzultzen ginen; oinazez ahitua nindagon zurezko zaldi geldi eta soropil xuriaren artean, elhurraz garbituak ziren bidexken sare beltzean hartua, gizaiduriak eskuan zadukala horma xixter bat gehiago, haren jestuaren

arrazoina zela iduri baitzuen. Andere xaharrak ere, bere *Débats* gazeta hetsirik, orena galdegin zaukon iragaiten ari zen haurzain bati, eskertu baitzuen erranez: «Zein maitagarri ziren!» eta gero, bidagilea othoiztuz haren haur ttipieri erran zezeen itzul zaiten, hoztua zela, gaineratu zuen: «Mila aldiz ona zintazke. Badakizu ahalgetua nizala!» Airea bapatez urratu zen: Giñol eta zirkaren artean, hedoiertze edertuan, zeru erdi-idekian, ohartua nintzan, ametsetako seinale bati bezala, Andereñoaren luma urdinari. Eta Gilberte jadanik laster guziaz ene aldera heldu zen, laur-kantoineko bonet horradurazko baten azpian phindarretan eta gorri, hotzak, berantak eta jostatze gurak phiztua; nitara heldu baino apur bat lehenago bere burua horman lerratzeratu utzi zuen eta, ala bere plomuaren atxikitze, ala hori pollitago zizakolakotz, ala patinalari baten egonara itxuratu nahiz, aitzina heldu zen irriño batean bi besoak zabalik, hetan hartu nahi ukana baldin banindu bezala: «Braba! Braba! hori biziki ontsa da, zuk bezala aphain dela erran nezake, kopet baduela, bertze adin batekoa ezpanintz, erresuma zaharrekoa, egin zuen andere xaharrak Champs-Elysées ixilen izenean mintzatuz Gilberte-ren eskertze, aroak izitzeratu gabe jinik. Ni bezalakoa zira, hala ere gure Champs-Elysées zaharrendako leial; bi beldurgabe gira. Erraiten banautzu maite ditutala, horrela ere. Elhur horrek, irri eginen duzu, marta-xuriaz orhoit-arazten nau!» Eta andere xaharra irriz hasi zen.

Egun horietan lehenak - elhurrak, Gilberte-ren ikustetik traba nindezakeen indarren iduria, berexete bateko egunaren trixtezia emaiten baitzaukon eta joaiteko egun baten itxura ere, gure elgar ikusteko leku ohikoa, orai aldatua, guzia estalgi-pean jarria, abantzu debekatzen zuelakotz -, egun horrek alta ene maitasunean aitzinatze handi bat egin-arazi zuen, Gilberte-ek enekin batean ukan zuen lehenbiziko grña bat bezala izan baitzen. Gure multxotik ezkinen bi-biak baizik, eta horrela harekin zen bakarra ni izaitea, etzen bakarrik etxekotasun bateko hastapena, baina ere haren aldetik - halako aroan enetako baizik jina ezpaliz bezala - bazkal-ondo batera gomitatua izana zen egun hetarik batez Champs-Elysées-etan ene aurkitzera jiteko utzia ukana balu bezain hunkigarri iduritzen zizatan; gure adixkidantzaren bizitzean eta geroan sineste gehiago banuen, bizkorrik baitzagon inguruko gauzen kukulduraren, bakartasunaren eta hondamenaren erdian; eta elhur

mokorrak lephoan ezartzen zauztan bitartean, xamurtasunez irriñotan nindagon aldi berean erakusten zautan hauteste bat iduritzen zizatanaz ni bi-daiakide bezala onhartuz neguko herrialde berri hortan, eta zorigaitzaren erdian bazatxikatan halako leiltasun bat. Berehala, bat bertzearen ondotik, murruxori herabe batzu iduri, haren adixkideak ethorri ziren, elhurrean beltz-beltzak. Jostatzen hasi ginen, eta hain trixteki hasi egun horrek bozkarioan bururatu behar baitzuen, lehen egunean Gilberte-ren izenaren oiuhukatzen entzuna nuen haren adixkide mintzo laburrarekilakora hurbiltzen ari nintzalarik, barretan jostatu baino lehen, erran zautan: «Ez, ez, ontsa jakina da nahiago duzula Gilberte-ren alderdian izan, bertzela ere, so egizu, kheinu egiten dautzu.» Deitzen ninduen alabaina elhurrezko soropilera joan nindadin, haren alderdira, hortaz iguzkiak leinuru gorra batzu, lehenagoko zeta oihal urre-zilharr izpidunen higadura metalika emanez, «Urre Oihal Kampamendu» bat egiten baitzuen.

Hainbat beldurtua ninduen egun hura izan zen, aldiz, gutienik zorigaitzean izana nintzan bakarretarik bat.

Ezen, Gilberte ikusi gabe egun bat ere ez egoitea baizik enuelarik gogoan (hainbatetarano nun aldi batez, amatxi auhaltzeko orduan etxera ez sartua izanik, ezpainintzan egon ahal izan neure baitan erran gabe karrosa batek Champs-Élysées-etan lehertua izana baliz, zenbait egunez enintzala Champs-Élysées-etara joaiten ahalko; maite den egunetik ezta nehor maite), alta haren ondoan nintzan ordu hek eta bezperatik hain ezin egonean igurikatuak, hetaz ikharan egona nintzanak, gainerateko guzia sakrifikatua nauenak, etziren batere zorionezko orduak; eta ontsa banakien bada, hetan oharpen xehe, amorratu bat tinkan atxikia nuen ene biziko ephe bakarrak baitziren, eta hetan ezpaitzuen atsegin izpi bat aurkitzen.

Gilberte-ren ganik urrun nintzan dembora guzian, banuen haren ikusteko beharra, haren iduria ethengabe itxuratu nahiz, hortara enintzalakotz azkenean heltzen, eta ene maitasuna zuzen zertan zatzan jakitera. Eta gero, ehoiz etzautan oraino maite ninduela errana. Aldiz eta aldiz, ainitzetan bazion eni hautesten zituen adixkideak bazituela, harekin jostatzea gogotik maite zuen lagun on bat nintzala, nahiz xoriburua, ez aski jokoan; azkenik emanak zauztan ainitzetan hozturazko seinale ageri batzu, harendako

bertzeak ez bezalako norbait nintzalako sinestea nitan khordokatuko ahal zutenak, sineste hori Gilberte-ek enetako ukanen zuen maitasun batetik sortua izan baliz, eta ez, zen bezala, harendako nuen maitasunetik, horrek biziki zailagoa egiten baitzuen, Gilberte-ek gogatzera, barneko behar batez, bortxatua nintzan moldearen beraren menea ezartzen zuenaz geroz. Baina harendako nituen sendimenduak, behin ere enauzkon oraino nihaurek erranak. Segurki, ene kainerretako orsto orotan, gelditu gabe izkiaritzen nituen haren izena eta helbidea; baina marratzen nituen lerro ahulen ikustean hura horrengatik nitaz axolatu gabe, ene bizian bera gehiago sartua izan gabe ene inguruan iduriz hainbertze leku harr-arazten baitzaukoten, etsitua sendi nintzan hek ikusiko ere etzituen Gilberte-ek mintzo etzizatzalakotz, baina nihauren gutiziaz, iduri baitzuten zerbait osoki neure baitako, egirik gabeko, akhigarri eta ahalik gabeko zerbait bezala erakusten zautatela. Lehiatuena Gilberte-ek eta nik elgar ikus ginezan zen, gure maitasunaren aithorra elgarri egin, ordurano ezpaitzen hala erraiteko hasia izanen. Badateke haren ikusteaz hain ezin egonean emaiten ninduten arrazoin guziek indar gutiago ukanen zutela gizon adineko baten baitan. Gertatzen da berantago, gure atseginen baliatzean trebeago bilakaturik, Gilberte nuen bezala gogoan emazte baten ukaitekoa aski zaukula, iduri hori egiazkoa denez khexatuak izan gabe, eta ere haren maitatzekoa, hark maite gitsuenez segur izaite beharrik gabe; edo ere harendako dugun amodioaren aithortzeko atseginari ukho egiten dugula, hark guretako duenaren begiratzeko bizkorrago, hala nola baratze-zain xapones hek, lili ederrago baten ukaiteko, bertze batzu sakrifkatzen baitituzte. Baina Gilberte maite nuen adinean, uste nuen oraino Maitasunak egiazko bizia bazuela gutarik kampo; gehien gehienik behaztopaguneak bazer ditzagun haizu utziz, bere zorionak eskaintzen zituela aldatzeko libertaterik ezten ordenu batean; iduri zizatan aithortzeko eztitasunaren orde ezarri banu, neure baitarik, ezaxolaren itxura, enintzala bakarrik gehienik amestua nuen bozkarioetarik batez gabetuko, baina nahitara moldatuko nuela maitasun alegiazko eta balio gabeko bat, egiazkoarekin harremanik gabekoa, haren bide aitzinetik eman mixteriozkoer jarraikitzeari ukho egingen bainuen.

Baina Champs-Elysées-etara heltzen nintzanean - eta lehenik ene maitasuna, behar zituen zuzenaldien jasan-arazteko, bere arrazoin bizidun,

nitarik berex zenaren aitzinean ezartzen ahalko nuenean - ene orhoit akhi-
tuak gehiago aurkitzen etzituen idurien berritzeko haren ikusteari egona
nindagokon Gilberte Zuanen aitzinean gertatzen nintzan orduko, atzo ha-
rekin jostatua nintzan Gilberte Zuan haren, gogora eman ere baino lehen
oin bat bertzearen aitzinean ezarr-arazten daukuna bezalako asmu itsu ba-
tek agurr-arazia eta ezagun-arazia zautanaren, berehala guzia gertatzen zen
hura eta ene ametseko nexka bi izaite berezi izanak balire bezala. Behazenez,
bezperatik orhoitean baldin baneramatzan matela bete dirdiratu batzuetan
bi suzko begi, Gilberte-ren begitarteak eskaintzen zautan orai hisituki hain
zuzen hartaz orhoitua enintzan zerbait, sudurraren mehe xorrotx bat, begi-
tarteke bertze zerbaitekin jarriz, hartzen baitzuen ixtorio naturalean izaite
mota bat mugatzen duten ezagugarriek duten indarra, eta muttur luxekilako
motakoak diren nexka batera aldatzen baitzuen. Ephe gutiziatu hartaz ba-
liatzera nindoan bitartean, aitzinetik moldatua nuen eta buruan berriz edi-
reiten enuen Gilberte-ren iduriaren zuzentzeko, horrek emanen baitzautan,
bakarrik nintzan oren luzetan, zinez hura nuela gogoan segur izaiteko ahala,
harendako nuen maitasuna nuela zinez egiten den lan bat bezala emeki han-
di-arazten, pilota bat igortzen zautan. Eta, bere adimenduak hartan sinesten
eztuen kampoko mundua soinak khonduan hartzen duen filosofo idealixta
bezala, ezagutu ere baino lehen Gilberte agurr-arazia zautan «ni» hura bera
lehiatzen zen eskaintzen zautan pilotaren eni harr-araztera (harekin jostat-
zera jina nintzan lagun bat izan baliz bezala, eta ez harekin batzera ethorria
nintzan arima haurride bat), hari erran-arazten zautan, jendetasunez, abiat-
zen zen ordurano, mila solas gixako bezain ezpaiko eta horrela, ala hartan az-
kenean iduri lehiatu galdua azkenean hatzeman ahalko nuen ixilean egoitea,
ala aldi oroz ondoko arratsaldeari baizik egon behar enindakon baitezpadako
aitzinatzeak gure maitasunari egin-araz zezazketen hitzen hari erraitea debe-
katzen.

Aitzinatze batzu egiten zituen alta. Egun batez, joanak ginen Gil-
berte-rekin guretako bereziki gixakoa zen saltzalesaren etxolarano - haren
etxean baitzuen Zuan Jaunak bere ezti-ogia eros-arazten, eta osagarriko ai-
nitz jaten zuen, arrazako negal batez eta Profeten idorreriaz eri baitzen -,
Gilberte-ek irriz erakusten zautan bi muttiko haur-liburuetako margotzale
ttipia eta naturalixta ttipia iduriak. Batek etzuen garagarr azukar gorria nahi

brioleta hautesten zuelakotz, eta bertzeak, nigarra begietan, etzuen sehiak erosi nahi zaukon arana onhartzen, zeren eta, mintzo suhar batekin aithortu zuen bezala azkenean: «Bertze arana nahiago dut, harra baitu!» Sos bateko bi kanika erosi nituen. So egiten nauen, mirarekin, gattulu urreztatu batean berex, dirdiran eta preso, baliokoak iduritzen zizaztan agatazko kaniker, nexkato gazte batzu bezala irriñotan eta horail iduritzen zizaztalakotz eta bakoitzak libera erdi bat balio zuelakotz. Gilberte-ek, eni baino biziki diru gehiago emaiten baitzaukoten, galdegin zautan zein nuen ederrena aurkitzen. Bazuten biziaren argia eta urtua. Nahiko nuen baten ere sakrifikatza ez utzi. Gustatuko zizatan guziak erosi ahal ukan balitu, guziak liberatu. Bat erakutsi naukon alta haren begietako margoa zuena. Gilberte-ek hartu zuen, haren arrai urreztatua bilatu, pherekatu, libertate saria ordaindu, eta berehala bere preso eni eman erranez: «Harrazu, zurea da, emaiten dautzut, orhoitzapen bezala atxikazu.»

Bertze aldi batez, antzoki klasiko batean Berma-saren entzuteko gutiziaz beti hartua, eskatua naukon hea etzuenek hartan Bergotte-ek Racine aiphatzen zuen eta erostokietan gehiago aurkitzen etzen liburu josi bat. Izenburu zuzena zein zuen galdegina zautan, eta arratsaldean telegrama ttipi bat igorria naukon estalian iskiriatuz hainbat aldiz ene kaiserrean marratua nuen «Gilberte Swann» izen hura. Biharamunean ekharri zautan, xingola malba-kolorekoek eta ezko xuriz hetsi paketa batean, bila-arazia zuen liburu. «Galdegina zintan hura dela ikusten duzu bada», erran zautan, esku-berogailutik atheraz igorria naukon telegrama. Baina mezu hortako helbidetan - oraino atzo jeus etzena, izkiriatua nuen paperxka urdin bat baizik ez, eta telegrafixta batek Gilberte-ren etxezainari eremana zaukonaz geroztik, ezin baliokoago gauza hori bilakaturik baitzen, egun hartan ukanak zituen paperxka urdinetarik bat - neke izan zizatan ene izkirio moldeko lerro hutsal eta bakartu haien ezagutzea postak ezarriak zituen hitz biribilka impri-matuen azpian, piatunetarik batek kraionaz gainean emanak zituen hitzen azpian, egintza zinezko baten seinaleak, kampak munduaren markak, biziaren itxuratzeko inguru ubelak, heldu zirela, lehen aldikotz, ene ametsaren hartzera, atxikitza, azkartza eta bozkariatza.

Eta egun bat gertatu zen ere erran baitzautan: «Badakizu, Gilberte deitzen ahal nauzu, nik hasteko, zure izen ttipitik deituko zitut. Nargadar-

riegi da.» Alta ephe batez aski izan zizakon oraino eni «zu» erraiten jarraikitzea eta, hortaz oharr-arazten nuen batez, irriño bat egin zuen eta, hizkuntza arrotzetako gramatiketari guri hitz berri baten erabil-arazteaz bertze helbururik ez tutenek bezalako erranaldi bat moldatuz, ene izen ttipitik bururatu zuen. Orduan senditua nuenaz berantago orhoituz, argiratu dut ephe batez haren ahoan nihaur edukia izana nintzalako iduripena, nihaur huts-hutsik, ala haren bertze adixkidenak ere ziren gizarteko izan-molderik gabe, ala, ene deitura erraiten zuenean, ene gurasoenak, eta haren ezpainenak - bere aitak bezalatsu, agerr-arazi nahi zituen hitzen ahozkatzeko egiten zuen indarrean - iduri ukan baitzuten hetaz murrizten ninduela, buluzten, mamia baizik irets etzakokeen udare baten azalaz egiten den bezala, bitartean haren soa, elheak hartzen zaukon etxekotasunezko mail berean jarriz, nitarano zuzenkiago heltzen zelarik, ez alta erakutsi gabe hortaz zuen konzienzia, atsegina eta eskerrona ere, irriño batez lagun-araziz.

Baina ordu berean, atsegin berri horien balioa enezakeen estima. Etziren maite nuen nexkatoak emanak, maite zuen «ni» hari, baina bertzeak, harekin jostatzen ari nintzanak, ez Gilberte egiazkoaren orhoitzapenik, ez, hark bakarrik zuelakotz gutiziatua, zorion baten balioa hark bakarrik jakinen ahal etzuen bihotz ezin ukanik etzuen bertze «ni» hari. Etxera sartu ondoan ere, enituen gozatzen, ezen, egun oroz, biharamunean Gilberte-ri behatze zuzen, geldi, zoriondun bat ukanen nuela, maitasuna azkenean aithortuko zautala itxaro-arazten zautan beharrak, ordurano zein arrazoinen gatik gorde ukana zautan argituz, behar horrek berak bortxatzen ninduen iraganaren edukitzera ezteus bat bezala, ene aitzinera baizik ehoiz ere ez so egoitera, emanak zautan abantail ttipien ikustera ez ziren ber hartan eta aski balire bezala, baina oinaren ezartzeko mail berri batzu bezala, aitzina urrats bat gehiagoren egitera utziko nindutena, eta oraino aurkitua enuen zorionerano azkenean heltzera.

Adixkidantzazko seinale horietarik emaiten baldin bazautan zenbait aldiz, griñatzen ninduen ere ene ikusteaz atseginik etzuela iduri ukanez, hori usu gertatzen baitzen ene itxaropenen betetzeko gehienik egona nindeen egunetan ere. Gilberte Champs-Élysées-etara jinen zela segur nintzan eta alai-tasun bat sendi nuen zorion handi baten aitzintze nahasi bat baizik iduritzen

etzizatana ikasia nuenean - goizetik saloinera sartzean jadanik pres-presta zen amaren besarkatzeko, hura ile beltzen ingurua osoan antolaturik eta esku xuri gixen ederrak oraino sabon usainarekin -, erhauts marra bat pianoaren gainean bakar-bakarrik zutik egoiten ikusiz eta leiho azpian Barbariako organo bat *En revenant de la revue* airearen josten entzunez, neguak ukaiten zuela arratserano uda-leheneko egun ustegabeko eta alegera baten ikustaldia. Askaltzen ari ginen bitartean, leihoaren idekitzean, bertze aldeko andereak ihes igorria zuen lasterrez, ene kaderaren ondotik - gure mahiaren luzetasun guzia jauzi bakar batez marratzen zuela - bere etzanaldia han hasia zuen iguzki-arrai bat, ephe baten buruko berriz jarraikitza itzulia zena. Ikastetxean, oren bateko ikastaldian, iguzkiak ezin egonaz aspertzen eta ahi-arazten ninduen eskolako mahirano leinuru urreztatu bat lerratza utziz, hirurak baino lehen heldu ahalko enintzan bestarako gomit bat bezala, atheratzean Françoise ene bila jiten zen ordurano, Champs-Élysées-etara abiatzen baiginen karrika argiez aphaindu, jendez betetan hara, hetan galeriak, iguzkiak jalgi-arazi eta lanhoztatuak, urrezko hedoi batzu bezala etxen aitzinean haizera baitzauden. Ondikotz! Champs-Élysées-etan Gilberte enuen aurkitzen, oraino etzen ethorria. Han-hemenka belar puntta bat sutan emaiten zuen iguzki gordeak hazi soropilean geldi-geldia, hartan phausatuak ziren urzoek iduri baitzuten lur ospagarri baten barnetik baratzezainaren aitzurrak jalgiak zituen zahararroko zizeldura batzu, banindagon begiak urrunera itzatuak, uste nuen noiz nahi Gilberte-ren iduria bere errientsari jarraikiz agertuko zela, arraia zarion besoetako haurra zeruko benedizioneari eskaintzen zuela iduri zuen gizaiduriaren gibeletik. *Débats*-en irakurlesa zaharra bere jargian zagon, beti leku berean, zaintzale bat helatzen zuen, eskuarekin adixkidetasunezko jestu bat hari emaiten oihu eginez: «Zein aro pollita!» Eta diru biltzalea haren gana hurbildurik jargiako sariaren hartzeko, mila fazoinetan ari zen hamar zentimako tiketa eskullarruko xiloan ezarriz, emailearendako amultsutasunez leku ahal bezain ohoragarria bilatzen zaukon lore floka bat izan baliz bezala. Aurkitua zuenean, lephoari itzuli bat egin-arazten zaukon, boa gotitzen zuen eta, ukharaitik ageri zen paper puntta horia erakutsiz, emazte batek, bere papoa erakusten duen batean «Zure arrosak ezagutzen dituzu!» erranez, mutiko gazte bati egiten daukon irriño ederra kaderazainari emaiten.

Françoise baneraman Triunfako Arkurano Gilberte-ren aitzinera, ezkinuen aurkitzen, eta soropilerano itzultzen nintzan jinen etzela segur, noiz ere, zurezko zaldien aitzinean, mintzo laburrarekilako nexkak jauzi egiten baitzautan: «Laster, laster, oren laurden bat bada jadanik Gilberte ethorria dela. Sarri joanen da. Barra jokaldi baten egiteko zure beha gaude.» Champs-Élysées-etako ethorbideari goiti nindoan bitartean, Gilberte ethorria zen Boissy d'Anglas karrikatik, Andereñoa eguraldiaz baliatua baitzen behar zituen erosketa batzuen egiteko; eta Zuan Jauna alabaren bila ethorriko zen. Ene hutsa zen alabaina, soropiletik enuen urrundu behar ukana, nehoiz segurki ezpaiginakien Gilberte zein aldetarik jinen zen, berantago ala goizago; eta igurikatze horrek hunkigarriago egiten zautan azkenean, ez bakarrik Champs-Élysées osoak eta arratsalde guzia, hala nola aro eta leku eremu neurrigabeko bat, haren gune edozeinetan eta ordu oroz Gilberte-ren iduria ager baitzaitkeen, baina ere iduri hori bera, iduri horren gibelean sendi nuelakotz gorderik zagola zein arrazoinen gatik zizatan bihotz betera egotzia, bi oren eta erdien orde lauretan, bonetaren orde ikustaldietako xapel bat buruan, «Embaxadoren» aitzinean eta ez bi giñolen artean, asmatzen bainuen Gilberte-ri hetara jarraitzen ahalko enindaukon eta atheratzera edo etxean egoitera bortxatzen zuten egitate hetarik zenbait, haren bizi ez ezagunaren mixterioa hunkitzen bainuen. Mixterio horrek ninduen ere nahasten, nexkato mintzo motzaren manuz berehala gure barra jokaldiaren hasteko laster egitean, Gilberte ikusten nuenean, gurekin hain bizi eta idorra, *Débats*-ekilako andereari (hunek baitzion: «Zer iguzki ederra, sua iduri du») gur baten egiten, hari irriño herabe batekin mintzo, Gilberte-ez bertze nexkato aitamen etxean zatekeen hura gogoratzen baitzautan, bere aitamen adixkidekin, ikustaldiz, ihes egiten zautan bertze bizi batean. Baina bizi hori, nehork etzautan Zuan Jaunak baino hobeki itxuratzen, berantxago alabaren gana jiten baitzen. Ezen hark eta Zuan Andereak - alaba haien etxean bizi zelakotz, haren ikaspenak, jokoak, adixkidantzak haien menean zirelakotz - bazadukaten enetako, Gilberte-ek bezala, behar bada hark baino ere hobeki, haren gainean botere oro bazuten jainkoer egoki zizeen bezala, ithurria hetan ukanen zuen ezezagun ezin hunki bat, lillura mingarri bat. Haiekin ikusteko bazuen oro hain zen enetako gauza gogoetagarri jarraikia nun, egun

horietan bezala, Zuan Jauna (hain usu ikusia nuena ene gurasoen ezaguna zenean, ene jakin-nahia batere sustatua ukan lezan gabe) Champs-Elysées-etara Gilberte-ren bila bazetorrenetan, haren xapel hautskolore 'ta bizkarreko kapuxadunaren agertzeak emanak zauzta bihotz pilpirak eztitu eta, haren itxurak durduzaten bainiduen oraino, hala nola liburu bat hartaz irakurri berria dugun eta haren berezitasun ttipienek osoki hartzen gituzten ixto-rioko jende batek. Paris-ko kondearekin zuen elhaidetasunak, Combray-n aiphatzen entzuten nuenean axolaten eninduen, orai enetako miragarriko zerbait hartzen zuen, Orléans-tarrak bertze nehork ezagutu ezpalitu bezala; Champs-Elysées-etako bidexka hori betegitzen zuten lerro orotako ibiltzalen zola arruntean bizi-biziki agerr-arazten zuen, miresten nuela haien artean izaita onhar zezan haien ganik ikustate berezirik eskatu gabe, batek ere emaita gogoan etzuen bertzela, hain zen inguratzen zuen ezezaguna osoa.

Gilberte-ren lagunak agurrer ihardesten zuen jendetasunekin, eneari ere nahiz ene etxekoekin samurtua zen, baina ezagutzen ninduela iduri ukan gabe. (Horrek orhoit-arazi zautan alta baserrian usu ikusi ninduela, gogoan atxikia nuen orhoitzapena, baina itzalean, Zuan enetako Gilberte-ren aita baitzen oroz gaintetik, eta ez Combray-ko Zuan hura; haren izena orai eratxikitzen nuen gogamenak ezpaitziren lehenago hartan hartua zen eta hura gogoan ukan behar nuenean ehoiz gehiago erabiltzen enuen sarearen berdinak, norbait berri bilakatua zen; bizkitartean gure lehenagoko gomitari lotzen nuen marra falsu, bigarren eta zehartu batez; eta jeusek enetako baliorik ezpaitzuen ene maitasunak balia ahal zezakeen neurrian baizik, hek ezin ezabatuz nuen ahalge 'ta urrikizko higimen batekin nituen, hetan Champs-Elysées-etan orai neure aitzinean nuen Zuan haren beraren eta behar bada zorionez Gilberte-ek ene izena errana etzaukonaren begietan, hain usu, arratsetan, irrieginarri bilakatua nintzan urteak berraurkitu, gauonaren erraitera ene gambararano igan zadin amari eskatzera igorritz, harekin, aitarekin eta aitatxi-amatxiekien kafearen hartzen ari zelarik, baratzeko mahian). Gilberte-ri erraiten zaukon jokaldi baten egitera uzten zuela, oren laurden batez igurika zezakeela eta, jende guziak bezala burdinazko kaderan jarriz, tiketa ordaintzen zuen Filipe VII-garrenak hain usu berean atxikia zuen esku harekin. Bitartean gu soropilean josteta hasten ginen, urxoak aira-araziz,

haien gorputz eder leinurudun bihotzaren moldekoak eta xorien motako lilak bezala direnak gerizatzen joaiten baitziren, bat harrizko untzi handiaren gainera, han gordetzean haren mokoak egin-arazten baitzaukon jaten zituela iduri zuen fruitu edo bihien nasaiki eskaintzeko jestua eta hortako xedea erakuts-arazten, bertze bat gizaiduriaren bekokira, iduri baitzuen bazemola gainetik esmailezko zerbait, arozaharreko ederlan batzuetan bere margo ainitzaz harriaren kolore berdina aldatzen duen hartarik, eta ere, jainkosa batek dakharrenean, izen berezi bat hari eman-arazten eta, hilkor bati izen ttipi berezi batek badagien bezala, hartaz jainkotasun berri bat egiten.

Ene itxaropenak beteak etzituen egun iguzkitu hetarik batez, enuen Gilberte-ri ene nahigabearen gordetzeko kuraia ukan.

- Banuen hain zuzen gauza ainitz zuri galdegiteko, erran naukon. Uste nuen egun hau gure adixkidantzan balio handikoa izanen zela. Eta ethorri orduko, abiatuko zira! Bihar goizik jitera entsea zaite, mintza ahal nindakidizun azkenean.

Begitartea argitan jarri zizakon eta bozkarioz jauzi eginez zautan ihardetsi:

- Bihar, zaude hortan, adixkide ederra, baina eniz jinen! arratsalde askari handi bat badut; etzi ere ez, adixkide baten etxera noa haren leihotik Theodose erregeren ethortzearen ikustera, ezin ederrago izanen da, eta biharamunean oraino *Michel Strogoff*-era, eta gero berehala Eguberri izanen da eta Urthateko lanarteak. Eguerdialdera eremanen naute behar bada. Zein aphain lizatekeen! nahiz Eguberriko zuhatz bat hutsegin-araziko dautan; zer nahi den Parisen baldin banago, eniz hunara jinen, amarekin ikustaldi egitera joanen bainiz. Goraintzi, horra aitak hel egiten dautala.

Françoise-rekin itzuli nintzan, bururatua den besta egun batez bezala oraino iguzkiaz ikurrineztatuak ziren karriketetan gaindi. Zangoak herrestan nindoan.

- Ezta harrigarri, erran zuen Françoise-rek, ezta sasoineko aroa, be-roegi da. Ondikotz! Jainko maitea, eri gaixo ainitz badateke orotan, sinetsi behar da gain hartan ere guzia makur doala.

Ene hipak iretsiz errepikatzen nituen neure baitan Gilberte-ek luzaz Champs-Élysées-etara ez jiteko bozkarioa hetan argiki agertzera utzia zuen hitzak. Baina hura gogoan nueneko ene izpiritua, bere ibil-joko xoilean, be-

tetzen zuen lillurak, gogoko ohidura baten bortxuak Gilberte-ri buruz baitzepadaz ezartzen ninduen egonara berezi (deitoragarri izan-arren) bakarrak, emaiten hasia zuten, axolagabearen seinale horren gainera ere, zerbait ametsak, ene nigarren erdian moldatzen ari zen musu baten hastapen herabea baizik etzen irriñoa. Eta postaren orena ethorri zenean, neure baitan egin nuen, arrats hartan bertze orotan bezala: «Gilberte-ren eskutitz bat ukanen dut, ene maitatzetik ehoiz eztela gelditu erranen dauta azkenean, eta argituko orai arteo horren gordetzera bortxarazia duen arrazoin mixteriozkoa, ni ikusi gabe zorionean izan zaitzakeela alegia egin-arazia, Gilberte lagun xoilaren itxura harr-arazia daukon arrazoina.»

Arrats oroz eskutitz horren asmatzea laket zizatan, irakurtzen nuela uste nuen, erranaldi bakoitza errepikatzen. Bapatez gelditzen nintzan, izitua. Gogoan hartzen nuen, Gilberte-ren eskutitz bat ukan behar banu, zer nahi izanik ere etzaitzakeela hori izan, nihaurek egina baizik enuenaz geroz. Eta ordutik, indar egiten nuen izkiria zitzaztan nahiko nuen hitzatarik gogoaren baztertzeke, beldurrez eta, horien erraitan, enitzan hain zuzen gertakizun zatekeenetik, maitatuenak, gutiziatuenak ziren hek bazterrera utz. Baina itxurarik etzuen gertaldi batez izanik ere, asmatua nuen eskutitz hura bera ukan balaut Gilberte-ek bere aldetik igorria, neure lana hartan ezagutuz, enuen ukanen nitarik heldu etzen zerbaiten ukaiteko iduripena, zerbait egiazkoren, berriren, ene gogotik kampo eta nahitik berex zenaren, zinez maitasunak emanaren ukaitekoa.

Anartean, berrirakurtzen nuen Gilberte-ek izkiriatura etzautan orsto bat, baina haren ganik heldu zizatana bederen, Racine-ek gaia hetan hartua duen mitho zaharren edertasunaz Bergotte-ek egin zuena, eta, agatazko kani-karen ondoan, beti nihauri hurbil banatxikana. Bila-arazia zautan ene adixkidearen oneziaz hunkia nintzan; eta bakoitzak baitu bere sendimenduari arrazoin batzuen aurkitzeko beharra, maitasunaren sustatzeko gai diren hararik direla literaturak edo solastatzeak ikasia daukoten dohainen ezagutzeaz maite duenaren baitan zorionean izaiterano, hek bezala eginez bereganatzerano, eta hetaz bere maitasuneko arrazoin berri batzuen egiterano, dohain horiek izanik ere maitasun horrek bere baitarikakoa zeno bilatuko zituenen kontrakoan - hala nola lehenago Zuanek Odette-ren edertasun mota berezia -, Gilberte hastapenean maitatua nuelarik, Combray-tik beretik, haren

biziko ezezagun guziaren gatik, hartara jauzian joan nahiko bainuen, hartan haragitu, gehiago jeus etzen neure bizia bazterrera utziz, abantail ezin estimagarri bat zizatan orai, ene bizi sobera ezagutu, gutietsi hortako, Gilberte egun batez zerbitzari xumea bilaka zaitekeela gogatzea, lankide errex eta gozoa, arratsetan ene lanetan lagunduz, enetako liburu josiak bilduko zituen. Bergotte aldiz, Gilberte hastapenean, ikusi ere baino lehen, haren gatik maitatua nuen agure ezin gehiago zuhurra eta abantzu jainkotarra, orai Gilberte-ren gatik nuen gehienik maite. Racine-ez izkiriatuak zituen orstoer bezainbat abantzu atseginekin, so nindagon paper ezko xurizko zigilu handiez hetsiari eta hetan inguraturik ekharria zautan xingola malba-kolorezkoen uhainean korropilatuari. Agatazko kanika musukatzen nuen ene adixkidearen bihotzeko zati hoberena baitzen, ez arinegia baina leiala, eta, nahiz Gilberte-ren biziko goxagarri mixteriozkoaz aphaindua, ene ondoan egoiten baitzen, ene gambaran bizi, ene ohean etzaten. Baina harri horren ederra, eta ere ene maitasunerako gogamenari eratzikitzeaz zorionean nintzan Bergotte-ren orstoer ederra, maitasun hori ezteus bat bezala baizik agertzen etzizatan orduetan, halako gogortasun bat emaiten balaukote bezala, ohartzen nintzan maitasun hori baino lehenagokoak zirela, horren iduririk etzutela, egiten zituztenak edo antzeak edo harrizko lege batzuek jarriak zituztela Gilberte-ek ni ezagutu baino lehen, jeus etzela bertzelakoa izanen ez liburuan ez harrian Gilberte-ek ezagutu ezpanindu, eta beraz jeusek etzautala hetan zorionezko mezu baten irakurtzeko baimenik emaiten.

Eta ene maitasunak, ethengabe biharamuneko bereko Gilberte-renaren aithorra igurikatuz, ezteusten zuen, barreatzen arrats oroz eguneko lan gaizki egina; neure golkoko ilunbean, langilea ezezagun batek etzituen jauziak ziren hariak bazterrera uzten, baina ezartzen, eni gustatzeaz eta ene zorinerako lan egiteaz axolatu gabe, bere lan guzier emaiten zauen ordenu bertzelako batean. Ene maitasunarendako ohar berezirik batere ukan gabea, maitatua nintzala deliberatsetik hasi gabea, biltzen zituen ezin argituak idurituak zizatan Gilberte-ren egintzak eta desenkusatuak nituen hutsak. Orduan batzuek eta bertzek erran-nahi bat hartzen zuten. Iduri zen ordenu berri horrek erraiten zuela, Gilberte ikusiz Champs-Elysées-etara jiteko orde bazkalondo batera joaiten, bere errientsarekin erosketen egiten eta udako lanartetako joaitera prestatzen, «zein arina den edo manakorra»

gogatzean huts egiten nuela. Ezen bata edo bertzea izaitetik geldituko baitzen maitatu ukan banindu, eta obeditzera bortxatua izana baliz, ikusten enuen egunetako etsipen berarekin izanen baitzen. Bazion oraino, ordenu berri horrek, alta maitatzea zer den behar nuela jakin, Gilberte maite nuenez geroz; gogora emaiten zautan haren begietan neure buruaren balia-arazteko nuen betiereko axola, horren gatik bainintzan entseatzen amari sinets-araztera behar zaukola Françoise-ri kautxu bat erosi eta luma urdinarekilako xapel bat, edo izaitekotz eninduela Champs-Elysées-etara gorri-arazten ninduen sehi horrekin igorri beharr (amak ihardesten baitzuen enintzala zuzen ari Françoise-rekin, emazte ona zela eta guri atxikia); gogora emaiten ere Gilberte-ren ikusteko nuen behar bakarra, horrek baitzegien, ilabeteak aitzinetik, Paris noiz utziko zuen jakitera entseatzea baizik enuela gogoan eta nora joanen zen, hura han izan behar ezpaliz herririk goxagarriena atzerrizat edukiz, eta Champs-Elysées-etan ikus nezakeeno beti Parisen egoitea baizik ez gutziaz; eta etzizakon neke eni erakustea grña hori, ez eta behar hori, enituela Gilberte-ren egintzetan aurkitu ahalko. Hark, aldiz, bere errientsa estimatzen zuen, nik hortaz gogoan zer nuen axolatu gabe. Champs-Elysées-etara ez jitea egoki zizakon, Andereño-rekin erosketa egitera joaiteko baldin bazen, goxagarri, amarekin atheratzeko baldin bazen. Eta baldinez lanarten iragaitera hura zen leku berera joaitea haizu utzi balaut ere, leku horren hautatzeko bere aitamen gutizia zuen gogoan, aiphatuak zizazkon mila jostetak, eta ez batere ene gurasoek igorri nahi ninduten lekua hura izan zadin. Batzuetan bere adixkidetarik norbait baino gutiago maite ninduela erraiten zautanean, bezperan maite ninduen baino gutiago, axolagabe batez bere jokaldia gal-arazia naukolakotz, barkamendu eskatzen naukon, bertzeak bezainbat, bertzeak baino gehiago berriz maitatzen has zakiditan zer egin behar nuen; hori jadanik egina zela erran zezatan nahi nuen, othoi-othoizten nuen, enetako zuen adixkidantza bere nahitara, enera aldatu ahal ukan balu bezala, eni laket izaiteko, erranen zituen hitzez bakarrik, ene eginara on edo gaitzaren araura. Enakiena bada, nik harendako sendi nuena, etzela ez haren nahiaren, ez enearen menean?

Bazion ere azkenik, langilesa ezin marrazkituaren ordenu berriak, orai arteo oinazkatuak gituen norbaiten egintzak zintzoak izan daiten nahi baldin badugu, badutela bere jarraikian gure borondateak kontra jeus ere

egin eztezokeen argitasun bat, hari, ez gure gutiziari, behar baitugu eskatu biharamunean nor harek eginen duena zer izanen den.

Elhe berri horiek, ene maitasunak entzuten zituen; sinets-arazten zaukoten biharamuna etzela bertze egunak oro izanak zirenetik bertzelakoa izanen; Gilberte-ek enetako zuen sendimendua, zaharregia jadanik aldatua ahal izaiteko, axolagabea zela; Gilberte-rekin nuen adixkidantzan, maite zue-na ni nintzala bakarrik. «Egia da, ihardesten zautan maitasunak, adixkidantza hortaz eztaiteke gehiago jeus egin, ezta aldatuko.» Beraz, biharamunean berean (ala besta baten igurikan ala hurbil baldin bazen, urteburu baten, urthatsaren behar bada, bertzeak bezalakoak eztiren egun horietarik baten, dembora berriz hasten baita gastu berri batzuetan iraganaren ondoriotasuna egotziz, trixtezien ondorea ez onhartuz) Gilberte-ri galdegiten naukon gure adixkidantza zaharrari ukho egin zezan eta berri baten oinharriak ezar.

Beti banuen eskupean Paris-ko plan bat, hartan Zuan Jaun-Ande-reak bizi ziren karrika ikus zaitekeelakotz, aberastasun bat iduritzen zizana. Eta atseginez, zalduneriako leialtasun mota batez ere, solasa edozertaz zenean, karrika horren izena erraiten nuen, hala nola nun aitak galdegiten baitzautan, ez izanez ama eta amatxi bezala ene maitasunaz jakinduru:

- Baina zergatik hiz beti karrika hortaz ari? ohargarririk jeus ezтик, egoiteko biziki gozagarria duk Oihanetik bi urratsetan baita, baina bertze hamar badituk horrelakoak.

Behar zena noiz nahi egiten nuen aitamer Zuanen izenaren erran-arazteko; gogoz ethengabe errepikatzen nuen segurki; baina banuen ere haren soinu ezin goxoagoaren entzuteko beharra eta irakurtze ixila aski etzizatan musika haren jo-araztekoa. Zuanen izen hori bertzela ere, hain aspalditik ezagutzen nuena, elhea galdua duten batzuer hitz ohituenetako gertatzen den moldean, hitz berri bat zen enetako. Gogoa beti hartaz hartua nuen, eta bizkitartean etzaitkeen hari jar. Zatikatzen nuen, hizkiz hizki erraiten, haren orthografia ustegabetzekoa zen enetako. Eta erran-errega izaiteko aldi berean, garbi zela iduritzetik gelditua zen. Haren entzutean ukaiten nituen bozkarioak, hain nituen ogendunak uste nun iduri baitzizatan gogoan nuena asmatzen zela eta, hartara ekharri nahi baldin banuen, solasa aldatzen. Gil-

berte oraino hunkitzen zuten gaietara itzultzen nintzan, elhe berak gelditu gabe berriz eta berriz errezpikatzen nituen, eta elhe batzu baizik etzirela jakinik ere - haren ganik urrun erran elhe batzu, entzuten etzituenak, hala zena erraiten zuten elhe bertute gabeko batzu, baina hura alda etzezaketenen - , iduri zizatan alta Gilberte-ren auzo zen guzitik, horrela eskuztatuaren, besarkatuaren bortxaz, zerbait zorionezko jalgi-araziko nuela behar bada. Aitamer berriz ere erraiten nauen Gilberte-ek bere errientsa ontsa maite zuela, ehungarren aldian errepikatu solas horrek ondoriotzat azkenean bapatez Gilberte-ren sarr-araztea ukanen balu bezala, betiko gurekin bizitzera heldu. Berriz hasten nuen *Débats*-en irakurle andere zaharraren laudorioa (aitamer entzun-arazia nauen embaxadoresa bat zela edo «alteza» bat) eta jarraitzen nuen haren edertasunaren, handitasunaren, nobleziaren goraihatzen, Gilberte-ek errana zuen izenaren araura, Blatin Anderea izendatzen zatekeela eran nuen egunerano.

- Oi! baina zer den ikusten dut, egin zuen amak, ahalgaz gorritzen nintzan batean. Guardiara! Guardiara! hire aitaxi gaixoak erranen zian bezala. Eta hura duk ederra aurkitzen! baina izigarri itsusia duk eta beti hala izana. Uxer baten alharguntsa duk. Ehiza orhoitzen haurra hintzalarik, jima-ztikako ikastorduan zer itzuliak egiten nitikan haren huts egiteko, han, ni ezagutu gabe, eni mintzatzera jin nahi baitzian, «mutiko batendako ederregia hintzala» erraiteko estakuru. Beti ukana dik jendearen ezagutzeko errabia eta beti uste ukana diatan bezala ero mota bat izan behar dik bada, Zuan Anderea zinez ezagutzen baldin badik. Ezen jende arrunt batzuetarik baldin bazian, nik dakitanaz nehork ezтик bederen hartaz jeus erran. Baina behar zitikan beti ezagutzak egin. Laztagarria duk, ezin gehiago arrunta, eta horrekin eragozpen emailea.»

Zuanez zen bezainbatean, haren idurikoa izaitera entseatzeko, mahian ari nintzan beti sudurrari thiraka eta begier thorrika. Aitak bazion: «Haur hau zozoa da, itsusi-itsusia bilakatuko da.» Nahiko nukkeen oroz gainetik Zuan bezain garsoila bilakatu. Izaite hain ohi ez bezalakoa iduritzen zizatan nun migararri baitziduritan haiekin nindabilan jende batzuek ezagun zezaten ere eta edozein egunetako halabeharretan norbait haren aurkitzera ekharria izan ahal zadin. Aldi batez, amak, arrats oroz auhal-ondoan bezala, egunean eginak zituen itzuliez ari zizakularik, erran zuenean bakarrik «Ori,

Trois-Quartiers-etan nor aurkitu dutan asma ezazue, euritakoen salgunean: Zuan», enetako biziki agorra zen bere ixtorioaren erdian, mixteriozko lore bat zabal-arazi zuen. Zer atsegin gogo ilungarria, ikastea arratsalde hartan, naturaz gaineko bere soinara jendaldean marrazkituz, Zuan euritako baten erosten izana zela! Gertakari handi eta ttipien erdian, orobat zizaztanak, hunek phizten zituen nitan Gilberte-rendako nuen amodioa hetaz ethengabe hunkia zen dardarika bereziak. Aitak bazion jeusek eninduela axolatzen enintzalakotz beha egoiten Theodose erregeren ikustaldiak ukan zezazkeen politikako ondorioez mintzo zirenean, orduan Frantziaren gomita baitzen, eta, ziotenaz, harekin batasunean. Baina zenbat nuen, aldiz, Zuanek bere soingaineko kapuxaduna bazuenez jakiteko gutizia!

- Elgar agurtu zireztea? galdegin nuen.

- Baina erran gabe doak, ihardetsi zuen amak beti baitzuen, Zuane-kin hotzean ginela aithortu balu, nahi zuen baino gehiago akomeatzea bilatuko zutelako beldurra, ezagutu nahi etzuen Zuan Anderearen gatik. Hura da ene agurtzera jin, enuen ikusten.

- Baina beraz, etzirezte samurtuak?

- Samurtuak? baina zer gatik nahi duk samurtuak izan gaiten? ihardetsi zuen bizi-bizia, Zuanekin zituen harreman onen alegiari bortizki egina ukan banu eta «hurbiltze» batera lan egitera entseatua izan banintz bezala.

- Gehiago ez gomitatzeaz zuri aiher izan laiteke.

- Nehor ezta jende guziaren gomitatzera bortxatua; hark gomitatzen ote nau? Eztut haren emaztea ezagutzen.

- Baina Combray-ra jiten zen.

- Eta bai! Combray-ra jiten zian, eta Parisen bertze egitekorik badik, eta nik ere. Baina erraiten dauiat eztiagukala batere bi jende samurtuen itxura. Aphur bat elgarrekin egon gituk, bere paketa ezpaitzaukoten ekhartzen. Hire berriak galdegin dauztak, haren alabarekin jostatzen hintzala erran, gaineratu zuen amak, Zuanen gogoan banintzala jakiteko mirakuluaz ni miran ezarriz, eta gehiago, hori molde aski osoan zela, Champs-Elysées-etan haren aitzinean maitasunez ikharan nindagolarik, hark ene izena jakin zezantzat, ene ama nor zen, eta haren alabaren lagun izaiteko nuen gaitasunari eratxik ahal zitzan xehetasun batzu, ene aitatxi-amatxiez, haien jendakiaz, bizi ginen

lekuaz, gure lehengo biziko berezitasun batzuez, behar bada nik ezagutzen enituenez ere. Baina amak etzuen iduri zerbait bereziki gozagarri aurkitua zuela Trois-Quartiers-etako salgune hartan, Zuanendako ikusia zuen orduan, jende berezi bat itxuratua zuelarik, harekin elgarrekilako orhoitzapen batzu bazituena, Zuani haren gana hurbiltzeko urratsa egin-arazia zaukotena, eta haren agurtzeko jestua.

Bertzela ere ez amak ez aitak etzuten iduri Zuanen aitatxi-amatxiez mintzatzean, haren diru-aldatzale izen ohorezkoaz, bertze guziak gaindi zezazkeen atsegin bat aurkitzen zutela. Ene idurimenak Parisko jendea familia bat berezia zuen eta konsekratua, harrizko Parisean haren athe handia zizelkatua eta lehioer balio handi bat emana zauen etxe berezi bat egina zuen bezala. Baina edergailu horiek, nik nituen bakarrik ikusten. Zuan bizi zen etxea aitari bai amari Oihenako auzoalde berean eraiki bertzeak bezalakoa iduritzen zizeen bezala, berdin ere Zuanen familia bertze diru aldatzale ainitzen mota berekoa. Gutxi edo aski ontsa jujatzen zuten munduko gaineratekoen mereximenduetan barne izana zen araura eta berezirik jeus etzaukoten aurkitzen. Estimaten zutena aldiz, hein berdinean, edo goragoan, bertze nunbait edireiten zuten. Hortakotz etxea leku onean jarria aurkitu eta, hobean zen batez mintzo ziren, baina Gilberte-rekin ikustekorik jeus etzuen batez, aro haren aitatxi baino mail gorago batean ziren dirulari batzuez; eta ephe batez ene aburu bereko iduri ukana baldin bazuten, ezeztatzerantz berantzen etzuen gaizki entzun baten bidez zen. Hori zen, Gilberte inguratzen zuten guzian gaitasun ezezagun bati ohartzeko, sendimenduetako munduan margoetakoa gorriaz azpikoaren berdintsua izan daitekeenari, ene gurasoek etzutelakotz maitasunak dohatua ninduen sentsu gainerateko eta ephe bateko hartarik.

Gilberte-ek Champs-Elysées-etara jin behar etzuela jakin-arazia zautan egunetan, haren gana hurbil nindezaketen ibilaldi batzuen egitera entseatzen nintzan. Batzuetan Françoise beilan eremaiten nuen Zuan-darrak bizi ziren etxearen aitzinera. Gelditu gabe errepika-arazten naukon Zuan Andereaz, errientsaren ganik, ikasia zuen guzia. «Medailetan konfienxia handia omen du. Nehoiz ezta bidaiara abiatuko huntza entzuna badu, edo erloia tiki-taka bat bezala harresian, edo gatu bat «gaberditan» ikusia, edo

muble baten zurak, krask egina badu. Ha! biziki jende sinesteduna da!» Hain nintzan Gilberte-ez amaratua nun bidenabar haien etxeko mahi-nagusia ikusten baldin banuen zakurraren ibil-arazten, bihotz-hunkidurak gelditzera bortxatzen baininduen, haren matela-bizar zurietan begiak amodioz itzaten bainituen. Françoise-ek erraiten zautan:

- Zer duzu?

Gero, gure bidean jarraitzen ginen haien athe-handirano, han bertze guziak ez bezalako etxezain batek, bere sehi-jantziko galoneterano Gilberte-ren izenak sendi-arazia zautan xoragarritasun beraz hartua, iduri baitzuen bazakiela eni ethorkizko gaitasungabe batek beti haren zaintzeaz kargatua zen eta estaiarteko leihoek haren gainera hetsiak izaiteaz jakinean izaiteko itxura zuten bizi mixteriozkoan sartzea debekatuko zautala, eta, bertze edozein leihoekin baino egite gehiago baitzuten, bere musulinezko erridauen eroriaren artean, Gilberte-ren soekin. Bertze batzuetan, karrika handietara baginoazen eta Duphot karriko sartzean emaiten nintzan; errana zautaten Zuan Anderea han usu ikus zaitekeela bere horzkinaren etxera joanki; eta ene idurimenak hainbat zuen Gilberte-ren aita gainerateko gizon orotarik berexten, egiazko munduaren erdian haren izaiteak hainbertze miragarri zuen han sartzen nun, Madalenara heldu ere baino lehen, bihotza hunkia bainuen naturaz gaineko agertzea ustegabeen gerta zaitekeen karrika bati hurbiltzea gogoratuz.

Baina gehienetan, Gilberte ikusi behar enuenean, jakina bainuen Zuan Anderea bazabilala abantzu egun oroz «Akazietako» ibilbidean, Aintzira handiaren inguruan, eta «Margarita Erregina»-renean, Françoise eremaiten nuen Boulogne-ko Oihan aldera. Enetako ihiziekilako baratze hetarik zen, aurkitzen baitira han bildurik landaretze mota ainitz eta eskualde itxuraz kontrakoak, mendixka baten ondok harpe bat, phentze bat, harroka batzu, hobi bat, bertze mendixka bat, aintzi bat, baina norberak baitaki ezirela hor ibaizaldiaren, zaldixka marratuen, korkodilen, lapin errusiarren, otsoen eta amiamokoaren jauzier igurumen egoki eta leku margoztagarri baten eskaintzeko baizik. Hura, Oihana, batzuna ere, mundu ttipi ezperdin eta hetsi batzu elgarretara bilduz - zuhatz gorriez eta Amerikako haritzez landatu etxe bat, hala nola Virginian laboretxe zenbait, jarraik-arazten baitzuen izaidoi bat aintzira baten ondoan, edo, bapatez handik horradura malgu bat jalgitzen

baita, ihizi baten begi ederrekin, andere ibiltzale zenbait - , emazten Baratzea zen; eta haiendako - hala nola *Eneida*-n Arraianetako ibilbidea - zuhain mota bakar batez landatua, Akazietako ibilbidea Eder aiphatuener leku ohikoa zen. Handik urera egotzen den harrokaren gorak, urrundik, bozkarioz gainditzen dituen bezala beharrixipia ikusiko dutela badakiten haurrak, haien usainonak, Akazietako ibilbidera heldu baino biziki lehenago, inguruetera hedatuz, urrundik sendi-arazten zituen landare batzuen nortasun azkar guri baten hurbila eta berezitasuna, eta gero, hurbilagotzen nintzanean, haien orstail arin beratzaren punttaren ikusteak - aiphaintasun errex batean, bere mehe arinean polliki moztuan, hetara liliak ehunka jautsiak baitziren kuku-soeria balios hegaldun eta daldaratu bat bezala - , eta heien izen eme, auher eta eztiak ere, bihotza jo-arazten zautaten, baina gutizia mundutar batez, dantzaldira sartzean athezainak iragartzen dituen andere gomit ederren izena baizik orhoit-arazten eztaukuten balza hek bezala. Errana zautaten ibilbidetan andere aphin batzu ikusiko nituela, ez guziak ezkonduak izanik ere, ohiki Zuan Anderearen ondoan aiphatzen zirenak, baina gehienetan bere «gerlako» izenarekin; zuten izen berria, bazenean, etzen halako izen gordekako bat baizik, hetaz mintzatu nahi zuten gizonek arthoski agertzen zutena entzunak izaiteko. Ustex eta Ederra - emazten aphaundurari doakonean - hetan ikasirik izanak ziren lege ixil batzuek manatzen zuten, eta haren egiteko ahala bazutela, agerpen bat bezala onhartzen nituen aitzinetik erakusten zizutzen aphaindura, zaldi-karrosak, mila gauza, hetan ene sinestea ezartzen bainuen, bilduma iragankor eta higikor hari nagusi-lan baten arau berdindua emaiten zaukon barne-arima bat bezala. Baina Zuan Anderea nuen ikusi nahi, eta iragan zadin igurikan nindagon, Gilberte izan baliz bezain hunkia, haren aitamek, inguruan zuen guzia bezala, haren xoragarritasunaz beteak, nitan phizten baitzuten hark bezainbat maitasun, eta nahasmen mingarriago bat ere (harekilako hunkigunea debekatua zizatan haren biziko zati gordearekin baitzuten), eta, azkenik (ezen laster jakin nuen, ikusiko den bezala, harekin josta nindadin etzutela maite), guri gaizki egiteko indarra trabarik gabe derabilatener beti emaiten dauegun adorazione hura.

Lehenbiziko lekua, ezthetikako mereximendu eta handitasun mundutarren sailean lañotasunari emaiten naukon, ikusten nuenean Zuan Anderea oinez, oihale polonesezko soineko motx batean, nauder hegal batez

aphaindu xano ttipia buruan, briolet floka bat papoan, lehiatua, Akazietako ibilbidearen iragaiten etxera sartzeko bide laburrena baizik izan ezpaliz bezala eta begi klixka batez ihardesten karrosetako jauner, hauek, urrundik haren itxuraren ezagutzean, agurtzen baitzuten bere baitan erranez hainbertze aphaintasun zuenik nehor etzela. Baina, lañotasunaren orde, aberaskeria nuen gorenean ezartzen, Françoise, ezindua eta zangoak «sartzen» zizazkola ziona, bortxatu ondoan oren batez harat-hunatean ibiltzen, ikusten banuen azkenean, Porte Dauphine-tikako bidexkan agertzen - enetako ospe erregetar baten iduria, ethortze goien batena, egiazko erregina edozeinek ezpaitaut ondotik halakorik eman ahal ukan, haien botereaz nuen gogo a gutiago uherra eta entsegu gehiagokoa zelakotz -, Constantin Guys-en marrazkietan ikusten diren bezalako bi zaldi suhar, mehar, itzulikatuek airean eremana, karrosa ideki paregabeko bat, gaitzeko karrosazain batekin kosaka bat bezain horratua alkian jarria, Baudenord zenaren «tigrea» orhoit-arazten zuen «groom» ttipi baten ondoan, ikusten banuen (edo izaitekotz haren itxura senditzen zauri bizi eta ahigarri batean bihotzean jartzen) karrosa ideki bat apur bat nahitara goratua eta bere aberastasun azken modakotik lehenagoko molde batzuen aieruak agertzeraz uzten zituena, haren barne zolan baitzagon guriki Zuan Andrea, ile orai horailak xerlo hauts koloreko bakar batekin lore xerenga mehe batez inguraturik, gehienez brioletak, handik jausten baitziren oihalarin luze batzu, eskuan iguzkitako malba kolore bat, ezpainenetan irriño ezpaiko bat, hartan ezpainen Maiestate baten onezia baizik ikusten baina baitzuen oroz gaintetik emazte ordaindu baten ozartasuna, eztiki gurtzen zuelarik agurtzen zuten jendetara. Irriño horrek bazion batzuer: «Biziki ontsa orhoit niz, goxagarri zen!»; bertze batzuer: «Zenbat gustatuko zizatan! zori gaixtoa izan da!»; bertze batzuer: «Baina nahi baduzu! Ephe batez oraino lerroari jarraikiko niz eta ahal bezain laster, moztuko dut.» Ezezagun batzu iragaiten zirenean, ezpainen inguruan uzten zuen irriño auher bat, adixkide baten igurikan edo orhoitean bezala, erran-arazten zuena: «Zein ederra den!» Eta gizon berezi batzuendako bakarrik bazuen irriño mingar, bortxazko, herabe 'ta hotz bat, erran nahi baitzuen: «Ba, gaixtoa, badakit suge mihi txar bat duzula, elhekatzetik egon etzaitkeela! Zutaz axola duta, nik?» Coquelin bazoan entzuten zuten adixkide batzuen artean solasean eskuaz eginez, kar-

rosan ziren jende batzuer, antzokiko egunon zabal bat. Baina enuen Zuan Anderea baizik gogoan eta ikusia ezpanu bezala egiten nuen, bainakien urzo tirokaleku heinera heltzean karrosazainari erranen zaukola lerroa motz eta gelditi zezan, ibilbidearen jausten bera oinez joan ahal zadin. Eta haren ondotik iragaiteko bihotza banuela sendi nuen egunetan, Françoise baneraman alde hortara. Epehe batez, alabaina, gure aldera jiten ari, oinezkoen ibilbidean nuen Zuan Anderea ikusten bere zaia malba-kolorearen buztan luzea gibelean hedatzen utziz, jendeak erreginak asmatzen dituen bezala bertze emaztek eztituzten oihal eta aphaindura aberatsak soinean, behakoa batzuetan iguzkitakoaren giderrera aphalduz, iragaiten ziren jendez guti axolatua, bere egiteko nagusia eta helburua gorputzaren ibil-araztea ukan balu bezala, ikusia zela gogora eman gabe eta buru guziak haren aldera itzuliak. Batzuetan alta, erbi-xakurraren deitzeko itzulia zenean, bazeman inguruan ohartu gabeko so bat.

Ezagutzen etzutenak berak ere zer bait berezi eta soberakinek abisatzen zituen - edo behar bada telepathiazko irradiatze zenbaitek, Bermasa goren-gorenean zen orduak jende jakitate gabean eskuzartatze batzu eroki sustatzen zituztenean bezala - jende aiphatu zenbait zatekeela. Bere baitan egiten zuten: «Nor da?», batzuetan iragaile bat galdekatzen, edo bere buruari hitzemaiten aphainduraz ezagubide batez bezala orhoituko zirela berehala xehetasunak emanen zauzteen adixkide hobeki jakin batzuek. Bertze ibilkari batzuek, erdi gelditurik, bazioten:

- Badakizue nor den? Zuan Anderea! Eztatuz horrek jeus erraiten? Crécy-ko Odette?

- Crécy-ko Odette? Baina egiten nuen ere, begi trixte horiek... Baina badakizu eztaitekeela gartzaro lehenekoa! Orhoit niz harekin etzana nizala Mac-Mahon-en kargu uzteko egunean.

- Uste dut hortaz ez orhoit-araziz hobeki egin zinezakeela. Zuan Anderea da orai, Jockey-ko Jaun, Gales-ko prinzearen adixkide den baten emaztea. Oraino eder-ederra da bertzela ere.

- Ba, baina ordu hartan ezagutu bazinu, zein pollita zen! Xineria batzuekilako hotel ttipi batean bizi zen. Orhoit niz egunkari oihukatzen harrabotsaz poxelatuak ginela.

Erran horiek entzun gabe, sendi nuen haren inguruan omenaren murmurika uherra. Ezin-egonaz bihotzak joiten zautan gogoratuz ephe bat iraganen zela oraino jende horiek guziek - lastimarekin ohartzen bainintzan haien artean etzela haren ganik gutietsia sendi nintzan diruzain beltzuri bat - ikus zezaten baino lehen hartaz batere axolatzen etziren mutiko gaztea, agurka (hura ezagutu ere gabe, egia erran, hori haizu zizatala uste nuen aitamek haren senarra ezagutzen zutelakotz eta ni haren alabaren jostakidea nintzalakotz), ederraren, bizi molde gaitzaren eta aphaintasunaren omena mundu guziko zen emazte hari. Baina Zuan Andrearen ondo-ondoan nintzan jadanik, orduan xapelaz gur bat hain handi bat emaiten naukon, hain hedatua, hain luzea, nun ezpaitzaikkeen egon irriño bat gabe. Jende batzuek irri egiten zuten. Hark aldiz, eninduen ehoiz ikusia Giberte-rekin, ene izena etzakien, baina harendako - Oihaneko zaintzale batzu, edo untzi zaina, edo ogia botatzen zauen aintzirako ahateak bezala - oihanean ibilaldi horietako bigarren maileko jende etxekotu, izengabeko hetarik nintzan, «antzokiko langile» bat bezain nortasun berezi gabekoetarik bat. Akazietako ibilbidean ikusia enuen egun batzuek gertatzen zizatan haren aurkitzea Erregina-Margaritaren ibilbidean, hara baitoaz bakarrik izaita bilatzen duten edo hori bilatzen dutela iduri nahi duten emazteak; etzen luzaz hala egoiten, berehala gizon adixkide bat haren gana baitzoan, ainitzetan xapel «tuta» hauts-koloreko bat buruan, ezagutzen enuena eta luzaz harekin solastatzen zena, bien karrosak jarraikitzen zizezteen batean.

*

Boulogne-ko Oihanaren batzuntasun hori leku alegiazko bat egiten baitu eta, hitzaren erran-nahi zooligiazko edo mithologiazkoan, Baratze bat, berraurkitu dut aurten Trianon-era joaiteko zeharkatzen nuelarik, hazaroko goiz lehenetarik batez, orduan, Parisen, etxetan, ohartu gabe hain laster bururatzen den larrazkeneko ikusgarriaren hurbilak eta gabeziak emaiten baitute bihotzmin bat, lokhartzea debekatzera joan daitekeen orsto zimelduen egiazko sukar bat. Ene gambara hetsian, bazen ilabete bat, haien ikusteko nuen gutiziak deiturik, jartzen zirela ene gogamenaren eta hartan ari nintzan edozein gauzaren artean, eta itzulikatzen hala nola gure begien aitzinean, zer ere badagigun, batzuetan jantzan ari diren titta horiak. Goiz

hartan, euria ezpainuen aitzineko egunetan bezala entzuten, eguraldia ikusiz irriñotan erridau hetsien xokotik, bere zorionaren segetua joaitera uzten duen aho hetsi baten ezpain xokoetarik bezala, senditua nuen orsto hori argiaz hartuer beha egon nindaitekeela, bere edertasun gorenean; eta zuhatzen ikustera joaiteko ezin igurikatuz, haizeak lehenago khebidean azkarregi joiten zuenean, itsas-bazterrera abiatzeko baino gehiago, Trianon-era joaiteko atheraia nintzan, Boulogne-ko Oihanean gaindi. Behar bada Oihanak aberatsenean iduri duen orena zen eta urtaroa, ez bakarrik zatikatuenean delakotz, baina bertze molde batean egina. Ere mu handiena erakusten duten gune idekietan ere, han-hemenka, orstori gehiago etzuten zuhatzen meta urrundu ilunen aitzinean edo udako orstoak oraino atxikiak zituztenenean, itsas-gaztena iranja koloreko lerro bikun batek, doi-doi hasi den margazki batean bezala, iduri zuen bakarra zela ordukotz aphaintzaleak margoztatua zuena gaineratekoan margorik ezarri gabe, bere ibilbidea argi betean luzatzen zuela berantago baizik ezarriko etziren jende batzuen ibiltze gertaldizkoarendako.

Urrunago, orsto musker guziek zuhatzak estaltzen zituzten lekuan, bakar batek, tipi, lodi, burua motz eta gogor, haizera inharrosten zuen ileantze gorri itsusi bat. Bertze nunbait orstoan aro horren lehenbiziko atzarraldia zen, eta basa-mahats batenak, miragarri eta negu elhorrigorri bat bezala irriñotan, goizetik beretik lore betean ziren. Oihanak bazuen mindegi edo parke baten itxura iragankor alegiazkoa, han, ala landatzetako abantail baten gatik, ala besta baten antolamenduetako, ezarri berriak baitira, oraino lekuz aldatuak etziren zuhatz mota arrunteko batzuen erdian, hirurzpala mota balios, ametsetako orstailarekilakoak, inguruan huts bat erresalbatzen dutela iduri, airea emaiten, argia egiten. Horrela Boulogne-ko Oihanak mota ezperdin gehiena erakustera bademan eta bilduma nahastekatu batean zati berezi gehiena metatzen duen urtaroa zen; bai orena ere. Zuhatzek oraino orstoak bazaduzkaten leketan, iduri zuten bere gaiaren andeatze bat jasaiten zutela iguzkiaren argiaz hunkiak ziren gunetik, abantzu errara goizean, zenbait oren berantago berriz jarriko zen bezala, orduan, ilunabar hastean girisailu baten aran phizten denean, orstailera urrundik igortzen baitu leinuru alegiazko bero bat, eta garretan ezartzen baititu bere kukula suteak hartuko gandelar

ezin erre hitsa gelditzen zakon zuhatz baten orsto gorenak. Hemen, loditzen zituen, adarailu batzu bezala, eta, harresi persiar hori urdinez marrazkitu batek bezala, zeruari arrunki lotzen itsas-gaztenen orstoak; han aldiz hartarik berexten zituen, erhi urrezko xifrituak haren gana itzultzen zituztela. Basamahatsez jantzia zen zuhatz baten erditan, xertatzen zuen eta zabal-arazten, lilluramenean ezin garbiki ikuskarri, lore gorritzko - julufre mota bat behar bada - floka gaitzeko bat. Oihanaren zati guziak, udan hobeki elgarri nahiak orstailduren loditasun berdinean, agerian gertatzen ziren. Gune argitua-go batzuek ikustera uzten zuten abantzu guzietako sartzea, edo ere orstatze aberats batek seinalatzen zuen ikurrina batek bezala. Kolorezko karta batean bezala ageri ziren Armenonville, Pré Catelan-a, Madrid, Lasterretako landa, Aintziraren bazterrak. Artetan behargabeko eraikuntza zenbait agertzen zen, harpe falsu bat, eihera bat zuatzek baztertuz lekua emaiten zaukotena edo soropil batek aitzinera ekhartzen zuena bere zabalza gurian. Sendi zen Oihana etzela bakarrik oihan bat, zuhatzen bizitik berex zen xede bati ihardesten zuela; ene gogo-berotzea etzuen larrazkenaren miresteak egiten, baina gutizia batek. Arimak senditzen duen bozkario baten ithurburu handia, arrazoina zer duen lehenik ezagutu gabe, kampoan jeusek eztuela eman-arazten hartu gabe. Hortako nindagon zuhatzer beha hek gainditzen zituzten xamurtasun asegabe batean, ene ohargabeen bazoana egun oroz zenbait orenez biltzen dituzten andere ibilkari ederrek badagiten ederlan nagusi hartara.

Akazietako ibilbide aldera joan nintzan. Iragan nituen zuhazti batzu hetan goizeko argiak, zatikatze berri batzuetara bortxatuz, zuhamuak xedarrazten baitzituen, abar guziak elgarrekin ezkontzen eta floka batzu moldatzen. Bi zuhatz bereganatzen zituen trebeki; arraiaren eta itzalaren zizel indardunaz baliatuz, bakoitzari ebakitzen zaukon ondoaren eta abarren erdia eta, gelditzen ziren bi zatiak elgarrekin josiz, hetaz egiten ala itzal zutabe bakar bat inguruneko iguzkitzeak mugatzen zuena, ala argizko mamu bakar bat haren itzuli alegiazko daldaratua itzal beltzezko sare batek inguratzen baitzuen. Iguzki arrai batek abar gorenak urreztatzen zituenean, iduri zuten, heze dirdiratu batez bustiak, bakar-bakarrik jalgitzen zirela hartan itsas-pean bezala zuhazti osoa murgildua zagon aire ixurgai eta esmeralda kolorekotik. Ezen zuhatzek bere bizi bereziaz bizitzen jarraikitzen zuten eta, gehiago ors-

torik etzutenean, bizi harek hobeki dirdiratzten zuen haien zurak inguratzen zituen balusa muskerraren horraduran edo zuharren gain-gaineen barreatuak ziren miula boilen esmail xurian, Michel-Angelo-ren *Kreazionea*-n iguzkia eta ilargia bezain biribil. Baina, hainbertze urtez geroztik halako xerto batez emaztearekin batean bizitzera bortxatuak, gogoratzen zautaten oihanetako jainkosa, iragaitean bere abarrez estaltzen duten eta hek bezala urtaroko indarraren senditzera bortxatzen duten andere mundutar ederra, zalua eta margoztatua. Ene gaztaro sineskorreko aro zori onduna orhoit-arazten zautaten, amikaturik heldu nintzanean emazten aphaindurako ederlan nagusi batzu ephe batzuez eginen ziren lekuetera orstail sendimendurik gabeko eta lagunkiden artean. Baina Boulogne-ko Oihaneko akazia eta izaiek gutiziarazten zuten ederra, hortan Trianon-go itsas-gaztenak eta lilak baino hunkigarriago, etzagon nitaz kampoan, aro berezi bateko orhoitzapenean, ederlan batzuetan, haren oinean orsto urrez palmatuak metatzen diren Amodioaren templo ttipi batean. Aintzira hegietara heltzen nintzan, bainindoan Urzo tirokalekurano. Nitán nereman beteginzarrearen ideia, orduan karrosa ideki baten goratasunean ezarria nuen, zaldi erotu eta leizafinak bezain arin horien mehetasunean, Diomede-ren zaldi abreak bezala begiak odolez gorrituak, orai nahi baintuena, maitatua nuenaren berriz ikusteko gutiziaz, urteak eta urteak lehenago bide horietara beretara bultzatzen ninduen bezain suharraz hartua, berriz begien azpian ukan, Zuan Anderearen gaitzeko karrosazaina, ukhomiloa bezain handi eta Sant Iurge bezain haurra zen «groom» ttipi batek zaindurik, entseatzen zelarik ohilduak eta daldaran zalapartatzen ziren haien alzeiruzko hegalez nagusitzera.

Ondikotz! gehiago etzen mekanikalari muxtaxtun batzuek, mutil jantzidun handi batzu lagun, zeramatzaten beribilik baizik. Nahi nituen ene gorputzeko begien aitzinean atxiki, orhoitzapenaren begiek ikusten zituztenak bezain xoragarriak zirenez jakiteko, emazten xapel ttipi batzu hain apha-lak nun korona xoil baten itxura baitzuten. Guziak orai gaitzekoak ziren, fruituez eta liliez eta mota ainitzetako xoriez estaliak. Hetan Zuan Andereak erregina bat iduri zuen zaia ederren orde, soineko erdi greka erdi aleman batzuek bazaduzkaten, Tanagrako gizaidurien izurretan, zenbaitetan ere «Directoire» moldean, «liberty» zimurkatu batzu paper thindatuak bezala liliez

ihaurtuak. Erregina-Margaritaren ibilbidean Zuan Anderearekin ibiliko ahal ziren jaunen buruan, enuen lehenagoko xapel hauts kolorekoa edireiten, ez eta bertzerik ere. Buru-has atheratzen ziren. Eta, goritasunaren, batasunaren, izaitearen emaiteko, enuen gehiago ikuskarriaren zati berri horietara guzietara ekhartzeko sinesterik; bazoazen ene aitzinean barreatuak, nola nahika, egiarik gabe, bere baitan etzadukatela ene begiak lehenago bezala moldatzera entseatu ahalko ziren edertasunik batere eduki gabe. Edozein emazte ziren, haien aphaintasunean sineste izpirik enuenak eta haien jantziak balio gabe-koak zizaztanak. Baina sineste bat itzaltzen denean, bizirik gelditzen zako, gero eta bizkorrago, gauza berri batzuer izaitearen emaiteko galdua dugun indarraren eskasaren gordetzeko, bizia emana zauen zaharren alderako atxikimendu fetixizta bat, jainkotarra hetan egoiten baliz bezala eta ez gutan eta gure oraiko sineskabeak bazterreko arrazoin bat balu bezala, Jainkoen hiltzea.

Zer ituskeria! nion neure baitan: beribil horiek lehenagoko karrosak bezala aphainak aurki daitezke? zahartuegia nizateke jadanik, baina eniz oihalezkoak ere eztiren zaia batzuetan emazteak trabaturik dauden mundu bateko egina. Zergatik ethor zuhatz hauen azpira, jeus ezpada hor orstail beratx gorritzera eman horien azpian biltzen zenetik, arrunkeriak eta erokeriak ordaindua baldin badute hautekoeunik zadukatena? Zer itsuskeria! Ene konsolamendua, ezagutu ditutan emaztez gogatzeta da, aphaintasunik eztuen gaurregun huntan. Baina baratze batez edo hegaztindegi batez estali xapelekilako izaite ezin itsusiago horier beha dauden jendek, nola sendi lezakete ere zer xoratzekoa zen Zuan Anderearen ikustean malba-koloreko kapusail xoil bat edo liringorri lore bakar bat xut-xuta ageri zuen xapel ttipi bat buruan? Gogoan harr-arazten ahalko nauena ere zer sendi nuen neguko goizetan Zuan Anderearen aurkitzean oinez, uhaderazko maripulisa soinean, bi epher lumen orratzek gaintitzen zuten bonet laño bat buruan, baina inguruan haren bizitegiko ephel berezia gogoratua zenean, papoa zapatzen zaukon briolet flokaz bakarrik, hunen lilitze bizi urdinak zeru hauts-kolorearen, aire hormatuaren, zuhatz abar buluziekikakoen aitzinean, baitzuen aro eta sasoina kadre bat bezala baizik hartzen etzituelako xoragarritasuna, aire gizatar batean, emazte haren aro-airean baizik ez bizitzekoa, haren saloineko lore

‘ta landare-untzietan, su phiztuaren ondoan, zetazko kanapearen aitzinean, ari zen elhurrari leiho hetsitik so zauden liliek zuten xoragarritasun bera? Bertzela ere jantziak urte hetakoak berak izan zaiten etzizatan aski izanen. Orhoitzapen baten zati guziak elgarrekin lotuak direlaketz, eta gure orhoitak heinez berdinduak baitaduzka hartarik ezer bazter edo utz eztezakegun muntadura batean, nahiko nuen egunaren bururatzera joan emazte horietarik baten etxera, the kiker a baten aitzinean, ilunki margoztatuak ziren murruekilako bizitegi batean, oraino Zuan Anderearena zen bezala (ixtorio hunen zati lehena bururatzen den ondoko urtean), han su iranja-kolorekoek, erretzearen gorriak, dona-marte loren gar gorraxta xuriak dirdiratuko baitzuten hazaroko ilunabarrean, gutiziatzen nituen atseginen aurkitzen (gero ikusiko den bezala) jakin ahal enuen orduak bezalako batzuetan. Orhoitzen nintzan bezala berrediren nahi nituen. Ondikotz! etzen gehiago Luis XVI-garrenaren arako bizitegi xuri-xuri batzu baizik, hortenzia urdinez loreztatuak. Bertzela ere, Parisera etzen biziki berant baizik itzultzen. Zuan Andereak jauregi batetik ihardetsiko zautan etzela otsailean baizik sartuko, dona-marte loreak baino biziki berantago, galdegina ukan baldin banauko enetako bermolda zitzen hartara igaitea haizu etzizatan urte urrundu bati, behar bada milako bati lotua zela sendi nuen orhoitzapen hura egiten zuten gaiak, lehen debaldetan jarraikia zizakon atsegina bezain ezin hatzemana bilakatua zen gutizia harenak. Eta beharko nuen ere emazte hek berak izan zaiten, haien aphaindura ohargarri zizaztanak, zeren eta, sinestea oraino banuen aroan, ene idurimenak bakoiztuak zituen eta leienda batez hornituak. Ondikotz! Akazietako ethorbidean - Arraianetako ibilbidean - andere hetarik batzu ikusi nituen, zahartuak, ezpaitzuten gehiago izanak zirenen itzal izigarria baizik, ibilki, xara virgiliarretan nik dakita zeren bila. Bazen aspaldi ihes egina zutela, bide hustuetan galdeka nindabilalarik oraino.

Iguzkia gordea zen; natura berriz nagusitzen ari handik Emaztearen Baratze elysearra izana zelako ideia airatua zen Oihanean; eihera falsuaren gainean zerua hauts-kolore; haizeak Aintzira Handia uhain ttipi batzuez izurkatzen zuen, edozein aintzira bezala; zori gotor batzu bazabiltzan zalu-zalua Oihanean, edozein oihanetan bezala, eta garrasia handi batzu eginez bat bertzearen ondotik gelditzen haritz handietan, hauek bere korona druidiar-

ren azpian iduri baitzuten, maiestate dodonear batekin, oihan utziaren huts gizakiz gabetua oihukatzen zutela, eta gauzetan orhoiteko itxuren bilatzea kontra-egin bat dela gogoan hartzera laguntzen ninduten, den gauzak beti eskas ukanen baititu orhoitak berak bademakon xoragarritasuna eta sentsuetarik hartua ez izaitea. Ezagutua nuen hura gehiago etzen. Zuan Andrea etzadin ordu berean berdin-berdina ethor aski zen, Ibilbidea osoki bertzelakoa izan zadintzat. Ezagutu ditugun lekuak eztira bakarrik errextasun gehiago ukaiteko han ezartzen ditugun eremukoak. Orduko gure bizia egiten zuten iduripen elgarri lotuen erdian, etziren xerra mehe bat baizik; iduri berezi baten ohoitzapena ezta ephe berezi baten urrikiaz bertzerik; eta etxeak, bideak, ethorbideak, iheskor dira, urteak bezala ondikotz!

Postface du traducteur
Un titre fameux et problématique:
«Du côté de chez Swann.»

Quand Marcel Proust s'est apprêté à publier en 1913 *Du côté de chez Swann*, le premier volume de son *A la recherche du temps perdu* dont il ne prévoyait sans doute pas alors les dimensions que le roman prendrait au cours des années jusqu'à sa mort en 1922, il s'est interrogé sur la manière dont serait reçu un titre romanesque aussi inhabituel et inattendu: *Du côté de chez Swann*. Certains de ses contemporains du reste ne s'y sont jamais faits. Morceau tronqué de phrase d'extrême banalité quotidienne (par exemple «Nous étions hier du côté de chez X.»), orné d'un nom d'état civil de forme «non française» (anglo-germanique ou peut-être hébraïque) à l'apparence de surnom (*swan* en anglais, *schwan* en allemand «cygne») bien qu'existant par ailleurs réellement, avec un double *nn* qui oblige à le prononcer au lieu d'une simple voyelle nasale que serait un *-an* français, il avait de surcroît un «double génitif» stylistiquement fâcheux, au moins apparent *du ... de ...*, qui embarrassait l'auteur lui-même. Il devait sentir néanmoins que son instinct littéraire, celui que le narrateur du roman («je») regrette tant de ne pas posséder, était assez sûr puisqu'il l'a maintenu, quitte à le faire suivre et compléter d'un dissymétrique *Le côté de Guermantes*, titre lui de forme habituelle et où le «double génitif» était exclu.

De génitif, terme improprement passé de la déclinaison latine à l'usage français, se définissant comme «le complément déterminatif d'un nom, précédé de la préposition *de*», l'expression «du côté de chez S.» n'en comporte qu'un seul: «de Swann» complétant «côté». Si «chez» était développé selon son sens et son étymologie (du latin *casa* «hutte, chaumière, maisonnette» d'où le roman *casa* «maison», y compris en toponymie française ancienne: «La Chaise-Dieu» etc.), «du côté *de* la maison *de* S.» il y aurait effectivement «double génitif». En traduction basque, langue à déclinaison comme le latin, qui ne fonctionne pas pourtant par «désinence» modifiant la terminaison du nom mais par suffixe s'ajoutant au nom sans le modifier en quoi que ce soit, dont on verra l'utilité pour éclairer le problème, le double

génitif devient obligatoire et au sens réel, puisque le basque a un cas génitif (et même deux *-(r)en* dit «possessif» et *-ko* dit «locatif»): comme par exemple en espagnol faute d'un adverbe comme «chez» hérité du latin («lado *de* la casa *de* S.»), il faudrait, avec l'inversion intégrale de l'ordre des termes en basque par rapport aux langues romanes et puisque *Swann* a sa transcription basque intégrale et exacte par Zuan, «Zuanen etxeko alde...» Mais comme en basque la simple juxtaposition sans marque de cas vaut «génitif» on évite aisément la lourdeur stylistique des deux vrais génitifs successifs: «Zuanen etxe alde».

Quant à la préposition *de* incluse dans le *du* initial, contraction d'un ancien *de le* (roman *del* puis *deu* par vocalisation de *l* en *u*, qui s'est réduit à *du*), les langues déclinées, latin ou basque, serviront de pierre de touche, si la réflexion n'y suffisait, pour révéler la véritable fonction du groupe «du côté» que le contexte incomplet de ce titre ne montre pas. Il se s'agit en rien d'un génitif, c'est-à-dire d'un «complément déterminatif de nom», puisque c'est un verbe qui est omis et complété par «du côté». On aurait essentiellement trois possibilités: un verbe exprimant le mouvement «venant de» (Je viens du côté de chez S.), un autre de sens contraire (Je vais du côté de chez S.), et un verbe exprimant le lieu sans mouvement (Je suis, je reste, j'habite, je décris ce qui se passe etc. du côté de chez S.). Dans les trois cas il n'y aura de génitif ni en latin, ni en basque. En latin, pour simplifier car l'emploi des cas ablatif, accusatif ou génitif en déclinaison latine est fort complexe, ablatif précédé ou non de la préposition *e(x)* ou *a(b)* «venant de» dans le premier cas, accusatif précédé ou non de la préposition *in* ou *ad* «venant à, allant vers», et pour exprimer le lieu sans mouvement ablatif précédé ou non de la préposition *in* (dont l'héritier roman direct est *en*), mais aucun génitif. En basque dont la déclinaison a des cas exclusivement «locatifs» les choses sont plus simples et encore plus claires: adlatif pour exprimer le mouvement «allant vers» - *etxe alde* → *ra(t)* -, l'élatif (dit parfois ablatif) pour «venant de» - *etxe aldetik* -, et sans idée de mouvement ni «aller» ni «venir» l'inessif (du latin *in* auquel ressemble étrangement le suffixe basque): *etxe aldean*.

Mais quels sont donc exactement la phrase et le verbe omis ou sous-entendus et complétés par le titre proustien «... *du côté de chez Swann*»? On a pu comprendre un mouvement «venant de», qui serait en latin l'ablatif et

en basque l'élatif: «/En venant, revenant etc./ du côté de chez S.», en basque «aldetik». Mais le contenu du livre montre clairement que si la maison de campagne de Swann («chez S.») est bien un lieu essentiel des promenades de la famille et de la vie même du narrateur passant leurs vacances à Combray, lieu transposé de la petite ville d'Illiers dans l'Eure-et-Loire (aujourd'hui Illiers-Combray) où la famille de l'auteur séjournait effectivement, les promenades s'y font nécessairement aussi bien à l'aller qu'au retour. S'y ajoute le fait que l'intérêt du nom «Swann» dépasse de très très loin le sujet des seuls circuits de promenades, par les visites et dîners de Swann chez le narrateur en vacances, qui prennent une telle importance le soir du «baiser refusé» de la mère à l'enfant allant se coucher, par les liens avec la famille, moins Swann lui-même, héros déçu de la deuxième partie *Un amour de Swann*, que sa femme l'ex-demi-mondaine «Odette de Crécy» née à Nice, la «dame en rose» et la maîtresse de l'oncle du narrateur (et de beaucoup d'autres), avant d'être «Madame Swann» (puis «de Forcheville»), de leur fille Gilberte Swann «amour enfantin» du narrateur et future «Mme de Saint-Loup» la femme de son meilleur ami, Robert de Saint-Loup, un «Guermantes» lui, situé «de l'autre côté» de Combray et à Combray même, avec son église Saint Hilaire où apparaîtra aux yeux éblouis du petit narrateur la future duchesse Oriane de Guermantes, dame encore féodale du lieu. Non il ne peut s'agir d'élatif et d'un point de départ.

L'adlatif alors? «(En allant, en se promenant) du côté de chez S.», en basque «Zuanen etxe aldera(t)». Il est vrai que la rencontre faite dans l'une de ces promenades, où la petite Gilberte est vue dans le jardin de sa maison faisant une invitation gestuelle clairement inconvenante au narrateur, prend une importance considérable dans la suite du roman, des jeux aux Champs-Élysées jusqu'au *Temps retrouvé*, le dernier volume laissé par Proust sinon proprement inachevé du moins un peu imparfait, où le narrateur retrouve Gilberte mariée puis veuve de guerre. Le «du côté» a pu être compris aussi au sens de l'élatif basque «vers la côté» avec plus de raison sans doute qu'au sens d'élatif.

Nous pensons raisonnablement et tout bien considéré que la vérité est ailleurs, et pour tout dire «dans un lieu donné et sans mouvement», dans ce «Combray et ses environs» assez vaste lieu de vacances et de promenades,

le côté de Swann mais aussi celui de Martinville et autres villages, les bords de la Vivonne, les routes qu'on y fait à pied ou en carrosse avec pour centre la maison de la «tante Léonie» où Swann vient dîner parce que son père a été ami du grand-père du narrateur, mais jamais sa femme tenue très longtemps (pas toujours) à l'écart par la société bien-pensante, bourgeoisie et noblesse. Le premier livre de *La Recherche du temps perdu* se passe «dans» ce lieu de vacances, Combray (titre du premier chapitre) et ses environs, marqué par le nom, la maison, la famille, la vie et les amours de Swan. Le narrateur accède à cet univers parce qu'il passe ses vacances «du côté de chez Swann»: «Zuanen etxe aldean», à l'inessif, cas locatif sans mouvement en basque.

En latin il faut d'abord définir «côté» non au sens de «position latérale» mais de «voisinage, environs» (sens que le basque «alde» intègre parfaitement aussi bien que celui de «direction», que le contexte exclut ici). Avec l'ablatif de sens locatif «le lieu où l'on est» précédé de la préposition *in* pour éviter des sens non locatifs de l'ablatif, un ordre des mots inversé comparable au basque et un double génitif cette fois obligé mais phonétiquement imperceptible, en admettant «cygne» pour Swann, on aurait quelque chose comme: «In Cygni domus vicinitate».

Jean-Baptiste Orpustan. 20-IX-2013

Aurkibidea

Zati lehena. Combray	p. 3
Zati bigarrena. Zuanen maitasun bat	p. 171
Zati herena. Herri izen	p. 353
Postface du traducteur	p. 394

2013ko abenduan inprimatua
Achévé d'imprimé en Décembre 2013
Graficas Lizarra - Nafarroa
ISBN : 978-2-9541377-2-8

Bertsio numerikoa eta hiztegiak :

www.tipirena.net

ZTK argitaletxea
Haritzeta bilduma

"Combray (gaurregun "Illiers-Combray", Eure-et-loire), haurzaroaz orhoitzen den erraileak bere familia paristarrerekin, aitamak eta aitatxi-amatxiak, lanartetako egunak iragaiten zituen hiri ttipia, bere karrika, auzo, saldegiekin eta elizarekin, "Léonie izabaren" etxean, hau jadanik eri ohatua; eta hara Zuan, jaun aberats familiako ezaguna eta auzoa, ikustaldi egitera eta auhaltzera jiten, bakarrik beti, emaztea "Odette", ezkont-aitzinean andere arin izanik, ezpaita oraino jende "onesten" artean onhartua; gero luzaz eta xheki erakutsia, nola Zuan-ek aurkitu zuen Odette "Verdurin" burjes dirudunen saloineko "multxo ttipian", maitatu eta, zorigaitzez, ezkondu, eta Gilberte hauen alaba aitamen etxeko baratzean ikusia lehenik, gero Parisen errailearen haurzaroko jostakide 'ta amore... Horra Aro galduaren bila Proust-en elharri handiko lehen liburu Zuanen etxe aldean, 1913-an agerr-arazi zuenaren gaia, gero hemen besta batez elizan agertzen den bertze aldera, Guermantes-ko-ra, XIX-garren mende azkeneko noblezia handira sartzea ukan baino lehen.

Euskararen
erakunde
publikoa

Office public de
la langue basque



Haritzeta

Haritzeta liburuak

Argitaletxea : ZTK elkartea


64430 BAIGORRI

info@ztk.fr

www.ztkdiskak.com

10€00

ISBN : 978-2-9541377-2-8



9 782954 137728

